

Frantziako Tourra frantziar, espainiar eta euskal prentsan (1903-2013): kazetaritza eta nazio-identitatea

*Kazetaritza jarduera, edukia, naziotasun-identitatearen
enkontrea eta bilakaera historikoa*

DOKTOREGAIA:
PATXI XABIER FERNÁNDEZ

ZUZENDARIA:
IÑAKI ZABALETA URKIOLA

DOKTORE TESIA

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Doktore tesia

Frantziako Tourra frantziar, espainiar eta euskal prentsan (1903-2013): kazetaritza eta nazio-identitatea

Kazetaritza jarduera, edukia, naziotasun-
identitatearen enkoadrea eta bilakaera historikoa

Egilea: Patxi Xabier Fernandez Monje

Bilbo, 2021eko uztailaren 15a

Zuzendaria: Iñaki Zabaleta Urkiola

Kazetaritza Saila

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

UPV-EHU

1 Eskaintza

Ez zen betidanik izan, baina betirako izango da.

2 Eskerrak

Eskerrik asko esateko orduan, zorionez, tesi hau osatzeko erabili dudan bezainbesteko espazioa beharko nuke. Nondik hasi? Zalantzarik ez: eskerrik asko Iñaki Zabaleta Urkiola izan duzun pazientziarengatik, zure ondoan ikasi dudanarengatik eta eskainitako laguntzarengatik. Bai, jakin badakit, primeran gainera, estilo aldetik letra larriz jartzea ez litzatekeela egokia; beraz, segi gaitezen zuzentasunaren bidetik.

Eskerrik asko bihotz bihotzez, lehenengo eta behin nirekin izan duzun pazientziarengatik. Dagoeneko hamarkadak pasa dira zuregana jo nuela Frantziako Tourrari buruzko tesi hau egiteko asmoa azaltzeko, eta hasieratik lan mardul eta gorabeheratsu honetan animatzeko eta aholkatzeko prestutasuna baino ez zenidan eskaini. Pazientzia, halaber, Athletic Cluben jarduteko pribilegioak beste lehentasun batzuk begi-bistan ipini zizkidanean eta, ildo beretik, Job Santuaren tamainako egonarria proiektua berrekiteko asmoa azaldu nizunean.

Esker anitz zure ondoan ikasi dudan guztiarengatik: metodologiaz, ikertzeko teknikaz, euskaraz idazteko garrantziaz eta hitz berriak egokitzeko trebeziak, kazetaritzaz, liburuetan behin eta berriz miatzeko beharraz, behar denean iritziz aldatzeko inportantziaz edota folio zuri batean ideiak zirriborrazteko axolaz.

Eta, batik bat, mila esker emandako etengabeko laguntzarengatik... gustuko ez duzun whatsapp nirekin etengabe erabiltzeraino. Egungoak ez dira betiko garai onenak giza harremanetarako, baina, batez ere azken txanpan, buru-belarri jarri zara nire alboan ikerlana taxuz betetzeko amaigabeko ahaleginean. Orain ulertu dut, bai, esperientzia hau gaingitu zutenen ahotik heltzen zitzaizkidan kontakizun apokaliptikoen esanahia.

Esan gabe doa azterlan honen emaitza Iñaki, zurea ere badela. Esker mila!

Aldi berean, aipamen berezi bi egitea gustatuko litzaidake. Batetik, Nikolas Xamardori, emandako laguntzarengatik, nire ikerketaren fidagarritasuna egiaztatzeko orduan eta baita milaka fitxatan erabil ditudan irizpideak fintzean ere. Bestetik, Jexux Mari Zalakaini ehundaka orri hauetan euskararen kalitatea zaintzeko eginahalean egindakoarengatik. Rockzale zaharrak ez gara inoiz hilko. Besarkada bana.

Halaber, arlo akademikoaren ortodoxiari agur esan baino lehen, Maria Jose Cantalapiedrari eskertu nahiko nioke nire proiektua beste ikerlari batzuen aurrean azaltzeko aukera emateagatik. Ostean Carmen Peñafielekin gertatu zaidan legez, Gizarte Komunikazioko Doktoregoaren zuzendariak laguntzeko prest egon dira uneoro. Horiekin batera bihoakie nire eskertza aguantatu nauten EHUko langile guztiei.

Ortodoxiatik baino harago, dagoeneko gure artean ez dauden pertsona bi aipatu nahiko nituzke, nonbait nire tesi hau Frantziako Tourrari buruz egiteko errudunak direlakoan: Juan Carlos Elorza eta Pepe Rei kazetariak. Lurraren pisua arin bekie. Nigan jarritako euren konfiantzarik gabe ez nuen izango 1989ko eta 1992ko Tourrak zuzenean betetzeko aukera, non eta urte batzuk beranduago bidegabekeriaren

indarrez itxi zuten Egin egunkarian. Esperientzia haietan oinarriturik, Karlos Corbella argazkilaria eta Iñaki Telleria erredaktorea bidelagun nituela, munduko txirrindularitza-lasterketarik onenaren xarma eta pozoia sartu zitzaizkidan barru-barruraino. Nazioak, esfortzuak, zaletasunak, paisaje paregabeak, historia eta istorioak “La Grande Boucle”-ren inguruan. Betidanik ez zen izan, baina betiko izango da.


Eduki analisiak abiapuntutzat hartuta, zoro moduan, liburutegiak hasiera batean, liburuak eta uda askotan erositako egunkariak, ostean, arakatzen hasi nintzen, Interneteko sarean harrapatuta amaitzeraino. Kiribil handia.

Eta bitartean, denboran luze jo duen nirea bezalako doktorego-tesiak bizitzaren ispiluaren aurrean ere jartzen zaitu. Asko izan dira denboran zehar, era batera edo bestera, nire Tourrarekiko “engantxe” hau pairatu behar izan dutenak, pairatzen ari direnak edo horren inguruko jakinmina azaldu dutenak: batez ere urte luzez amore ez emateko etengabe bultzaka, sostengua, zati handi bat hari baitagokio, eta oraindik ere kezkaturik dagoena, Itsaso; Sonia laguna; Xole Egin-eko garaietatik; egun Silvia eta Martina, gertu, arduraturik noiz amaituko nuen eta, azken epeak zirela eta, zaintzaile sutsuen lana eginez; sendikoak noizean behin galdezka ere eta, IN-komunikazioari eusteko, Agurne zein Endika -eskerrik asko azaleko diseinuarengatik- betiere laguntzeko eta nire beharretara moldatzeko prest.

Tesia gora eta behera, etengabe, itsatsita eraman dut Tourreko txirrindulariek odoluzkiak gaztigutzat daramatzaten modura. Eta amak? Amak ez dit jada tesiari buruz galdetzen, egunen batean amaituko dudalakoan...

Eta, azkenik, heldu da eguna, seme. Hau gainditu ezkerro eta zure haurtzaroko galderari erantzunez, ezin izango dut ebakuntzarik egin doktorea izan arren, baina ea bizitzak, etengabeko erlojuaren aurkako lasterketa horrek, aurki Unibertsitatean elkarrekin topo egiteko abagunea ematen digun.

Eta animo guztioi, oraindik idazteko, ikertzeko eta bizitzeko asko daukagu eta. Eskerrik asko eta biba zuek!



Los aficionados provenientes de Euskadi no dejaron de animar en ningún momento a sus corredores, como es el caso de Jokin Mujika, a pesar de la larga espera en el bello enclave pirenaico.

KARLOS

El legendario Tourmalet fue como un presagio

Cientos de aficionados vascos dieron color a su ascensión

Jabotxa FERNANDEZ
Enviado especial, Superbagneres
La larga y dura ascensión al Tourmalet, un total de 23 kilómetros en los que se pasa de los 500 metros en Pierrefite a los 2.115 de la cima (la tercera tras los asimismo legendarios Galibier e Izoard), respondió a la expectación esperada tanto en su faceta deportiva como ambiental.

Todas las dificultades previstas para acceder a la cima se hicieron realidad y miles de aficionados de todos los colores ocupaban desde primeras horas de la madrugada del martes la cumbre y los alrededores.

Ya con la luz del día lo que a la noche era incógnita impenetrable se convirtió en una postal pirenaica con varios aderezos. Es obvio que el Tourmalet huele a Tour y los aficionados vascos, más dados a llevar sus karrintas y su aliento a la última cita montañesa de la etapa, no quisieron hacerle un feo por lo que se

colocaron a centenares en las rampas y pintaron con ganas el asfalto.
Otros, viendo las dificultades que tuvieron el día anterior para abandonar Cauterets, prefirieron una menor aglomeración que la previsible en Superbagneres.

Remontes abiertos

El aspecto que presentaba el puerto de categoría especial era casi idílico para el amante de la montaña: la neblina que se iba y venía con dudosa oportunidad, dejaba entrever los afilados picos, mientras las instalaciones de las pistas de ski, huérfanas del blanco y vital elemento, parecían antiguas factorías abandonadas hasta que, dada la demanda, algunas sillas empezaron su viaje de ida y vuelta, vacías en su mayor parte, con los que por llegar tarde o por propia conveniencia se quedaron a pie de puerto.

Dieciocho kilómetros son muchos para hacer, a pínrel y las 600

posetas del viaje evitan numerosas agujetas, como las que tendrán los osados que se adelantaron en el ascenso a los corredores o los veteranos que repitieron gesta y obtuvieron como recompensa la atención de los medios de comunicación, más numerosos que en la jornada anterior, ETB incluida.

La afluencia de aficionados vascos, algunos hispanos, proveniotes de Cuenca o andaluces con su pancarta de Sevilla 92 junto a la leyenda del premio de la montaña, hizo vislumbrar el negocio a los vendedores de bicicletas minis que alternaban sus gritos de 50 francos con los de 1.000 ptas. por si colaba o a los hosteleros que organizaron parrilladas para la cena.

En el ambiente cabía lo más variado. Así, varios hablaban de su vigésima comparecencia a la cita ciclista por excelencia, otros, más recatados, de su quinto Tour, más

contaban un largo fin de semana que comenzó el domingo y finalizó ayer y algunos iba haciendo encuestas en francés sobre procedencia y frecuencia a la hora de acudir. Esperemos que no nos cobren el acceso a los puertos o que no adelanten más la hora de cierre porque van a matar al aficionado de sueño.


Calentando motores

La caravana, mutilada por el trazado, sirvió para calentar motores y la pelea por cada bolsa, panfletito, caramelo o sobre de detergente fue "a muerte", porque los nueve grados centígrados que marcaba el termómetro de la hospedería no invitaban a la relajación.

A diferencia del Marie Blanche, la perspectiva que se percibía desde arriba era general, por lo que a nadie le pilló de sorpresa la llegada de los corredores. Por si fuera poco, el despliegue de helicópteros

casi recordaba el rodaje de Apocalipsis Now: cinco se juntaron en un instante en las extrabarreras del Tourmalet, más otro de los beneméritos gen darmes apareado en una campo próxima y que levantó las pertenencias de los espectadores, no acostumbrados a tan fuertes emociones.

Gorros del Nafarroa Oinez, Araban Euskaraz, banderas de la Real o una caravana decorada con los anagramas de las gestoras pro-amnistía o a favor de los refugiados. Aplausos a los coches de BH, Reynolds y Paternina, alguna que otra bota y mucha tartera. Las manos se calientan y anuncian que Gorospe sube tirando del petón, empieza bien el día. Junto a la cima, un "notas" sólo tenía una obsesión: "ayudar a Perico... dejadle que haga algo él."



Robert Millar, ascendiendo por las duras rampas del Tourmalet.

KARLOS

Una cima agorera

Jabotxa FERNANDEZ
Enviado especial, Superbagneres
La cima del Tourmalet resultó agorera, ya que los tres principales protagonistas, Millar, Delgado y Motte repitieron gesta, aunque en diferente orden, al final de la etapa.

Los corredores se percibían en lejanía, pero desde divisarlos hasta que llegaron transcurrió casi un cuarto de hora.

La llegada de Motte supuso una de las pocas alegrías para la afición gala que prorrumpió en gritos de ánimo a Charly, mientras que la imagen de un Reynolds tirando a tope resplandecía en el grupo perseguidor, siendo el propio segoviano, aliviado anteriormente por Julian Gorospe, el que encabezaba la caza, rubricada después en el descenso.

Y siguiendo con el espejo, Gastón vio el Tourmalet demasiado grande y una vez perdido el buen corte no se cortó y aquejado de va-

rias molestias cogió el camino a casa, al igual que Van der Poel quien nos sorprendiera anteayer en Marie Blanche con una ascensión en cabeza y que en las rampas del Tourmalet llevaba perdidos ya 13.20, por lo que tampoco le hizo ascos al camión escoba. Varios ilustres del pelotón no levantaban cabeza, entre ellos Parra o Erik Breukink, quien no emuló a Roche tras el cuarto de hora desparpado, pero tampoco puso toda la carne en el sillín.

Prensa y fuego

No es una canción romántica, ni mucho menos y el ardor con que subía Andreu Hampsten se debió transmitir al coche de su equipo deportivo que se trastabilló en una curva cuando habían pasado casi seis minutos desde que la atravesara el primer corredor y que siete minutos después empezó a lanzar un humo más que sospechoso y clarificador de que algo no marchaba.

Decimos prensa y la importancia de la misma es meridiana en un puerto de estas características, sino que se lo praxentan a los corredores que cogían hoja tras hoja de las manos del público para meterse bajo el maillot y tratar así de paliar el frío que se preveía en el descenso.

Otros iban a su aire y on la preocupación de entrar en el control. Ayer se le veía más atento y enterro a Hermans, mientras que el italiano Mario Scirea del Café de Colombia y poco dicho en los ascensos recibía uno de los variados empujones de la jornada. Algún otro, en un perfecto inglés, era más descarado y lo exigía. "push, push" repetía. El que peor lo tenía, Philip Van Vooren, fue empujado dos o más curvas por un aficionado. Su retraso, 17.27, su flaqueza y el olor del camión escoba, precipitaron el regreso con los suyos. Muy nalo el Tourmalet.

3 Aurkibidea

Aurkibidea

1	ESKAINITZA	5
2	ESKERRAK	9
3	AURKIBIDEA	15
4	SARRERA	25
4.1	LABURPENA/SINTESIA	27
4.2	GARRANTZIA	27
4.3	TEORIA	28
4.4	HELBURUAK ETA EZAUGARRIAK	29
5	KORPUS TEORIKOA	33
5.1	KAZETARITZAREN FUNTZIOEN TEORIAZ	35
5.2	KIROL KAZETARITZA ETA IKERKUNTZA	35
5.2.1	<i>Kirol kazetaritzaren garrantzia</i>	36
5.2.2	<i>Kirol-edukien ikerkuntza</i>	37
5.2.2.1	Kirol-edukiak eta generoa	38
5.2.2.2	Kirol-edukiak eta nazioa.....	40
5.2.2.3	Kirol-edukiak eta arrazismoa.....	45
5.2.2.4	Kirol-edukiak, nortasuna, estilo linguistikoa.....	49
5.2.2.5	Kirol-edukiak eta interes ekonomikoa	50
5.2.2.6	Kirol-edukiak eta erlijio eta morala.....	53
5.3	NAZIO IDENTITATEAREN INGURUAN	54
5.3.1	<i>Identitateaz</i>	55
5.3.1.1	Identitate motak.....	55
5.3.1.2	Nazio-identitatea.....	56
5.3.1.3	Kultura-identitatea	56
5.3.1.4	Identitate pertsonala.....	57
5.3.2	<i>Nazioaz</i>	57
5.3.3	<i>Nazioa eta hizkuntza</i>	66
5.3.4	<i>Nazioa eta hezkuntza</i>	74
5.3.5	<i>Nazioa eta kultura</i>	80
5.3.5.1	Estatua eta kultur identitatea	83
5.3.5.2	Estatutik gabeko nazioak eta kultur nortasuna	84
5.3.5.3	Nazio nortasuna eta historia	87
5.3.6	<i>Nazioa versus Estatua</i>	89
5.3.6.1	Estatua eskubideen objektua	89
5.3.6.2	Estatua zuzenbideko subjektua	89
5.3.6.3	Estatua paktu bezala.....	90
5.3.7	<i>Nazioa eta autodeterminazioa</i>	92
5.3.8	<i>Nazionalismo zibikoa eta nazionalismo etnikoa</i>	96
5.3.9	<i>Sinboloak</i>	98
5.4	KIROLAREN GARRANTZIA NAZIO NORTASUNA OSATZEN	101
5.4.1	<i>Kirola eta nazioaren inguruko ikuspegiak</i>	101
5.4.2	<i>Kirolaren “erabilpena” nazioari begira</i>	104
5.4.2.1	Estatua duten nazioen ikuspegitik	104
5.4.2.2	Estatutik gabeko nazioen ikuspegitik.....	108
5.4.2.3	Estatua eta nazioaren izaera beste baten aurrean finkatzeko.....	111

5.4.2.4	Estatua eta nazioa nazioartekoan goratzeko eta barnea finkatzeko.....	112
5.4.2.5	Francoren garaiak Espainian	112
5.4.2.6	Argentina, diktaduraren aginpean, 1978. urtean, Munduko Futbol Txapelketa.....	114
5.5	HEDABIDEEN GARRANTZIA NAZIO NORTASUNA OSATZEN	115
6	HELBURUAK, IKERGALDERAK ETA HIPOTESIAK.....	123
6.1	SARRERA	125
6.2	HELBURUAK	125
6.3	LEHEN IKERKETA-GUNEA: TOURRAREN BILAKAERA HISTORIKOAREN INTERPRETAZIOA	126
6.4	BIGARREN IKERKETA-GUNEA: KAZETARITZA.....	126
6.4.1	<i>Ekoizpenaren ezaugarriak.....</i>	<i>126</i>
6.4.2	<i>Kazetaritza generoak.....</i>	<i>127</i>
6.4.3	<i>Egile/autorearen inguruan</i>	<i>127</i>
6.4.4	<i>Edukia.....</i>	<i>127</i>
6.4.5	<i>Protagonistak.....</i>	<i>128</i>
6.5	HIRUGARREN IKERKETA-GUNEA: NAZIOTASUNA ETA INTERPRETAZIO-MARKO OROKORRAK	128
6.5.1	<i>Naziotasuna.....</i>	<i>128</i>
6.5.1.1	<i>Naziotasunaren enkoadreak</i>	<i>129</i>
6.5.2	<i>Naziotasunaren interpretazio-marko orokorrak</i>	<i>129</i>
7	METODOLOGIA	133
7.1	METODOAK	135
7.1.1	<i>Kasu-azterketa</i>	<i>136</i>
7.1.2	<i>Eduki analisia</i>	<i>137</i>
7.1.3	<i>Interpretazio-markoen metodoa edo framing-a</i>	<i>139</i>
7.2	UNIBERTSOAK.....	143
7.2.1	<i>Hedabideen unibertsoa</i>	<i>143</i>
7.2.2	<i>Edukien unibertsoa.....</i>	<i>144</i>
7.3	LAGINAK	144
7.3.1	<i>Hedabideen lagina</i>	<i>144</i>
7.3.2	<i>Hedabideen lagina lurraldeka.....</i>	<i>146</i>
7.3.2.1	<i>EHko egunkarien ezaugarriak.....</i>	<i>146</i>
7.3.2.2	<i>Frantziako egunkarien ezaugarriak.....</i>	<i>148</i>
7.3.2.3	<i>Espainiako egunkarien ezaugarriak.....</i>	<i>149</i>
7.3.3	<i>Urte eta urtealdi lagina</i>	<i>150</i>
7.3.4	<i>Lehen urtealdia: 1903-1914.....</i>	<i>152</i>
7.3.5	<i>Bigarren urtealdia: 1930-1970.....</i>	<i>153</i>
7.3.6	<i>Hirugarren urtealdia: 1978-2013</i>	<i>154</i>
7.3.7	<i>Egun eta eduki lagina</i>	<i>155</i>
7.3.8	<i>Lagina urtealdika euskarriaren arabera</i>	<i>155</i>
7.3.9	<i>Lagina urtealdika hizkuntzaren arabera.....</i>	<i>156</i>
7.3.10	<i>Egunkarien bilaketa eta eskuratzea.....</i>	<i>158</i>
7.4	UNITATEAK	159
7.4.1	<i>Analisi unitatea</i>	<i>159</i>
7.4.2	<i>Neurketa-unitatea.....</i>	<i>160</i>
7.4.2.1	<i>Eduki-unitatea.....</i>	<i>160</i>
7.4.2.2	<i>Protagonistaren definizioaz.....</i>	<i>160</i>
7.5	FIDAGARRITASUNA, BALIAGARRITASUNA, ESTADISTIKA, LAGIN-ERROREA.....	161
7.5.1	<i>Fidagarritasuna.....</i>	<i>161</i>
7.5.2	<i>Froga pilotua eta kodelarien arteko fidagarritasuna</i>	<i>162</i>
7.5.3	<i>Baliagarritasuna.....</i>	<i>163</i>
7.5.4	<i>Estatistika teknikak</i>	<i>164</i>
7.5.5	<i>Lagin-errorea</i>	<i>164</i>
7.6	KODETZE FITXA	165
7.7	INFORMAZIOAREN IDENTIFIKAZIO GUNEA (ID).....	165
7.7.1	<i>Oinarrizko informazioa</i>	<i>165</i>
7.7.2	<i>Irudi eta testuen presentzia</i>	<i>167</i>


7.7.3	<i>Irudi motak</i>	167
7.8	KAZETARITZA-GENEROAK	167
7.8.1	<i>Kazetaritza-genero nagusiak</i>	167
7.8.1.1	Informazioa	171
7.8.1.2	Iritzia.....	171
7.8.2	<i>Kazetaritza-generoen azpikategoriak</i>	172
7.8.2.1	Informazioaren azpikategoriak.....	172
7.8.2.2	Iritzi generoaren azpikategoriak.....	177
7.9	EDUKI ANALISIAREN KATEGORIA SISTEMAK	181
7.9.1	<i>Egilea eta inplikazioa</i>	181
7.9.1.1	Egile mota	181
7.9.1.2	Egilearen generoa.....	182
7.9.1.3	Egilearen inplikazioa	182
7.9.1.4	Inplikazioaren gaineko datuak.....	182
7.9.2	<i>Edukien kategoria sistema nagusia</i>	183
7.9.2.1	Kirola	183
7.9.2.2	Dopina	184
7.9.2.3	Ekonomia.....	186
7.9.2.4	Teknologia.....	187
7.9.2.5	Gatazka	187
7.9.2.6	Gertakariak	188
7.9.2.7	Beste.....	188
7.9.3	<i>Eduki nagusien azpikategoria sistema</i>	188
7.9.3.1	Kirola kategoriaren azpikategoriak	189
7.9.3.2	Dopin kategoriaren azpikategoriak.....	190
7.9.3.3	Ekonomia kategoriaren azpikategoriak	191
7.9.3.4	Teknologia kategoriaren azpikategoriak	192
7.9.3.5	Gatazka kategoriaren azpikategoriak.....	192
7.9.3.6	Gertakari kategoriaren azpikategoriak.....	194
7.10	PROTAGONISTAREN AZTERKETA	194
7.10.1	<i>Protagonista mota</i>	194
7.10.2	<i>Protagonistaren leinu esplizitua</i>	195
7.10.3	<i>Protagonistaren generoa</i>	196
7.10.4	<i>Protagonistaren kolektibitatea</i>	196
7.10.5	<i>Protagonistaren izena</i>	196
7.11	NAZIO-IDENTITATEAREN DISKURTSOA ETA ENKOADREA/FRAMINGA.....	196
7.11.1	<i>Naziotasunaren presentzia: esplizitua eta inplizitua</i>	197
7.11.2	<i>Nazio-ikurrak</i>	198
7.11.2.1	Ikurren presentzia	198
7.11.2.2	Ikur motak.....	199
7.11.2.3	Nazio-ikurraren leinua	200
7.11.3	<i>Nazio-identitatea eta leinua</i>	200
7.11.4	<i>Nazio-identitatea eta gatazka</i>	201
7.11.5	<i>Nazio-identitatea eta aurkakotasuna</i>	203
7.11.6	<i>Nazio-identitatearen irudi positibotasuna</i>	205
8	EMAITZAK 1: TOURRAREN HISTORIA KAZETARITZAREN ETA NAZIOAREN IKUSPEGITIK: INTERPRETAZIO-MARKO BERRIA	209
8.1	SARRERA	211
8.2	KAZETARITZA FRANTZIAN TOURRA BAINO LEHENAGO	212
8.3	TXIRRINDULARITZAREN SORRERATIK TOURRAREN HASTAPENETARA	213
8.3.1	<i>Lehen lasterketak</i>	214
8.3.2	<i>Bilakaera datutan</i>	215
8.3.3	<i>Tourraren hastapenak</i>	215
8.3.4	<i>Berpizkunde eta modernitatearen atea?</i>	220
8.3.5	<i>Lehen Mundu Gerra: kirol-prestakuntza eta makinak</i>	221
8.4	LASTERKETA HANDIAK ERE, HEDABIDEEN ESKUTIK	223
8.5	TOURRA: NAZIOA, ERRONKAK ETA GERRAK	225
8.5.1	<i>Mendiko erronkak</i>	226

8.5.2	<i>Lehen Mundu Gerra eta Tourra</i>	227
8.6	ERREGIO- ETA NAZIO-TALDEEN AGERPENA.....	229
8.6.1	<i>Bigarren Munduko Gerra eta Tourra</i>	235
	Aldi horretan, urtero bost eta hamaika talde nazional artean aritzen ziren, Frantzia, Belgika, Italia, Suitza, Mendebaldeko Alemania, Luxenburgo, Australia, Austria, Espainia, Britainia Handia eta Herbehereak ordezkatuz.	237
8.7	ESTATUKA BAINA TALDEKA	237
8.8	ETAPA-AMAIERAK EUSKAL HERRIAN	242
8.9	EUSKALTEL-EUSKADI TOURREAN, 2001-2013. EUSKAL SELEKZIOA MARKEN ARTEAN?	243
8.10	EHUNGARREN EDIZIOA	246
8.11	DOPINA ETA TOURRA	247
8.11.1	<i>Dopina vs laguntza ergogenikoak</i>	250
8.11.2	<i>Aberrak dantzan</i>	252
8.11.3	<i>Festina afera: 1998ko Tourra, mugarría</i>	254
8.11.4	<i>Botere politikoaren esku-hartzea</i>	259
8.12	TOURRARI BURUZKO IKUSPEGIAK: HANDITASUNETIK FRANTZIAREN AHULTASUNERA	260
8.12.1	<i>Tourraren kirol-handitasunaz</i>	260
8.12.2	<i>Tourraren handitasuna zenbakitan</i>	261
8.12.3	<i>Tourraren handitasuna kulturaren ikuspegitik</i>	264
8.12.3.1	Zinema eta Tourra	265
8.12.3.2	Moda eta Tourra	266
8.12.4	<i>Tourraz eta Frantziaren kirol-ahultasunaz</i>	267
8.13	EMAKUMEAK ETA TOURRAREN ARTEKO HARREMANAK	272
9	EMAITZAK 2: KAZETARITZA	277
9.1	EDUKI MOTA ETA KOKAPENA EGUNKARIETAN	279
9.1.1	<i>Egunkariaren sekzio edo atala</i>	279
9.1.2	<i>Irudien eta testuaren presentzia</i>	282
9.1.2.1	Irudi/testu portzentajea herrialdeka/urtealdika.....	282
9.1.2.2	Irudi/testu portzentajea egunkarika eta egunkari motaka.....	284
9.1.2.3	Irudi/testu portzentajea urtealdika	286
9.2	KAZETARITZA-GENEROAK.....	287
9.2.1	<i>Kazetaritza-generoa 1: informazioa eta iritzia</i>	287
9.2.1.1	Informazio/iritzi portzentajea herrialdeka eta urtealdika	287
9.2.1.2	Informazio/iritzi portzentajea egunkarika.....	289
9.2.1.3	Informazio/iritzi portzentajea urtealdika	290
9.2.2	<i>Kazetaritza-generoa 2: informazio/iritziaren azpigeneroak</i>	291
9.2.2.1	Informazio motak herrialdeka eta urtealdika	291
9.2.2.2	Informazio motak egunkarika.....	293
9.2.3	Informazio motak urtealdika	298
9.2.3.1	Iritzi motak herrialdeka eta urtealdika.....	299
9.2.3.2	Iritzi motak egunkarika	301
9.3	EDUKIEN EGILEAREN INGURUAN	304
9.3.1	<i>Egile mota</i>	304
9.3.1.1	Egile mota herrialdeka eta urtealdika	304
9.3.1.2	Egile mota egunkarika.....	306
9.3.2	<i>Egilearen generoa</i>	310
9.3.2.1	Egilearen generoa herrialdeka eta urtealdika	310
9.3.3	<i>Egilea eta inplikazioa</i>	312
9.3.3.1	Egilea eta inplikazioa herrialdeka eta urtealdika	312
9.3.3.2	Egilea eta inplikazioa egunkarika.....	314
9.4	EDUKIA	315
9.4.1	<i>Eduki motak herrialdeka eta urtealdika</i>	316
9.4.2	<i>Eduki-kategoria nagusiak egunkarika</i>	319
9.4.3	<i>Eduki-kategoria nagusiak urtealdika</i>	320
9.4.4	<i>Eduki nagusien azpikategoriak</i>	321
9.4.4.1	Eduki nagusien azpikategoriak herrialdeka eta urtealdika	321
9.5	PROTAGONISTA.....	323
9.5.1	<i>Protagonista motak</i>	323

9.5.1.1	Protagonista motak herrialdeka/urtealdika	323
9.5.1.2	Protagonistak egunkarika eta egunkari motaka	324
9.5.2	<i>Protagonistaren leinua</i>	327
9.5.2.1	Protagonistak herrialdeka/urtealdika	327
9.5.2.2	Leinuen ausentzia multzoka.....	329
9.5.2.3	Protagonistaren leinua egunkarika.....	329
9.5.3	<i>Protagonistaren generoa</i>	333
9.5.3.1	Protagonistaren generoa herrialdeka	335
9.5.4	<i>Protagonistaren kolektibitatea</i>	336
9.5.4.1	Protagonistaren kolektibitatea herrialdeka eta urtealdika.....	336
9.5.4.2	Protagonistaren kolektibotasuna egunkarika.....	337
10	EMAITZAK 3: NAZIOTASUNAREN IDENTITATEA ETA BERE OSAGIAK.....	339
10.1	NAZIOTASUNAREN NABARMENDURA ETA ESPLIZITUTASUNA EDUKIETAN	341
10.1.1	<i>Naziotasunaren nabarmendura</i>	341
10.1.2	<i>Naziotasunaren esplizitutasuna</i>	342
10.1.3	<i>Nazio-identitate esplizitu eta inplizituaren azpikategoriak</i>	343
10.2	NAZIO-IKURRAK	344
10.2.1	<i>Nazio-ikurrak herrialdeka eta urtealdika</i>	344
10.2.1.1	Nazioaren ikur motak herrialdeka eta urtealdika	346
10.2.2	<i>Nazio-ikurrak egunkarika eta egunkari motaka</i>	347
10.2.2.1	Egunkari motaren arabera	347
10.2.2.2	Ikur motak egunkarika	348
10.2.3	<i>Nazio-ikurrak eta ikur motak urtealdika</i>	349
10.2.3.1	Ikurrak urtealdika	349
10.2.3.2	Ikur motak urtealdika	350
10.3	NAZIO-IDENTITATEA ETA LEINUAK	350
10.3.1	<i>Nazio-identitatearen leinuak herrialdeka eta urtealdika</i>	351
10.3.2	<i>Nazio-leinuak egunkarika eta egunkari motaka</i>	354
10.3.2.1	Leinutasunaren presentzia.....	354
10.3.2.2	Leinu desberdinak	355
10.3.3	<i>Nazio-identitatearen leinuak urtealdika</i>	357
10.4	NAZIO-IDENTITATEA ETA GATAZKATASUNA	359
10.4.1	<i>Identitatea eta gatazkatasuna herrialdeka eta urtealdika</i>	359
10.4.2	<i>Identitatea eta gatazkatasuna egunkarika</i>	360
10.4.3	<i>Identitatea eta gatazkatasuna urtealdika</i>	361
10.5	NAZIO-IDENTITATEA ETA AURKAKOTASUNA	362
10.5.1	<i>Identitatea eta aurkakotasuna herrialdeka eta urtealdika</i>	362
10.5.2	<i>Identitatea eta aurkakotasuna egunkarika</i>	364
10.5.3	<i>Identitatea eta aurkakotasuna urtealdika</i>	366
10.6	NAZIO-IDENTITATEAREN IRUDI-POSITIBOTASUNA	367
10.6.1	<i>Identitatea eta irudi-positibotasuna herrialdeka eta urtealdika</i>	367
10.6.2	<i>Identitatea eta irudi-positibotasuna egunkarika</i>	369
10.6.3	<i>Identitatea eta irudi-positibotasuna urtealdika</i>	370
11	EMAITZAK 4: NAZIO-IDENTITATEAREN ENKOADREA ETA INTERPRETAZIO-MARKOAK.....	373
11.1	NAZIOTASUNAREN INTERPRETAZIO-MARKO OROKORRA	375
11.2	1978-2013 URTEALDIKO NAZIOTASUNAREN INTERPRETAZIO-MARKO KONBINATUA	378
11.3	HIRU NAZIO-IDENTITATE NAGUSIEN NAZIOTASUN-MARKO KONBINATUA.....	383
11.3.1	<i>Herrialdeka</i>	384
11.3.2	<i>Egunkari-moten arabera eta egunkarika</i>	387
11.3.2.1	Egunkari-motaren arabera.....	388
11.3.2.2	Egunkari bakoitzaren arabera	389
11.4	HERRIALDE BAKOITZEKO PRENTSAK NOLA SOSLAITZEN DITUEN HIRU IDENTITATE NAGUSIAK	392
11.4.1	<i>Euskal Herriko prentsa: nazio-identitate nagusien enkoadratzea</i>	392
11.4.2	<i>Spainiar prentsa: nazio-identitate nagusien enkoadratzea</i>	393
11.4.3	<i>Frantziako prentsa: nazio-identitate nagusien enkoadratzea</i>	395
11.1	HIRU NAZIO-IDENTITATEAK NAZIOTASUN PARAMETROEN ARABERA	397

11.1.1	<i>Ikurren presentzia herrialdeetako prentsan</i>	397
11.1.2	<i>Identitate nagusien markoa gatazkatasunaren arabera</i>	399
11.1.3	<i>Identitate nagusien markoa aurkakotasunaren arabera</i>	400
11.1.4	<i>Identitate nagusien markoa positibotasunaren arabera</i>	402
12	ONDORIOAK	405
12.1	LEHEN IKERKETA-GUNEA: TOURRAREN BILAKAERA HISTORIKOAREN INTERPRETAZIOA	407
12.1.1	<i>HIST-1. Ikergaldera: analisi historikoa</i>	407
12.2	BIGARREN IKERKETA-GUNEA: KAZETARITZA.....	411
12.2.1	<i>Ekoizpenaren ezaugarriak</i>	411
12.2.1.1	KAZ-1. Hipotesia: kokapena	411
12.2.1.2	KAZ-2. Ikergaldera: irudia eta testua	412
12.2.2	<i>Kazetaritza-generoak</i>	412
12.2.2.1	KAZ-3. Ikergaldera: informazioa eta iritzia	412
12.2.2.2	KAZ-2. Hipotesia: informazioaren eta iritzi-generoen azpikategoriak.....	413
12.2.3	<i>Egile/autorearen inguruan</i>	414
12.2.3.1	KAZ-3. Hipotesia: egile-mota.....	414
12.2.3.2	KAZ-4. Hipotesia: egilearen generoa.....	415
12.2.3.3	KAZ-4. Ikergaldera: egilearen inplikazioa	415
12.2.4	<i>Edukia</i>	416
12.2.4.1	KAZ-5. Ikergaldera: eduki-kategoria nagusiak	416
12.2.5	<i>Protagonistak</i>	417
12.2.5.1	KAZ-5. Hipotesia: protagonista-mota.....	417
12.2.5.2	KAZ-6. Hipotesia: protagonistaren leinua	418
12.2.5.3	KAZ-7. Hipotesia: protagonistaren generoa	419
12.2.5.4	KAZ-8. Hipotesia: protagonistaren kolektibotasuna	420
12.2.6	<i>Kazetaritzaren sintesia eta generalizazioa</i>	420
12.3	HIRUGARREN IKERKETA-GUNEA: NAZIOTASUNA ETA INTERPRETAZIO-MARKO OROKORRAK	422
12.3.1	<i>Naziotasunaren parametroak</i>	422
12.3.1.1	NAZIO-1. Ikergaldera: nazio-identitatearen presentzia.....	422
12.3.1.2	NAZIO -2. Ikergaldera: nazio-ikurren presentzia.....	422
12.3.1.3	NAZIO -3. Ikergaldera: nazionalitate-leinuaren presentzia.....	422
12.3.1.4	NAZIO -1. Hipotesia: nazio-identitatea eta gatazkatasunaren enkoadrea.....	423
12.3.1.5	NAZIO -2. Hipotesia: nazio-identitatea eta aurkakotasunaren enkoadrea	423
12.3.1.6	NAZIO -3. Hipotesia: nazio-identitatea eta positibotasunaren enkoadrea	424
12.3.2	<i>Naziotasunaren marko orokor konbinatuak</i>	425
12.3.2.1	NAZIO-4. Hipotesia: naziotasunaren interpretazio-marko orokorra	425
12.3.2.2	NAZIO-5. Hipotesia: 1978-2013 urtealdiko naziotasunaren interpretazio-marko konbinatua 426	
12.3.2.3	NAZIO-4. Ikergaldera: hiru nazio-identitate nagusien naziotasun-marko konbinatua	426
12.3.2.4	NAZIO-5. Ikergaldera: herrialde bakoitzeko prentsak nola soslaitzen dituen hiru identitate nagusiak 428	
12.3.3	<i>Naziotasunaren sintesia eta inferentzia</i>	428
12.4	INDARGUNEA, AHULGUNEA ETA ETORKIZUNERA BEGIRA.....	429
13	ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	431
14	IRUDI ETA TAULEN ZERRENDA	457
14.1	TAULEN ZERRENDA.....	459
14.2	IRUDIEN ZERRENDA	460
14.3	GRAFIKOEN ZERRENDA	461

Irudi 2: Zaleen eta txirrindularien arteko sinbiosia, Tourraren muinetako bat, marrazki batean laburbilduta.



Iturria: Gara, 2001-07-6.

4 Sarrera

4.1 Laburpena/sintesia

Ikerketa honetan, Frantziako Tourraren ehun urteko eta ehun edizioko bizitza aztertzen da, hiru alor eta helburu nagusitan: kirol-ekintza eta komunikabide-gertakizun nagusi honen bilakaera historikoaren interpretazioa; prentsak egin duen kazetaritza-jarduera eta edukia; eta naziotasunaren identitatearen enkoadrea, soslaia edo *framinga* egunkarietako informazio eta iritzietan. Frantzian, Espainian eta Euskal Herrian argitaratutako hamaika egunkari garrantzitsu ikertu dira, generalistak eta kirolekoak.

Metodo kualitatibo eta kuantitatiboak erabili dira (kasu-ikerketa, eduki-analisia eta *framinga*). Denbora-unibertsoa 110 urtekoa izanik (1903-2013), hiru urtealditan banatu da, irizpide estrategikoak eta historikoak kontuan hartuz: 1903-1914, hasierako urteak; 1930-1970, bigarren mundu-gerraren aurrea eta ondorena; eta 1978-2013, modernitatearen aroa. Edukien lagina 6.766 informazio eta iritziz osatuta egon da, 354.432 datuko datu-basea sortuz. Beraz, argudia daiteke tesi honek ekarpen aipagarria egiten duela gai hau horren zabal eta luze aztertzean.

4.2 Garrantzia

Frantziako Tourra 1903. urtean jaio zen eta urteen poderioz kirol-ikuskizun soila baino gehiago bihurtu da.

Tourra handia da oso, zentzu eta arlo guztietan. Munduko Futbol Txapelketa eta Joko Olinpikoak albo batera utzita, epe zehatz batean jokatzen den kirol-ikuskizunik jarraituena da, eta ospe hori erdiesteko ezinbestekoa izan da hedabideen eragina hasieratik bertatik. Alde batetik, lasterketa bera antolatzeko orduan L'Auto egunkariaren ideia izan zelako eta, bestetik, hedabide-lasterketa binomioa erabili zelako munduan zehar dauden gainerako lasterketa handiak abiarazteko (Italiako Giroa eta Espainiako Vuelta kasu).

Jaio zeneko lehen ehun edizioak aztertuko dira ikerketa honetan eta, aldi berean, Tourraren handitasuna datuekin ere islatzeko 2013. urtean egin zen ehungarren edizioaren aipagarrienak mahaigaineratzen dira:

- **Hedabideen presentzia:** 2.000 kazetari, argazkilari eta aditu, 585 hedabide ordezkatzuz (380 egunkari, agentzia eta web-orriak; 85 telebista-kate; 75 argazki-agentzia eta 45 irrati).
- **Telebistako irudiak:** 190 herrialdetan banatu ziren 100 kanalen eskutik, hauetako hirurogeik lasterketa zuzenean eskaini zuten. Hamar etapa osorik zuzenean eman ziren eta baita nazioarteko 90 ordu ere. Mundu osoan 5.500 orduko hedatzea egon zen.
- **Internet:** honen bitartez 30 milioi bisitari bakarrak egon ziren www.letour.fr web orrian eta bertan 110 milioi orrialde ikusi ziren dauden lau bertsioetan: frantses, aleman, gaztelania eta ingelesez (bisita gehien duena). Sare sozialetan Tourra 2,2 milioi lagunek segitu zuten (Facebooken 1.350.000 zale, 500.000 jarraitzaile Twitteren eta 500.000 pertsona Googlen). Aldi berean Tourrari buruzko 1.100.000 aplikazio deskargatu ziren.

Beraz, kiroleko gertakizunaz gain, badu inpaktua nazioartean, kazetaritzan eta kulturari, eta horregatik erabaki zen tesia gai honen inguruan egitea.

Ohar modura, ez zaio egiari kalterik egiten esaten bada ez dagoela Tourra eta kazetaritza binomioaren inguruan hain zabal eta luze egindako ikerketarik, lehen ehun edizioak kontuan hartuz.

4.3 Teoria

Ikerketa egin ahal izateko, marko teoriko indartsua landu da, hurrengo kontzeptuen inguruan eta horien arteko erlazioan: naziotasuna, kirola, eta hedabideak.

Naziotasunaren teoria aztertu da hainbat kontzepturekin duen erlazioaren arabera: hizkuntza, hezkuntza eta kultura, nazioa versus estatua, autodeterminazioa, eta nazionalismo zibiko eta etnikoa, besteak beste.

Beste alde batetik, **kirolak** nazio-nortasuna osatzen duen garrantziaz egin da gogoeta, eta, horretarako, ikerkuntza akademikoaren arakaketa zabala egin da, bai estatua duten nazioen ikuspegitik eta baita estaturik gabeko nazioen ikuspegitik ere.

Hirugarrenez, **hedabideek** nazio-nortasuna osatzen duten garrantzi eta eragina aztertu dira. Oinarri modura ikerkuntza akademikoa hartu da, hurrengo alor hauek kontuan hartuta: kazetaritza eta naziotasuna batetik, eta kirol-hedabideak eta nazio-identitatea bestetik, azken hau hainbat alderditatik ikusiz (generoa, nazioa, arrazismoa, immigrazioa, estilo, hizkuntza, etab.).

4.4 Helburuak eta ezaugarriak

Ikerketa honetan, hiru helburu nagusi daude: kirola, kazetaritza eta nazio-identitatea. **Kirolaren** helburuari dagokionez, Tourraren bilakaeraren kontakizuna egin eta analisi historiko-interpretatzailea eraiki da, kasu-ikerketaren metodologiaren bitartez. Galdera bat dago azpian: ba al dago Tourraren “beste historia” bat? Bai, badago, eta lasterketaren historiaren faseak, mugarri nagusiak eta eboluzioa aztertuko dira, nazio-ikuspegitik begiratuta. Ondoren, kazetaritzaren alorra dator, eta bertan, egunkariak ehun urteko historian zehar egin duten betedura/estaldura periodistikoak aztertuko da, hainbat kategoria- sistema eta aldagai erabiliz; eta hirugarrenez, naziotasuna eta nazio-identitatea nola islatu eta soslaitu/enkoadratu duten sakondu da.

Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak erabili dira ikerketa honetan. Batetik, kasu-ikerketa metodoa, Tourraren historiaren interpretazioa eta kontakizun analitikoak egiteko; bestetik, eduki-analisiaren metodoa, egunkariak argitaratuko informazio eta iritzien ezaugarriak eta alderdi formal eta periodistikoak ezagutzeko; eta hirugarren, framing-aren edo interpretazio-markoen metodoa (bigarren mailako agenda-ezarpenera deitua), naziotasunaren kontzeptuari aplikatua, alegia, egunkariak nazio-identitatea nola enkoadratu edo profilatu/soslaitu duten Tourraren gaineko informazio eta iritzietan.

Tourraren historia eta ikerketa hiru epetan banatu da:

- 1903-1914 urtealdia: Lehen Mundu Gerraren aurreko etapa, irabazle batzuk gerra horretan bertan hil ziren. Tourraren hastapenak.
 - 1930-1970 urtealdia: Bigarren Mundu Gerraren aurrea eta ondorea. Tourraren berpizkundea eta txirrindulari-taldeak nazioka.
 - 1978-2013 urtealdia: Modernitatearen aroa. Tourra gertaera globala bihurtzen da. Ikertutako prentsa hiru herrialde hauetan haxe izan da: Frantzia estatua, Espainiar estatua eta Euskal Herria. Aipaturiko hiru herrialdeetako prentsaren errepresentazio modura, hamaika egunkari hautatu dira: bost, kirol espezialitatekoak; eta zazpi, generalistak edo informazio orokorrekoak. Hauek izan dira:
 - Frantziako egunkariak: L'Auto (1900-1944), L'Equipe (1946tik bizirik) eta Le Monde (1944tik bizirik).
 - Espainiar estatuko egunkariak: Marca (1936tik bizirik), ABC (1903tik bizirik), El País (1979tik bizirik) eta Mundo Deportivo (1906tik bizirik).
 - Euskal Herriko prentsa: Egin (1977-1998), Gara (1999tik bizirik), Euskaldunon Egunkaria (1990-2003) eta Berria (2003tik bizirik).
- Beraz, egunkari horietako informazio eta iritziak eskuratu dira. Laginak 6.766 eduki ditu, informazio eta iritzia batera, 354.432 datuko datu-basea eraikiz. Euskarriak paperatik eta Internetetik hartuak izan dira eta hiru hizkuntzatan daude: euskara, frantsesa eta gaztelania. Erabili den lagina aipagarria da, kantitate eta kalitate aldetik.

Irudi 3: Mendeurrenaren Tourraren azken egunetako azalak, L'Equipe azken egunkari antolatzailearen eskutik.



Iturria: L'Equipe, 2013-07-21/22.

5 Korpus teorikoa

5.1 Kazetaritzaren funtzioen teoriaz

Komunikabideen eta kazetaritzaren funtzio sozial nagusien artean, ikerketa akademikoak adierazten duenez, lau nabarmendu dira ohiz: informazio/zaintza, korrelazioa, transmisioa eta entretenimendua (McQuail, 2000). Horien gainean, abstrakzio maila altuagoan, kokatzen dira herri-interesaren teoria eta esfera publikoaren eraikuntza (Croteau & Hoynes, 2001).

Funtzio sozial horien analisia egiteko teoria nagusietako bat agenda-ezarpena da, “agenda-setting” modura ezaguna nazioartean (Lippman, 1922), eta framing edo interpretazio-markoekin erlazionatuta.

Agenda-ezarpenaren teoriak aldaketa eta garapen handiak izan ditu urteetan zehar (Coleman, McCombs, Shaw, & Weaver, 2009) (Wahl-Jorgensen & Hanitzsch, 2009) eta, ezaguna den modura, honen definizioaren funtsean zera dago: hedabideek, kazetaritzaren irizpideetan oinarrituta, gai eta eduki batzuk hautatu, ekoiztu, nabarmendu eta argitaratzen dituzte eta, ondorioz, gai-agenda zehatz bat eskaintzen diote audientziari aktore eta protagonista profil jakin batzuekin, uste izanik, irakurle eta ikusleek ere gai-agenda eta protagonista horiek garrantzitsutzat hartuko dituztela. Hau da agenda-ezarpenaren lehen maila, zeinetan eduki motak, autoreak eta aktoreak/protagonistak aztertzen diren, eduki analisi kuantitatibo edo kualitatiboaren bitartez.

5.2 Kirol kazetaritza eta ikerkuntza

Kirol kazetaritzan bi esparru bereiztea komeni da: kirol-hedabideak eta hedabide generalistetako kirol-edukiak. Lehenetan, helburu nagusia eta eduki gehiena kirolari buruzkoa da eta bigarrenetan, gizarteko gai eta gertakizun orokorren artean egoten da kirolaren sekzioa. Kirol kazetaritzari buruzko ikerkuntza akademikoan bi alor horiek jorratzen dira.

5.2.1 Kirol kazetaritzaren garrantzia

Kirol kazetaritzak espazio handia eta toki garrantzitsua ditu gaur egungo hedabideetan eta bidea egiten ari da bere burua koherentziaz aurrerapen teknologikoei eta eskakizunei egokitzeko. Halaz ere, hedapen handia edukitzen segitzen du, bai prentsa idatzian, bai ikus-entzunezko medioetan eta baita euskarri digitaletan ere.

Askotan *“the toy department”* (jostailuen tokia) izango balitz bezala ikusita egon da, bertoko berriak arinak zirelakoan eta ez, aldiz, berri garrantzitsuenen gordailua.

Aurrekoaren soka beretik, kirol kazetariak profesionaltasun gutxikoak direla uste da, eta beti ere *“iturrien”* agindupean daudela. Kritiken beste aldean, azpimarratzen da hedabideek sortzen duten kirol edukiaren kantitate, zenbat kazetari dihardute lanean bertan eta kirol kazetariak irakurle zein ikusle erakartzeko duten gaitasuna.

Aitzitik, erredakzioetan betetzen duten tokiaren aurrean ikerkuntzan kritikak dira nagusi. Arlo akademikoan gero eta presentzia handiagoa duen arren, kirola ez da agertzen kazetaritzaren arlo ikertuenen artean.

Ikerkuntzaren eremurik funtsezkoenak hedabide baten %30 hartzen dute kirol espazioetatik eta kirol kazetariaren pertzepzioak, errutinak eta praktikak ikertzen dituzte. Halaber, kirol kazetariaren joerak aztertu egin dira, etxeko aldeko zaletasunarekin loturik. Aldi berean, joera kritikoa ere ageri da, ikerkuntza erreportajeak aipatuz.

Kirol kazetaritzarekin lotuta egin den lan akademikoari dagokionez, gehien bat deskriptiboa izan da eta, beraz, tarte handia uzten dio arlo teorikoari. Etorkizunean kirolaren merkaturatze gero eta handiagoak eta horren eragina kazetari, argitalpen eta publikoarengan izan daiteke ikerketa lerro bat (English, 2018).

Bestalde, agerikoa da hedabideen eta kirolaren arteko lotura estua. Denboraren poderioz kirolak eta kirolaren adierazpen ia guztiak gero eta presenteago egon dira hedabideetan, bien arteko sinbiosira heldu arte. *“Prentsa eta kirolaren arteko harremanen historia, maitasun historia da, hasieratik. Bikote sendo baten historia da*

eta bertan batasuna etengabe indartzen doa lotura bikoitz baten bitartez: maitasun eta arrazoi ezkontza”¹ (Collin, 1964, or. 5).

5.2.2 Kirol-edukien ikerkuntza

Kirol edukiak aztertzean ikerketa alorrak asko dira. Erabilienak generoa, nazioa, immigrazioa, hizkuntza, estilo linguistikoa, klasea, sexu-orientazioa, ahalmena/minusbaliotasuna, ideologiak, interesa ekonomikoak etab. lirateke.

Esaterako, *Examining identity in Sports Media* liburuan (Billings A. C., 2010, orr. 3-20) identitateari buruzko iritzi sorta jasotzen da. “Identities are constructed within, not outside discourse” dio Hall-ek (1996) gehitzeko identitate horiek etengabeko bilakaeran daude eta hori garrantzitsua da oso gizarte sinesmenak ikasteko eta berrindartzeko.²

Eraikin teoriko eta metodologiko anitzak erabiliz (inkestak, eduki analisiak, ikerketa etnografikoa, lana lekuan bertan...) lan horretan hedabide batzuk aztertzen dira kirol-hedabide binomioak giza nortasuna eraikitzeke, indartzeko eta betikotzeko baliozkoa den azaltzeko: “Kirola gai popularra da oso kazetaritza zein hedabideak ikasten dituzten artean eta nortasunak jorratzen ditu, nola sortu diren eta zer eragiten duten. Kirola izan daiteke gehiketa on bat irakurgaietan kontuan hartzeko”³ (Birchall, 2010).

“*La comunicación en el deporte*” (“Komunikazioa Kirolan”) ikerketan, egileak behar baten berri ematen du: kirola ikertzea eta batez ere hedabideek kirola nola erabiltzen duten garrantzi handiko gaiak jorratzeko eta komunikatzeko. Hitzaurrean futbola adibidetzat jartzen du: “Partidak, batzuetan, nazionalitate ezberdinetako

¹ “L’histoire des relations entre la presse et le sport, aussi loin que l’on remonte dans le temps, est une histoire d’amour. C’est l’histoire d’un couple solide, dont l’union n’a cessé de se renforcer en un double lien: mariage d’amour et de raison.”

² “(...) these identities are duplicitous, ubiquitous and continually in flux. These issues are important sources for learning and reinforcing social beliefs (...).”

³ “Sport is a very popular subject with media and journalism students, and to has a subject of identities, how they are created and the effects that arise from them. Sport, could be a very beneficial addition to the reading list.”

taldeen artean jokaten dira eta batzuetan ikuspegi politiko talde ezberdinen artean. Parte hartzen duen jendeak arraza, historia eta jarrera ezberdinak ordezkatzeko ditu”⁴ (Billings A. , 2010, or. 11).

Hedabideen produktoreek, eta beste askok, hala nola editorial egileek, aurkezleek, esatariek, kazetariak, blog kudeatzaileak eta baita zaleak ere, gai horiek eta antzekoak kudeatzen dituzte.

Ikerketa horren helburua bikoitza da: gai garrantzitsu hauek zuzenean eta zeharka kirol hedabideetan nola tratatzen diren eta, halaber, kirolaren baitan jorratzen diren gaien inguruko begirada kritikoa izatea.

5.2.2.1 *Kirol-edukiak eta generoa*

Kirol-edukien ikerkuntza akademikoan, giza-generoaren gaia izan da gehien ikertuetako esparrua. “Banaketaren erarik objektiboena izan da ere gehien ikertu dena: generoaren aldagarria. (...) Identitateari buruzko ikasketetan bestelako puntako eremua izan da arraza edo etniaren azterketa”⁵ (Billings A. C., 2010, or. 6).

Beraz, generoaren aldagarria da erarik zuzenena identitateak ezberdintzeko eta zatiketa hori erredakzioetan bertan gertatzen den gauza da:

Beste azterketa aipagarri bat da Marie Hardinek eta Erin Whitesidek idatzitakoa, kirol-hedabideetako emakume kazetarien karrera profesionalean eragiten duten faktoreen inguruan⁶ (Hardinek & Whitesidek, 2009).

Azterketa horretan, galdeketa sakon anitzen bitartez eginikoa, kirol-hedabideetan diharduten emakume-kazetariak gizonezkoen mundu batean euren esperientziak azaltzen dituzte, zer nolako erabakiak hartzen dituzte beren karreretan, generoak

⁴ “Los partidos son a veces entre dos equipos de diferentes nacionalidades y algunas veces con diferentes puntos de vista políticos. La gente que participa representa diferentes razas, historias y posiciones.”

⁵ “The most objective form of division has also been the most investigated: the gender variable. (...) Another prime area of mediasport scholarship on identity has been the examination of race or ethnicity.”

⁶ “Token responses to gendered newsrooms: Factors in the career-related decisions of female newspaper sports journalists.”

askotan suposatzen duen oztopoa azpimarratuz, kultura eta egiturazko oztopoekin batera. Aitzitik, kirol kazetaritzan, onartuak izan direla eta generoa azken finean abantaila dela diote. Halaber, lana eta bizitza soziala uztartzeko ahaleginaz mintzo dira, egin beharreko ahalegintzat hartuz. Hala eta guztiz ere, ondorio gisa, kirol-hedabideetako erredakzioetan gertatzen diren genero ezberdintasunak gainditzeko neurriak hartzen ez diren bitartean diskriminazioak hor dirauela esaten dute. “Gai hauek guztiak eztabaidatzen ari gara eta uste dugu genero parekidetasuna ez dela lortuko hesi horiei heldu gabe; hori egiten ez den bitartean ateak segituko du jira-biraka etengabe”⁷ (Hardinek & Whitesidek, 2009, orr. 627-646).

Halaber, Knoppers eta Elling holandarrek egindako ikerketan agerian dago, esaterako, herbeheretar kazetariak egiten duten genero bereizketa:

Telebistako edukietan eta kirol berrien estalduran generoen arteko ezberdintasun kualitatibo zein kualitatiboak erakusten diren arren; analisiak ez digute esaten testu batzuk aukeratzeko erabiltzen diren irizpideak. Egitura faktoreek mugatzen dute prozesu hau, baina lekua egon badago, kazetariak zer eta nola idatzi erabakitzen dutelako. Ikerketa honen helburua da herbeheretar kazetarien estrategiak ezagutzea emakumezkoen kirola jarraipenetik at uzteko. Emaitzek erakusten dute kazetariak genero-dinamikak ezkututzen dituztela neutraltasun ideologia erabiliz. Estrategia honetaz baliaturik, misoginoak dira eta aurka egiten diote emakumezkoen kirolaren presentziari... eurentzako neutraltasuna eta justizia eskatzen duten bitartean. Halaber, euren diskurtsoa zer nolako lotura duen gizartearen diskurtso

⁷ “We discuss these issues and suggest that sports media will fail to reach gender parity until these barriers are addressed; until then, the revolving door will keep turning.”

zabalago batekin ikertzen dugu eta, aldi berean, diskurtso hori nola indartzen duen.⁸

(Knoppers & Elling, 2004, orr. 57-73)

Dena den, telebistetan eta kirol egunkarietan egindako azterketek genero ezberdintasunak eskaintzen dituen, arlo kuantitatiboan zein kualitatiboan, emaitzetan ez da islatzen testu batzuk hautatzeko edo ez erabiltzen den irizpidean.

Arestian aipatu dugun Billingsek egin zuen beste ikerlan batean genero, etnia eta naziotasuna, ordena honetan, aldagarri paregabe bezala aurkezten dira, batzeko aukera dagoen arren (Billings, A.C. y Eastman, S.T., 2002, orr. 349-368).

5.2.2.2 *Kirol-edukiak eta nazioa*

Nazio kulturak edota izaerak kirolarengan duen eraginaz ari da Stephen G. Wieting-ek "*Light of the hero in the Tour de France*" (Heroien argia Frantziako Tourrean) izenpean *International Review for the Sociology of Sport* agerkarian idatzi zuen artikuluan. Hauen zatirik esanguratsuenak University of Iowa, (AEB) antolatu zen "*Sport and Cultural Distinctiveness Symposium*"-ean aurkeztu ziren 1999ko maiatzean.

⁸ "Although the results of content analyses of television and newspaper sport coverage have shown quantitative and qualitative gender differences, such analyses do not reveal why some texts are selected and others not. Although this selection process is constrained by structural factors, there is room for agency since journalists decide what to include and how to write about that. Little scholarly attention has been paid to the ways in which agency is used in the discourses of sport journalists to describe the gendering of the selection process. The purpose of this study is to explore the discursive strategies and their gendered subtexts employed by Dutch sports journalists in explaining the selection process, especially the exclusion of women's sports coverage. The results show that the journalists conceal issues of gendered dynamics of power by using an ideology of neutrality. This strategy allows them to be misogynist and resistant to the coverage of women's sport while simultaneously allowing them to claim neutrality and fairness for themselves. We explore how their discourse is linked to a broader societal discourse and how it simultaneously strengthens that discourse."

Haren artikuluan Tourrean zeharkako bidaia-ikerketa egiten du Wieting-ek, horren gorabeherak aztertuz, horrengan eragina duten faktoreak aipatuz eta batik bat nazio kulturak kirolarengan duen eragina, baina baita kanpoko eragileek ere.

Artikuluan Tourrean izaera nazionalaren garrantzia azpimarratzen da, bai garaipenak goratzeko orduan eta baita ere garaipenaren orduan lortutakoari garrantzia emateko ala kentzeko, beti ere hedabideen nazio jatorriaren arabera.

Hauxe litzateke artikulua laburpena, 86 lasterketaren analisia abiapuntutzat hartuta, 1903an Maurice Garin lehendabiziko *Tour de France* irabazi zuenetik Lance Armstrongek 1999an irabazi zuena arte.

Parte-hartzea, zaleen interesa eta arrakasta, neurri handi batean frantziarrak izan dira eta, kontinentei begira, europarrak. Gertakizun eremu murriztuak eta leku berezi batzuk marko analitiko erabilgarria osatzen dute nazio-kulturek hainbat kirolengan duten eragina ikertzeko. Bigarren lasterketa eta 1998koa ageriko eskandalu iturri izan ziren eta beste lasterketa batzuetan txirrindulariak kritikatuak izan dira, garaipenak ospatu arren. Desohore eta ohorerako ezarritako oinarrien barruan elementu probokatzailerik bat da, bi (baten ordez) arau-esparru daudela: korrikalarietako bat, bai, eta bestea, inguruko gizartearena, jatorriz frantsesa eta gaur egun gero eta globalagoa dena. (...) Kulturek kirola balio moralak ospatzeko erabiltzen dute, lehiakideak heroi gisa baloratzean. Hala ere, 1998ko Tourrak eta 1999ko ekitaldiaren osotasunari buruzko konfiantza-krisi iraunkorrak arauak eragindako arau-hauste sistemikoen perspektiba eta kirol-heroiaren desagertzea sortzen dute.⁹

⁹ "Participation, fan interest, and success have been heavily French and by continent almost exclusively European. The bounded population of occurrences and singular geographical locus combine for a useful analytical frame for investigating how particular sports are affected by national cultures. The

(Wieting, 2000, orr. 348-363)

Bestalde, nazio izaeraren “boterea” handia da hedabideak, bereziki kirolarekin lotura dutenak, bideragarriak izan daitezten. “Kirolaren eraginez nazionalismoak duen boterea handia da oso, nazioartekoan milioika pertsonengan eragiteko ahalmenarekin, eta ikerlariak hori ere egia dela ondorioztatu dute”¹⁰ (Bairner, 2001, orr. 1-19).

O’Donell-en iritziz, genero eta etniarekin alderatuz, Munduko Kopa edota Olinpiada bezalako nazioarteko lehiaketetan behinik behin, nazionalitatea atleta baten janzkerak definitu dezake, “gu haien aurka” dikotomia sortuz, iritzi sozial zein politikoak eragiteko duen ahalmenarekin (O’Donell, 1994, orr. 345-380).

Horren arabera nazionalismoa kirol hedabideen produktuak kontsumitzeko oinarrizko arrazoia izan daiteke. Esaterako milioika pertsonak snowboard egiten duena, urpekaria edota eskiatzailea aberriaren izenean animatzen dute eta. Lan honetan europar 15 herrialdeetako kirol erreportajeetan nazio ezaugarriei buruz agertzen diren estereotipoak aztertzen dira. Itxuraz independenteak dira, baina diskurtso handiago baten parte izanik. Artikuluan diskurtso handi horren jatorria aztertzeaz gain, arrazismoarekin balizko harremanak arakatzen dira. Azkenik bertoko diskurtsoek birlandu dutena ere aztertu dute, barruko desorekak antzemateko eta, aldi berean, kanpoaldeko nazioen hautazko kultur baloreak erdiko nazioekiko baloreekin alderatzeko.

Denera, nazio jatorriaren arabera kirol-hedabideen portaera zeharo ezberdina da. Adibidez Marco Pantani txirrindulariak bere sorterrian lortu zuen ospea aipatuz, 1965ean Felice Gimondiren garaipenaz geroztik, Tourra irabazten zuen lehendabiziko

second race and the 1998 Tour yielded visible scandals, and there have been many other races where riders were censored even as winners were celebrated. A provocative element within the established bases for opprobrium and honor is that there are two (rather than one) normative frameworks: one of the racers themselves and the other of surrounding society, originally French and now increasingly global. (...) Cultures use sports celebrate moral values by valorizing competitors as heroes. However, the 1998 Tour and the lingering crisis of trust in the integrity of the event in 1999 create the prospect of systemically induced rule infractions and the demise of the sport hero.”

¹⁰ “The power of sport-induced nationalism is vast, with the capability to influence millions of people internationally, and scholars have found this to be true as well.”

italiarra zen eta. Ostean Amerikako Estatu Batuetako hedabideek positibotzat jo zuten Armstrong-en garaipena eta, aldiz, frantziar hedabideek barrabiletan pairatu zuen minbiziaren ondorioz ezin izan zuela horrenbeste indarrik izan lasterketa irabazteko azpimarratzen zuten. Ohore eta desohorearen arteko talka azken finean (Duret, 1994, orr. 135-145).

Ildo beretik eta dikotomiaren adierazle gisa, 1999ko lasterketan Lance Armstrongen garaipenaren inguruko balorapenak zeharo ezberdinak dira, beti ere hedabideen jatorriaren arabera, hots, Amerikako Estatu Batuetako hedabideek lortutako maillot horiaren balioa goraiatzen dute, batez ere 33 hilabete lehenago antzeman zioten barrabiletako minbizia kontuan hartuta, kronikak eta liburuak heroiaren pareko adjektibo kalifikatzailez betetzeraino. Samuel Abt txirrindularitzan kazetari beteranoak *Lance Armstrong's Comeback from Cancer* liburuan erreportaje sorta erabili zuen kirol jarduera goraiatzeko, eta baita minbiziaren aurkako borroka gogora ekartzeko, gaixoei eta bizirik irautea lortu dutenei mezu itxaropentsua helarazteko.

Garaipen handia izan zen. Lance Armstrong-ek 1999ko Frantziako Tourra irabazi du. Lau urte lehenago, 1992an, 21 urterekin, Texas-etik profesional heldu berria zen. 1996ko Tourra amaitu eta gero, minbizia diagnostikatu zioten, bizirik irauteko %20-rekin, hori maite zuen kirola egiteko aukerei buruz hitz egin gabe. Urtebete beranduago, terapiarekin, bisitari moduan egon zen Turrean. 1998an, astiro eta dudamudatan ekin zion itzulerari, lasterketarik nagusiak baztertuta. Jada 1999an, itzuli zen. Handitasunez. Irabazteko era handiz, Greg Lemond-en ostean munduko kirol ekitaldirik gogorrena, Frantziako Tourra, alegia, irabazten zuen bigarren estatubatuarra izanik.¹¹

¹¹ "That was a quite a victory. Lance Armstrong, winner of the 1999 Tour de France. In 1992, at age 21, he was a brash neo-professional from Texas. In October 1996, at the conclusion of the Tour de

(Abt, 1999)

Halaz ere, arestian aipatu den moduan, kanpoko interesek ere eragina dute eta ez nolana hikoia. Esaterako kirola gobernatzen dutenek garaipenaren ondorengo harrotasun publikoa erabiltzen dutenean unera arte ohikoak izan diren arauak ala jarraibideak moldatzeko, edo nazio bereko kirolarien artean tirabirak sortzeko.

Herrialde gehienetako hedabideetan iritzi laudagarriak irakurri eta ikusi ostean, aldiz, frantziar hedabideetan estatubatuarrek zerabilten argudio bera eurenganako aplikatu dute, baina kontrako zentzutik erabiltzeko. Haien zat Armstrongek derrigorrez substantzia debekatuekin duen lotura nabaria da, ia ezinezkotzat jotzen baitute minbizia duela horren denbora gutxi jasan eta gero goiko postuetan aritzea.

Beste batzuentzat kritikak Armstrong eta Tourreko antolatzaileen lanaren artean banatzen zituzten. Britainia Handiko begiraleek frantziarren "apustuaz" barre egiten zuten, dopinik gabeko lasterketa ei zelakoan, eta Armstrongen argudio eskasak kritikagarriak zirelakoan. Beste alde batetik ikusita, 1999ko Tourrak dopinaren inguruan bizi izan zuen egoerak Armstrongen garaipenari protagonismoa kendu zion.

Halaz ere, artikulua egileak nazio-faktorea zekarren gogora, 1926az geroztik frantziar etapa irabazlerik gabeko lehendabiziko urtea baitzen, oso datu jasangaitza antolatzaile frantziarrentzat, preseski eurek bultzatutako txirrindularitza garbiaren Tourrean.

Lan berean, politika eta nazio izaeraz luze eta zabal jarduten du Wieting-ek. Haren ustez, egungo Joko Olinpikoak diseinatzean asmo politiko garbiak ezkututzen ziren. Bitxia bada ere apolitikotzat jotzen ziren, nazio pantailak baztertuz. Dena den, 1896ko lehendabiziko Joko Olinpikoetatik hona gai politikoak nonahi agertu dira eta baita nazio interesak ere. Tourrean nazio garaipenak betidanik azpimarratu dira -lehen ehun edizioetan, hau da, tesi honen denbora eremuan, 2013ra arte- (36 frantziar garaipen,

France, he was diagnosed with cancer, and given a 20 percent chance of survival -not to mention his chances of returning to the sport he loved. A year later, he was recovering for cancer therapy, and joined the Tour de France as a visitor. In 1998, he started a slow and faltering comeback, dropping out of the major races. In 1999, he did come back. In a big way. A winning way, becoming the second American (after Greg Lemond) to win the Tour de France, the world's toughest sporting event."

18 belgikar, 12 espainiar, 3 estatubatuar¹², 9 italiar, 5 luxenburgotar, 2 suitzar, bi herbeheretar, 2 britainiar eta bana irlandar, daniar, alemaniar eta australiar).

Teoriaz behintzat Tourrak politikoki aritzeko zirrikitu gutxi uzten du, baina aldarrikapen politikoak eta interes taldeen aldetik eginiko protestak presente egon dira. Esaterako 1904an txirrindularien aurkako erasoak eta sabotajeak gertatu ziren, 1905 eta 1906an bezala. Italiar txirrindulari guztiek lasterketa utzi zuten 1936an. Txirrindulariek hirutan greba egin dute 1966, 1978 eta 1998, mota askotako kanpoko bidegabekeriei aurre egiteko. Urteak aurrera joan ahala, Tourrak parte-hartzaileen gero eta ordezkapen nazional zabalagoa dauka eta helburu politikoeekin erabilia izateko eskaintza paregabea da, telebista, irrati zein prentsa idatzian bere isla gero eta handiagoa delako.

5.2.2.3 *Kirol-edukiak eta arrazismoa*

Hala eta guztiz ere, nortasunari buruzko analisiak ez dira genero, etnia eta nazionalitateak osatzen duten triangeluan amaitzen eta beste maila apalago batean identitate era ezberdin batzuk ere aztertu dira, baina euren presentzia eta esanahia hedabideetan antzematea are zailagoa delako. Aurrekoekin lotuta, arrazismoaren araberakoak topa ditzakegu.

Arrazismoa, Arraza-bereizkeria, Xenofobia eta horiekin lotura duten Intolerantzia moduen aurkako munduko Konferentziak bilera egin zuen 2001eko abuztuaren 31tik irailaren 8ra arte Durbanen (Hegoafrika) eta bertan estatuei eskatzen zitzaien arraza-gorrotoa eta arraza-bereizkeria sustatzen duten ideologia nazionalista/neofaxista eta bortitzak, eta sentimendu arrazista eta xenofoboak indargabetu eta horien agerpena oztopatzen duten neurriak bultzatzea, ideologia horien eragin negatiboari aurre

¹² Zenbaketa honetan eta Tourreko garaipen ofizialari begira, 1999tik 2005era arte Armstrongek irabazitakoak desertutzat jo dituzte lasterketaren antolatzaileek. Halaber, -ez daude zenbaketan- Jan Ullrich alemaniarrek eta Contador espainiarrek irabazitako edizio bana kendu zieten, Andy Schleck luxenburgotar eta Pereiro (galiziar) espainiarrari emateko -horiek zenbatuta daude-.

egiteko neurriak barne hartuta, bereziki gazteen artean daukaten eraginari aurka egiteko, hezkuntza akademikoa eta akademikotik kanpokokoaren bidez, komunikabideen bidez eta kirolaren bidez. Hedabideak eta kirola arrazismoaren aurka ere, finean.

Ildo horretan, Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteak, Aniztasunaren Behatokiaren eta Kirolaren Kontseilu Nagusiaren laguntzarekin ikerketa-ekintza proiektua egin zuen "Arrazakeria berriaren kazetaritza-gogoeta bideak ikuskizun kirolean" izenpean. Proiektuaren abiapuntua da kirolak integrazio tresna izateko lukeen balizko betekizunaz ziurtasun zientifiko esanguratsuen gabezia eta onartzea kirolak baduela ahalmena ingurumena errazteko, Europar Erkidegoen Batzordeak dionez: "Etorkinak eta jatorri atzerritarreko pertsonak gizartean integratzeko, eta kulturen arteko elkarriketaren lagungarri izateko, kirolak kide izate eta parte hartzearen sentipen partekatua suspertzen baitu eta, horrela, gainera, lanabes garrantzitsua izan baitaiteke etorkinen integraziorako" (SOS, 2012, orr. 1-14).

Proiektuaren helburua kirol prentsan eta orotariko prentsaren kirol orrialdeetan kirol jardueretako gutxiengoei, arrazakeriari, xenofobiari eta bortxakeriari ematen zaien tratamendua aztertzea zen. Amaieran arrazakeria berria izenpean lau gogoeta-bide zehaztu zituzten: "Gogoeta-bide abertzaleak, gogoeta-bide gerrazaleak, mestizajeari eta nazionalizazioei buruzko gogoeta-bideak eta arrazakeriari buruzko gogoeta bide-ezak" (SOS, 2012, orr. 5-6). Azken hau kirol ikuskizunen inguruan hedabideetan agertzen diren arrazakeria adierazpenekiko tolerantziarekin edo bizikidetzarekin zerikusia dutenak.

Preseski, arrazakeria eta txantxa arrazistak gutxiesteko joeran erori dira hedabideak, kirola berezkoak dituen emozioak adierazpen hutsak balira bezala agerraraziz. Gauzak horrela, zilegitzat hartzen da nork bere arrazakeria ukatzea eta horrelako ekintzak norbanakoen 'ustekabeko ateraldiak' bihurtzea (Burdsey, 2004, orr. 757-779).

Argi dago kirol ikuskizunek betekizun berezia dutela gizartean masa-fenomeno diren heinean eta gehienetan kirol ikuskizunek balio dutela hedabideen salerosketa objektu izateko. Arestian maiz aipatu den legez, ikuskizun-kirola politika egiteko,

nazioak goresteko edo, nazio aldetik ere, norberaren burua finkatzeko edota nazioartekoan saltzeko. Aldi berean, kirolean bertan ematen den bortizkeria, arrazakeria eta xenofobiaren aurkako borroka ekintzak sustatzeko ere balio izan du.

Ukaezina da balioak, onuragarriak zein ezkorrak, transmititzeko tresna ahalsua dela kirola, baita ere arreta handia bereganatzeko hedabideen aldetik. Eric Dunning-ek horretaz hitz egiten du:

Pentsa dezagun, adibidez, hedabideek kirolari eskaintzen dioten arreta: zenbat diru -publiko eta pribatua- inbertitzen den kirolean; kirol-negoziaren dependentzia gradua publizitatearekiko; estatuaren parte-hartzea kirolean arrazoi ezberdinengatik, hala nola ikusleriaren bortizkeria gutxitzeko, osasun publikoa hobetzeko edo ospe nazionala handitzeko; kirola egiten duten pertsonen kopurua, edo ikusleak direnak, kirolarekin dependentzia harremana dutenak aipatu barik; (...) bizitzaren arlo ezberdinetan kirol metaforak erabiltzeko joera, hala nola, politikan, industrian edota armadan, besteak beste, kirolaren oihartzun emozionala eta sinbolikoaren adierazle eta, amaitzeko, nazioan eta nazioartekoan Olinpiadak eta Munduko Futbol Txapelketak dituzten adarrak: ekonomikoak eta sozialak, negatiboak eta positiboak. Jarduera bakar batek ere ez du lortu erregulartasunarekin eta horrenbeste jendearentzat erdigunea izatea.¹³

¹³ “Pensemos, por ejemplo, en la atención que los medios de comunicación prestan regularmente al deporte: la cantidad de dinero -público y privado- que se invierte en deporte; el grado de dependencia en la publicidad del negocio del deporte; la mayor implicación del estado en el deporte por razones tan diversas como el deseo de combatir la violencia de los espectadores, mejorar la salud pública o aumentar el prestigio nacional; el número de personas que con regularidad practican deportes o asisten como espectadores, por no hablar de los que dependen directa o indirectamente de él; (...) el abundante empleo de metáforas deportivas en esferas aparentemente tan diversas de la vida como la política, la industria y el ejército, hecho indicador del eco emocional y simbólico del deporte y, para concluir, las ramificaciones, a nivel nacional e internacional, 'sociales' y 'económicas',

(Dunning, 2003, or. 11)

Gaur egungo kirolean, lau modelo proposa daitezke: eredu lehiakorra, eredu adierazkorra, eredu instrumentala eta ikuskizun eredu.

Azken horretan merkatuaren legeek agintzen dute, arautegi zorrotza dauka, entretenitzeko modeloa da eta dirua irabazteagatik onartu egiten da. Halaber, hiri edota herrialde baten garapenerako tresna da edota Estatua kirolaren bitartez goratzen da. “Kirolak sistema autonomo izateari utzi dio eta sistema ireki bat bihurtu da, berezko nortasun gutxikoa eta bestelako sistemekin estuki loturik, hala nola ekonomikoa, heziketakoa, politikoa...”¹⁴ (Puig, 1991, or. 126).

Integrazio prozesuetan kirola eta hedabideen arteko loturaz hitz egiten denean, analisiak ikuskizun-kirol mediatikoaren, erakundetuenaren, aurrean kokatzen gaitu, sistema ireki bat dela aintzakotzat hartuz, kirol sistema osoaren gain, eta oro har gizarte osoaren gain, eraginak dituen, zeren kirolarekiko harreman zuzena diren baloreen eraikitzea edo deuseztatzea hedabideek, babesleek eta kirol erakundeek osatzen duten multzoari dagokie (Moragas Spà, 2007).

Aitzitik, erakundeen ikuspegia ez da horren baikorra. Esaterako, *“Racism, Ethnic discrimination and exclusion of migrants and minorities in sport: the situation in European Union”* FRA - *European Union Agency for Fundamental Rights* erakundeak egin duen txostenaren arabera, arrazakeriak, xenofobiak eta bestelako intolerantzia mota batzuek europar kirola kutsatzen segitzen dute, edozein kirol motan eta zaletuen artean ere.

Txosten horretan joan den mendeko 80ko hamarkadaz geroztik, akademia-ikerketek eta hedabideek agerian utzi dute europar kirolean arrazismoak suposatzen duen arazoa, batik bat futbolearen, eta erreakzionatzeko beharra. Hala ere kirol

negativas y positivas, de competiciones internacionales como las Olimpiadas y los Mundiales de fútbol. Ninguna actividad ha servido con tanta regularidad de centro de interés y a tanta gente en todo el mundo.”

¹⁴ “El deporte ha dejado de ser un sistema autónomo y se ha cometido en un sistema abierto con escasa identidad propia y estrechamente conectado a otros sistemas tales como el económico, el educativo, el político...”

erakundeek edota Europa Batasunak berak ez ei dute erantzun parekorik eskaini: “Hala eta guztiz ere, une horretan, salbuespena zen europar kirolaren agintarien edo Europar Batasunaren dokumentu zein neurrietan islatzea”¹⁵ (FRA, 2010).

5.2.2.4 *Kirol-edukiak, nortasuna, estilo linguistikoa*

Kirolak, hedabideek eta nortasunak ikerketarako triangelua osatzen dute, eguneroko ekintzak eta adimena moldatuz eta baliabide linguistikoak ere erabiliz. Ondorioak zeharo ezberdinak dira, batzuentzat kirolak nortasun ezberdintasunak sortzen eta areagotzen ditu eta beste batzuentzat kirola lagungarria da oso herri xeheak edota eskubiderik gabekoek gizartean gora egin dezaten. Hala eta guztiz ere, estilo eta eduki linguistikoen bitartez, mezu kontraesankorra zabaltzen da: hedabideetako multzoek transmititzen duten nortasunaz baino haratago joatea zaila da eta, era berean, zaila da oso kirol hedabideen mezuen eragina ekiditea nortasuna osatzean.

Alde batetik, nortasuna eta kirola batzen dira, esaterako (Billings, A.C.; Angelini, J.R. y Eastman, S.T., 2008) (Hauck, 2006) (Boyd, 1997) eta baita azterketa bultzatzeko orduan ere, edukia eta identitatearekin lotura duten eraginak ez dira soilik kontuan hartzen, baizik eta nola milioika pertsonen kirol hedabideen produktuak kontsumitzen dituzten, besteak beste, teleikusleak, irrati entzuleak, egunkariak irakurtzen dituztenak, aldizkarien harpidedunak edota internet erabiltzen dutenak (Wenner, 2006).

Kirol hedabideen jatorri ezberdina dela eta, milioika pertsonen kultur berriak, ideia berriak eta giza hautemate berriak jasotzeko tenorean daude eta haien eskutik norberaren nortasunari buruzko sinesmenekin bat egiten dute, hau da, generoa, etnia, klasea, erlijioa, sexu-orientazioa, adina eta abarrekin.

¹⁵ “However, at the time, this was rarely reflected in documents or measures of the European sports governing bodies or the European Union.”

5.2.2.5 Kirol-edukiak eta interes ekonomikoa

“Herorien argia Frantziako Tourrean” lanean egileak galdera korapilatsua airean uzten du: Kirolaren bilakaerak berak globalizazioaren testuinguruan hedabideen interesa eta etekin ekonomikoen eskutik tartea uzten al du ohiko kirol heroiak eta lorpenak behar den moduan baloratzeko?

Artikulu argitaratzeko orduan bilioi bat ikuslek telebistaz lasterketaren jarraipena egiten zuten (AEBetako Super Bowl-ek duen bikoitza gutxi gorabehera), eta lasterketa zuzenean 14,6 milioi pertsonak ikusten zuten. Marketinari dagokionez, 10 milioi dolar eskuratzen ziren. Kazetaritza eta “negozioari” dagokionez, bestalde, 1998ko dopinaren inguruko krisialdia dela eta, 1999ko Tourrean egon zen kazetarien portzentajeak %25eko igoera izan zuen.

Hala eta guztiz ere, Tourraren bilakaera gaur egun izatera iritsi den arteraino jatorrizko proposamenetik mailakatua izan da. Desgrangesen hasierako asmoa *L’Auto* egunkaria ezagutaraztea zen, *Le Vélo* arerioaren kalterako, hau da, interes ekonomikoak tartean.

“1998ko eta 1999ko (Tourreko) ekitaldiek galdera zaila uzten digute: kirolaren garapenak, gaur egungo diruaren testuingurua eta hedabideen interesarekin lotuta, gero eta nekezago egiten du ohiko errendimendua goratzea eta txalotutako heroiak agertzea?”¹⁶ (Wieting, 2000).

Arrazoiak arrazoi, argi eta garbi dago goi mailako kirolak gero eta lotura handiagoa duela gertakizun sistemikoekin eta mundu mailako marketinarekin. Beraz, egun kirol heroiak bedeinkatzeko ikuspegia bestelakoa dela.

Ikerketa berean aurrerapen teknologikoa aztertzen da, 1911az geroztik geldiezia dela adierazteko. Adibide batzuk jartzen ditu: desbideratzailea 1938n sortu zen, karbonoa 1973an, zuntza 1975ean, Greg LeMondek 1989n erabili zuen triatloi-

¹⁶ “The combined events of 1998 and 1999 leave the knotty question: has the internal evolution of the sport in connection with the current global context of money and media interest created a setting where the traditional yield of a venerated act and acclaimed hero are now increasingly unlikely?”

eskulekua, disko gurpilak etab... aurrerapen hauek guztiek merkatuen zabaltzea suposatu dute.

Hedabideen presentziak kirol ekitaldietan merkatu berriak zabaldu ditu ere. Irratiaren lehendabiziko jarraipena 1930ean izan zen eta telebistarena 1953an. Ildo honetan, XX. mende amaierako Tourrei buruzko datuak eskaintzen ditu:

Egun 4.000 pertsonak osatzen dute lasterketaren lan-taldea: 600 pertsona txirrindulariak laguntzeko; 600 kazetari akreditaturik; 44 langile egun-osoko jardunean; 600 langile tresnak ekoizteko eta beste 1.650 soilik publizitatearekin loturik. Horrez gain, 15.000 poliziek parte hartzen dute; eskoltarako 35 motozikleta daude eta Tourreko 150 ibilgailu ofizial. Erreputazioari begira 1998ko eta 1999ko Tourrek utz zezaketen kaltea kontuan hartuta ere, Wilcockson-ek eta Pelkey-k bezalako adituek sostengu ekonomikoa hor segitzen duela (1999) adierazi dute. Frantziako babeslerik nagusiek 2000ko edizioari laguntza bermatu diote eta enpresa frantziar berri bik taldeak finantzatzeko dituztela aldarrikatu dute.¹⁷

(Wieting, 2000)

Egilearen aburuz, Tourra nazioartekoan ezagunagoa egiten ari den neurrian bihur daiteke protesta politikorako bilgune, Udako Joko Olinpikoekin gertatu zen moduan. Kirol guztietan aldaketa teknologikoak sartu dituzte, segurtasuna, berdintasuna, jarduera bera ahalbidetzeko eta, aldi berean, kirolarientzat lehiaketa egoki eta gogorra bermatzeko. Kirolaren komertzializazioa gero eta handiagoa da, baina ez da soilik kirol

¹⁷ “(...)there are now 4000 people in the race entourage: 600 support people for the racers, 600 accredited press, 44 full-time Tour employees, 600 media production staff, and 1.650 involved just with publicity. There are 15.000 police involved, 35 escort motorcycles, and 150 official Tour vehicles. Even after the potentially harmful 1998 and 1999 Tours in terms of fan cynicism, customary commentators such as Wilcockson and Pelkey (1999) have considered economic support to be continuing. Major French sponsors have assured their support for the race in 2000, and two new French companies have promised to fund teams.”

esparruan ematen. Tourraren beraren errealitateak eta Hobennan, Gould eta Friedmanen iradokizunek ohar batzuk uzten dituzte testuingurua eta Tourraren arteko harremana ulertzeko.¹⁸

Zeharka bada ere, kazetariaren joera pertsonala, batez ere kazetaritza garaikidean, kirol-kazetaritza barne, interes ekonomikoen arabera mugitzen denez gero, kazetarien jarduerak aztertzea komenigarria izan daiteke. Ildo honetan, kazetariak eta kazetaritzaren arreta-merkatuak. Kazetaritzaren teoria ekonomiko berrirantz, Susanne Fengler-ek eta Stephan Ruß-Mohlek artikuluan teoria ekonomikoa darabilte kazetaritza garaikidea pairatzen ari den aldaketa andana azaltzeko.

"Homo economicus maturus" modeloaren eskutik eta masa-komunikazioaren ikerketen ondorioz, kazetariak sari material (soldata) eta immaterialak (ospea, arreta, giza-onurak) bilatzen dituzten aktore arrazionalak direla diote. Ikerketan kazetaritzari hainbat kontzeptu ekonomiko aplikatzen zaio eta, ondorio gisa, hedabideetako profesionalen balizko portaera berekoa lagungarri suertatuko da kazetaritzaren porrotak eta hedabideen itsukeriak antzemateko.

Lanaren helburuak honako hauek lirateke: lehenengo eta behin teoria ekonomikoa kazetaritzari aplikatu; bigarrenaz, berezko baliabide gutxi duten kazetariak zer nolako zailtasunak dituzten eta, hirugarrenaz, teoria ekonomikoaren gakoak erabiliz (free-riding, kanpoko eragina eta agente nagusiaren teoria) kazetaritzari buruzko ikerketei nola aplika dakieke.

Hedabideetako zuzendariak, kazetariak, publizistek, hedabideek eta kontsumitzaileek berezko interes arrazionalak dituzte berriak aukeratzeko, sortzeko eta hedatzeko orduan. Guztiek ez dute soilik ohiko 5 W-*ei* erantzuten, baizik eta ekonomiarekin lotura duten beste galdera askori. Esaterako, nor arduratzen da

¹⁸ "It's understandable that, as the Tour becomes more internationally known, it may become, as the Summer Olympics always has been, a venue for political protest. Technological changes have been introduced and carefully managed in all sports, to balance the competing demands of safety, fairness, activity, and to still allow a suitable, arduous test for the athletes. The increasing commercialization of the sport, again, is not unique. Four observations about the connection of the

informazioaren pieza berezi batez? Edukiengatik ordaintzeko prest daude? Edo nortzuk daude ordaintzeko prest? Pertsona horiek non daude?... (Fengler, 2008, orr. 668-690).

5.2.2.6 *Kirol-edukiak eta erlijio eta moralak*

Eta nazio irizpideak baino haratago, herri bakoitzaren erlijioa, moralak edota ohituren pisua azpimarratzekoa da Wieting-en lanean. Esaterako Italiako txirrindulari handi birekin gertatutakoaz jarduteko aukerarik ez du galtzen. Kirola testuinguruarekin lotuta dago beti (*Sport is always contextual*) (Wieting, 2000).

Esaterako, Fausto Coppi eta Gino Bartali italiarrak txirrindulari famatuak ziren eta haien kirol ibilbidean kristau erlijioak eta tradizioak izan zuten eragina agerian uzteko honako hau irakur daiteke:

Coppi ezaguna zen bere engaiamendua, diziplina eta txirrindulari gainean erakusten zuen estiloarengatik. Bartali baino urte batzuk beranduago heldu zen eta ikusleek haren aldeko jarrera hartu zuten. Bestalde, emaitzak baino haratago, askorengan eragina izan zuen Bartaliren sentsibiltatea katolikoak, Coppiren profil sekularren aurrean.¹⁹

(Ollivier, 1990) (Pivato, 1996)

Garai hartako Italian, urte batzuk beranduago, kirolariaren jardura, bizitza pribatua barne, eta inguruko moralaren arteko lubakia gero eta handiagoa bihurtu zen. Coppi Giula Locatelli ezkonduko emakumearekin argazkirako ipini zen 1953ko Munduko Txapelketaren ondorengo ekitaldian. “Andereño Zuria” izendatu zioten Locatelliri, lasterketek ikustera beti zuriz agertzen zen eta. Coppi ere ezkondu zegoen eta euren sendiak utzi ondoren Tortona abiatu ziren, egungo italiar legedia teknikoki

components of the surrounding global context and the Tour itself from the conceptual suggestions of Hobennan, Gould, and Friedman, and the Tour evidence are ventured.”

¹⁹ “Coppi was known for his commitment, discipline, and style as a rider. When he came on the scene a few years later than Gino Bartali, spectators began to take sides about their accomplishments. Some of the criteria included loyalty to Bartali because of his open and ‘pure’ catholic sensibilities as opposed to Coppi’s more secular profile.”

urratuz. Gauzak horrela, Locatelliren senarrak salaketa ipini zion eta emakumea atxilotu eta espetxeratu egin zuten.

Pasaporteak utzi behar izan zituzten, euren familiarengandik banatu eta baita eurei diru mordo emateaz gainera, semea erditzeko Argentinara jo behar zuten Coppi abizena eroan ahal izateko. Aitzitik, kanpoko giroa guztiz kontrakoa zen arren, Coppiren taldekide guztiek bat egin zuten adiskidearekin eta baita errespetuz hartu, eta batzuetan lagundu ere. Kanpokoak, aldiz, asaldaturik zeuden, Jean-Paul Ollivier-ek dioen moduan: “Italia osoak harremanak eten egin zituen Fausto Coppirekin. Familia askotan guztiz debekaturik zegoen ezta bere izena aipatzea ere. Eskoletako hormetan zeuden Coppiren argazkiak kendu zituzten, baina denak okerrera jo zuen, haien ordezt Bartaliren irudiak ipini zituzten eta”²⁰ (Ollivier, 1990).

5.3 Nazio identitatearen inguruan

Nazio identitatearen kontzeptua anitza da eta ertz asko dituzte bi hitz eta bi kontzeptu horiek –hots, nazioa eta identitatea–, jakintza eta gizarte-jarduera desberdinetan erabiltzen baitira.

Adibide modura, Europar Legebiltzarreko *Committee on Legal Affairs and Human Rights*-ek (Frunda, 2005)²¹ nazio kontzeptua aztertzeke beharra ikusi zuen, XXI mendeko Europako nazio-gutxiengoaren egoerari eta eskubideei eusteko lagungarria izan zitekeen ustean. Izan ere, beren iritziz, gaur egun herrialde askotan “nazio” hitzari ematen zaion zentzua jatorrizko esanahitik urrun dago.

Identitatearen esanahia ildo beretik doa, batez ere kontzeptu askorekin lotzen zaiolako, hurrengo lerroetan erakutsiko denez.

²⁰ “All of Italy refused to have anything to do with Fausto Coppi. In many families it was from now on forbidden to even mention his name. In schools his photos. Which adorned the walls, were taken down. But even worse, they were replaced with ones of his rival Bartali.”

²¹ Group of the European People's Party-ko György Frunda-ren gidaritzapean.

5.3.1 Identitateaz

Identitateaz ari garenean horrelako definizioa aurki dezakegu: psikologian, soziologian eta antropologian identitatea pertsona bakoitzaren kontzepzioa eta berezko adierazpena, bakoitzaren banakotasuna edo talde atxikimenduari dagokiona (esaterako nazio identitatea edota kultura-identitatea). “Identitatea bakoitzaren bereizgarria da edota giza mailako kideek partekaturiko bereizgarria. Identitatea eta identifikazioa bereiz daitezke; identitatea etiketa da eta identifikazioa nor bere burua sailkatzea da. Identitatea harremana eta testuinguruarekin loturik dago eta identifikazioa prozesuarekin lotuta dago”²² (Rummens, 1993).

Nortasun taldeen autoestimu positiboaren zentzua eurenganaten dute pertsona askok, komunitatea eta parte izatearen sena sustatuz. Bestalde, ikertzaileek jorratu duten bestelako gaia da diskriminazioarekin lotura duena, hots, zergatik pertsonak euren “taldeko”-tzat hartzen dutenen alde jotzen duten, kanpotartzat hartzen direnak baztertuz. Alde biak argitzen saiatu dira gizarte identitatearen ikertzaileak (Cote & Levine, 2002).

5.3.1.1 Identitate motak

Soziologoek horrelako identitate motak identifikatu dituzte.

1-Norbanakoaren nortasuna: nortasunaren lehendabiziko mota norbanakoaren nortasuna da. Beti nor naizen galderari erantzuna eman guran.

2-Bigarrena gizarte-identitatea da eta aurrekoarekin alderatuz, aukeratzeko abagune gutxi eskaintzen ditu, gizarte-rolen eskutik inposaturik bait dator. Esaterako, hauen artean aukera daiteke: nortasun agiria, hatz-markak, pasaportea, jaiotza-ziurtagiria, historia pertsonala, lagunak, sendia, harremanak, etab. Gizarte-rolak

²² “One may define *identity* as the distinctive characteristic belonging to any given individual or shared by all members of a particular social category or group. Identity may be distinguished from identification; identity is a label, where as identification refers to the classifying act itself. Identity is thus best construed as being both relational and contextual, while the act of identification is best viewed as inherently processual.”

hobeto ulertzeko, talde sozial bati inposatzen zaion portaera bat bezala ulertu behar dira.

3-Hirugarren mota talde identitatea da, hau da, gizarte-taldeek edozein identitatea partekatzen dutenean. Hor zalantza sor daiteke, libreki sortutakoak dira edo gizarte-rolen ondorioz sortu dira ere?

4-Soziologo batzuen arabera, pertsonak identitate konplexuagoak dituzte: identitate anitzak. Azalpen hau nahiago duten soziologoek uste dute gizarte-klaseak, generoak, talde etnikoak, adinak edota nazionalitateak eragin handia daukatela identitate anitz hori sortzean.

5.3.1.2 *Nazio-identitatea*

Nazio-identitatea da nazio kontzeptuan oinarritzen dena, hau da, ezaugarri anitzeko kolektibitate historiko-kulturalarekiko kidego-taldearen sentimendua.

Ezaugarri ezberdin horien artean kosmobisio tasunak, lokalismo edo unibertsaltasun gehiagorekin edo gutxiagorekin (kulturatik zibilizaziora); elkarreragiketako ohiturak, gizarte antolaketa, antolaketa soziala zein politikoa (berezi Estatuak, bai alde identifikaturik egonda, baita identifikaturik ez badago ere). Bernardo Subercaux historiagile eta filosofoaren iritziz tasun finkoek osatzen dute nazioa, nolabaiteko lurraldetasunarekin, odola zein jatorriarekin loturik daudela, iragan urrun batek osatzen duen esentzia aldagaitza balitz bezala. “Nazioa, beraz, litzateke, aldi berean, izaera duen eta izan duen egiaztatu daitekeen errealitatea, subjektibitatea baino haratago, eta irudikatutako edo kontatutako komunitatea, hau da, konstruktua intelektuala eta sinbolikoa”²³ (Subercaux, 1999).

5.3.1.3 *Kultura-identitatea*

Kultura-identitatea da talde, kultura edo banako baten identitate-sentimendua, talde edota kulturaren partaide izateak harengan duen eraginaren heinean. “Kultur

²³ “La nación, por lo tanto, sería, al mismo tiempo, una realidad constatable que existe y ha existido independientemente de la subjetividad, y una comunidad imaginada o relatada, vale decir, un constructo intelectual y simbólico.”

maila berbera duten gizarte talde baten partaideak kulturalki berdinak sentiarazten duten kultura-tasun guztiak”²⁴ (Ottak, 2002) osatzen dute kultura-identitatea.

Kultura-identitatea eraikitzeke orduan, beraz, kontrako aldetik ere uler daiteke, hau da, ezaugarriak eta ideia komunak eduki arren, kultura-identitatea ezberdintasunarengatik zehaztu egiten da: talde baten partaideak gara eta talde horrek bere burua zehazten du gainerako talde (kulturekin) diferentziak nabarmentzean.

5.3.1.4 *Identitate pertsonala*

Identitate pertsonala edo norberatasuna, norbera bere burua izatea da eta ez beste norbait. Tasun pertsonalak dira norberaren errealitatea osatzen dutenak kanpoaldera proiektatzeko gainerakoek pertsona ezagut dezaten. “Banakotasuna posiblea da solik gizakiaren benetako nortasuna ikusten lortzen denean, gizakiak bere burua gizateriaren parte bat bezala ezagutzen duenean, izaki bakarra eta ezberdin baten moduan...”²⁵ (Soy Mi Marca, 2010).

5.3.2 Nazioaz

Nazioari buruz klasiko bihurtu dira bi ideia hauek: lehena, ilustrazioarekin lotu dena dugu, iraultza frantsesaren ideologian gauzatu zena hain zuzen; bigarrena, Herder-en “*Volkgeist*” nozio hartatik sortu dena, erromantikoen artean zabaldu zena alegia. Tradizio frantsesa eta tradizio alemaniarra, esan ohi den bezala (Frunda, 2005)²⁶.

Lehenengoa harturik, nazioa era honetan ulertu beharko litzateke: borondate edota nahiak baturik elkarte libre bat sortzen da -kontratu sozialaren printzipioekiko atxikimenduan oinarritzen dena-. Hau da, nazioa eraikitzen den zerbait da, eta ez berez

²⁴ “Todos aquellos rasgos culturales que hacen que las personas pertenecientes a un grupo humano y a un nivel cultural (...) se sientan iguales culturalmente.”

²⁵ “La individualidad sólo es posible cuando se logra ver la personalidad auténtica del ser humano, de manera tal que éste pueda reconocerse a sí mismo como parte de la humanidad, como un ser único y diferente de los demás...”

²⁶ Group of the European People's Party-ko György Frunda-ren gidaritzapean.

den zerbait, eta nazioaren parte izan ala ez izatearen jokoan, norberaren aukera libreak soilik hartzen du parte. Rousseau izan zen nazioaren kontzeptua politikoki bataiatu zuena, Sieyèsen bertsioa argiago den arren *“Qu'est-ce le Tiers État?”* (Zer da Hirugarren Estatu?) idazkian. Bertan nazioa gizaki talde bat da lege beraren mendean dagoena eta biltzar legegile berak ordezkatzeko duena (Virolli, 1997, orr. 105-121).

Bigarren ideia honek, nazioa eraikitze borondateaz baino, pertsonen eta herrien arteko ezberdintasun naturalez hitz egingo du, eta, hain zuzen, bereizgarriak diren ezaugarri horiek egingo dute nazioa. Estatuari dagokionez, nazioa da lehenengo eta honek sortzen du Estatu, azken hau naturan oinarritu behar baita.

Nazio nortasunaren teorian, azpimarratzekoak dira elementu subjektiboen ezaugarriak eta taldeko kultura-identitateen oinarriak. Autore honen ustez, nazio nortasunak “nolabaiteko komunitate politikoa, historia, lurraldea, aberria/patria, herritartasuna, balio partekatuak eta tradizioak dakartzala”²⁷ (Smith A. D., 2002, or. 15). Areago, Smith-ek dio: “nazioek, neurri batean, kultura eta ideologia zibiko komuna eduki behar dutela, elkar ulertze eta helburu komunak, sentimendu eta ideia bateratuak, jendea bere lurraldean elkarrekin lotzen duena”²⁸ (Smith A. D., 1991, orr. 9, 11).

Arlo honetan bat dator Ernest Gellner-en (1983, or. 7) teoriaren bi ardatzekin, 'Nazioak eta nazionalismoa' liburuan azaldua: “Pertsona bi nazio berekoak dira kultura berbera partekatzen badute, hau da, zeinuak, ideiak, joerak eta komunikazio erak partekatzen badituzte.”²⁹

Alde horretan, Smith-ek nazio nortasuna alderdi aunitz dituela adierazten du, eta oinarritzko ezaugarriak bost puntutan azaltzen ditu (Smith A. D., 1991, or. 14):

- Sorterri historikoari edo lurraldeari lotuak.

²⁷ “Envolves some sense of political community, history, territory, patria, citizenship, common values and traditions.”

²⁸ “Nations must have a measure of common culture and a civic ideology, a set of common understandings and aspirations, sentiments and ideas, that bind the population together in their homeland.”

- Mitoak eta historiari lotuak.
- Masako kultura komunari lotuak.
- Eskubide eta betebeharrak komunak.
- Ekonomia komuna lurralde-mugikortasunarekin lotuak.

Aurrekoak laburbilduz, *National Identity* liburuan, Smith-ek (1991) bere nazioaren definizio klasikoa eskaintzen du: “Gizarte komunitate batek partekatzen dituen lurralde historiko bat, mito eta oroitzapen historiko komunak, kultur publiko bat, ekonomia komuna eta legezko eskubide komunak eta kide guztientzako betebeharrak” (p. 14)³⁰.

Aniztasunaren baitan nazio nortasunak bost dimentsio edukiko lituzke: psikologikoa, kulturala, lurraldekoa, historikoa eta politikoa.

Beraz, faktore erabakigarria da bilakaera politiko zein historikoa, baina baita ere faktore psikosozilogikoa, nazio nortasunaren berezko kontzientzia izatea finean, hau da, alderdi subjektiboa (Arraiza E., Apodaka E., Odriozola J. y Aranguren G., 2007).

Irudikapena ildo beretik doa, aurrez aurreko harremaneko herri txikiaz gaindi komunitate guztiak imajinatuak dira. Irudikatutako politika komunitatea da nazioa, muinean mugatua eta burujabea (Anderson B., 2006).

Nazioaren definizioarekin jarraituz, urte batzuk beranduago Smithek (2002) “*When is a nation?*” lanean azpimarratzen du bere definizioaren 'idealtasuna', ezin hobea delakoan, nahiz eta aurrekoarekin alderatuz berebiziko aldaketa ezartzen duen. Haren aburuz nazioa horrela definituko litzateke: “Izendatutako komunitate batek dituen lurralde historiko bat, partekatutako mitoak eta oroitzapenak, kultura publiko komuna eta lege komunak eta aduanak” (p. 15)³¹.

²⁹ “Two men are of the same nation if and only if they share the same culture, where culture in turn means a system of ideas and signs and associations and ways of behaving and communicating.”

³⁰ “A named human population sharing an historic territory, common myths and historical memories, a mass, public culture, a common economy and common legal rights and duties for all members.”

³¹ “A named community possessing an historic territory, shared myths and memories, a common public culture and common laws and customs.”

Hiru lirateke egile honek emandako bi definizioen arteko ezberdintasun nagusiak. Berrienean kultura publikoaren ezinbesteko hedapen handia (masa) desagertu egin da. Halaber ekonomia komunaren erreferentziarik ez dago eta, azkenean, eskubide eta betebeharrak komunak partaide guztientzako aipamenaren ordean lege eta ohitura komunak aipatzen dira.

Horrek erakusten du nazioaren definizioa aniztasunean datzala, definizio teoriko zein pertsonen aniztasunean, ezaugarri anitzekin eta triangulu baten inguruan: nazioa, estatua eta nazio-estatua.

Hau da, Smithek ez zuen onartzen estaturik gabeko naziorik egon zitekeenik, baina nazio bakoitzaren konplexutasunak errealitate hori islatu egiten du, hau da, nazio bakoitza osatzeko beharrezkoak jotzen diren era askotako ezaugarriak kontuan hartuta, eta ez bakarrik izaera politiko administratiboari dagozkionak. Teoriak ere dio posiblea dela nazioa izatea estatu egiturarik gabe.

Honen harira, Montserrat Guibernau-k Smith-en teoriak irakurketa kritikoa egin eta Smith-en triangulu anitza lau angeluko karratua bihurtzen du, estatu gabeko nazioa laugarren angelua izanik.

Estatuari buruz, Max Weber-en definizioa ekartzen du gogora Mitropolitski-k: “Giza komunitate batek lurralde mugatu batean arrakastaz eskatzen du indarraren erabileraren monopolioa”³² (Mitropolitski, 2011, or. 1). Aitzitik, estatu guztiek ez dute hori lortu edo ez dute hori nahi izan.

Nazioari buruz, hauxe litzateke definizioa: “Giza talde bat, lurralde zehatz bati loturiko komunitate bat osatzen duela jakitun, iragan komunarekin eta etorkizunari begira ere proiektu komuna duena, bere buruarentzat erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen den aldi berean”³³ (Guibernau M. , 1996, orr. 44-46).

³² “A human community that (successfully) claims the monopoly of the legitimate use of physical force within a given territory.”

³³ “A human group conscious of forming a community, sharing a common culture, attached to a clearly demarcated territory, having a common past and a common project for the future and claiming the right to rule itself.”

Hasierako triangeluaren osatzeko nazio-estatuak dugu. Instituzio modernoa da, hau da, “Estatu mota bat lurralde zehatz batean bidezko indarkeriaren monopolioa duena eta pertsonak batzen saiatzen dela kultura-homogeneizazioaren bitartez”³⁴ (Guibernau M., 2003, or. 3-4).

Hala eta guztiz ere, laugarren hanka falta dela dio Guibernauk, beste termino bat aurrekoekin alderatuz definitu eta ezberdindu egin behar dela argudiatuz: estaturik gabeko nazioa.

Definizioa osatzerakoan, autodeterminaziorik gabeko nortasuna duten lurraldeei buruz ari da, beti ere estatu bat edo gehiagoren baitan eta estaturik gabeko identifikaziorik gabe. Estaturik gabeko nazioetan nortasun sentimendua historia eta kultura komunitatean datza, askotan Nazio-estatuaren sorrera baino lehenagoko garaioak (hots, Smith-en teoriari eutsiz, sustrai etnikoetan datza) lurralde batekiko atxikimendua eta autodeterminazio nahiarekin batera.

Halaber, Christophe Jaffrelot-ek nazionalismoaren inguruko teoria osatzen saiatzen da. Honen aburuz nazionalismoa Estaturantz begiratzen du bere nortasuna beste talde batzuekiko konparaketan datzalako eta nazio-estatuaren teoriak ez dute azaltzen nazionalismoa zer den (Jaffrelot, 2003). Gellner-en teoria materialista edota mendebaldeko produktu balitz bezala aurkezten dituzten teoriak ere arbuatzen ditu, Barth-en (1969) ekarpenak azpimarratzen dituen aldi berean: besteekiko harremana goraiatzen da eta, aitzitik, kultura edukiek garrantzi txikia dute nortasun etnikoak osatzean. Hala eta guztiz ere, teoriak bata bestearen atzetik antolatuz gero, nazionalismoaren modelo osoa ere egin daiteke: ideologian oinarritutako teoriak lehen planoan badaude ere, mugimendu nazionalista baten sorrerak gaztaka sozio-etnikoak eta nazionalismoaren masifikazioa dakartza, nazio-estatu baten prozesua azken finean.

Agi denez, Estatuak ez da beti nazio komunitate bakar bat eta, orokorki, sinbolo gehiago ditu beharrezko Estatu homogeneoa egiteko.

³⁴ “A kind of state which has the monopoly of what it claims to be the legitimate use of force within a demarcated territory and seeks to unite the people subject to its rule by means of cultural homogenization.”

Nazioaren adiera juridikoa kontuan ere har dezakegu. Estatuaren biztanleriaz ari gara, hau da, nazionalitate juridikoa duena Estatu azpi-geruzaren partaidea da (Llobera J. R., 1995).

Hala eta guztiz ere, egon badago korrante bat nazio identitatea, nazio kultura, abertzaletasuna eta antzeko kontzeptuak lekuz eta garaiz kanpo daudela aldarrikatzen duena, sentimendu hori hainbat herrialdeetan soilik gertatuko balitz legez. Horretarako europar gerra osteko egoera ekartzen da gogora, inperialismo, nazio-sozialismoa eta faxismoaren ondorengoak balira bezala, arrazakeria eta xenofobiarekin alderatuz. Beraz, kritika askoren jo puntuan egon da.

Batetik nazio nortasuna kanpotik etortzen diren aldaketen aurreko erreakzio bezala ezagutzen dugu (Talavera Fernández, 1999). Honek xenofobiarekin du lotura arraza, erlijio, hizkuntza edota kultura ezberdineko gizakiekiko erreakzioa delako. Gainera etnia horiek mehatxua balitz bezala ikusten dira, mendebaldeko gizartean beheko mailak betetzen dituzten arren. Honen aurrean zeharo ezberdinak izan dira estatuen erantzunak. Adibidez frantziar Estatuan politika asimilazionista izan da; germaniar Estatuan nazionalitatea eskuratzeko betebeharrak gogorak ezartzen ditu, gizartea bitan banatzen; Erresuma Batuan zein Herbehereetan kultur-aunitzeko politikaren aldekoak izan dira eta gainerako estatu gehienetan behin behineko neurriak baino ez dira hartzen (Alvarez Dorronsoro, 1993).

Bestetik, subiranotasunarekin lotura zuzena duten aldarrikapenak ere agertu dira, nazio askotako estatuetan eta nazio-Estatuak izateko asmoak agerian uzten. Kasu hauetan Kosovo (egun lortu duena) Euskal Herria, Korsika, Eskozia edota Herrialde Katalanak liriateke adibiderik argienak.

Arrazoi batengatik ala bestearengatik nazio sentimendua, abertzaletasuna, estatua duena ala estaturik bakoa irudi txarrarekin lotu dira. Bereizi gura ala xenofobiaren eskutik unibertsaltasunaren bertute guztiei nolabait aurre egiten.

Irudi honen eskutik nazioa ikuspegi politikoen arabera eraikitzen da batez ere, hau da, botererik gabe ez dago naziorik eta une konkretu batean botere politikorik ez dutenak ez-legezkoak dira eta, aldiz, estatu egiturak ezarri dituztenak legezkoztat agertzen dira, bakea eta aurrerapenaren aitzindariak balira bezala.

Nazionalismoaren aztertzaileak behin eta berriz saiatu dira aztertu duten errealitate historiko korapilotsua eta nahaspilatua dikotomia sinpleetara murrizten. Maiz, tipologiek hierarkia moral bat islatzen dute; hierarkia horren arabera nazionalismo mota bat onargarria da eta bestea (besteak) onartezina.

Edozein ikuspegi ideologiko aukeratuta ere, zaila da nazioaz eta nazionalismoaz aritu izan den norbait ez aurkitzea. Ikusi besterik ez dago, esaterako, tradizio marxistak gai horri buruz utzitako produkzio mardula, non era guztietako ikuspegiak agertzen diren.

Sailkapenak egitean honako hauek aipa eta bereiz ditzakegu Smith-en eskutik: taxonomia historikoak eta soziologikoak (Smith A., 2007 -1776-).

Lehenengoen artean, hau da, taxonomia historikoen artean, kronologikoki lau fase hauek aurkituko genituzke: integratzailea, disruptiboa, erasokorra eta garaikidea. Honen guztien erreferentzia, eta baita sailkapen soziologikoari dagokiona ere, Iñaki Zabaletaren “Nazioa eta Hezkuntza Sistema espainiarraren sorrera” da (Zabaleta, Nazioa eta Hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera , 2000, orr. 10-11).

- Trevor-Rope-ren mugimendu historikoak eta bigarren mailako mugimenduak, mekanizista.
- Hayes-en nazionalismoaren sei tipo ideologikoak: humanitarioa, jakobinoa, liberala, tradizionala, babeste-ekonomikoduna eta totalitarista.
- Kohn-en Mendebaleko eta Ekialdeko nazionalismoak.

Bestetik, nazionalismoaren sailkapen soziologikoen artean, Smith-ek hainbat aipatzen ditu:

- Handman-en lau nazionalismo motak (irredentismoa, zapalkuntza, “prekuziozko” nazionalismoa eta “ospekua”).
- Wirth-ek proposatua (hegemoniazko nazionalismoa, partikularista, marginala eta minoritarioa).
- Seton-Watson-ek bereizitakoak, hiru elementu kontuan harturik: independentzia, irredentismoa eta nazioaren eraikuntza.
- Worsley-en taxonomia: mugimendu baterakoia, heterogeneoa eta pannazionalista.
- Kautsky-k nazionalismo linguistikoa eta antikoloniala.

- Symmons-Symonolewicz-en sailkapena: alde batetik, gehiengoen nazionalismoa -oro har, Estatua dutenak-, eta bestetik gutxiengoen nazionalismoa -askapen politikoa eta kulturalaren alde borrokatzen ari direnak-.

Horretaz gain, kontuan hartu beharrekoa da esanahiak historian zehar izan duen aldaketa. (Kedourie, 1988) eta agian nazionalismoaz baino nazionalismoez hitz egin beharko genuke.

Halaber, estatu txikiak iskanbila sortzaileak direla iradokitzea ez dator beti bat esperientzia historikoarekin, europar esperientziari dagokionez behinik behin (Llobera J. R., 1995, or. 141-142).

Zentzu honetan autore batzuen ustez, askoz erakargarriagoa da estatu txikiez osaturiko mundu bat estatu handiez osaturikoa baino. Adibidez, Kohr-en ustez, europar federazioaren etorkizunaz mintzo zenean, horren bermea omen zen estatu handiak zatitzea. Azken finean Erdi Aroko betiko naziorantz itzulera defendatzen zuen. Horren parekoa litzateke egun ezagutzen dugun Erregioen Europa. Hala eta guztiz ere, kontrako erreakzioa agerian da ere nazio izaera eta estatu berriak sinonimoak izan ez daitezela, hau da, autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenaren aurrean joera bideratzea independentzia eskuratzera heldu barik. Independentzia horrek gaizkiaren iturburua bailitzan (Kohr, 1957).

Ildo beretik, politikoki zuzena dena ez da nazionalismo hitza goraiatzea eta estaturik izan ezean, nazio nortasuna eta izaera aldarrikatzen dutenak zentzurik gabeko maitasuna adierazten dute nazioarekiko. Kasu honetan, nazioaren hamaikagarren esanahi aurki dezakegu, nazioa kasu honetan lurralde bateko hizkuntza eta kulturaren adierazpen baztertzailea da eta.

Behin baino gehiagotan nazionalismoa geografia-eremu gero eta handiagotan kultur erabatekotasuna ezartzeko joerarekin alderatu da, baina finean ezinezkoa da, kultur-erabatekotasunaren aurrean kontrakoa sortzen delako. Ezin dugu ahaztu modernitatearen osteko produkturik bitxiak ezberdintasunarekin lotura zuzena daukatela (Llobera J. R., 1995, or. 142-143).

Aurrekoa gutxi balitz, eztabaidan abertzaletasuna eta tribu-zaletasuna parekatzen dira, azken hau arbasoengandiko pasioen ordezkaria dela adierazteko, zibilizaziotik at

dagoen gauza bat azkenik. Abertzaletasunaren kontzeptu “zintzoa” (errepublikarekiko maitasuna, toki komunean askatasuna eta berdintasuna defendatzen dituzten erakundeen adierazle gisa) ere kutsatu da eta nazioarekiko maitasuna bihurtu ei da (herri baten hizkuntz, kultur eta etnia homogeneousotasunaren defentsarekin nahastuz).

Hainbat egilek abertzaletasuna eta nazionalismo ezberdinu gura dute. Planteamendu honen oinarrian abertzaletasuna eta nazionalismo hitzen erabilera helburu politiko zein ideologikoentzat datza. Virolli-k nazionalismorik gabeko abertzaletasuna defendatzen du, nahiz eta nazionalismoaren hizkuntzaren nolabaiteko garaipen ideologikoa onartzen duen, abertzaletasunaren hizkera egungo pentsamendu politikora mugatuz (Virolli, 1997, or. 202). Honen iritziz, zaila da oso hizkuntza, kultura eta historiaren loturak askatasun komuneke baloreak bihurtzea. Horren orde z gainerakoekiko dauden komuneke gauzak maitatzea proposatzen du, gurea bakarrik izango ez balitz bezala (p. 81).

Proposamen horrekin Habermas-ek defendatutako abertzaletasun konstituzionala gainditu gura du, nahiz eta Rusconi-k mendebaldeko nazio izaeraren motaren ezaugarriak kontuan ez hartzea leporatzen dion, hots, mendebaldean nazio izaerak hiritartasun abiaburu unibertsalekin eta etnia eta kulturarekin harreman estua duten bitzta era politika-aurrekoen ondorio dela. Beraz, hiritartasun konstituzionala elementu etniko zein kulturalen bitartez sortuko litzateke eta ez hauen aurka.

Habermas-en ikusmoldea hiritartasun ahalik eta unibertsal eta politikoena egitea da eta Rusconik ahalik eta nazionalena. Arestian aipatu den Virolli erdibidean legoke.

Ikuspegi honen eskutik ere bai, ezkorra da nazionalismoari buruzko ezein epaiketa. Hala eta guztiz ere, zapalketaren aurkako borroka, kultur adierazpenak... nazio baten eraikuntzan eragina duten faktoreak azken finean, ezagunak bezain errespetagarriak eta miresgarriak dira. Aurkarien arteko tentsio honetan ezin zaio abertzaletasuna edota nazionalismoari eduki konkretu bat leporatu eta edozein kasutan adierazien gordailuzain litzateke, adieraziak onak ala txarrak, positiboak ala negatiboak diren aurrez aurretik jakin barik (Llobera J. R., 1995, or. 144).

Aurreiritzi honen eskutik nazio eta nazio identitatearen kontzeptuen gaur egungo edukia bat da eta baita nazioa eta Estatuaren arteko harremana.

5.3.3 Nazioa eta hizkuntza

Oso zientzialari sozial gutxik defendatzen du hizkuntza baldintza beharrezkoa eta nahikoa denik nazio identitatea, nazio nortasuna eskuratzeko. Dena den, heuristikoki baliagarria izango litzateke honakoa esatea: hizkuntza dela nazio identitatearen gakoetako bat.

Fichte akademikoarentzat, tradizio erromantikoaren jarraitzailea, nazioak dituen ezaugarririk garrantzitsuenak hizkuntza eta kultura dira. Horiek abiapuntutzat harturik eraikiko litzateke nazioa, eta hizkuntzari esker hitz egin ahal izango litzateke kultura nazionalaz. Baina Estatuaz hitz egitean, garbi antzeman daiteke Fichte-k ikusmolde iraultzailearekin (frantziarrarekin) duen lotura. Estatuak -nazioak sortu duen Estatuak-, berez nazioaren parte ez diren horiek onartuko ditu, baldin eta Estatuarekin hitzarmenaren bidez konprometitzen badira: herritar berriak legeak bete beharko ditu eta Estatuak nazioaren herritarrek -berez nazioaren nolabaiteko jabetza direnak- dituzten eskubideak ziurtatuko dizkio, nazioaren hizkuntza eta kultura bereak egiten baditu, esate baterako.

Fichte-k (1992) tradizio erromantikoarekiko ñabardura bat ezartzen du. Estatuak ezin daiteke elementu artifizialetan oinarritu; beraz, naturala den nazioaren oinarria behar du. Baina hau ez da automatikoki gertatuko, eta, horregatik, hezkuntzaren beharra eta, era berean, garrantzia azpimarratuko ditu: “Estatu horri begira nazioa eskolatzea eta hezteak abiapuntua da” (orr. 211-215).

Herri batek hizkuntza jakin bati dion loturari erantzun nahi zaionean, azalpen erabat instrumentalak ez direla nahikoa eta egin beharko litzaizokela aipamen bat herri horrek bere hizkuntzarekiko duen lotura emozionalari. Hizkuntza identitatearen adierazle garrantzitsua da. Gizarte askorentzat, hizkuntzaren arazoa arazo nazionala da. Herder-en ekarpena hona ekarriz, hizkuntzaren baitan sartzen da pentsamendu eremu guztia, tradizioa, historia, erlijioa eta bizitzaren funtsa, bihotz eta arima osoa. Herri bati bere hizkuntza ukatzea, betirako duen ondasun bakarra ukatzea dela uste zuen alemaniarrek “*Über den Ursprung der Sprache*” liburuan XVIII. mendearen amaieran.

Adostasun orokor bat badago adituen artean, identitate nazionalean eta nazionalismoan hizkuntzak duen garrantziari dagokionez. Zentzu honetan, ez du axola primordialistak, eboluzionistak edo modernistak diren. Baina modernistek hizkuntza tresna gisa ikusten duten bitartean, primordialistek ikuspegi emozionaletik ikusten dute; eta eboluzionistek, jakina, bi mundu horietako bakoitzaren alderik onena nahi dute.

Ernst Gellner-ek (1983) esana da egungo modernitatearen baldintzetan, jendeak hiri girorantz jotzeko eta bertan bizitzeko joera duela. Industrializazioak ama hizkuntza partekatzea eskatzen du (bai hizkuntza idatzia, baita ahozkoa ere); bestetik, jatorriaren araberako lan banaketa bateraezina da gaur egungo ideia politiko liberal-demokratikoekin. Honelako egoeratan, Estatuak nagusi den hizkuntza estandarizatuan bultzatzen du alfabetatze unibertsala.

Nazioak, bestetik, talde politikoa eta talde kulturalaren arteko homogeneousuna behar du. Modernitatearen lema honakoa da: estatu bat, kultura bat. Beraz, menpeko kultur taldeek bi aukera dituzte: edo nagusi den kultura (eta hizkuntza) bereganatzen dute edo beraien kultura (eta hizkuntza) menperatua kultura nagusi bihurtzen saiatzen dira sezesioaren bidez; autonomia, azkenik, erdibideko aukera bat da (Llobera J., *La força de la llengua en la identitat nacional. L'èxperiència de l'Europa occidental*, 2001).

Bitxia da Gellner-ek ez aipatzea hizkuntzak identitate nazionalean duen funtzio emozionala, eta komunikatzeko bide gisa bakarrik ikustea. Eta are harrigarriagoa da ikustea ez Benedict Andersonek (2006) ez eta Eric Hobsbawnek (1991) ere, hizkuntzari buruzko aipamen luzea egin arren, ez ematea garrantzi handiagoa nazio izaeraren dimentsio emozionalari; nahiz eta Andersonek, harrezkero azpimarratu izan duen Gellner-en funtzionalismo estua adierazpen kulturalaren sentimenduzko uretan barneratzeaz baliatu daitekeela, linguistika barne.

Hizkuntzak atxikipen bide nagusitzat hartzeak historia luzea du zientzia sozialetan. Baina beharbada, Edward Shils (1957), Clifford Geertz (1963) eta Harold Isaacs-ek (1975) egindako lanek eragingo zuten egun primordialismoaren teoria eztabaida garaikidean sartu izana.

XIX. mendean -eta Europako Mendebaldean oso modu zabalduan- nazioak izaera naturala zuela "uste" zen, eta Estatua honen gainean eraiki behar zela. Baina esan daiteke Estatuak ez dituela soilik "nazioa"-ren ezaugarriak islatzen, ezaugarri horiei forma ematen diela baizik. Horrela, Estatu-ak kontrolpean duen hezkuntza sistemaren bidez hizkuntz uniformizatzea bultzatzen dezake, era honetan nazioaren parte-izate ofiziala ezartzen delarik: "Nazio integrazioaren funtsa da nazio identitate komunaren sorkuntza, goiko estatu-agintepean dagoen lurralde osoan"³⁵ (Aranguren, 1981, orr. 59-76).

Alde horretatik ulertu daiteke Olickek Hobsbawn-ek hizkuntzari ematen dion garrantziaz egiten duen erreferentzia, berak aipatzen duen ingeniari sozial horren barruan duen indarrarengatik, maila sinbolikoan duen indarrarengatik hain zuzen ere (Olick, Jeffrey K., 1998).

Rudolf Rocker-ek, zuzenean nazionalismoaren gaian sarturik, uste du hizkuntzak aparteko garrantzia duela ideologia nazionala oinarritzerakoan: "Nazio ideologia bat oinarritzeko aipatu diren elementu guztietatik, hizkuntzaren komunitatea da, seguruenik, garrantzitsuenak" ³⁶ (Rocker, 1936).

Horra hor non aurkitzen dugun komunitatearen elementua. Izan ere, eta inongo zalantzarik gabe, hizkuntza edozein giza taldearen lokarri indartsua dugu. Arestian esan bezala; askok hizkuntz-komunitatean ikusiko dute nazioaren ezaugarriarik funtsezkoena. Beste batzuk, nazionalismoa integrazio politiko gisa ulerturik, integrazio politiko horrek suposatzen dituen ezinbesteko prozesuen artean, hizkuntzaren finkapena garrantzitsuenetako bat dela uste dute eta hizkuntzaren finkapena dela eta, eliteen papera guztiz funtsezkoa da.

³⁵ "La esencia de la integración nacional es la creación de una identidad nacional común en todo el territorio integrado bajo la autoridad estatal superior."

³⁶ "De todos los elementos que se han mencionado para cimentar una ideología nacional, la comunidad del idioma es seguramente la más importante."

Estatu-nazioari dagokionez, eta arestian aipaturiko gizartearen modernizatzeko prozesuarekin lotzen den kultur homogeneizatzeari helduz, garbi asko ohar gintezke alde horretan hizkuntzak duen garrantzia. Zentzu horretan, eta kontutan harturik prozesuan komunitate identitateak duen protagonismoa -batasunaren zutabea ezinbestekoa suertatzen bait zaio estatuari (gizarte kohesioaz ari gara, hitz batean)-, esan behar da lurralde bateko biztanleen homogeneizazio zein estandarizazioa hizkuntza nazionalaren bidez lortzen dela batik bat.

Estatuak, prozesuaren alde "praktikoa" nabarmenduz, hizkuntza batetan izango den populazioaren heziketaren beharra azpimarratuko du, eta behar honi erantzungo dio, alfabetatzea integrazio eta asimilazio nazionalaren ardatz nagusia izango delarik. Ez da ahaztu behar hemen Estatuak erakusten duen "borondate oneko" aurpegia ere, finean hiritarraren mesederako ari baita: "Giro horretan, gizabanako baten kultura, hezitua izan den hizkuntzan eta berez erabil dezakena, haren jabegorik preziatuena da, hiritartasunerantz, giza duintasunerantz eta giza partehartzerantz doan sarbidea"³⁷ (Gellner E. , 1983, or. 347).

Pentsa liteke "hizkuntza nazionalarena" aukera guztiz pragmatikoa dela, Estatuaren inongo interes ezkutuari erantzuten ez diona, huts-hutsean gizartearen modernizazio prozesuari erantzuten diona, baina, aitzitik, guztiz kontrakoa da, historikotzat hartzen baita eta bere inguruan hainbat ohitura eta usadio eraikitzen dira (Hobsbawn E. , 1994, or. 104).

Ezin da ahaztu, eskola tresna nagusienetakoa izanik, hizkuntza nazionalera doan bidai honetan "amnesiak" duen garrantzia. Gellner-ek dioen bezala, guztiz garrantzitsua da hiritar bakoitzak normalizatua eta zentralizatua den hizkuntza oinarritzko eskolan ikastea, baina eskolan irakasten ez den hizkuntza ahazteak, edota behintzat gutxiesteak, ez du garrantzi gutxiagorik (Delannoï G. y., 1993, orr. 349).

Beraz, hizkuntzaren gai hau politikoa den ere kultur asimilazio prozesuan kokatu behar da: Estatu-Nazioak asimilazio prozesu horretan harturiko lehenengo neurrien

artean hizkuntzari dagokiona dugu. Historia, eta Europakoa zehazki, "integratze" prozesuan hizkuntzak izan duen protagonismoaren berri ematen diguten adibidez josita dago (galaikoz hitz egiten zuten eskoziarrak XVIII. mendean, bretoiak Iraultza Frantsesaren ondoren, etab.) eta horren berri izango dugu aurrerantzean, ondorioz honako hau esan genezakerik: hizkuntza nazionalak nazionalizatu egiten du. Jakina, asimilazio mailaren arabera izango da lortuko den kohesio gradua, eta arrakastatsua izateak ala ez Estatu-nazioaren markoan gatazka nazionalak pizteko aukera/arriskua baldintzatuko du neurri handi batean.

Edozein modutan, ezin da ukatu gaurkotze prozesuaren testuinguruan hizkuntzak "berez" duen nahitazko balioa. Alde horretatik interesgarria dirudi "hizkuntza egokiaren" ideia inguruan zerbait esatea, modernizazio prozesuari aurre egiteko gai den aldetik. Zentzu horretan, hizkuntzaren erabilpen ideologiko hutsak arreta berezia merezi du, hain zuzen ere -eta ez dago urrutira joan beharrik-, Estaturik gabeko nazionalismo batzuren erabilpenak. Neurri handi batean "hizkuntza egokia"-ren arrazoiketa ontzat harturik, beraien hizkuntza erabili izan dute nazio identitate, nortasun edota parte-izatearen elementu gisa, baina kultur hizkuntza sortzeari uko eginez.

Eta zergatik aipatzen da "hizkuntza egokia"? Badirudi hizkuntza ardatz nagusitzat hartuko duen uniformizazioak behar "teknikoari" erantzuten diola (hau da, modernizatzeko prozesuari aurre egiteko egokiak diren hizkuntzak behar dira eta Estatuak "nazioaren" hizkuntzaren alde egingo du apustu). Ezin da ukatu industrializazioak, merkatuak (eta pentsa merkatu "nazionalen", adibidez).., aparteko eragina dutenik, ezta duten garrantzia gutxietsi ere, baina nazio merkatu kapitalista baten bilakaera ahalbideratzen dituzten baldintzak ez daude azpiegiturarekin soilik lotuak, baizik eta era berean gainegitura juridiko-politikarekin, alde juridiko-linguistikoa barne. Beraz, merkatu nazionala eta hizkuntz-bateratzea elkarren eskutik doaz (Renee Balibar eta Dominique Laporte, 1976).

³⁷ "En tal ambiente, la cultura de un hombre, el idioma en que ha sido formado y en el interior del cual es efectivamente empleable, son su posesión más preciosa, su carta de acceso a la plena ciudadanía,

Eta zein da Balibar-en eta Laporte-n hitz hauetan antzeman daitekeen alderdi juridiko-linguistiko horren ardatza? Estatu barruko biztanle guztientzat lege berbera, hiritar guztientzat hizkuntz berbera. "Hizkuntza egokiarena" ez da, beraz, testuinguru "objektiboari" erantzuteko gaitasunean berez neurtzen den zerbait. Derrigorrez Estatuari, eta Estatuaren borondateari, lotuta doan gai bati heldu behar diogu. Hots, Estatuak nahitaez nazioaren ideologia lotu behar du hizkuntz nazionalaren ideologiarekin. Honekin lotuta, Estatuak zer esanik badu oso eztabaidagarria den gaiaren inguruan: erabilpen publikorako hizkuntzaren ahozko adierazpena eta hizkuntza idatzia.

Benetakoa den ala faltsua den baino, lotura hori eraginkorki nola gauzatzen den ikustea interesgarria da. Zentzu horretan, erabaki politikoen eragin determinatzailea nabarmendu beharra dago. Izan ere erabaki politikoez zuzenean bat egiten duen hezkuntza-sistemaren arloan kokatu beharrean gaude, aipatu lotura hori (nazioaren ideologia/hizkuntz nazionalaren ideologia) ezin baita materialki gauzatu eratutako eskola egiturarik gabe, eta hau ez baita posible Estatuaren eskusartzerik izan ezean. Balibar-ek eta Laporte-k diotenez (1976) "hizkuntza nazionalak ez dauka izaerarik, ez egonkortasunik eta ez da egonkorra bihurtzen eskola eratu baino lehen"³⁸ (or. 116).

Finean, pentsatu behar da modernizatze prozesuak berarekin dakarren aldaketak eragin nabarmena izan behar duela kultur identitatearen oinarriengan (Gellner E. , 1983) eta, lehen ikusi dugun legez, kultur identitatea funtsezko zutabea dugu Estatu-Nazioa eraikitzerakoan (dakigun bezala, hizkuntz eta kultur batasunak Estatuaren iharduera errazten dute, eta ez dagoenean helburu bilakatzen dira). Beharbada adibide batek hau erraz ulertzeko bidea eskainiko digu, Frantziaren kasuan hain zuzen. Brunot-ek dionez:

Frantsesa funtsezkoa izan zen Frantziaren kontzepturako
1789. urtean %50k inolaz ere ez bazuen frantsesez hitz egiten,

a la dignidad humana y a la participación social."

³⁸ "La lengua nacional no tiene existencia material, constituida, estable, generalizada, antes de la instauración de un aparato escolar."

eta soilik %12-13k “zuzen” hitz egiten zuen arren. Berez Erdiko erregiotik at ez zen normalean erabiltzen, ezta *langue d’omiren* erregioan ere, herrietan ez ezik, eta ez beti haien inguruko auzoetan. Frantziako ipar eta hegoaldean birtualki inork ez zuen frantsesez egiten.³⁹

(Hobsbawn E. , 1994, or. 69)

Halere, eta hemen dator arazoaren karkoa, frantsesak bazuen Estatuak, eta frantsesa Estatu horren "hizkuntza nazionala" zen hain zuzen. Eta testuinguru honetan ohar gintezke irakaskuntzan hizkuntzak duen, edo ez duen, presentzia zein neurritaraino den guztiz garrantzitsua. Adibidearekin segituz, frantsesak irakaskuntzan duen presentziak helburu bati erantzuten diola: hizkuntz uniformizazioa nazioaren batasuna eraikitzeko eta indartzeko. Hona hemen Swaan-ek berak jasotako Gontard-en hitz hauek “Hizkuntza Errepublikan moduan izan dadila; mintzaierek eta bihotzek batera beharko lukete... frantziar lurralde osoan”⁴⁰ (Gontard, 1959, or. 122).

Beraz, hizkuntzak -eta, ondorioz, hezkuntza-sisteman duen presentziak-, aparteko protagonismoa du Estatuak Estatu-Nazioa, eta honek beharrezkoa duen diskurtso ideologikoa, eraikitzeari ekiten dion unean. Eta zer gertatzen da Estatu-nazioei aurre egiten dieten beste nazionalismoekin? Ze neurritaraino osatzen du hizkuntza/hezkuntza-sistema binomioak hauen ikuspegiaren ardatz nagusienetako bat?. Lehenik eta behin, esan genezake goian komunitate nortasunari buruz aipaturikoa baliagarri dela. Hemen ere, hizkuntzak oso indartsua den identitate efektua du, eta hau horrela den heinean Estatuak bilatzen duen identitate uniformearen aurka egiten du. Horrela bakarrik uler daitezke, kulturaren gaiarekin

³⁹ “El francés fue esencial para el concepto de Francia, aun cuando en 1789 el 50 por 100 de los franceses no lo hablaban en absoluto y sólo entre el 12 y el 13 por 100 lo hablaban «correctamente» ; y, de hecho, fuera de la región central no se hablaba de forma habitual ni siquiera en la región de la *langue d’omi*, excepto en las poblaciones, y no siempre en los barrios periféricos de éstas. En el norte y el sur de Francia virtualmente nadie hablaba francés.”

⁴⁰ “Que la lengua sea como la República; las lenguas y los corazones deberían estar unificados ...en todo el territorio francés.”

gertatzen den antzera, historikoki Estatuak Estatu-Nazioarena ez den hizkuntzen lehiakortasun politikoa ezabatzeko egin izan dituzten saiakerak, izan ere hizkuntza da gakoa nazionalismo askorentzat, ikur bereizgarria, komunikazio aldetik eta biderik errazena gatazka politikorako (Rokkan & Urwin, *The Politics of Territorial Identity: Studies in European Regionalism*, 1982, or. 428).

Estatu-Nazioari aurre egiteko indar politiko nabarmena duen giltza dugu hizkuntza, identitate kontrajarriak azalarazi bait ditzake, finean nazio bat zein bestea bereizteko bidea eskain dezaketenak. Beraz, nahiz eta bakarrik kultur nortasuna elementu ideologiko hutsaren moduan izan, nazionalismo hauentzako hizkuntza nazioaren funtsezko ezaugarria izango da.

Ondorioz, eta lehen esandakoaren ildo beretik, pentsa daiteke hezkuntza sistemarekiko ezinbesteko erreferentzia puntua izango zaiela, inondik inora gutxietsi ezin daitekeena. Badakigu Estatuaren monopoliopean dagoen hezkuntza-sistemak kultur asimilaziorako tresna zuzen gisa jokatzeko duela, eta honek monopolio honekin amaitzeko ahaleginak eskatzen ditu nazionalismo horien aldetik, eskolarena borroka gune politiko garrantzitsuenetako bat bilaka daitekeelarik, aurre egin behar baitote aipaturiko "amnesia" sortzen duen Estatu-Nazioarenak ez diren hizkuntzekiko urruntasunari -urruntasun afektiboa barne, honek komunitate nortasunaren apurketarekin duen loturarekin-, hizkuntza horiek ahaztu edota gutxiesten diren heinean. Nola bada iraun dezake bizirik hizkuntza batek, nola izan daiteke "kultura nazionaleko" (Estatu-Nazioez ari gara, noski) hizkuntza menperatzaileekin konpetitzeko gai (horretarako kultur hizkuntza behar du izan) ez badu hezkuntza-sisteman inolako presentziarik?.

Joshua Fishmanek ahozko literaturak edo literatura idatziak maiz nazio baten handitasuna irudikatzen dutela azpimarratu du. Kontakizunek edo testu idatziek, itzuli ezin diren emozio eta esperientziak ukitzen dituzte. Gainera, berezko literatura da herriari hizkuntza eta nazionalitatearen arteko lotura egitea ahalbidetzen diona (Fishman, 1972).

5.3.4 Nazioa eta hezkuntza

Aurreko atalaren haritik, hizkuntzaz baino haratago, nazio nortasuna eta hezkuntzaren arteko lotura ere handia da, ongi jakina denez. Hezkuntzaz hitz egitean “teorikoa eta estetikoa den entitateaz ari gara, organikoa eta artifiziala, banakoa eta kolektiboa, unibertsala eta partikularra, independentea eta menekoa, ideologiko eta apolitikoa, etnikoa eta gizalegezko, eten gabekoa eta etena duena”⁴¹ (Delannoi & Taguieff, *Teorías del Nacionalismo*, 1993, orr. 9-17).

Definizio honen eskutik nazio izaera gauzatzeko hezkuntzak duen garrantziaz aztertzeari ekin zion Zabaleta Imaz ikertzaileak (2000), kontuan hartuta beste kontzepzio politiko batzuekin batera, nazionalismoa XIX. XX. eta XXI. mendeetako kontzepzio nagusienetako bat dugula. Alta, ez da forma zehatz bakarria hartzen duen kontzepzioa eta askotan beste batzuen ustez gurutzatzen da bide berean, bat egiten du, edota nahasten da. Adibidez, faxismo eta nazional-sozialismoak nazionalismoari emandako forma, fama eta zama, kolonialismoarekin izan duen zerikusia, marxismoaren nazioa eta nazionalismoa ulertzeko era hain ezberdinak –kontrajarriak askotan–, estatu liberaletan beteriko zeregina, nazio-askapenerako mugimenduetan beterikoa, eta abar luzea (Chatelet, 1986) (Touchard, 1983).

Estatuek eskuartean izan duten aparteko tresna dugu eskola, oinarrizko eskola batik bat. Eskola erabiliz hauxe lortu nahi da: nazioaren irudia zabaldu (naturala den ala ez, hori beste kontu bat da), baita bere historia eta tradizioa ere, nazioarenganako zaletasuna eta berarekiko atxikimendua ezartzen saiatuz, horretarako sinboloak eraikiz (bandera nazionala, himno nazionala, ...) eta, askotan, nazioaren tradizioa zein historia, edota nazioa bera asmatuz. Ingeniaritza ideologiko honek herri horren kontzeptu ideologikoarenganako leialtasuna bilatzen duen; hau da, Estatuarekiko abertzaletasuna du helburu (Zabaleta, *Nazioa eta Hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*, 2000, orr. 25-35).

⁴¹“Se trata de un ente que es teórico y estético, orgánico y artificial, individual y colectivo, universal y particular, independiente y dependiente, ideológico y apolítico, trascendente y funcional, étnico y cívico, continuo y discontinuo.”

Hauxe fenomeno hedatua litzateke mendebaleko Europan, Estatuak hezkuntza sistema ezartzen du bere gobernupean dagoen lurraldea benetako nazioa izan dadin, nazioa erreala bihur dadin.

Hobsbawn-ek ingeniari-tza ideologikoz hitz egiten zuen, Smith-ek Estatu zientifikoz arituko da eta Chatelet-ek eta Pisier-Kouchner-ek "Estatu-Gestore"-aren kontzeptua erabiliko dute (Smith A. D., 1991, or. 209). Azken finean, esan genezake gaiaren ardatza Estatuaren legitimazio teknologikoa dela, non hezkuntzak Estatu-nazioa sortzeko ezinbesteko garrantzia duen. "Jendeari txiki-txikitatik erakusten ez zaion bitartean (...) Estatu ezin da naziotzat zuzentasunez izendatua izan" ⁴² (Kedourie, 1988, or. 63).

Zergatik Estatuarena da ardura? Azkenik, badirudi Estatu-nazioak Estatuan sortzen zaion beharrari erantzuten diola. Horren inguruan nazionalismoaren hainbat teoria aurki dezakegu. Horrelako batetan gizartearen modernizazio prozesuan koka daiteke nazionalismoaren gaia, gizarte tradizionalak gizarte industrializatu bihurtzeko izan duten igaraldian. Bilakaera horretan gizarte tradizionalak zuten ezaugarri bat modernizazio prozesurako oztopotzat hartua izango da: kultura-heterogeneotasuna. Gizartearen kultura-homogeneitatea derrigorrezkotzat jotzen da modernizazio prozesuak dituen beharrei erantzuteko. Baina zein testuingurutan bultzatu beharko litzateke homogeneizazio hori? Hain zuzen, modernizazio prozesu hori dela eta, bere interesak zaintzeko burgesiak botere politikoaren nagusigoa, hegemonia, lortzen duen Estatu modernoaren markoan; Marx eta Engelsen hitzetan:

Burgesiak gero eta batuago gura ditu produkzio tresnak, jabetza eta populazioa. Biztanleria pilatu du, produkzio tresnak zentralizatu ditu eta jabetza gutxi batzuren eskutan dago. Horren ondorioz zentralizazio politikoa heldu da. Herrialde independenteak, elkarren artean ia soilik lotura federalen bitartez loturik daudenak; interesak, legediak, gobernuak eta

⁴² "Mientras no se le enseñe a la gente desde su más tierna edad ..., el Estado no puede ser denominado con propiedad una nación."

muga-zerga ezberdinak dituztenak nazio bakar batean, gobernu bakar baten mendean, legedi bakar baten mendean, klaseko nazio-interes bakar baten agindupean, muga-zerga lerro bakarraren eraginpean bateratuak izan dira.⁴³

(Marx-Engels, 1985, or. 41)

Hau da, modernizatze prozesuak, industrializazioak, eta tartean dauden klase interesak, estatu-nazioaren markoa behar dute; honek, gauza dadin hain zuzen, bere gobernuaren mendean duen gizartearen homogeneitatea bultzatzearen premia dauka, bestek beste honek kontzientzia nazionala sortzen duelako, eta, bai bera ideologikoki legitimatzeko bai homogeneizatze prozesua bideratu ahal izateko, hezkuntza sisteman aurkituko du aparteko tresna. Finean, eta testuinguru honetan, nazioa boterearen teoriaren bilaketaren markoan definitzen da edota, hobeto, legezko boterearen titularraren definizioan (Gellner E., 1988).

Bestalde, Estaturik ez duten nazioen kasuan bere papera zein izan daitekeen argitzeko dago oraindik. Dena dela, hemen ere, ezinbestean, Estatu-nazioaren erreferentzia nagusizat jo beharko dugu. Horrela, *Nation-building* (Nazio-eraikuntza) izenarekin ezagutzen den eskolak ikuspegi interesgarria eskaintzen du (Rokkan S., 1975, orr. 562-600).

Honen arabera bi prozesu nazional mota bereiz daitezke: prozesu motela eta prozesu azkarra. Lehenengoa Estatu-nazioari dagokio: Estatuaren sorrerari, errealitate politiko berria eraikitzen delarik, zentralizazio politiko-administratiboa ezaugarri nagusizat duen penetrazio fasearen ondorioz, nortasun nazionalaren elementuen sorrerak jarraituko dio. Hemen ere zentralizazioa ezaugarri nagusia izango dugu eta

⁴³ “La burguesía suprime cada vez más el fraccionamiento de los medios de producción, de la propiedad y de la población. Ha aglomerado la población, centralizando los medios de producción y concentrando la propiedad en manos de unos pocos. La consecuencia obligada de ello ha sido la centralización política. Las provincias independientes, ligadas entre sí casi únicamente por lazos federales, con intereses, leyes, gobiernos y tarifas aduaneras diferentes, han sido consolidadas en una sola nación, bajo un solo gobierno, una sola ley, un solo interés nacional de clase, una sola línea aduanera.”

amankomuna den, edo izan nahi duen, corpus ideologikoaren eraikitzeari ekingo zaio, helburua nazioarenganako kontzientzia piztea izango delarik. Horrela ikusten da hezkuntza sistemak, beste elementu batzuekin batera (armada, burokrazia, zerga sistema etab.) funtsezko papera betetzen duela Estatu eraikitze garaian, identitate nazionala sortu eta indartzerakoan oinarritzko tresna den neurrian, Estatuaren oinarri ideologikoa baita identitate nazionala.

Baina Estaturik ez duten nazioen kasuan beste bat izango da proposatuko zaigun eredu, prozesu azkarra hain zuzen. Hemen koka genitzakeen nazioek egoera bereziari aurre egin beharko diote: alde batetik, besteak ez bezala, ez dute Estaturik eta, beraz, ezta honek martxan jartzen duen aipatzen zen ingeniari ideologikoa ere; bestalde, Estatu horien barruan sortzen diren heinean, Estatu-nazioak irensten duen nazioak hil ala biziko borrokan etsai nagusia izango du Estatu, nazio batek (Estatu-nazioak alegia) bestea ukatzen baitu. Beste era batera esanda, eta hezkuntzaren arloan kokaturik, Estaturik ez duen nazioak ez du hezkuntza sistema nazionalik (armada, zerga sistema,..., ez duen bezala) eta legitimazio tresna indartsuaren faltan dago; baina ez hori bakarrik, nazioa ukatzen duen Estatuaren hezkuntza sistemaren eraginari aurre egin beharko dio, horrek legitimatzen baitu Estatuaren oinarri ideologikoa den nazioa. Beraz, Estaturik gabeko prozesu nazionala beste era batekoa izango da (Recalde, 1984).

Egon badago ere Estatu plurinazionalaren kasua. Baliteke "Estatu plurinazionala"-ren formula hori, hainbat kasutan behintzat, egoera gatazkatsuak indargabetu nahirik Estatu kolokan jarri dezaketen prozesu nazionalak estaltzeko erabilia izan da. Esaterako, espainiar Estatu adibidea litzateke eta ez dira faltan izango, aniztasuna onartu arren, honako argudio honen antzekoak:

Honen garrantzitsua da espainiar Nazioaren ekarpen legitimatzailea (...) Espainiar Nazioa sozialki zehaztua dagoen berezko komunitate bezala eta dagokion era politikoaren jarraipenaren lekukoa da bere iraupen historikoa (...) Ezein Estatuak, beraz ezta espainiar Estatuak ere, ez du argudio nazionalista baztertzen ordena politikoaren justifikazioa

ziurtatze aldera (...) Nazioak eragin eraikitzaileak ditu estatu-
eraikinean, benetakoak, sendoak eta eztabidaezinak diren
oinarrien gainean utziz (...) Espainiar Nazioa batasun
konstituzional askotarikoa bezala.⁴⁴

(Solozabal, 1994) (Recalde, 1982)

Gauzak horrela, baieztapen nazionalaren bidez prozesu nazionalaren lehen urratsa ematen da nazioaren irudia gizartean zabaltzea zaila izango den arren, aipatu prozesu nazionalak ez baitu, besteak beste, lehen genion bezala, hezkuntza sistema bezalako tresnarik. Beraz, hori lortzeko, beste bide batzuk aukeratzeaz gain (prentsa, folklorea, etab...), nazionalismoak hezkuntza sisteman izango du borroka fronte garrantzitsuenetako bat.

Jakina, nazionalismo guztiak ez dira berdinak eta beraien eskabide mailak ezin dira parekatu, baina onarpen soiletik Estatuaren eraikuntzara doan bidearen nolabaiteko eskema egin daiteke. Horretarako Coakley-ek (1992) zehazten ditu hiru sekuentzia:

Nazionalismoa sortzen den unean Estatu-nazioak bere legitimaziorako erabiltzen duen hezkuntza sistemaren aurkako erreakzioa.

Nazionalismoak, gizarte hedapen handiagoa duen neurrian, hezkuntza sistemaren kontrola lortzeko asmoz eginahal ezberdinak bideratuko ditu.

Nazionalismoa bere hezkuntza proiektu nazionala gauzatzera zuzenduko litzatekeen sendotze fasean.

Jadanik ikusi dugun legez, eta Europari dagokionez, XIX. mendearen hasieran Estatuek, eta Estatu izateko bidean zirenek, nazioan eta honek eskaintzen duen

⁴⁴ “La contribución legitimadora de la Nación española es efectivamente tan importante (...) la Nación española como comunidad específica socialmente determinada y cuya permanencia histórica da cuenta asimismo de la continuidad de la forma política correspondiente (...) ningún Estado, por tanto tampoco el Estado español, está decidido a prescindir del argumento nacionalista a la hora de asegurar la justificación al orden político (...) la Nación tiene unos efectos constructivos o centrípetos en el edificio estatal, al hacer reposar a éste sobre cimientos ciertos y sólidos, indiscutibles (...) la Nación española como unidad constitutivamente plural.”

komunitate nortasunean aurkituko dute oinarri sendoa. Eta identitateak hezkuntzaren arloan leku pribilegiatua aurkituko duen kultura/hizkuntza binomioarekin lotura zuzena du. Kulturak zein hizkuntzak esanahi politikoa duten neurrian (Navari, 1987).

Galdera da, nola sor daiteke Estatua eta bere kontrolpean dagoen lurraldeko populazioaren arteko lokarria? Edo, beste era batera esanda, nola sortzen da bi instantzia horien arteko identifikazio elementua?. Eric Hobsbawn-ek Estatuaren gobernuarekin harreman zuzena duela dio; hau da, harreman erregularra sortzen da Estatu-nazioarekin honek dituen ordezkarien bidez (postaria, polizia, eskolako irakaslea, soldaduak, ...), identifikazio zentro-gunea -leialtasunarena barne- nazioan aurkituko dugularik. Eta nazioak komunitate, herri edota kolektibitate sentimenduarekin egiten du bat, partehartze amankomuna edota batasun zentzua emango dioten ezaugarriak eta bereizgarriak ezarriz; hots, "existentzia-komunitatetik nazioarekin lotuko duen 'irudikatutako komunitatera' doan jauzia egin"⁴⁵ (Hobsbawn E. , 1991, or. 99).

Tivey-ek (1987) ere antzeko analisia egingo du: Estatua nolabaiteko komunitate nozioa gauzatu beharrean aurkitzen da, eta honek elkarkomunikazio maila handia eskatzen du, ondorioz komuna den hizkuntzak zein komuna den kulturak aparteko garrantzia hartzen dutelarik. Interesgarria litzateke, adibidez, "*pays*", "*paese*", "*pueblo*" edota "*patria*" bezalako hitzek izan duten bilakaera filologikoaren nondik norakoak aztertzea.

Estatuak bere neurriak hartuko ditu haur guztiak goizero jaikitzen direnean eskolara joan daitezen ziurtatzeko, eta hau bere gobernuaren agindupean dagoen, edo mantendu nahi duen, herriaren batasunera zuzenduriko gobernu ihardueraren testuinguruan kokatu behar da. Alde horretatik hizkuntz/kultur batasunak Estatuaren politika errazten du. Zer gertatzen da batasun hori ez dagoenean?; helburu bihurtzen dela, horretarako uniformea den hezkuntza nazionala ezartzen delarik, uniformizatzeak integrazioa errazten baitio Estatuari: "Estatu indartsuago batek

⁴⁵"Dar el salto de comunidad existencial al de "comunidad imaginada" que ligara con la nación."

berdintsuago egiten du herria eta herri batuagoak estatua are indartsuagoa bihurtzen du”⁴⁶ (Deutsch, 1971).

Azpinarratu behar da ikur nazionalak eta kultura nazionala (literatura, historia, ...) pertsonen bizitzaren parte izanarazteko eskolak duen gaitasuna, maila pribatu edota lokala, eta maila publikoa edota "nazionalaren" arteko bereizketa apurtzen duelarik.

Adibidez, curriculum nazionalaren barruan duen leku nagusia kontutan harturik, ikus dezagun zein izan daitekeen historiak bete beharreko zeregin ideologikoa. Geografiaren bitartez azter daiteke gaia: ez da batere zaila lurraldeari ematen zaion garrantzi politikoa ikustea, hau zuzenean talde edota komunitate identitatearekin, nortasunarekin, lotzen delarik: "Estatu guztien helbururik funtsezkoena lurralde-osotasuna gordetzea da eta bere mugen barruan izaeraren legitimotasuna bermatzea”⁴⁷ (Urwin, 1983).

Curriculumarena, nazio identitatea sortzeko unean duen eraginarengatik, zein neurritaraino izan daitekeen gai gatazkatsua ikusteko, hartu besterik ez dago, eta testuinguru bati lotu arren, zer gertatzen den hain egoera korapilatsua bizi duen Ipar Irlandaren adibidea (Farre, 1991).

Breully-k esaten duen moduan: “Historiak identitatea ematen du”⁴⁸ (Breully, 1990, or. 365).

5.3.5 Nazioa eta kultura

Nazio identitatea sortzean, kulturak daukan garrantzia ukaezina da. Aniztasun kulturalaren inguruan jarrera ezberdinak aurki ditzakegu. Herritar kultura eta nazio nortasunak garrantzi handia daukate ezagutzen dugun Informazioaren Gizartean integrazio espazio nazionalak sortzeko orduan.

⁴⁶ “Un estado más fuerte hace más uniforme al pueblo, y un pueblo más unido hace más fuerte aun al estado.”

⁴⁷ “El objetivo principal de todo Estado: preservar la integridad territorial y garantizar dentro de sus fronteras la legitimidad de su existencia.”

⁴⁸ “La historia da identidad.”

Espazio nazional horiek tokiko eta herriko espazioekin lotura estua dute, baina era berean tokian tokiko instituzioen arabera identitatearen ezaugarriaren ardatzak aldatzen joango dira.

Kultura eta Hezkuntzarako Nazio Batuetako erakundeak (UNESCO) kulturari buruzko definizioa plazaratu zuen 1981an: “Estetikoki soilik definitutako kulturak ez du beste kultur eratako errealitatea islatzen. Joera gizarte-antropologikoa dago indarrean izaeraren ezaugarri kontuan hartzeko, hau da, konkretuak, herri osokoak: bizitza eta produkzio moduak, balore sistemak, iritziak, sinesmenak etab.”⁴⁹ (Garreta, 2001, or. 25).

Halaber, UNESCOk zera hau dio: “Kultura da ezaugarri bereizgarrien multzoa, arimakoak eta materiakoak, intelektualak eta hunkiberak, gizarte edo giza taldea karakterizatu egiten duena. Bere baitan, arte eta letraz gain, bizitzeko erak, gizakiaren oinarritzko eskubideak, balore sistemak, ohiturak eta sinesmenak”⁵⁰ (Aguirre España, 2005, or. 321).

Egon badaude UNESCOren definizioa handitzen dutenak:

(Kultura da) (...) gizakiaren bizitza estiloa, mundutik eta izatetik datozen beharrei, eskakizunei eta gatazkei aurre egiteko (...) kultura bakoitzak bere espazio dauka eta gizarte-antolakuntza sistema antolatzen da; bertan, egiturazko koordinazioarekin, ekimen politikoak, ekonomikoak, zientifikoak eta teknologikoak sartzen dira; erlijio, magia eta moralez lagunduta. (...) Alboan daude artea, edertasuna eta

⁴⁹ “La cultura definida únicamente a partir de criterios estéticos no expresa la realidad de otras formas culturales. Hay una tendencia unánime en favor de una definición socio- antropológica de la cultura que abarque los rasgos existenciales, es decir concretos, de pueblos enteros: los modos de vida y producción, los sistemas de valores, las opiniones, las creencias, etc.”

⁵⁰ “La Cultura es el conjunto de rasgos distintivos, espirituales y materiales, intelectuales y afectivos, que caracterizan una sociedad o grupo social. Ello engloba, además de las artes y las letras los modos de vida, los derechos fundamentales del ser humano, los sistemas de valores, las tradiciones y las creencias.”

harmoniaren adierazle gisa; eta filosofia, munduaren, bizitzaren
 eta jazoaren ikuskera gisa.⁵¹
 (Matos Mar, 1999, or. 113)

Kultura gizakien gizarte herentzia dela diotenak ere egon badaude. Aurrekoarekin bat eginez, Colombres-ek dio: "Kultura gizarte batek denboran zehar egindako jardueraren produktua da, prozesu metatzaile eta hautatzaile baten bitartez gauzatzen dena"⁵² (Colombres, 1987, or. 91).

Nortasun kontzeptuak harreman estua dauka desberdintasun kontzeptuarekin. Diferentziaz ari garenean kultur aniztasunaz ere ari gara.

Horregatik kultur industriren globalizazioak, batetik, eta, oro har, kultura osoarenak, herrien identitate eta kulturaren bilakaerarako erronka planteatzen du. Zentzu honetan garrantzitsua da azpimarratzea ondasun sinbolikoen produkzioan eta zirkulazioan gero eta zentralizazio gehiago dagoela. Halaber, globalizazioak komunikazio eta ezagutza era berriak ahalbideratzen, herrien kultur identitateen bilakaerarako aukerak eta arriskuak sortuz.

Gauza jakina da edozein eratako nazionalismok kontzienteki bilatzen duela kulturarekiko lotura. Ikusi besterik ez dago "nazioaren" eskutik doan hainbat kultur erakundek ("antzerki nazionala", "museo nazionala", "unibertsitate nazionala",...) beteriko papera: euren kultur balio horretaz gain, garbi dago benetako subiranotasun ikur gisa jokatzeko dutela nazioaren eszenatokian.

⁵¹ "Su estilo de vida para afrontar sus necesidades, requerimientos, solicitudes y conflictos provenientes del mundo y la existencia (...) Cada cultura se desenvuelve en un espacio propio, donde se crea un sistema de organización social en el cual funcionan estructuralmente coordinadas las actividades políticas, económicas, científicas y tecnológicas; apoyadas por la religión la magia y la moral (...) Acompañan este conjunto de órdenes de la actividad humana el arte como como expresión de la belleza y la armonía, y la filosofía como concepción del mundo, de la vida, del acaecer."

⁵² "Cultura es el producto de la actividad desarrollada por una sociedad humana a lo largo del tiempo, a través de un proceso acumulativo y selectivo."

5.3.5.1 *Estatua eta kultur identitatea*

Estatua, egitura politiko gisa, teoriak behintzat hiritarrek osatzen duten nazioa den gorputzari lotzen zaio; baina gorputz horrek nolabaiteko sendotasuna behar du (eta ez duenean sendotasun batez hornitu behar da). Alde horretatik kultur identitateak funtseko zutabea osatzen du komunitate nazional bakarraren nozioa sortzeko bidea eskaintzen baitu, nazioaren definizioari sendotasuna ematen dion neurrian. Kultur identitatea ez da berez identitate nazionalaren isla, ezta ere -maila absolutuan bederen- helburu politikoak dituen asmakizun arbitrario hutsa; historia bere izaera dinamikoan ulerturik, esango genuke korapilotsuak diren egoera sozial eta politikoei zentzua emateko behararengatik sortzen dela. Honela: “Bere boterea mantentzeko lagungarriak diren kultur ekintzak baino ez ditu bultzatzen Estatuak. Aitzitik, etsai amorratua balitz bezala jazartzen du Estatuak berak ezarritako mugak gainditzen duen edozein kultur adierazpena, finean, beren izaera auzitan jar dezakeena”⁵³ (Rocker, 1936, or. 99).

Honen adibide ezin hobea aurkituko dugu kultur ezaugarri bereziko nazio edota komunitate ezberdinak integratzen dituzten Estatuetan (frantsesa eta espainiarra esate baterako). Estatuaren aldetik, estrategia politikoak zein administrazio mailakoak direla medio, iharduera sistematikoa igar daiteke. Besteak beste, eta zuzenean gure gaiari helduz, esan daiteke hezkuntza sistemaren monopolioa kultur asimilaziorako tresna zuzena dela; honen bidez, Estatua nazio eta kultur horien kultur garapena baldintzatzen, indargabetzen edo -eta ez gutxitan- itotzen saiatuko da, kolokan ipintzen baitute beharrezkoa zaion kultur homogeneitatea, Estatu-nazioari identifikazio-oinarri indartsua ematen diona hain zuzen .

Hemen ere historia sinbolikoaz hitz egin beharko genuke. Errealia izan denentz alde batera utzirik, iragana eta oraina lotuz, "nazioaren" partaideek "nazioaren

⁵³ “El Estado sólo se muestra favorable a aquellas formas de acción cultural que favorezcan la conservación de su poder ; pero persigue con odio irreconciliable toda manifestación cultural que va más allá de las barreras por él trazadas y puede poner en litigio su existencia”.

historian" beraien ispilua aurkitzen duten neurrian. Nazioaren historia nazio nortasunaren isla litzateke, eta nazioa eta bere partaideen arteko lotura ezarriko luke.

Dimentsio historikoa kultur sistema ororen zati bat da eta gizabanakoak bere giza ekintzarako ondare integratzaile bat izan dezala ahalbideratzen duen bitartean, legatua segitzeko eta hobetzeko aukera ematen dio. Legaturik gabe, norbanakoak kultur esperientzia tresnarik ez luke edukiko eta, agi denez, kultur historiari bere kabuz eta aurrekaririk gabe ekin beharko lioke".⁵⁴ (Spicer, 1984, or. 31)

Aldi berean, jakin badakigu kultur ezberdintasunak identitate/nortasun ezberdintasuna ziurtatzen duen bezala, kultur uniformizazioak populazioaren homogeneizatzea sortarazten duela. Eta homogeneizatze hori da, hain zuzen, Estatuarentzako, eta honen egonkortasunerako, funtsezko ardatza. Alde horretatik, funtsezkoa da ere, kulturari ematen zaion balioa; hots, zein den kultur batek izan dezakeen estatus maila, prestigio maila. Galdera honi erantzungo dion guztiz oinarritzkoa den beste galdera bat erantsi beharko genioke: bere espazioa ba al du, ala ez, kulturak hezkuntza-sistemaren barruan?.

5.3.5.2 *Estaturik gabeko nazioak eta kultur nortasuna*

Estaturik ez duten nazioetan zer nolako errealitatea aurki daiteke? Zein da kulturari dagokion gai honi buruz Estatu-nazioarekin bat egiten ez duten beste era honetako nazionalismoek erakutsitako jarrera?.

Hasteko esan mugimendu nazionalistak izugarritzko kapital politikoa izango duela esku artean baldin eta berak ordezkatzeko lukeen kultur taldearen errealitateaz nolabaiteko gizarte mailako sinestea edota uste osoa zabaltzen badu. Estatu-nazioaren

⁵⁴ "La dimensión histórica es parte de todo sistema cultural, y mientras hace posible que el individuo disponga de un legado integrador para su acción social, supone para él la oportunidad de continuarlo

markoan -edozein dela Estatu-nazioaren lurraldean edota erakunde mailan bultzatu eta lortu nahi duen aldaketa (deszentralizazio administratiboa, autonomia, federakuntza, independentzia)- beste nazio bat aldarrikatzen duten nazionalismoari ezinbestekoa zaio lurralde zehatzean kokaturiko giza talde zehatzaren nolabaiteko nozioa. Hau egin daiteke, eskubide politiko batzuei buruz hitz egiteaz gain, talde horren kultur nortasun berezia azpimarratuz.

Zentzu horretan, Estatu-Nazioari eta kulturari buruz esandakoa, testuinguru honetan kulturak beteriko funtzioei dagokionez, baliagarria izango da Estaturik gabeko nazioei buruz hitz egitean ere. Nazionalismoak Estatuarekin bat egingo ez lukeen nazioa eta nazio hori osatuko lukeen populazioaren arteko lokarria aurkituko du komunitate nortasunarekin lotuta dagoen kultur identitatean. Hemen ere kultur nortasunak nazioaren oinarritzko ardatza den komunitate nazionalaren nozioari berebiziko sendotasuna emango dio, hori ezinbestekoa delarik kontzientzia nazionala eraikitzerakoan.

Horregatik, hain zuzen, aipatu da kulturaren kapital politikoaren garrantzia; izan ere, kultura bakoitzaren egoera zuzenean loturarik baitago bere etnia edota nazioaren egoera politikoarekin. Halaz ere, Estatu-nazioarekin bat egiten ez duten nazioek horren pareko kultur garapen maila baldin badute asimilazioari aurre egiteko egoera hobean egongo dira. Ezaguna den legez, Estatuaren aldetik erreakzioa bapatekoa da eta mesprezuzko etiketak sortzeari ekiten dio; "sektarioa", "tribala" eta antzeko izenlagunak kaleratzen dira Estatu-nazioaren baitatik. Honen zergatia oso sinplea da: edonolako kultur nortasun bereziak aurrez aurre egiten du kultur identitate orokorraren kontra, eta hau Estatuarentzako izugarritzko zama politikoa izan daiteke, kolokan jartzen baitu honen oinarri legitimatzailearen logika. "Baliteke eskaera erregionalistak, edozein motakoa izanda ere, Estatuarentzat balizko arriskua sortaraztea, hainbat egoeratan bere eragin politikoa esan-nahirik bakoa izan daitekeen

y evolucionarlo. Sin este legado, el individuo carecería de medios de experiencia cultural y, como es obvio, tendría que iniciar la historia cultural por sí mismo y sin antecedentes “.

arren”⁵⁵ (Rokkan & Urwin, *The Politics of Territorial Identity: Studies in European Regionalism*, 1982).

Eskaera horien artean (nazionalismoarentzako baldintza egokitan, jakina), kulturarenak ere kolokan jar dezake Estatu monolitikoa, eta Estatu jakinaren gainean dago, kultur berezitasun orok etsaitzat hartzen du Estatuaren barne kohesioak, bestelako identitate bat bezala bilakatzen baita.

Horrela, Estatuak Estatu-nazioarenak ez diren beste kultur ezberdinen lehiakortasun politikoa indargabetzen du, edota desagerrarazten saiatuko da. Besteak beste, hezkuntza-sistemaren kontrola da jokoan dagoen elementu garrantzitsuenetako bat. Nahitaez, gai honek kulturaren maila politikora eramaten gaitu: kulturak iraun nahi badu, derrigorrez babes politikoaren beharrea aurkituko da, babes politiko horrek, orokorrean kultur azpiegituraz gain, hezkuntza azpiegitura ziurtatuko baitio. Eta hau da, hain zuzen, osatzen den katea: kultura/nazioa, nazioa/egitura politikoak, egitura politikoak/hezkuntza sistema, hezkuntza-sistema/kultura. Beraz, erraz uler daitekenez, Estatu-Nazioari aurre egiten dioten nazionalismoentzako derrigorrezkoa suertatuko da hezkuntza-sistema era batean edo bestean kontrolatu nahi izatea, berak defendatzen duen nazioaren kulturak hezkuntza-sisteman lekua izan dezan, kultura nazioaren zutabe garrantzitsuenetako bat den neurrian.

Egia da kultur ezberdinek topo egiten dutenean -Estatu plurinazionalen kasu- Estatuak kultur horien balioa pareka dezakeela, baina, politikoki “irakurrita” behin behineko moduan egingo lukeela, testuinguru politikoak hala bultzaturik. Arrazoiak haxe litzateke: Estatuaren azken helburua uniformetasuna da, kultura bakarrak, hau batasun ideiarekin garaipen gisa ulertu behar delarik. Horrela, Estatuak kultur ezberdinen arteko harremana ontzat hartzen badu, Estatuaren kulturarentz doan integratze prozesua bideratzen duelako da.

Orokorrean esango genuke Estatu-nazioa bezala -edota, testuinguru politikoak eraginda, Estatu nazio aunitz duen moduan- aurkezten den Estatuaren barruan dauden

⁵⁵ “it may be true that regionalist demands, of whatever kind, are potentially traumatic for a state, under certain circumstances their political impact can be negligible.”

nazioen eskubideek ez dutela bat egiten Estatuaren menperatze helburu nahiekin. Azken finean argitu beharko genuke noiz hitz egiten den Estatu plurinazionalaz, kontzeptu honek sakoneko azterketa ilundu ez dezan:

Estaturik gabeko nazionalismoek Estatu-nazioarekin bat egiten ez duten nazioen presentzia aldarrikatzen dutenean, Estatu horrek beste nazio batzuk integratzen dituela adieraziz.

Estatuak, testuinguru historikoak bultzatuta (askotan beste nazionalismoen eraginez) nazio aniztasunaren errealitatea onartzen duenean -armonikoa den neurrian, noski-, hain zuzen Estatuaren beraren egitura arriskuan ikusten duenean. Edonola ere, esan behar da ez direla gutxi beraien helburuen muga ofizialki aintzat hartzen den Estatu plurinazionalaren markoan kokatzen duten mugimendu nazionalistak.

5.3.5.3 Nazio nortasuna eta historia

Egitate historikoak banakoaren, taldearen eta, batik bat, estatuen baitan osotasunean pizten duen interesa (objektiboa eta subjektiboa) ukaezina da, direla estatuok nazio baten gauzatzea, direla inposizio inperialistaren emaitza.

Mundu osoan onartzen da historia erreferente erabakigarria dela taldearen kohesioan. Ildo horretan, hiru historialariren iritzia ekartzen dut hona, J. Appleby, L. Hunt eta M. Jacob amerikarrena: “Memoria mota guztiek (ikusgarriek eta ikusezinek) norbere nortasunari eusten dioten neurri berean, historian bizi den nazio memoriak talde nortasuna ematen dio herriari, elkartze hutsa elkartasun bihurtzen du eta estatuaren autoritate hertsagarria zilegitzen du” (Sorauren, 2006).

Herriaren pertzepzioa, memoria historikoa banakako memoriarekiko paraleloa da. Historiarik gabeko herriak amnesia du. Gainera, historia da talde jakin bati kohesioa ematen dion nortasunaren oinarria, eta estatuko antolakundeak banakoa edo talde bat hertsatzea zilegitu ere egin dezake. Bestalde, unibertitatearen eta, bereziki, Historia sailen funtsezko eginkizuna Estatuaren zilegitasuna justifikatzea da, nazio ideologia eginez (Noiriel, 1997).

Aforismo zaharrak dionez, bere historia ahazten duen herria errepikatzen kondematuta dago; bestela historiari uko egiten dion herria desagertzera kondematuta dagoela esan daiteke. Nazio edo nazio izan nahi duen estatu oro historian oinarritu dela, hala etxean, nola kanpoan. Inguruko estatu guztietan egiazta daiteke hori, baina deigarria da Erdialdeko eta Ekialdeko Europan sortu berri diren estatuak historia aipatzea: Sobietar Batasunak inposatutako historiaren ikuspegiari uko egin diote; harekin bat, nazioa gainditu eta internazionalismoa ezarri behar zen baina, egiaz, Ekialdeko Europako historia interpretatu zuen, tsarismoaren garaian Errusia handian sortu ziren planteamenduetan oinarrituta.

Egun, Europako estatu handi guztiak euren memoria historikoa berrosatzen tematuta daude, behatzaile kritikoek onartzeko moduko bilakatu nahian, mantentzen duten nazio proiektua itxurazkoa izan dadin kanpora eta nazioko kideak eroso egon daitezkeen nazioaren baitan.

Historiaren erabilgarritasunaren aurkako eragozpenak pertzepzio akatsen emaitza dira, baina ez dute aurrez esandakoa baliogabetzen. Batzuek diotenez, iraganak ez du atzerabiderik; oraina, eta geroa, da interesgarria, zalantzarik gabe. Herodotok sortu zuen "istorie" terminoa, eta "azalpena" esan nahi du: bere munduko errealitatearen azalpena nahi zuen. Eragozpena alferrikakoa da, historiak ez duelako eginkizun hori gainditu nahi; aitzitik, errealitatea eta gizadiaren eta giza jokabidearen bilakaera baldintzatzen duten faktoreak ulertzen laguntzen du.

Historiak horiek deskribatu nahi ditu, eta historiari uko egitea karbonoa bizitzako osagai delako errealitateari jaramon ez egitea da. Are jarrera arruntagoaren ondorioz, historia arbuiatu ere egiten da, uneko errealitatea dena delako. Mendebaldeko kulturak, ikuspegi sinplifikatzaile batetik begiratuta, europarraren adimen nagusitasuna gailentzen du, emakumezkoak ez du gizona bezalakoak duen gaitasun berbera, musulmana ez da gai erlijioari dagokion garrantzia emateko...

Egun, jakintza den aldetik, historia zalantzan jartzen da, historiaren eraikuntzaren subjektibotasuna nabarmendu baita. Akusazio post-modernista da hori, gizaki garaikideak errealitatearen gainean izan uste izan duen segurtasunaren eta kontrolaren aurkakoa. Egia esan, bere ikuspegia gizadi osoari inposatzeko prest dagoen

Mendebaldekoaren berezko jarrera da hori; ilustratuarena baina, batez ere, Iraultza Burgesak iraun zuzen bitartean Europa osoan gailendu zen iraultzaile burgesarena; gauzak eta gizakiak arrazoiaren bidez bere tokian jarri nahi zituen gizakiarena. Hari esker askatu zen banakoa feudalismoak eta estamentuetan banatutako gizarteak ezartzen zizkioten lokarrietatik eta, aurrerantzean, ahalmen guztia erakutsi zuen, bere mesedetan lehenik eta gizarte osoaren mesedetan gero.

Euskal kasuan bezala, nazioaren errealitatea aldarrikatzen dutenentzat memoria historikoa beharrezkoa da nortasunaren eta talde elkartasunaren euskarri.

5.3.6 Nazioa versus Estatu

Bigarren atalari dagokionez, hau da, nazioa eta estatuaren arteko harremanaz, hiru ikuspegi ere aurki daitezke, nazioaren kontzeptuarekin bat egin arte hiru une historiko islatzen dutenak (Van Wissen, 1994, orr. 133-137).

5.3.6.1 Estatu eskubideen objektua

Frantziar iraultza gauzatu arte, printzea, erregea eta nobleziak nazioa osatzen zuten. Estatuaren kontzeptuaren eraginpean printzeen jarraitzaileak eta botere tresna guztiak batzen ziren. Maquiavelo-k, gaur egungo Estatuaren kontzeptuaren bultzatzailea izan zena, (Status, Stato) hastapenean estatua objektu bezala ikusten zuen (Virolli, 1997, orr. 49-60).

Antzineko Erregimenaren gidariek gizakiak eta herrialdea jabegoa bat bezala kontsideratzen zuten, "*L'État c'est moi*" ("Estatua ni naiz") esaldi aski ezagunak zuzenbide pribatuaren moduko harremana islatzen du, goiko mailak/printzea eta manupekoen artean, jabegoak eta pertsonak oinordekotasunean utz zitezkeen, edota oparitu eta trukatu (Bély, 2005, or. 77).

5.3.6.2 Estatu zuzenbideko subjektua

Absolutismo garaian eskubide subjektu batzuen ondoan, Estatuak eskubide eta betebeharrak eramailearen maila hartzen du. Van Wissen-ek dio printzeak Estatuaren funtzioak daramatzala eta Estatuaren lehendabiziko zerbitzaria bere burua definitu zuena Federico Handia izan zela (orr. 133-137).

Denboraren poderioz gaur egun gizakiaren bizitzarako funtsezkotzat hartzen diren eskubideek (ekonomikoak, sozialak, kulturalak...) boterearen esku-hartzea behar eta eskatzen dute. Estatuaren eskuetan utzi ondoren, Estatu soziala jaio zen, zuzenbideko subjektua bihurtzeraino, eta hori definitzeko Rousseau-ren esaldia har daiteke: “Askatasunaren itxura gordetzen duen baino lotura perfektuagorik ez dago”⁵⁶ (Negro, 2003, or. 306).

Estatuak behartzearen indarra dauka beti, eta baita tresnak eta baliabideak ere. Eskubide abstraktuen presioarengatik eta eskakizunengatik, baliabideak pertsonen alde kudeatu beharko ditu. E. Forsthoff-en iritziz, Zuzenbideko gizarte-Estatuaren formula tresna bihurtu da ideologia Zuzenbide Konstituzionalean sartzeko (Forsthoff, 2013, or. 108).

5.3.6.3 *Estatua paktu bezala*

Hurrengo aurrerapausoa Estatua printze eta menpekoen arteko harreman juridiko bezala ikustea izan zen. Harreman juridiko hori inon agertzen ez zen hastapeneko kontratuaren arabera zen, giza kontratua hain zuzen ere.

Frantziar iraultza da Estatu eta nazioaren kontzeptuak batzea lortzen duena, unera arte ezezaguna zena. Une horretatik aurrera nazioaren kontzeptua politizatu egiten da, era berean nagusi izatera pasatuz.

Jada ez ziren printzea eta goiko mailetako partaideak nazioaren ordezkariak, baizik eta Hirugarren Estatua. Haustura honen eskutik nazioa ez da herria, biologia edota arraza terminoetan adierazten. Aitzitik, soilik berba politikoen bitartez definitzen da.

Herria bera (frantsesez *la Nation*) protagonista bihurtu zen boterea eskuratuz, behinik behin 1789ko abuztuaren 26ko Gizakia eta Hiritarraren Aldarrikapenaren 3. Artikuluaren arabera: “Subiranotasun guztiaren oinarria nazioan datza”⁵⁷.

Gizakien arteko berdintasuna abiapuntutzat hartuta, herria da Nazioaren erreferentzia politikoa eta Estatuaren hiritarrak dira horrekin bat datozen guztiak, atzerritarrak barne. Halaz ere, napoleontar gudetan ikuspegia aldatuz joango da,

⁵⁶ “No hay sujeción más perfecta que la que conserva la apariencia de libertad.”

hartuta dauden herrietan berezko nazio nortasunaren inguruko jakin mina pizten delako, Germanian eta Italian, bereziki eta, beranduago, ekialdeko Europan. Frantziar inperialismoak iraultza garaian hedatu ziren errepublikar subiranotasunaren oinarriak saldu zituen eta soldadu-oldearen aurka Frantziaren etsaien erantzuna etniko-nazional aldarrikapenaren eskutik antolatu zen.

Hemeretzigarren mendean Nazioa (herriaren kontzeptua frantziar iraultzaileek aldarrikatu zutena) protagonista bihurtu zen berriro ere baina nazio komunitatearen ezaugarriarekin. Jatorrizko nortasuna, hizkuntz nortasuna, ohiturazko nortasuna eta legezko nortasuna azken finean eta Germania izan den adibiderik argiena. Erromantizismoak ilustrazioaren idealak goraiatu zituen (Goethe, Fichte, Herder, Hegel...) nazio komunitatearen aldeko sentimendu sutsuekin.

Herderrek nazio ideia jaso zuen Estatua osatzean. Von Moserrek zera hau idazten zuen 1795ean: “Herri bat gara, izen eta hizkuntzarekin, nagusi komun bate, agindupean, gure Konstituzioa, eskubideak eta betebeharrak, determinatzen dituzten lege batzuen menpe” (Virolli, 1997, or. 141-175).

Orokorki, XIX. mendeko germaniar errealitatea izan zen herria herrialde baten biztanleekin identifikazioa hobekien islatu zuena; jatorriarengatik, hizkuntzarengatik, estatu-ordenamenduarengatik eta kontzientziarengatik, denak elkarri lotuta (Van Wissen, 1994, or. 136).

Atzerritar zapalketaren aurkako nazio autodeterminazioaren aldeko borroka aurrerakoia eta positiboa kontsideratzen zen, Lehen Munduko Gerraren ostean autodeterminazioa Woodrow Wilson Amerikako estatubatuar presidentearen zerrendako hamalau punturen artean agertu zenean, demokraziarako aurrebaldintzen artean sartuta (Mamatey, 1950, orr. 256-70).

Nazio nortasunaren oinarria (nazio komunitatea) Estatuaren oinarri legitimatzaile eta eratzaile gisa erabili zen. Esaterako Danubio zein Otomano inperioekin gertatu zen, nahiz eta aurrerantzean nazio komunitate guztiek ezin izan zuten berezko Estaturik sortu.

⁵⁷ “Le principe de toute souveraineté réside essentiellement dans la nation...”

Estatu-nazioa gizartearen oinarrizko eremua bihurtzen da. Nazioa eta nazionalismoa berezko izatetzat gizarteratuak izan dira, nazioaren kultura oinordetza eta politikaren batuera da. Dena den, batasuna gauzatu ondoren nazionalismoarekin zer gertatu den deskribatzeko orduan hutsunea nabaria da (Billig, 1995).

Aitzitik, nazional-sozialismo eta faxismoaren erruarengatik kontzeptu horien gainbehera eta izen-galtzea hasi zen. Arraza gorrotoa eta norabide totalitarioa zein inperialista ziren erregimen hauen funtsa eta, berez, nazio komunitatea ohitura, hizkuntza eta kultura beran oinarriturik ezin ziren onartu Estatu berri baten oinarri fundatzaile bezala.

Azkenik, batzuen ustez, egungo Estatu-nazioaren sorrerak nazio nortasunari baino, sistema ekonomiko kapitalistaren aro baten beharrei erantzuten die, hau errekurtsoen erabilera eta kontrolaren gaineko konpetentziak arautzeko estatu erkidegoen markoa izanik. Globalizazioa, kapitalismoaren garapenaren fase berri honetan, zenbait lurralderentzat mehatxu bat da (herriak, hiriak eta herrialdeak); hau da, mehatxu hau autonomia galeran datza. Egungo egoeran ingurunea kontrolatzeko ereduan kanpoko erabaki zein prozesuek bertakoek baino garrantzi gehiago daukate. Honek bertakoen bere ingurua kontrolatzeko gaitasunari kalte egiten dio (Frías, 2006, orr. 3-7).

5.3.7 Nazioa eta autodeterminazioa

Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Nazioarteko bi Itunak aldarrikatu zituen XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan, 1966an hain justu ere (Nazio Batuek erakundeak, 1966) baina ondorengo inongo aldarrikapenetan ez da jasotzen herria eta nazioari buruzko definiziorik.

Are gehiago. Itun bien lehen artikulua erredakzio berbera du:

“1. Herrialde guztiek dute determinazio askerako eskubidea. Eskubide horren ondorioz askatasunez zehazten dute euren izaera politikoa eta askatasunez bultzatzen dute euren ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena.

2. Herrialde guztiek, euren helburuak lortzeko, askatasunez xeda ditzakete euren aberastasun eta baliabide naturalak, kalterik egin gabe nazioarteko lankidetzaren ekonomikoak, elkarrekiko onuraren printzipioan oinarriturik, zein nazioarteko zuzenbideak eratorritako betebeharrei. Inola ere ezin izango da herri bat bere bizibideez gabetu.

3. Itun honetako estatu alderdiek, baita autonomoak ez diren lurraldeak eta zainpeko lurraldeak administratzeko ardura dutenek ere, sustatuko dute determinazio askerako eskubidearen egikaritzea, eta eskubide hori errespetatuko dute, Nazio Batuen Gutuneko xedapenekin bat etorritik”.

Geroztik, NBE-k ebazpen sorta onartu du, aldekoak eta kontrakoak autodeterminazio eskubidearen inguruan.

Autodeterminazio eskubidearen bilakaerak harreman estua dauka 1945az geroztik ekialde eta mendebaldeko blokeen arteko talkarekin. Estutu sozialistek autodeterminazio eskubidea bultzatu zuten bereziki, eskubiderik garrantzitsuen eta ondorengo berme gisa aipatzean, euren modeloan sartzen ez ziren ohiko oinarritzko askatasunak erlatibizatzen zituen.

Bestalde, eskubide hau ere subiranotasun eta barne arazoetan ez sartzekoarekin ere lotzen zen -Nazio Batuen Ituna, 2.7 artikulua- eta horrela errefusatzen ziren autodeterminazioaren bitartez giza eskubideen urraketan inguruko mendebaldeko estatuen helegiteak. Azken finean, eta soilik mendebaldeko estatuak koloniak zeukatenez gero, horien independentzia prozesuak bultzatzeak mendebaldeko estatuak ahultzea zekarren eta, bide batez, Hirugarren Munduko estatu berrien laguntasuna irabaztea (Van Wissen, 1994, orr. 140-141).

Irizpide hau baieztatuz, NBE-k 1970ko urriaren 24an 2625 (XXV) ebazpena onartu zuen, autodeterminazio eskubidea mugatu guran edo: “... Aurreko paragrafoetako inolako ebatzirik ezin da ulertu subiranoak eta independenteak diren Estatu lurralde batasuna edota batasun politikoa urratzeko baimena ala bultzada bezala, beti ere Estatu hauek arestian deskribatzen den berdintasun eta herrien autodeterminazio

eskubidean oinarritzen direnak eta, beraz, herri oso bat ordezkatzeko duen gobernuak daukatenak arraza, sinesmen eta kolorearengatik...”⁵⁸

Ebazpen honek nortasun nazionalari legitimazioa kentzen dio independentziarako nahiak justifikatzeko orduan. Azken finean NBE-n agiriak autodeterminazioaren inguruko irakurketa bikoitza ahalbidetzen dute.

Alde batetik, autodeterminazioaren **barne ikuspegia** daukagu, non estatu barneko kudeaketa politikoa eta harreman demokratikoak ardatzak diren, gutxiengoaren nortasuna eta eskubideak bermatuz.

Estatuen barneko gutxiengoaren eskubideez asko izan da Nazio Batuen Erakundeak ebatzi duena. Hemen adibideak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna -1966, Europar Segurtasun eta Lankidetzako Batzarra -Helsinki 1992-, Giza Eskubideei buruzko Munduko Batzarra -Viena 1993- (Lucas, 1993, orr. 97-128) (Lucas, 1992).

Barne dimentsio honek ez du “arazorik” sortzen Estatua ez baitu kolokan jartzen eta gutxiengo nazional batzuen nahiei ezetz esateko balio duena da.

Beste alde batetik, autodeterminazio eskubidearen **kanpo ikuspegia** daukagu, non nazio komunitate batek (nazioa ala herria) eskubidea daukan estatu bat sortzeko. Adibideak ere denetariakoak egon badaude, esaterako berezko Estatu bat sortzeko nazio komunitate bereko pertsonen osaturikoa ala xede berbera dutenak (Euskal Herria) edota egungo Estatu batean sartzeko nahia (Ipar Irlanda Irlandako gainerakoekin bat egiteko gura) (Nikolas, 2007, orr. 1-37).

NBE-aren 2.635 zenbakia zeraman ebazpenaren ostean eta koloniek bizitako esperientzia kontuan hartuta, galdera hau litzateke: egon badago benetako eskubidea berezko Estatu izateko?

Horren inguruan zera hau aipa daiteke:

⁵⁸ “Ninguna de las disposiciones de los párrafos precedentes se entenderá en el sentido de que autoriza o fomenta cualquier acción encaminada a quebrantar o menospreciar, total o parcialmente, la integridad territorial de Estados soberanos e independientes que se conduzcan de conformidad con el principio de la igualdad de derechos y de la libre determinación de los pueblos antes descritos y estén, por tanto dotados de un gobierno que represente a la totalidad del pueblo perteneciente al territorio, sin distinción por motivo de raza, credo o color.”

- Kolonien autodeterminazio prozesuak independentzia ahalbideratu zuen, baina ez zegoen nazio nortasunean oinarriturik. Koloniak ziren subjektuak eta ez nazioak eta horregatik kolonien lurralde-mugaketak errespetatu ziren. Beraz, estatua sortzeko eskubideaz hitz egiteko ezin da kontuan hartu aurrekari bezala.
- Juridikoki zaila da bi eskubideak bateratzea, zapaldurik dagoen nazioa bere subiranotasuna eskuratzeko eskubidea aldarrikatzen duenarena eta lurralde batasuna defendatzen duen Estatuarena.
- Deskolonizaziotik at eta nazioarteko komunitatean herri edo nazio bat estatalizatu denean ez da prozesu juridiko baten ondorioz izan, baizik eta joko eta mustraka politikoen ondorioz. Arlo honetako adibide ugari ikus dezakegu: Sobietar Batasuna, Jugoslavia... Kasu hauetan Estatuaren ahultasunaren ondorio zuzena izan da, baina baita ere mendebaldeko herrialdeen interesen ondorioa, nazio komunitatea eta lurraldearen arteko baterakidetasunaren ondorioa eta aurreko kolonien lurralde-mugen errespetuaren ondorioa. Hala eta guztiz ere, estaturik gabeko beste herri batzuentzat ez da irizpide berbera aplikatzen (kurduak, palestinarak) aurrean Estatu indartsuak eta nazioarteko komunitatearen geldotasuna daukatelako. Horrela zaila da oso Estatu bat sortzea.

Azken finean XXI. mendean nazio nortasunaren oinarria ez dago erabat onartuta estatu subiranotasuna eskuratzeko eta, berez, autodeterminazio eskubidea gauzatu ahal izateko, batez ere botere harremanak jaun eta jabe direlako, arrazoi juridiko edota historikoen gainera.

Mendebaldeko zuzenbideko eskola arrazionalistak estatua komunitate juridiko gisa hartzen du, jatorrizko kontratuaren ondorioz jaio dena, ez du nazio komunitatea (jatorria, hizkuntza, kultura) abiapuntutzat hartzen, baizik eta xedeko komunitatea, interesatuen borondatean oinarriturik.

Aitzitik, mendebaldeko zuzenbideko eskola historikoak, erromantizismoarekin lotua, norbanakoa jatorrizko komunitate baten partaide gisa hartzen du (senitartekoak, herria). Komunitate horrek hizkuntza, kultura, ohitura eta lege

propioak ditu. Ikusmolde honetatik, Estatu nazio komunitate baten isla izan daiteke soilik (Van Wissen, 1994, orr. 145-146).

Laburpen gisa, hiru lirateke nazio identitatearen zereginak etorkizunari begira:

- Nazio nortasunak gertakizun totalitario, xenofobo eta zatitzaileekiko duen balizko harremanaren inguruan leporatzen dioten irudiarekin amaitu behar du, Estatu eta hiritarren arteko harremanetan benetako balioa azpimarratuz.
- Nazio nortasunak gerra osteko arrazionalismoak diseinaturiko modeloaren gaintitzea da, hiritar/gizabanakoa eta Estatu/elkarte anonimoaren arteko modeloa hain zuzen ere.
- Nazio nortasuna ezinbestekoa da egungo Estatu eta sor daitezkenetan kohesioa eta egonkortasuna emateko.

5.3.8 Nazionalismo zibikoa eta nazionalismo etnikoa

Friedrich Meineck-ek eta Hans Kohn-ek bereizketa bat egin zuten nazionalismo politiko eta nazionalismo kulturalaren artean: lehendabizikoa helburu arrazional gisa ulertzen zuen; bigarrena, berriz, helburu mistiko gisa. Bereizketa klasiko horren ondoren errealitatea horrela irudikatzeke hainbat ahalegin egin dira.

Joan den mendeko 90eko hamarkadan dikotomiarik ezagunena nazionalismo hiritarra eta nazionalismo etnikoa bereizten dituen da. Liah Greenfeld-ek egin zuena, adibidez, formulazio klasiko da. Egile honek nazionalismo hiritarra, jakina, hiritarrekin uztartzen du eta, beraz, ikuspegi zabaleko nazionalismotzat hartzen du (Greenfeld, 1992, or. 12).

Alta, nazionalismo etnikoa ondorengo printzipio honetan oinarrituko litzateke: taldeko kide izateko zenbait ezaugarri jakin izan behar dira. Hark dioen bezala, ezaugarri genetikoak dira. Nazionalismo etnikoa zehaztasun handiagoz definitzera iristean, Greenfeld-ek taldearen ezaugarri nagusitzat eta hereditariotzat honako hauek jotzen ditu: hizkuntza, ohiturak, lurraldetasuna eta gorputz itxura. Aldi berean, arestian aipatu den bezala, Anthony D. Smith britainiar etnografoak etnia kokatzen zuen nazioaren sorlekuan (Yon, 1990, orr. 527-541).

Michael Ignatieff-en arabera, berriz, ikusiko dugu nazionalismo hiritarra honela definitzen duela: “nazioaren kredo politikoa bere egiten duten guztiek osatu beharko lukete nazioa arraza, kolorea, kredo, generoa, hizkuntza edo etnia edozein izanik ere” (Ignatieff, 1994, or. 3).

Nazionalismo etnikoari dagokionez, berriz, nazioaren batasuna oinarri hauen gainean ezartzen da; lehenagotik dauden hizkuntza, erlijioa, ohiturak eta tradizioaren moduko ezaugarrien gainean:

Izendatutako eta bere burua definitutako giza komunitatea, zeinaren kideek partekatutako oroimenak, sinboloak, mitoak, tradizioak eta balioak ereiten dituzten, lurralde historikoetan edo ama lurretan bizi eta horiei atxikitzen zitzaion, kultur publiko bereizgarria sortzen eta zabaltzen duten, eta usadio partekatuak eta lege komunak bideratzen dituzten.

(Smith A. D., 2009, or. 59)

Halaber, egileak berak esaten du ez dagoela harreman zuzena iraganeko etnia eta gaur egungoen artean eta nazioa batzuen sorrera etnia faktoreetatik at uler daitekeela (Smith A. D., 2009, or. 111).

Ignatieff-en ustez, nazionalismo hiritarrak lotura estua du aukera egitearekin, arrazionaltasunarekin eta errealismoarekin. Nazionalismo etnikoak, aldiz, afektu emozionalak biltzen ditu, oinordekotzan hartuak eta soziologikoki irrazionalak beti ere.

Dena den, dikotomia horiek guztiak idealizatzeko tipikoak direla onartuta ere, autore askok honako ondorioa ateratzen dute: hainbat herrialdetan (Erresuma Batua, Frantzia eta AEBetan, adibidez) nazionalismo hiritarra dela nagusi, naziotasuna hiritartasun komunaren arabera definitzen baita. Aldiz, Alemania eta Ekialdeko Europako zatirik handiena, nazionalismo etnikoaren eremuan sartzen dituzte.

Nahiko harrigarria da aztertzaile gehienek nazionalismo etnikoa eta hiritarraren arteko dikotomia hori inolako kritikarik gabe onartu izana, hutsune logiko eta enpiriko handiak izanik ere.

Ikuspuntu enpirikotik, berriz, nazionalismo hiritarraren paradigma gisa aurkezten diren herrialdeek maiz hausten dituzte joko-arau horiek. Adibidez, nazionalismo hitar klasikoetan azal zurikoak ez direnen integrazioa izugarri geldoa eta gatazkatsua izan da.

Baina hizkuntzaren kasuan (eta kulturarenean, oro har) ikusten da argi eta garbi nazio hiritarrak oso urrun geratzen direla beren propaganda egileek esan dutenetik. Erresuma Batua, Frantzia eta AEBetako politikei begiratu eta garbi ikusten da ustezko nazio zibil horiek politika elebakarrak bultzatu dituztela beraien historia guztian zehar.

5.3.9 Sinboloak

Zer da sinbolo bat? David Schneider antropologoaren hitzetan, sinbolo bat da «beste zerbait adierazten duen zerbait»: objektu bat, hitz bat, keinu bat izan daiteke. Baina sinboloak ez dira hain ximpleak eta ez dira banakoak. Aitzitik, konplexuak dira eta kultur sistemak, identitateak eta herriak eraikitzen dituzte.

Hizkuntzari begira, sinboloak ikur bereziak dira, zenbait kontzeptu idatziz labur adierazteko nazioarteko zientzialarien komunitateak kode modura erabiltzen dituenak. Sinbolo bakoitza, horrenbestez, kode adostu baten parte da, irudi grafiko arautu bat. Laburdurak eta siglak bezala, laburtzapenak dira sinboloak ere, baina ezaugarri desberdinekoak. Letraz, karaktere alfanumerikoz edo/eta zeinuz osaturik daude (Euskaltzaindia, 2020).

Beste bi antropologoren iritzia hartuta, Clifford Geertz-ek dio sinboloak «kultur garraibideak» direla eta herritarren arteko komunikazioa ahalbidetzen dute. Victor Turner-ek, berriz, sinboloek fenomeno kulturalak ulertzeko giltzarriak izateaz gain, gizarte ekintzaileak direla dio (Margaret Bullen, 2017). Hau da, pertsonak edo taldeak ekitera daramaten eragileak dira.

Ikerketa honetan ikusiko dugunez, sinboloen artean banderek berebiziko garrantzia dute. Esate baterako, balkoian ikurrina edo *estelada* jartzen denean, egileak zerbait adierazi nahi du. Aldiz, Tourreko etapa batean ikurrina eskuan hartzen denean, beste milaka pertsonekin batera, kultur garraibideak baino, ikurrinak, kasu honetan, prozesu sozialaren piezak dira, errealitatea transformatzeko gai, gizartearen kideen arteko harremanak ezarriz eta eraldatuz, gatazkak sortuz eta konponduz.

Antropologoek hainbat pista eman dituzte prozesu sozialetan sinboloek izaten duten eragina aztertzeko eta ulertzeko. Esaterako, sinboloak arbitrarioak dira, ez dago berezko loturarik seinale eta esanahiaren artean. Izan ere, koloretako trapu batek ez du berez zertan nazio bat adierazi; gizakiek erabaki dute nazioak irudikatzeko marrik, gurutzeak edo izarrak dituen oihal bat erabiltzea. Inportanteena da gizakiek sinboloei ematen dieten garrantzia eta esanahia; arbitrarioak dira, baina ez hutsik. Alderantziz, seinale batek esanahi bat baino gehiago izan dezake: polisemikoak dira sinboloak. Eta trinkoak ere bai: esanahi anitz eta konplexuak gauza batean kondentsatzeko gaitasuna dute.

Testuinguruaren arabekoak dira sinboloak, eta horrek esan nahi du malguak direla, esanahia aldatzen baitu segun eta non kokatzen diren, segun eta noiz erabiltzen diren. Ikurrina batek bulego eta areto batean ez du balkoira edo kalera ateratzen den ikurrinak duen esanahia bera. Ezta hilkutxa estaltzen duen ikurrinarena ere.

Baina herri identitatearen eraketan, sinboloen ezaugarri garrantzitsuena erabilpen kolektiboan datza. Sinboloen izaera eta esanahia komunean erabakitzen da, kulturala den beste edozein elementu bezala. Nahiz eta norbanakoak esangura berezi bat eman gauza, musika edo momentu bati, ematen diogun esanahiaren iturria kulturala, kolektiboa da. Sinboloak adosten dira, konpartitzen dira eta sinboloen bidez elkarrekin komunikatzen gara, hitza dela sinboloa, ikurra dela, abestia dela... Ekintza kolektibo batean, erritual eta sinboloen bidez sortzen da elkarren arteko sentimendua, solidaritatea edo Turner-ek deitzen dion *communitas*.

Communitas kontzeptua sinboloen gaitasun oroiterazlean oinarritzen da. Elkarrekin abesten denean, sinboloek komunitate sortzeko eta sentitzeko indarra azaleratzen da. Susane Langer filosofoak (Addis, 1999, or. 25) esaten zuen isomorfismoa zegoela emozio eta musikaren artean, alegia, musikak hitzez adierazi ezin diren zenbait sentimendu eta emozio adierazten laguntzen zuela. *Els segadors* himnoa, Mikel Laboaren *Txoria txori* edo Lluís Llach-en *L'estaca* kanteak bide ematen dute sinboloen potentzial emozionala, kolektiboa eta konplexua baieztatzeko. Musika da bereziki dinamikoa, abesti bat izango da beti bera baina beti berria, nork eta

non abesten duen kontuan hartuta: abesten den bakoitzean berriro egiten da abestia, bizia ematen zaio eta berak emozioak adierazten laguntzen du.

Zer dela eta? Talde bati, elkar besarkatu nahi duenean, pozik dagoelako edo triste dagoelako, kanta batek ematen dio horretarako aukera. Izan ere, Roger Bartra antropologoak musika gure zerebroaren luzapen modura ulertzen du: hau da, musikak, autokontzientziaren barneko egoerak adierazteaz gain, berau omen da kontzientziaren kanpoko egoera.

Thomas Turino, etno-musikologoaren esanetan, musikaren bidez identitate kolektiboak eraikitzen dira, eta partehartze sozial, politiko eta ekonomikoa bultzatzeko ezinbestekoak dira. Kanta hauek sinbolo batek dituen ezaugarri guztiak bere gain hartu dituzte: arbitrarioa dira, testuinguru desberdinetara egokitzen dira, erabilpen kolektiboa du eta konplexutasuna sinpletasunaren bidez adierazteko gaitasuna du. Baina batez ere, prozesu sozialaren piezak dira eta nahiz eta unekoa izan, komunitatea sortzen dute.

Beraz, sinboloak, era guztietako sinboloak, osagai garrantzitsuak dira naziotasuna eraikitzen eta erreproduzitzen. Gure bizitza sinboloen bidez eraikitzen da eta gure gizartea sinboloen bidez eratzen da. Sinbolo kulturalak, erlijiosoak, erromantikoak, politikoak, ideologikoak: lauburuak, eguzki-loreak, gurutzeak, arrosak, bihotzak, ikurrinak, ikurrak, etab... Gure hitz egiteko edo janzteko moduak sinbolikoak dira, zerbait esaten dute gure izaerari buruz, munduan egoteko moduari buruz.

Finean, nazio sinboloak herriak eta herritarrak nazioarekin identifikatzeko sortutako sinbolo politiko-kulturalak dira. Sinbolo oro bezala, zerbait ordezkatzeko erabiltzen dira, kasu honetan nazio jakin baten izaera, balioak, helburuak edota historia irudikatzeko erabiltzen dira. Sinboloek herriaren eta herritarren arteko batasuna sustatu nahi dute. Ondorioz, nazio sinboloak nazioaren biziraupena eta garapena aldarrikatzen, ospatzen edo gogoratzen denean erabiltzen dira.

Sinboloak hautatzeko orduan elementu eta faktore ugari hartzen dute parte. Sinboloen herritartzean egitate historikoei, baldintza sozialak, politikoak, ekonomikoak... gehitu behar zaizkie. Horretaz gain, nazio eraikuntzan estrategia komun bat ematen ez denean, sinboloak alderdikieriaz jorratzen dira eta beste

nazioetako sinboloekin “lehiatu” beharrean frakzioen arteko borroka ideologikorako tresna bihurtzen dira.

5.4 Kirolaren garrantzia nazio nortasuna osatzen

Kirolari esker edota kirolaren bitartez nazio nortasuna ere osatzen da. Horren inguruan ere gainerako teorietan agerian dauden ezberdintasun ia berberak daude ikusgai nazioa eta kirolaren arteko harremana aztertzean.

5.4.1 Kirola eta nazioaren inguruko ikuspegiak

Lehenengo eta behin ikus dezakegu kirola gizarteratze elementu gisa. Nazio sentimendua sortzeko eta elkarbanatzeko, kirola bezalako jarduera edo ekintza gutxi dagoela esan daiteke.

Kirolak portaera bateratuak izateko guneak sortzen ditu. Norberak kirol erakunde baten partaidea denean askatasunez jardungo du eta, era berean, mugak izango ditu. Bizikidetzako arauak errespetatzen hezitzen da, galera eta zoritxarra onartzen dira, hezkuntza bereganatzen da eta ahalmenak indartzen dira arrakasta bihurtzeko asmoz. Honen arabera, nazio bat ordezkatzeko duen kirolaria nazio baten sistemaren ordezkaria da eta bere nazioaren elastikoa eramateaz harro dago. Parte hartzen du eta, halaber, beste batzuk norabide beretik segi dezaten pizgarria da.

Kirolak harreman zuzena dauka egungo gizartearen oinarritzko errealitate batekin: talde-ospea (familiarra, taldekoa, bertakoa, erregionala edota nazionala). Ospe nazionala da arrazoirik nagusia kirola finantzatzeko, kontuan hartuta ere eliteko kirolak nazio sentimenduak indartzen dituela publikoarengan, herritarrengan: “Arlo honetan eskuzabaltasun gutxiago izango lukete Gobernuak subentzioa eskatzen dutenek nazio ospearen soka dar-dar ipintzeko gaitasunik edukiko ez balute. (...) Halaz ere, kasu gehienetan, laguntza hori eskuratzeko kirol olinpiko, nazionalismo eta politikaren arteko nahasmena da salneurria”⁵⁹ (EFdeportes, 1997).

⁵⁹ “Los Gobiernos se mostrarían probablemente menos generosos en esta esfera si quienes solicitan sus subvenciones no estuvieran capacitados para hacer vibrar la cuerda del prestigio nacional. (...) Sin

Kirolak lehentasunezko tokia hartzen ari da gizarte bizitzan. Dena den, politika eta kirolaren arteko harreman honetan, badirudi kirolak politikan duen eraginak politikak kirolean duena baino askoz txikiagoa dela (Meynaud, 1972, orr. 1-3).

Aldi berean, kontrako iritziak ere egon badaude, eta kirola ulertzeko modu kontserbadoreak amoraltasuna areagotzea dela uste du eta, bestela, adierazpen politiko oker baten ondorioa dela (Quitán, 2008, orr. 1-8).

Kontrako ikuspegiaren artean ezkerreko ideologoenak ere agertzen dira. Intelektualentzat, kirola (bereziki futbola) alienazio tresna bat da Estatuaren eskutik, “futbola herriaren opioa da”. Eduardo Galeano idazleak, trufaz, honako galdera luzatu zuen: “Zertan diren antzekoak Jaungoikoa eta futbola?” Erantzuna: “biek ospea daukate eta intelektualek biak ezeztatzen dituzte” (Vinnai, 1974).

Bigarrenez, aktibitate fisikoa eta kirola osasun iturri dira. Gizabanakoaren hezkuntza osoaren zati garrantzitsua da kirola, *Mens sana in corpore sano* esaldiaren eskutik. Osasunerako Mundu Erakundearen iritziz kirolean inbertitzen den dolar bakoitzagatik hiru dira osasun sistemek aurrezten dutenak. Horrela adierazi zuen, esaterako, Marcos Carambulak (2009) Uruguayko Presidentetzarako hautagiak. Arlo honetan harreman gutxiago aurki dezakegu nazio nortasunarekin, nazio baten sosekin baizik. Diruak ere nazio nortasuna osatzen duenentz bestelako tesi baterako lana emango luke.

Bestalde, gerra, kirola eta nazioaren arteko harremana Grezia klasikotik datorkigu, azeriaren ehizatik pasatuz eta egungo kiroletara ailegatu arte. Esaterako jai olinpikoek hiriaren loria goratzeko balio zuten, gizabanakoak eta jainkoak hurbiltzen zituzten bitartean. Olinpiako lehiak ospatu baino lehen hainbat zeremonia egiten zuten. Osasuna, ongizate eta errendimenduaren ideiak kirolarekin ere lotzen dira eta gaixotasuna gainditu ondorengo etapa on bat bezala ulertzen da. Aintzineko joko olinpikoetan gertatzen zen legez, kirol lehiak garbitzen du eta etorkizun oparorantz doan bidea da.

embargo, en la mayoría de los casos, esta ayuda sólo se alcanza al precio de una mezcla, cada vez más inextricable, de deporte olímpico, de nacionalismo y de política.”

Kirolak ere gizarteko klaseen arteko mugak ere gainditzen ditu, aurrez aurrekoak ala urrun daudenak elkartuz, XX. mendearen hasieran kirola bakarrik eliteen jarduera zen eta. Bestalde, kirol nortasuna ere kontuan hartzekoa da. Alde batetik, eta gehienetan, kirol nortasuna ikuslea eta kirolari edota talde batekiko atxikimenduari lotzen da soilik, baina finean kirol ikuskizunaren funtsezko osagaia da eta, era berean, kirol nazionalismoaren oinarria.

Talde edota kirolari batekiko atxikimendu hori anitza da eta arrazoiak zeharo ezberdinak dira. Gaur egungo gizartearen ezaugarri bat da anonimata, hau da, nortasun kolektiboaren eza eta talde baten kolorekiko identifikazioak nortasun eta partaide izatearen beharra asetzen du, are gehiago hiria edo erregioaren ordezkari erreferentzia-puntua aberri "osoa" denean (Elias, 1986).

Hartu-emanak mundu mailan ematen direnean, nazio mugak gero eta erlatiboagoak direnean, ohiko identitate-erreferenteak ahultzen direnean ala kirola ikuskizun soila bilakatzen denean, nola ulertu klubarekiko identifikazioa? Galbidean doazen ohiko identitate-erreferenteak (erlijioa, alderdi politikoak, sindikatuak, etab) ordezkatzeko du helburu? (Jean-Michel De Waele, 2008).

Argi dago nazioarteko kirol garaipenak eskuratzen duenarentzat nazioarteko ospea sortzen dutela. Banakakoak ala taldekoak. Lehendabizikoetan zalantza sortzen da: baliteke nazio zehatz batean jaioterria duenak bestelako naziokoa denaren eskutik prestakuntza eta gaitasuna jasotzea. Dena den, azken finean gogoratzen dena da irabazlea nongoa den eta ez aholkuak nondik ailegatu zaizkion.

Zalantza izpirik ez dago garaipena kolektiboa denean eta, batez ere mundu mailako txapelketetan, eta hori frogatzeko potentzia handiek kirol ekintzetan ere egiten dituzten ahaleginak dominak eskuratze aldera. Ospeak kirolari proiektio historikoa ematen dio kanpoan eta etxean. Estatutik/naziotik at, ospeaz gainera, errespetua eta indarra irabazten da gainerako nazioen aurrean. Estatu/nazioan bertan ospea da herritarrek duten barne gogobetetasuna eta poza herri honen kideak izateagatik.

Nazioarteko ospearen idearen inguruan bidezko gerra bat egiteko argudioak bilatu ziren duela mende pare bat, ospe ala ohorea kalteturik suertatzen zirenean hain zuzen

ere. Azken finean nazioen ospea ondare politikoa da, neurtzeko zaila den arren. Gainera, nazioarteko ospeak zerikusia dauka nazio nortasunarekin. Nola definitu aberriarekiko sentimendua ala nazio-kontzientzia? Batasun politiko konkretu baten partaide izateagatik herritarrak sentitzen duen poza da, sendi bakar eta handiaren partaide izateagatik herritarrak sentitzen duen poza, “gu” baten partaide izateagatik herritarrak sentitzen duen poza eta lurralde baten ardura hartzeagatik, aitzindarien ahaleginen gordetzaile izateagatik sentitzen den poza etorkizunean irauteko asmoarekin... Zati guzti hauek herri baten kohesioa ahalbideratzen dute.

5.4.2 Kirolaren “erabilpena” nazioari begira

Hemen lau atal ezberdinduko genituzke:

- Estatua duten nazioen ikuspegitik.
- Estatutik gabeko nazioen ikuspegitik.
- Estatua eta nazioaren izaera beste baten aurrean finkatzeko.
- Estatua eta nazioa nazioartekoan goratzeko eta barnea finkatzeko.

5.4.2.1 *Estatua duten nazioen ikuspegitik*

Estatua duten nazioen, alegia, nazio-estatuen akademikoen ikuspegitik, nazioa osatzeko kirola soilik erabiltzen da estaturik gabeko nazionalismoen eskutik:

Ideologia nazionalista eta berea egiten eta ordezkaten duten alderdiek ezaugarri berbera dute (...) gizartearen eremu guztietan hedatzea dute helburu, eta erreibindikaten duten lurraldearen gizartea beren aukera politikoetako batekin nahastu guran (...). Aurrekoak, jakina, instituzio politikoengan eta hedabideengan eragina du, baina ez dira hor gelditzen, eta edozein instituzio zibil, kultur eremu, ohitura herritar edota jai erlijiosoak “nazionalismoa”z jantzi gura dute. Politika, teoriak behintzat bere eremutik at beharko lukeen goi mailako kirolan sartzen da erraztasun osoz. Ekitaldi masiboak eta kirol taldeak gizartearen zati handi baten sentimenduak erakartzeko gai dira,

eta alderdi nazionalistak beti prest daude sentimenduekin jolasteko ezin dutelako besterik eskaini eta kirol ekintzekin identifikatzen dira eta beraietaz profitatu. (...)⁶⁰

(Jordá, 2004)

Gauzak horrela, aurreko artikulua egileak dio erakunde pribatu zein apolitikoak ideologia eta lurralde batekin identifikatzen direla (Athletic Club eta Barça adibidetzat jartzen ditu) eta, oro har, kanpoko propagandarako tresna gisa eta barne nortasuna sendotzeko erabiltzen direla, erregimen komunistek primeran zekiten legez.

Haren iritziz, funtsean garrantzitsua dena, kirola bultzatu eta kirolariei babesa eman, horixe ez dute egiten, bigarren mailako lehentasuna da, “herria egitea” baita garrantzitsuena, bertan bizi direnen aurka herriak asmatzea eta eraikitzea posiblea balitz bezala. Proiektu nazionalistaren ardatza litzateke, berez totalitarioa: herria pertsonak baino garrantzitsuagoa delakoan.

Ildo beretik, kirolak eragiten duen nazio sentimendua kirol ekitaldietatik haratago ez joateak beste iritzi-sortzaileengan kezka sortzen du ere:

Bitxia da baina kirola da gure nazio sentimendua azalarazten duen zergati bakarra. Ez dago bestelako egintzarik futbol eta saskibaloiko selekzioek lortu dutena lor dezakeenik. Nazio selekzioez ari naiz, gure banako txapeldunen (Nadal, Alonso, Pedrosa, Sergio García, Contador eta askoz gehiago) garaipenak

⁶⁰ “La ideología nacionalista y, por tanto, los partidos que la abrazan y representan tienen siempre una característica en común, sean de izquierdas o de derechas, (...) tratan de extenderse por todos y cada uno de los espacios de la sociedad, ocupándolos de forma que termine por confundirse a la propia sociedad del territorio reivindicado con una de sus opciones políticas. (...) Esto afecta, por supuesto, a las instituciones políticas y los medios de comunicación, pero no se paran ahí sino que tratan de “nacionalismar” cualquier institución civil, ámbito cultural, costumbre popular o fiesta religiosa. Uno de los ámbitos en los que más fácilmente se puede observar esta intrusión de la política en esferas que en principio deberían serle totalmente ajenas es el deporte de élite. Actividades masivas y de equipo como el fútbol son fuertes catalizadores de sentimientos para grupos importantes de la sociedad, por lo que los partidos nacionalistas, siempre al quite cuando se

espainiarrenak dira, zirrargarriak, baina aberri-harrotasuna altxatzen ez dutenak, espainiarrak identifikatuago egotea sentiarazten gaituzten nazio selekzioek egiten duten bezala. Kirola da nazio ikurrarekin jantzita joatea ala zure bandera eramatea *fatxatzat* hartua izan gabe. Horixe da niretzat tristeena. Colon Plaza ala egun deitzen dioten Plaza Gorria nazio taldearekin sutan dagoen jendez leporaino ikustea gustatzen zaidala onartzen dut, koloreei uko egin gabe, gorritz jantzitako jende uholdea kale-kantoietatik, banderaren koloreak aurpegian margozturik eta egunerako sortu diren kantak entzutea (nik behinik behin entzun gabe nituen) “espainiarra naiz, espainiarra, espainiarra.”⁶¹

(Cervelló, 2008)

Cervello-k dio pena dela nazio sentimendu hori egun bakarreko kontua izatea eta frantziarrek duten aberri-sentimenduaren falta sentitzen duela, ia bere hiriburuko eraikin guztietan, ofizialak ala ez izan, herrialdeko bandera erakusten dutenean. Hori, amerikar harrotasuna aipatu gabe, inon baino sustraituagorik.

trata de jugar con los sentimientos ya que ellos mismos no pueden apelar a otra cosa que la entraña, siempre se han preocupado de identificarse con esas actividades deportivas y servirse de ellas. (...)”

⁶¹ “Resulta paradójico que el deporte es el único motivo que saca a relucir nuestro sentimiento nacional y lo pone a flor de piel. Creo que no hay ningún otro hecho que consiga lo que han conseguido la selección de fútbol y de baloncesto. Me refiero a las selecciones nacionales, porque nuestros campeones individuales (Nadal, Alonso, Pedrosa, Sergio García, Contador y muchos más) son victorias de españoles que en mayor o menor medida te hacen vibrar, pero que no levantan el orgullo patrio como hacen las selecciones nacionales, con las que parece que los españoles nos sentimos más identificados. El deporte es lo único que te permite ir vestido con los colores de la enseña nacional o llevar la propia bandera sin que te califiquen de “facha”. Esto es lo que me resulta triste. Reconozco que me encanta ver la Plaza de Colon o Plaza Roja, como dicen ahora, llena de gente enfervorecida con el equipo nacional, sin renunciar a unos colores, los ríos de gente por la calle vestida de rojo, con la cara pintada con los colores de la bandera y los cánticos creados para la ocasión (al menos yo no los había escuchado) de “yo soy español, español, español”.

Edozein aldetik hartuta, nazioartekoan kirolak “jatorri etiketa bat” dauka bere inguruan eta “kirol modernoa, askotan, interes, politiko, ekonomiko eta baita hegemonikoen esanetara ere badago”⁶² (Calmat, 1992, orr. 51-56).

Kasu batzuetan kirolak bizirik dirau Estatutik at eta ekimen pribatuari esker (Quitian, 2008, orr. 1-8).

Estatu nazioak sortzeko orduan, kirolak erabilpen bikoitza du. Alde batetik nortasun azterketaren funtzioa betetzen du (Elias N., 1994), nazio selekzioak jokatzen dituen lehiaketak biderik egokiena bihurtzen dira aberriarekiko atxikimendua adierazteko. Aitzitik, klubuen eta marken arteko lehien bitartez barne nortasunak azalarazten dira Estatuek duten homogeneizatzeko borondate bateratzailearen aurka tupust egiten. Alde bietan kirola tresnarik hoberenetako bat da instrumentalizazio politikoaren eskuetan, beti ere testuinguru historikoaren arabera. Jean-Pierre Augustinen aburuz, “kirolak dituen ahalmen sinbolikoak direla eta, kanpoko edozein politikaren baliabidea da eta nortasun politikoa adierazteko eta baieztatze balio du”⁶³ (Augustin, 1999, orr. 11-25).

Kirolari, adibidez, gaur egun europar espazioan funtzio eraikitzailea ematen zaion arren (Boniface, 2002), Mundu Gerra bien testuinguruan kirol lehiaketen funtzioa guztiz kontrakoa izan zen, hau da, estatuen arteko banaketa areagotzeko balio izan zuten, 1920ko Joko Olinpikoetan -gerra galdu zuten herrialdeak bazterturik izan ziren- kirola bilakatu zen “nazioen bizitasun eta handitasunaren erakusleioa (...) politikariek propaganda tresna gisa erabili zutelarik”⁶⁴ (Arnaud, 1999, orr. 15-24).

Goi mailako futbola adibiderik paradigmaticoena litzateke joko geopolitikoaren adierazle gisa, Estatuek “guk” eta “gainerakoen” artean mugak ezartzeko darabiltzaten jarrerak eta, aitzitik, “gainerakoak” “gurean” sartzeko, nazioa indartzea helburutzat hartuta.

⁶² “est souvent de servir des intérêts politiques, économiques, voire hégémonique”

⁶³ “le sport, en raison de ses capacités symboliques, est une ressource importante de toute politique étrangère et il contribue à exprimer et à affirmer l’identité politique”.

⁶⁴ “une vitrine de la vitalité et de la grandeur des nations (...) promu par les hommes politiques comme instrument de propagande”.

Ildo honetan, Eric Dunningek azpimarratzen duenez, (2001) “gaur egungo gizartearen testuinguruan, konplexuak, arinak eta erlatiboki inbertsonalak direnak, talde batekiko atxikimenduak “gu” izatearen sentimendua indartzen du eta sentimendu hori gizarteetan falta da”⁶⁵ (or. 94).

Gauzak horrela, sentimendu hori ez da hain eksklusiboa eta nazioaren pluraltasunaren isla da. Nazionalizazioaren indargabetze prozesua agerian geratzen da eta estatua nazioez gaindikoa da, denbora luzez nazio nortasuna eraikitzeko ezinbestekotzat jo den homogeneotasunetik urrun.

Kirolak ere literaturan hartu du tokia Estatu indartzeko ala berpizteko. Adibidez, espainiar Estatuan kirolari buruzko gaia jorratzen duen literatura 98ko Belaunaldiaren eskutik agertzen da. Idazle haiek Espainiaren atzerapenaren inguruan jardun zuten eta, era berean, Estatu moderno osatzeko konponbideak bilatzen zituzten, atzerritar teknika zein ideologiak antzeratzen, patriotismo berri bat goratzen zuten bitartean (Carr, 1985, orr. 506-513).

Egitate zehatzekin modernizazioari ekiteko beharra hezkuntza modernoa eta teknikoaren bitartez omen zetorren (Robles, 1987, orr. 17-20) eta berrikuntza fisikoa eta izpiritualaren eskutik. Horretan kirol modernoa idazle askorentzat sorburu bihurtzen da, Miguel de Unamuno aitzindaria izanik.

5.4.2.2 *Estatutik gabeko nazioen ikuspegitik*

Aitzitik, estaturik gabeko nazioetatik ikuspuntua bestelakoa da. Esaterako, Victor Aleixandrek idatzi zuen 2004ko azaroaren 26an, Fresno (Amerikako Estatu Batuak) Katalunia Nazioarteko Irristaketa Federazioan (FIRS) sartzeko ala ez bozketa egingo zela. Eta, horren inguruan, zera hau zioen: “emaitza onerako baldin bada, Kataluniaren eskubide nazionalak berreskuratzeko bide luzeko pausorik handienetako bat izango da. Handikeria dirudi baieztapen hau, zalantzarik gabe. Zaila da sinetsi kirol federazio

⁶⁵ “dans le cadre des sociétés modernes, complexes, fluides et relativement impersonnelles, l’appartenance ou l’identification à une équipe confère aux individus un important support identitaire, une source de ‘solidarité’ plaisante et significative, ou un ‘sentiment du nous’ qui manque généralement dans de telles sociétés.”

xume baten onarpena are garrantzitsuagoa izango dela osasungintzan, hezkuntzan, kulturaren edota berezko polizia sortzeko boterea izatea baino. Hala eta guztiz ere, argi eta garbi dago eskuduntza esparru hori eskubide osoko nazio baten botere errearen azpitik dagoela”⁶⁶ (Aleixandre, 2004).

Ezin dugu ahaztu Estatu espainola autonomietan banatzea ez dela bilakaera politikoaren ondorioa, baizik eta Estatuak ulertzen ez duen errealtatera egokitzeko beharrarena. Hau da, *Estado de las Autonomías* izenekoa kataluniar eta euskal nazioen nortasun juridikoa nazioarteko komunitatean indargabetzeko sortzen dela. Eta asmo horrekin ere Espainiak nazionalitate eta erregioen arteko ezberdintasuna onartzen duela dio idazleak. Horren froga da erregioen eta nazionalitateen eskuduntzak gero eta partekatuagoak direla. Nazionalitate terminoak nazioa ezkutatzeko balio badu (Herrialde Katalanak eta Euskal Herria), elkartasun terminoak bi herri hauen indarrezko ebaste eta espainiar ordenekiko menpekotasuna ezkutatzeko balio du.

Idazlearen iritziz, beharrezkoa izan da alderdi independentista bat Kataluniako Gobernura iristea kirol esparruan herri horren nortasun juridikorako normalizazio pausoak emateko. “Dena den, espainiar izaeraren ezaugarri esanguratsua den itxikeria aldaezina da” dio Aleixandrek.

Arestian aipatu den itxikeriaren ondorioa lirakeke espainiar presioak kirol arloan Katalunia nazioartean onartua ez izateko. Horregatik ez da horren garrantzitsua irristaketa, futbolarekin alderatuz, gutxieneko kirola izatea. Gakoa da hurrengo eskakizunei begira jurisprudentzia ekiditea. “Botere politikoa askoz indartsuagoa da kirol boterearekin alderatuz” esan berri du FIRS-en presidentek, “tartean sartzen dean jokoz kanpo geratzen gara gu”. Artikulu honen mamia ez datza asmakizunen joko

⁶⁶ “El 26 de noviembre, en Fresno, Estados Unidos, se llevará a cabo la votación que debe decidir el ingreso de Cataluña en la Federación Internacional de Patinaje (FIRS). Si el resultado es satisfactorio se habrá producido uno de los avances más espectaculares en el largo proceso hacia la recuperación de los derechos nacionales de Cataluña. Esta afirmación, no hay duda, puede parecer una boutade. Cuesta creer que el reconocimiento de una simple federación deportiva constituya un logro mayor que el ejercicio del poder en materia de sanidad, enseñanza, cultura, policía propia, etc. Sin embargo, es evidente que ese marco competencial está muy por debajo del poder real de una nación de pleno derecho.”

zentsugabeen, baizik eta, hasieran aipatzen duenez, kataluniar nazioarteko onarpenaren garrantzian eta, gertatzekotan, egintza honen ondorio politiko zein psikologikoak Espainian, Katalunian eta Euskal Herrian.

Aldi berean, Jose Luis Rodríguez Zapatero garai hartako espainiar presidentearen hitzak dira: “Katalunia eta Espainiaren arteko lehia ez da inoiz emango, nazioarteko lehiaketetan espainiar selekzioa baita espainiar Estatua ordezkatzeko duena”⁶⁷. Uko honen oinarria da 1990ko urriaren 15ean onartu zen Kirol Legea.

Zapaterok iragarri egin zuen Katalunia onartua izanez gero, Espainiak bere aurka lehiatzeari uko egingo ziola. Baina, kontrakoa badirudi ere, ez da izango irristaketan munduko onenetarikoa den Katalunia bezalako selekzioaren aldetik har dezakeen jipoiarengatik, baizik eta sinbolo-esparruan edukiko lukeen eraginarengatik. Haren iritziz, “(...) halaxe gertatzen bada, batez ere gehienen kiroletan, Katalunia eta Espainiaren arteko harremana ez da inoiz berbera izango. Eta hor dago Espainiaren benetako beldurra: kirol sinbologiak kataluniarren nazio autoestimua izango duen eragina. Espainia, estatua den heinean, sinbologia hori ederto ezagutzen du, horretaz baliatzen baita bere nazio kohesioa indartzeko eta horren gainean batasun sakratuaren itxuragabeko arauari eusten dio; horregatik ez dago prest kataluniar eta euskaldunen kohesioa bermatzeko, bere kohesioarekin bateraezina delako. Jakin badaki, ederto gainera, ez dela gauza bera ereserkiak barne ekitaldietan entzutea ala kanpoan milaka pertsonen errespetuzko isiltasunarekin (...)”⁶⁸ (Aleixandre, 2004).

⁶⁷ Son palabras de José Luis Rodríguez Zapatero: “El escenario en el que Cataluña y España se confronten no se dará jamás ya que la selección española es quien representa al Estado español en las competiciones internacionales.”

⁶⁸ “Es, por esa razón que el señor Zapatero ya ha anunciado que en el caso del reconocimiento de Cataluña, España renunciará a competir con ella. Pero, contrariamente a lo que parece, no es por temor a la humillación deportiva que una potencia mundial en patinaje como Cataluña pueda infligirle, sino por los efectos psicológicos que ese enfrentamiento tendría en el terreno simbólico. Y es que el día en que ese hecho se produzca, especialmente en deportes mayoritarios, la relación entre Cataluña y España no volverá a ser la misma. Ahí radica el verdadero temor de España: en el influjo que sin duda ejercerá la simbología deportiva en la autoestima nacional de los catalanes. España, como Estado que es, conoce muy bien esa simbología porque se vale de ella para reforzar su propia cohesión nacional, es sobre ella que sustenta el esperpéntico precepto de la sagrada unidad, por eso no está dispuesta a permitir la cohesión de catalanes y vascos, porque es incompatible con la

Honek dio horrelako gauzak dituela “kontzientzia hartzeak”. Bat-batean, Katalunia eta Euskal Herria orain arte kirol lehiaketetan bete duten papera eta txakurrek txakur-lehiaketetan jokatu dutena antzekoak direla azpimarratzen du, hau da, nagusia dela beti saria eskuratzen duena.

5.4.2.3 *Estatua eta nazioaren izaera beste baten aurrean finkatzeko*

Hirugarren bide bat egon badago, estatua diren nazioek kirola darabilte beste nazio baten aurrean, edota gainerako nazioen aurrean, bere nortasuna azpimarratzeko. Kubako adibidea argia da:

Kubatar kirola ez zen gai izaten potentzia handiei aurre egiteko. Kubatar kirol iraultzaile umila gutxietsi dutenen alderik ahulena omen da, kirolak berak baloreei gure kaiman berdearen kirolari guztien prestakuntza eta ezagutza eskaintzen die. *American way of life* bere egin zutenentzat, zaila da oso bururatzea bada ere, soilik loria, esker ona eta bere herriaren begirunea sari nagusitzat duenak denboraldiko 25 milioi jasotzen dutenak mendean hartzea. Hainbat dolar ezin dira nahastu?⁶⁹

(Bello, 2008, or. 2)

Belloren aburuz, kubatar kirola moralik gabe ikusteko ametsa izan zuten, eta bide batez kirol modeloa eta bultzatzen, sostengatzen eta ordezkatzeko duen sistema politiko-soziala ere. Ildo beretik, zera hau dio: “Errealitatea da Ipar Amerikako Liga

suya. Sabe también que no es lo mismo escuchar el himno nacional en actos de orden interno que hacerlo en el exterior ante el silencio respetuoso de miles de personas (...)”

⁶⁹ El deporte cubano ejemplo vivo, no pasaba de ser incapaz de medirse con las grandes potencias. Tal vez el flanco más débil de quienes desestimaron al humilde deporte revolucionario cubano, que es el que da a los valores la preparación y conocimiento de todos los deportistas de nuestro verde caimán. Para quienes asumieron como suyo el *american way of life*, debe resultar muy difícil concebir siquiera que alguien que solo aspira como premio mayor a la gloria, el reconocimiento y la veneración de su pueblo, pueda dejar al campo a quienes perciben hasta 25 millones en una temporada... ¿Tantos dólares no pueden estar equivocados?

Handien oinarriak gizarte horren oinarri berberak direla: harrapaketa, lehiakortasuna eta dirua. Aitzitik, gure beisbol, baten bat aipatzearen, lur honi bizitza eta odola eman zioten baloreak ditu oinarritzat: eskuzabaltasuna, duintasuna, balorea, kemena, ohorea eta bandera. Zenbat balio dute?.”

5.4.2.4 *Estatua eta nazioa nazioartekoan goratzeko eta barnea finkatzeko*

Estatuek kirola erabili dute, behin baino gehiagotan, bere burua nazioartekoan goratzeko, batez ere isolamendu egoeretan. Aspektu honen inguruan aritzeko, bi adibide dakarkigu: espainiar Estatuan diktadurak kirola nola erabili zuen eta gauza bera Argentinan, diktaduraren agindupean ere, 1978. urtean, Munduko Futbol Txapelketan gertatu zena.

5.4.2.5 *Francoren garaiak Espainian*

Frankismoak, Europan kirol egitarau berezia zena asmo ideologiko argi batekin ezarri zuen hedabide publikoetan, batik bat telebistan. Kirolak argi eta garbi islatu zituen erregimenaren nahiak eta, bide batez, espainiar gizartearen bilakaera. Kirol eskaintzaren barruan futbola izan zen jaun eta jabe, gizartean sustraituen zegoen kirola zela eta. Futbol emankizunak ikusleri handia erakarri zuen eta baita espero ez zen diru-sarrera publizitatearen bitartez. Francoren erregimenaren propaganda itzela izan zen eta kirol arrakastak erregimenarenak balira bezala “saldu” ziren, batik bat espainiar futbol selekzioarenak eta baita Real Madril futbol taldekoak ere.

Lehen emankizunean Real Madril futbol taldea presente zegoen. Ez zen kasualitatea izan. Talde honen europar garaipenak (1956tik-1960ra eta 1966an) bereak egin zituen erregimenak kanpoko herrialdeei begira eta propaganda-tresna bihurtu zen (Bar-On, 2014, orr. 23-38).

Real Madrilen irudia bere onurarako erabili zituen TVE-k eta bere presentzia handituz joan zen. Hortik aurrera Real Madrilek espainiar Estatuaren egiturekin nolabaiteko identifikazioa pairatu behar izan du.

Dena den, Francoren erregimena ederren aprobe txatu zuen ekitaldia 1964ko Eurokopa izan zen, espainiarrak garaile atera finalean garai hartako Sobietar Batasuna mendean hartu eta gero.

1964ko ekainaren 21ean, 120.000 pertsona, itsaso gorri eta hori batean murgildurik, Francisco Franco generala txalo zaparradaz hartu zuen. Ez zen ohiko mitin bat, baizik eta futbol partida bat. Espainiak Sobietar Batasuna garaitu berri zuen Europar Nazioen Koparen finalean; futbol garaipen bat baino gehiago: nazioarteko lankidetzaren garaipena Gerra Hotzaren aurka, baina, aldi berean, garaipen bat Guda Zibilaren etsai gorrien aurka.⁷⁰

(Shaw, 1985)

Idazleak berak kontatzen duenez, hurrengo egunean ABC egunkariak zera hau zioen:

Bakean hogeita bost urte bizi ondoren, txalo zaparradaren atzean uztailaren 18ko izpirituari erabateko sostengua dago. Mende laurden honetan inoiz ez da horrenbeste atxikimendua ikusi Komunismo eta bere enparauak irabazi dituen Estatu berriarekiko... Espainia, gaur egun, nazio ordenatuagoa, helduagoa, batuagoa da, bilakaera ekonomiko, soziala eta instituzionalaren bidetik dabilela. Abentura nazionala da.⁷¹

(Shaw, 1985)

⁷⁰ “On June 21st, 1964, an ecstatic crowd of 120,000, awash in a sea of red and yellow, cheered and applauded Generalissimo Francisco Franco as he stood up to leave the Madrid summer evening gathering. This was no mass rally of political affirmation that the dictator was leaving, but a football match. Spain had just beaten the Soviet Union in the Final of the European Nations' Cup; so much more than just a football victory: a triumph for international co-operation over Cold War hostility, but, conversely, perhaps also a triumph over the old Red enemies of the Civil War”.

⁷¹ “After twenty-five years of peace, behind the applause could be heard an authentic support for the Spirit of July 18th. In this quarter of a century there has never been displayed a greater popular enthusiasm for the State born out of the victory over Communism and its fellow-travellers ... Spain is a nation every day more orderly, mature. and unified, and which is steadfastly marching down the path of economic, social and institutional development. It is a national adventure.”

Berehala txirrindularitza heldu zen, Espainiar Itzulia eta Frantziako Tourrarekin 1958az geroztik. Pasa den mendeko hirurogeiko hamarkadaren erdira arte eguneroko laburpenen bitartez eta ostean zuzeneko emankizunekin. Arrazoa bikoitza izan zen, albo batetik txirrindularitzak sortzen zuen ikusmira eta, batez ere, nazioartekoan espainiar erregimenari ospea eman ziezaiokeen Federico Martín Bahamontes-en presentzia, hasieran behinik behin. Espainiar kirolaren garaipenaren ideiak telebistako emankizunak betidanik bultzatu ditu.

5.4.2.6 Argentina, diktaduraren aginpean, 1978. urtean, Munduko Futbol Txapelketa

Bigarren adibidea Argentinakoa da. Munduko Futbol Txapelketa 1978ko ekainaren 1etik 25era egin zen. Diktadurak “Bakea irabazi” leloa aukeratu zuen herrialde baketsua eta batuaren irudia esportatzeko (Opini3n, 1977, or. 1).

Barruan irekieraren ilusioa saltzen zen eta nazioartekoari begira salaketan aurrean antolaturiko erantzuna zen. Bietan Argentinako prentsak babesa eskaini zion erregimenari.

Munduko Txapelketaren antolakuntza hitzartuta zegoen militarrek boterea eskuratu baino lehenagotik eta, beraz, ekitaldiak aukera eskaintzen zien errepresioaren zatirik gogorrenaren ondorengo garaia eta keinu positiboak elkartzeko. Horretarako ezinbestekoa zen diskurtso bateratua antolatzea: futbola, nazioa, gobernu eta herria uztartuz, gatazkak nortasun nazional berri eta homogeen batean urtzen ari ziren bitartean.

Bestalde, Munduko Txapelketaren harira ospatu ziren kale ekintzetan inauterietako apaingarriak erabiltzen ziren, baina inolako asmo urratzailerik gabe (Schindel, 2003, orr. 230-240).

Nils Larsenen aburuz, hego amerikar diktadurentzako mehatxurik handiena ez zen militarra, ezta politika ere, soziala baizik, eta horregatik nolabaiteko akordio iraunkorra ezinbestekoa zen (Larsen, 1983). Arlo horretan txapelketak eragindako narkotizazioa primerako aukera zen kontsentsua ezartzeko. Ildo honetan 1978ko Munduko Txapelketa eta 1982ko Malvinaseko Gerra gobernu militarren ekimenik nabarmenak izan ziren herritarren sostengua eskuratzeko.

Bigarrenean kale egin zuten, baina lehenak hauspoa eman zion erregimenari bere horretan boterean mantentzeko.

Halaber, 1978ko egunkariaren begirada esanguratsua da, baita Munduko Txapelketa prestatzeko lanen ikuspegitik ere: “Buenosairestarren historian, maiatzaren 31k lekua merezi du Buenos Airesen aurpegia eta oinak garbitzen amaitu zuten jardunaldia gogoratzeko”⁷² (Opini3n, 1978, orr. 10-11).

Hortik gaur egunera arte, eskenatoki global batean eta ikus-entzunezko edukien eraginpean, argentinar futbolak ez du betetzen garai hartan ahalbidetu zuena eta arazoak ditu kirol epika nazionala futbolaren bitartez eraikitzeko (Dodaro, 2008).

5.5 Hedabideen garrantzia nazio nortasuna osatzen

Hedabideak funtsezkoak izan dira irudikatutako komunitateak sortzeko eta osatzeko, eta egunkariak, esaterako, nazio eraikuntza ikertzeko informazio iturri bihurtu dira arlo gehienetako ikerlariarentzat. Ildo honetan, funtsezkoa da kirol kazetaritzaren inguruko hausnarketa, hedabideek mitologiak eta diskurtso identifikatzaileak berresten eta eraikitzen dituztelako, behin baino gehiagotan objektibotasuna albo batera utziz.

Zentzu honetan Benedict Anderson-ek, (2006) (Hobsbawm eta Gellnerrekin bat ez zetorrela nazioaren ikuspegiarekin eta garrantziarekin) toki berezia ematen zion hedabideei (mass-media) nazio kontzientziaren jatorrian eta nazio kontzientzia bera ezartzeko orduan. Haren aburuz, ale batzuk egun berean saltzeak mezu berbera milioika pertsonengana iristea suposatzen zuen eta, gainera, jarduera horrek harremana zeukan merkatuarekin. *Print-capitalism* izenekoak komunitatea ulertzeko modu berri bat sortu zuen: “gu” (barne merkatua) eta “gainerakoak” (kanpo merkatua) (Castell3, 2016).

Idea hauek Michael Billig-ek (1995) osatu zituen, nazionalismoa egunero eta ia ohartu gabe kontsumitzen dela aipatzean.

⁷² “El 31 de mayo merece figurar en la historia de los porteños como la jornada en que terminaron de lavar la cara y los pies a Buenos Aires.”

Aitzitik, Andersonek ez ditu zehazki aipatzen, adibidez, irratia edota telebista komunitate sortzaileen artean. Haren kezka nagusia nazioaren idea zen eta ez hainbeste bere erreprodukzioa.

Kazetaritza eta kazetarien naziotasunari buruzko burutazioak jaso zituen 2002an Baietz Fundazioak. Haien artean Furio Colomborenak zeuden. Haren iritziz, kazetariaren naziotasuna parte den kulturaren adierazpen, ezaugarrien eta prestakuntza psikologikoaren ondorioak dira.

Colombok bere liburuan (1997) galdera batzuk egiten ditu: “Ba al da nazio kazetaritzarik (italiar, aleman, amerikarrik) tradizioa, kultura, teknikak edota lan egiteko erak ezberdintzen duenik, eta ez hizkuntzagatik soilik? *Nazio interes delakoaren definizioak ba al du garrantzirik?*”.

Kasu guzti hauetan, halere, daturik interesgarriena, eta askotan kazetagintza eta inguruan gutxien komentatua, kazetariaren naziotasuna da. Bere dokumentuetan edo pasaportean oinarritzen ez den nortasun bat, baizik eta formazio psikologikoan eta bere kulturaren ezaugarrietan.

Kazetariaren naziotasuna bere lanaren bi aspektuetan ditugu kontutan, bere herrialdean eta bere herrialdetik kanpo. Komunikazioaren langintzan ari direnen artean inor ez dago bere herrialdearen prestakuntza ezaugarriengandik bera bezain lotua. Olerkari edo narratzaile bat inoiz bidaiarik egin ez izana baliteke, eta halere dauden ingurutik zeharo kanpo eta isolaturik egotea. Arraro sentitzea artearen datua izan daiteke, baina inoiz ez kazetagintzarena, eta ezinezkoa da gainera. Irakurleekiko harremanetan, desorekara eta nora ezean eramango zuen. Nortasunak eraginik ez izatea iruditu dezake, kazetaria nazioartean ez dabilenean, baina guztiz kontrakoa dio Colombok jada euskaraturik jasotzen den testuan:

Jakina, naziotasuna eta kazetariaren nortasun profesionalaren arteko aldea badago. Kazetari on batek bere ekinbide profesionalaren hainbat ezaugarri eztabaidatzeko, hobetzeko eta aldatzeko joera du; bere ogibideko aitzindariak proposatutako nortasun ereduak ez du pasiboki onartu nahi. Lortuko du, berritzeagatik borrokatzea alegia, baldin eta soilik

baldin eta ari den ingurua garbi baldin badu eta prestatu duen nortasun kulturala ezagutu, onartu eta indartzen badu.

(Baietz Fundazioa, 2002)

Beste ekinbide profesionaletan bezala, eta eskulangintzaren emaitza guztietan bezala (kazetagintzaren bi ezaugarriak), kazetagintzak herri baten kultura eta historiarekin duen harremana sendoa da, eta hala komeni da. Gehienetan kazetagintzaren gabeziak eta gaizki egokitzeak ez datoz profesioaren hutsuneetatik, formularik berrien edo modernoenen ezjakintasunagatik. Nazioaren portaera eta izaera islatzen dute batik bat, horien aldaketarako hiritar gisa parte hartzen delarik.

Gertuago daukagun euskal kazetaritzan ere nazio izaerak eta horren inguruan mugitzen diren faktoreek eragina dute, batik bat, berezko nortasuna eraikitzean.

Euskarazko kazetaritza nahiko berandu hasi zen, bai Frantzian, bai Espainian, ordurako hainbat argitalpen kaleratzen zutelako. Kontua da horiek nazio-estatuak zirela eta nazioa osatzeko hainbat elementu finkatzen zituela aginteak. Horietako bat hizkuntza zen. Horregatik, argitalpenak hedatu nahi zuten hizkuntzan kaleratzen zituzten. Euskaldunei zuzendutako mezuak lehenengo eta behin erdaraz ematen zituzten, baina, herritarren parte-hartzea eta mobilizazioa beharrezkoa ikusten zuten kasuetan, euskaraz ematen zituzten, guztiek ulertuko zituztela ziurtatzeko. Beste estrategia bat da: lehenengoa, estatu estrategia bat da, nazio bat sortzeko estrategia, eta gero interes politikoaren arabera estrategia. Bigarren horretan, hizkuntza komunikatzeko tresna baino ez da. Bi estatuen lehenengo helburua nazio bana sortzea zen”.

(Iantzi, 2009)

Maria Gonzalezek (2008) dio Hegoaldean, argitalpen gehienak gaztelania hutsez kaleratzen zituztela, nazio nortasuna, estatua sortzea eta batez ere hizkuntzari garrantzi gehiegirik eskaini gabe: “Gero, prentsa abertzaleak euskarari zelanbaiteko

lekutxoia egin zion, euskara proiektu politikoan sartzen zen neurrian. Gaur egun bezala, euskararen inguruko albisteak euskaraz ematen zituzten, baina gauza garrantzitsuak espainol hutsez ematen zituen prentsa abertzaleak berak” (Iantzi, 2009).

Sasoi horretako Hegoaldeko abertzaletasunak ez zuen euskara nortasun elementutzat zuen komunitate bat ordezkatzeko. Kontrara: euskara hainbat arrazoiengatik galdua zuen edo inoiz ezagutu ez zuen komunitate baten gainean proiektu politiko abertzalea finkatu nahi zuen. Ez zuten euskalduntasuna bultzatzen, euskaltzaletasuna baino. Euskararen alde zeudela esaten zuten erdaldunak egon zitezkeen. Hor pasarte deigarria batzuk aurki daitezke: Hitler-en urteak zirenean eta Frantzia okupatuta zegoenean, «Eskualduna»k Hitlerri egindako ezusteko festa baten hurrengo eguneko kronika eman zuen. Euskaraz nazien alde idatzi eta Hitler-i zorionak eman zizkioten.

Proiektu politikoak ez zegoen hizkuntzarekin lotuta eta hori Hegoaldean ez zegoen ulertzerik. Sabino Aranak eta gero ANV-k eta beste alderdiek bultzatutako aldizkari gehienek izena euskaraz zuten, baina gero eduki osoa erdaraz zen. Horrek adierazten du nori zuzenduta zegoen.

XX. mendean Iparraldeak eta Hegoaldeak kontrako prozesu demografikoak izan zituzten: Iparraldeak biztanleria galdu zuen, Frantziak Lehenengo Mundu Gerran parte hartu zuelako eta hainbatek Estatu Batuetara bizimodu hobea baten bila joan behar izan zuelako. Hegoaldera, Gipuzkoara eta batez ere Bizkaira, Espainiako hainbat langile etorri zen. Langile uholde hori etorri arren, bertako euskaldunek ez zuten euren burua euskal komunitate moduan ulertu izan, baina bai komunitate politiko moduan.

Hala eta guztiz ere, kazetaritzaren funtsezko ezaugarriak ez ei dira aldatu azken bi mendeotan:

(...) ikusten dugu hizkuntza bera dela eta gizartearen hainbat elementu ez dela aldatu. Kazetaritzaren ikuspegitik agintariak egindakoa herritarrei azaltzen ahalegintzen ziren. Beste gauza bat: mugaz gaindiko edukiak kaleratzen zituzten. «Argia» ez zen Iparraldean zabaltzen eta Iparraldeko agerkariak ez ziren Hegoaldean banatzen, baina komunitate bat ordezkatzeko zutela

antzean daitezke. «Eskualduna»k Hegoaldeko kontuak nazioarteko sailean sartzen zituen, baina «Euskalzale»k, «Argia»k eta «Ibaizabal»ek Ipar Euskal Herriko gertakarien berri ematen zuten herriko sailean.

(Iantzi, 2009)

Bestalde, euskaraz hainbat aldizkari erlijioso plazaratzen zen. Abertzaletasunak bultzatutako ezaugarria zen, Espainian eta Frantzia aurka egin beharreko nortasun politikoak laikotasunerako bidean zeudelako. Erlijioa aurka egiteko beste elementu baten moduan erabili zuten. Aldizkarietan, erlijioaren bidez politika egiteko asmo sendoa zegoen. Adibidez, umeei doktrina euskaraz irakasten ahalegintzeko esaten zuten.

Azken finean, XXI. mendeko gizartearen komunikazioak berebiziko garrantzia dauka nazio izaera gauzatzean. Nortasunaren definizio garaikidea egiteko orduan izaera sozio espazialek ez ezik sozio komunikazioan ere oinarritu behar da. Nortasuna bi fronte dituen errealitatean oinarritzen da; alde batetik bizi garen lurraldearekiko bertakotzearen bidez eta bestetik tokian-tokiko ez diren bertako komunikazio sareetan parte hartuz.

Nortasuna sozio-komunikazioaren azalarazte postmoderno honek, herrialde mailako estrategiak diseinatzeko eta berauei zentzu politikoa eta lokala emateko orduan, erronka potoloak planteatzen ditu. Zergatik hau? Nazio nortasuna bertako zein herrialde mailako garapenaren alde egiten duten energiak biltzeko ezinbesteko faktorea bihurtu delako.

Irudi 4: Hedabideak funtsezkoak izan dira irudikatutako komunitateak sortzeko eta osatzeko, eta egunkariak, esaterako, nazio eraikuntza ikertzeko informazio iturri bihurtu dira arlo gehienetako ikerlarientzat.



INDURAIN 1.º	FUERTE 2.º	PERICO 3.º
Avanza 30 puestos en la general	Avanza 60 puestos en la general	Avanza 17 puestos en la general
8.º, a 5:37	28.º, a 10:37	11.º, a 6:24

Martes 11 JULIO 1989 65 pesetas Director: LUIS INFANTE BRAVO

TOUR-89 La primera etapa pirenaica provocó una conmoción en la General
LOS TEMIDOS BREUKINK, ROCHE Y ZIMMERMANN, PRACTICAMENTE DESCARTADOS
HACHAZO ESPAÑOL
HOY, CON MAS CUESTAS Y LOS EQUIPOS ZURRADOS, OCASION PARA PERICO
 La gran escapada de Indurain le dio el liderato de la montaña

Verdadera hazaña la realizada ayer por el ciclismo español, que con Indurain, Fuerte y Delgado, iba dejando las cosas más en su sitio. Mientras el navarro avanzaba 30 puestos en la general y se quedaba a 5:37 de Lemond, Perico recuperaba 17 puestos, limando sus diferencias con la cabeza para quedar a 6:24. Aunque más espectacular es la remontada de Anselmo Fuerte, con 60 puestos, a 10:37 del maillot amarillo. Entre todos han propiciado el descalabro de gente importante como Roche (14:34), Zimmermann (6:29) y Breukink (13:07), que pueden decir adiós al Tour.

Italia se llenó de rumores sobre el fichaje de Hugo, pero...

LA JUVE TRAS NUESTROS «PICHICHIS»

Ahora Baltazar

Gil recibió una oferta de 800 millones por el brasileño «Cuando lleguen con el maletín empezaremos a negociar»

La Italia futbolística está en plena «revolución Hugo Sánchez». La estancia de Ramón Mendoza en el país, su cena con Agnelli y el interés de la Juve por el ariete mexicano han propiciado que los rumores se disparasen y ayer incluso se llegaba a afirmar que a las 15,30 horas la «vecchia signora» haría oficial el fichaje de Hugo.

Después, cuando llegó el momento... nada de nada. Ni viaje ni rueda de Prensa. La Juve ya casi se ha despedido del mexicano y ha girado sus pretensiones hacia el nuevo «Pichichi» español. Baltazar es ahora el gran objetivo y hasta Gil ha llegado ya una oferta de ochocientos millones de pesetas. (Págs. 2-3)

Encantado con el contrato que le presentó el club

F. Hierro pasó ayer reconocimiento médico

Fernando Hierro estuvo ayer en Madrid, en viaje de ida y vuelta, para pasar el preceptivo reconocimiento médico con el club blanco y ver el contrato que firmará en fecha próxima. (Pág. 4)



EXCLUSIVAS



La madre de Petrovic habla para MARCA

“Yo quiero que siga en el Madrid”

... «Pero él es un ganador y no se olvida de Neyro»

Drazen Petrovic, que ha emprendido una pequeña gira de vacaciones por Italia, tendrá en su madre una gran enemiga para dejar el Real Madrid. La señora Petrovic indicó a MARCA que desea fervientemente que su hijo se quede en el conjunto blanco, pero que la polémica con Neyro no se le ha olvidado y desea jugar en un equipo campeón.

Volkov, desde Kiev, confirma a MARCA

“Aun sin Petrovic me interesa el Real”

En vísperas de acudir al campo de Atlanta, Alexander Volkov aseguró a MARCA que, en caso de no aceptar la oferta que le hagan los Hawks, se decidiría por el Real Madrid, aunque no estuviera Petrovic en el equipo. (Págs. 22-23)

6 Helburuak, ikergalderak eta hipotesiak

6.1 Sarrera

Ikerketa bat diseinatzean, teoria batean oinarri harturik, helburu nagusi batzuk ezartzen dira, zeintzuk hipotesi eta/edo iker-galderen bitartez zehazten diren, eta emaitzetan berresten edo gaitzesten diren.

Hipotesiek, arrunki, jadanik zerbait ezagun den alor baten inguruan, frogatzeko baieztapen berri bat egiten dute; iker-galderek, aldiz, ezagun ez den esparru bat urratzen hasten dira (Zabaleta, 2000) (Wimmer & Dominick, 2000).

Hipotesiak hainbat motatan sailkatzen dira: *hipotesi teorikoak*, teoria-mailan ezarritako hipotesiak dira, froga pragmatikoa falta zaienak, teoria kritikoa oinarrituak askotan; *ikerketa-hipotesiak*, ikerlan batean erabiltzen diren metodo eta test-prozedurek definitutakoak; *hipotesi estatistikoak*, aurreko hipotesi-motaren antzekoak baina estatistikaren bidez neurtuak eta metodo enpirikoetan erabiliak.

Iker-galderek ez dute emaitzen norabiderik aurreikusten eta galdera soilean geratzen dira. Hiru ikerkuntza-metodologietan (enpirikoa, interpretatzaile eta kritikoa) erabiltzen dira.

Ikerlan honetan bai hipotesiak eta bai iker-galderak erabili dira, hiru ikerketaguneetan.

6.2 Helburuak

Doktore tesi honetan, hiru helburu nagusi ezarri dira eta horien inguruan antolatu dira hipotesiak eta iker-galderak, eta hauek ikertzeko behar diren metodo eta teknikak. Hiru helburuak hauek dira:

- **Kirolaren inguruko helburua:** Tourraren bilakaeraren analisi historiko-interpretatzailea egiten da, lasterketaren historiaren faseak, mugarri nagusiak eta eboluzioa ikertuz, komunikabideen eta naziotasunaren ikuspegitik.

- **Kazetaritzaren inguruko helburua:** hiru herrialdeetako egunkari nagusiek ehun urtetan zehar Tourrari buruz argitaratu dituzten informazio eta iritzi edukiak aztertzen dira hainbat parametroren arabera (ekoizpena, kazetaritza generoak, egilea, edukia eta protagonistak).
- **Naziotasunaren inguruko helburua:** ikerketa-gune honetan, bi esparru bereizi dira. Batetik (ikus Emaitzak 3), aztertu da egunkariak naziotasuna eta nazio-identitatea nola islatu, soslaitu edo enkoadratu duten. Horretarako, hainbat kontzeptu edo enkoadre-irizpide erabili dira: nazio-ikurren eta nazio-leinuen presentzia eta tipologia; eta nazio-identitatearen erlazioa gatazka, aurkakotasuna eta positibotasunaren kontzeptuekin. Bestetik (ikus Emaitzak 4), ikertu da hiru herrialdeetako prentsan, aipatutako naziotasun kontzeptuak erabiliz, zernolako enkoadre edo interpretazio-marko orokor eta konbinatu eraikitzen den nazio-identitatearen inguruan, modu orokorrean hartuta, eta baita ere, hiru nazio-identitate nagusien (euskal, espainiar, frantses) inguruan.

Hiru helburu horiek hiru ikerketa-gune sortu dituzte eta guztien artean hamalau hipotesi eta zortzi iker-galdera ezarri dira, tesiaren gaia osotasunean aztertzeko.

6.3 Lehen ikerketa-gunea: Tourraren bilakaera historikoaren interpretazioa

- **1. ikergaldera: analisi historikoa.-** Zein izan dira Tourraren bilakaera historikoaren alderdi eta gertakizun nagusiak kazetaritzaren eta naziotasunaren ikuspegitik? Izan ere, Tourraren historia ezin baita kirolaren ikuspegitik soilik aztertu.

6.4 Bigarren ikerketa-gunea: kazetaritza

6.4.1 Ekoizpenaren ezaugarriak

- **1. hipotesia: kokapena.-** Hiru herrialdeetako prentsan, Tourrari buruzko kazetaritza-eduki gehiena Kirol sekzioan argitaratzen dela baieztatzea logikoa dirudi, baina hipotetizatzen da egunkarien Azalean ere eduki asko kokatuko dela eta honek garrantzi handiagoa ematen diola Tourraren izaera eta proiektioari.

- **2. ikergaldera: irudi eta testua.**- Zein da irudi eta testuen presentzia eta proportzioa hiru herrialdeetako prentsan eta hiru urtealdietan? Desberdintasunak aipagarriak al dira?

6.4.2 Kazetaritza generoak

- **3. ikergaldera: informazio eta iritzia.**- Hiru herrialdeetako prentsan zer garrantzi edo pisu kuantitatiboa erakusten dute Tourrari buruzko informazio eta iritzi generoek? Zer pisu dute, halaber, urtealdika eta egunkarika?
- **2. Hipotesia: informazio eta iritzi generoen azpikategoriak.**- Kazetaritzaren tradizio desberdinetan eta urteetako eboluzioan arrazoia egonik, neurri batean behintzat, hipotetizatzen da hiru herrialdeetako prentsan, eta baita urtealdietan ere, Tourrari buruzko informazio eta iritziaren azpigeneroetan desberdintasun nabarmenak daudela.

6.4.3 Egile/autorearen inguruan

- **3. hipotesia: egile mota.**- Hipotetizatzen da Tourrari buruzko edukien egileek, kategoria desberdinetan, antzeko portzentajea eta presentzia daukatela hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan.
- **4. hipotesia: egilearen generoa.**- Hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, generoaren arrakala izugarri handia eta berdintsua dela hipotetizaten da eta, ondorioz, emakumeen presentzia, edukien autore modura, ia zeroaren hurbilekoa dela, arrazoi zoritxarrez ezagun askorengatik.
- **4. ikergaldera: egilearen inplikazioa.**- Zenbaterainoko inplikazio zuzen eta ebidentziatua (aditzaren lehen pertsona, singular edo pluralean, edo atxikimendu zuzena erabiltzea) erakusten dute edukiaren egileek ikertutako edukietan?

6.4.4 Edukia

- **5. ikergaldera: eduki-kategoria nagusiak.**- Hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, zein eduki-kategoria nagusik (kirola, dopina, gertakariak, gatazka, teknologia, ekonomia) izan du nabarmendurarik handiena Tourrari buruzko edukietan?

6.4.5 Protagonistak

- **5. hipotesia: protagonista mota.-** Hipotetizatzen da, hiru herrialdeetako prentsan eta hiru urtealdietan, Tourrari buruzko kazetaritza-dukietan ez dagoela desberdintasun esanguratsurik protagonista mota bakoitzaren baitan, herrialdeka eta urtealdika begiratuz.
- **6. hipotesia: protagonistaren leinua.-** Hiru herrialdeetako prentsan eta egunkari motaren aldagaian, protagonisten nazio-identitate edo leinuaren emaitzak esanguratsuki desberdinak direla hipotetizatzen da.
- **7. hipotesia: protagonistaren generoa.-** Hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, protagonisten generoa dagokionez, ohiz eta zoritxarrez pentsa litekeen modura, hipotetizatzen da gizonezkoen presentzia ia absolutua dela eta ez dagoela desberdintasunik herrialdeen eta egunkarien artean.
- **8. hipotesia: protagonistaren kolektibotasuna.-** Hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, protagonisten kolektibotasunari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak daudela hipotetizatzen da.

6.5 Hirugarren ikerketa-gunea: naziotasuna eta interpretazio-marko orokorrak

Ikerketa-gune honetan naziotasunaren hiru alderdi aztertzen dira: 1) nazio-identitatea identifikatzen duten osagaien (ikurrak, leinuak) presentzia eta nabarmendura Tourreko dukietan; 2) egunkariak, urteetan zehar, ezartzen duten naziotasunaren enkoadrea/framinga, edo soslaia, funtsezko lau kontzepturen arabera (ikurra, gatazka, aurkakotasuna, positibotasuna); eta 3) hiru herrialdeetako prentsa eraikitzen eta proiektatzen dituzten interpretazio-marko orokorrak aipatutako lau kontzeptu eta neurrietan.

6.5.1 Naziotasuna

- **6. ikergaldera: nazio-identitatearen presentzia eta esplizitasuna.-** Zer portzentajetan agertzen da nazio-identitatea, esplizitua eta inplizitua, Tourrari buruzko dukietan? Hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, desberdintasun

estatistikoki esanguratsuak al daude bai nazio-identitatearen presentzia orokorrean eta bai presentzia esplizitu eta implizituaren presentzian?

- **7. ikergaldera: nazio-ikurren presentzia.-** Tourrari buruzko informazio eta iritzietan zenbateraino daude presente nazio-ikurrak hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan?
- **8. ikergaldera: nazionalitate-leinuaren presentzia.-** Zer neurritan agertzen da nazio-identitatearen leinua Tourreko informazio eta iritzietan, hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan?

6.5.1.1 Naziotasunaren enkoadreak

- **9. hipotesia: nazio-identitatea eta gatazka.-** Hipotetizatzen da hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, gatazka kontzeptuari dagokionez, ez dagoela alde nabarmenik nazio-identitatearen enkoadratzean. Hipotesi hau lagin osoari dagokio.
- **10. hipotesia: nazio-identitatea eta aurkakotasuna.-** Hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan, aurkakotasunaren kontzeptuaren baitan, nazio-identitatearen soslaia berdintsua dela hipotetizatzen da eta, beraz, enkoadre edo framinga antzekoa dela. Hipotesi hau lagin osoari dagokio.
- **11. hipotesia: nazio-identitatea eta positibotasuna.-** Hipotetizatzen da hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan ez dagoela diferentzia adierazgarririk nazio-identitatea positibotasunaren arabera profilatzean edo enkoadratzean. Hipotesi hau lagin osoari dagokio.

6.5.2 Naziotasunaren interpretazio-marko orokorrak

- **12. hipotesia: naziotasunaren interpretazio-marko orokorra.-** Hiru herrialdeetako prentsan, naziotasunaren enkoadre orokor desberdina aurkezten dela hipotetizatzen da, estatistikoki desberdina, lau kontzeptuen arabera (ikurtasun, gatazkatasun, aurkakotasun eta positibotasun). Hipotesi hau lagin osoari dagokio.
- **9. ikergaldera: hiru nazio-identitate nagusien marko orokorra.-** Hiru herrialdeetako prentsak eta egunkariak naziotasun-enkoadre orokor berdintsua eraikitzen al dute hiru identitate nagusien inguruan? Bai al dago diferentzia

estatistiko adierazgarririk? Ikergaldera honetan hiru aldagai independente erabiliko dira: herrialdeetako prentsa, egunkariak, eta egunkari generalistak eta kirolekoak. Lagina soilik euskal, espainiar eta frantses leinuko edukiei dagokie.

- **10. ikergaldera: herrialde bakoitzeko prentsa eta hiru identitate nagusien soslai orokorra.-** Nolako naziotasun-soslaia eraikitzen du herrialde bakoitzeko prentsak euskal, espainiar eta frantses nazio-identitateen inguruan?
- **11. Ikergaldera: hiru leinu nagusien identitatea herrialdeetako prentsan.-** Zer ezaugarri eta profilarekin taxutzen dituzte hiru leinuak nagusiak herrialdeetako prentsan, lau naziotasun-parametroetan (ikurtasun, gatazkatasun, aurkakotasun eta positibotasun)?

Irudi 5: Tesi honetan aztertu da zenbaterainoko inplikazio zuzen eta ebidentziatua erakusten dute edukiaren egileek ikertutako edukietan.

MARCA

Miércoles 5 JULIO 1989 65 pesetas

Director: LUIS INFANTE BRAVO

LA BOLSA DE LOS FICHAJES



- Amarildo (Celta), precontrato por dos años con el Lazio
- Celta, Valladolid y Rayo quieren a Mandiá
- Costa (Murcia), Jesús (Rayo) y Crespín (Zaragoza), al Elche
- Salva (Barcelona), Rosagro, Vilches, Maqueda y Aragón (Real Madrid), al Logroñés

WIMBLEDON: STEFFI GRAF SE TOMO LA REVANCHA EN LA HIERBA

Arancha: ¡qué pena!

■ En el primer set tuvo a la alemana contra las cuerdas y en el segundo se «entregó»

No pudo ser. Arancha no pudo repetir en Wimbledon la apoteosis de Roland Garros, aunque estuvo a punto de hacerlo, cuando en el pri-

mer set se puso con 5-4 a favor y servicio. Steffi Graf, sin embargo, demostró por qué es la mejor tenista del mundo, remontando con au-

toridad un partido que cualquier otra jugadora daría por perdido. El 7-5 y 6-1 al término de la hora y 11 minutos de partido confirmó que

Steffi Graf es la mejor del mundo, por juego y predisposición mental, y que Arancha posee auténtica casta de campeona y es capaz de

plantar cara a quien sea sobre cualquier superficie. El sueño de Arancha no ha terminado

(Págs. 14-15)

SCHUSTER: BALANCE A UNA TEMPORADA DIFÍCIL



El alemán, dispuesto a dar la talla la próxima campaña

"El próximo año jugaré con las ideas más claras"

■ «No me preocupan los rumores sobre mi traspaso; el presidente me ha dicho que no hay nada de nada y su palabra me vale»

Antes de partir para Ibiza de vacaciones con su familia, Bernardo Schuster habló con MARCA. Hizo un balance reflexivo de lo que había sido su primera temporada como jugador del Real Madrid. En casi una

hora de conversación, el jugador alemán reconoce que no hizo una buena primera vuelta, que le costó acomodarse al equipo..., pero que, globalmente, está satisfecho de su trabajo. Por otra parte, asegura que «La

próxima temporada jugaré con las ideas mucho más claras» y hace público un secreto para cortar de raíz tanto comentario sobre su posible traspaso: «No me preocupan los rumores.»

(Págs. 2 y 3)

TOUR-89

ETAPA 4

El Tour entró en Francia y ganó Nijdam 204

Los españoles aguantaron el pavés belga



Los ciclistas españoles superaron ayer la difícil prueba del pavés. El Tour-89 entró ya en tierras francesas, tras su periplo por Luxemburgo y Bélgica, con triunfo del holandés Nijdam. A cinco segundos del vencedor entró el gran pelotón, cuyo sprint lo

ganó Miguel Indurain (Reynolds) que quiere demostrar algo en esta ronda. La general permanece inalterable, con el portugués Acacio da Silva como líder, seguido del danés Lilholt y Laurent Fignon en cuarto lugar, a 2.37, presto a tomar el relevo.

MOVIDA EN EL ESPAÑOL

Andoin, Longhi y «Pichi», a la calle

Cesados los técnicos

Comenzó la criba en el Español. Tras la dimisión de Antonio Baró, ayer llegaron los primeros ceses. Los

tres técnicos se han ido a la calle. García Andoin, Raul Longhi y «Pichi» Alonso no seguirán en el club.

7 Metodologia

7.1 Metodoak

Doktore-tesi honetan, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabiliko dira. Bi metodologia nagusi hauen baitan hainbat metodo, teknika eta teoria ezagutzen dira, eta sailkapenak eta zerrendak egitean desberdintasunak egoten dira autoreen artean (Anderson J. A., 1987) (Hsia, *Mass Communications Research Methods: A Step by Step Approach*, 1988) (Krippendorff, 1980) (Severin & Tankard, 1979) (Wimmer & Dominick, 2000).

Kazetaritzaren eta komunikazioaren ikerkuntzara etorriz, metodo enpiriko/kuantitatiboak, metodo kualitatibo/interpretatiboak eta, azkenik, metodo mistoak aurki daitezke (Zabaleta Urkiola, 1997).

Metodo enpiriko/kuantitatiboan eduki-analisia, laborategi-esperimentuak eta inkestak dira ezagunenak. Metodo kualitatibo/interpretatiboan ere beste hainbat eredu daude: errotutako teoria edo *Grounded Theory* (Craig & Tracy, 1995) edukiaren analisi interpretatiboa, talde-eztabaida, eta kanpoko esperimentuaren metodoa⁷³. Azkenik, metodo mistoan (alegia, modu kuantitatiboan nahiz kualitatiboan erabil daitekeela) jar ditzakegu panela eta kasu-ikerketa, batez ere.

Ikerkuntza honetan, lehenik, Tourra-ren eboluzioaren analisi eta interpretazio historikoa egingo da; bigarren, lasterketaren inguruan hiru herrialdetako (Euskal Herria, Frantzia, Espainia) egunkariak egin duten kazetaritza ekoizpena (gai-agenda, protagonistak, kazetaritza generoak, egilea) aztertuko da; eta hirugarren, informazio eta iritzi edukietan soslaitutako naziotasuna eta naziotasunaren ezaugarriak eta interpretazio-markoak edo framing-ak.

Helburu horietarako erabiliko diren metodoak hauek dira: kasu-ikerketa, analisi historiko kualitatiboa egiteko; eduki-analisia, kazetaritza ekoizpena eta gai-agenda

⁷³ Beste sailkapen bat izan daiteke: fenomenologikoa, etnografikoa, teoria errotua, kasu-ikerketa, metodo historikoa eta metodo narratiboa. Baina azken hiruek antzekotasun handiak dituzte.

aztertzeko; eta framing-a edo enkoadratzea, naziotasunaren interpretazio-markoak ikertzeko. Azken bi metodo hauetan datu kuantitatiboak izango dira oinarri.

Jarraian datozen azpiataletan, hurrengo gaiak landuko dira:

- Hiru metodo horien ezaugarriak.
- Unibertsoak.
- Laginak.
- Unitateak.
- Fidagarritasun froga.
- Eduki analisirako kategoria-sistemak.
- Interpretazio-markorako kategoria sistemak.

7.1.1 Kasu-azterketa

Ikerkuntzaren metodologiaren aldetik, kasu-azterketa da edozein gai, fenomeno edo gertakizun konkreturen azterketa eta interpretazioa egitea, eta horren inguruan narrazio interpretatzaile bat eraikitzea, datu eta prozedura kualitatiboak eta/edo kuantitatiboak erabiliz. Kasu-azterketa mota asko eta desberdin daude eta hainbat ezaugarri aitortzen zaizkie (Vidales, 2001, pp. 133-142):

- **Osootasuna:** kasu-azterketak osootasun holistikoa bilatzen du, hau da, zatien batuketa soila baino gehiago izatea.
- **Berezitasuna:** kasu-azterketak garbi islatzen ditu azterketa-mota hori antzeko azterketetatik desberdintzen duten berezitasunak, alegia, idiosinkrasia eta zehaztapen lokalak, kasuari lotuak.
- **Errealitatea:** kasu-azterketa ez da mugatzen errealitateari buruzko informazioa ematera, kontuan hartzen baititu errealitate horren osagarri diren arazoak, paradoxak, gatazka-egoerak eta egiazko gertaerak eta hortik eraikitzen du narrazio interpretatzaile bat.

Aurreko ezaugarri horiek oinarrizkoak dira metodo historiko edo/eta narratiboetan. Beste metodo batzuetan –fenomenologiko, etnografiko eta/edo obserbazio edo so-egitekoetan batez ere– beste ezaugarri batzuk ere kontuan hartzen dira: parte-hartzea, negoziazioa, konfidentziasuna, eta eskuragarritasuna.

Kasu-ikerketaren inguruan

Tesi honetan, kasu-ikerketaren metodoaren bidez, ikerketaren historiko eta interpretatzailea egin da (Hsia, *Mass Communications Research Methods: A Step by Step Approach*, 1988), iturri lehendarrak eta bigarrendarrak erabiliz, Tourra-ren bilakaera eta aldaketa historiko nagusiak aztertzeko eta, aldi berean, beharrezko testuingurua ezartzeko ondoren etorriko diren kazetaritzaren eta naziotasunaren inguruko iker-alarrei.

7.1.2 Eduki analisia

Eduki-analisia da seguraski masa-komunikazioaren ikerkuntzan gehien erabiltzen den metodoa kazetaritza eta komunikazioko hainbat teoria ikertzeko, horien artean egonik agenda-ezarpena. Komunikabideen mezuak aztertzea da beraren zeregin nagusia eta erabilera desberdin anitz ditu. «Ikerketa-teknika bat da, komunikazioaren ageriko edukiaren deskripzio objektibo, sistematiko eta kuantitatiborako» (Berelson, 1984, or. 18) (Noguero, 2002, or. 168). Beraz, edozein komunikazio eduki azter daiteke eta Laswell ikerleak ezarri zituen metodoaren urrats eta ezaugarriak (Farr, Hacker, & Kazee, 2006, orr. 579-587).

Baina ikerkuntza garatzen joan zen neurrian, metodoaren erabilerak eta definizioa eraldatzen eta zabaltzen joan ziren. Finean ageriko edukien deskripzioaz gain, ageriko eta baita ezkutuko edukien inferentzia ere egiten du eta mezuaren/edukiaren analisiaren emaitzak horren arabekoak dira, hau da, inferentziarik gabe ala emaitzak abstrakzio altuko inferentzia eta interpretazioetarako oinarria izatea.

Eduki-analisiarekin loturik, kontzeptu hauek izan behar dira kontuan: komunikazioa, ageriko edukia, deskripzioa eta objektiboa izatea.

- **Eduki-mota:** eduki-analisia edozein komunikazio-mota aztertzeko erabil daiteke, alegia, prentsa, irrati, telebista, zine, eta komunikazio pertsonaletako edukiak, besteak beste.
- **Ageriko edukia:** komunikazioaren ageriko mezuak bakarrik ikertzen ditu metodo honek, ageriko mezuan dauden edukiak. Baina agerikoa izenlagunak ez du esan nahi presentzia/ausentzia dikotomiarekin ezin daitekeela joka. Ageriko edukiaren

ikerketaren bidez presentzia adierazten da, baina baita eduki horretan dauden gabeziak edo ausentziak..

- **Deskripzioa:** deskripzio hitzak mugak ditu bere baitan, zerbait deskribatzeak nolakoa den adieraztea esan nahi baitu, baina deskripzioez gain inferentziak ere egin egiten dira.
- **Objektiboa:** eduki-analisiak objektiboa izan behar duela esaten denean, ikerlearen partzialtasuna, berariaz edo prestakuntza egoki ezaz ager daitekeen partzialtasuna ez litzatekela sartu behar adierazi nahi da. Objektiboa izanik, ikerketaren emaitzak berdintsuak izango dira ikerketa errepikatzerakoan. Hori bermatze aldera, kodetzailen arteko fidagarritasun mailaren test edo neurketa erabiltzen da.
- **Sistematikoa:** eduki-analisia sistematikoa izateko, ikertu behar den edukia arau eta kategoria zehatz batzuen bidez ikertu behar da. Arau hauek zehazki, zuzentasun eta osotasunez, jakinaren gainean, kasu eta izari guztietan berdin erabilia, eta modu esplizituan, aldezturik garbi adierazita, egon behar dute ezarrita. Kodifikazioa egiten denean, uniformetasuna erabili behar da, bai kodifikazioa egiteko prozeduretan, eta bai kodegilea lan egiteko baldintzetan -denbora eta espazioa-.
- **Kuantitatiboa:** eduki-analisiaren metodoak ageriko mezuen kuantifikazio, neurketa eta sailkapena egin behar ditu. Maiztasunaren kontzeptua oso garrantzitsua da metodoa honetan. Kodifikazioa egin behar da kuantifikazioa egin ahal izateko. Ondoren, emaitza kuantitatiboak lortu ahal dira eta tresna estatistikoak erabili, interpretazio zehatz eta esanguratsuak lortzeko.

Eduki-analisiaren metodo zientifikoa XX. mendeko fruitua da, baina aurretik ere baziren mezua aztertzeke beste metodo para-zientifiko batzuk ere. Esaterako hermeneutika (mezuren esanahi denotatuak eta konnotatiboak) testu sakratu edo misterioitsuak interpretatzeko artea, so egite zorrotz eta intuizio sakonean oinarritutako teknika; erretorika (mezuren estilo eta baliabide formalak) pertsuasioa lortzeko diskurtsoaren estilo- eta argudio-teknikak aztertu eta erabiltzeko artea; eta logika (mezuren barneko arrazoi-hezurdura, edo barne-egitura) diskurtsoaren analisi logikoa egitea edo, arrazoibide formalaren arauak erabiliz, diskurtsoaren egitura aztertzea.

Honela, bada, eduki-analisiak arestian aipaturiko hiru metodo horien eragina jaso du, eta horien ondorio metodologiko bat dela ere esan liteke, jakina, metodo zientifikoaren ezaugarriak bereganaturik. Eduki-analisiaren metodoa Estatu Batuetan garatu zen, batez ere, XX. mende hasieratik eta indar handia hartu zuen II. Mundu Gerran (Zabaleta, 1997).

Eduki-analisiaren inguruan

Tesi honetan, eduki-analisiaren metodoaren bidez, kazetaritzaren alderdiak (edukien kokapena, eduki mota eta kazetaritza-generoa, egile mota eta inplikazioa, eta protagonista, besteak beste) aztertuko dira. Beraz, egunkariak Tourraren inguruan ezartzen duten gai-agenda (*agenda-setting*) ezagutuko da, bere protagonisten ezaugarriekin.

7.1.3 Interpretazio-markoen metodoa edo framing-a

"Framing" hitza "*to frame*" aditzaren gerundio forma da eta jarduera adierazten du. Hiztegi ezberdinen arabera (Morris, Euskalterm, The Oxford English Dictionary) euskarara hainbat modutara itzul daiteke: markoan sartzea edo markoa jartzea, enkoadratzea, besteak beste. Beraz, gizarte zientzietako ikerkuntzan aplikatzen denean, ikergai edo eduki baten baitan interpretaziorako "frame-ak" (markoak, koadroak, enkoadreak edo enkoadraketak) identifikatzea eta interpretazio-markoak eraikitzea da framing egitea.

Kontzeptua Erving Goffman-i dagokio (1974). Enkoadraketaren edo interpretazio-marko teorikoaren ikerkuntzak oinarri teoriko zabala du, eta abstrakzio maila altua. Gizarte-zientziek diotenez, framing izeneko kontzeptu zein teorien multzoa da, gizabanakoek, kolektiboek edota gizarteek errealitatearekiko duten antolamendua, pertzepzioa eta komunikazioa azaltzeko.

Robert Entman-en aburuz, (1993, or. 52) framing egitea (interpretazio-marko bat eraikitzea), pertzibituko errealitatearen alderdi batzuk hautatzea da, eta berauek nabarmenagoak egitea komunikazio-testu batean; horrela egiten da, arazo baten

definizio-mota bat, interpretazio kausal bat, ebaluaketa moral bat, eta/edo tratamendu-gomendio bat sustatzeko⁷⁴.

Stephan Reese ikertzailea ados dago ideia horrekin: informazio bat enkoadratzeak gaiaren zati batzuk nabarmentzea dakar; beraz, gaia fokatzeko hautaketa bat egin behar da. Fokatzeko horrek perspektiba zehatz bat ematen dio subjektuari eta gai edo ekitaldi bat perspektiba konkretu batetik begiratzera gonbidatzen du. Autoreak horrela definitzen ditu frame-ak edo markoak: “Sozialki partekatutako oinarri antolatzaileak dira, denboran iraunkorrak eta era sinbolikoan lan egiten dute mundu soziala modu adierazgarrian antolatzeko”⁷⁵ (Reese, 2001, or. 11).

Izan ere, Reesek esaten du enkoadraketaz ari garenean azken finean kontutan hartzen direla bai hedabideak, bai hedabide horien profesionalak eta baita audientziak ere.

George Lakoff-entzat (2007) “mundua ikusten laguntzen gaituzten egitura mentalak dira markoak”⁷⁶, horrela “hizkuntzak eraikitzen ditu markoak, hitz guztiak marko kontzeptualen bidez definitzen baitira”⁷⁷. Beraz, garrantzitsua da hitz gakoak edo sintagma adierazkorak identifikatzea eta aztertzea markoaren ikerketa egitean.

Entman-ek lau neurri bereizi zituen interpretazio-markoetan:

- **Garrantzia:** gai bakoitzari ematen zaion garrantzi edo nabarmentzea.
- **Agentzia:** hau da, nork egiten duen.
- **Kategorizazioa** edo epaiketa moralak.
- **Orokortzea** (generalizazioa) edo nola lotzen den beste gai orokorrekin.

Iyengar eta Simonek (1993) bi motatako markoak aurkeztu dituzte: tematiko eta episodikoa edo gertaerazkoa. Episodikoa gertaera-kasu partikularretan edo ekitaldi konkretuetan oinarritzen dira (langabetu bat, abioi baten istripua, hilketa bat).

⁷⁴ “To frame is to select some aspects of a perceived reality and make them more salient in a communicating text, in such a way as to promote a particular problem definition, causal interpretation, moral evaluation, and/or treatment recommendation.”

⁷⁵ “Frames are organizing principles that are socially shared and persistent overtime, that work symbolically to meaningfully structure the social world.”

⁷⁶ “Los marcos son estructuras mentales que conforman nuestro modo de ver el mundo.”

⁷⁷ “Los marcos se construyen a través de lenguaje, todas las palabras se definen en relación a marcos conceptuales.”

Hauetan informazio-gaiak ez dauka testuingururik. Enkoadraketa honetan erantzukizuna indibiduala da. Enkoadratze tematiko edo gaikoetan informazio-gai nagusiek joera orokorrak dituzte, abstrakzio maila altuagoa daukate, inpersonalak dira eta politika publikoetan oinarritutako gaiak jorratzen dituzte; hitz batean, analitikoagoak dira.

Semetko eta Valkenburg-ek (2000) askotan aplikatu diren bost marko proposatu zituzten: gatazka-markoa, pertsonetikiko interesaren markoa, ekonomiaren markoa, moraltasunaren markoa eta erantzukizuna egoztearen markoa.

Framing edo interpretazio-markoen inguruan

Tesi honetako gaia –Tourra, kazetaritza eta nazio-identitatea–, lehen hurbilpen batean, framing episodiko edo gertaerazko kategorian jar liteke, gertakizun tenporal eta espazial konkretu bat delako. Baina sakonago begiratu, igar daiteke frame tematikoaren ezaugarriak ere badituela neurri handi batean; alegia, Tourra urtero korritzean eta urte askotako historia izatean, denbora mugatuaren eta gertakizun indibidual edo bakanaren parametroak zeharkatu eta/edo gainditu egiten dituela; eta, bestetik, bere izaera eta garrantzia kirolaren alorretik harantzago joan badoala eta eragin sozial, kultural eta, baita seguraski ere, politikoa ere baduela. Horregatik, hain zuzen ere, ikertu nahi da hemen Tourra-ren erlazioa naziotasunarekin, nazio-identitatearekin, kazetaritzaren ikuspegitik.

Beraz, ikerketa honetan, naziotasunarekin eta/edo nazio-identitatearekin erlazioatutako hurrengo enkoadre edo interpretazio-marko hauek erabiliko dira, bakoitza bere kategoria edo parametroekin:

- **Naziotasunaren sinbologia/ikurra:** nazio-identitatearen osagai garrantzitsu bat denez nazio-ikurra, esparru honetan ikurren presentzia kuantitatiboa, ikur mota (bandera, armarria, maillota, hizkuntza) eta ikurraren leinua erabiliko dira neurri modura.
- **Naziotasunaren leinua:** kazetaritza-edukietan nazio-identitatearen presentziaren dimentsioa neurtzea garrantzitsua da herrialde desberdinetako prentsaren konparaketa egiteko.

- **Gatazka:** parametro honetan neurtzen da, nazio-identitate baten presentzia duten informazioetan edo iritzietan, zer nolako jarrera (erasokorra, adiskidetsua) erakusten duten *beste nazio-identitateekiko*.
- **Aurkakotasuna:** dimentsio honetan, kazetaritza-erakundeek zein nazio-identitatearekiko aldekotasuna edo aurkakotasuna duten aztertzen da eta hainbat kategoria egon daitezke (nazio propioaren alde/aurka, beste nazio baten alde/aurka).
- **Positibotasuna:** neurri honetan, eduki periodistikoek nazio-identitatea modu positiboan edo negatiboan enkoadratzen duten aztertzen da.

Agenda-ezarpen eta framing-aren inguruan

Komunikazioaren ikerkuntzaren eta metodologiaren alor zabalean, *framing* teoria beste teoria ezagun batzuekin ere erlazionatzen da. Ikertzaileek, ikuspegi soziopolitikotik begiratuta, eta kazetaritza-informazioak audientzian dituen efektu kognitiboak dagokionez, hiru oinarritzako metodo aipatzen dituzte: (1) "*Audience agenda-setting*" izeneko eredua (McCombs & Shaw, 1972), agenda finkatzeari buruzkoa; (2) "*Priming*" izeneko eredua, hau da, audientziak medioek eskainitako gaietatik bakar batzuk aukeratzen dituela (Iyengar, 1985, orr. 117-140); eta (3), hemen jorratu den "*framing*" izenekoak.

Batzuen ustez *agenda-setting* metodoak eta *framing* izenekoak fenomeno bertsuak deskribatzen dituzte. Aldiz, McCombs eta Shaw ikertzaile ezagunek diote *priming* eta *framing* teoriak "audience agenda-setting" eredu nagusiaren luzapen naturalak direla edota "bigarren mailako agenda-setting" modura definitu dute batzuek (E Lopez-Escobar, 1998).

Beste ikertzaile batzuk, ordea, ez daude ados batze edo fusio horrekin, uste dutelako framing eredua zabalegia dela, eta literatura zientifikoan erabilera eta definizio ugariegi dituela (Scheufele, 1999). Ildo beretik, Van Gorp-ek, framing ikertzen du eraikuntza-hurbilketatik eta ez dago ados bigarren mailako agenda-settingekin parekatzeko orduan: "Framing, agenda-setting eta priming-ek laguntzen dute, bakoitzak bere eremutik, hedabideak eta euren eragina ulertarazteko. Framing

agenda-setting hedatzea dela esatea ez dator bat framing-en jatorri soziologikoekin”⁷⁸ (Van Gorp, 2007, or. 70).

Arestian aipaturiko egileak dio, kultur- eta eraikuntza-hurbilketa baten ikuspegitik, *framing*-ak berezitasunak dituela *agenda-setting* eta *priming*-ekiko. Eraikuntza-angelutik ikusita, elkarreragiketaren prozesua azpimarratzen da eta horren bitartez gizarte errealitatea sortzen da. Aitzitik, *agenda-setting* edo agenda-ezarpenaren teoriak neurtzen du gai batek audientziarengan izan dezakeen garrantzia, gai horri hedabideek ematen dioten adierazgarritasuna kontuan hartuta. Azkenik, *priming*-ek erakusten digu azpimarratzen diren gaien eragina jendeak aukeratzean edo boza ematean.

Agian, efektu kognitiboen hiru ereduen inguruko eztabaida teorikoa argitzeko (*agenda-setting*, *priming* eta *framing*), bi kontzeptu bereiztea gomendagarria suerta liteke (Kim, 2002, orr. 7-25):

- **Aplikagarritasuna:** jendeak etengabe erabiltzen ditu interpretazio baliabide eta eskemak errealitateko gertakariak ordenatu eta esanahia bilatzeko. Pertsona batek komunikabide batetik informazio bat jaso ondoren izan ohi duen erreakzioaren zati bat aldeztu aurretik duen interpretazio-eskemaren arabera izan ohi da.
- **Irisgarritasuna:** gai bati buruz erabakia hartzean pertsona baten memorian dauden elementuen kopurua eta gradua esan nahi du. Beraz, irisgarritasunak, funtsean, esan nahi du pertsona bat gai batzuekin zer gradutaraino eta azken aldiz noiz jarri den kontaktuan. Beraz, komunikabide batek eragin handia izan dezake audientziaren memorizazioan, gai batzuei garrantzi berezia emanaz.

7.2 Unibertsoak

7.2.1 Hedabideen unibertsoa

Tesi honetan frantziar eta espainiar Estatuetan argitaratu diren edo egun argitaratzen diren egunkariak ikertzen dira, bai informazio orokorrekoak eta baita kirol

⁷⁸ “El framing, la agenda setting y el priming contribuyen, cada uno desde su propio campo, a nuestra comprensión de los medios y su impacto. El argumento de que el framing es una extensión de la agenda setting está en contradicción con los orígenes sociológicos del framing.”

informazioari buruzkoak ere. Halaber, Euskal Herriko egunkariak ere sartzen dira hedabideen unibertso honetan.

Maiztasunari dagokionez: egunkariak egunero edo astean sei aldiz kaleratzen diren argitalpenak kontsidera daitezke. Halaz ere, kontuan izan beharko genuke XX. mendearen hasieran egunkarien maiztasuna ez zela joan den mendearen amaierakoa edo egungoa bezain erregularra.

7.2.2 Edukien unibertsoa

Edukien unibertsoari dagokionez, egunkari osoko edukiak hartu dira kontuan, bai paperan zein balizko edizio digitaletan. Alegia, egunkarietako orrialde guztiak begiratu dira Tourrarekin zerikusia zuten albisteak edo artikuluak topatzeko eta corpus modura kontsideratzeko. Hortik, eduki laginak hautatu dira, irizpide metodologikoen arabera.

Denboraren unibertsoa 1903-2013 urte artekoa da eta Tourreko lehen ehun edizioak ikertzen ditu.

Denboraren unibertsoa 100 urtekoa izan arren, ikerketa honetako egunkariak ez dute ehun urteko bizitza eta horregatik adieraziko dira jarraian egunkari bakoitzaren jaiotza urtea eta, dagokionean, amaiera urtea.

7.3 Laginak

7.3.1 Hedabideen lagina

Ikerkuntza kan honetan aztertutako hedabideak hautatzeko erabili diren irizpideak honako hauek izan dira nagusiki: lurraldetasuna, egunkari mota, maiztasuna, eta Tourra-ren garai desberdinak.

- **Lurraldetasuna:** Nazioaz hitz egitean, ezinbestekoa da lurraldetasunaz hitz egitea, hedabideen kokapenaren arabera ikuspegiak ezberdinak izateko aukerak handitzen doaz eta.
- **Espainia:** espainiar Estatu osoan argitaratu edo argitaratzen diren egunkariak, gutxienez paperezko edizioan.
- **Frantzia:** frantziar Estatu osoan argitaratu edo argitaratzen diren egunkariak, gutxienez paperezko edizioan.

- Euskal Herria: Euskal Herriko gaur egungo hiru eremu administratiboetan argitaratu edo argitaratzen diren egunkariak, gutxienez paperezko edizioan.
- **Egunkari mota:** ezaugarri honi dagokionez, bi egunkari mota hautatu dira, kirolekoak eta informazio orokorrekoak edo generalistak. Honela eginez, bi prentsa mota nagusienak jasotzen dira.
- **Maiztasuna:** maiztasunari dagokionez, egunero argitaratu edo argitaratzen diren egunkariak dira. Atal honetan kontuan hartzekoa da pasa den mendearen hasieran, hau da XX. mendean, egunkariak ez zirela egunero argitaratzen, astean behin, astean bitan edo hirutan baizik.
- **Tourra-ren garai desberdinak:** mende bateko historian, hainbat irizpideren arabera hiru urtealdi aukeratu direnez⁷⁹, hiru garaietako egunkariak hartu dira laginerako. Laginerako aukeratu ditugun egunkariak, erreferentziakoak beren esparruan, honako hauek dira, beraien jaiotze eta amaiera/itxiera datak parentesian dutela:
 - L'Auto (1900-1944)
 - ABC -Madril- (1903)
 - Mundo Deportivo -Bartzelona- (1906)
 - Marca (1938)
 - Le Monde (1944)
 - L'Equipe (1946) -L'Auto egunkariaren jarraipena kontsidera daiteke-
 - El País (1976)
 - Egin (1977-1998)
 - Gara (1999) -Egin egunkariaren jarraipena kontsidera daiteke-
 - Euskaldunon Egunkaria (1990-2003)
 - Berria (2003) -Euskaldunon Egunkariaren jarraipena kontsidera daiteke-

⁷⁹ Tourra-ren hastapenak, II. Mundu Gerra aurreko edizioak eta ostekoak, eta Modernitatearen aroa 2013ra arte.

7.3.2 Hedabideen lagina lurraldeka

7.3.2.1 EHko egunkarien ezaugarriak

Ikerketaren denbora-laginak mende bat gainditzeak (hiru urtealdi aukeratu dira Tourra-ren ezaugarriak eta naziotasuna kontuan hartuta) Euskal Herriko prentsaren eboluzioaz jabetzeko aukera ere eskaini du. Izan ere, denboran zehar egunkariak ez baitute zaletasun edo presentzia berbera izan. Aro modernoaren etorrerarekin batera eta, batik bat, frankismoaren amaiera teknikoaren eskutik egunkari euskaltzaleak agertu ziren (Egin, Deia, eta geroago Euskaldunon Egunkaria, besteak beste).

Nazio-identitatea tesiaren ardatzetako bat denez, eta ezinbestekoa izanik hiru nazio leinuak ordezkaturik izatea prentsaren aldetik, Euskal Herria herrialde modura hartzen duten egunkariak hautatu dira euskal prentsa laginerako: Egin, Gara, Euskaldunon Egunkaria, Berria.

Egin (1977-1998)

Egin egunkaria 1977ko irailaren 29an bere lehenengo zenbakia argitara eman zuen, urtebete lehenago ORAIN S.A. enpresa fundatzailea izanik.

Proiektuaren hasierako finantzaketa sektore askoren ekarpen zuzenen bitartez heldu zen: herriz herri jasotakoak, kreditu pertsonalak, etab. Guztira 30.000 pertsona inguruk parte hartu zuten prozesu horretan. Hasieratik bere burua abertzale eta ezkertiarzat jo zuen Egin-ek. Edukiak gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu zituen.

1998ko uztailaren 15ean Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak Egin ixtea agindu zuen. Javier Salutregi zuzendaria eta Administrazio Kontseiluko hainbat kide espetxeratuak izan ziren eta 2007an hamahiru pertsonak kartzela-zigorak jaso zituzten. 2009ko maiatzean Espainiako Auzitegi Gorenak bertan behar behera utzi zuen Egin ixteko agindua. (GARA, 2019)

Euskaldunon Egunkaria (1990-2003)

Euskaldunon Egunkariak 1990eko abenduaren 6an bere lehenengo alea argitaratu zuen. Egin-en kasuan bezalaxe gizarte-sektore ezberdinen ekarpenez baliatu zen kioskoetan egoteko.

Egunkaria Sortzen batzordeak bultzatutako proiektua zen eta 90.000 pertsona inguruk parte hartu zuten diru-bilketan. Ez zegoen egitasmo politiko zehatz batekin lerrokaturik eta bere burua definitzen zuten adjektibo ardatzak hauek ziren: nazionala, euskaltzalea, zabala, irekia, ekonomikoki eta politikoki independentea eta berria.

2003ko otsailaren 20an Juan del Olmo Auzitegi Nazionaleko epaileak agindua eman zuen Euskaldunon Egunkaria ixteko eta hamar lagun atxilotu zituen. Horietako batzuek torturak salatu zituzten. 2010ean ezagutu zen Euskaldunon Egunkaria ixteko prozesua oinarririk gabeko izan zela.

Gara (1999)

Egin itxi eta hurrengo egunean Egin-eko langileek *Euskadi Información* egunkaria argitaratu zuten eta kalean mantendu zen 1999ko urtarrilaren 30ean Gara argitaratu arte, Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartearen eskutik (EKHE).

Gara sortzeko kanpainan 10.000 akziodun bildu ziren.

Egin-en jarraipena kontsidera daiteke, eta ezker abertzalearekin lerrokatuta, bere jarduera garai berrietara egokiturik: ezkertiarra, abertzalea eta aurrerakoia. Gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen ditu bere orrialdeak.

Berria (2003)

Egin-en itxieraren ostean gertatu zen bezala, Euskaldunon Egunkariaren itxieraren biharamunean, 2003ko otsailaren 21ean, *Egunero* argitaratu zuten Euskaldunon Egunkariaren langileek eta urte bereko ekainaren 21ean *Berria* egunkariak argia ikusi zuen.

Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT) zen enpresa bultzatzaile eta ia 25.000 akziodun lortu zituen.

Euskaraz hutsez argitaraturik ez da politikoki lerrokatzen, baina euskaltzale eremuan koka daiteke, eragin instituzionaletik at. Berria Euskaldunon Egunkariaren jarraipena kontsidera daiteke.

7.3.2.2 *Frantziako egunkarien ezaugarriak*

Frantziako prentsak berezitasun bat dauka. Aukeratutako hiru egunkarien artean, bi izan dira Tourra-ren antolatzaileak, L'Auto bere sorreran eta L'Equipe II Mundu Gerra ostean.

Lehen desagerturik dago jada, baina ezinbestekoa da lasterketaren lehen urratsak ezagutzeko eta aztertzeko. Bigarrenak dagoeneko abandonatu ditu antolaketa lanak, baina bere eragina ukazina da, Tourrean bertan eta baita kirol kazetaritzan ere.

Horiekin batera Le Monde aukeratu da. Egunkari generalista, behar bada ospetsuena frantses prentsari dagokionez.

L'Auto (1900-1944)

L'Auto frantses kirol egunkaria L'Auto-Vélo izendapenarekin sortu zen eta bere lehen alea 1900eko abuztuaren 16an argitaratu zen. Hiru urte geroago Frantziako Tourra-ren antolaketaz arduratu zen.

Sortzez kirol egunkari soila izan nahi bazuen ere, L'Auto-k frantziar-zaletasuna bultzatu zuen Bigarren Mundu Gerra heldu zen arte. Ostean, aldiz, okupatzaileen aldeko jarrera erakutsi zuen eta horrek Tourra-ren eskubideen galera ekarri zion eta, jarraian, behin betiko itxiera.

Henri Desgrange, egunkariaren burua eta Tourra-ren sortzailea izateaz gain, lasterketaren zuzendaria izan zen ia azken unera arte. L'Auto-k bere salmenta kopururik handiena 1933an lortu zuen, uztailaren 24an, 833.000 ale inguru salduta.

L'Equipe (1946)

L'Equipe ere kirol egunkaria da. Ezin da esan L'Autoren ordezkia denik, baina bere tokia hartu zuen II Mundu Gerraren ostean Frantziako Tourra antolatzeko eta zuzentzeko Le Petit Parisien egunkariarekin batera. 1946ko otsailaren 28an argitaratu zuen bere lehen alea.

L'Auto Frantziako Tourra-ren sortzailea izan bazen, L'Equipe-ren kasuan egunkari horrek futbol klub txapeldunen Europako Koparen sortzailea eta bultzatzailea izan zen.

Interneten dago 2000. urteaz geroztik eta 2015ean birmoldaketa bati ekin zion, tabloide itxura hartuz eta bere goiburutik ohiko leloa, “Le quotidien du sport et de l'automobile”, desagerraraziz.

Le Monde (1944)

Le Monde da Frantziako egunkari generalistarik salduena. Bere lehen argitalpena 1944ko abenduaren 19an egin zuen. Ideologikoki zentro eta zentro-ekzerrera lerraturik dago. Interneten dago 1995. urteaz geroztik eta harpidedun digitalek paperezkoak bikoizten dituzte. Le Monde egunkarian umore grafikoak presentzia handia du bineta lehen orrialdean agertzen delarik.

7.3.2.3 *Espainiako egunkarien ezaugarriak*

Espainiako prentsari dagokionez, kirol egunkari bi aukeratu dira, Marca eta Mundo Deportivo, lehena Madrilen sortua eta bigarrena Bartzelonan.

Aldi berean egunkari generalista bi hautatu dira, ABC, egun Vocento taldeko egunkari bat, erregezalea eta eskuindarra eta El Pais, sozialdemokraziaren inguruan, aurrerakoien artean koka daitekeena.

Gauzak horrela, ikerketaren esparru guztiak beteko lirateke.

ABC (1903)

ABC Torcuato Luca de Tenak sortu zuen eta 1903ko urtarrilaren 1ean argitaratu zuen bere lehen zenbakia, hau da, Tourra hasi zen urtean bertan. Hasieran astekaria zen, gero astean bitan argitaratzen zen eta 1904an etenaldi bat izan ondoren 1905eko ekainaren 1az geroztik argitaratu zen.

Hamaika edizio ditu espainiar Estatuan, ospetsuena Sevillakoa izanik. Hedapenaren azken datuek salmentak 250.000 ale inguruan kokatzen dute.

Marca (1938)

Marca kirol egunkaria Manuel Fernández-Cuestak fundatu zuen 1938ko abenduaren 21ean Donostian eta hasiera batean astekaria zen –“Semnario gráfico de los deportes”- 1942ko azaroaren 25ean egunkaria izatera pasa zen arte.

Data bi horien tartean, espainiar Gerra amaitu zenean, egoitza Donostiatik Madrilera aldatu zuen.

Denboraren poderioz ia beti izan da egunkaririk salduena. Diktaduran "Movimiento"-ren egunkarien artean egon zen eta ostean MCSE-ren (Estatuko Gizarte-Komunikazioaren Medioak) partaide izatera pasa zen 1984ra arte.

Mundo Deportivo (1906)

Jaime Grauk, Godo taldeko partaideak, sortu zuen Mundo Deportivo kirol egunkaria Bartzelonan 1906. urtean. Astekari gisa, 1906ko otsailaren 1ean argitaratu zuen bere lehen zenbakia eta 1929. urtean egunkari formatua hartu zuen.

Italiako La Gazzetta dello Sport atzetik, Europako kirol egunkaririk beteranoena da eta antzintasun duena espainiar Estatuan.

Mundo Deportivo-ren irakurlegoaren zatirik handiena Katalunian dago. 2009an hemeroteka on-line ireki zuen, bere argitalpen guztiak partekatuz.

El País (1976)

Egunkari generalista hau 1976an jaio zen eta bere lehen argitalpena urte hartako maiatzaren 4an egin zuen. Etiketa ideologikoari dagokionez, aurrerakoitzat har daiteke Madrileko egunkari hori. Gaztelaniaz idatzita, edizio autonomiko batzuetan beste hizkuntzaren bat erabiltzen du, Katalunian esate baterako.

Interneteko edizioa da gazteleraz munduan zehar kontsulta gehien dituen egunkari digitala eta paperan 150.000 ale inguru botatzen ditu egunero. Ez da ia inoiz aipatua izan kirol informazioari berebiziko garrantzi emateagatik.

7.3.3 Urte eta urtealdi lagina

Aurreko sekzioan aurreratu denez (Ikus "Hedabideen lagina"), hiru urtealdi bereizi dira ikerketa honetan, hainbat arrazoiengatik: lasterketaren beraren bilakaera, egoera soziopolitiko eta gerra, eta kirolaren aldaketa, nagusiki. Zehazkiago, epe bakoitzeko hasiera eta bukaera urteak hautatzeko, irizpide nagusia izan da, urte horiek mugarri izatea lasterketaren historian, esangura-arrazoiren batengatik; adibidez, lehen aldiz nazio/herrialdeka egin izana, edo dopinagatik urte berezia izatea.

Guztira 20 urte ikertzen dira. Kontuan izanik 1903-2013 tartean 110 urte igaro direla eta 100 Tour edizio burutu direla, ikertutako urte kopuruak guztiaren %20 hartzen du.

Esan den modura, Tourra-ren historia hiru epetan banatu da ikerketa honetarako:

- **1903-1914 urtealdia:** Lehen Mundu Gerraren aurreko etapa, irabazle batzuk gerra horretan bertan hil ziren. Tourra-ren hastapenak Frantzian ospatu ziren Aro Modernoko Joko Olinpikoen bigarren edizioaren ostean. Kirol ekitaldi askotan zerikusia zuten hedabideen liskarren inguruan sortutako ideien lehen gorabeherak eta ardatzak. Kirola baino haratago, nazio bat batzeko tresna kontsidera daiteke Tourra.
- **1930-1970 urtealdia:** Bigarren Mundu Gerraren aurrekoak eta ondorengo Tourra-ren berpizkundea. L'Equipe egunkariak L'Autoren erreleboa hartzen du antolakuntzan. Nazio taldeen agerpen antolatua ezagutzen da. Tourrak markak alboratzen ditu, nazioarteko kirola lehiaketan dinamika nazionala bereganatuz. Frantziar publikoa bere koloretan du isla. Hedabideen arreta handitzen doa kirol erronkak handitzen joaten diren heinean. Kontsumismoa kirolean sartzen da erraldoitasunaren eskutik publizitate-karabanaren agerpenarekin. Tourra sari guztien kudeatzaile bihurtzen da. Dopinaren agerpen nabaria.
- **1978-2013 urtealdia:** Modernitatearen aroa. Tourra gertaera globala bihurtzen da eta globala den heinean Frantziako mugak gaintzen ditu, baita geografikoak ere. Europar kutsuko lasterketa da, baina Europatik kanpo arreta pizten duena. Tourra goitik behera aldatu nahi dute: Ibilbidean Alpeak, Pirinioak, eta Erdialdeko Mendigunea zeharkatzen dira; merkataritza arloan eta turistikoki jauzia nabarmena da: lasterketak bainu-etxeak eta negu-estazioak hobesten ditu eta urte batzuetan higiezin- sustapenak dituzten estazioak zeharkatzen ditu Tourrak. Ikuslea kontsumitzailea da eta aisia eta astiaren Frantzia bultzatu nahi dute. Dopinaren aferak zutik dirau eta hedabideen bitartez horri loturiko iskanbilerik ohi baino oihartzun handiagoa daukate. Euskaltel Euskadi taldearen presentzia, marka eta nazioen arteko hibridoa kontsidera daitekeena, azpimarratzekoa da.

Kodetuko diren urte zehatzen zerrenda ez da aleatorioki edo metodo estatistikoz erabaki, bide hori ez baita kontsideratu egokia ikerketa honen helburuetarako. Aldiz,

irizpide kualitatiboak erabili dira eta, epealdi bakoitzaren barrenean, esanguratasun kontzeptuan oinarriturik, arrazoi batengatik edo besterengatik Tour esanguratsuak izandako urteak hautatu dira (adibidez, 1907an lehenbizikoz Suitzan sartu zen; 1930an, taldeak nazioka zeuden, adibidez).

Esanguratasun kontzeptuaren lanerako definizioa, tesi honetan, hurrengo aldagaien nabarmenduran erro daiteke:

- **Lasterketaren antolaketa:** ea txirrindulari taldeak nazio edo herrialdeka antolatuta egin duten (1930ean bezala), edo marka komertzialen arabera. Beste bariante bat izan zitekeen ea denboraren edo puntuaren neurketaz egiten zen sailkapena.
- **Lasterketaren inguruko auziak:** hemen koka litezke dopingagatik markatutako Tourrak, 1998koa adibidez.
- **Herrialdeen mugak:** ea Tourrak Frantzian soilik edo beste herrialde batzuetan ere sartzen den (Suitzan 1907an lehen aldiz, adibidez).
- **Gizarteko gertakizunen eragina:** gizarteko gertakizun nagusiek Tourrean izandako eragina kontua hartzen da; adibidez, II. Mundu Gerra ondoren, lehen aldiz egindako Tourra, 1947koa, sartu da laginean. Beste kasu bat izan zitekeen langileen greba ekintzek izandako eragina lasterketan, 1982an bezala.
- **Euskal Herriarekin zerikusia:** laginean ere sartu dira Euskal Herriarekin lotura nabarmendua izan dituzten Tourrak; adibidez, 1992an Donostiako irtendakoa; 2001an Euskaltel taldearen debuta.

Beste alde batetik, hiru epealdiak urte kopuru desberdina dutela kontuan izanik, lehen epean lau urte kodetu dira; bigarren epean, zazpi urte; eta hirugarren epean, bederatzi. Hona hemen urteak eta bakoitza hautatua izateko nabarmendura-arrazoia.

7.3.4 Lehen urtealdia: 1903-1914

Ikertuko diren egunkariak lau dira: L'Auto, Mundo Deportivo, ABC. Honako lau urte hauek dira aipatu daitezkeen urte-mugarriak edo esanguratsuak:

- 1903.- Tourra-ren lehendabiziko edizioa korritzen da.
- 1907.- Lehendabizikoz Suitza sartzen da lasterketaren ibilbidean. Lehendabizikoz Mendebaldeko Alpeak zeharkatzen dira eta lehendabiziko aldiz laguntzako kotxe bat txirrindularien atzetik doa arazo mekanikoak konpontzen saiatzeko.

- 1910.- Sailkapen orokorra berriro puntuetara egiten da, hasieran aukeratu zen denborakoa baztertu ostean. Ehun mila pertsona baino gehiago daude Parisen lasterketaren amaieran. Tourmalet mendatea lehendabizikoz zeharkatzen da. Euskal eta espainiar Estatuko lehen txirrindulariak parte hartzen du: Vicente Blanco 'Herrena'-k hain zuzen ere.
- 1913.- Sailkapen orokorra denboraren arabera da berriro ere. Ez da inoiz aldatuko. Azken edizioa da Lehen Mundu Gerra baino lehen.

7.3.5 Bigarren urtealdia: 1930-1970

Ikertuko diren egunkariak bost dira: Le Monde, L'Equipe, Marca, Mundo Deportivo, ABC. Garai honetako urte garrantzitsuenak, euren ezaugarriengatik, zazpi dira:

- 1930.- Txirrindulariak nazio taldeetan batzen dira eta publizitate-karabana estreinatzen da.
- 1935.- Francisco Cepeda txirrindularia istripuz hiltzen da. Lehendabizikoz etapa bat Frantziatik at hasi eta amaitu egiten da (Geneva -Suitza-) Lehendabizikoz lasterketan ematen diren diru-sariekin milioi bat frankoaren muga gainditzen dute.
- 1947.- Lehendabiziko Tourra egiten da Bigarren Mundu Gerraren ostean. Lehendabizikoz frantziar Estatutik kanpoko estatu baten hiriburura heltzen da lasterketa, Bruselara hain justu er. "Francophonie" da Tourra-ren ikuspegi orokor eta zabal berria.
- 1953.- Bobet da lehen txirrindulari Tourra hiru aldiz erreskadan irabazteko gai dena. Puntu sailkapenaren irizpideak 1905-1912 artean erabili zirenak dira edizio honetarako aukeratuak. Puntu sailkapenaren irabazleari elastiko orlegia ezartzen zaio. Nazio- edo erregio- talde bakoitzean 10 txirrindulari daude (lehen 8 ziren talde bakoitzeko).
- 1962.- Markako taldeak berragertzen dira, 1929ko edizioaren ostean desagertu zirenetik. Laugarren mailako mendateak saritzen dira lehendabizikoz.
- 1967.- Taldeak berriro ere nazioka inskribatzen dira. Lehen atariko etapa korritzen da. Tom Simpsonen heriotza, lasterketan bertan, izan zen kirol dopinaren ondorioz lehen heriotza "ofiziala".

- 1970.- Gazte onenaren saria estreinatzen da.

7.3.6 Hirugarren urtealdia: 1978-2013

Ikertuko diren egunkariak hamar dira: Le Monde, L'Equipe, Marca, Mundo Deportivo, ABC, El País, Egin, Gara, Euskaldunon Egunkaria, Berria. Garai honetan, bederatzi urteko lagina hautatu da, ezaugarri nabarmenengatik:

- 1978.- Tourrak Miarritzen du etapa amaiera. Lasa euskaldunaren garaipena bertan. Txirrindulariek greba egiten dute hamabigarren etapan, sektoreka korritzen diren etapen gogortasuna salatzeke. Pollentier maillot horia lasterketatik at uzten dute dopinaren aurkako frogan iruzurra egiten saiatzegatik.
- 1982.- Taldeko erlojupekoa bertan behera geratzen da, langile siderurgikoen manifestazio bat dela eta. Nekazariak ere beste etapa baten irteera oztopatu zuten. Antolatzaileek hurrengo edizioetarako "mundializazio" proiektua baztertzen dute.
- 1989.- Tourra korritzeko denbora gutxien erabiltzen duenak ez du irabazten, atariko etapari berandu ekin baitzion Delgado espainiarrak. Indurainen kirol agerpena. Lemond estatubatuarraren garaipena zortzi segundorengatik, historiako estuena. Tourra ezagutzera ematen da Amerikako Estatu Batuetan.
- 1992.- Tourra Donostiatik irteten da. Iskanbilak irteeran, gatazka politikoaren ingurukoak. Indurainen bigarren garaipena. Indurainen batz bestekoa (39,504 km/orduko) inoizko altuena lasterketa amaieran.
- 1994.- Indurain, garaipenarekin, Anquetilekin eta Merckxekin batera Tourra lau aldiz jarraian irabazi dutenen zerrendan sartu da. Lasterketa Ingalaterrara doa baina itsaspetik, inauguratu berri den Mantxako Tuneletik.
- 1998.- Festina afera dopina dela eta (atxiloketak, salaketak, kaleratzeak etab) Instituzioen bitartez mahai gainean ipintzen da berriro nazio taldeetako formularen aukera.
- 2001.- Euskadi Fundazioa/Euskal Selektzioa. Txema del Olmo Euskalteleko lehen txirrindularia Frantziako Tourrean. Eroski euskal marka presente ere egon zen ONCE taldearekin.
- 2003.- Mendeurrenaren Tourra.

- 2013.- Ehungarren Tourra. Euskaltelen azken Tourra, taldea desagertzen da eta. Estaturik gabeko nazio batean du irteera, Korsikan hain zuzen ere.

7.3.7 Egun eta eduki lagina

Hautatutako urte eta egunkarietan, Tourra-ren lasterketa-egunetan eta aurreko hiru eta ondoreko hiru egunetan egunkariak argitaratutako informazioak, albisteak eta iritzi-artikuluak kontsideratu dira.

Baina egunkari eta urte batzuetan (batez ere azken garaietan), egun bakar batean argitaratutako informazio kopurua nahiko handia izan daitekeenez⁸⁰, zuhurtasun eta proportzionaltasunaren printzipio metodologikoak erabiltzea erabaki zen. Ondorioz, lagineko egun bakoitzean gehienez hiru albiste garrantzitsuenak kodetzeko erabakia hartu zen. Albisteen garrantziaren irizpidea honen arabera definitu zen:

- Albistearen tamaina, kontuan hartuz izenburuaren zabalera (zutabe kopurua).
- Albistearekin batera beste zutabe, argazki, edo iritzi bloke bat egotea.

Halaber, kontuan izanik albiste edo iritzi-artikulu askoren barrenean, edukian, gai tematiko desberdinak egon zitezkeela, bai esplizituki adierazita (tarteki edo azpi-sekzio batean bereizita) edo besterik gabe testuaren jarioan txertatuta, erabaki zen informazio edo albiste bakoitzean gehienez hiru tema/gai edo unitate tematiko kodetzea, beste ikertzaile batzuek egin duten modura (Spyridou, 2013, orr. 907-925). Berdin egingo da sinboloekin, alegia, gehienez hiru tema nagusienak jasoko baitira datu-basean.

Honela, Tourreko egun batean gehienez bederatzi item edo kodetze-ilara kodetu litezke: hiru informazio/albiste eta bakoitzean gehienez hiru unitate tematiko. Jakina, albiste askotan tema bat bakarrik egoten da, beste batzuetan bi, eta beste batzuetan hiru edo gehiago.

7.3.8 Lagina urtealdika euskarriaren arabera

Ondoko taulan ikus daitekeenez, edukien zatirik handienak **papera** du euskarritzat (%86,4). Euskal Herriko prentsaren eta Espainiako prentsaren edukiak paperatik hartuak dira eta Frantziako prentsan erdiak baino apur bat gehiagok Internet sareari

⁸⁰ Agian 20 albiste edo gehiago egun batean.

dagokion formatua dauka. Beraz, kasu horretan, egunkarien ohiko moldeak ez dira beti eskuragarri izan eta batzuetan alderaketa baldintzatu du. 1930 eta 1970 bitartean paperaren nagusitasuna mantendu da (%67,2), baina azken urtealdian, 1978-2013, sarea presenteari egon da (%77,2).

Taula 1: laginak urtealdika euskarriaren arabera.

	Internet (N)	Papera (N)	Guztia (N)	Internet (%)	Papera (%)	Guztia (%)
EHko prentsa		1104	1104	0,0	100,0	100,0
1978-2013		1104	1104	0,0	100,0	100,0
Espainiako prentsa		4012	4012	0,0	100,0	100,0
1903-1914		55	55	0,0	100,0	100,0
1930-1970		1067	1067	0,0	100,0	100,0
1978-2013		2890	2890	0,0	100,0	100,0
Frantziako prentsa	926	724	1650	56,1	43,9	100,0
1903-1914		186	186	0,0	100,0	100,0
1930-1970	151	309	460	32,8	67,2	100,0
1978-2013	775	229	1004	77,2	22,8	100,0
Guztia (N)	926	5840	6766	13,7	86,3	100,0

Iturria: autoreak egina.

7.3.9 Lagina urtealdika hizkuntzaren arabera

Hemen aztertuko da edukiak zein hizkuntzan dauden, hau da, euskaraz, frantsesez edo gaztelaniaz produzituak izan diren.

Taula 2: laginak urtealdika hizkuntzaren arabera.

	Eusk. (N)	Frants. (N)	Gazt. (N)	Guztia (N)	Eusk. (%)	Frants. (%)	Gazt. (%)	Guztia (%)
EHko prentsa	487		617	1104	44,1	0,0	55,9	100,0
1978-2013	487		617	1104	44,1	0,0	55,9	100,0
Espainiako prentsa			4012	4012	0,0	0,0	100,0	100,0
1903-1914			55	55	0,0	0,0	100,0	100,0
1930-1970			1067	1067	0,0	0,0	100,0	100,0
1978-2013			2890	2890	0,0	0,0	100,0	100,0
Frantziako prentsa		1650		1650	0,0	100,0	0,0	100,0
1903-1914		186		186	0,0	100,0	0,0	100,0
1930-1970		460		460	0,0	100,0	0,0	100,0
1978-2013		1004		1004	0,0	100,0	0,0	100,0
Guztia	487	1650	4629	6766	7,2	24,4	68,4	100,0

Iturria: autoreak egina. Oharra: eusk.: euskara; frants.: frantsesa; gazt.: gaztelania.

Hizkuntzei dagokienez edukien %68,4 **gaztelaniaz** dago, %24,4 **frantsesez** eta %7,2 **euskaraz**. Logikoaenez, Espainiako egunkarietan gaztelania baino ez da

agertzen eta gauza bera gertatzen da frantses egunkarietan, frantses hizkuntzarekin kasu honetan.

Euskal Herriko prentsan, aldiz, hizkuntza bi erabiltzen dira: euskara (%44,1) eta gaztelania (%55,9). Euskararen presentzia aro modernoko urtealdira mugatzen da eta %44,1era iristen da.

Irudi 6: edukia frantsesez.

ARCHIVES Favoris | Partage

UN TERRIBLE WEEK-END POUR JACQUES ANQUETIL qui a brillamment triomphé dans l'épreuve contre la montre

Par JEAN CASTERA

Publié le 03 juillet 1962 à 00h00 - Mis à jour le 03 juillet 1962 à 00h00 - Lecture 3 min.

Article réservé aux abonnés

Terrible week-end pour Jacques Anquetil. Rik Van Looy et ses camarades lui ont valu deux journées épuisantes. Le champion du monde Van Looy, qui fait semblant de courir battu et de se désintéresser du classement individuel au bénéfice du classement par équipe, a lancé en en avant ses fidèles équipiers et ceux-ci ont provoqué une furieuse bataille dont Anquetil seul a supporté tout le poids. Nous disons bien seul, car ses équipiers n'ont pas joué le jeu franchement et l'ont abandonné à l'arrière.

Le résultat le voici : Anquetil a perdu près de 2 minutes samedi sur Junkermann, Massignan, Plankaert et, dimanche matin, plus de 6 minutes sur Simpson, Poulidor, Anglade, Baems, etc. Mais le plus grave c'est qu'il a dû dimanche matin chasser presque seul pendant plus de 140 kilomètres, car tous les autres grands du Tour se contentaient de suivre en queue de peloton, comme si le classement général du Tour ne les intéressait pas.

Coureur généreux et franc, Jacques Anquetil, à quelques heures de la course contre la montre, n'a pas craint de se dépenser jusqu'à l'épuisement. C'est beau, très beau, mais Anquetil ne paiera-t-il pas cela un jour prochain ?

Édition du jour
Daté du vendredi 23 avril

[Lire le journal numérique](#)

[Les éditions précédentes](#)

Iturria: Le Monde, 1962-07-03.

Irudi 7: edukia euskaraz.

Tentsiotik maitasunera, eraso festa

Garai hasiko da mendikuruko Frantziako Tourra, Kordoba eta urazurtean zuzen emaitako da, Irupean, Parisko Eliseetan. Frocepe-Coutato lehiak espere da, Valverde, Rodriguez eta Van Garderen bainaurrean.

2013ko Frantziako Tourra

Pos.	Atz.	Abiz.	Denb.
1.	1.	FRANTZESARRA-BOISSA	20h 20m
2.	2.	BELGICA-BOISSA	20h 20m
3.	3.	FRANTZESARRA-BOISSA	20h 20m
4.	4.	FRANTZESARRA-BOISSA	20h 20m
5.	5.	FRANTZESARRA-BOISSA	20h 20m

1. Tentsiotik, eraso festa

2. Espirituarekin gaituta

3. Espirituarekin gaituta

4. Espirituarekin gaituta

5. Espirituarekin gaituta

6. Espirituarekin gaituta

7. Espirituarekin gaituta

8. Espirituarekin gaituta

9. Espirituarekin gaituta

10. Espirituarekin gaituta

11. Espirituarekin gaituta

12. Espirituarekin gaituta

13. Espirituarekin gaituta

14. Espirituarekin gaituta

15. Espirituarekin gaituta

16. Espirituarekin gaituta

17. Espirituarekin gaituta

18. Espirituarekin gaituta

19. Espirituarekin gaituta

20. Espirituarekin gaituta

Iturria: Berria, 2013-06-29.

Irudi 8: edukia gaztelaniaz.

7000 metros de altura, se monta a 1.409 metros.

FRANCIA

Campeonato ciclista

París 31, 10 noche. Hoy ha terminado la carrera llamada "Tour de France" para ciclistas, distribuida en 15 etapas, con un recorrido aproximado de 5.000 kilómetros.

En la clasificación general resultan: primero, Lapire; segundo, Fañer, y tercero, Garrigou.

Iturria: ABC, 1910-08-01.

7.3.10 Egunkarien bilaketa eta eskuratzea

Ikerketa honen lagina osatzeko 2.958 egunkariei dagozkien aleak beharrezkoak izan dira. Guztiak topatzea urte askotako lana beharrezkoa izan da eta arazo franko egon dira frantziar egunkariekin, batez ere jabego intelektualaren inguruan publikoki eskuratzeko zeuden arazoak gehi azken bi urteotan frantziar Estatura bidaiatzeko sortu diren arazoak. Zorionez, Internet bitartez ere edukiak lortu ahal izan dira tesiaren helburuak bete ahal izateko.

Aleak eskuratzeko hiru bide jorratu dira. Lehenik Bizkaiko Foru Liburutegian zeuden funtsak bildu dira; bigarrenik tesiaren egilearen funts propioak aztertu dira eta, hirugarrenik, Internet bitartez lorturikoak gehitu dira.

Egunkari bakoitzaren aleak eskuratzeko bidea zehatzago laburbiltzen da ondoko zerrendan:

- L'Auto (1900-1944): Internet bitartez Parisen dagoen Frantziako Biblioteka Nazionalean.
- ABC -Madril- (1903): Internet bitartez eta funts propioak.
- Mundo Deportivo -Bartzelona- (1906): Internet bitartez, MD-ren hemeroteka digitalean, Bizkaiko Foru Liburutegian eta funts propioak.
- Marca (1938): Internet bitartez, Marcako erredakzioarekin kontaktu zuzenak eta funts propioak.
- Le Monde (1944): Internet bitartez, suskripzioak eta Parisen dagoen Frantziako Biblioteka Nazionalean.
- L'Equipe (1946): Internet bitartez, funts propioak eta Parisen dagoen Frantziako Biblioteka Nazionalean.
- El País (1976): Bizkaiko Foru Liburutegian.
- Egin (1977-1998): Funts propioak eta Bizkaiko Foru Liburutegian.
- Gara (1999): Funts propioak.
- Euskaldunon Egunkaria (1990-2003): Bizkaiko Foru Liburutegian.
- Berria (2003): Funts propioak eta Bizkaiko Foru Liburutegian.

Internet bitartez jaitakoak eta paperan zeudenak digitalizatu ostean disko gogor batean daude gordeta.

7.4 Unitateak

7.4.1 Analisi unitatea

Albiste edo artikulu osoa da analisi-unitatea, eta ez soilik izenburua edo azpitituluak edo hasierako laburpena (*lead* modura ere ezaguna). Horregatik, albiste batean eduki-gai bat edo bat baino gehiago egon liteke (ikus hurrengo azpiatala: "neurketa unitatea").

7.4.2 Neurketa-unitatea

Ikerkuntzan ezaguna denez, ez da beti berdina izaten analisi-unitatea eta neurketa-unitatea. Izan ere, analizatzen den unitatea albiste osoa bada ere (edo iritzi artikulu osoa), kodetzen eta neurtzen diren eduki-unitateak edo protagonistak bat edo bat baino gehiago izan daitezke.

Adibidez, jo dezagun albiste luze samar batean paragrafo edo sekzio bat txirrinduari baten kirol-kurrikulumari buruzkoa dela, alegia, irabazitako lasterketei buruz eta beste zati batean, noizbait dopin-kontrol batean positibo eman zuela. Ondorioz, nahiz eta analisi-unitatea albiste osoa izan, eduki analisisian kodetuko diren eduki-unitateak edo gaiak bi izango dira, eta horien kategoriak ere bi: kirola eta dopina.

Beraz, ikerketa honetan neurketa-unitateak bi motatakoak izango dira: eduki-gaiaren unitatea, edo unitate tematikoa (zer), eta protagonista (nor).

7.4.2.1 Eduki-unitatea

Eduki-unitatea, edo eduki-gaiaren unitatea, honela definitzen da: ikertutako egunkarietan, kazetaritzako irizpideak betetzen dituen edozein informazio/albiste, iritzi-artikulu edo irudiko unitate tematikoa. Maiz, albiste batean gai edo tema bat bakarrik dago, kazetaritzaren teorian ohikoa denez; baina beste askotan –albiste, erreportaje edo iritzi artikulu batean–, gai edo tema bat baino gehiago egoten dira, albiste propio edo desberdin izateko irizpide nagusiak bete litzatekeenak.

Horregatik, kodetze garaian, informazio pieza batean bat, bi edo gehienez hiru gai edo unitate tematiko kodetuko dira.

7.4.2.2 Protagonistaren definizioaz

Informazio bateko protagonistaren definizioa honela ezarri liteke: kazetaritzaren ikuspuntutik albiste, informazio edo artikulua edukian funtsezko papera betetzen duen pertsona edo izaria, errealitateko gertakaria edo auzia ulertzeko. Lanerako definizio batera ekarriz, esan liteke, kazetaritzako nor-nori-nork galdekariekin erlazionatutako pertsonak direla protagonistak.

Protagonisten laginari dagokionez, unitate tematikoekin egin zen modura, erabaki zen informazio edo artikulua batean, protagonista bat, bi edo gehienez hiru zenbatu, kodetu eta neurtzea.

7.5 Fidagarritasuna, baliagarritasuna, estatistika, lagin-errorea

7.5.1 Fidagarritasuna

Edozein ikerketa metodok eta erabilitako neurketa-prozedurak fidagarritasuna izan behar du. Funtsezko kontzeptu honek esan nahi du ikerketa edo neurketa bera errepikatuko balitz, emaitza berdinak edo berdintsuak lortuko liratekeela. Beraz, ondoriozta liteke aplikatutako metodologia hori fidagarria dela (Zabaleta Urkiola, 1997).

Bi fidagarritasun mota bereizten dira: kanpo eta barne fidagarritasuna. Lehenean, bi denbora-une desberdinetan (t_1 eta t_2), eduki osoaren lagin bat neurtzen da eta, emaitza berdinak eta kontsistenteak lortzen badira, orduan esan daiteke metodo edo neurketa-tresna horrek kanpo fidagarritasuna duela. Bigarrean, denbora berean edo bertutan (t_1) egiten da neurketa edo kodetzea, baina unibertso bereko bi subjektu-lagini aplikatzen zaie, eta bi lagin hauen emaitzak berdinak edo berdintsuak badira, orduan esan daiteke neurketa-tresna horrek barne fidagarritasuna duela eta, beraz, emaitzak fidagarriak direla.

Barne fidagarritasunaren bariante bat izaten da unibertso beraren lagina bi edo hiru kodelari independentek kodetzea eta kodelarien arteko adostasun maila egiaztatzea. Argibide modura, kontsideratzen da %90etik gorako fidagarritasuna edo erabaki-adostasuna egon behar dela kodelarien artean, metodo bat fidagarria dela adierazteko (Wimmer & Dominick, 2000).

Komunikazioaren eduki-analisia egitean eta framing-ak aztertzean kodetze eta neurketak egiten direnez, horien fidagarritasuna ziurtatzeko hainbat metodo daude eta, horien artean, Holsti-ren (1969) formula dago, oso ezaguna, erraza eta fidagarria, kodetzaileen arteko adostasuna neurtzeko:

$$\text{Fidagarritasuna} = 2M / N_1 + N_2$$

Non:

M = Bi kodetzaileak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua.

N1 = Lehen kodetzaileak (K1) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

N2 = Bigarren kodetzaileak (K2) egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

7.5.2 Froga pilotua eta kodelarien arteko fidagarritasuna

Tourra-ren gaineko ikerketa honetan, metodoaren fidagarritasuna ebaluatzeko froga pilotu mailakatua egin da.

Lehenik, tesi honetarako behar diren kategoria sistema espezifikoak prestatu dira, lehen hurbilketa modura, euren definizio teoriko eta lanerakoekin. Bigarren, aurre-froga pilotu txikia egin da 40 albisteko azpilagin batekin eta, bertan, hiru kodelarik (tesi egilea, tesi zuzendaria eta kodelari independente bat) kategoria sistemen eta euren definizio teoriko eta lanerakoen egokitasun eta zuzentasuna ebaluatu dituzte. Ondoren, behar diren zuzenketak eta orrazketak egin dira metodoan, kategorietan eta definizioetan.

Hirugarren, froga pilotu esanguratsu modura, 500 egunkari-aleko lagin aleatorioa hautatu da, ikertutako eduki osoaren %7,3 (portzentaje nahiko altua metodologiaren ikuspuntutik) eta kodetze prozesuan bi kodelarik (tesi egilea eta kodelari independenteak) hartu dute parte. Holsti-ren formula aplikatuz, %92ko adostasuna edo fidagarritasuna lortu da bi kodelarien artean; beraz, maila akademikoki egokia da.

Froga pilotu honetarako, egunkari-aleen lagin aleatorioa hautatzeko, egunkari bakoitzaren albiste kopuru osoa zein den kontuan hartu da eta, horren arabera, 50 albiste gehienez hautatu dira hedabide bakoitzeko. Zenbaki aleatorioak sortzeko online aplikazio bat erabiliz, hauek izan dira aterak direnak:

- 1-200 albiste-kopurua duten egunkarietan, 30 zenbaki aleatorio hauek erabili dira: 7, 20, 25, 29, 59, 67, 69, 79, 81, 98, 102, 106, 115, 116, 117, 122, 123, 131, 138, 142, 147, 151, 152, 153, 158, 178, 182, 187, 190, 196.
- 1-500 albiste-kopurua duten egunkarietan, 50 zenbaki aleatorio hauek erabili dira: 13, 15, 18, 44, 49, 62, 78, 114, 117, 119, 121, 133, 154, 165, 179, 191, 198, 217, 224, 225, 227, 253, 254, 263, 268, 271, 290, 293, 299, 308, 320, 359, 370, 385, 391, 393, 401, 402, 414, 418, 437, 444, 451, 453, 454, 472, 480, 483, 496, 497.
- 1-1000 albiste-kopurua duten egunkarietan, 50 zenbaki aleatorio hauek erabili dira: 8, 16, 41, 62, 69, 114, 118, 125, 137, 161, 165, 225, 232, 266, 267, 270, 271, 273,

298, 310, 342, 356, 358, 365, 366, 406, 460, 466, 475, 488, 516, 581, 588, 612, 674, 701, 707, 713, 756, 773, 788, 794, 812, 862, 883, 935, 943, 952, 980, 990.

Fidagarritasunaren froga pilotua amaituta, informazio eta iritzi eduki guztiak kodetu dira, horretarako ezarritako kodetze fitxaren erabiliz. Dena den, normala den modura, kodetze prozesua aurrera zihoan neurrian, behar izan denean, egokitzapenak egin dira kategorien lanerako definizioetan, errealitatearen dibertsitate handia zuzen kodetu ahal izateko.

7.5.3 Baliagarritasuna

Baliagarritasunaren kontzeptuak⁸¹ esan nahi du neurketa-tresna edo neurketa-metodo bat baliagarria dela baldin eta neurtu nahi duena neurtzen badu, alegia, ikergaia aztertzeko egokia den eta egoki diseinatuta dagoen (Zabaleta, 1997). Izatez, nahiko kontzeptu konplexua da eta bi baliagarritasun mota, elkarrekin lotu ezinak, bereizten dira (Hsia, Mass Communications Research Methods: A Step by Step Approach, 1988).

- Barne baliagarritasuna: honen ardura da ezagutzea erabilitako tratamenduak edo kodetze sistemak zer diferentziak sor ditzakeen.
- Kanpo baliagarritasuna: hau da irizpide nagusia baliagarritasunean. Honen bidez aztertzen da ea emaitzak populazio osora orokortu, generalizatu edo zabal daitezkeen.

Barne eta kanpo baliagarritasunaz gain, hurrengo irizpideak ere kontuan izan behar dira:

- Eduki baliagarritasuna: barne baliagarritasun mota bat da eta esan nahi du ea edukia egokia eta errepresentatiboa den. Iritzi arrazoitu modura ikus daiteke.
- Irizpide baliagarritasuna edo aurreikuslea: kanpo baliagarritasunarekin erlazionatuta dago eta adierazten du ea neurketa tresna (inkesta, kodetze fitxa, etab.), irizpide modura hartuta, egokia den emaitzak edo ondorioak aurreikusteko.
- Konstruktua baliagarritasuna: kontsistentzia teorikoarekin dauka zerikusia, alegia, ea kontzeptualki ongi eraikita dagoen neurketa tresna.

⁸¹ Baliotasun edo “*validity*” izenez ere ezaguna

Ikerketa honetan, diseinu egokia eta teorikoki argudiatuta garatu denez, esan daiteke kanpo eta barne fidagarritasun nahikoak dituela. Hori ziurtatzeko, bai neurketa tresna eta bai laggingintza, lagin aleatorioak eta ongi irizpidetuak hartuz, egokia izan dira, metodoaren atal honetan egiazta daitekeen modura.

7.5.4 Estatistika teknikak

Ikerketa honetan erabiliko den estatistika teknika deskriptiboa da eta neurketa edo zenbakuntza sistema nominala, zeina hiru irizpidetan oinarritzen den: baliokidetasuna, erabatekotasuna (exhaustibitatea) eta eskusibitatea.

Ikerketa honetako emaitzen kalkuluak, orokorrean, portzentajeen bidez adieraziko dira, estatistika deskriptiboan arrunki erabiltzen den espresio matematikoa. Beste kasu batzuetan, batez ere naziotasunaren identitatea eta interpretazio-markoen ikerketagunean, Chi Karratuaren test⁸² frogara erabiliko da esanahi edo adierazgarritasun estatistikoa egiaztatzeko. Halaber, behar denean, laginaren tamainak sor litzakeen artefaktuak ekiditeko (Bergh, 2015), Yates-en zuzenketa faktorea ere erabiliko da, honela Yates-en Chi Karratua adieraziz.

7.5.5 Lagin-errorea

Erabilitako laginaren fidagarritasun eta baliagarritasuna neurtzeko, irizpide hauek izan dira kontuan:

- **Eduki unibertsoa/populazioa:** Tourraren historian zehar hiru herrialdeetako egunkariak argitaratutako edukien kopuru osoa, edukien unibertsoa edo populazioa ez denez ezaguna eta, praktikoki, ezin denez ezagutu, kontsideratu da 100.000 item-eko kopuru teorikoa ezartzea⁸³ laginaren tamaina egoki kalkulatzeko.
- **Errore-tartea:** ezarri den errore-tartea %5 izan da.
- **Konfiantza maila:** ezarri den konfiantza maila %95ekoa izan da.
- **Erantzun distribuzioa:** irizpide hau normalean %50 izaten da.

⁸² Chi karratuaren datuak eta estatistikak ematean zenbakien dezimala edo hamarrenekoa adierazteko puntua erabili da, koma ordean, nazioarteko ohitura jarraituz.

⁸³ Estatistika iturrietan diote 20.000ko populaziotik gora laginaren kopurua ez dela asko aldatzen; www.raosoft.com/samplesize.html.

Aurreko irizpide horiek kontuan hartuz, ikerketa honetan erabilitako laginak, 6.766 item edo unitatez osatua, **%1,15eko errore-tartea** du, lagina eraikitzekeo prozesuan faktore guztiak (hedabideak, urteak eta edukien ausazkotasuna nagusiki) zuzenki bideratu badira, horrela egin izan denez.

7.6 Kodetze fitxa

Ikerkuntza honetan, eduki-analisirako eta interpretazio-markoetarako erabili den kodetze fitxak hurrengo sekzioak eta kategoria sistemak ditu:

- Informazioaren identifikazio gunea (ID): bertan, neurketa-unitate bakoitzaren oinarrizko datuak kodetzen dira.
- Eduki-analisiaren kategoria sistemak.
- Diskurtso eta interpretazio-markoaren kategoriak.

7.7 Informazioaren identifikazio gunea (ID)

Identifikazio gunearen sekzioan (ID) informazio edo iritzi artikulua guztien oinarrizko datuak jasoko dira, alegia, zein egunkaritan argitaratu diren, zein datatan, eta antzeko informazio-datuak. Jarraian daude ID-an aztertuko diren kategoriak eta parentesi artean kodetze datu-baseetan erabiliko diren laburpen edo inizialak.

7.7.1 Oinarrizko informazioa

- Data: albistea argitaratu zeneko data.
- Urtea: Albistea argitaratu zeneko urtea
- Egunkariaren herrialdea: Hemen jarriko da zein herrialdekoa den egunkaria.
 - Frantzia
 - Espainia
 - Euskal Herria
 - Beste
- Egunkaria: Hemen kodetuko da zein den kazeta.
 - L'Auto
 - Le Monde
 - L'Equipe

- Marca
 - ABC -Madril-
 - El País
 - Mundo Deportivo -Bartzelona-
 - Egin
 - Gara
 - Euskaldunon Egunkaria
 - Berria
- Euskarria: Zutabe honetan euskarria kodetuko da, ea albisteak paperezko edizioakoak diren edo Internetetik hartuak.
 - Paperezkoa
 - Internet (Internet)
 - Beste
- Hizkuntza: Hemen neurtuko da kazetaritza-edukiaren hizkuntza.
 - Frantsesa: frantsesez idatzitako berriak.
 - Gaztelania: gaztelaniaz idatzitako berriak.
 - Euskara: euskaraz idatzitako berriak.
 - Besterik: gainerako edozein hizkuntzaz idatzitako berriak.
- Egunkariko atala: hemen berriaren kokapena, atalari dagokionez, neurtuko da:
 - Azala: albiste bat egunkariaren lehenengo orrian agertzen denean.
 - Politika: albiste bat politika sekzioaren orrialdeetan agertzen denean.
 - Gizartea: albiste bat gizarte sekzioaren orrian agertzen denean.
 - Kirola: albiste bat kirol sekzioaren orrialdeetan agertzen denean.
 - Iritzia: albiste bat iritzia sekzioaren orrialdeetan agertzen denean.
 - Ekonomia: albiste bat ekonomia sekzioaren orrialdeetan agertzen denean.
 - Nazioartea (nazioarte): albiste bat politika nazioarteko orrialdeetan agertzen denean.
 - Kultura: albiste bat kultura sekzioaren orrialdeetan agertzen denean.
 - Azkena: albiste bat egunkariaren azken orrialdean agertzen denean.

- Eranskina: albiste bat egunkariaren edozein eranskinean agertzen denean.
- Beste: albiste bat zerrendan aipaturiko sekzioetatik at dagoen edozein orrialdetan agertzen denean.

7.7.2 Irudi eta testuen presentzia

Hemen aztertuko da ea informazioa testuaz soilik, irudiaz soilik, edo testuaz gehi irudiaz osatuta dagoen. Aurrekoa kodetzeko orduan, albiste batean testua gehi argazkia badaude, bi item modura kodetuko dira, alegia, bi ilara erabiliz.

- Testu: albisteak daukan testua. Argazki-oinak eta argazki-izenburuak irudiari atxikita aztertuko dira.
- Irudi: albistean irudi edota grafiko bat egotea eta baita ere irudiak euren izenburu eta/edo irudi-oinekin.

7.7.3 Irudi motak

Hemen irudiaz soilik osatuta dagoena aztertuko da.

- Argazki: argazki bat egotea. Hemen ez dira sartzen argazki-oinak eta egon litezkeen izenburuak.
- Grafiko: grafiko bat egotea. Albisteak daukan grafikoaren nondik norakoak aztertuko dira.
- Beste: hemen bestelako irudirik duen aztertuko da, esaterako bineta, marrazkia, karikatura etab.

Oharra: irudi edota grafikoa izanda ere, deskribapena erantsiko zaio.

7.8 Kazetaritza-generoak

7.8.1 Kazetaritza-genero nagusiak

Hemen generoa zein den aztertuko da, lehendabiziko muga ipiniz, informazioa edo iritzia den.

Generoaren definizioari dagokionez, instituzio historiko sozial gisa aurkezten du Martinez Albertos-ek (1974). Generoen inguruko sailkapenak zabalak dira komunikazio prozesu eta sistemak sailkatzeko. Sistema horiek aldakorak izan daitezke testuinguruaren arabera. Generoak baliagarriak dira erredakzioetan elkar ulertzeko eta fakultateetan egunkariak aztertzeko, baina irakurlearentzat ere interesgarriak dira

baldintza bakar batekin, egunkariak tipografikoki desberdinu behar baititu. (Grijelmo, 2002).

Agertu zirenetik, kazetaritza generoak prentsa idatziarekin lotu dira, gaurkotasun egintzak kontatzeko kazetaritzak darabiltzan eratan eragin zuzenarekin. Horregatik bere presentziak garrantzi handikotzat har dezakegu informazioak idaztean, kazetariari irakurlearengan eragina izateko beharrezkoak diren baliabideak eskainiz.

Dragnic-ek horrela definitu zituen: “Kazetaritzan erabiltzen diren era guztiak, berritik editorialeraino, karikaturatik pasatuz”⁸⁴ (Dragnic, 2004, or. 121).

Gure ikerketan generoak "*news and opinion*" informazio-iritzia ardatzean kokatuko ditugu, objektibotasuna vs subjektibotasuna borrokaren parean. Hots, informazioaren aldean berria legoke eta iritziaren aldean komentarioa. Tradizio anglosaxoian triangelua osatuko litzateke: berria, erreportajea eta iritzia (komentarioak, editorial, iritzi artikulua...) (Hohenberg, 1960-1983).

Panorama osatze aldera, beste sailkapen bat aipa dezakegu: kazetaritza ideologikoa (iritzia), informatiboa (berria, kronika eta erreportajea) eta adierazpenezkoa (sakontasunezko erreportajea) (Benito, 1973) (Benito, 1982).

Halaz ere, egon badaude generoen inguruan iritzi ezkorra dutenak: “Generoak ez dira existitzen. Zentzua edozein izanda ere, genero bat abstrakzio bat da, sailkatzeko era bat besterik ez. Kazetariak generoak asmatzen ditu erosoago lan egiteko”⁸⁵ (Badrán, 2001).

Bastenier-en aburuz, kazetaritza-generoen sailkapen mota honek, bakarra izan nahi ez duenak, generoa ez badu identifikatzen, gutxienez lerro samurrago bat erakusten du kazetariak eta ikasleek erosoago lan egin dezaten. Azken finean berezko ahotsa aurki dezakete hor. Generoen arteko hesiak ez dira ezgonkorrak, mugikorrek baizik. Genero sistema hau informatiboa da batez ere, eta bertan hiru genero handi proposatu egiten dira. Haien ezaugarriak nagusia interpretazio gradua litzateke:

⁸⁴ “Todas las formas que se emplean en el periodismo, desde la noticia, pasando por la caricatura, hasta llegar al editorial.”

⁸⁵ “Los géneros no existen. En cualquier sentido un género es una abstracción, una forma de clasificar. El periodista inventa los géneros para trabajar mejor.”

genero lehorra, kronika eta erreportajea. Denek azpitaldeak eduki badituzte (Bastienier, 2001).

Egon badaude ere kirol generoak aurre-ikusten dituztenak, gure ikerketarako interesgarria suerta daitekeen aldea: “Zentzu honetan, inprimaturiko hedabideen kirol iturriak inork baino gehiago behar ditu kazetaritza-generoak osatzen dituzten elementuak, alternatibak izateko gaitasunarekin loturik, alternatiba bakoitzak merezimenduak egiten baititu bere testuinguruan bilakaera izateko”⁸⁶ (González, 2010, pp. 3-16).

Bestalde, Joseph Blancoren aburuz:

Kazetaritza generoak kirolean horrela uler daitezke: gertakari batek, gizarte-arlo honetan gertatzen den ekitaldiaren berri eman nahian, hedabidearen komunikazio-baliabideak erabiltzen dituela, helburua publikoaren arreta bereganatzeko drama bat sortzea izanik. Publikoak, gai edota pertsonaiekiko atxikimendu mailaren arabera, bere emozioak sentitu eta adierazi ahal izango ditu⁸⁷ (Blanco, 2008).

Gauzak horrela, kazetaritza generoak informazioa tratatzeko erabiltzen diren era ezberdinak dira, beti ere idazten duenaren intentzioaren arabera. Kirol diziplina bakoitzak berezko gertakizunak ditu eta, aldi berean, kontatzeko erak ere. Beraz, egintzaren nondik norakoak, ezaugarriak eta xehetasunak kontuan hartuta, kazetaritza-erredakzioak publikoari aurkezteko era ezberdinak eskaintzen ditu.

⁸⁶ “En ese sentido, la fuente deportiva de los medios impresos necesita con mayor avidez de todos o la mayoría de los elementos que conforman los géneros periodísticos, debido a su particularidad de poder contar con alternativas que faciliten la cobertura de las distintas disciplinas en este ámbito, ya que cada una de ellas ameritan ser desarrolladas de manera específica por su contexto” (3-16. orria).

⁸⁷ “Los géneros periodísticos en el deporte cabe entenderlos como un fenómeno que en su empeño por informar el desarrollo de un acontecimiento en este ámbito social, explota las posibilidades comunicativas del medio con la intención de generar un drama capaz de mantener el interés del público, el cual tiende de acuerdo con su grado de competencia y de simpatía por el tema o por sus protagonistas, llegar a sentir y manifestar emociones al respecto.”
(<http://www.ehu.es/zer/zer11web/jmblanco.htm>).

Generoak kirolean hiru multzotan banatuko lirateke: informatiboak, interpretatzaileak eta iritzikoak. Informatzaileei dagokienez, Grijelmok horrela definitzen ditu: interesa duten gertakizunak publikoarengana helarazten dituzten kazetaritza testuak, berriak edo aurrez aurretik ezagunak izan daitezke (Grijelmo, 2002).

Halaber, Morenok genero honen gakoa egintzen narrazioan datzala azpimarratzen du, azalpenezko testua erabiliz, mezua soilik argudiatu beharrean. Bertan berria, elkarrizketa informatzailea eta erreportajea informatzailea batuko lirateke (Moreno, 2001).

Bestalde, interpretaziozko kazetaritzaren jaiotza pasa den mendeko hogeiko hamarkadan koka daiteke Amerikako Estatu Batuetako *'Time'* aldizkariaren jaiotzarekin loturik. Aldizkari horrek asteko berriak sailkatzen, aztertzen eta adierazten baitzituen, soilik informatzaileak ez ziren mezuak jorratzen, baina iritzikoak izan barik (Corona, Parra, & Rodríguez, 2005).

Kazetaritza-genero interpretatzaileen xedea gero eta konplexuagoa den errealitatearen adierazpenak publikoari eskaintzea da eta azpimarratzekoa da kazetariak aburuak eskaintzen dituela. Genero honetan kronika, elkarrizketa-profila eta erreportajea interpretatzailea leudeke.

Zentzu honetan, Gutierrez-en aburuz (2006): "Igorri nahi den mezu informatzaileari balorazio zehatza erantsi nahi dioten generoak dira, gertakizun bera azaltzeko datu enpirikoak edota estatistikoak erabiltzeaz gain"⁸⁸ (p. 21).

Iritziko generoei dagokienez, baliozko epaiketak, irizpideak, hautemateak, azterketak, kritikak edota laudorioak transmititzen dituzte, beti ere egilearen adierazpen pertsonal moduan.

Aldiz, beste autore batzuen ustez, hartzailearen sentimenduak, aurreiritziak edota iritziak astindu nahi dira dagokion mezuan azaltzen diren egintzekiko atxikimendua ala errefusa lortze aldera (Dragnic, 2004).

⁸⁸ "Son géneros que tienen como objetivo añadirle una valoración determinada al mensaje informativo que busca transmitirse, además del análisis mediante datos empíricos o estadísticos con la finalidad de explicar el acontecimiento" (21. orria).

Arestian aipatzen denarekin bat eginez, genero honen asmoa da egilearen jarrera argi eta garbi uztea gizartearengan eragina izan dezaketen gaurkotasun-egintzen aurrean, egiazko argudioak erabiliz eta egoerari nolabaiteko konponbidea emanaz. Arlo honetan zutabea, artikulua eta editoriala leudeke.

Kiroletik at, espainiar Estatuan Martinez Albertosek lehen lan teorikoa egin zuen 1973an, honako hauek oinarritzat hartuta: Kazetaritza-estilo informatiboa (berria, erreportajea eta kronika) piramide alderantzikatuarekin lotuz; iritzizko kazetaritza (editorialak, iritzizko artikulak..) eta kazetaritza atsegina (gainerakoak) Gaur egun adostasuna zabala da informazio-iritzia bikotea aipatzean.

7.8.1.1 Informazioa

Datu antolatu baten bilduma da, izaki edo gertakizun bati buruz, mezu bat osatzen denean. Esanahi anitzeko kontzeptua da. Kazetaritzari dagokionez, genero informatiboen helburua gaurkotasunaren berri eskaintzea da, hizkera objektibo eta zuzenaren bitartez. Testua idazten duena ez da esplizituki agertzen. “Publikorako datuak eta egintza zehatzak transmititzen dituzten testuak informatiboak dira, berriak edota aurrez aurretik ezagunak izanda ere. Informazioak ez ditu iritzi pertsonalak onartzen, eta are gutxiago aurreiritzirik”⁸⁹ (Grijelmo, 1997, or. 30).

Informazio-generoak honako hauek liriateke: berria edo albistea, erreportaje objektiboa, kronika, elkarrizketa eta argazki-albistea.

7.8.1.2 Iritzia

Iritzia zerbaiti buruz pertsona batek duen sinesmen edo uste subjektiboa da, egia baino balio epistemologiko txikiagoa duena eta beste iritziekin aurrez aurre adierazten dena. Kazetaritzari dagokionez, iritzia horrela liriateke: “Idazten duenaren ikuspuntua adieraztea dute helburu. Idazleak errealitatea interpretatu eta komentatu egiten du, gertakizunen inguruko gorabeherak aztertzen ditu eta beren zergatiei buruz eta horien

⁸⁹ “Son informativos los textos que transmiten datos y hechos concretos de interés para el público, ya sean nuevos o conocidos de antemano. La información no permite opiniones personales, ni mucho menos juicios de valor” (30. orria).

ondorioz gerta daitekeenari buruzko iritziak plazaratzen ditu⁹⁰ (Elena González Briones, 2012, or. 11).

Batzuetan, aukerak eskaini ditzake egoera aldatzeko edo hobetzeko. Iritzi-generoak honako hauek lirateke: editoriala, iritzi-artikulua eta bere modalitateak komentarioa edota zutabea, kritika eta zuzendariari eskutitzak, binetarekin batera.

7.8.2 Kazetaritza-generoen azpikategoriak

Atal honetan arestian aipatu ditugun informazioa edo iritzi generoen baitan azpikategoriak zehaztuko ditugu.

7.8.2.1 Informazioaren azpikategoriak

Albistea

Unean-uneke gertaerei buruzko informazio hautatuaren komunikazioa edo adierazpena da. Informazio hutsa, kazetaritza-kontakizuna puri-purian, hau da informazio unitaterik arruntena: "*News story*". Horren inguruan definizio franko dago. Lan honi dagokionez, definizio kontzeptuala eta etikaren bidetik doana hautatu da, hots, kazetaritza informazioaren parekoa (egia, gaurkotasuna, interesa).

Gertaera bati lotutako berria da, zer gertatu den ulertzeko oinarrizko testua, nondik norakoak azaltzen dituena. Kazetaritza klasikoan, honako galdera hauei erantzun ohi die albisteak: nor(k), zer, non, noiz eta zergatik. Batzuetan, baita nola galderari erantzuten duena ere. Gaur egun, ordea, ez da ezinbestekoa beti galdera horiei erantzutea, gerta liteke beste galdera batzuei ere erantzun behar izatea: noren arabera, zertarako, zenbat... Albiste diskurtsiboak dira eta egitura informazioaren logikari lotzen zaio.

Berriaren definizioak denboraren poderioz aldatzeaz gain, gizartearen poderioz ere aldatzen joaten dira. (Davison WP, 1982) Horren haritik ez da definizio bakarra eta egokirik lortu eta orokorrago bat beharrezkotzat jotzen da (Harris J., 1981).

⁹⁰ "Tienen como finalidad expresar el punto de vista de quién los escribe, que interpreta y comenta la realidad, evalúa las circunstancias en que se han producido los hechos, y expresa juicios sobre los motivos y sobre las consecuencias que puedan derivarse de ellas" (11. orria).

Hiztegietan ere ez da erraz topatzen eta beharbada ingelerazko definizioan aurki daitekeena gehiago hurbiltzen da: “Berria berriki gertatu denaren kontakizuna da, egunkarian, irratan edo telebistan.”⁹¹ Beraz, berria nobedadearen kontakizuna da kazetaritza- euskarri batean.

Romerok (1974) ia berrogei definizio biltzen zituen bere obran, eta azken definizioan hauxe irakur zitekeen laburbilduta: informazioa jasotzen duenari interesa dakioken gaurkotasun ekintza, eta hedabideen bitartez heltzen zaiona. Interesa ezinbestekoa da berriarentzat eta gainera egungoa, interesgarria eta komunikagarria behar du izan. Definizio honetan ardatzak egintzaren gaurkotasuna, interesa eta komunikagarritasuna dira.

Martinez Albertos-en iritziz, “egiazko egintza, ezezaguna eta gaur egungoa, interes orokorrekoa, pertsona asko osatzen ei duten publikoari jakinarazten zaiona, hedapenerako erabiltzen den tresnaren kontrola dutenek interpretatu eta baloratu egiten dutena”⁹² (Martínez Albertos, 1993, or. 37). Lippman-ek zera hau esan zuen: “Gertakizun bat egiaztatzen duen seinale argia eta objektiboa”⁹³ (1922, or. 126).

Erreportajea

Prensa idatzizko genero informatiboa da. Berri luze baten egitura daukan informazioa da. Irudiekin eta hitzekin osaturiko testigantzen bilduma bat da erreportajea; gaurkotasunez beteriko dokumentuak dira, pertsonen bizipenak, testigantzak eta iritziak jasoaz. Askotan, egoera hori bizi izan duten pertsonen ahotik.

Erreportaje batek antzekotasun handia dauka albistearekin, baina azken honetan ez bezala, erreportajea xehetasunak, zertzeladak, pasadizoak, bertsio desberdinak eta abar jorratzen dira gehiago. Kontuan hartu behar da erreportaje bat egiteko denbora nahikoa dutela kazetariak nahi duten gaia jorratzeko.

⁹¹ “New information or a report about something that has happened recently. Information that is reported in a newspaper, magazine, television news program, etc.”.

⁹² “Un hecho verdadero, inédito y actual, de interés general, que se comunica a un público que puede considerarse masivo, interpretado y valorado por los sujetos promotores que controlan el medio utilizado para la difusión” (37. orria).

⁹³ “Una señal clara y objetiva que constata un acontecimiento” (126. orria).

Halaz ere, ez du derrigorrez gaurkotasunik izan behar. Erreportajearen gaia ondo ezagutu behar du, eta ongi dokumentatua egotea guztiz beharrezkoa da. Lana objektiboa izan behar du eta ezin du iritzi pertsonalik eman. Gainera, informazioa era erakargarri aurkeztu behar du (Berria, 2019).

Erreportajearen mugak ez dira oso argiak: “Muga bakarra argitasuna, zehaztasuna eta eraginkortasunaren inguruko eskakizunek ezartzen dute, kalitatezko edozein kazetaritzari dagozkionak”⁹⁴ (Chillón, 1994).

Oro har generoekin gertatzen den moduan, egon badago eszeptikoa dena, definizio asko egin baitira horren inguruan, baina adostasun gutxirekin (Fernández Parrat, 1998).

Kronika

Kazetaritzaren genero informatibo bat da. Kronika testu-tipo bat da. Gertaera batzuen narrazioa, ez beti era kronologikoan egin, baina denbora jakin batean gertatukoaren berri ematen da (kirol kronika geure kasuan).

Kronikagileak jakintzat jotzen ditu gertaeraren datu nagusiak, baina kontakizunaren lekukotza zuzena eskaintzen du.

Kronikaren generoak onartzen ditu, gertaeren narrazioarekin batera, egilearen iritzi eta balorazioak. Eskuarki, leku eta pertsonen deskripzioak agertzen dira kroniken baitan, narrazioan behar bezala txertaturik. Kronikan egilearen iritzia oso agerikoa baldin bada, kronika hori subjektiboa dela esango da. Egilea bere iritzia ezkutatuko balu, kronika objektiboa dela esango genuke.

Idazkera oso pertsonala izan ohi da, albiste-erreportajetakoa baino gozoagoa, eta autorearen nortasuna ez da ezkututzen. Testu mota honen helburua gertaerak aztertu eta azaltzea da, betiere kontuan hartuta egitatearen datu nagusiak aurrez jakinak direla.

Jose Luis Martinez Albertos-en iritzi, genero hibridoa litzateke genero informatzaile eta editorialerako erabiltzen diren testuen artean.

⁹⁴ “El único límite lo imponen las exigencias de claridad, exactitud y eficacia inherentes a todo periodismo informativo de calidad” (<http://www.ull.es/publicaciones/latina/z8/r4absonia.htm>).

Elkarrizketa

Bi edo pertsona gehiagoren arteko hizketaldia da: elkarrizketatzailea/k eta elkarrizketatua/k, pertsona eta talde baten artekoa izan daiteke ere, asmo jakin batzuei jarraiki egiten dena. Adostutako solasaldia da. Alde biek interesa dute ekintzarengan.

Elkarrizketek forma desberdinak izan ditzakete, gai zehatz batean edo aurrez ezarritako batetik hasiz, gaien inguruan oso irekiak izan daitezkeen haietara bitartekoak hartzen baitituzte.

Ohikoena, ordea, elkarrizketa erdi egituratua da, landu nahi diren oinarrizko galdera eta gai multzo batek zuzentzen duena; hala ere, galderen idazketa zehatza eta ordena ez daude aurrez finkatuta. Elkarrizketaren prozesu ireki eta informal hori, ordea, solasaldi informal baten antzekoa da eta desberdina aldi berean.

Elkarrizketan bakoitzak bere rola du (elkarrizketatzailea–elkarrizketatua). Beraz harreman zuzenekoak, pertsona artekoa (bi pertsona edo gehiagoren artekoa) eta asimetrikoa da (elkarrizketatzaileak aurrez ezarritako helburu jakin batzuk baititu).

Kazetaritzari dagokionez, irudiarekin edo irudirik gabe argitara daitezke elkarrizketak. Mota asko dago:

- Informatzailea edo gaurkotasunarekin loturik baldin badago, berriaren forma dauka eta ez da esaldi testualekin titulua ipintzen.
- Zabaltzeko: gai espezializatuei buruzkoa, esaterako aurrerapen edo aurkikuntza zientifikoak, medikoak, teknologikoak edota gaurkotasun iraunkorra duten gaiei buruzkoak.
- Testigantzakoak: ikusi berri den gertakizun bati buruzko datuak, deskripzioak eta iritziak eskaintzen dituztenak.
- Adierazpenak: datuak, usteak edota iritziak, testualki jaso direnak.
- Inkestak: gai bati buruz herritarren sektore batek dituen iritziak jakiteko egiten diren galderak. Balio handiko informazioa lortzeko edota gizartearen sektore ezberdinek gaurkotasun edota interes iraunkorrari buruz uste dutenak ezagutzeko egiten dira.
- Profila edo bizitzaren deskribapena: biografiarekin antza dauka, eta dokumentuak eta testigantzak ditu iturburutzat gehi elkarrizketatu den pertsonarengandik

jasotzen diren datuak. Guztien artean erretratu idatzia egin daiteke. Elkarrizketatuaren barruko ezaugarriak jakinarazten dira.

- Iritzikoa: elkarrizketa mota honetan elkarrizketatuaren idealak, usteak, iritziak eta adierazpen pertsonalak bilatzen dira.
- “Berria osatzeko”: gai zehatz bati buruzko espezialistari aplikatzen zaio. Normalean berria edota erreportajea osatzeko erabiltzen dira eta jorratzen ari den gaiarekin lotura duten aldeak azpimarratzen dira. Azterketa sakon batekin osatzen dira.
- Galdetegi finkoa: hainbat hedabidetan aldizka erabiltzen da pertsona ezberdinekin. Erregistro ezberdinak jorratzen ditu: umoretik seriotasunerantz.
- Ikerketakoak: ez da elkarrizketa moduan agertzen. Informazioa lortzeko edota alderatzeko erabiltzen da.
- Interpretatzailea: sortzaile edo pertsonaiarena moduan ezaguna. Pertsonaia era globalean du jomuga. Testuaren balio estetikoa eta gizarte-balorea dira alderik garrantzitsuenak.
- “Balioesten duena”; uste batean datza: erakundeek aldatzen dute egiten diren galderen arabera. Euren zailtasunetan sakontzen duten erakundeek gauza bera aurkituko dute, baina beren baitan onena aurkitzen saiatzen dutenek arrakastaren iturria aurkituko dute.

Argazki-albistea

Irudia bihurtzen da albiste. Argazki oina izenekoak argazkian ikusten denaren esanahia ematen/osatzen saiatzen da.

Definizioa bilatzean, antzekoak topa daitezke: “Argazki-albistea da hedabide grafiko batek, egunkari batek esaterako, argitaratzen duen argazkia da. Bere ezaugarriarik nagusiena irakurleengan sortzen duen eragina izanik, beti ere ondoan duen testua kontuan hartu gabe”⁹⁵ (ABC, 2007).

Normalean, argazki-albistearekin doan testua ohiko argazki-oina baino luzeagoa izaten da. Argazki-albisteak, testurik gabe baldin badago ere,

⁹⁵ “La fotonoticia es aquella fotografía que un medio de comunicación gráfico, tal es el caso de un periódico, publica, y que se caracteriza por el impacto que es capaz de despertar en los lectores independientemente del texto que la acompaña.”

balio informatiboa izaten du bertan agertzen den egintza grafikoari esker eta ondoan legokeen testua (argazki-oina adibidez) ez litzateke nabaria izango. Hau da, irudiak dauka balio informatibo nagusia, eraginez eta informatuz aldi berean.

Argazki-albisteetan argazki oinak luzeak dira, hamabost lerro gehienez, eta gainera titulua daukate, baina inoiz ez lerro bat baino gehiagokoa eta ez derrigorrez ezaugarri informatiboarekin.

Argazki-albistea argazki bakar bati lotzen bazaio, gertakizunak hala eskatzen badu, argazki sekuentzia luzeagoa erabil daiteke. Multzo osoa, hau da, argazkia eta oina gehi titulua, ia beti, marra horizontalak “babesten” duten laukian daude, bere presentzia orrialdean nabarmenduz.

Europar hedabideek estreinakoz erabili zuten argazki-albistea. Tresna honek duen abantaila irakurlearengan sortzen duen erreakzio emozionala trinkoagoa da, diskurtso hutsarena baino. Hedabide grafikoek, dena den, sarearen garapena nozituko dute, baina hor ere bere erabilera ziurtzat eman daiteke.

7.8.2.2 *Iritzi generoaren azpikategoriak*

Iritzi artikulua testu-tipo bat da non egileak bere iritzi bat edo iritzi batzuk agerrarazi nahi dituen. Argudio-testu mota bat dela ere esan daiteke. Egileak bere iritzia plazaratuko du, ez beti tesi bat defendatzeko asmoz. Irakurlearen iritzia aldatzea izango litzateke helburu nagusietako bat.

Editoriala

Hedabideak berak idatzitako iritzi artikulua nagusia da. Hedabide edota hedabide taldearen iritzia da. “Artikulu bat web orri, egunkari edota denbora maiztasun erregularrarekin argitaratzen den edozein argitalpenean, argitaletxearen, erredaktorearen edota editorearen iritzia azalduz”⁹⁶ (<http://www.dictionary.com>, 2017).

⁹⁶ “An article in a newspaper or other periodical or on a website presenting the opinion of the publisher, writer, or editor.”

Artikulua

Testu-tipo bat da non egileak bere iritzi bat edo iritzi batzuk agerrarazi nahi dituen. Argudio-testu mota bat dela ere esan daiteke. Egileak bere iritzia plazaratuko du, ez beti tesi bat defendatzeko asmoz. Irakurlearen iritzia aldatzea izango litzateke helburu nagusietako bat. “Iritzi artikulua testu bat da. Bertan egile batek interesgarritzat jotzen duen egintza edo gertakizun bat interpretatzen du, analisi arduratsua eta interpretazio pertsonala eginez, honen inguruko iritzia edo balorazioa plazaratuz”⁹⁷ (Enciclopedia de Características, 2017).

Iritzi sailean argitaratzen edozein artikulua da. Oro har tamaina handikoak.

Zutabea

Kazetaritzan, batez ere prentsa idatzian, maiztasun batez errepikatzen diren artikulua laburrei deitzen zaie zutabeak.

Erabiltzen diren gaiak ez dira beti egunerokotasunari loturik. Zutabeak iritzi artikulua izaten dira maiz, baina ez beti. Artikuluaren mamia egilearen burutazioak baliabide literarioekin apaindurik izaten dira. Egileari prentsa idatzi tradizionalan leku finkoa gordetzen ziotelako eta leku horri zutabe itxura hartzen ziotelako nonbait, hortik zutabe izena.

Egilearen sinadura agertzen da, maiztasunez. Goitizen bat ere izan daiteke.

Egilearen iritziak, analisiak, burutazioak izaten dira artikulua labur hauen mamia.

Igorlea, askotan, ez da hedabideko langilea izaten, baina hedabidean askotan parte hartuz gero erredakzio-taldekotzat hartzen dute askotan irakurleek.

Testu laburrak izaten dira, estruktura nahiko librekoak. Iritzi sailean joan daiteke, baina baita ere informazio baten ondoan, osagarri gisa.

Arestian aipaturikoaren arabera, mota biko zutabeak aurki daitezke:

- Egilearen zutabea. Idazle eta kazetari baten izena edo goitizenak ematen dio nortasuna zutabeari. Batzuetan zutabegilearen argazki eta guzti agertzen da.

⁹⁷ “El artículo de opinión es un texto en el que un autor analiza e interpreta un hecho o una circunstancia de la realidad que juzga de interés, haciendo un análisis cuidadoso y un trabajo de interpretación personal, emitiendo una opinión o juicio valorativo al respecto.”

Irakurleek egilearen estiloa baloratzen badu, egilearen iritziak estimatzen badituzte, zutabeak denboran iraun dezake.

- Gai jakin bati buruzko zutabea. Zenbait egunkari edo aldizkaritan, espazio bat egon daiteke gai jakin bati buruzko artikulua argitaratzeko.

Eskutitza

Irakurleek egunkari edota aldizkari batera bidaliko eskutitzak dira. Zuzendariari eskutitza iritzi-eskutitza mota bat da, egunkari zein aldizkariaren irakurleek idazten dutena gaurkotasuna duen berri bati buruzko iritzia emateko, edozein gertakizuna salatzeke edo babesa adierazteke.

Iritzi atalean kokatzen dira euren esanahia guztiz subjektiboa delako, batzuetan informazioak erabiltzen dituzten arren.

Eskutitza mota hauek egunkari eta aldizkariaren “Zuzendariari gutunak” edo “Irakurleen gutunak” sailetan argitaratuko dira, ezaugarria edozein izanda ere: nazionala, eskualdekoa, lokala, dibulgatzailea edo aisia, besteak beste.

Egunkarian argitaratzean kazetaritza-testua bihurtzen dira, zuzendariari ez baitzaio zuzentzen, irakurle goiari baizik. Honako ezaugarriak dituzte: laburtasuna; gaurkotasun gaiak jorratzen dituzte normalean; hobesten da egunkarian bertan argitaratu den edozer aipatzea; modu atseginean idaztea gomendatzen da; egitura argia eta estilo arrunta eta zuzena behar dituzte; egileak bere egiazko datuak eskaini behar ditu. (Ministerio de Educación y Ciencia, 2008).

Laburbilduago, definizio bat: “Zuzendariari gutunen ezaugarriak honako hauek dira: iritzi publikoaren eta irakurleen balorazioa erakusten dute interes orokorreko gaien inguruan, eta baita euren iritziak, salaketak eta kezak”⁹⁸ (SummonPress, 13). Finean, kazetaritzaren azpigereneroa da, non aldizkari edota egunkariaren irakurleek euren interesa piztu duten gaurkotasunezko gertakizunei buruz, egoera pertsonalei buruz edota argitaratu diren informazioei buruz hitz egiten duten.

Beren jatorriari dagokionez, Vilamor-ek dio Duntonek eta Defoek sartu zituztela XVIII. mendeko lehen herenean “irakurleekin solasaldia” izenpean (Córdoba, 2011).

Izen horrek genero honen funtzio nagusietako bat agerian uzten du: elkarreragiteko aukera, hau da, irakurle eta egileen arteko iritzi trukaketa ahalbidetzea (Fernandez, 2005).

Arestian aipatu den moduan, adituak ez datoz bat zuzendariaren eskutitzak kazetaritza-generoen artean kokatzean. Vilamor-ek baietz dio (Vilamor J. , 2000), eta Yanes-ek ezetz (Yanes, 2004). Erdibidean, aipatzen dituztenak daude, baina gero sailkapenetan desagerrarazten dituztenak ere (Gutiérrez, 1984).

Kazetaritza-generoari buruzko bibliografia espezializatuan ez dago zuzendariari idatzitako gutunei buruzko aipamen zehatza, edo bigarren mailakotzat hartu dira historikoki. Adibidez, Yanes-ek (2004) kazetaritzari erantsitakotzat jotzen ditu eta, ondorioz, berarekin zerikusirik ez dutelakoan dago: “Arriskutsua da Zuzendariari Eskutitza kazetaritza-generotzat hartzea, testuak informazioaren lanbidearekin zerikusirik ez duten pertsonen idazten baitituzte eta, beraz, ez dute inolako loturarik kazetaritzaren estilo-arauekin”⁹⁹ (or. 251).

Vilamor-ek, bere aldetik, eskutitzaren garrantzia berreskuratzen du, irakurleen eta prentsaren arteko komunikazio-trukaketa egiteko, bitartekari bakartzat hartzen ditu eta (Vilamor J. , 2019). Zuzendariari gutunak, irakurleen gutunen genero modernotzat ere har daitezke. Argudio-tonua erabiliz eta gero eta gai “politikoagoak” jorratuz, haien inguruko ikerketen arreta piztu dute. (Bromley, 1998, or. 148)

Bineta

Iritzi sailean argitaraturiko marrazkia gai konkretu bati buruz iritzia emateko, ere umoretsuan edo ez, balio duena. Hau da, prentsa idatzian argitaratzen diren binetak iritzi-kazetaritzaren adierazle dira (Salguero & Gross, 2009).

Binetek garrantzia daukate errealitatearen analisi kritikoan, kazetaritzari dagokion egunerokotasunean, baina baita une historiko zehatz batzuetan ere.

⁹⁸ “Las cartas al director se caracterizan por mostrar la valoración de la opinión pública y los lectores sobre temas de interés general, así como sus opiniones, denuncias e inquietudes”.

⁹⁹ “Nos parece un tanto arriesgado considerarlo [la carta al director] un género periodístico, ya que son textos que están escritos por personas ajenas a la actividad profesional de la información, y, por tanto, no están sujetos a las normas estilísticas propias del periodismo” (251. orria).

Kazetaritza-generoen artean kokatzeko orduan, bineta iritzi-generoetan koka daiteke, zutabeen parean konkretuki. Leon Gross eta Travesedo ikuspegi honekin bat datoz, honako argudiaketa paraleloarekin:

Bineta da, berez, iritzi-genero bat, sinaturik, kazetaritza-pertsonalizazio gradurik altuenarekin, beste egile-genero batek lortzen duenaren parean, zutabe zaletasunak hain zuzen ere. Bietan jarraitutasunak dudarik gabeko generoaren ezagutza finkatzen du [...]. Ez dago zalantzarik bineta bakoitzak orainaldiaren inguruko hausnarketa berekin dakarrela, gaurkotasun informatiboagatik edota solaskide masibo bati zuzentzen zaion iraunaldia duen gaia izateagatik. Hori guztiak bineta iritzi-kazetaritzaren soluzio bezala kokatzen du”¹⁰⁰ (León Gross & Travesedo de Castilla, 2005, or. 59-61) .

7.9 Eduki analisiaren kategoria sistemak

7.9.1 Egilea eta inplikazioa

Sekzio honetan berriaren arduradunaren ezaugarriak azaldu eta aztertuko dira, hau da egile mota (kazetaria, agentzia, erredakzioa bera etab den), egilearen generoa, egilearen inplikazioa berria idazteko orduan eta, amaitzeko, hitz gakoak edo datuak aurreko datuak egiaztatze asmoz.

7.9.1.1 Egile mota

- Kazetaria: informazioan kazetariaren izen-abizenak agertzen dira autore modura.
- Agentzia: informazioa agentzia baten teletipoaren ondorioa da. Agentziaren izenarekin sinatzen da.

¹⁰⁰ “La viñeta es, de hecho, un género de opinión, firmado, con el máximo grado de personalización periodística, como sólo alcanza otro género de autor, el columnismo, y en ambos la continuidad consolida el reconocimiento de un estilo inequívoco [...]. No hay duda de que cada viñeta entraña una reflexión acerca del presente, bien por actualidad informativa o por tratarse de un asunto con vigencia y relevancia dirigido a un interlocutor masivo. Eso sitúa a la viñeta como solución característica del periodismo de opinión” (59-61. orria).

- Erredakzioa: informazioa erredakzioan idatzi denean, baina egilearen edota agentziaren izenak aipatu barik. Normalean egunkariaren izenarekin sinatzen da.
- Ez-sinadura: berriaren sinadurarako tokia hutsik agertzen denean.
- Beste: beste edozein era berria egiteko.

7.9.1.2 Egilearen generoa

- Gizon: berriaren idazlea gizona denean
- Emakume: berriaren idazlea emakumezkoena denean.
- Besterik: emakume/gizon dikotomian sartzen ez den oro.
- Ezezaguna: berriaren egilearen generoaz ezer ez dakitenean.

7.9.1.3 Egilearen inplikazioa

Inplikazioa, kontzeptu modura, honela definitu daiteke: zerbaitetan parte-hartzea norberaren borondatez.

Nola definitu daiteke inplikazioa edo informazio egilearen borondatezko parte-hartzea informazioan? Gure ikerketari dagokionari begira, idazten duenak protagonismoa bereganatzen du edo bereganatu gura du, hau da, eskaintzen duen informazioaren parte bat dela nabarmen adierazi nahi du.

Egilearen inplikazioa kuantitatiboa edo kualitatiboa izan daiteke. Kuantitatiboa definitzen da, testuan aztarnak maiztasun handiz uzten dituenean; eta kualitatiboa, aztarnaren kopuruaz aparte, egilearen presentziak informazioaren toki edota zeregin garrantzitsua betetzen duenean.

- Bai: kazetariaren inplikazioaren aztarnak daude (aditzaren lehen pertsona singularra edo plurala sartzen du).
- Ez: kazetariaren inplikazioaren aztarna nabaririk ez dago idatzian.
- Ez dagokio .

7.9.1.4 Inplikazioaren gaineko datuak

Atal honetan idatziko da zer inplikazio-datu dagoen informazioan, hau da, zeintzuk diren aztarna garbiak inplikazioaz hitz egin ahal izateko.

Normalean egilearen parte-hartze aktiboa azpimarratzen da, singularraren eta pluralaren lehen pertsonetan, hau da, protagonismoa nabarmentzeko hitzak eta esaldiak erabiltzen dira, askotan pertsona-izenordainak (ni, neu, nik, geu, guk, etab.) argi eta garbi uzteko idazten duena informazioaren muinean dagoela.

7.9.2 Edukien kategoria sistema nagusia

Azpiatal honetan Tourra-ri buruzko prentsa idatzietan agertzen diren informazioetako gaiak aztertuko ditugu. Konkrétuki zer nolako aldea dagoen garai eta jatorri ezberdinetako egunkarien artean gaiak jorratzean, zertaz doan informazioa, zeintzuk diren gaiak: kirola, dopina, ekonomia, teknologia, gatazkak etab.

Arestian aipaturikoaren arabera, kategorien honako sailkapena egin da: kirola, dopina, ekonomia, teknologia, gatazka, gertakariak, eta beste. Jakina, kasu guztietan Tourrarekin erlazionatuta egongo dira.

7.9.2.1 Kirola

Definizio teoriko modura, kirola, jolas edo lehiaketa helburu duen ekintza da, giza gorputzaren ahalegina edo gaitasuna eskatzen duen jarduera hain justu ere. Kirola banaka nahiz taldeka egin daiteke. Kirolaren helburu nagusia gaitasun fisikoak iraunaraztea eta handitzea da, baita arintasuna, mugimendua edo indarra areagotzea ere. Kirol ekintza antolatu guztien helburua markak haustea edo aurkakoari nagusitzea da. Horregatik, aldi jakinetan, lehiaketak edo txapelketak antolatzen dira mundu osoan.

Kirolerako Europako Kartan eta Kirolerako Europako Kartaren proiektu berrian, 2.1 artikuluan zera adierazten da:

Kirola bezala aktibitate fisiko guztiak ulertuko dira, organizatua den edota beste era bateko partaidetza bat dela medio, eta espresioa edota kondizio fisiko eta psikikoaren hobekuntza izango dutelarik helburutzat, baita erlazio sozialen garapena edota nibel ezberdinetako txapelketa guztien emaitzen lorpena ere” (Otxandorena, 2014).

Definizioaren inguruan beste ñabardura batzuk egon badaude: “Egoera fisiko on, ongizate mental eta interakzio soziala ahalbidetzen duten aktibitate fisikoaren edozein modalitate bezala ulertuko da. Aktibitate fisikoaren modalitate horien artean jolasa, aisia, kirol informala (organizatua edota txapelketakoa) eta joko edota kirol autoktonoak aurkitzen dira” (Barrio, 2009).

Jakina, hainbat autorek dioten modura, kirola pertsonak batzeko hizkuntza unibertsala da, berauen jatorri, erlijio-sinesmen edota estatus ekonomikoa inportagabe (Annan, 2004), kirola bizitzako eskolarik hoberena da (Ogi, 2003), (María Barrio Rato, 2010).

Lanerako definizio modura, "kirol" kategorian sartzen da kazetaritza-eduki batek Tourra-ren kirol-jarduerari buruz prezeski informatzen duenean. Adibidez, kirol lorpen zehatz bati buruz, demagun etapa bat erdiestea, irudian ikus daitekeena, *Berria* egunkariaren azalean 2013ko ekainaren 30ean.

Irudi 9: Kirol kategoriari dagokion eduki bat.



Iturria: Berria egunkaria

7.9.2.2 Dopina

Definizio teoriko modura, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak -ofizialki Agence Mondiale Antidopage (AMA)- honako egintza hauek dopintzat hartzen ditu:

- Debekatutako sustantzia baten presentzia, edota bere metabolito edo markatzaileena, kirolari baten lagin biologikoan.
- Erabili, edo saiatu erabiltzen, debekaturik dagoen substantzia edota metodorik.

- Dopinaren aurkako kontrolari uko egin edo edozein eraz ekidin, aurrez aurretiko baliozko justifikaziorik gabe.
- Kirolariaren kokalekua ez betetzea.
Arau haustetzat honako hauek hartuko dira:
- Hiruko edozein konbinazioa urtebetean -hamabi hilabete-, bai huts egindako hiru kontrolengatik, edo kirolariaren kokalekua ez emateagatik.
- Manipulatu, edo manipulatzeko saiatu, dopin kontrolaren edozein fase.
- Substantzia edota debekaturiko metodoren bat eduki, erabilpen terapeutikorako dagokion baimenik gabe.
- Substantzia edota debekaturiko metodo batekin trafikatu.
- Kirolari bati eman edo ematen saiatu edozein debekaturiko substantzia edota metodoa; konplizitatea, estalketa edota zirrikada beste kirolariei eurek dopa daitezen.
- Konplizitatea, konplizea izateko edozein asmo, dopinaren aurkako arau-haustearekin loturik edo dopinaren aurkako arauak bestelako pertsonaren eskutik edozein saiakera.
- Elkartzeko-hitzarmena debekaturik edozein pertsonarekin, kirolaria zigorra betetzen ari den bitartean, edota kondenaturik dagoena edo erruduna dela zigor-, diziplina- edo lanbide- prozesu batean dopinaren aurkako arau-haustearen ondorioz.

Garrantzitsua da oso azpimarratzea azken finean kirolaria dela arduradunik oinarritzkoena bere osasuna eta joko garbia zaintzeko. Beraz, bere organismoan edozein substantzia debekaturik detektatzen baldin bada edo debekaturik dagoen metodoa erabili dela haute-ematen bada, kirolariak oharkabean egin badu ere, kirolaria dopatu dela kontsideratuko da eta dagokion zigorra ezarriko zaio¹⁰¹ (Ministerio de Educación, 2019).

¹⁰¹ “La Agencia Mundial Antidopaje (AMA) considera como dopaje cualquiera de los siguientes hechos: Presencia de una sustancia prohibida, o de sus metabolitos o marcadores, en la muestra biológica de un deportista. Uso, o tentativa de uso, de una sustancia o método prohibido. Negarse a pasar un control antidopaje o eludirlo de cualquier manera, sin una justificación válida. Incumplimiento de la localización o paradero del deportista. Se considerará una infracción, cualquier combinación de tres, bien sea de controles fallidos o de la obligación de facilitar la localización del deportista, dentro de

Lanerako definizio modura zera jarri da: hedabideetako eduki batek dopinaren gaia aipatu edo lantzen badu, kategoria honetan kodetuko da.

7.9.2.3 *Ekonomia*

Ekonomia (antzinako grezieratik: *oikos*, «etxe» + *nomos*, «lege», hau da, «etxeke legea») gizabanakoaren zein gizartearen beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, trukaketa, banakuntza eta kontsumo prozesuak eta prozesu hauek eragiten dituzten gizarte harremanak aztertzen dituen gizarte zientzia da. Aldi berean, kolektibitate edo gizabanako baten aberastasuna osatzen duten ondasun eta ekimen multzoa da, finean administrazio eraginkorra eta zentzuzkoa behar duena.

Kirol arloan oro har eta, modu eraginkorrean, Frantziako Tourrean konkretuki, ekonomiarekin loturiko prozesuei buruz eta prozesuak eragiten dituzten gizarte harremanei buruz, albisteek gai asko jorra dezakete:

- Txirrindularien lekualdaketak txirrindulari-taldeen artean.
- Txirrindulari-taldeen babes kontratuak.
- Lasterketetarako aurrekontuak.
- Sariak lasterketak irabazteagatik.
- Sariak etapak antolatzeagatik.

un periodo de doce meses. Manipulación, o tentativa de manipulación, de cualquier fase del control de dopaje. Posesión de una sustancia o método prohibido sin la autorización de uso terapéutico correspondiente. Tráfico de una sustancia o método prohibido. Administración, o intento de administración, de una sustancia o método prohibido a un deportista, así como cualquier tipo de ayuda, complicidad, encubrimiento o incitación a otros deportistas a que se dopen. Complicidad, cualquier tipo de complicidad intencional en relación con una infracción de las normas antidopaje o cualquier intento de infracción de las normas antidopaje por otra persona. Asociación prohibida, la asociación con cualquier persona de apoyo al deportista que esté cumpliendo un periodo de suspensión, o haya sido condenado o hallado culpable en un procedimiento penal, disciplinario o profesional, por haber incurrido en conductas constitutivas de una infracción de las normas antidopaje. Es muy importante hacer hincapié en que, en última instancia, el deportista es el responsable principal de velar por su salud y por el juego limpio. Por tanto, si se encuentra cualquier sustancia prohibida en su organismo o se descubre la utilización de un método prohibido, aunque el deportista haya obrado inconscientemente, se considerará que dicho deportista se ha dopado y será sancionado en consonancia.”

- Etapa bat antolatzeagatik ordaindu den diru kopurua, edozein erakundearen aldetik.

7.9.2.4 *Teknologia*

Teknologia, grezierazko τεχνολογος-tik, tekne (τεχνη, "zientzia, arte, edo lanbide") eta logos (λογος, "jakintza-multzoa") hitzez osatuta dago. Hainbat definizio dituen arren, kontzeptu zabalenean, espezie batek tresnak sortu, erabili eta ingurunea bere nahi eta beharretara aldatzeko duen jakintza-multzoari deritza teknologia. Teknologia hain zuzen, objektu horiek guztiak diseinatzeko eta fabrikatzeko teknikak, makinak eta prozesuak aztertzen dituen diziplina da teknologia. Kontuan hartzekoa da prozedura eta metodo teknikoek eta tresnek ere teknologia osatzen dutela.

Oro har, kirolari dagokionez, aurrerapen teknologikoek eragina izan dute eta txirrindularitza ez da salbuespena izan, gurpilaren asmakizunetik hona. Kirol jardueran, bereziki goi mailan, ezagutu diren garapen teknologikoek muga asko txikitu dituzte.

Frantziako Tourrean teknologiarekin loturiko albisteek gai asko jorra dezakete. Esaterako:

- Lasterketaren antolamenduan erabili diren aurrerapen teknologikoak (kronometrajea, irteera-helmugak antolatzeko edota barne komunikaziorako teknikak, esaterako)
- Emankizunetan erabilitakoa.
- Kirol materialean erabilitako teknologiak.
- Beste batzuk.

7.9.2.5 *Gatazka*

Zer da gatazka? Definizio ezberdinak topa ditzakegu. Gatazkak balizko egoera bi edo gehiago baztertzaila direnean, hau da, aldi berean ezin dutela izan edo gertatu. Beraz, gatazkaren eskutik borroka bat dator, era askotakoa izan daitekeena, eta borroka horretan alde batek bestea/k gairiditzen saiatzen da nahita nahiez.

Hona hemen definizio bi: “Gatazka da, bi pertsona edo gehiagoren elkarrekintzan duten helburu bateraezinak dituztenean edota horrela dituztela uste dutenean” ¹⁰² (Lederach, 1984, or. 72) eta “Gizakiaren berezko egoera gatazka da” ¹⁰³ (Mendel, 1984, or. 13).

Gatazka ez da biolentziaren baliokidea. Gatazka ez da memento zehatz bat, prozesu bat baizik. Gatazka ez da ona edo txarra.

Definizio operatiboari dagokionez, gatazkak Tourrean anitzak izan daitezke: kirolariak eta antolatzaileen artean; kirolarien artean; antolatzaileak eta hedabideen artean; kazetarien eta txirrindularien artean; antolatzaileen eta erakunde edota alderdi politiko/sindikalen artean; erakunde eta alderdi politiko/sindikalen artean; zaleen artean; zaleen eta txirrindularien artean; eta bestelakorik.

7.9.2.6 Gertakariak

Gertakariaren definizio osagarriari dagokionez, gertaera bat da. Operatiboki definituta, Tourrean gertatzen direnak anitzak izaten dira: istripuak, lasterketaren geldiuoneak, bide mozketak, grebak etab.

7.9.2.7 Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta Tourrarekin zerikusirik izan ditzaketeenak.

7.9.3 Eduki nagusien azpikategoria sistema

Azpiatal honetan kategoria nagusien (kirola, dopina, politika, ekonomia, teknologia, gatazka, etab.) barruan dauden azpikategoriak izendatu eta definituko dira. Adibidez, "kirola" izeneko kategoria nagusia hainbat azpikategoriatan banatuta dago: lasterketa, txirrindulari, antolaketa, historia, beste.

¹⁰² “Un conflicto es la interacción de dos o más personas con objetivos incompatibles o cuando piensan que lo son” (72. orria).

¹⁰³ “El estado natural del hombre es el conflicto” (13. orria).

7.9.3.1 Kirola kategoriaren azpikategoriak

Lasterketa

Lasterketa bat da lasterka egiteko ekintza, korrika egitea, laster eginez. Txirrindularitzan txirrindularitza-lehiaketak, hau da lasterketak, pistan nahiz errepidean egiten dira.

Errepideko lasterketetan irteera denei batera ematen zaie. Amateurrek 180 km egiten dituzte eta profesionalek 250-300 kilometro inguru. Itzuli handienetan (Tourra kasu) gaur egungo joera gero eta etapa txikiagoak egitea da. Proba hauetan garrantzia izaten dute taldetik ihes egiteak (batez ere aldapa pikoetan) edo azkeneko sprintak, helmugara taldean heltzen direnean. Erlojuaren aurkako probetan ziklistak bakarka abiatzen dira minutuko edo bi minutuko aldearekin, eta ibilbidea egiten denbora gutxiena ematen duenak irabazten du. Etapakako lasterketetan iraupena hiru egunetik hainbat asterainokoa izaten da eta egunero etapa bat edo bat bi sektoretan banaturik korritzen dira. Etapa gehienak errepideko lasterketak izaten dira, eta baten bat erlojuaren aurkako proba izan daiteke, bakarka edo taldeka. Etapa bakoitzeko liderrak elastiko berezia eraman ohi du.

Txirrindulari

Txirrindularitza kirol bat da. Bizikleta erabiliz egiten den kirola hain justu ere. Txirrindularitza joko olinpikoa da 1896az geroztik. Sprinta eta jazarpena proba olinpikoak dira; ez, ordea, pistan eta 100 kilometroz airea ebakitzen dion motozikletaren atzetik egiten diren txirrindularitza lasterketak. Txirrindulariak txirrindularitzan diharduen kirolariak dira. Tourrean, logikoa denez, txirrindulariekiko lotura duten albisteak anitzak dira. Txirrindulari profesionalentzat etapakako lasterketa famatuena Frantziako Tourra bera, Italiako Giroa eta Espainiako Vuelta dira.

Antolaketa

Antolatzea edo egitura ematea; horren ondorioa; edozein gauza prestatzea da. Edozein ekitaldia antolatzeko ardura duten pertsonak osatzen dute antolakuntza. Tourra-ri dagokionez lasterketa bera eta lasterketaren gainerako egiturak antolatzeko

berriak anitzak dira, antolatze lanei buruzkoak eta lasterketaren antolakuntzarekin loturik daudenak ere.

Historia

Historiak definizio asko biltzen ditu bere baitan. Lehendabizikoari so eginez, gizadiaren (edo gizarte, giza talde nahiz banako baten) iraganaldiko gertaeren segida; direlako gertaeren kontakizuna da. Tourra-ri dagokionez bertan gertatu diren gertaeren kontakizuna da. Tourra-ren historian, bere erlatibotasunean, tokia izan duten gertakizunik azpimarragarrienak jasotzen dira.

Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta Tourrarekin zerikusirik izan ditzaketeenak.

7.9.3.2 Dopin kategoriaren azpikategoriak

Harrapaketa

Harrapaketa harrapatzearen edo harrapakatzeko ekintza eta horren ondorioa da. Txirrindularitzan harrapaketa kontsidera daiteke txirrindulari batek dopinaren aurkako ikerketa ezberdinen ondorioz (odol eta gernu analisiak, pasaporte biologikoaren datuak, etab.) “positiboa” ematen duenean.

Analisia

Analisia da substantzia konposatu edo nahaste baten osagaiak identifikatzea, edota bakoitzak zein portzentajea duen kalkulatzea. Kategoria honetan kontsideratuko da dopinaren inguruko arautegia betetzen dela egiaztatzeko egiten diren froga guztiak, lasterketan bertan, lasterketa korritu baino lehen, lasterketan zehar edota ondoren burutzen direnak.

Zigorra

Hutsegite edo delituren baten ordainetan, horretarako esku duenak ezarritako betebeharra da zigorra. Txirrindularitzan analisisien osteko emaitzen arabera kirol edo beste motatako zigorrak sartuko dira hemen.

Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta dopinarekin zerikusirik izan dezaketeenak.

7.9.3.3 *Ekonomia kategoriaren azpikategoriak*

Kontratuak

Bi alderdiren arteko akordio juridikoak dira, batak besteari zerbait eman, egin edo ez egiteko obligazioa hartzen denean. Txirrindularitzari dagokionez, talde zuzendariak, teknikariak, mekanikoak, sendagileak, edozein motako laguntzaileak edota txirrindulariak kirol talde batekiko lotzen dituzten akordioak dira.

Babesleak

Zerbait edo norbait babesten duena (bereziki pertsona edo izaki bizidunez eta erakundeez esaten da). Txirrindularitzan babesleak dira kirol talde bat diruz babesten dutena enpresak edota erakundeak. Horren truke kirol taldeak enpresa edota instituzioaren izena euren kirol arropan darama eta baita erabil daitezkeen euskarrietan ere (esaterako kotxeetan, karteletan, argitalpenetan etab).

Etekinak

Edozein ondasun, merkataritza-eragiketa, lan, etab. eskuratzen den onura, irabazia. Txirrindularitzan etekinak ez dira neurtzen kirol taldeek eskuratzen dituzten diru-irabazien arabera, ez baita euren helburua. Ikerketa honetan etekinez ari garenean lasterketa batean kirol lorpenen ondorioz jasotzen den diru kopurua litzateke etekina.

Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta ekonomiarekin zerikusirik izan ditzaketenak.

7.9.3.4 *Teknologia kategoriaren azpikategoriak*

Materiala

Jarduera baterako behar den gai, tresneria edo baliabideen multzoa. Tourra-ren gaurkotasunari dagokion eta txirrindularitzan jarduteko beharrezkoa den materialari buruzko aipamenak neurtuko dira atal honetan.

Eboluzioa

Mailaz mailako aldaketa; aldaketa baten egoera jarraien multzoa kontsidera daiteke eboluzioa. Teknologian eboluzioa etengabekoa da eta txirrindularitzan gauza bera dakusagu, bai materialetan eta baita ere horren inguruko aurrerapen teknologikoetan.

Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta teknologiarekin zerikusirik izan ditzaketeenak.

7.9.3.5 *Gatazka kategoriaren azpikategoriak*

Politikoa

Definizio osagarria honako hau litzateke: pertsona, talde, enpresa, eta abarrek helburu jakin bat lortzeko duten jarduera- eta prozedura-multzoa. Definizio operatiboari begira, ikuspegi politikoaren ondorioz gatazkak sor daitezke eta gatazka hauek lasterketan bertan isla daitezke ere.

Ordena publikoa

Definizio osagarria honako hau litzateke: “Ordena publikoa instituzio publiko zein pribatuen ohiko funtzionamenduaren egoera da. Bertan agintariek dagozkien berezko atribuzioak gauzatzen dituzte eta pertsonak era baketsuan euren eskubide eta askatasunak gauzatzen dituzte”¹⁰⁴ (DRAE, 2014). Legitimotasun kontzeptuarekin estuki

¹⁰⁴ “El orden público es la situación de normal funcionamiento de las instituciones públicas y privadas, en las que las autoridades ejercen sus atribuciones propias y las personas ejercen pacíficamente sus derechos y libertades” (DRAE).

loturik dago botere politikoa gauzatzean eta baita ere gizarte-adostasun kontzeptuarekin.

Zuzenbide Zibilaren ikuspuntutik, ordena publikoa garai zehatz batean herriaren gizarte-ordena kontserbatzeko betebeharrezko oinarri juridiko, politiko, moral eta ekonomikoen multzoa da (Rodríguez-Cano, 2011). Adierazpen moduan, gehienetan zentzu negatiboa nagusitzen da, ordena hierarkia sozialarekin, instituzioekin eta sistema politikoarekin parekatuz, hau da, desordena ezarritako "ordenaren" aldaketa da. Definizio operatiboari dagokionez, ordena publikoarekin loturiko berriak bortizkeria politikoarekin, liskarrekin, lasterketa eteteko kanpoko edozein faktorearekin lirateke, oro har, zigorgarri izan daitekeen edozein indarkeria.

Instituzionala

Instituzioetakoa edo instituzioei dagokiena da. Beraz, definizio operatiboak zerikusia dauka edozein instituzioaren erabakiak Tourreko antolakuntzarekin / antolatzailearekin gaztaka sortzen duenean.

Grebak

Greba bat pertsona edo talde batek presio soziala egiteko asmoz ekintza bat edo batzuk egiteari uztea da, honen bidez helburu bat lortzeko asmoz. Lan greba bat taldean burutzen den ekintza da, langile talde batek burutua. Langileek dagokien lanaren zati bat edo lanaldi osoa egiteari uzten diote. Arrazoi politiko edo sozialek sustatzen dutenen greba, alegia, langileen interes profesionaletik kanpoko arrazoi baten defentsan egiten dute greba. Bestelako helburuak lortzeko ere erabili izan ohi da. Grebek eragina dute Tourrean euren isla errepidera heltzen denean.

Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta era ezberdinetako gatazkekin zerikusirik izan ditzaketeenak.

7.9.3.6 Gertakari kategoriaren azpikategoriak

Istripuak

Definizio osagarria hauze litzateke: Ezbeharra, bereziki bat-bateko eta ustekabeko gertaera, ondorio okerrak dituena. Definizio operatiboa bizikleta-istripuari dagokio, zehazki txirrindulariek lasterketan edo lasterketaren inguruan eduki ditzaketeenak lasterketa bera prestatzen edo lasterketaren bilakaeran. Aldi berean, lehiaketaren ingurukoek eduki ditzaketeenak (laguntzaileek -taldeetako partaideak edota antolatzaileak-, publizitate-karabanakoek, publikoak, etab.)

Beste

Aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta era ezberdinetako gatazkekin zerikusirik izan ditzaketeenak.

7.10 Protagonistaren azterketa

Protagonista da edozein ekintzatan zeregin edo zati garrantzitsuena duen pertsona edo gauza. Aldi berean, literatura, antzerki- edo zinema-obra bateko pertsonaia nagusia litzateke. Protagonista protagonismoarekin du harreman zuzena, hau da protagonista denaren nolakotasuna da edota jarduera jakin batean pertsona edo pertsona-talde batek nabarmen agertzeko duen joera. Hauxek lirateke definizio teorikoak hiztegiaren esanahi zehatzari loturik.

Dena den, lanerako definizioari dagokionez, Frantziako Tourrean zeregin garrantzitsua duten pertsona zein kolektiboak lirateke. Hauen artean honako hauek, behinik behin, aurki daitezke: txirrindulariak, zaleak, taldeetako laguntzaileak, antolatzaileak eta antolakuntzaren laguntzaileak edota agintari instituzionalak.

7.10.1 Protagonista mota

- **Txirrindulari:** txirrindularia da txirrindulaz dabilena. Txirrindularitza praktikatzen duena. Frantziako Tourra-ri dagokionez tropelean lehiaketan parte hartzen dauden txirrindulari profesionalak dira.

- **Zale/zaletu:** zerbaitetarako joera edo grina duena edo zerbait atsegin duena eta zaletu da zale bihurtzen dena, kasu honetan txirrindularitzaren zaletua oro har eta Tourra-rena zehazki.
- **Laguntzaile:** laguntzen duena, bereziki norbaiti zerbaitetan laguntzen diona edo zerbaitetarako laguntza ematen diona (Hiztegi Enziklopedikoa, 2017) Tourrean laguntzaileak lasterketa korritzen duten taldeetan daude, eta era askotakoak izan daitezke: laguntzaile medikoak, laguntzaile teknikoak, mekanikariak etab. Halaber, lasterketaren beraren laguntzaileak egon daitezke.
- **Antolatzaile:** zerbait antolatzen edo konpontzen duena. Kirolari begira zernahi ekitaldi antolatzen duen pertsona edo erakundeaz esaten da. Tour bezalako txirrindularitza lasterketak antolatzen dituen, bai pertsona fisikoa edo erakunde publiko zein pribatua.
- **Agintari instituzionala:** aginte postua daukana, aginpidea edo aginpideren bat duen pertsona, bai instituzio publikoetan bai txirrindularitzarekiko harremana duten kirol erakundeetan (esaterako: federazioetako buruzagiak, gizarte- edo politika- erakundeetako partaideak).
- **Beste:** aurrekoetan agertzen ez den edozein protagonista.
- **Ez (ez dago):** berrian ez da inolako protagonista espliziturik agertzen.

7.10.2 Protagonistaren leinu esplizitatua

Informazioan agertzen diren protagonisten **leinua eta azpi-leinua** (probintziako edo hiriko leinua) zehazki adierazita badago, hurrengo kategorien arabera kodetuko da:

- **Espainiarra:** aztertutako berrian esplizituki protagonistaren leinua espainiar leinua (edo azpi-leinua) dela adierazten da.
- **Frantsesa:** aztertutako berrian esplizituki protagonistaren leinua frantziar leinua dela adierazten da.
- **Euskalduna:** aztertutako berrian esplizituki protagonistaren leinua euskal leinua dela adierazten da (bertan sartzen da “nafarra”).

- **Batzuk:** aztertutako berrian esplizituki protagonisten leinua frantziarra, espainiarra edota euskalduna dela adierazten da, hau da, arestian aipatutakoren bat baino gehiago.
- **Beste:** beste edozein nazioen leinua esplizituki aipatzen denean.
- **Ez dagokio:** aztertutako berrian ez da esplizituki azaltzen protagonistaren leinua.

7.10.3 Protagonistaren generoa

- **Emakume:** berriaren protagonista emakumezkoena da.
- **Gizon:** berriaren protagonista gizonezkoa da.
- **Besterik:** emakume/gizon dikotomian sartzen ez den oro.
- **Ez dagokio:** ez da azaltzen protagonistaren generoa.

7.10.4 Protagonistaren kolektibitatea

- **Indibiduala:** berriaren protagonista indibiduala da edo bere indibidualtasuna azpimarratu egiten da.
- **Multzo:** berriaren protagonistari lotuta kolektiboa azpimarratzen denean.
- **Ez dagokio:** berriaren protagonistaren inguruan ez direnean aipatzen indibidualtasuna edo kolektibitatea

7.10.5 Protagonistaren izena

- **Izena:** berriaren protagonistaren izena agertzen da.
- **Gabe:** berriaren protagonistaren izena ez da agertzen.
- **Beste:** berriaren protagonistaren izena ez da agertzen, baina goitizenak edo antzekorik ager daitezke protagonistarekin harremana dutenak.

7.11 Nazio-identitatearen diskurtsoa eta enkoadrea/framinga

Sekzio honetan jakin nahi da, ikertutako edukietan nola agertzen den nazio-identitatea eta honen gaineko diskurtsoa. Hainbat ezaugarri eta kategoria erabiliz, interpretazio-marko desberdinak eraiki ahal izango dira, hurrengo kontzeptu-marko eta parametroen harira:

- Ikurrak edo sinboloak.
- Leinua.

- Gatazka.
- Aurkakotasuna.
- Irudi positibotasuna

Aipatutako interpretazio-marko edo frame bakoitzean analisi propioa bideratuko da nazio-identitatearen kontzeptuaren inguruan. Baina egia da, halaber, horiek elkarren osagarri ere izan daitezkeela eta, ondorioz, meta-marko interpretatibo bat ere eraiki litekela. Horrela, tesi honetan ikertuko da nolako interpretazio-marko konbinatuan kokatzen dituen herrialde bakoitzeko prentsak (Frantzia, Espainia, Euskal Herria) nazio-identitate nagusienak (euskalduna, espainiarra, frantsesa).

7.11.1 Naziotasunaren presentzia: esplizitua eta inplizitua

Azpiatal honetan, egunkarietako edukietan naziotasunaren presentzia aztertzen da, alegia, agertzen den nazio-identitate esplizitu eta inplizituaren batuketa edo konbinazioa, parametroak herrialdeka eta urtealdika hartuz. Beraz, naziotasunaren presentzia, esplizitua eta inplizitua, metakategoria modura eraiki da, hainbat azpikategorien batuketa erabiliz.

Naziotasun esplizituan bi azpikategoria *bakun* daude (bai-leinua, bai-ikurra) eta esan nahi du albiste bat irizpide horietako batean kodetu dela, albistean edo iritzi-artikuluaz azpikategoria horietako bat soilik agertzen delako. Naziotasun esplizituaren beste kasu batzuetan bi azpikategoria horien *konbinazioak* dira (bai-ikur/leinu) eta esan nahi du albiste batean ikurra eta leinua agertzen direla.

Naziotasun inplizituan kodetzen dira, ikur eta leinu espliziturik ez izan arren, naziotasunarekin zerikusia duten gatazka, aurkakotasun eta positibotasun aztarnak, markak edo seinaleak agertzen direnean edukietan eta, ondorioz, hiru zutabe horietako batean edo batzuetan (gatazka, aurkakotasuna eta positibotasuna) edukia kodetuta dagoenean. Beraz, hemengo azpikategoriak hauek dira: bai-gatazka, bai-aurkakotasuna, bai-positibotasuna, eta horien konbinazio posibleak.

Emaitzak ateratzeko orduan, kodetzearen ordenak garrantzia du eta, horregatik, lehenik azpikategoria esplizituak kodetu dira eta ondoren inplizituak. Halaber, lehenik bakunak eta ondoren konbinazioak.

7.11.2 Nazio-ikurrak

Ikurra edo sinboloa (antzinako grezieratik σύμβολον 'símbolon') zerbaiten adierazgarri den irudizko zeinua da, izaki biziduna, gauza edo tresna. (Wikipedia, 2018)

Horren inguruan Victor Turner (1967) ikertzailearen iritziz, sinboloek alde bi dauzkate, alde batetik ideologikoa –gizartean indarrean dauden baloreak eta arauak agerian uzten dituenak– eta beste bat sentsoriala, emozioarekin eta desioarekin lotura duena

Nazioarekin harremana duten sinboloei dagokienez, Otto Yelaren aburuz, “sinbolo haiek, aberriko sinboloak izendatzen ditugunak, pizgarri emozionalak dira, jendea hunkitzeko gaitasuna dutenak”¹⁰⁵ (Yela, 2016).

Pauso bat harago, nazio-sinboloak estatuak, nazioak eta herrialdeak ordezkatzen dituztenak dira eta, aldi berean, beste estatuen aintzatespena dituztenak. Sinbolo hauek bisualizazio bitartez formulatzen dira, baina baita ahozko ordezkapenen bitartez ere herrialde baten historiaren edota pertsonaien baloreak zabaltze aldera.

Nazio-sinboloen bitartez, nazio bat bere buruarekin identifikatzen da eta besteetatik bereizten da. Haien inguruan herritarrak biltzen dira eta taldeko kide izatearen sentimendua indartu egiten da.

Erabiliak bandera, nazio-kolorea, ereserkia eta armarrak diren arren, nazio-animalia edo nazio-lorea ere nazio-sinboloak izan daitezke:

Lanerako definizioari dagokionez, nazio ikurrak lirerateke nazio baten izaera islatzen duten ikurrak, esaterako banderak, armarrak, maillotak, hizkuntzak edota ereserkiak, besteak beste.

7.11.2.1 Ikurren presentzia

Ikurrak mota askotakok izan daitezke: materiazkoak (esaterako, gurutzea Kristautasunaren ikurra da), ikustekoak (gorri kolorea higikunde komunistaren ikurra da), ahozkoak (hitz guztiak ikurrak dira), zenbakizkoak, soinuak.

¹⁰⁵ “Estos símbolos, que llamamos patrios, son una serie de estímulos emocionales que tienen el poder de conmover a la gente.”

Definizio operatiboari dagokionez, Tourra-ri buruzko informazioan eta iritzian **nazio-ikurren** presentziaz arduratuko litzateke, hau da, ea lasterketan bertan eta bere inguruan nazio-ikurrak (bandera, armarrria, etab.) agertzen diren edo ez.

- Bai: nazio-ikurrak lasterketan agertzen direnean.
- Ez: lasterketan nazio-ikurrak agertzen ez direnean.

7.11.2.2 *Ikur motak*

Hemen kodetuko dira informazioetan agertuko diren nazio-ikurrak, batez ere irudi zein grafikoetan.

- **Bandera:** estatu, nazio edo talde baten koloreak edo armarrria dituen ehun-zatia, ikurtzat erabiltzen dena. Askotan albo batetik masta edo makila bati atxikia egoten da. Esaterako Euskal Herriko banderari ikurrin esaten zaio. Halaber aldarrikapen zehatz baten ikurra izan daiteke bandera.
- **Armarrria:** leinu, hiri eta abarren ezaugarri den ezkutu-moduko irudia, bereziki harrizkoa eta etxearen ate nagusiaren gainean agertzen dena. Armarrriak XVII. mendean agertu ziren, zaldunen ezkutuetan pintaturik, borroka-tokia elkarrengandik bereizteko asmoarekin. Euskal Herrian Nafarroako Antso VI.aren arrano beltza izan zen lehenetarikoa. (Hiztegi Enziklopedikoa, 2017) Tourra-ri dagokionez, estatu, nazio edo beste kolektibitate baten armarrriak agertzen direnean, kartel edo ehun-euskarrietan batik bat.
- **Maillot:** maillotak dira bereziki txirrindulariek daramaten elastikoa. Tesi honetan, Tourrean -lasterketan bertan-, edota bere inguruan -zaleen artean- txirrindularitza taldeen mailloten presentzia aztertuko da, nazio ikurrei dagokienez, alegia, banderak edo estatuaren koloreak daramatzaten maillotak.
- **Hizkuntza:** giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten adierazpidea. “Ahozko komunikazio sistema, giza komunitate bati dagokiona eta orokorki idazketa ere duena”¹⁰⁶ (DRAE, 2014). Hizkuntza, adierarik zabal eta irekienean, pentsamendua adierazteko eta komunikatzeko gizakiak duen gaitasuna (lengoaia) gauzatzeko, komunitate linguistiko bakoitzak erabiltzen duen ahozko sistema da

(Hiztegi Enziklopedikoa, 2017). Operatiboki, Tourrean erabiltzen den hizkuntzaren inguruko berriak aztertuko ditugu nazio baten ikurra bihurtzen diren heinean. Adibidez: (1) Tourra Donostiatik pasatu zenean 1992an eztabaida egon zen euskara erabili behar zen edo ez Tourra-ren aurkezpenean.

- **Beste:** aurreko puntuetan jasotzen ez direnak eta era ezberdinetako gatazkekin zerikusirik izan dezaketeenak.

7.11.2.3 Nazio-ikurraren leinua

Honetan ikurraren leinua aztertuko da, hau da, ikurra zein herrialde edo naziotasunari dagokion, eta zer islatzen duen.

- Alemaniarrak.
- Belgiarrak.
- Britaniarrak.
- Espainiarrak.
- Estatu Batuarak.
- Euskaldunak.
- Frantsesak.
- Espainiarrak.
- Italiarrak.
- Batzuk: informazio edo iritzi eduki batean leinu bat baino gehiago dagoenean leinuak. Adibidez: "batzuk" modura kodetuko dira "frantsesa+espainiarra", "espainiarra+alemaniarrak", etab.
- Beste: aipatutako bederatzi leinu horietatik aparte ager daitezkeen beste leinuak.
- Ez dagokio: ez da inolako nazio leinurik agertzen.

7.11.3 Nazio-identitatea eta leinua

Nazio-identitatearen ezaugarri nagusia da leinuaren kontzeptua, jakina denez. Beraz, ikertutako edukian agertzen diren bai ikurren eta bai parte-hartzaileen leinuak

¹⁰⁶ "Sistema de comunicación verbal propio de una comunidad humana y que cuenta generalmente con escritura."

(edo azpi-leinua: probintziako edo hirikoa) *zehazki adierazita badago*¹⁰⁷, hurrengo kategorien arabera kodetuko da (lehen aipatu bezala): espainiarra, euskalduna, frantsesa, italiarra, belgiarra, alemaniarra, britaniarra, estatubatuarra, batzuk (leinu bat baino gehiago dagoenean informazio edo iritzi batean), beste (aipatutako leinuak ez diren beste guztiak), eta ez dagokio (leinurik ez egotea informazioan).

7.11.4 Nazio-identitatea eta gatazka

Tesi honen corpus teorikoan (ikus 1. kapitulua) aztertu den modura, nazio-identitatea definitzeko ertz asko aurki dezakegu identitate hori osatzean.

Esaterako, nazioaren beraren ezaugarriak albo batetik; nazio nortasuna eta hizkuntzaren arteko harremana; nazio nortasuna eta hezkuntzaren arteko lotura edota nazio nortasuna eta kulturaren artean dagoen konexioa bestetik.

Binomioaren bigarren kontzeptua, gatazka, lehenago definitu da (ikus 1.7.3.5). Dena den, definizio laburra eginez, esan dezakegu: Gatazka da, bi pertsona edo gehiagoren elkarrekintzan duten helburu bateraezinak dituztenean edota horrela dituztela uste dutenean.

Gatazka ematen denean haren isla albisteetan erasokorra izan daiteke, hau da, nazio-identitate bat goratzeko bestea gutxietsiz edo erasotuz. Halaber, jarrera adiskidetsua izan daiteke, norberaren identitatea goratuz, baina gainerakoak antzeko mailan ipiniz. Jakina, informazioaren testuan edo irudietan gatazka adierazten duten terminoak, irudiak edo sinboloak bilatu eta kodetuko dira.

- **Erasokor** (besteekiko): nazio identitate bat balorean ipintzeko gainerakoa/k erasotu egiten dira.
- **Adiskidetsua** (besteekiko): nazio identitatea balorean ipintzeko orduan gainerakoekiko jarrera adiskidetsua da, zubiak eraikiz.
- **Ez dagokio**: ez dago inolako gatazkarik antzeman.

Datu-basean informazioen aipu nagusienak jasotzen dira.

Hona hemen adibide bi, Marca egunkarian 1998ko uztailaren 14an, Frantziako jai nazionalaren inguruan, lasterketa nazio taldeekin korritzea kaltegarria izan zitekeela

¹⁰⁷ Adibidez: “Euskaltel” agertzen bada, ez da euskaldun leinutzat hartuko, baldin ez bada esplizituki “euskal, basque edo vasco” agertzen.

adierazten da. Artikuluan ere, beste herrialdeetan aurkitu zen giroa ere gutxietsi egiten da. Edota alemaniar batek “zapuztu” zuela frantziarren jai nazionala, Marca-n bertan urte bereko uztailaren 15ean.

Irudi 10: Tourra eta nazio-taldeak.

D • I • E • T • A • R • I • O 3º D I A

El Tour por equipos nacionales

La organización estudia sustituir a los equipos comerciales por selecciones nacionales

Hablando de dopaje, a la ministra de Juventud y Deporte de Francia, Marie-George Buffet, se le escapó que la organización del Tour sigue dándole vueltas a la posibilidad de invitar, en vez de a equipos comerciales, a selecciones nacionales. Como se hacía antiguamente. La idea, que no es nueva porque de ella se viene hablando desde hace mucho tiempo, tendría consecuencias gravísimas para el ciclismo mundial. ¿Qué harían y a qué se dedicarían los equipos comerciales? ¿Quién o quiénes pagarían a los ciclistas? ¿Correrían el resto del año para una firma comercial y en julio, cuando la tarta publicitaria es más grande, lo harían para una selección nacional? Son muchos los aspectos negativos que tendría esta medida, aunque el Tour prepara algo grande para celebrar la entrada en el siglo XXI y todo podría ser, si bien el ciclismo está

cada vez más profesionalizado y no sé si una cosa así sería posible llevarla a cabo.

Miguel Indurain regresó ayer para España con todo el dolor de nuestro corazón y de los muchos amigos y simpatizantes, que son todos, del Tour de Francia. Tras seguir en vivo y en directo las etapas irlandesas, ayer regresó para Pamplona, donde hoy, posiblemente, asistirá a la corrida de toros de San Fermín porque el diestro José Tomás le quiere brindar un toro. Miguel, no obstante, seguirá con su habitual comentario en MARCA y regresará a los Pirineos y, quizá, también a los Alpes.

Los enviados especiales de MARCA tenemos la sensación de que Indurain, después de un voluntario período de tiempo apartado del pelotón, ha disfrutado tanto o más que cuando lideraba la carrera. Ahora bien, quienes han disfrutado con él han sido todos los españoles -y de otras nacionalidades- que, quien se lo iba a decir, han conseguido en Dublín hacerse una foto con él o llevarse un autógrafo. Miguel pensaba que iba a estar tranquilo, pero... Eso sí, sigue siendo el mismo de siempre: ni una

mala cara, ni una palabra más alta que otra, ni un "no"... No es de extrañar que sea el deportista español más querido.

Ayer dijimos adiós a Irlanda. La salida del Tour de esta isla no ha sido, por lo que a gente se refiere, todo lo buena que quizá se esperaba -no ha servido la referencia del Tour-94, cuando la carrera pasó a Inglaterra-, pero en absoluto se puede decir que ha sido mala. El prólogo, el sábado en Dublín, estuvo un poco flojo de ambiente, pero tanto el domingo como ayer la cosa se enmendó. «El sábado no tuve la sensación de que comen- zaba el Tour. Faltaba un poco de calor», manifestaba ayer Jalabert. «En 1994 yo no pude pasar a Inglaterra por una caída, pero me han contado que fue impresionante». Cork recibió ayer al Tour como nadie lo había hecho nunca antes. Todo, absolutamente todo, fueron amabilidades.

Esta idea, que no es nueva, podría tener consecuencias gravísimas para el ciclismo

Iturria: Marca, 1998-07-14.

Irudi 11: nazio-identitatea eta gatazka islatzen duen berri baten adibidea.

CICLISMO

98
LE TOUR
DE FRANCE

TRIUNFO DEL TELEKOM

EL EQUIPO ALEMAN NO DEFENDIO EL AMARILLO DE ERIK ZABEL

En racha

“Gracias” a Heppner, los franceses no pudieron celebrar su fiesta ▶ El danés Bo Hamburger (Casino), nuevo líder de la general ▶ Chente y Cabello, destacados

Iturria: Marca, 1998-07-15.

7.11.5 Nazio-identitatea eta aurkakotasuna

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoan azaltzen den aurkakotasunaren definizioa: “Aurkakoa denaren nolakotasuna; aurkako direnen arteko erlazio-mota” (Hiztegi Entziklopedikoa, 2017).

Gure tesiari dagokionez, aurkakotasuna ezinbestekotzat jo daiteke hainbatetan norberaren nazio-identitatea adierazteko orduan. Esaterako, lehendabiziko adibide honetan ia espainiar txirrindulari bakartzat har daiteke gainerakoen aurka.

Irudi 12: nazio-identitatea eta aurkakotasunaren adibide bat.

Pedro Delgado y sus rivales extranjeros

<ul style="list-style-type: none"> ● Pedro Delgado. Edad: veintinueve años. Grandes victorias: Vuelta a España 85 y 89, Tour 88. Equipo: Reynolds. ● A favor: Su buena forma. El triunfo del pasado año en la misma carrera. Capacidad de sobreponerse a las dificultades. Progresos en la contra reloj. La ayuda de Miguel Induráin. Es un corredor completo. ● En contra: al salir como gran favorito, estará muy vigilado por todos. El posible mal tiempo. ● Eric Breukink. Edad: veinticinco años. Grandes victorias: Critérium internacional 88, Tour 88: duodécimo, a 23-06 de Delgado. Equipo: Panasonic. ● A favor: su fortaleza, pese a los fallos en el Giro. Rodador y escalador. Equipo fuerte. ● En contra: su inexperiencia. Las dudas sobre su rendimiento en etapas con muchos puertos de gran dificultad. ● Steven Rooks. Edad: veintiocho años. Grandes victorias: Lieja-Bastogne-Lieja 83, Campeonato de Zurich 88, Tour 88: segundo, a 7-13 de Delgado. Equipo: PDM. 	<ul style="list-style-type: none"> ● A favor: su buen equipo. Su regularidad. Su resistencia. Bueno en montaña. ● En contra: la necesidad de imponerse como líder en su propio equipo. Su debilidad en las contra reloj. ● Urs Zimmermann. Edad: veintinueve años. Grandes victorias: Vuelta a Suiza 84, Dauphine Libéré 86, Tour 88: abandono. Mejor resultado: tercero en 1986. Equipo: Carrera. ● A favor: capacidad en montaña. Resistencia al calor. Potencia en todos los terrenos. ● En contra: preparación mental. Falta de ambición. Mala colocación en carrera. Las contra reloj. ● Charly Mottet. Edad: veintiséis años. Grandes victorias: Dauphine Libéré 87 y 89, Vuelta a Lombardía 88, Tour 88: abandono. Mejor resultado: cuarto en 1987. Equipo: RMO. ● A favor: todo-terreno. Habilidad en carrera. Equilibrio. Apoyo incondicional del equipo. ● En contra: problemas de salud en los últimos tiempos. Por primera vez es líder indiscutible del equipo. ● Fabio Parra. Edad: veintinueve 	<ul style="list-style-type: none"> años. Grandes victorias: ninguna. Tour 88: tercero, a 9-58 de Delgado. Equipo: Kelme. ● A favor: gran escalador. La confianza por su buena actuación en la Vuelta a España. ● En contra: La carencia de grandes victorias. El equipo, no tan fuerte como los de otros favoritos. Las contra reloj. ● Stephen Roche. Edad: veintinueve años. Grandes victorias: Tour 87, Giro 87, Campeonato del Mundo 87, Tour 88: ausente. Equipo: Fagor. ● A favor: su gran clase. Su inteligencia en carrera. Su habilidad para aprovechar los puntos débiles de los adversarios. ● En contra: una temporada (1988) en blanco. Problemas de espalda en el Giro. Falta de ritmo recobrado en alta montaña. ● Andrew Hampsten. Edad: veintisiete años. Grandes victorias: Giro 88, Vuelta a Suiza 86 y 87, Tour 88: decimoquinto, a 26-00 de Delgado. Mejor resultado: cuarto en 1986. Equipo: 7-Eleven. ● A favor: gran escalador. Econo-
---	---	--

mía de fuerzas. Preparación encaminada al Tour. Confianza.

- En contra: fallos anteriores en el Tour. Espíritu de ataque insuficiente.
- **Laurent Fignon.** Edad: veintiocho años. Grandes victorias: Tour 83 y 84, Giro 89, Milán-San Remo 88 y 89, Tour 88: abandono. Equipo: Super U.
- A favor: su fuerza. Su agresividad en carrera. Confianza por su triunfo en el Giro.
- En contra: fragilidad orgánica. Quizá las contra reloj.
- **«Lucho» Herrera.** Edad: veintiocho años. Grandes victorias: Vuelta 87, Dauphine Libéré 88, Tour 88: sexto, a 14-36 de Delgado. Mejor resultado: quinto en 1987. Equipo: Café de Colombia.
- A favor: Gran escalador. Progresos en etapas llenas. Desarrollo de su inteligencia e intuición en carrera.
- En contra: dificultades de recuperación. Fragilidad. Falta de robustez. Las contra reloj, en las que perderá mucho tiempo respecto a sus rivales. Vulnerable con mal tiempo.

Iturria: ABC, 1989-07-1.

Irudi 13: nazio-identitatearen goraiamenaren adibide bat. "Propioaren alde" izeneko kategorian jasotzen dena.

LE TOUR '92
LOS PROTAGONISTAS

Fractura en un dedo

El corredor del ONCE Johnny Wetzl, al borde del K.O.

El equipo ONCE apenas pudo saborear la victoria de etapa de Jalabert. Paralelamente al triunfo del gallo, los responsables del equipo supieron que Wetzl, que se había caído a pocos kilómetros de la meta, tenía un dedo fracturado. Por la noche trasladaron al danés a un hospital, donde se le hicieron unas radiografías y donde se detectó una fractura en una falange del dedo corazón de la mano derecha.

Wetzl, pese a todo, tomó la salida luciendo un aparato vendaje «Si hoy hubiera pavés no podría acabar, pero como creo que no hay lo voy a intentar», confesaba Johnny. Manolo Sáiz no era optimista a cerca de la continuidad de Wetzl en carrera. «Los médicos me han dicho que será difícil que acabe.»

LALE CUBINO

Con más ganas que nunca, aguarda la montaña. Pese a que sufrió una caída camino de Bruselas, Lale Cubino (Amaya) se está mostrando muy activo. Si en estos recorridos y con este mal tiempo está dispuesto, cuando llegue la montaña será uno de los que opten a los triunfos de etapa.

REYES DE BELGICA

Balduino quiso conocer a Indurain. El rey Balduino de Bélgica estuvo ayer en la salida. Balduino saludó a muchos corredores, pero sobre todo se interesó por Indurain.

ANTENNE 2

Compra los derechos del Tour por cuatro años más. La Sociedad del Tour y los responsables de las dos cadenas de televisión públicas galas, Antenne 2 y F.R. 3, han llegado a un acuerdo para prorrogar por espacio de cuatro años el contrato que les unía.

EN LAS CINCO ULTIMAS EDICIONES DE LA RONDA GALA, SU PRESENCIA HA SIDO

POPULARIDAD

En el pelotón del Tour'92, los equipos españoles son mayoritarios, pero tal circunstancia no es excepcional. Hace cuatro temporadas, cuando Perico Delgado se adjudicaba la victoria, fueron nada menos que 7 las formaciones hispanas, al tiempo que eran 37 los corredores de este país en tomar la salida, es decir, 7 más que este año.

LOS CINCO REPRESENTANTES

BANESTO

■ Con Indurain es una de las "vedettes" de este Tour

ONCE

■ A pesar de sus bajas es uno de los mejores del mundo

España es una de las grandes



Un clásico El equipo Reynolds es un clásico en el Tour de Francia. Luego evolucionó para ser el actual Banesto. Este equipo ha ganado el Tour con Pedro Delgado, como Reynolds, y con Miguel Indurain, ya como Banesto, aparte del triunfo por equipos en dos ocasiones, una con cada nombre

lianos se reparten la mayoría de las plazas del Tour, dejando sólo vancantes tres o cuatro adicionales que copan, tradicionalmente, un equipo colombiano, otro suizo y otro estadounidense, con incursiones

pasar a pesar más en el Tour los equipos italianos y españoles, mientras Holanda ha mantenido de manera férrea su cuota de poder. Esta tendencia, por otro lado, se debe en gran medida al mayor inter-

LOS 29 ESPAÑOLES

BANESTO: 6 Indurain, Delgado, Alonso, Garmendia, Gorospe y Uriarte.

Iturria: Marca, 1992-07-12.

Bigarren adibidean Espiniaren kirol ahalmena goratu egiten da gainerakoen aurka, nahiz eta lasterketan taldeek babesle-markaren arabera lehiatzen duten. Esaterako, Marca: "Solo España ha conseguido, por ejemplo, destacarse frente a las demás naciones de la primera fila ciclista", gainerako taldeak fronte komuna osatuko balute legez.

- **Propioaren alde:** egunkari batek, bere identitate-leinuaren inguruko albistek aldekoak badira edo soilik alde onak aipatzen baditu. Adibidez, espainiar Marca egunkariak espainiar txirrindularien aldeko albistea kodetzean.

204

- **Propioaren aurka:** egunkari batek, bere identitate-leinuaren inguruko albisteak aurkakoak badira edo soilik alde onak aipatzen baditu. Adibidez, espainiar Marca egunkariak espainiar txirrindularien aldeko albistea kodetzean.
- **Bestearen alde:** egunkari batek bere leinua ez den beste leinu edo beste identitatea/k goratzen du/dituenean.
- **Bestearen aurka:** egunkari batek bere leinua ez den beste identitatearen/identitateen aurka jotzen da aipaturiko berrian.
- **Propio eta bestearen alde:** egunkari batek norberaren identitatearen alde jotzeaz gain, agertzen diren gainerakoak goratu egiten dira.
- **Propio eta bestearen aurka:** norberaren identitatearen aurka jotzeaz gain, agertzen diren gainerakoen kontra jotzen da.
- **Ez (aurkakotasunik):** ez dago aurkakotasunik edo aldekotasunik.

7.11.6 Nazio-identitatearen irudi positibotasuna

Positibotasunaren inguruan honako definizioa topa daiteke Harluxet Hiztegi Entziklopedikoan, besteak beste: “(...) 2. izond. sistematikoki goraiatzeko eta aurrerantz bultzatzeko joera duena; delako pertsonaren jarrera edo portaera. 3. izond. Onuragarritzat jotzen dena. *Pentsamendu positiboak*. 4. izond. Errealitatean behatutakoa, esperientziaren emaitza objektiboa dena. *Gertakari positiboa (...)*” (Hiztegi Entziklopedikoa, 2017).

Negatibotasun kontzeptuaren aldetik, hiztegi berean haxe aurki daiteke: “(...) 2. izond. arbuiatu eta gaitzesteko joera duena; delako pertsonaren jarrera edo portaera. 3. izond. Onuragarritzat jotzen ez dena. *Pentsamendu negatiboak (...)*” (Hiztegi Entziklopedikoa, 2017). Honi loturik negatibotasuna dago, hau da, negatiboa denaren nolakotasuna.

Beraz, nazio-identitatea positibotzat edo negatibotzat azal daitekeenez, Tourra-ri buruzko berrietan joera hori ere islatzen da, definitu barik ere egon daitekeen arren. Jarraian adibide pare bat ipiniko da:

Lehendabizikoan haizearen tunelaren jatorria profitatu egiten da gainerakoen aurrean haren dohainak goraiatuz, espainiartasunarekin lotuz. Bestean, aldiz, alde bi jorratzen dira, frantziarren ahaleginak (teknikoak zein txirrindulariak) era negatiboan aipatuz, espainiar taldearen ahulezia nabaria ei zenez lasterketari garrantzia kentzen.

Irudi 14: nazio-identitatearen positibotasuna azpimarratzeko berri bat.

28 | SÁBADO 24 JULIO 2010

M **CICLISMO** *de* **TOUR** *de* **FRANCE** **TOUR DE FRANCIA**

CONTADOR RECURRE AL TÚNEL DE VIENTO DE VITORIA PARA MEJORAR SU AERODINÁMICA

Un Tour puramente español

Alberto se entrenó en el Centro de Innovación Tecnológica Epsilon, en Vitoria • “He estado en los túneles de viento de Boston y San Diego, pero éste no tiene nada que envidiarles”

JOSU GARAI | BURDEOS

En mayo, justo después de regresar de unas merecidas vacaciones en Mallorca y como primer paso en su camino de preparación hacia el Tour, Alberto Contador se adentró en el mundo de la tecnología y la ingeniería para mejorar su aerodinámica.

Manolo Sáiz, el director del Liberty-Würth, le había llevado al túnel de viento de Boston, en 2005, cuando todavía no había ganado el Tour aunque ya apuntaba muy buenas maneras. Johan Bruyneel, su director en el Discovery Channel, le llevó después al de San Diego.

Gracias a estas experiencias, y por supuesto a sus condiciones innatas y sus ganas de estar a la última y progresar, su aerodinámica era casi perfecta, como demostró el año pasado al ganar varias contrarrelojes y, en especial, la de Annecy del Tour. Pero



Iturria: Marca, 2010-07-24.

Esan legez, nazio-identitatea era positiboan edo negatiboan uler edo azal daiteke.

- **Positiboa:** aukera bi daude, bateragarriak izan daitezkeenak, baina bakarka ere baliozkoak direla. Batetik, nazio-identitatea modu positiboan agertzen da informazioan, hitz edo esaldi positiboak daudelako naziotasunaren inguruan; eta, bestetik, albistearen esanahia positiboa da nazio-identiterako, alegia, ez da derrigorrez adjektibo edo hitz bat topatu behar positibotasuna adierazten duena, baizik eta albistea bera da positiboa nazio-identitatearentzat.
- **Negatiboa:** aurrekoan bezala, aukera berberak daude. Nazio-identitatea negatibotzat jotzen da zentzu hori adierazten duen esaldi edo hitz bat edukian

dagoenean, eta beste aukeran, albiste bera da negatiboa nazio-identitaterako eta ez da derrigorrez eskatzen negatibotasuna adierazten duen adjektibo edo hitz negatibo bat agertzea.

- **Ez dago:** ez da ezer agertzen honen inguruan.

Irudi 15: Tourra nazio-ikuspegi desberdinetatik ikusita.

La Vuelta a Francia

DENTRO de unas horas comienza, esta vez en Estrasburgo, la nueva edición de la Vuelta a Francia, que cumple a la vez sus cincuenta años, pues fue en 1903, como es sabido, cuando por primera vez se lanzó a la carretera el embrión de esta gran prueba, culminación del año ciclista, y que en 1953 se corre por cuatragésima vez. Seguramente por esto, esta conmemoración solemne, que debía haber coincidido con el máximo púker de ases de toda la vida del Tour, ha coincidido, en cambio, con unas cuantas ausencias significativas. Y es que no sería demasiado extraño pensar que las diferencias entre los organizadores y los corredores, sabedores los segundos del deseo de los primeros de dar más realce aún si cabe a la Vuelta del cincuentenario, se hayan erizado de condiciones más de lo que suelen. Sea como sea, el resultado es que se quedan en la cuneta antes de salir una serie de nombres de primerísima fuerza en el ciclismo mundial, que no vamos a repetir porque están en la memoria de todos los aficionados. Y que el interés de la Vuelta este año—prescindiendo de la hermosa literatura que, como todos los años, harán sobre su desarrollo los técnicos galos, harto peritos en la materia—reside en lo que pueda hacer Bartali—que debutó en el Tour hace la friolera de dieciséis años—contra Koblet, un favorito demasiado frágil y no muy bien acompañado. Y, por otra parte, en el rabioso interés que han de poner los franceses, representados por la flor y nata de su ciclismo, en ganar este año la Vuelta, después de tener que sufrir las victorias de suizos e italianos.

Desgraciadamente, entre los motivos de interés del Tour no figura por ningún lado el ciclismo español. Su as máximo, Bernardo Ruiz, ha sido baja en la carrera por otros motivos que los que han determinado la ausencia de los ases máximos, entre los que él figuraba en plano inmediato. Y sin Bernardo Ruiz el equipo español baja de modo considerable para suponer que va a realizar algo que no sea pedalear entre el coro general y alcanzar victorias de clasificación por equipos allá por debajo del quinto puesto. Es decir, resultados, que por mucho que queramos batir el parche sobre ellos, interesan bastante poco. Y eso,

en el caso, en el que desde luego no creemos, de que no se descomponga el equipo como se descompuso en 1949 entre el hocchorno general. Por mucho que nos esforcemos en ver el horizonte de color de rosa y aun reconociendo la clase de Gelabert, no vemos al equipo español ni a sus componentes en ningún logro importante.

Es una lástima, porque esta previsión más que razonable llega a continuación del mayor éxito obtenido jamás por un equipo español en el Tour el año pasado. Con toda sinceridad, creemos que las cosas se han llevado muy mal por parte de quienes estaban obligados a considerar que precisamente había que consolidar para nuestro ciclismo esta posición, y que este año, en la Vuelta del cincuentenario, ausentes bastantes ases, podía haberse hecho a condición de no eliminar al hombre más representativo. Aludimos a la U. V. E., organismo hace tiempo acéfalo, que ha llevado las cosas de manera que no convencerá a la afición ciclista de que no podía haberse solucionado de otra muy distinta. Ha escogido el peor momento para querer operar un absceso de falta de disciplina, que si bien es cierto que existía y existe en el ciclismo español (¿no tendrá la culpa también el criterio directivo?) cuando poner las cosas en su sitio ha perjudicado la clasificación española en la Vuelta, cuyo éxito hace más en estímulo del ciclismo que cien vigiliás de los directivos de la U. V. E. Y no digamos que el amor propio del seleccionador Mariano Cañardo, por el que hay que pagar un precio a todas luces excesivo.

Es una lástima, repetimos, que sabemos que no ha podido evitarse por otros organismos interesados y con visión de más alcance sobre el deporte nacional y sus metas. Pero la desdichada oportunidad de plantear una cuestión de amor propio en términos perentorios una semana antes de la partida y el subordinar todo a su satisfacción, no tan importante por otra parte, recuerda aquel caso del señor que por arreglar un mechero hundió un trasatlántico.

Y así comienza el Tour del cincuentenario. Visto desde Francia y visto desde España.

A. V.

Iturria: Marca, 1953-07-3.

8 Emaitzak 1: Tourraren historia kazetaritzaren eta nazioaren ikuspegitik: interpretazio-marko berria

8.1 Sarrera

Frantziarrek toki bereziki emankorra aurkitu dute Tourrean, Frantziari eta frankofonia izenekoari buruzko barne eta kanpoko narrazioekin lehiatzeko. Halaber, Tourra izan da identitate lokalaren eta nazionalaren arteko harremana uztartzen saiatzeko tresna, askotan anbigua izan bada ere.

Frantziarren eta beren Tourraren arteko harremana bi ahokoa izan da. Alde batetik, modernoarekiko zuen anbibalentziak Frantziako pentsamendua eta esperientzia moldatu ditu karreran. Bestalde, maiz jo zuten Tourrera XX. mendeari zentzua emateko, bereziki honako gai garrantzitsu hauei dagokienez: klase-harremanak, genero-rolak, gizarte-kohesioa, batasun nazionala, lanaren izaera eta osasun publikoa.

Esan gabe doa, frantsesek, Tourra 1903an sortu zenetik, lasterketa gobernatzeko molde ezberdinak erabili dituztela.

Identitateen eraikuntzari buruzko azterlanetan argudiatu izan da, ustez naturalak, denboraz kanpokoak eta unibertsalak, diren paper batzuen ageriko adierazpena izan beharrean, gizarte-identitateak historikoki kontingenteak direla, gizarte jakin batek une jakin batean dituen tentsioek eta gatazkek moldatuak.

Nahiz eta sarritan helburu neutral gisa sustatzen diren, klase- edo genero-identitateen irudikapenek, adibidez, interes, balio eta ikuspegi sozial espezifikoak islatzen dituzte. Horrek azaltzen du zergatik ikusten diren lehian dauden interes, balio eta ikuspegi sozialak sustatzeko diseinatutako irudikapen alternatiboek hain desafiatuak.

Lasterketa moduan, berehala ezarri zen nazioko kirol-ekitaldirik ezagunena bezala, gero eta estaldura mediatiko zabalagoa erakarriz. Olinpiar Jokoak eta Munduko Futbol Kopa ez bezala, lau urtean behin bakarrik ospatzen direnak eta kontinente batetik bestera mugitzen direnak, Frantziako Tourra urtero ospatzen da ia eremu orokor berean.

Frantziako Tourrak ehun urte baino gehiago zituen arren, ehun edizio bete zituen 2013an korritu zen lasterketarekin. Korsikatik irten zena Parisera heltzeko. Estaturik gabeko nazio batetik estatu handi baten hiribururaino.

Zenbaki borobilaren edizioak primeran islatzen du lasterketak izan duen osaera ziklikoa: hasieratik ezarri ziren ardatzak, irizpideak, hika-mikak, marko geografikoak, lasterketaren izaera azken finean, maiztasun ezberdinarekin errepikatu baitira, kirol-arloan eta errepideetatik at, kirola bera gainditzeko duen ikuskizun erraldoia osatzeraino.

Beraz, liburu eta dokumentuetara jo dugu Tourreko historia heterodoxo hau osatzeko, baina ez kirol-aldetik, edo ez soilik kirol-ekitaldia den aldetik, baizik eta, aldi berean, kazetaritzaren eta nazio-ikuspegiarekin lotura duten alde ezberdinak ahalik eta erarik laburrenean jorratzeko... etorkizunean jarraipena izan dezaten.

8.2 Kazetaritza Frantzian Tourra baino lehenago

La Gazette de Théophraste Renaudot, 1631an sortu zena, frantziar lehen egunkari bezala kontsideraturik badago ere, *Le Journal de Paris* (1777) egunkariaren argitaratzeak informazio-prentsaren sorrera ekarri zuela esan daiteke.

Prentsa-askatasuna 1789an ezarri zen, eta garai hartan ugari izan ziren berriro argitaratu ziren orriak (*Le Père Duchesne, L'Ami du Peuple...*). Zentsuraren aurkako borroka etengabea izan zen XIX. mendean eta hedabideen urrezko aroa bizi zen, batez ere 1881ean Prentsaren Askatasunari buruzko legea ezarri zenetik.

Egunkari orokorrek eztabaida pizteaz gain, zatiketa politikoa islatzen zuten. Prentsa satirikoak (*Le Charivari, Le Journal pour rire...*) boterea salatzen zuten, umorearen bidez irakurleko fidela bereganatzen zuten bitartean. Egunkariak baino landuagoak eta maiztasun hoberekin, argitalpen ospetsuek (*La Revue des deux mondes, La Revue de Paris*) edota zientzien sozietatetatik sortuek, garai hartan arteak, zientziek eta letrek pizten zuten ikusmina islatzen zuten.

Hasieran oso presentzia gutxi bazuen ere, irudia espazioa irabazten hasten da egunkarien zutabeetan eta, batez ere, eranskinetan, irakurlea bereganatzeko pentsaturik zeudela. Emakumeei zuzendutako tituluak zeuden (*La Femme, Femina...*), kirolekoak (*La Pédale, Match...*) edota umeentzako (*La Semaine des enfants...*)

argitalpenak sortu ziren. «La civilisation du journal» ezaguna bihurtu zen, eta ez Paris hiriburuan soilik, herrialdeetan (*L'Indépendant du Berry, L'Ouest-Eclair...*) eta baita hexagonotik kanpoko kolonietan ere (*Le Courier de Tlemcen, La Petite Tunisie, L'Etoile de l'A.E.F...*). Erreportaje-egile handiaren irudia jaio zen ere.

Lehendabiziko kirol-egunkaria *Le Sport* ("*Journal des gens du monde*") izan zen, Eugène Chapus-ek sortua 1854ko irailaren 17an (Hubscher, *L'histoire en mouvements: Le sport dans la société française, XIXe-XXe siècle*, 1992, or. 502)

XIX. mendearen amaieran kiroletan eta txirrindularitzan espezializatutako egunkarien sorrera Frantziako prentsaren eraldaketa zabalago baten isla izan zen. Txirrindulari-prentsaren izaera zehatza, sortu berri ziren pista eta errepideko lehiaketetan txirrindulariek izan zituzten balentrien berri ematea zen. Egunkari hauetako asko paristarrak ziren arren, dagoeneko fenomeno nazionala zen.

8.3 Txirrindularitzaren sorreratik Tourraren hastapenetara

Txirrindularitza bezalakorik ez da inoiz egon frantsesen irudipena, denbora edota energia bereganatu duen kirolik. Aldi berean, eztabaidarik sutsuenak horren inguruan piztu dira.

Tesi honen baitan dago kirolak, oro har, erakutsi duen ahalmena nazioaren berregituraketarako, edo gerretako porrotak, arazo demografikoak eta banaketa sozialak zein politikoak estaltzeko. Aitzitik, kirola ere Frantziaren gainbeheraren beste alde bat zen.

Garai hartan bizikletak ordezkatzeko zuen modernitatearen itzaropena eta, aldi berean, bere arriskua.

Gauzak horrela, bizikletaren aurrekariak zeleriferoan (1790ean, pedalik gabekoa) eta belozipedoan (1839an, Kirkpatrick Macmillan eskoziarrak asmatu zuena) bilatu beharko dira.

Ostean, 1880ko hamarkadak lehen txirrindula modernoan agerpena dakar, eta lehen tandem 1886an egin zen. Ostean, 1888 eta 1891 bitartean beste modelo bat garatu zen, egungoarekin zerikusi gehiago zuena, batez ere talkak xurgatzeko orduan.

Azkenean, asmakizunik garrantzitsuena desbideratzailea (*derailleur*) izan zen. Horrek profil guztietan ibiltzea ahalbidetzen zuen. Ez zen Frantzia asmatua izan, Britainia Handian baizik, 1887an hain justu ere.

Hasieran, berrikuntza (ezustea) zela-eta, txirindula baten prezioak goranzko joera izan zuen: 1893an 185 franko, 280 franko... 380era heldu arte. Aitzitik, 1909an salneurria 150 frankokoa zen. Halaber, erosteko ahalmenik gabeko kolektiboek, gazteek eta langileek esaterako, eguneko alokairua ordaintzeko aukera zeukaten. Aldi berean, langile xumeek eta denda txikietako saltzaileek ere, egunean bost libera baino gutxiago irabazten zutenek, bizikleta bat erabiltzeko aukera zuten.

8.3.1 Lehen lasterketak

Michaux-ek pedala asmatu izanak eta haren ondorengo berrikuntzek kirol berri bat sortzea ekarri zuten. 1868an, James Moore ingelesak 1.200 metroko lasterketa bat irabazi zuen Saint-Cloud parkean, beste bederatzi lehiakide garaituz. Urte horretan bertan, Bordelen Erdi Aroko ariketetan inspiratutako lasterketa bat egin zen (*épreuve de la bague*) eta beste bat antolatu zen Britainiako Château-Gontierren. Alsaziako lehen lasterketa, dirudienez, 1869an burutu zen *course de lenteur* bat izan zen.

Mota honetako ekitaldiak, lasterketak baino gehiago, lehiaketa akrobatikoak ziren, eta azkar desagertu ziren, abiadura altuek eta erresistentziazko balentriek ikusleak erakartzen zituztela argi geratu zenean.

Herriak eta hiriak lotzen zituzten errepedeko lasterketak ezagunak egin ziren.

Lehena 1869ko azaroaren 7ko **Paris-Rouen** izan zen, hori ere James Moor-ek irabazia. Urteak aurrera joan ahala, 1891eko irailean, kirol honetako lehen izarretako bat, Charles Terront, Parisko Porte Maillotera iritsi zen, hamar mila miresle harrera egiteko zain zituela, **Paris-Brest-Paris** lasterketaren lehendabiziko edizioa irabaztean. Lasterketako 1.200 kilometroak 71 ordu eta 35 minututan egin zituen. Horrek bere ospea eta kirol jaio berriarena areagotu zuen. Mende horren azken hamarkadan, **Paris-Roubaix** bezalako klasikoak egin ziren, egun nazioarteko txirindularitza egutegian ekitaldi garrantzitsuak izaten jarraitzen dutenak.

Alta, Frantziatik at ere lasterketak eta garapen teknikoak ezagutu ziren: Florentzian errepedeko lehen lasterketa burutu zen 1870ean; beranduago, 1883an, pista estaliko Lehen Mundu Txapelketa Britainia Handian, eta 1889an, John Boyd

Dunlop-ek egungo kamera asmatu zuen, airez betetako kautxuzko aro tubularra erabiliz gorpila lurretik isolatuz.

Zalegoa, batez ere, klase ertaineko pertsonen eta langileek osatzen zuten. Emakumeak gutxiengo argia ziren; badirudi bertaratzen zirenak klase ertainekoak zirela batez ere, eta, ziurrenik, lagun eta senide gizonezkoekin batera joaten ziren.

Aldi berean, belodromoetan egindako lehiaketek zenbait abantaila zituzten errepideko lasterketen aldean. Probak egutegi zehatz baten arabera egin zitezkeen, ikusleek lasterketak osorik jarraitu ahal zituzten eta antolatzaileek izen-emate kuota bat kobratu eta freskagarriak saldu ahal zituzten. Probak udal-jaiekin eta uztailaren 14ko jai nazionalarekin batera egiten ziren.

Lehen belodromoa Parisen eraiki zen 1879an, bizikleta-lasterketen agerpenarekin batera... eta 1899an ia hirurehun belodromo zeuden Frantzian.

8.3.2 Bilakaera datutan

Ez dira horiek aipatzeko datu bakarrak: 1881ean “*Union Vélocipédique de France*” (UVF, Frantziako Txirrindularitza Federazioa) sortu zen; 1890 inguruan, hogeita hamar bat bizikleta-denda zeuden Frantzian; 1894ko urtarrilean Txirrindularitzaren lehen Aretoa burutu zen; 1900ean 975.878 bizikleta zeuden erregistratuta (zegozkien zergekin) frantses Estatuan; hamarkada bat geroago 2.724.467 zeuden, ia bat hamar frantseseko, eta, garai hartan, zortziehun txirrindularitza-klub zeuden, 150.000 kiderekin. Gauzak horrela, XIX. mendearen hasieran bizikletaren kirol erabilera hedatu zen, “korrika egiteko makina” izendapenarekin.

Antzeko sektoreetako enprekin batera, bizikleta-fabrikatzaileek Parisko eta probintziako egunkari ugari kontrolatzen zituzten edo finantzarioki laguntzen zituzten, zuzenean inbertitzaile gisa edo publizitatearen bidez. Egunkari hauek, aldi berean, lasterketak sortu eta antolatzen zituzten, tokiko eta eskualdeko ekitaldietatik hasi eta Frantziako Tourrerraino.

8.3.3 Tourraren hastapenak

Tourraren hastapenetan hiru izen nabarmentzen ziren: Géo Lefèvre, Henri Desgrange eta Victor Godet. Lehendabizikoak ideia izan zuen eta gainerako biek ideia

hori gauzatzeko ardura izan zuten. Proiektuaren alde eta kontrako ezaugarriak aztertu zituzten, hau da arriskuak eta balizko errentagarritasuna.

Hirukotearekin batera historia-liburuetan Pierre Giffard-en izena ere agertzen da, XIX. mendean, 1891ean hain zuzen ere, Paris-Brest lasterketaren sortzailea izan zena, *Petit Journal* egunkarian laguntzailea eta, aldi berean, *Le Vélo* egunkariaren zuzendaria. Paper berdez inprimaturiko kirol-egunkaria zen eta egunero 80.000 ale saltzen zituen. Egunkari horrek Bordeaux-Paris eta Paris-Roubaix bezalako lasterketak babesten zituen.

Halaz ere, kazetaria eta, aldi berean, antolatzailea izanik, ez zen iragarle ziren enpresen edo pertsonen gustukoa.

Clément, Michelin, Dion-eko kondeak, Zwylen de Nyevelt baroiak, Chasseloup-Laubat kondeak eta abar luze batek gehiegi ordaintzen omen zuen eta, nahikoa zela erabaki ondoren, Henri Desgrange-ri kirol-egunkari berri bat sortzeko enkargua eskaini zioten 1900garrenean.

Pierre Giffard-en *Le Vélo* firmarekin amaitzeko nahia, kontsiderazio ekonomiko horiek eta baita interes politikoek ere elikatu zuten. Giffard-en egunkaria Darracq-k, automobil-ekoizle boteretsu batek, finantzatu zuen hasieratik. Darracq-en lehiakideetako batzuk, horien artean Albert de Dion kondea (Dion Bouton Cycles and Automod-ekoa) eta Gustave Adolphe Clément, bizikleta- eta automobil-fabrikatzaile arrakastatsua, *Le Vélo*-k mende hasieran zuen monopolio birtualagatik minduta zeuden, eta baita bere publizitateko tarifekin ere.

Giffard-ek eta bere egunkariak politikoki ere nabarmendu ziren. Adibidez, Dreyfus kasuan, 1890eko hamarkadaren amaieran Frantzia polarizatu zuena, Giffard Alfred Dreyfus ofizial juduaren alde jarri zen.

Behin erabakia hartuta, *L'Auto-Vélo* sortzeko agindua Clément-ek eta Jules-Albert de Dion, Diongo kondeak, eman zioten. Adolphe Clément bizikletak egiten zituen eta Desgrange bere publizitateko agentea zen. Aldi berean *La Tête et les jambes* (1894) eta *Alphonse Marcaux* (1899) liburuen idazlea eta baita txirrindularia ere, 1893an ezarri baitzuen entrenatzailerik gabeko orduaren errekorra (35'325 km, 1893ko maiatzaren 11an). Halaber, Pariseko Belodromoaren zuzendaria izan zen 1897an.

Egunkari berriaren lanerako Victor Godet deitu zuen, kudeatzaile orokorraren kargua emanez, harentzat propio zuzendari- eta erredaktore-buruaren eginkizunak utziz.

Le Vélo-k distantzia luzeko txirrindularitza-lasterketa izugarri ezagunak antolatzen zituen, Paris-Brest-Paris, Bordele-Paris eta Paris-Roubaix kasu. Horrelako aurkari bat gainditzeak ekimen ikusgarria eskatuko luke. Lefèvre-k proposamen ausarta egin zuen: “Zergatik ez Frantziako Tour bat?”

Victor Godet-ek, *L’Auto-Vélo*-ko diruzainak, ideia babestu zuenean Desgrange konbentzitu egin zen, eta hurrengo udan Frantziako Tourra abiatzeko planak egiten hasi ziren. Bitartean, Giffard-ek demanda bat aurkeztu zuen *L’Auto-Vélo*-k bere izenaren bigarren terminoa ezaba zezan, bere egunkariaren izena haustea zela argudiatuz. Vélo hitza goiburutik kentzeko behartu zuten 1903ko urtarrilaren 16an (7K, 2011), eta Desgrange-k bere egunkariaren izena aldatu zuen *L’Auto* izenarekin ordezkatzuz. Ez zuen beste oztoporik izan Tourraren sormena gauzatzeko eta, denboraren poderioz, urteko kirol-ekitaldien Olinpora iristeko.

Arrakasta ia bat-batekoa izan zen eta *L’Auto* eta bere oinordekoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren, *L’Equipe*, nagusi izan ziren Frantziako kirol-prentsan.

Le Vélo vs L’Auto, egunkarien arteko liskarra edota, teoriaz, orrialdeotan kirola eta politika nahasten zuenak kirola soilik eskaintzen zuenaren aurkako borroka izan zen, eta egungo kazetaritzan ere ikusgai egon daiteke (Virolli, *Por amor a la Patria*, 1997, or. 11).

Abentura, abian

Frantzian Aro Modernoko Joko Olinpikoen bigarren edizioa egin zen 1900. urtean (lehen Grezian ospatu zen lau urte lehenago, 1896an hain zuzen ere) eta hortik gutxira Lefèvre-ren ideia gauzatzeko garaia heldu zen: Frantziako Itzulia, baina bizikletaz, 400 kilometroko etapez osaturik, 5.000 kilometro baino gehiago guztira (egun 3.000 inguru baino ez dira). Gérard Ejnès-ek aipatzen zuen bezala, “Abian da Historia”¹⁰⁸ (Virolli, *Por amor a la Patria*, 1997, or. 6).

¹⁰⁸ “L’Histoire c’est en marche”.

“*Les Six Jours de la route*” bataiatu zuten 1902ko azaroan egin zuten bileran, belomodroetan egiten ziren sei eguneko lasterketen antzera. ‘Taverne Zimmer’ –egun ‘Friday’s’– izenekoan bildu ziren eta bertan oroigarri bat dago “munduko kirol lehiaketarik handienaren jaiotza” gogorarazteko. Gauzak horrela, 1903ko otsailaren 16an iragarki bat plazaratu zuen: “Maiatzean Frantziako lehen Tourra ospatuko da. Sei etapa izango ditu, 2.428 kilometro orotara, eta 20.000 franko izango du saritan.” Eskaintza erakargarria ei zen, baina hasieran hamabostek baino ez zuten izenik eman eta antolatzaileek neurri bi hartu zituzten: froga uztaileira arte atzeratu eta,aldi berean, sari gehiago eskaintzea (7K, 2011).

Azkenean, hirurogei txirrindulari irten ziren Réveil Matin, Frantziako Montgeron-go jatetxe txikiaren aurretik. Hogeita bat baino ez ziren azken helmugara heldu. Bizpahiru atsedeen-egun egon ziren etapen artean, lasterkariak beren ahaleginetatik suspertzeko, eta lasterkariak etapa bakoitza tropelean hasi zuten.

Hurrengo urtean, antolatzaileek ia bikoiztu egin zuten etapa-kopurua, hamaikaraino, eta etapen arteko atsedeen-egunen kopurua murriztu zuten, etapen distantzia laburragoak justifikatutako aldaketa.

‘*La Semence*’ izeneko artikuluan Henri Desgrang-ek idatzi zuen lehen orrialderako ezkerreko zutabearen: “Zolak ‘*La Terren*’ bere laborariari ematen dion keinu zabal eta indartsutik abiatuta, *L’Auto* egunkari irudimentsuak Frantzian zehar, gaurdanik, energia- ereile arduragabe eta indartsuak diren txirrindulariak bidaliko ditu”¹⁰⁹ (Desgrange, 1903).

Lyon, Marseilla, Tolosa, Bordele, Nantes eta Paris zeharkatu zituzten, baina “bere lasterketa Alsace-Lorrainetik pasarazi nahi zuen, lurralde horiek 1870eko gerran galdu baitziren: Tourra nazio-identitatearen oinarri gisa”¹¹⁰ (Smith P. , 1996).

¹⁰⁹ “Du geste large et puissant que Zola, dans «La Terre», donne à son laboureur, *L’Auto*, journal d’idées et d’action va lancer à travers la France, dès aujourd’hui, les inconscients et rudes semeurs d’énergie que sont les grands routiers professionnels.”

¹¹⁰ “parvient à faire passer sa course en Alsace-Lorraine, provinces perdues de la guerre de 1870: c’est le Tour comme ciment de l’identité nationale.”

Idea oso burugabea iruditu arren, Frantziako Tourrak berehala eman zizkion fruituak *L'Auto*-ri. XIX. mendearen amaieran, kirol- eta bizikleta-prentsak irakurle-kopuru mugatua zuen lehian, eta 150.000 inguru zirela kalkulatu da. 80.000 ziren Le Vélo-ren irakurleak. Lehen hiru urteak prekarioak izan ziren Giffard-en lehiakide hasiberriarentzat, hasierako eguneko batez besteko tirada 20.000 alekoa zen eta.

Ikusleek Frantziako lehen Tourrarekiko zuten interesak dena aldatu zuen. *L'Auto*-ren eguneroko salmentak 30.000ra igo ziren ekainean lasterketa prestatzen ari ziren bitartean, eta 65.000ra uztailean bertan. 1913an, egunkariaren eguneko batez besteko tirada 120.000 alekoa izan zen (1914an 4,5 milioi kopia egunean). Uztailean, eguneko salmentak 250.000 ale baino gehiagokoak izan ziren.

Ondorioz, Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetan, *L'Auto*-k publiko fidela garatzeko aukera izan zuen, eta baita lortu ere: bere urteko zirkulazioa hirukoiztu egin zen 1903an eta 1913 artean, eta bere eguneko batez besteko zirkulazioa 320.000 aletara iritsi zen 1914ko gerra aurreko azken Tourrean.

Berrikuntza teknologikoek lasterketetako zaldi primitiboa makina fidagarri, merke eta masan ekoiztua bihurtu zuten, klase baxuen aisialdia handitzen ari zen garai batean eta kirol-entretanimendu antolatua eskaria handitzen ari zen bitartean.

Frantziar askorentzat, lasterketa hauek izan ziren beren lehen kontaktua (eta agian bakarra) kirol modernoarekin.

Beren apustu handinahiaren arrakasta ziurtatzeko, antolatzaileek ahalegin nekaezinak egin zituzten publikoaren buruan hura berpizkunde nazional batekin lotzeko.

“Lasterketa erresistentzia jasangaitzaren odisea zikina izan zen. Nazioa hunkitu zuen eta *L'Auto* kioskoetan bultzatu zuen. Jakina denez, Tourra txirrindulari-kristautasunaren Vatikanoa bihurtuko zen” (Zúmer, 2014).

L'Autoren arrakasta itzela izan zen, baina Lehen Mundu Gerraren agerpena, Tourra gelditzeaz gain, frantziar egunkarien loraldia gelditu zuen. Halaz ere, *Paris-Soir* egunkariak eta literatura- (*Gringoire*, *Marianne*, *Regards*, etab) zein politika-aldizkariak indartu ziren.

L'Autok antolatu zuen Tourra 1903tik 1914ra (lasterketa ez zen egin Lehen Mundu Gerran), eta 1919tik 1939ra. Urte horretan bertan, prentsako handikia Raymond

Patenôte-k, *Le Petit Parisien*, *Le Lyon Républicain* eta *Le Petit Niçois*-en jabeak, *L'Auto*-n gehiengoa lortu zuen eta 1940ko azaroan alemaniarrei saldu zien, Frantzia erori eta hilabete gutxira.

Bigarren Mundu Gerra dela-eta, 1947ra arte ez zen Tourra berriz ospatu. Guda ondoren, Frantziako alemaniar okupazioan argitaratu ziren egunkariak, beraz, Vichyko erregimenaren kolaboratzaileak izan zirenak, legez kanpo utzi zituen Frantziako behin-behineko gobernuak.

L'Auto-k, gerra garaian kirolaz informatzen jarraitu zuenez, atekak itxi behar izan zituen, Tourrerako zituen eskubideak galduz. Victor Godet-en semeak, 1930eko hamarkadan Desgrange-ren laguntzaile nagusiak, *L'Equipe* sortu zuen frantziar gerraostean, 1946ko otsailean hain zuzen ere. Gauzak horrela, 1946ko maiatzean debekatutako egunkarien eskubide eta ondasunen eskuratze-prozedurak ezarri zituen lege bati jarraituz, *L'Equipe*k *L'Auto*-ren materiala eta ekipamendua erosi zituen, baita Frantziako Tourrerako eskubideen erdia ere.

Eskubide horien beste erdia Parisko egunkari batek, *Le Parisien Libéré*-k, ordura arte *Le Petit Parisien* izandakoak, erosi zuen. Ia hogeitaz *L'Equipe*-k eta *Le Parisien Libéré*-k elkarrekin antolatu zuten Tourra kide berdinak eta independenteak bezala. Geroago, 1964an, *Éditions Émilien Amaury*-k erosi zuen *Le Parisien Libéré*, eta bi egunkariak batera antolatu zuten lasterketa, Godet-en eta Félix Lévitán *Le Parisien Libéré*-ren editorearen zuzendaritzapean.

Groupe Amaury taldeak Lévitán kaleratu zuen 1987an; hurrengo urtean, 1988an, Godet, 83 urterekin, erretiratu zen lasterketa-zuzendari gisa. Azken urteetan, entitate berezi batek, *Société du Tour*-ek, *Éditions Philippe Amaury* sortua, Tourra eta beste hainbat bizikleta-lasterketa ospetsu antolatu ditu.

8.3.4 Berpizkunde eta modernitatearen atea?

Hastapenetara itzulita, *L'Auto*-k horrela zioen: “Inoiz izan den lehiaketarik handiena”, “txirrindularitzaren mundua irauliko duen karrera profesional erraldoia”, “gure historiako hitzordu handienetako bat da”. Ulertzekoa zen, irakurleak erakartzeko, egunkariak Tourraren garrantzi historikoa eta aurrekaririk gabeko garrantzia aldarrikatzea, batez ere parte-hartzaileek izena emateko denbora behar zutelako eta antolatzaileek lasterketa bertan behera utzi behar izatearen beldur

zirelako. Aldi berean Hippolyte Aucouturier-ek Frantziako Tourrak “pertsona horien guztien bitzta irauliko” zuela ondorioztatu zuen.

Egunkaria 1904an bigarren Tourrerako prestatzen ari zenean, lehenengoak eragindako “inpresio handia” berresten zuen, “bereziki ordura arte txirrindularitza kirolarekiko iragazgaitzenak izan ziren eskualdeetan”.

1905ean, *L’Auto*-k Tourra “gurutzada moral handi” bat bezala deskribatzen zuen, non parte-hartzaileek, “gure apostoluek”, “giza energiak mugarik ez duela” frogatzen zuten eta “kirolaren edertasunarekiko milaka ezjakin” bihurtzen zituzten.

Gainbehera nazionalaren espektroarekin obsesionatuta, frantziar askok bat zetozen *L’Auto*-ren iritziarekin: txirrindularitzak Frantziaren berpizkundera pertsonifikatzen zuela lehiaketa, ariketa fisikoa eta teknologia modernoaren bidez.

L’Auto-ri hasieratik gustatu zitzaion txirrindularitza “ondasun soziala” zela azpimarratzea; poetek eta politikariek bizikleta aurrerapenarekin lotu zuten eta mediku batek kirol berriak “gizarte modernoaren funtzionamenduan paper garrantzitsua” izan zezakeela adierazi zuen.

Beste batzuek, ordea, modernitatea aurrerapenarekin parekatu ordez, bi terminoak funtsean bateraezinak zirela uste zuten, bizikleta kaos eta endekatze-tresna bezala gaitzetsiz.

Bai kirolaren eta zientziaren bidez nazio-birsorkuntza pertsonifikatzeagatik ospatua, bai teknologia modernoaren aplikazio neurrigabearen arrisku inplizituen sinbolo gisa zitaldua, txirrindularia, mende-amaierako Frantziako aurrerapenari buruzko eztabaiden erdigune bihurtu zen.

Txirrindularitzaren, modernitatearen eta aurrerapenaren arteko lotura eztabaidagarria, Lehen Mundu Gerraren etorrerarekin are gehiago korapilatuko zela.

8.3.5 Lehen Mundu Gerra: kirol-prestakuntza eta makinak

Txirrindularitzak toki bat zuen XX. mendeko lehen urteetan gobernuaren diru-laguntzak jasotzen zituzten milaka klubaren programetan, ofizialki onartutako prestakuntza militarreko elkarte bezala. 1914ko udan, kontinente osoan tentsioak areagotu ahala, kirol berria defentsa nazionalarekin eta prestakuntza militarrekin estuki lotuta zegoen.

L'Auto-ren lerro editorialak ez zuen inoiz zalantzarik izan eta 1913an Desgrange-k bizikletaren asmakuntzak gizartea aldatu zuela zioen, ariketa fisikoaren aurka zeuden teoria atzerakoien aurka eginez: nazio baten handitasuna, bere lorpen literario, artistiko eta zientifikoengatik ez ezik, bere atletengatik eta bere haurren gorputzen sendotasunagatik ere neurtzen zen. Kirol ekitaldi handiek, Tourra “gurutzadarik handiena” zen, “jendetza berriak” ariketa fisikoaren garrantziaz konbentzitu zituzten, bitzta on baten eta etorkizuneko belaunaldi osasuntsuen oinarri bezala. Garai hartan ere, gorputz-hezkuntza omen zen birsorkuntza fisiko, intelektual eta moralaren giltzarri nagusia.

Ustea zen egungo gazte frantsesak askoz ausartagoak, indartsuagoak eta borondatetsuagoak zirela hogeita hamar urte lehenagoko aurrekoek baino, kontuan hartuta haiek gerra franko-prusiarra galdua zutela. “Frantzia berri” hura, nazioak zituen arriskuez jabeturik, borrokatzeko irrikaz zegoen. Baieztapen hauek anbizio handikoak ziren, baina *L'Auto*-ko txirrindularitzak lasterketa handiaren, hau da, Tourraren eskalak eta zailtasunak justifikatzen zituela zirudien.

Prestakuntza fisikoa alde batetik eta makinaren erabilera gerra-tresna gisa bestetik. Frantzian soilik gai honi buruzko dozenaka lan argitaratu ziren, besteak beste, irakaskuntza- eta araudi-eskuliburuak, bizikletaren erabilera militar frantsesaren zein atzerriarraren ikerketa taktikoak eta, gerraren ondoren, gerra-garaiko “ehiztari-txirrindularien” esperientzietan oinarritutako historiak.

Alemanek txakurrak entrenatu zituzten txirrindulari militar frantses eta ingelesak erasotzeko, eta frantsesek, aldiz, espero zuten txirrindularien batailoiek ordezka zitzaketela beren demografia zabarra eta zalditeriako indar txikiagoa.

“Industriako aurrerapenak edozein motatakoak izanik ere, une jakin batean armada nazionalari eskaintzen dizkion abantailez baliatzen jakin behar dugu”. Frantziako armada infanteriako txirrindulariekin esperimentatzen hasi zen 1870ean, eta 1901ean ofizialki onartua izan zen txirrindularitza, infanteriako soldaduek Eliseoko Zelaietan zehar desfilatu zutenean uztailearen 14ko ospakizunetan.

Urte batzuk geroago, 1913ko urrian, guda gero eta hurbilago zegoenez, Frantziako armadak hamar txirrindulari-talde sortu zituen, bakoitzak laurehun gizon zituelarik.

Usteen arabera, bizikletek trenek baino malgutasun handiagoa ematen zuten, trenbideen eta geltokien kokalekuek mugatzen baitzituzten.

Aurrekoa frogatzeko asmoz, berrogeita hamar urteko gizon batek 343 kilometro egin zituen hogeita lau ordutan, Frantziako Txirrindularitza Federazioak ofizialki ikuskatu eta grabatu zuen emanaldian. Lorpen horrek iradokitzen ei zuen bizikleta arrakastaz lehiatu ahal izango zela trenekin, nahiz eta hamarkada batzuk lehenago ezarritako espazio eta denbora-kontzeptuak desafiatu. “Bizikleta gizakiaren mugikortasuna biderkatzen duen makina bat da” izenburupean laburbil zitekeen.

Gainera, txirrindularitzak klubetako programak zituen, gobernuaren diru-laguntzak jasotzen zituztenak, XX. mendearen lehen urteetan *sociétés de préparation militaire* ofizialki onartuak. 1914ko udarako, kontinentean zehar tentsioak igo ahala, kirol berria defentsa nazionalarekin eta prestakuntza militarrekin lotuta zegoen.

“À la fin de 1912, 6.100 de ces clubs reçoivent des subventions du ministère de la Guerre (contre 3 600 en 1909). Bien que le programme principal de ces associations soit composé de la gymnastique, de l'adresse au tir à la carabine ou au canon, de la topographie élémentaire, de la randonnée, de l'hygiène, de l'équitation et des soins aux chevaux, d'autres compétences telles que le canoë, la natation et le cyclisme peuvent être ajoutées”¹¹¹ (Union des Sociétés de Préparation Militaire de France, 1913, orr. 24, 26-28).

8.4 Lasterketa handiak ere, hedabideen eskutik

Txirrindularitzako egunkariak gero eta ingurune lehiakorragoan borrokatzen ziren bitartean, beren irakurle-kopurua bermatzeko eta handitzeko, beren merkatu eskaria sortzen saiatu ziren, garai horretan egin ziren errepide-lasterketa asko (gehienak, agian) sortuz eta antolatuz. Esaterako, hiriarteko lehen errepide-lasterketa, Paris-Rouen, Le *Velocipède Illustré*-k antolatu zuen 1869an; *Véloce-Sportek* Burdeos-Paris

¹¹¹ “1912aren amaieran, klub horietako 6.100ek Gerra Ministerioaren diru-laguntzak jaso zituzten (3.600 1909an). Nahiz eta elkarte hauen helburu nagusiak gimnasia, karabina edo kanoietarako trebetasuna, topografia elementala, arrantxoa, higiena, ekisaindua eta zaldientzako arreta izan; kanoa, igeriketa eta txirrindularitza bezalako beste trebetasun batzuk ere jorratzen ziren.”

sortu zuen 1891n; eta bi urte beranduago *La Bicyclette* paristarrak antolatu zuen lehen Paris-Brusela lasterketa.

Lasterketen babesletza, aldi berean, egunkariarentzako publizitate-modu bat eta bere salmentak handitzeko bide bat zen. Lasterketa bati buruzko informazio zehatza bilatzen zuten zaleek egunkari babeslea erosten zuten, estaldura osatuena eskaintzen zuena. Estaldura gehigarri hori nahi zuten, hala nola lasterketaren ondorengo erreakzioak, elkarrizketa sakonak, liskarrak eta eztabaidak, lesioen txostenak eta lehiakideen ezaugarri biografikoak. Kirola faktore garrantzitsua izan zen Frantziako prentsaren garapenean, oro har, garai hartan.

Izan ere, lasterketak ez ziren txirrindularitzara mugatu eta denetik ezagutu zen. Hona hemen adibide batzuk: *Le Petit Journal*-k Paris-Brest-Paris txirrindularitza lasterketa antolatu zuen 1891n eta Paris-Rouen auto lasterketa 1894an; *Le Matin*-k Frantziako Tourra antolatu zuen 1899an, *Marche de l'Armée* 1903an, Paris-Londres gidarien lasterketa 1906an, Circuit de l'Est hegazkinen lasterketa 1910ean eta distantzia luzeko zaldi lasterketa bat 1911n. Urte horretan bertan, *Le Journal*-ek Circuit Européen hegazkin-lasterketa antolatu zuen, *Le Petit Parisien*-ek Paris-Madril proba bat babestu zuen bitartean.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran argitalpenek kirol-lehiaketa berriak antolatu zituzten. Aipaturiko Frantziako Tourraz gain, nazioartekoan honako hauek aipa daitezke: 1899an *New York Herald Tribune*-k Copa Gordon Bennet sortu zuen; 1901ean *Le Matin*-k Pekin-Paris lasterketa antolatu zuen; *Le Vélo*-k, 1898an eta 1899an igeriketa-lehiaketak antolatu zituen Sena ibaian eta Joinville Le Pont-en; Europako Futbol Kopak *L'Equipe*-n izan zuen oinarri eta Frantziako Hezkuntza Fisikako Ligak *Le Temps*-ek antolatu zuen prentsa kanpaina batean hasi zen. *El Mundo Deportivo* Volta a Cataluñaren sorreran zerikusi nabarmena izan zuen (Andújar, 2013).

Egunkariak, halaber, indarrak batzen zituzten: 1913an *La Gazzetta Dello Sport* eta *L'Auto*-k Paris-Erroma edo Erroma-Paris sei eguneko lasterketa antolatu zuten (Mundo Deportivo, 1913).

Tourra hedabideen arteko liskarren ondorioz edota hedabide baten eskutik jaio zen, ikuspegiak ikuspegi. Hori bai, txirrindularitza-arloko beste bi europar/munduko lasterketarik garrantzitsuenen kasuan gauza bera gertatu zen, hau da, arestian

aipaturikoaren harira, hedabideek beren jaiotze-prozesuan berebiziko garrantzia izan zuten, lasterketa bi horiek beranduago hasi ziren arren.

Tourretik gertuago Italiako Giroa hasi zen egiten, 1909ko maiatzaren 13an, *La Gazzetta Dello Sport* kirol-egunkariaren babespean, Lombardiako Giroa eta Milano-San Remo klasikoetan arrakasta frogatutzat eman ondoren.

Espainiako Vuelta 1935ean hasi zen korritzen eta jaiotze/bilakatzeko-prozesuan hedabideek ere egunduko inportantzia izan zuten. Clemente Lopez Doriga-k eta Juan Pujol-ek, *Informaciones* egunkariaren zuzendariek, lehen eta bigarren edizioa antolatu zituzten. Espainiako Gerra Zibilaren ostean lasterketak gorabehera asko izan zituen, urte batzuetan ez baitzen ospatu arazo ekonomikoak edota Munduko II Gerra zirela medio. *Ya* egunkariak, 1945etik 1950era, antolakuntza bere gain hartu zuen. Hortik 1955era ez zen egin eta urte hartan *El Correo Español/El Pueblo Vasco* antolakuntzaz arduratu zen. Pasa den mendeko hirurogeiaren hamarkadan hedabideak arazoak izan zituen, baina egiten segitu zen 1979an *El Correo Español/El Pueblo Vasco* antolatzeari utzi zion arte, lan hori Unipublic enpresaren eskuetan utziz (Garai, 1994, or. 39). Garai hartan telebistaren arretari esker publizitate-agentziek biziraupenerako beharrezkoa zen interesa erakutsi zuten (Garayoa "Boliche", or. 27).

Europatik kanpo ere hedabideen eta txirrindularitza-lasterketen harreman estua izan da. Adibide gisa, Kolonbian gertatu zena, *El Tiempo* egunkaria izan zen bertako Txirrindulari Itzuliaren lehen babeslea eta egun horrela segitzen du izaten.

8.5 Tourra: nazioa, erronkak eta gerrak

Tourra, bere hastapenetik, kirola nazio bat batzeko balio zuen ustean zeuden antolatzaileak. Hasi bezain pronto, Frantziako jai nazionala bihurtzeaz gain, nazio-sentimendu eta izaerarekin lotura dituzten aztarnak utzi zituen han-hemenka. "Elastiko urdina, zuria eta gorriak frantziarrak harrotu eta jendarteak zoratu egiten ditu. Tourra uztaila edertzen duen jai nazionala da"¹¹² (Virolli, *Por amor a la Patria*, 1997, or. 9).

¹¹² Le maillot bleu blanc rouge sublime les Français et électrise les foules. Le Tour c'est une fête nationale que embellit juillet.

“Tourrak askoz gehiago egin du Frantziako batasun nazionalaren alde XX. mendean egon diren gertakizunek baino (...)”¹¹³ (L'Equipe, 2014). Georges Conchon idazle frantziar ospetsuaren hitzak dira, argi utziz batasun nazionalaren ikuspegitik lasterketa hartzen ari zen garrantzia.

Hala, Tourraren funtzioa komunitate nazionala egituratzea zen, frantziarrak nazio bakar gisa batzen dituzten esperientzia komunak eta lurraldea azpimarratuz. Hau bereziki egia izan zen bi mundu-gerren ondoren (Thompson, 2006).

Ostean, nazio horren muga geografikoak gaindituko ziren: “Tourrak Frantzia ezkontzen du, pasioz beteriko herrialdea, infinituraino indarra eta edertasuna, mendiak eta haranak, lautadak eta basoak urtzen dituena, harrizko eta lurrezko bideei so, liluraturik dagoen herriaren magalean aitzindarien ikuskizuna ikusita, hegalaik soilik faltan baitituzte gorago joateko”¹¹⁴ (Virolli, Por amor a la Patria, 1997, or. 6).

Ildo beretik, *L'Equipe* egunkariak erraz laburbiltzen du lasterketaren kontakizunean Frantziarentzat bertako Henri Pélissier-en garaipena nola ulertu zen 1923an: “Frantziak irabazten du. Frantziako herriak lortutakoa arrakasta handitzat hartzen du”¹¹⁵ (Virolli, Por amor a la Patria, 1997, orr. 38-39). Azken finean Pélissier anaiak nazio heroiak bailiran tratatzen dituzte.

8.5.1 Mendiko erronkak

Lasterketaren hastapenetara itzuliz, gero eta mendi altuagoak gainditzeko ahalmenaz baliatzen zen Tourra. Parte-hartzaileak horretaz jabetzen dira: hiltzaileak, bidelapurrak, etab. deitzen diete antolatzaileei. Esaterako “Bidelapurrak zarete”¹¹⁶ dio Eugène Garrigou jada 1911an (Virolli, Por amor a la Patria, 1997, or. 6), baina errepideetan jarraitu zuten jo eta ke, lehia bizian, loriaren bila.

¹¹³ Le Tour a sans doute fait plus pour l'unité nationale de la France qu'aucun des grands événements dont elle a été le théâtre tout au long du XXe siècle.

¹¹⁴ “Le Tour épouse la France, un pays qui s'est pris de passion pour des cracks mêlant à l'infini la force et la beauté, les montagnes et les vallées, les plaines et les forêts, les routes de pierre et de terre sous le regard d'une joyeuse population fascinée par le spectacle de ces pioners auxquels il ne manque que des ailes pour aller plus haut.”

¹¹⁵ “C'est la France qui gagne”, “Un exploit que le peuple de France tient pour un événement considérable.”

¹¹⁶ “Vous êtes des bandits.”

Agi denez, Tourraren bilakaerak harreman zuzena izan du erronka zailagoekin, hau da, kasu honetan mendi berriak, ezezagunak eta altuagoak zapaltzearekin, gainditzearekin. Esanguratsuenak honako hauek lirateke:

1905ean lehendabizikoz Ballon d'Alsace igotzen da; 1910ean Tourrak Pirinioak zeharkatzen ditu (Tourmalet, Aubisque). Urtebete beranduago, 1911n, Tourra Alpeetatik ibili zen (Galibier). Denbora pasa zen berrikuntzarik gabe, mendiak ezin baitira asmatu, baina 1952an mendiko lehen helduerak antolatu ziren (Alpe-d'Huez, Sestrières, Puy de Dôme). Hamar urte beranduago, 1962, Restefond igo zen, Tourreko mendaterik altuena (2.802 metro). Honen parean 2011an helduerarik altuena izan zen, lasterketak Galibier mendatean (2.645 metro) amaitu baitzuen. Urte berean lehendabizikoz Planche des Belles Fillesera igo zen.

8.5.2 Lehen Mundu Gerra eta Tourra

Tourrak denboraren araberako sailkapenak lehendabizikoz 1913an ezarri zituen, hasieran puntuka zenbatzen zen eta. Lasterketa ez zen ospatu 1915 eta 1918 urteen artean, Lehen Mundu Gerraren ondorioz: 1914ko abuztuaren 4an hasi zen eta 1918ko azaroaren 11n amaitutzat eman zen.

Lehen Mundu Gerran hainbat txirringularik bizia galdu zuten, haien artean hasierako hiru irabazleak (François Faber, Octave Lapize eta Lucien Petit-Breton). “Jakina, ezin genituen ahaztu. Tourra oroimen kolektiborako unea da baita ere”, aipatu zuen Christian Prudhomme orduko Tourreko zuzendariak 2014ko edizioaren lasterketaren aurkezpen-ekitaldian.

Honen haritik, Gerra Handitzat bezala ezagutzen zena edizio horretan gogoratu nahi izan zuten antolatzaileek, mendeurrena zela medio. Horretarako toki enblematiko batzuk zeharkatu zituen Tourrak. Christian Prudhomme-k horrela azaldu zuen: “Belgikako Ypres (bertan lehendabizikoz ziape-gas erabili zen eta); ‘Damatxoen Bidea’ Reimserantz joateko (hortxe milaka eta milaka soldadu hil baitziren) eta Berdungo guda zelaietatik, Nancyko etapan Douaumonteko hilerriaren aurretik pasatzen ere (alemaniar zein frantziar ziren 130.000 soldadu ezezagunak lurperaturik daude eta)”.

Mende bat lehenago, 1914ko abuztuaren hasieran, gerraren ezta Tourraren ibilbidearen karga sinbolikoa berpiztu zuen. Lehen Mundu Gerra hasi eta egun gutxira, soldadu frantziar batek L'Auto-ra idatzi zuen, 1915eko Tourra Metz eta Estrasburgotik

igarotzea iradokiz, lasterketa Alsazia-Lorrenetik igaro zela gogoratu, Frantziako lurraldearen gaineko alemaniar autoritate ez-legitimoaren baieztapen mingarri bat bezala.

Henri Desgrange-k ibilbide hori zeharkatzea ala ez soldaduen beraren eta bere kideen borrokaren ondorioa izango zela erantzun zuen. Aitzitik, antolatzaileek ezin izan zuten desio hori bete 1919ko udara arte, Tourraren hasiera Versaillesko Itunaren sinadurarekin bat etorri zenean.

Hori bai, L'Auto-k 1919ko ibilbidea diseinatu zuen Frantziaren lurralde bateratzea sinbolizatzeko eta, bide batez, hainbeste soldadu frantziarren sakrifizioak eskertzeko eta omentzeko. Tourraren ibilbidean zehar batasun nazionalako saiakerak, batzuetan, erresistentzia aurkitu zuen, eta bazterketako eta banaketako kontranarratibak inspiratu zituen.

Gerra ostean, 1923ko edizioan, txirrindularien mailek izendapen berria izan zuten: 29 lehen mailakoak, 24 bigarren mailakoak eta gainerako 86ak turista-errepide kategorian kokatu ziren.

Jaime Janer, kataluniarra, eta Victorino Otero, Leongoa, izan ziren, 1924an, espainiar Estatuko lehen txirrindulariak Tourra amaitzen (Mundo Deportivo, 1971).

Ia aldi berean, Albert Londres kazetariak 1924an “errepideko lehiatsuak”¹¹⁷ izendatu zituen barruko bizipenak kronika-estiloaren bitartez maisuki kontatzean, bera ere txirrindularia baitzen (Londres, 2009).

Urtebete beranduago Frantziako Tourrak Parisetik kanpoko lehendabiziko irteera ezagutu zuen, Evian hiritik hain zuzen ere.

Berrikuntzak etengabe pilatzen joaten ziren eta 1927an, monotonia nolabait apurtzeko asmoz, etapen kopurua gutxitu zen, 24ra konkretuki, eta etapa laueta, hamasei gutzira, txirrindulariak multzoka irteten ziren, erlojuaren kontrako lasterketa bailitzan, baina sailkapenak banakoak ziren. Erlojuaren kontrako banako lehen lasterketa 1934an egin zen La Roche-sur-Yon eta Nantesen artekoa (90 kilometro).

Tartean 1929ko Tourra dugu aipagai. Lehenengo eta behin 1927ko edizioan indarrean sartu zen banakako irteeraren sistema oso gutxi erabili zelako, hiru etapatan

¹¹⁷ “Les forçats de la route”.

hain zuzen ere. Bestalde, arautegian aldaketaren bat eragin zuelako: Victor Fontan-ek maillot horia zeraman, baina hamargarren etapan erorikoa izan zuen Pirinioetan, bizikletaren urkila hautsiz. Urte hartako arautegiak argi eta garbi zioen txirrindulari bakoitzak debuta egin duen bizikletarekin etapa amaitu behar zuela. Fontan etxera itzuli behar izan zuen beste txirrindula bat hartzeko. Behin lortuta, falta zitzaizkion 145 kilometro bete zituen hautsitako bizikleta bizkarrean zeramala. Ausardia eta grina erakutsi zuen arren, lasterketa malko artean utzi behar izan zuen. Arau hori 1930eko Tourretik desagertu zen.

Azkenean Maurice De Waele belgikarrak irabazi zuen edizio hori, gaixorik egon arren, baina taldekideen lanak eta arerio askoren begiruneak fruituak eman zituen. Lasterketaren bilakaerak Henri Desgrange-ren amorrua piztu zuen: “Hilotza irabazle bihurtu dute. Nola liteke kentzeko erraz zen Maillot Horiak lehen postua gorde ahal izan duen?”¹¹⁸

8.6 Erregio- eta nazio-taldearen agerpena

Desgrange-k etengabe esperimentatu zuen lasterkari- eta talde-kategoria desberdinekin publikoaren interesa ahalik eta handiena izan zedin, eta urteen poderioz baita parte-hartzaileen eta hauen babesleen kontrola mantentzeko ere.

Henri Desgrange-k berak horrela definitu zuen Tourra: “Bilera milaka kilometrotan zehar, kasta eta klase guztien –proletarioak, nekazariak, burgesak eta nobleak– arnasa eta txalo-zaparrada jasotzeko ekitaldi bakarrean.” *L’Auto*-rentzat, karrera ikuste hutsa batasun adierazpena zen eta Tourreko zuzendariak egunkariaren orrialdeetan deskribatzen zuenez, komunitateak nazio anitz baten zati txikiak baino ez ziren.

Lasterketak frantziar estatuko txoko guztietako txirrindulariak erakarri zituen, horixe bera baitzen antolatzaileen nahia eta leloa: “Frantziako erregio guztiak ordezkaturik daude.” Probintzietako txirrindulariei egindako deiez gain, euren parte-hartzea bermatzeko neurriak hartu ziren; Paris eta inguruko txirrindularien presentzia itogarria gutxietsi zen eta txirrindulariak izendatzeko orduan eskualdeko estereotipoak

¹¹⁸ “On fait gagner un cadavre ! Comment un Maillot Jaune aussi facile à dépouiller a-t-il pu conserver la première place?”

barra-barra erabiltzen ziren, esaterako euskaldunak “euskaldun ausartak” bataiatuz. Ia maila berean, ikusleak sozialki desberdinak ziren baina lasterketarekiko grinak baturik.

Finean, *L'Auto*-k karrera “museo etniko” nazional eta ibiltari bihurtu zuen.

Aniztasun hori, aldi berean, *L'Auto*-ren eta inguruko babesleen interes ekonomikoen aldekoa zen eta, geroago, egunkariak zutabe finko bat ezarri zuen: “Talde erregionalen lasterketa”. Talde haiek 1930 eta 1939 bitartean talde nazionalen aurka lehiatu ziren.

Hasieran ez zen horrela planteatu. Lehiakide bakoitza, printzipioz, beste guztien aurkako banakako lasterkari bezala abiatu zen. Aldi berean, babesleen estrategiei aurre egin ondoren, Desgrange-k laster ulertu zuen txapeldunen parte hartzea bermatzeko haien jabeen parte hartzea baimendu beharko zuela.

Izan ere, 1909 eta 1914 artean banatuak izan ziren txirrindulari babestuak eta babesgabeak. Lehen Mundu gerraren osteko lehendabiziko Tourrean antolatzaileek antzeko kategoriak sortu zituzten: “A” eta “B” lasterkariak, eta “lehen mailako” eta “bigarren mailako” lasterkariak 1920tik 1922ra. Aldiz, 1923 eta 1927 artean, lehiakideak hiru kategoriatan banatu ziren: “Lehen kategoria” bat, lasterkari babesle bikainena, “Bigarren kategoria” bat, lasterkari txiki baina burutuen artean, eta hirugarren kategoria ia amateur bat, “tourists” deitutakoa.

1928an, eskualdeko bederatzita talde ere izan ziren (bigarren kategoriako lasterkariak ordezkatu zituzten), baita hainbat turista ere. Urtebete beranduago, 1929an, Desgrange-k bi kategoria ezarri zituen: goi-mailako lasterkariak eta turista apalak.

1930ean Desgrange-k talde babestuak desagerraraztea erabaki zuen eta haien ordeztaldea nazionalak ezarri, antolatzaileek kideak aukeratu zituztelarik. Halaber, Frantziako eskualdeetako taldeek ere parte hartu zuten 1939era arte. Hasierako eskualdeetako taldeak “le Nord, la Normandie, le Midi, la Provence, la Riviera, le Sud-Est, l'Alsace-Lorraine, la Champagne et l'Île-de-France” izan ziren eta, ibilbide horren amaieran, 1939an, “le Nord/Est/Île-de-France, l'Ouest, le Sud-Ouest et le Sud-Est” (Chany, 1991, orr. 812, 824).

Chauvinismo atletiko orokortua aprobetxatuz, aldaketa hauek ikusleak lasterketarekiko zuten interesa berpiztu zuten.

Hamarkada hartan Frantzia, Belgika, Italia, Alemania, Espainia, Suitza, Australia, Luxenburgo, Herbehereak, Jugoslavia, Errumania, Britainia Handia eta Austria taldeek parte hartu zuten. Talde batzuk herrialde bateko baino gehiagotako lasterkariz osatuak zeuden. Frantzia eta Belgika bezalako lasterkari handiak zituzten herrialdeek bi edo hiru talde nazionalen alde egin zezaketen.

1930 eta 1937 artean, Desgrange-k lasterkari indibidualak, isolatuak edo turistek parte-hartzea ere onartu zuen. Urte batzuetan, indibidualak beren talde nazionaletan aritu ziren, eta beste batzuk beren nazioaren "unibertitate"-taldeetan zeuden Tourra korritu ezin zuten kideak ordezkatzeko.

Aberria lantzeaz gain, kontsidera daiteke Frantziako Tourra kirolean kontsumismoa lehendabizikoz sartu zuena izan zela, eta lasterketaren erraldoitasunak, urteen eta edizioen poderioz, monumentua bihurtuko du.

1930ean bertan, aipaturiko nazio-taldeen jaiotzaz gain, publizitate-karabana estreinatzen da. Urteen poderioz gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan zen: "Publizitate-karabanak uztaileko lasterketaren ezaugarri herritarra laguntzen du. Hau da, bere agerpen ofizialek hamar urte bete ez direnean, Tourreko giroaren zati bat da. Lehendabiziko urteetatik ibilgailuen berezitasunak, musikak, opariek eta dastatzeek publikoaren arreta pizten dute, sexua eta adina ezberdindu barik. 1939an, 27 markak modernitatea eta ahalmen ekonomikoa adierazten dute (Jif Watermann, Butagaz, Paul Beuscher, Bayard, Gray Film, Lacroix Fils, Chalumeau Mannertet, les cirages Lion Noir, Brasserie de la Meuse, les Galeries Lafayette, la loterie les Ailes Brisées, les pneus Goodrich Colombes, Comité du cuir, Ets Dreux, La Salers, Comité de propagande de la Banane française, Fromagerie Bel, Chocolaterie du Mont-Blanc, Amora, la chicorée Arlatte, les tisanes Boldoflorine, Perrier, Martini Rossi, Cointreau, Byrrh, Pernod eta Cinzano). Italiar ardoek ez dute lasterketan parte hartzeko debekurik ezagutzen (...) Elikadura-babesle eta alkohol-marka askok euren sinboloak ospetsu bihurtu nahi dute. Berritzaile eta batzuetan eztabaidagarri, karabanaren bitartez frantziar askok marka dezente ezagutu zituzten 1930eko hamarkadan zehar..."¹¹⁹ (En Envor, 2013).

¹¹⁹ "La caravane publicitaire contribue beaucoup au caractère populaire de l'épreuve juilettiste. En effet, moins de dix ans après son apparition officielle, elle fait déjà partie intégrante de l'ambiance du Tour. Dès les première années, l'étrangeté de ces véhicules, les musiques, les cadeaux et les

Halaber bizikletak horiak izango ziren edizio eraldatzaile horretan, *L'Auto* egunkariak zerabilen paperaren kolore berekoak hain zuzen ere. Publikoaren nolabaiteko gaitzusteak ekiditeko asmoz, Desgrange zuzendariak nazio-taldeak marka komertzialen taldeen ordeztuz sartzen ditu. Aitzitik, sari guztien zama bere gain hartu eta hiribilduen mobilizazioa bultzatzen du.

Gaitzustearen jatorria bilatzean, frantziar txirrindularien garaipenen faltan zetzan, historian hainbatetan errepikatu den gertaera edo animo-egoera: "(...) Azken finean, Desgrange-k jakin badaki ezin dela onartu, urtero eta urte luzez, Parisen atzeritar bat horiz jantzita ikustea (...)"¹²⁰ (Virolli, *Por amor a la Patria*, 1997, or. 46).

Egoerari nolabaiteko irteera emateko *L'Auto*-k artikulu luze bat idazten du 1929ko irailaren 25ean, 1930ko edizioan gertatuko zena iragarritz:

"1930eko uztailaren 2an, asteazkenean, gure egunkariaren ate nagusia irekiko da Chatou-ra abiatuko diren zortzi txapeldun italiar, italiar koloreekin; zortzi txapeldun belgikar, belgikar koloreekin; zortzi txapeldun espainiar, espainiar koloreekin; zortzi txapeldun alemaniar, alemaniar koloreekin; zortzi txapeldun frantziar, frantziar koloreekin. Guztira berrogei 'As' beste hainbeste txirrindulari 'turistak' 1929an korritu dutenak eta beste hogeitun 'turista' gehiagorekin batera. Jarraigo garrantzitsu honen atzetik, Pariseko edota

dégustations provoquent l'intérêt du public, sans distinction de sexe ni d'âge. En 1939, 27 marques comprennent la modernité et le potentiel économique d'un tel dispositif (Jif Watermann, Butagaz, Paul Beuscher, Bayard, Gray Film, Lacroix Fils, Chalumeau Mannertet, les cirages Lion Noir, Brasserie de la Meuse, les Galeries Lafayette, la loterie les Ailes Brisées, les pneus Goodrich Colombes, Comité du cuir, Ets Dreux, La Salers, Comité de propagande de la Banane française, Fromagerie Bel, Chocolaterie du Mont-Blanc, Amora, la chicorée Arlatte, les tisanes Boldoflorine, Perrier, Martini Rossi, Cointreau, Byrrh, Pernod et Cinzano). Les vins cuits italiens, eux, ne connaissent pas l'interdiction de participer à l'épreuve (...) Nombreux sont les sponsors alimentaires et les marques d'alcool qui cherchent à populariser leurs enseignes. Novatrice et parfois contestée, c'est par le biais de la caravane que de nombreux français font la connaissance de multiples marques tout au long des années 1930 (...)"

¹²⁰ "Henri Desgrange le sait pertinemment, on ne peut pas ramener chaque année et indéfiniment de surcroît un étranger de jaune vêtu à Paris (...)"

herrialdeetako hedabideen partaideak ongi etorriak izango dira euren kotxeetan, eta atzean L'Auto-ren kamioiek eta furgonetek ibilaldia itxiko dute” (Conord, 2014).

Halaber berrikuntza gehiago eskaintzen zuen arestian aipaturiko artikuluak: “L'Auto-k bere gain hartuko ditu elikadura, ostatua, janzkera, masajea zein materialei dagozkien gastu guztiak. (...) Hau edo Frantziako Tourrari agur esan”, zioen Desgrange-k (Virolli, *Por amor a la Patria*, 1997, orr. 46-47).

Zortzi hilabete beranduago Desgrange-k justifikatzen zuen Austria, Luxenburgo edota Suitzako selekzioen falta, aski txirrindulari ez zutelako. Aitzitik, arazoa sortu zen kalitatezko txirrindulari batzuk kanpoan gelditu zirelako, baina batzuentzat Alemania zein Espainiako selekzioetan tokia egin zen.

Egitasmo berria finantzatzeko, diru pribatua eta baita publikoa ere beharrezkoa zen. Publizitate-karabanan iragarle gutxi zeuden garai hartan eta, beraz, Tourra jasotzen zuten hiribilduek subentzioak ematen zituzten. Etapa bat jasotzeak bertoko ekonomia laguntzea zekarren, eta herrietan udako ikuskizun gisa aurkezten zen Tourra. Urteen poderioz, Frantziako Tourrak herri, hiri edota hiribildu askoren partetik heldutako hautagaitzak aztertu eta baztertu beharko zituen, eta baita bere mugetatik at ere.

Aldaketaren eskutik ere heldu zen frantziarren garaipena, aspaldiko partez: Leducq-ek irabazi baitzuen, baina errepideetatik kanpo aldaketaren arrakasta nabaria izan zen: ehun mila pertsona irteeran eta milioi bi heldueran, haietatik 40.000 inguru Printzeen Parkearen Belodromoan. Alaitasuna bost urtez luzatu zen.

Hurrengo edizioan, 1931koan hain zuzen ere, antolatzaileek publikoaren aldetik laguntza jasotzea, behin bada ere, ontzat hartu zuten, baina inolaz ere era antolatuan. Denbora-sariak gehitzen joan ziren, jada lau minutu etapako irabazlearentzat. Espainiako taldeak ez zuen parte hartu edizio horretan.

Gendarmerie Tourrean agertu zen 1933an, urte hartako ekainaren 27an, botere publikoak lasterketaren handitasuna sortzen zituen arazoak beren gain hartzeko garaia zela jabetu direnean (Virolli, *Por amor a la Patria*, 1997, p. 52). Urte berean lehen aldiz Mendiko Saria eman zen eta baita “*casquettes jaunes*” –kasko horiak– taldeka

irabazten zutenei ere. Mendian lehen irabazlea Trueba espainiarra izan zen eta taldeka Frantziako taldeak.

Edizio horretan eta hurrengoan ere espainiar taldeak kale egin zuen, famatua zen Trueba bezalako txirrindulariak 'turista' moduan parte hartu zuen arren.

Denbora-sariek aldaketak nozitu zituzten, beherantz, 1934ko edizioan. Berrikuntzen artean erlojuaren aurkako banakako lehen froga jokatu zen, 83 kilometrokoa Roche-sur-Yon eta Nantesen artean. Halaber 5.000 bidoi eta 2.000 anoa-poltsa prestatu ziren ediziorako. Antolakuntzak hamar fisioterapeuta eta beste hainbeste mekaniko ipini zituen lehiatzen ziren bost talde nazionalen zerbitzura.

Zainketek ezin izango zuten Tourreko lehen heriotza ekidin, 1935eko edizioan heldu zena, uztailaren 14an hain zuzen ere. Francisco Cepeda, Bizkaiko Garape herrian jaiotako txirrindularia, Lauteret mendatea jaisten jauzi zen hilaren 11n eta, burezurra hautsita, hiru egunez koma-egoeran egon ostean, Grenoblen zendu zen. Irabazlea Romain Maes belgiarra izan zen eta jaia nagusitu zen Parisen eta haren jaioterrian. Batzuek egun bateko jai nazionala egitea proposatu zuten (Mundo Deportivo, 1935).

Arrazoi politikoak tarteko, italiar taldeak ez zuen parte hartu 1936ko edizioan eta espainiarrek Luxenburgoko taldearekin korritu zuten. Aipagarria da ere Errumania, Jugoslavia, Austria eta Holandako taldeen presentzia. Beste Maes belgiarrak, Sylvere kasu honetan, irabazi zuen. Urte hartan lehen "euska" garaipena heldu zen Gordexolan jaiotako Federico Ezkerraren eskutik, bere hirugarren Tourrean (Garai, 1994, or. 6).

Henri Desgrange-k, Tourreko zuzendariak, gaixotasun batek jota, bere tokia utzi zion hirugarren etapan, Charlevillen, Jacques Godet-i. Lehendabizikoz etapa bat hiru sektoretan banaturik korritu zen.

Belgikarrek, antolakuntzaren erabakiekin zituzten desadostasunak zirela eta, lasterketa utzi zuten Bordeleko irteeran 1937ko edizioan. Italiarrek aurreko urtean "gerra-arrazoiak zirela medio" ez ziren presente egon, baina oraingoan "Estatu-arrazoiak" euren presentzia ziurtatu zuten, Mussolinik nahi omen zuen Bartali-ren dohainak agerian uztea. Italiarra jausi egin zen soinean maillot horia zeramala (Virolli, Por amor a la Patria, 1997, or. 59).

Alde teknikoei dagokienez, 1937an Guy Lapébie frantziar irabazleak abiadura-aldagailua ezarri zuen bizikletan.

Taldeko erlojupekoak 1938an desagertu ziren eta Bartali-k Italiari eman zion garaipena. Talde batzuk 12 txirrindularikoak ziren eta txikienek, aldiz, soilik sei eroateko baimena zuten, Espainiak, Suitzak, Holandak eta Luxenburgok kasu.

Italiak eta Alemaniak ez dute parte hartzen. Italiarrek beren sostengua adierazi zioten Hitler zuzentzen zuen Alemaniari. Talde nazionalak bost izan ziren, zortzi txirrindulari bakoitzeko. Belgikarrei bigarren talde bat egitea proposatu zitzaizen eta frantziarrei erregioetako bost taldetan banatzea: Nord-Est, Ile-de-France, Ouest, Sud-Ouest eta Sud-Est.

8.6.1 Bigarren Munduko Gerra eta Tourra

Gerra aurretik garaiko egunkariak zaletasuna koloreen gainetik azpimarratzen zuten (Mundo Deportivo, 1913). Baina lasterketa berriz eten zen Bigarren Mundu gerra zela-eta. "1939an, europar eszenako tentsio diplomatikoak nagusitzen dira frantziarren izpirituetan, uda ziklista asaldatuz. Egungo kirolaren historiografiak neurtzen ditu bere inplikazio politiko guztiak eta ez dauka zerikusirik duela hogeita hamar urtekoarekin. Beraz, oso ikerketa gutxik arreta ipintzen dute Bigarren Mundu Gerraren aldarrikapena baino bi hilabete lehenagoko egoera kirol-prismaren bitartez aztertzeko. Dantzig-en aferak eta SESB-rekin hitzarmenaren negoziazioa Europako eskenatoki diplomatikoa betetzeaz gain, bizitzaren arlo guztiengan dute eragina. Frantziarrak, historiografian denbora luzez onartzen zaien ezkortasunetik urrun, prest daude Adolf Hitlerren mehatxuari aurre egiteko"¹²¹ (En Envor, 2013).

¹²¹ "En 1939, les tensions diplomatiques sur la scène européenne occupent l'esprit des Français et perturbent l'été cycliste. L'historiographie du sport est sans commune mesure avec ce qu'elle pouvait être il y a encore une trentaine d'années et l'on mesure bien aujourd'hui toutes ses implications politiques. Pourtant, rares sont les études s'intéressant par l'intermédiaire du prisme sportif au deux mois qui précèdent le déclenchement de la Seconde Guerre mondiale. Or, la question de Dantzig et la négociation d'un traité avec l'URSS agitent non seulement la scène diplomatique en Europe, mais impactent tous les domaines de la vie. Les français, loin du défaitisme longtemps admis dans l'historiographie, sont désormais prêts à ne plus laisser Adolf Hitler proférer ses menaces."

Guda 1939ko irailaren 1ean hasi zen (nahiz eta Asian 1937az geroztik Japonia eta Txina gerran zeuden) eta 1945eko irailaren 2an amaitutzat eman zen. Tourraz eta gainerako txirrindulari-lasterketez aparte, bizikletak gerran aski erabiliak izan ziren alde guztietatik tropak erraz mugitzeko eskaintzen zuten erosotasunarengatik, batez ere erregeia faltan zenean, eta oinez baino azkarrago mugitzen zirelako.

Tourra bueltan zegoen 1947an. *L'Equipe*-k *L'Auto*-ren erreleboa hartuta zeukan. Hamarkadaren hasieran jasotako kolpea okupazioaren ostean gogorra izan zen, baita hedabideentzat ere. Egunkari batzuek alemaniarrekin kolaboratzen zuten, beste batzuk desagertu egin ziren eta Erresistentzia prentsa klandestinoaren bitartez mintzatu zen (*Combat, Défense de la France...*). Arestian aipatu den moduan, *L'Auto* okupatzaileen artean kokatu zen 1944an desagertu arte.

Urte bi beranduago *L'Equipe*-k buru belarri hartu zuen Tourra berpizteko ardura eta 1947ko urte hartan Tourrak inoizko berotasunik handiena izan zuen. Herritarrek gerra aurreko ohiturari segitu nahi zioten, gerra existitu ez bazen bezala, eta horretan Tourrak jada estatusa zeukan. Estatu-eta eskualde-mailako taldeak ere birkokatu ziren Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eta beren presentziak 1961eko Tourrera bitartean iraun zuen.

Halaber, aipagarria izan zen lehendabizikoz lasterketa Frantziar Estatutik kanpoko estatu baten hiriburu batera heldu zela, Bruselasera hain zuzen ere. *Francophonie* da Tourraren ikuspegi orokor eta zabal berria.

Hurrengo edizioan, 1948an hain zuzen ere, lasterketa Italiara sartu zen, kasu honetan Mundu Gerraren osteko adiskidetze-espirtuaz kutsaturik. Lehen konexioa uhin hertziarren bitartez egin zen, Tourra Pariseko Printzeen Parkera iristean (Maitrot, 1995).

Donostiara heldu zen 1949ko Tourra, lehen aldikoz Hego Euskal Herrira eta, bide batez, espainiar Estatura sartzen zen edizioa izanik. Uztailaren 9an izan zen, Bordele-Donostia etapan. Egun horretarako jada espainiar taldeko partaide guztiak ez ziren lasterketan, Tourra Pont l'Évequen utzi eta gero. Lasterketak harrera ezin hobea izan zuen. Pierre Sabbagh-ek egin zuen telebistako lehen egunkaria hilabetez elikatzen da Frantziako Tourraren etapan irudi diferituekin (Maitrot, 1995).

Aldi horretan, urtero bost eta hamaika talde nazional artean aritzen ziren, Frantzia, Belgika, Italia, Suitza, Mendebaldeko Alemania, Luxenburgo, Australia, Austria, Espainia, Britainia Handia eta Herbehereak ordezkatzuz.

Gainera, herrialde batzuk batzuetan talde bat baino gehiagotan sartzen ziren, eta beste batzuk, berriz, bi nazio edo gehiagoko txirrindulariz osatuak zeuden. Frantziako hiru eta sei talde erregionalen artean ere egon ziren urtero, baita Ipar Afrikako talde bat ere 1950eko hamarkadaren hasieran, Tunisiak, Marokok eta Aljeriak Frantziatik independentzia lortu baino urte batzuk lehenago.

1955. urtean espainiar Estatuko txirrindulari bat, lehen aldikoz, horiz jantzi zen, Katalunian jaiotako Miguel Poblet hain zuzen ere, halaber Parisen inoiz irabazi duen bakarra eta, baita ere, txirrindularitzan handienak diren hiru lasterketetan (Tourra, Giroa eta Espainiako Itzulia) etapak irabazi zuen lehena.

8.7 Estatuka baina taldeka

Aldaketak aldaketa, Tourra horizonte berriak jorratzen ari zen etengabe, beraz, handitzen joan zen arautegiaren aldaketei esker eta baita aurrerapen eta berrikuntza tekniko, teknologiko zein zientifikoei esker. Tourreko lehen etapak telebistaz zuzenean 1958an ikusi ziren (Maitrot, 1995, or. 468). Ia hogeita hamar urte lehenago, 1929an, TSF Irratiak Tourra lehendabizikoz zuzenean eskaini zuen.

Gauzak horrela, 1950eko hamarkadan, bizikletaren industria hiltzorian zegoen eta beste sektore batzuetako enpresek babesak eman zieten txirrindularitza-taldee. Aldi berean, Tourraren talde nazionalek ez zuten eragotzi bizikleta-ekoizleek beren produktu-lerroetarako erakusleihen moduan erabiltzea, baina babesleek euren propaganda maillotengana fokatu zuten, batez ere prentsako argazkietan eta telebistako pantailetan agertu zirenean. Babesle horiek presio handia egin zieten Tourreko antolatzaileei eta 1962an talde-babesleak berpiztu zituzten.

Beraz, Estatu/Nazio taldeek lekua utzi zieten talde markadunei 1962an, baina 1930ean estreinatu zen ekimenetik hogeita hamabi urte pasa ondoren liskarrak ez ziren amaitu. "(...) eraikin zitarra bota da arazotsua izan daitekeen beste bat eraikitzeko. Espainiar merkataritza-taldeak baztertuak izan dira era adierazezinean, bakarrik

Bahamontes-ek, Otañok eta Campillo-k korrika egin ahal izan zuten Margnat Paloma frantziar taldean” (Mundo Deportivo, 1971).

Tourrak kirol-panoramaren egunean duen hierarkia zuen jada eta horrek berebiziko garrantzia zeukan markentzat. Esaterako KASek, 1964an taldeka korritu zen erlojupekoa irabazi zuen, eta 1965ean taldeka sailkapen orokorrean. Gregorio San Miguel-ek debuta egin zuen urte hura gogora ekartzen zuen, Tourrean egoteak zeukan garrantzia azpimarratuz: “Espainiako Itzulian ederto ibiliz gero Tourrera joaten zinen, joan behar nuen. Nik horrela uste nuen behintzat, baina berria zaren heinean ez daukazu ziurtasun hori” (EGIN, 1995, orr. 23-25). Hiru urte beranduago jakingo zuen elastiko horia janztear zer zen.

Atarikoan izan zen 1967ko Tourreko berrikuntzaren bat, ia sei kilometroko erlojuaren aurkako etapa, Angersen, eta Joxe Mari Errandoneak eraman zuen, horiz jantzi zen lehen euskalduna izanik. Edizio horretan, Tom Simpson hil zen urtean hain justu ere, Dieter Wiedemann (Torpedo talde profesionalean zebilena) Tourra korritzen zuen Alemaniako Errepublika Demokratikoaren lehendabiziko txirrindularia izan zen, nahiz eta bere jaioterrian horren inguruko isiltasuna nagusi izan. Wiedemann Simpson-en gertu zebilen Mont Ventouxen aldapaz gora britainiarra ibilbide zigizagatsuari ekin zionean. «Haren ondoan pasa naiz eta bere begietan ikusi dut egoera txarrean zegoela. Nire buruari esan diot: ez dauka inolako aukerarik Carpentraseraino heltzeko”¹²² (Farr, Hacker, & Kazee, 2006) aipatu zuen elkarrizketa batean. Ordu batzuk beranduago Tom Simpson hil zen.

Wiedemann, bai, Pariseraino heldu zen, lasterketa 52. tokian amaituz. «Tourrarekin amets ezinezkoa lortu dut. Ez nuke esango horrek ihes egitea justifikatzen zuenik, baina AEDren beste inolako txirrindularirik ez du jakingo Parisera heltzeak suposatzen duena. Nire familiarik aparte, hori da munduan gehien maite dudana»¹²³ (Farr, Hacker, & Kazee, 2006).

¹²² “Je suis passé à côté de lui, et j’ai vu dans ses yeux qu’il était dans un sale état. Je me suis dit: “Aucune chance qu’il aille jusqu’à Carpentras.”

¹²³ “Avec le Tour, j’ai réalisé un rêve impossible. Je ne dirais pas que cela justifiait en soi que je fasse défection, mais aucun autre coureur de RDA ne saura jamais ce que ça fait d’arriver dans Paris. Hormis ma famille, c’est probablement ce que j’ai de plus cher au monde.”

Urtebete beranduago Torpedo taldea desagertu egin zen. Wiedemann-ek frantziar eta herbeheretar taldeetan korritu egin zuen, baina 26 urterekin tornulari moduan ekin zion lanari, izan zituen hiru alabetako lehena jaio baino lehen.

Urte batzuk beranduago, 1972an, amnistiaren legeak jaioterrira itzultzeko aukera eskaini zion eta urtean behin hara itzuli zen 1980 urtera arte. Ostean soilik 1985ean egon zen eta harrez geroztik ez zen itzuli. Dieter Wiedemann Euerbach-en (Bavarian) bizi da egun. Haren ustez bizitza ez da inoiz normala izango: «Pertsona eta guraso on bat izaten saiatzen zara, baina ez dut uste inoiz horretaz erabat libratzen zarenik»¹²⁴. Harresia bota zenetik lautan itzuli da Alemaniako ekialdera, ikasle ohien bilera bitarako eta aitaren eta amaren hileta-elizkizunetara (1991 eta 2001): «Ihes egin nuen egunean nire buruari esan nion: “Ekialdeko Alemania uzten dut, liburua ixten dut”»¹²⁵ (Farr, Hacker, & Kazee, 2006).

Askoz lehenago, arestian aipaturiko 1967. urte hartan berriro ere Estatuetakoko selekzioek parte hartu zuten eta Frantziakoak eraman zuen taldekako saria. Hala eta guztiz ere, muga ez zen oso zehatza izan. Adibidez 1968an espainiar Estatuko ordezkariak Kas taldeko txirrindulariak ziren: Etxebarria, Elorza, Gandarias, Gonzalez, Lasa anaietako zaharrena -euskaldunak-, Gomez del Moral, Lopez Carril, Jimenez eta Perez Frances (Telleria, 1995).

Edizio horretan espainiar Estatukoek taldeka irabazi zuten: “Ametsa izan zen Pariseko podiumera igotzea”, zioten irabazleek. Banakako sailkapenean Janssen izan zen lehena, Van Springel bigarrena eta Bracke hirugarrena. Gregorio San Miguel laugarrena izan zen, Janssendik 3'17"-ra, eta elastiko horia eraman zuen 18. etapan (Saint Etienne-Grenoble).

Halaber, historiarako bere protestaldia agerian geratu zen dopinaren kontuak zirela-eta:

“Tourra arraro samarra izan zen. Lauzpabost aldiz kontrola pasa behar izan nuen, eta ezer hartu ez nuenez ez nuen fisik eman, baina batzuek positibo eman zutela kanporatuak izan

¹²⁴ “Vous essayez d’être une bonne personne, un bon père, mais je ne crois pas que vous puissiez un jour vous libérer complètement de tout ça.”

gabe komentatu zidaten. Geroxeago ere lagunek zein mekanikoek positibo asko estali zirela komentatu zidaten. Konbentziturik nago Janssen dopatu zela, nahi zuen haina hartuz” (EGIN 95/1/23-25).

San Miguel 1971ko Tourrean korritzeko gertu egon zen eta korritzeak beste urte batzuetako kontratuei atea irekitzea zekarren, baina sasoian ez zegoenez Galdosi utzi zion bere tokia.

Hirurogeita hamargarren hamarkadaren erditik aurrera antolatzaileek Tourra goitik behera aldatu nahi izan zuten, aldaketa hirukoitza eginez hain zuzen ere: kirol-arloan Félix Lévitán zuzendariak lehentasunak azpimarratu zituen: «Alpeak zeharkatu nahi ditugu, gauza bera egin Piriniotan, Erdialdeko Mendigunetik pasa eta Parisen amaitu»¹²⁶; merkataritza arloan eta turistikoki jauzia nabarmena zen: lasterketak balnearioak eta neguko-estazioak sustatzen zituen -bederatzi bisitatu ziren 1975ean- eta Guy Merlin higiezin-sustatzailea babesle handia bihurtu zen eta urte batzuetan higiezin-sustapenak zituzten estazioak zeharkatzen zituen Tourrak. Ikuslea kontsumitzailea da eta aisia eta astiaren Frantzia bultzatu nahi zuten, beti ere turismoarekin lotuta.

1975ean gazte onenaren saria (maillot zuria) eta mendiko saria (maillot zuria puntu gorriekin) ezartzen dira eta lehendabizikoz lasterketak Pariseko Champs-Élysées etorbidean izan zuen helmuga. Frantziar Errepublikako presidentek, Valéry Giscard d'Estaing-ek, maillot horia Bernard Thévenet-i eman zion amaieran.

Etengabeko biraketa komertziala kritikatu izan zen. Horrekin batera telebistaren garrantzia gero eta handiagoa zen eta talde batzuentzat pantailan agertzea hil edo bizikoa bihurtu zen. Aldi berean talde nazionaletara itzultzea eskatzen da. Ibilbidearen lehentasunak hiri, herri eta hiribilduen hoteletako etengabeko dantza eragiten zuen eta txirrindulariek greba ere egin zuten (Valence d'Agen, 1978). Hobekuntza batzuk onartu ziren 1979an, batez ere irteera-ordutegiei zegozkienak, baina lehentasunak ia berberak ziren.

¹²⁵“Le jour où j’ai fait défection, je me suis dit “Je quitte l’Allemagne de l’Est, et je ferme le livre.”

¹²⁶“Nous voulons passer par les Alpes, par les Pyrénées, par le Massif central et terminer à Paris.”

1982an babesleak itzuli ziren, publizitate-karabanaren berpizkundearekin batera.

Aldaketa teknologikoak nagusi izan ziren 1985ean: osagarri berriak agertzen ziren (pedal automatikoak, gurpil lentikularrak) eta Miguel Indurainen lehen parte-hartzeak lau etapa baino ez zuen iraun.

Bi urte beranduago, 1987an, lasterketa Berlinetik irten zen. Ohikoa zen jada frantziar Estatutik at abiatzea, honezkero Tourra Belgika (Brusela, Charleroi), Herbehereak (Amsterdam, Haga), Suitza (Bâle) eta Alemania bera (Kolonja, Frankfurt) inoiz aukeratuak izan ziren abiapuntuztat baina Berlin, ordurarte, izan zen abiapunturik urrunena. Bi urte beranduago Berlingo harresia desagertu zen.

Jean-Marie Leblanc-ek, kazetaria *L'Equipe* egunkarian eta txirrindulari ohia, Tourra zuzentzeko ardura bere gain hartu zuen eta 1989an Tourrak frantziar iraultzaren bigarren mendeurrena ospatzen zuen, diru-saria eskainiz (17.890 franko konkretuki) 1.789. kilometroa (Martres-Tolosane) lehen zeharkatzen zuenarentzat. Emakumezkoen Tourra hortik abiatu zen eta egun horretan ere, Kelme espainiar talde osoa lasterketatik at geratu zen, lesioengatik, istripuengatik eta antolakuntzak jarritako epe-muga baino beranduago heltzeagatik.

1980ko hamarkadan Tourraren pelotoia Europatik eta Australiatik harago zabaldu zen eta Ipar eta Hego Amerikako lasterkariek parte hartu zuten, kirolaren internazionalizazioa eta Tourraren merkataritza-deialdi gero eta globalagoa islatuz. 1990eko hamarkadan Ekialdeko Europako eta Sobietar Batasuneko lasterkariak batu zitzaizkien, Gerra Hotzaren ondorioz 1947tik Turretik kanpo zeuden eta.

Honen harira esan, Tourreko historian antolatzaileen eta taldeen arteko tirabirak ugari izan direla. Arestian aipatu diren ika-mikak ia ziklikoki errepikatu dira, liskarrerako arrazoiak mota guztietakoak izanik. Esaterako, 1993ko Paris-Tours izeneko klasikan, Frantziako Tourraren enpresak berak antolatzen zuena, espainiar Estatuko taldeek parte ez hartzea erabaki zuten. Jean Mari Leblanc zuzendariaren iritziz: "Kaltegarria da talde horietako txirrindularientzat eta baita txirrindularitzaren interes orokorrentzat ere. (...) Espainiar taldeek pultsua bota nahi badute, bota dezatela, baina galdu egingo dute."

Zuzendariak argi utzi nahi izan zuen 1994ko Tourrean esku hartuko zuten hogeitai taldeak antolatzaileek hautatuko zituztela, eta erabakia hartzean talde zuzendarien

pulamentua izango zutela kontuan: “Espainiarrek duten jarrerak antzinako nazionalismoen kutsua dauka; jarrera suizida dela esan daiteke” (EGIN, 1993).

1995ean Frantziako Tourraren atariko froga gauez egin zen eta TF2-k *prime timen* zuzenean eskaini zuen (Maitrot, 1995, or. 469).

8.8 Etapa-amaierak Euskal Herrian

Tourra Euskal Herriarekin harreman berezia izan du. Frantziar Estatuko parte izateagatik, logikoa denez; eta baita zaleek lasterketarekiko erakutsi duten identifikazioarengatik.

Lehen ehun edizioetan (1903-2013) Tourra berrogei aldiz heldu da Euskal Herriko hirietara. Logikoa denez, frantziar administrazioaren agindupean dauden herriak zerrendaburu dira eta haien artean Baionaren kasua nabarmentzekoa da, 1906az geroztik presente egon baita lasterketaren historian. Hona hemen zerrenda osoa:

- **Baiona, 31 aldiz:** 1906tik 1914ra, heldu eta irten; I Mundu Gerraren ostean 1919tik 1925era, 1927an, 1929an, 1931, 1938an; II Mundu Gerraren ondoren 1954an, 1956an, 1962an, 1964an, 1966an, 1968an eta 1972an, guztietan Tourrak heldu eta irten egin zuen Lapurdiko hiritik. Hortik aurrera, 1986an eta 1987an Toureko etapa Baionatik irten zen eta 2003an bertan amaitu.
- **Hendaia, 3 aldiz:** 1928an, 1930ean eta 1996an, guztietan heldu eta irten.
- **Biarritz, 2 aldiz:** 1948an eta 1978an, heldu eta irten.
- **Donostia, 2 aldiz:** 1949an, heldu eta irten eta 1992an, atariko etapa, lehena eta bigarrenaren irteera.
- **Gasteiz, behin:** 1977an, heldu eta irten.
- **Iruñea, behin:** 1996an, heldu eta irten.

Etorkizunari begira, Bilbo izango da 2023ko Tourraren irteera. Euskal hiri eta herrietatik kanpo, Katalunian bi izan dira helmuga edo abiapuntuak. Bartzelonan hiru aldiz egon da Frantziako Tourra, 1957an, bi egunez, heldu eta irten; 1965ean, heldu eta irten eta 2009an, heldu eta irten. La Seo d'Urgellen bi aldiz heldu da eta bitan hortik irten ere: 1968an eta 1974an.

Azkenik, eta espainiar Estatuari dagokionez, lasterketa Jakan behin helmugaratu da, 1991an, heldu eta irten.

Bestalde, urteen poderioz, frantziar Estatutik kanpo irteera eta etapa gehiago izan du. Besteak beste hauek dira hiririk edo lekurik nabarmenenak: Amsterdam, Andorra, Berlin, Brusela, Crans-Montana, Dublin, Frankfurt, Geneva, Karlsruhe, Kolonia, Lausana, Leeds, Lieja, Londres, Luxenburgo, Monako, Sestrieres, Prato Nevoso, Spa-Francorchamps, Neuchâtel, Plymouth, Pforzheim, Portsmouth, Rotterdam, San Remo, Saarsbrücken, Haga, Sheffield, Stuttgart, Turin, Utrecht, Warengen, York, Valkenburg, Wiesbaden, Zolder...

8.9 Euskaltel-Euskadi Tourrean, 2001-2013. Euskal selekzioa marken artean?

Espainiar Estatuko lehen txirrindularia Frantziako Tourrean 1910ean aurki daiteke. Vicente Blanco, “El Cojo” goitizenez ezaguna, euskalduna zen. Bilbotarra bere sorterritik bizikletaz Pariserantz abiatu zen: “Zortzigarren edizioa hasi baino lehen Vicente Blanco jada leher eginda zegoen, ez da harritzekoa hirugarren etapan lasterketa utzi behar izana (...) ‘Herrenaren’ adibidea, balentria, ekimena eta lidergoaren aldetik duen esanahia, adierazgarria da oso, epe motzean bederen, euskal txirrindularitza esan nahi zuena, esan nahi duena eta esan nahiko duena nazio testuinguruan” (Garai, 1994, or. 5).

Edizio hartaz geroztik euskal txirrindulariek Tour askotan parte hartu dute eta baita lasterketaren antolaketa era guztiak ezagutu ere. Denboraren poderioz protagonista izan ziren nazio eta erregio taldeak desagertzen joan baziren ere, Euskadi Fundazioaren eraginez sortu zen Euskaltel-Euskadi taldeak antzinako selekzioen papera jokatu zuen.

Mende berriaren eskutik, 2001ean, Euskaltel-Euskadi taldeak Tourrean lehendabizikoz parte hartu zuen. Euskal Herriko eremu administratibo desberdinetan soilik jaiotako edota euskal harrobian eginiko txirrindulariez osaturiko taldea zen. Dozena bat urte geroago, Mendeurreneko Tourra, 2013koa hain zuzen ere, taldeak ezagutu zuen azkena izan zen. Honezkero, diru-faltan egoteaz gain, bere filosofian ere aldaketak egiten hasia zen, kanpoko txirrindulariak ekartzen. Ofizialki 2014ko abuztuaren 7an atek itxi zituen Burgoseko itzulian azken lasterketa egin ondoren.

Fundación Euskadi 1993an sortu zen, hasiera batean Miguel Madariaga eta garai hartako Bizkaiko ahaldun nagusia Jose Alberto Praderaren ekimenari esker. Taldeko

kirol ardatz nagusia bakarrik euskal txirrindulariak edo euskal-taldeetan eginiko txirrindulariak hartzea izan zen. Fundazioaren bazkideek kuotak ordaintzen zituzten taldea sostengatzeko, kasu bakarra txirrindularitza profesionalean.

Hasieran eta adibide didaktikoa ipintzearen, Athletic Clubek futbolean ordezkatzeko duena txirrindularitza lortzea zen asmoa. Lehen urteotan diru gutxi zeukaten euskal txirrindulariak fitxatzeko eta ziklista gehienak harrobitik heldu ziren. Euskadi taldearen lehen garaipena Agustin Sagastik erdietsi zuen 1994ko Euskal Herriko Itzulian.

Arazo ekonomikoak 1999ra arte luzatu ziren, 2000. urtean Euskaltel telefoniako enpresa babesle indartsu gisa sartu zen arte. Konpainia 1997az geroztik maillotean zegoen presente, baina inbertsio galanta egin barik. Garaipenak biderkatu egin ziren, baita ere Espainiako Itzulian, Etorkezuneko Tourrean edota Dauphine bezalako lehiaketa handienetan. Emaizten eskutik 2001eko Tourrean lehendabizikoz aritzeko gonbidapena ahalbidetu zuen.

Parte hartu zuen lehendabiziko edizioan sortutako ikusminak lasterketaren inguruko publizitatean ere isla izan zuen: "Euskaltel Euskadi lehenengoz egongo da Tourrean, eta BBK berarekin egongo da" (Gara, 2001).

Miguel Indurain Tourra bost aldiz irabazi zuenak honen inguruan zera hau zioen: "Alde batetik joateko ilusioa daukate, baina aitzitik, ondo egiteko irrika edo beldur hori ere izango dute."

Lehendabiziko Tour horretarako 36 bizikleta eraman zuten 9 txirrindularientzat, bat erlojuaren aurkakorako, beste bat arrunta eta beste bat ordezeko moduan. Haiekin batera gorpilak eta bizikletei dagozkien pieza guztiak.

Eguneroko jardunarentzat trailer bat, bizikletak garbitzeko makina bat, sorgailu bat, garbigailu bat, lehorgailu bat eta sukalde oso bat (hozgailua, harraska, bitrozeramika eta armairuak) eraman zituzten.

Janzkerari dagokionez, material zerrenda luzea eraman zuten, hala nola txirrindulari bakoitzeko 5 maillot, 5 galtzamotz, 15 galtzerdi-pare, 3 txaleko, 2 goretex, erlojuaren aurkako bi buzo, neoprenozko eskularruak, neguko buru-berokiak, zirak, biserak (500 guztira) eskularru motzak eta kaleko arropa Astore enpresaren eskutik.

Taldearen aurrekontua zazpi milioikoa izatera heldu zen eta, kirol-aldetik, 2011n gailurra jo zuen (Samuel Sanchezek hirugarren amaitu zuen Tourrean, Alberto Contador irabazlea deskalifikatu ondoren dopina zela eta) baina 2012ko denboraldiari begira, Euskaltekin desadostasunak heldu ziren eta urtebetez proiektu berri bat gauzatu zen, Igor Gonzalez de Galdeanoren gidaritzapean.

Proiektu horretan atzerritar txirrindulariak lehendabizikoz sartu ziren. Euskaltelek bere babesa emateko irizpideak aldatu zituen eta denboraldiaren amaieran Euskaltel-Euskadi taldearen historia amaitu zela esan daiteke.

Fundación Euskadik bere jatorriari ekin zion, hasierako izaera eta ikonografia mantenduz, kontinental mailan Orbearen laguntzarekin zeukan taldea berpiztuz, baina baliabiderik gabe ez zen bi urte betetzera heldu.

Guztira 111 txirrindularik profesionaletan debutatzeko aukera izan dute, baina eragina datuek erakusten dutena baino askoz sakonagoa izan da: “Hogei urtetan 181 garaipen erdietsi ditu eta, are garrantzitsuago dena, euskal gizartea talde honengatik ordezkaturik sentitzea lortu du” (Joseba Iturria, GARA, 2014).

Iritzi berbera daukate protagonista zuzenek. Esaterako Mikel Astarloza txirrindulariak. Hamabi urte txirrindularitza profesionalari lotuta eman ostean, bide hori etetea erabaki zuen, Euskaltel-Euskadi taldearen desagerpenarekin batera. Euskal txirrindulariek eta zaleek Euskaltel-Euskadi bezalako eredu bat ez izateak kezkatzen du Astarloza.

Tourrez oroitzapen onak baino ez ditu: “Bederatzi partaidetza izan dira. Gogoratzen dut 2003an ilusioaren ondorioz negarrez sartu nintzela Parisen, bititza osoko ametsa betetzen zelakoan eta 2009ko etapa-garaipenak handiagotu egin zuen Tourrarekiko nuen lotura. Une txarrak Tourra amaitu eta gero heldu ziren, baina ez zeukan Tourrarekin zerikusirik, 2009 dopina zela eta bi urteko zigorra ezarri baitzidaten eta egun epaitegietan segitzen du kasua.”

Euskaltel-Euskadiren eskutik talde batekiko zaletasuna piztu zen, txirrindulari batekikoa baino. Haren aburuz Euskatek “faltan botako dugu. Hogei urte izan dira, pena azken finean kanpora begira proiektu polita zelako gure herria horrelako nazioarteko oihartzun lortzen zuelako, batez ere Tourrean, txirrindularitzan dagoen nazioarte-mailan zalaparta sortzen duen lehiaketarik gorena den neurrian. Argi dago

txirrindularitzaren piramidean gailurra Euskaltel zela. Zoritxarrez desagerpena heldu da eta ziur nago euskal txirrindulari gutxiago ikusiko direla eta Tourrean ere” (Info7 Irratia, 2013).

8.10 Ehungarren edizioa

Mendeurrena jada pasa zen arren, 2013an, ehungarren Tourrak frantziar Estatuan bertan dagoen estatutik gabeko nazio batean izan zuen irteera, Korsikan hain zuzen ere. Tourrak historian lehendabiziko aldiz zapaltzen zuen uhartea eta halaxe egin ostean ehun edizioetan Frantziaren administraziopean dauden herrialde guztiak zeharkatuak zituen lasterketak.

Ondorengo edizioetan irteera Frantziatik kanpo egin zen: 2014an Britainiar Handitik; 2015ean Herbehereetatik; 2016an Frantziatik bertatik; 2017an Alemaniatik; 2018an berriro ere Frantziatik; 2019an Belgikatik eta 2020an Frantziatik, ohiko datetan baino beranduago, izurritea zela-eta.

Hurrengo erronkei begira, denetik egongo da: barruko estatutik gabeko nazio batetik 2021ean, Britainiatik hain justu ere; 2022an Danimarkatik lehendabiziko aldiz - hamargarren estatua izango da Tourraren lehendabiziko etapa jasotzen- eta 2023ean Euskal Herritik, Bilbotik egitea aurre-ikusita baitaude antolatzaileek.

Ehungarren Tour horretan Europatik kanpoko aipamenak ugari izan ziren. Batetik, Daryl Impey izan zen historian zehar maillot horia eraman zuen lehen txirrindulari afrikarra (Pizarro, 2013). Gauzak ez ziren hor gelditu, Christopher Froome-k britainiar nazionalitatea izan arren, Tourra irabazten duen Afrikan (Kenian hain zuzen ere) jaiotako lehen txirrindularia izan zen eta, pasaporteari dagokionez, Britainia Handiko bigarrena, kasualitatez Bradley Wiggins-ek lehena eskuratu baitzuen 2012an. Nairo Quintana, 2015ekoan legez, historian zehar sailkapen orokorrean goien geratu zen latinoamerikar txirrindularia izan zen, bigarrena amaituz, ohore hori Egan Bernal aberkideak 2019an kendu zion arren *La Grande Boucle* delakoa irabaziz.

Edizio horretan dopinaren aurkako analisi guztiak orbanik gabekoak izan ziren. (Benson, 2013). Halaz ere, lagin guztiak gorde ziren datozen urteotan berriro aztertu ahal izateko dopinaren aurkako metodoak hobetzen diren heinean.

Irudi 16: Antolatzaileek 2023ko Tourra Euskal Herritik irtengo dela horrela iragarri zuten web ofizialean.



Iturria: <https://www.letour.fr/fr/>

8.11 Dopina eta Tourra

Aurreko kapituluaren amaierarekin bat eginez, Tourraren historian, hasieratik gainera, presentzia izan duen gaia da dopinarena. Munduko Lehen Gerra eta baita bigarrena ere produktuak probatzeko guneak bihurtu ziren (estimulanteak, anabolizanteak, zauriak lehenago sendatzeko ekoizkinak etab.). Kimikariek morfina, ephedrina eta estriknina bezalako konposatuak atera zituzten landareetatik, asmo-handiegirik gabe bazen ere.

Dena den, Tourrean lehen guda baino lehen bolo-bolo zebilen gaia zen. Lucien Mazan-ek, Petit-Breton goitizenez ezagunak, zera hau zioen Tourra 1907an eta 1908an irabazi ostean: “Nire garaipen garrantzitsuenak drogari esker lortu ditudala esan da, utz nazazue zentzurik gabeko zurrumurru hori gezurtatzen”¹²⁷ (Cazeneuve, 2010, or. 7).

¹²⁷ “On a dit que je devais mes principales victoires à la drogue. Permettez-moi de démentir ce bruit absurde.”

Soka luzea, Tourraren historia osoan isla izan duena, batez ere azken urteotan. Esaterako, 2012an Lance Armstrong Amerikako estatubatuar txirrindulariari irabazitako zazpi Tourrak kendu zizkioten, bere errendimendua hobetzeko substantzia debekatuak hartu zituela onartu baitzuen. Ostean, 2013an, Tourrak ehungarren edizioa ospatzen zuela, munduan zehar hainbat pertsoneri barkamena eskatzeko birari ekin zion Armstrongek (Arribas, Lance Armstrong, el ciclista arrepentido, 2013).

Urte dezente pasa dira, bai, txirrindularitzaren lehen urteetatik, dopina hurbiltze ez-zientifiko batek ezaugarritzen zuenetik. Adibidez lasterkariak kokaina erabiltzeak ez zuen kezkarik sortzen, batez ere oraindik ez baitzen ezagutzen haren adikzioa eta gauza bera esan zitekeen anfetaminei buruz.

Urteak aurrera joan ahala, 1930 inguruan, komunitate medikoa, atleten osasunaren aurkako mehatxuaz kezkatutik, haien erabileraren kontra egiten hasi zen. Hala ere, Frantziako, Europako eta nazioarteko kirol-federazio gehienek ez zuten drogen aurkako neurririk hartu Bigarren Mundu Gerra pasatu arte (Laure, 1995).

Garai haietan Pierre Dumas, Tourreko sendagilea 1950-60 hamarkadan, hauxe esaten zuen: "Anfetaminak ez du nekearen zantzurik ezkututzen, ez eta gorputzaren garrasiak itotzen ere. Horrela, burdinazko nahimen indibidual bati bere ahalmenez haraindi joaten uzten diote ondorio katastrofikoekin" (Bourgat, 2000).

Gauzak horrela, 1966ko ekainaren 28an, Bordelen, Tourrak lehendabiziko aldiz drogen probak egin zituen. Eta proben etorrerarekin batera lehen hutsuneak eta zalantzak aurreikusten ziren. Adibidez nazioarteko dopinaren aurkako legerik ez izatea; proben emaitzak ez ziren hainbat egunetan ezagutzen horrek esan ahi zuen guztiarekin, hots, antolatzaileek, komunikabideek eta zaleek, eta txirrindulariek beraiek, noski, garaipenen bat ospatu ahal izateko orduan kezka zituzten... eta dudarik handiena eta beharbada garrantzitsuena: dopinaren aurkako proben prozedurek giza duintasuna eta eskubide zibilak urratzen zituzten.

Hala eta guztiz ere, hamarkada luze pasa zen dopinaren afera gordintasunez agertu (berragertu) zen arte: 1978ko Tourrean Michel Pollentier belgiarrak jarraipena eman nahi zion denboraldian zehar egiten ari zen ibilbide ikusgarriari, hau da, Italiako eta Suitzako Itzulietan, Dauphiné Libéré-n eta Belgikako txapelketan lortutakoari eta lasterketa borobila betetzen ari zen. Alpe d'Huez-en etapa irabazi ondoren, Tourraren

lidergoan jarri zen. Irabazleek bukatu eta ordubetera egin behar izan zuten drogen analisia, baina Pollentier-ek berak jakin bazekien substantzia debekatuagatik positibo emango zuela eta beste baten gernuz betetako gomazko balbula lotu zuen besapean, hodi baten bitartez zakilaren beheko alderaino zihoala. Belgiarrak kontrolean gernua "garbi" emateko asmoa zuen, besoa saihestsaren kontra estutuz eta txiza tututik jaistera behartuz. Harentzat, zoritxarrez, egun hartako azterketaz ardurutzen zen mediku-ikuskatzaileak hodia aurkitu eta Pollentier-en iruzurra salatu zuen. UCiren araudiak eskatzen zuen bezala eta Frantziako zuzenbidearekin bat etorritik, lasterkaria berehala kanporatu zuten Tournetik, bost mila liberako isuna jarri zioten eta bi hilabetez lehiaketatik kanpo utzi zuten.

Le Monde egunkariak horrela laburbildu zuen 1978ko uztailaren 18an:

“Le maillot jaune, Michel Pollentier, est exclu de l'épreuve pour tentative de fraude lors d'un contrôle médical.”

Irudi 17: Pollentier dopinaren aurkako kontrolean iruzurra egin zuen eguneko azala.



Iturria: L'Équipe, 1978-07-17.

Dena den, Tourreko azken urteotako historian garrantzi handiagoa izan du, kirol emaitzetan eta baita arauetatik at izan duen presentziagatik, hedabideetan izan duen islaren parekoa. Dopinean arlo asko uztartzen dira: etikoak, fisiologikoak eta horren araberako baita nazio-izaerakoak ere. Gainera, ideia hau nagusitu da aspaldian: ezin da eliteko kirolarik egin dopinik gabe, eta ideia hori are ageriagoan geratu da txirrindularitzari dagozkion berrietan, gainerako kirolekin alderatuz behinik behin.

8.11.1 Dopina vs laguntza ergogenikoak

Arlo medikoari dagokionez, ezberdintasuna legala den arren, askotan dopinarekin nahasten den laguntza ergogenikoa da gakoa. Dopina lege-haustura da. Produktu debekatuen zerrenda argitaratzen da eta horren aurrean ezagutzen dira zientzia-munduan zeintzuk diren laguntza ergogeniko legalak.

Esku-eman ergogeniko eta dopinaren inguruko hausnarketa egin zuen Iñaki Arratibel sendagileak, arestian aipatu den ideia nagusiaren harira: ezin da eliteko kirolarik egin dopinik gabe. “Edozer hartu behar da ondo ibiltzeko” edota “ezin da Tourra espagietekin bakarrik egin” ustearen aurrean, hark zera hau uste zuen: “(...) Kontuan hartu beharko genuke zenbat kontrol egin diren kirol bakoitzean eta zenbat positibo eman diren eta ziur aski ikusiko genuke gauzak nahiko nahastuta daudela eta, bereziki, egoera ez dela hain larria. (...) Kirolari batek betetzen duen lan fisikoak kontuan hartuta, nabaria da errekuerazio- eta osasun-beharrak asko igotzen direla. Gastuaren neurrian ez badira betetzen, kirolarien osasuna arriskuan egon daiteke, beste edonori gertatzen zaion moduan. Orokorrean, gizarteak erabiltzen ditu nola medikamentuak hala gehigarriak nekea eta egoera bereziak izaten direnean gainditzeko. Eta hau ez da berdin onartzen kirolarien artean, bai, ordea, kirolariek egin behar dituzten lan fisikoek behin eta berriz handiagoak izan daitezen: errekor berriak, etapa behin eta berriro gogoragoak, partida asko egun gutxitan, etab. Gizarteak duen hipokresia edo neurraketa ezberdina da kirolariak tartean izaten direnean. Zergatik zabaltzen da kontzeptu hori? Alde batetik nahi ditugu kirolari gero eta azkarragoak, indartsuagoak, trebeagoak, baina ez dugu nahi haiek ezer hartzerik. (...) Non dago koska? Tranpa bat da edo osasunerako txarra da? Ez al da txarra hainbeste partida

segidan, etapa gogorak eta menditsuak segidan, bete behar diren entrenamenduak betetzea? Eta hori dena ezer hartu gabe?.”

Honen ildotik “hartu” kontzeptua argitu nahi zuen: “Kirolari baten beharrak pertsona normal batenak baino askoz handiagoak dira eta horrek ekartzen du laguntza ergogenikoaren behar handia. Laguntza ergogenikoak dira gorputzean dauden substantziak, edota bakoitzaren gastuak betetzeko jan edo hartu behar diren substantziak. Ez dute bakoitzak duena baino gehiago ematen, baina falta badira, gorputzak ezin ditu bere funtzioak normal bete.”

“(..) Kirol-medikuen lan-eskubideak zalantzan jarri dira, substantzia bereziak nahiz bide bereziak erabiltzeagatik. Gehienetan eta kirolaren intentsitate- eta errekupeazio-beharrak horrela eskatzen duelako, substantziak neurri eta era konkretuetan erabiltzen dira, baina beti kirolarien osasuna helburu nagusia izanik. (...) Osasunak eskatzen du, kirol medikuon iritziz, lehenik, kirolariak inongo gaixotasunik ez izatea, ezta inongo arriskurik ere bere lana egiten ari direnean. Horregatik hasi aurreko kontrolak, jarraipenak, errendimenduaren diagnostikoak, gomendioak, laguntza ergogenikoak eta medikazioak derrigorrezkoak dira. Guk ez dugu ulertzen Tourra, Giroa, futbola edo beste kirol baten munduko txapelketa bat kontrol-medikurik gabe, birsorkuntza-sistema guztiak erabili gabe, elikadura, etab. Horregatik nahi dugu ibilbidearen planifikazioan parte hartu. Hori da gure helburua, mediku garen aldetik, kirolarien osasuna delako.”

“Eta osasuna delako helburua, dopinaren aurkako legeak garbia eta zehatza izan behar du. Garbi zein diren osasunean kalte egiten duen substantziak, garbi kantitatea, eta ez bakarrik kalitatea. Horregatik kirol-medikuok zer esana izan beharko genuke. Kirolari bat ezin da beti beldurrez egon edozein medikamentu normal hartzen duenean.”

“Hala ere, gogor jokatu beharko litzateke dopina erabiltzerakoan, batez ere gazteen arteko kontroletan. Ezin da ukatu dopina dagoela kirolean, gizartean beste tranpa, delituak eta arazoak dauden moduan, dopina ere borrokatu behar dela. Baina horrek ez du esan nahi kirolari guztiak dopatu egiten direla. Kirol bakoitzean garbiago izango da gure kirolari gazteek hezkuntza ona izaten badute eta denon lana baldin

bada gazteei erakustea non dauden mugak, ez bakarrik legeak ezartzen dituenak, osasunari dagozkionak ere bai.”

“Kirolariek ez dute bizitza luzea, asko irabaz dezakete, baina ez du ezertarako balio osasuna zaintzen ez badute. Haiek badakite ezin dutela bere etorkizuna arriskuan jarri” (Arratibel, 2001).

Azken garaiotan argudiatzeko erabiltzen den elementu garrantzitsu bat da dopinaren aurkako kontrolen inportantzia, hau da, zenbat kontrol egiten diren eta zenbatetan positiboa eman den. Aitzitik, urteen poderioz, ardatz hori ere berrirakurri egin da eta kasurik adierazgarriena Armstrong-i irabazitako Tour guztiak kendu dizkiotenean gertatu da, inoiz positiborik eman ez duen arren.

Txirrindularitzako izarrek hortaz ere jardun dute. Esaterako Eddy Merckx belgikarrak, Tourreko irabazleak: “Dopinak etengabeko bilakaera ezagutu du. Lehen anfetamina-inguruko kontrolak egiten ziren eta gaur egun beste substantzia batzuen inguruan egiten dira, baina zerrendetan agertzen diren produktu guztiek ez dute dopinik eragiten. Kontrolak gogortu behar direla dioen lehena naiz, baina puztu barik (...)” (Gara, 2001, or. 9). “Nire ustez txirrindularitza kirolaren koplak burukoak bihurtu da, batez ere txirrindulariak are zaugarriagoak direlako, atleta ibiltariak diren heinean. Ez dut esan nahi dopina arbuia behar ez denik, tranpa guztiak arbuigarriak direlako, baina atentzio guztia txirrindularitzan ipini barik” (Gara, 2001, or. 10).

Beste irabazle batek, Miguel Indurainek, ere bere iritzia du: “Txirrindularitzan kontrolak egiten hasi zen lehen kirolari bat da. Ez dira bakarrik oinarrizkoak egiten, gogorragoak dira-eta. Txirrindularitza babesik gabe egon da eta 1998an erakutsi zen. Estamentu bakoitzak bere interesak baino ez zituen begiratzen, antolatzaileek, taldeek, txirrindulariek... inor ez zen arduratu. Egun hori da arazoa, arautegitik at dabilen baten bat beti egongo da, baina ezin da mundu guztia nahastu pertsona zehatz batzuen arazoekin. (...) Kontrolak eraginkorrak dira, emaitzak emaitza, baina nahi dena kontrola serioa da txirrindularitzak indartua atera dadin. Kirol honek ez du eskandalu gehiagorik aguantatzen” (Gara, 2001, or. 19).

8.11.2 Aberriak dantzan

Indurainek berak dopinarekin afera izan zuen 1994an, maiatzaren 15ean hain zuzen ere, baina horren arrastoa urte bereko abuztuaren 28an ezagutu zen *France*

Presse agentziaren bitartez: “positiboa” izan zuen, salbutamol bronkio-zabaltzaile antzeman zioten-eta. Dena den Ventolin farmakoan zegoen eta sendagileen baimena ei zuen (JotDown.es, 2015).

Eztabaida piztu zen azterketaren egunetik ehun egun pasa ondoren Frantziako Federazioak publiko egin zuenean, salbutamol produktu debekatuen zerrendan zegoelako Frantzian, baina UCIk zein Nazioarteko Batzorde Olinpikoak ez zuten positibotzat hartzen medikuen agiria baldin bazegoen. Alexandre de Merode Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren Batzorde Medikoaren presidentek zera hau esan zuen: “Dopinaren aurkako hogeita hamar urteko borrokaren ostean, NBOren irizpideak zentzuzkoak bezain argiak dira. Indurainek ez zuen bere burua positibotzat jo behar.”¹²⁸ Eusebio Unzue taldeko managerrak eztabaidarako bidea ireki zuen: “Azalpen guztiak gehitu genituen eta sendagilea bera harriturik geratu zen hainbeste azalpen beharrezkoak ez zirelakoan. Positiboa gehitu nahi diote Indurainen historiari. Soilik aipatzea larria da, egia ez da-eta.”¹²⁹

Eta aberri-kontuak hasi ziren dantzan: Joan Serra-k, garai hartako Espainiako Federazioaren buruak ez zuen zalantzarako zirrikiturik utzi: “Astebete daramat lo egin barik, Frantziar Federazioaren azpilanaz jabetu nintzenetik.”¹³⁰ Taldekidea zen Pedro Delgado ez zen atzean geratu: “Duela urte batzuk nire bila ibili ziren onena bainintzen. Oraingoan ez dakite zer egin Indurain geldiarazteko. Argi eta garbi dago Frantzian espainiarrok ez gaituztela begi onez ikusten.”¹³¹

Jose Miguel Etxabbarri Banestoren managerrak argudio ia berberak erabili zituen: “Argi eta garbi dago Miguelen irudia kaltetu nahi dutela. Txarto pentsatzea eta erasokor jokatzeko ez zait batere gustatzen, baina badirudi frantziarrentzat mingarria

¹²⁸“Después de treinta años de lucha contra el dopaje, los criterios del COI son razonables y claros. Indurain nunca debió haber sido declarado positivo.”

¹²⁹“Adjuntamos todas las explicaciones e incluso el médico se extrañó porque no hacían falta tantas cosas. Quieren añadir un positivo al historial de Indurain. Solo mencionarlo ya es muy grave porque no es cierto.”

¹³⁰“Llevo una semana sin dormir, desde que me enteré de lo que estaba tramando la Federación Francesa.”

¹³¹“Hace unos años fueron a por mí porque era el mejor. Ahora no saben qué hacer para frenar a Indurain. Está claro que los españoles no estamos bien vistos en Francia.”

dela zazpi urtetan bost Tour irabazi izana¹³² eta, aldi berean, Pedro Delgadoren kasua ere aipatzen zuen, 1988an antzeko egoeran egon baitzen horiz jantzita zihoala eta positiboa eman zuenean. Produktua ez zen salbutamol izan, probenecid baizik, beste substantziak estaltzeko erabiltzen den produktua hain justu ere. Indurainek berak egoera arraroa zela aipatu zuen.

Urte hartako irailaren 6an Frantziar Txirrindularitza Profesionalaren Ligak ardurarik gabe utzi zuen Indurain (“ez da frogatu ez zela justifikazio terapeutikorik”¹³³), eta kasua artxibaturik geratu zen. Erabakia ezagutu baino lau egun lehenago Indurainek orduaren errekorra gainditu zuen.

8.11.3 Festina aferak: 1998ko Tourra, mugarririk

Tourraren 85. edizioan faktore berezi askoren topagunea bihurtu zen eta baita inflexio-puntua dopinaren inguruan ere.

Lehenengo eta behin aipatu behar da lasterketa Frantziar mugetatik at hasi zela, Eireko Dublinen hain zuzen ere; bigarrenez datak ez ziren ohikoak, uztailaren 11n hasi baitzen abuztuaren 2an Parisen amaitzeko, Frantziar bertan antolatzen zen Munduko Futbol Txapelketarekin bat zetorren-eta.

Hala eta guztiz ere, urte hartako Tourra historiara pasako da “Festina aferak”-rengatik, dopinarekin zerikusia izan zuen kasuarengatik hain zuzen ere. Horren ondorioz talde batzuk Tourretik kanporatuak izan ziren eta beste batzuk erretiratu. Dopinaren inguruko arazoan 1998ko Tourrak mugarririk bat ezarri zuen.

Gatazka Tourra hasi baino lehenago piztu zen, lasterketarako bidean Festina taldeko laguntzaile bati atzeman zizkieten substantziak zirela-eta. Ostean ibilbide judiziala hasi zen lasterketa egiten ari zen bitartean eta, epaitegietan dopinaren salaketa jaso eta gero, taldeko txirrindulari guztiak kanporatuak izan ziren.

Kirolariek greba-eguna egin zuten eta Albertville eta Aix-les-Bains lotzen zituen etapa bertan behera geratu zen. Espainiar taldeek lasterketa abandonatu zuten eta Jean-Marie Leblanc zuzendariak ahalegin guztiak egin zituen kirol-lehia Parisera

¹³²“Está claro que quieren dañar la imagen de Miguel. No me gusta pensar mal y recurrir al ataque. Pero parece como si les doliera a los franceses que hayamos ganado cinco Tours en siete años.”

¹³³ “no se ha probado que no hubiera justificación terapéutica.”

bere onean eramateko. 1929ko Tourrarekin batera beharbada iskanbilatsuenan izan zen honako hau.

Aferaren ondorioz Bruno Roussel, Eric Rijkaert eta Willy Voet, Festina taldeko zuzendari, sendagile eta masajista hurrenez hurren, atxilotu zituzten dopina sustatzeko sare baten buru zirelakoan.

Sareak produktu debekatuak zituen txirrindularien errendimendua hobetze aldera: garai hartan antzeman ezin zen EPO (eritropoyetina), giza hazkundearen hormona eta testosterona. Rosell-i 2000ko abenduan urtebeteko kartzela ezarri zioten, baina presondegira sartu gabe, eta 50.000 frankoko isuna.

Aurreko urtean gertatutakoak eraginda, 1999an dopinaren inguruko lehen Nazioarteko Konferentzia egin zen Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren ekimenez, araudiak batu nahian.

WADA (World Anti-Doping Agency) edo frantsesez AMA (Agence Mondiale Antidopage) urte hartako azaroaren 10ean sortu zen Lausanan (Suitza) eta 2002az geroztik Montrealen dago (Quebec-Kanada). Erakundearen helburuak "Lausnako adierazpenean" bildu ziren.

Lehenengo pausoak eman ziren munduko dopinaren aurkako kodea ezartzeko eta herrialdeak araudi legala antolatzen joan ziren. Dopinaren Aurkako Mundu Kodea egin zen eta, geroztik, bere egin dute munduko 600 kirol-erakunde baino gehiagok, besteak beste kirol- federazioek, dopinaren aurkako nazio-erakundeek eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoak.

Helburuak paperean argi geratu ziren: nazioarte-mailan ikerkuntza zientifikoa, hezkuntza eta dopinaren aurkako ahalmenak garatzea edozein motako dopinaren aurka borrokatzeko (World Anti-Doping Agency, 2021).

Aldi berean Frantzian ziklismo garbiaren aldeko kanpaina abian jarri zen eta, horren ondorioz, horko txirrindulari baten garaipen ezari nolabaiteko erantzuna emateko dopina erruduntzat hartzen zen. Tourrari dagokionez, emaitza txarrak justifikatzeko dopinaren afera behin eta berriz agertu da, baina ez du balio, fenomenoak nolabait demokratizatu egin baita, hau da, mundu osoan eta txirrindulari askoren artean (Zúmer, 2014).

Hala ere, Matt Rendell Britainia Handiko kazetariak ezberdintasunak azpimarratzen zituen: «Frantziar txirrindularitza ez da horrenbeste globalizatu zentzu horretan. Conconi eta Ferrari zein Cecchini medikoek nazio guztietako txirrindulariak tratatu zituzten, errusiarrek, italiarrak, daniarrak, espainiarrak etab. baina ez hainbeste frantziarrak, etxean eta etxeko taldetan korritzen baitzuten. Haiek ez zioten laurogeita hamargarreneko hamarkadan “Conconi-sistemari” hainbeste etekinik atera (...) Txirrindularitzaren mendetako usadioa Frantzian oztupoa izan zitekeen kirol-zientzia bereganatzeko orduan. Iparramerikakoek eta ingelesek ez dute txirrindularitza-tradiziorik eta oinarri zientifikoa duten metodo berriei ez diete ezezkorik eman”¹³⁴ (Zúmer, 2014).

Frantziako Senatuak, Kirolean Dopinaren aurkako borrokaren eraginkortasunari buruzko Batzordeak, ireki zuen txosten baten arabera, 2013ko uztailaren 23an publikoki argitaratu zena -782 zenbakia, II liburukia-, txirrindulari askok substantzia debekatuen arrastoak zituzten 1998ko eta 1999ko Tourretan, batez ere EPO. Txostengileen aburuz, Frantziak dopinaren aurkako kalitatezko politika zeraman, baina benetako zailtasunekin eta dopinarekiko atzerapenarekin:

- Botere publikoek ez dute ezagutza estatistikoa, ez dute dopinaren praktikarik ezagutzen ezta gertatzen diren trafikoei buruzkoak.
- Prebentzioari dagokionez, dopinaren aurkako politikak dinamismo gutxi du eta Kiroleko Ministerioak ez du irizpiderik zehaztu eta ez ditu behar legezko tresnarik.
- Kontrolerako tresnak trinkoagoak dira, kantitateari dagokionez behinik behin, baina kalitate eta berezitasun gutxirekin.
- Frantziar laborategiak goi-mailakoak dira nazioartekoan, baina bilaketan egiten diren ahaleginak ez dira nahikoak puntako europar laborategien ondoan.

¹³⁴“El ciclismo francés no se ha globalizado tanto en este sentido. [Los médicos] Conconi y sus alumnos Ferrari y Cecchini trataron a corredores de todas las nacionalidades, rusos, italianos, daneses, españoles, etc., pero no tanto a franceses, que no corrían fuera sino en equipos nacionales. Ellos no se beneficiaron tanto del “sistema Conconi” durante los años noventa. (...) «La tradición secular del ciclismo en Francia puede haber sido un estorbo a la introducción de la ciencia deportiva. Los norteamericanos y los ingleses no tienen tradición de ciclismo, por eso no hay resistencia a nuevos métodos con base científica.”

- Zigorren politika eraginkorra izango da argiagoa izango den heinean. Eskumenen banaketak, federazioa eta Dopinaren Aurkako Frantziar Agentziaren artean, ez du laguntzen.

- Trafikoei dagokienez ere dopinaren aurkako erakundeek batera jardun behar dute.

Amaieran 60 proposamen egin zituen batzordeak: “Proposamen hauek bakarka aztertu daitezke, baina guztiak dopinaren aurkako politikaren dinamizazio berriaren baitan ulertu beharko dira, zazpi ardatz abiapuntutzat hartuta: dopinaren ezagutza hobea; prebentzio-politika berreraikitzea; kontrolak indartzea; analisiak hobetzea; zigor-eremua zabalagoa; trafikoa gehiago zigortu eta, batez ere, koordinazio hobea dopinaren aurkako aginteen eta poliziaren artean”¹³⁵ (Jean-Jacques LOZACH, Commission d'enquête sur la lutte contre le dopage , 2013).

Analisiak 2004 eta 2005 urteetan egin ziren eta haxe da positibotzat jo zituzten emaitzen zerrenda, txirrindulari zehatzei atxikita: Marco Pantani (Mercatone-Uno), Jan Ullrich (Telekom), Abraham Olano (Banesto), Eddy Mazzoleni (Saeco), Andrea Tafi (Mapei), Marcos Serrano (Kelme), Bo Hamburger (Casino), Jens Heppner (Telekom), Nicola Minali (Riso Scotti), Jeroen Blijlevens (TVM), Mario Cipollini (Saeco), Jacky Durand (Casino), Fabio Sacchi (Polti), Laurent Desbiens (Cofidis), Laurent Jalabert (Once), Manuel Beltrán (Banesto), Kevin Livingston (Cofidis) eta Lance Armstrong (US Postal, 1999an).

Halaber, beti ere txosten horren arabera, arrastoak aurkitu ziren honako txirrindulari hauen odolean: Ermano Brignoli, Tom Steels, Alain Turicchia, Xavier Jan, Udo Bolts, Frederic Moncassin, Pascal Chanteur, Bobby Julich, Michael Boogerd, Axel Merckx, Roland Meier, Stephane Barthe, Stuart O'Grady, Giuseppe Calcaterra, Stefano Zanini eta Wladimir Belli (ABC, 2013).

Hauen artean 1998ko Toureko irabazlea, Marco Pantani; Jan Ullrich (bigarrena sailkapen orokorrean eta hiru etapa irabazi zituen) eta Erik Zabel (maillot orlegiaren

¹³⁵“Ces propositions peuvent être analysées ou commentées de manière isolée, mais elles sont construites dans un cadre cohérent de redynamisation de notre politique antidopage sur la base de sept piliers : une meilleure connaissance du dopage, une politique de prévention à rebâtir, un ciblage renforcé des contrôles, une optimisation des analyses, un panel de sanctions plus étoffé, une

irabazlea). Beste batzuk zalantzan geratu ziren positiboa *“litigieux”* kontsideratu baitzen: Bobby Julich (sailkapen orokorreko hirugarrena) eta Stuart O'Grady kasu.

Denboraren poderioz, txirrindulari askok garai hartan dopatu zirela onartu zuten. Adibidez aurreko paragrafoan aipatutako biak. Bobby Julich-ek, 1998ko Tourrean sailkapen orokorreko hirugarrenak, 2012ko urrian onartu egin zuen EPO erabili zuela 1996ko abuztutik 1998ko uztailean bitartean. Stuart O'Grady-k txostenaren emaitzak publiko egin eta hurrengo egunera Frantziako Tour horretan dopatu egin zela aitortu zuen.

Philippe Gaumont Julich-en taldekideak Cofidis taldean deklaratu zuen 2005ean Tourrean parte hartu zuten txirrindulari guztiek tratamendu berbera izan zutela Vezzani taldeko sendagilearen eskutik: “Hark bidaltzen zizkigun izozkien kutxetan sartutako pakete express batzuk, EPO eta hazkundearen hormonak heltzen ziren”¹³⁶ (ParisMatch, 2013).

Zerrendan agertzen zirenen artean, batzuek onartu zuten, eta beste batzuek, aldiz ez. Jacky Durand frantziarrak zera hau esan zuen: “Zure pasioa bizi nahi duzunean eta orbanik gabe lanean ari zarenean baina, hala eta guztiz ere, lehiakideekiko emaitzak onak ez direnean, egoera aztertu egiten duzu. Eta zure pasioa bizitzeko, Frantziako Tourrean parte hartzeko eta irabazteko, pausoa ematen duzu.”¹³⁷ Michael Boogerd-ek ere 2013an onartu zuen 1997 eta 2007 artean dopatu zela. Festinako txirrindulariek ere gauza bera onartu zuten, Pascal Hervéc-ek eta Richard Virenque-k izan ezik. Azken hiru hauek akusazio guztiak ezeztatu zituzten.

Jean-Jacques Lozach batzordearen buruak, “egiaren operazioa”¹³⁸ izan zela esan zuen, txirrindularitzarekin soilik zerikusirik ez zuela nabarmenduz, beste kirol batzuen ikonoak ukituak egongo zirela mahai gainean ipiniz.

pénalisation des trafics plus fine, et surtout une coordination beaucoup plus organisée entre autorités antidopage et services de police et de gendarmerie.”

¹³⁶ “Il nousenvoyait en colis express de l'EPO et des hormones de croissance, emballés dans des packs de glace. Nous recevions les produits (...), accompagnés d'un protocole.”

¹³⁷ “Cuando quieres vivir tu pasión y trabajas como un loco limpiamente, pero a pesar de todo, te va mal con la competencia en cuanto a resultados, analizas la situación. Y para vivir tu pasión, participar y triunfar en el Tour de Francia, das el paso.”

¹³⁸ “opération vérité.”

8.11.4 Botere politikoaren esku-hartzea

Aurreko paragrafoetan botere publikoek dopinaren aferetan esku-hartzen zutela agerian geratu zen, batez ere 1998ko Tourraz geroztik, baina ikuspegia arras ezberdina zen espainiar Estatuari zegokiona. “Jada hamabost urte pasa dira eta 1998ko Frantziako Tourrari buruz hitz egiten segitzen dute. Oraingo honetan alboko herrialdeko politikariak izan dira haritz eroritik egur egin dutenak. Frantziar Senatuaren Ikerketa Batzorde batek Dopinaren Aurkako Borrokaren Eraginkortasunari buruzko txostena argitaratu du. Jean-François Humbert batzordearen presidentek dio “kirol guztietan” dopina egon badagoela; hala eta guztiz ere, kirol eta dopinari buruzko txosten honetan txirrindularien izenak baino ez dira agertzen, Espainian Portu Operazioan gertatu zen legez. Eufemiano Fuentes-ek ziurtatu zuen ber bezeroen artean futbolariak, tenislariak eta atletak zeudela; baina txirrindularitzaz hitz egin zen soilik”¹³⁹ (Pardo, 2013).

Aldi berean, azken urteotan azpimarragarria zen nazioartekoan espainiar kirolaren inguruan zeuden susmoak. Txirrindularitzari dagokionez, uste hori hedatzeko instituzioek puntako txirrindulariei eskaini dieten babesak azpimarra daiteke.

Adibiderik esanguratsuenak Alberto Contador txirrindulariaren inguruan eman zen. 2010eko Tourrean klenbuterol agertu zen Alberto Contador-i berari eginiko analisietan. Kirolariak bere burua errugabetzat jo zuen (Arribas, El País.com, 2011).

Aldi berean, zegokion Espainiar Federazioaren batzordeak erabaki bat hartu baino lehen, garai hartako Gobernuaren presidentea, Jose Luis Rodríguez Zapatero, argi eta garbi Contadoren alde azaldu zen: “Ez dago inolako oinarri juridikorik Contador zigortzeko.”¹⁴⁰ Twitter sare sozialaren bitartez eginiko adierazpenak izan ziren, (Arribas, El País.com, 2011) eta Madrilen 2007an onartu zen Dopinaren Aurkako Mundu

¹³⁹“Han pasado quince años y se sigue hablando del Tour de Francia de 1998. Esta vez han sido los políticos del país vecino los que han hecho leña del árbol caído. Una comisión de investigación del Senado francés ha hecho público un informe sobre la Eficacia de la Lucha Antidopaje. El presidente de la comisión, Jean-François Humbert, ha asegurado en su comparecencia que “hay dopaje en todos los deportes”; sin embargo en este informe sobre deporte y dopaje sólo dan nombres de ciclistas; igual que pasó con la Operación Puerto en España. Eufemiano Fuentes aseguró que entre sus clientes había futbolistas, tenistas o atletas; pero sólo se habló del ciclismo.”

¹⁴⁰ “No hay ninguna base jurídica para sancionar a Contador.”

Kodearen aurkakoak, bertan zehazki jasotzen baita kirolariaren ardura dela bere gorputzean topatzen den edozein substantziarik: “Kirolari bakoitzari dagokio bere organismoan inolako substantzia debekaturik ez sartzearen ardura. Kirolariak edozein substantzia debekaturen arduradunak dira.”¹⁴¹

Halaber Mariano Rajoy-k, garai hartan oposizio buruak, bide beretik segitu zuen, Alejandro Blanco Espainiar Batzorde Olinpikoaren presidentek bezala.

Ostean, Espainiako Federazioak Contador errugabe deklaratu zuen eta erabaki horretan presio politikoek eragina izan zuten (Arribas, El País.com, 2011).

Esan bezala, Pirinioetatik gorako iritziak ez zetozen bat. Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren (UCI) presidentek, Pat McQuaid-ek, zera hau esan zuen: “Argi eta garbi dago eurenak babesteko prest daudela, egintzek esaten dutena albo batera utziz.” Espainian inozotzat jo zuten, baina TAS-ek (Kirolaren Arbitral Epaitegiak) Contador-i ezarri zioten bi urteko zigorra berretsi zuen (El País, 2013).

8.12 Tourrari buruzko ikuspegiak: handitasunetik Frantziaren ahultasunera

Tourra kirol-ikusbizun soila baino gehiago dela adierazteko franko dira agertu diren iritziak, garai ezberdinetan, testuinguru desberdinetan eta bestelako abiapuntuetatik, baina guztiak bat datoz diagnostikoan: Tourra handia da oso, zentzu guztietan.

Hona hemen ikuspegi eta iritzi batzuk:

8.12.1 Tourraren kirol-handitasunaz

Henri Desgrange-ren hitzak apokaliptikoak ziren Tourraren hastapenetan: “txirrindularitza kirolak inoiz eman digun dokumentazio-probarik handiena”¹⁴² bezala definitzen zuen Tourra. Lasterketak, izatez, lantegi modernoan lan-baldintzak errepikatzen ei zituen, non erritmoa eta errendimendua zehatz neurtzen baitziren,

¹⁴¹ “Corresponde a cada deportista asegurarse de que ninguna sustancia prohibida se introduzca en su organismo. Los deportistas son responsables de cualquier sustancia prohibida.”

¹⁴² “la plus grande épreuve de documentation que le sport cycliste nous ait jamais donnée.”

materialaren aukeraketaren, pedalei buruzko kadentziaren, teknikaren eta korrikalariaren kokapen aerodinamikoaren paraleloan (L'Auto, 1906).

Mende bat geroago, ikuspegiak ez ziren horren garratzak. Miguel Indurainek bost Tour jarraian irabazi zuen (1992-1996) eta haren gogoetan islatzen zen Tourraren garrantzia kirol-ikuspegitik: “Hautzaroan bizikletaz ibiltzen hasi nintzenetik, Tourra irabaztea nire ametsa izan zen, nire eta, suposatzen dut, lehiakide guztiena, munduko lasterketarik onena da-eta. Beraz, hor irabazteko txirrindulari onenak ari dira lanean. Hinault (Tourraren irabazlea 1978, 1981, 1982 eta 1985ean) adibidez, nire idoloa zen, baina aldi berean Van Impe (1976an irabazlea) Ti-Raleigh taldea eta, lehenago, Tarangu, Perurena, Linares eta Lopez Carril-en Kas taldea ere nituen gustuko (...)”¹⁴³ (MARCA, 2012).

Zuria edo beltza, eta eztabaida egun presente dago. Frantziako Tourra hain handia izatera iritsi da, ez laborategi bat izateagatik edota azken urteotan ahalegin programatuak eta neurtuak erakusteagatik. Antolaketan izandako aurrerapenak, paisaje ikusgarriak, gastronomia erakargarriak, frantsesen jai nazionala, zaleen jaiak mendi- magaletan, marketinga eta publizitate-karabana hor daude, zalantzarik gabe. Baina finean txirrindulari guztiek, irabazleek zein morroiek, larrua, eta batzuetan bizitza bera, errepidean utzi dutelako eta ausardiaz eta kemenez betetako kirol-balentriak egin dituztelako... sortu da Frantziako Tourraren mito bizi, munduan zehar lasterketarekiko maitasuna eta txirrindularitzarekiko zaletasuna piztu eta mantendu dituen.

8.12.2 Tourraren handitasuna zenbakitan

Kirolaz harago, azken urteotako zenbakietan ere adierazten da Tourraren dimentsioa, urtez urte etengabe hazten joan den kirol-ikuskitzuna.

¹⁴³“Desde que, siendo un niño, empecé a montar en bici, ganar el Tour siempre fue mi sueño. El mío e, imagino, el de todos los competidores, porque se trata de la mejor carrera del mundo y, por tanto, por su triunfo luchan los mejores corredores. Hinault, por ejemplo, era mi ídolo, aunque también me gustaban Van Impe, el Ti-Raleigh y, anteriormente, el Kas de los Tarangu, Perurena, Linares y López Carril (...)”

Adibidez, Tourraren handitasuna zenbakitan irudikatzearren, mende honetako datu batzuk eskainiko ditugu, 2001eko (mendearen hasiera), 2013ko (ehungarren Tourra) eta 2014ko edizioen ingurukoak hain justu ere:

2001eko datuak

Ikerketa honetan XXI. mendeari zegokion lehen edizioan, 2001ekoari hain zuzen ere, hauek izan ziren daturik aipagarrienak:

- **Sariak:** Hamasei milioi liberako sariak, hau da 2.400.960 euro, gutxi gorabehera. Irabazleak 375.150 euro eraman zituen.
- **Antolakuntza:** taldeko kideak 485 izan ziren. Hauetatik *Société Tour de France* (STDF) 35; lehiako taldeetako antolatzaileak 200; epaimahaiko komisarioak 20; mediku-zerbitzukoak 15 eta laguntzaileak 160. Egunero segurtasun-zerbitzuetako 1.500 kidek zaindu zuten ibilbidea.
- **Hedabideen presentzia:** 1.790 ordezkari zituzten (700 kazetari, 250 argazkilari edo kamera eta 830 teknikari barne) 27 estatuko egunkariak, 169 herritako 56 telebista kate, 43 nazio-mailako irrati eta 59 herri-irradi ordezkatzuz.
- **Publizitate-karabana:** 650 etxe komertzial eta 250 auto zeuden, 500.000 libera banatu zituzten oparitan, hau da, 60.000 euro inguru. Orotara 15.000 lagun eta 4.000 auto.

2013ko datuak

Ehungarren edizioan, 2013an, hauek izan ziren daturik aipagarrienak:

- **Hedabideen presentzia:** 2.000 kazetari, argazkilari eta aditu egon ziren, 585 hedabide ordezkatzuz (380 egunkari, agentzia eta web-orriak; 85 telebista-kate; 75 argazki-agentzia eta 45 irrati).
- **Telebistako irudiak:** 190 herrialdetan banatu ziren 100 kanalen eskutik, hauetako hirurogeik lasterketa zuzenean eskaini zuten. Hamar etapa osorik zuzenean eman ziren eta baita nazioarteko 90 ordu ere. Mundu osoan 5.500 orduko hedatzea egon zen.
- **Internet:** honen bitartez 30 milioi bisitari egon ziren www.letour.fr web orrian eta bertan 110 milioi orrialde ikusi ziren dauden lau bertsioetan: frantsesez, alemanez, gaztelaniaz eta ingelesez (bisita gehien duena). Sare sozialetan Tourra 2,2 milioik

segitu zuten (Facebooken 1.350.000 zale, 500.000 jarraitzaile Twitter-en eta 500.000 pertsona Google +-n). Aldi berean Tour-i buruzko 1.100.000 aplikazio deskargatu ziren.

2014ko datuak

Ikerketatik at, baina esanguratsu lasterketaren bilakaeraz jabetzeko, antolatzaileek beraiek 2014ko edizioan eskaini zituzten datuak. Egunero 4.500 pertsona inguru mugitzen ziren: antolatzaileak, kirol taldeak, hedabideak, babesleak, publizitate-karabana eta hornitzaileak. Hauxe izan zen banaketa:

- **Antolakuntza:** *Amaury Sport Organisation*, ASOren 100 pertsona finko gehi beste 280 ekitaldirako espresuki kontratatuak. Egunero 1.450 ohe betetzen zituzten antolatzaileak eta kirol-taldeak. Hauei dagokienez, 198 txirrindulari egon ziren irteeran (22 talde eta 9 txirrindulari taldeko), gehi taldeetako 300 laguntzaile eta Komisarioen Elkargoko 15 kide. Zerbitzu medikoari dagokionez, premiazko 10 sendagile, erizain anestesista, 6 anbulantzia, 2 sendagile-auto eta erradiologiako kamioi bat. Segurtasunaren arloan, GR-ren (*Frantziako Garde Républicaine*) 47 motorzale eta 13 agente era iraunkorren. Guztira 14.000 gendarme eta 9.000 polizia zein CRS (*Compagnies Républicains de Sécurité*) mobilizatu ziren, Kontseilu Orokorretako beste 1.000 agenterekin batera.
- **Telebistak:** *France Télévisions*-ek hamar etapa eskaini zituen zuzenean beren osotasunean, 2013an bederatzi izan ziren eta zazpi 2012an.
- **Publizitate-karabana:** oro har 170 ibilgailu, gutxienez, aurkitu zitezkeen 36 marka ordezkatzuz eta 600 pertsonen bitartez. Guztira 14 milioi objektu banatu ziren hamabi kilometroko ilara luzean, 35 minutu tardatzen baitzuen pasatzen. Kontrol-landetan 54 pertsona zeuden, haien artean 113 GR.
- **Babesleak:** guztira 44 marka agertu ziren, 2014an bost berri batu ondoren (Krys, Mc Cain, Fruit Shoot, P&O Ferries, Carglass) lau Partners Club, zortzi bazkide ofizial, hamahiru hornitzaile ofizial, zortzi bazkide tekniko eta lau jarraitzaile ofizial, bi Media Partner, bi Broadcaster ofizial eta hiru bazkide instituzional.
- **Ibilbidea:** 2014koak 3.664 kilometro izan zituen (21 etapa), lau herrialde bisitatu ziren (Erresuma Batua eta Frantzia -33 departamendu zeharkatu ziren-, Belgika eta

Espainiako estatuak). Hogeita hamasei hiri izan ziren irteera edo helmuga eta 662 udalerrri zeharkatu ziren (611 Frantzia, 39 Erresuma Batuan, 9 Belgikan eta 3 Espainian).

- **Ikusleak:** antolatzaileen iritziz, 12 milioi ikusle egon ziren errepide-bazterretan Tourra ikusten, hauetatik %63 gizonezkoak -%55 50 urte beherakoak eta %12 25 urte beherakoak- eta %80 frantziarrak eta gainerakoak 38 nazionalitate ezberdinetan banaturik. Errepidean pasatutako denbora sei ordu eta erdikoa izan zen, batez beste (5:30 ordu etapa lauan, 7:30 ordu mendiko etapan) eta ikusleen %93a lagunduta joaten zen (4-5 pertsona).

Ezbeharrak

Bestalde, Tourreko tragediarik handienak bere isla dauka zenbakietan, 1969ko uztailaren 11an, Tourraren 19. etapan hain zuzen ere, Bordele eta Brive artean korritzen zena. Port de Couze-ko zubian Gendarmeriaren kamioi-zisterna batek bira batean jendetza aurretik eraman, eta asko bertoko ibaira jausi ziren. Ezbeharrean bederatzi pertsona hil ziren, hauetatik hiru ume.

8.12.3 Tourraren handitasuna kulturaren ikuspegitik

Tourrak ospea hartu du kirol-ikusketaren panoraman lekua eginez eta euren zenbakiak handitasuna islatzen dute. Dena den, Tourraren presentzia eta eragina ez da arlo hauetara soilik mugatzen, kultur arloan nabaria baita bere presentzia (musika, moda, zinema...), eta hasierako urteetan ere agertu zen, pasa den mendeko 30eko hamarkadan antolatzaileek lasterketarako kantzak enkargatu baitzituzten eta Tourreko ereserki ofiziala hautatzeko lehiaketak ere antolatu ziren.

Aro modernoan, Frantziako Tourrak berezko musika ere izan du. Ospetsuena da Kraftwerk-ek alemaniar taldeak dedikatu zion diskoa. Batzuen aburuz txirrindularitzaren arima hobekien islatzen duen konposaketa (Mendoza, 2014) (Montoliu, 2013).

Hasi 1983an hasi zen grabatzen, baina egileen istripu baten ondorioz proiektua eten egin zen (Sánchez, 2013) 1984an beste bertsio bat argitaratu zen, 1999an bermasterizatzeko. Jada Tourreko mendeurrena zela-eta, lasterketako '*jinglea*' izan zen. Urte bereko abuztuan "Tour de France Soundtracks" argitaratu zen eta, azkenik, 2009an berriro bermasterizatu zen "Tour de France" izenpean. Abestien izendapenei

dagokienez, gehienak etapen izenak edo txirrindularitzarekin loturiko izenak zeramatzaten.

Halaber, aski ezaguna da Freddie Mercury Queen taldeko abeslariak “Bycycle Race” abestia konposatzeko inspirazioa hartu zuen 1978ko Frantziako Tourraren etapa ikusten ari zela ‘Jazz’ izeneko diskoa grabatzen ari zenean (Montoliu, 2013).

8.12.3.1 Zinema eta Tourra

Zineman ere Tourrak bere dokumentala izan du, “Le Tour de France” (Decine21.com, 2005) mendeurrenaren Tourra bete ostean. Laburpenean zera hau irakur daiteke: “Frantziako Tourra txirrindularitza-lasterketarik garrantzitsuen da. Dokumental honek mende batean zehar izan duen historia ekartzen du gogora eta ezaguna bihurtu duten txirrindulari mitikoak: Anquetil, Merckx, Hinault, Indurain, Armstrong, etab.”¹⁴⁴

Ehungarren edizioa zela-eta, beste dokumental bat argitaratu zen, Jean-Christophe Ros-ek egin zuen “La legende du Tour de France. A la occasion de la 100e edition de la Grand Boucle” (senalColombia.tv, 2013). Sinopsian zera hau dio: “Frantziako Tourra frantziarren ekitaldirik maitatuena da. Dokumentala horren historia kontatzen du 1903 “L’Auto” egunkariak sortu zuenetik eta izarririk ospetsuenak errepasatzen ditu, besteak beste Merckx, Hinault, Indurain edota Armstrong.”¹⁴⁵

Urte berean “La Grande Boucle” filma ere estreinatu zen. Proiektua 2007an sortu zen, Renaud Souhami, Frantziako Munduko Errugbi Kopako ekoizle eta finantza zuzendariaren ideiatik abiatuta. Filma errealistagoa izan zedin, *Amaury Sport Organisation*-i Frantziako Tourraren instalazioak eta benetako irudiak erabiltzeko eskatu zioten uztailean ospatzen zenean. Tourrarekin izandako elkarlan honi esker, filma posible izan zen eta 2012ko ekaina eta uztailean grabatu zen. André Manoukian-ek filmeko soinu-banda konposatu zuen.

¹⁴⁴“El Tour de Francia es la prueba ciclista más importante. Este documental recuerda su historia a lo largo de un siglo y a los ciclistas míticos que la han hecho célebre (sic): Anquetil, Merckx, Hinault, Induráin, Armstrong, etc.”

¹⁴⁵ “El Tour de Francia es el evento deportivo favorito de los franceses. El documental cuenta la historia de la competición desde su creación en 1903 por parte del periódico “L’Auto”, y repasa sus figuras más célebres, como Merckx, Hinault, Indurain o Armstrong.”

Hala eta guztiz ere Gerren arteko urteetan ugari izan ziren Tourrari buruz bereziki eta txirrindularitzari buruz, oro har, filmatu ziren pelikulak. Besteak beste

Le roi de la pédale (1925), idatzitako eleberri batean oinarritua; *Hardi les gars* (1931); *Rivaux de la piste* (1932); *Prince des six jours* (1933); *Le facteur du Tour de France* (1934), eta *Pour le maillot jaune* (1938) aipa daitezke. Halaber *Le Tour de France* (1935) kontsidera daiteke lehenengo dokumentalen artean. (Hubscher, *L'histoire en mouvements. Le sport dans la société française, XIXe-XXe siècle*, 1992) (Durry, 1982, orr. 313, 323-24) (Dumons, 91, orr. 96).

8.12.3.2 Moda eta Tourra

Modan ere ugari dira adibideak. Esaterako Pilar Castaño diseinatzaile kolonbiarrak moda eta txirrindularitzaren arteko loturaz jardun zuen 2013ko txirrindularitzataldeen janzkerak aztertzean: “Modak zerikusi handia dauka kirol-jantziekin. Berrogeita hamarreko, hirurogeita hamarreko gure txirrindulariak puntu-ehunak, ehun lauak zeramatzen eta ezin dut ulertu nola litekeen menditik gora eta behera ibiltzea gorputzeko ileek, bularrean, besoetan, izerdirik bota ezinean”¹⁴⁶ (Castaño, 2013).

Teknologia berrien agerpenak atek ireki zizkion diseinuari, askotan moda baino erosotasuna aurkitu zuten: “Laserra ehungintzan sartu zen heinean, ehundurak aldatu ziren, neopreno sartu zen eta lycrak presentzia gehiago izan zuen, material guztiak spandexa zeukaten, zuntz bereziak gorputzak arnasa hobeto har zezan. (...) Neon-koloreak heldu ziren eta pentsatuko nuke Lampre-Meridaren janzkera, fucsia eta itsas urdina, eta Ágata Ruiz de la Prada-ren kolorea dela, diseinatzailek darabiltena, kolore deigarriak dirutza inbertitzen duten enpresen marka izateko. (...) Moda, munduan zehar gertatzen denaz kronikaria da”¹⁴⁷ (Castaño, 2013)

¹⁴⁶“La moda tiene mucho que ver con las prendas deportivas. Nuestros ciclistas de los 50, de los 60 corrían con tejidos de punto, con tejido plano, no entiendo como subían y bajaban montañas sin tener posibilidad de que el vello en el cuerpo del hombre, en el pecho y en los brazos pudiera sudar.”

¹⁴⁷“En la medida en la que entro el láser en la industria textil de la moda, cambiaron las texturas, entró el neopreno, entró a dominar más la lycra, todos los materiales con spandex, unas fibras que permitieron que el cuerpo respirara mejor. (...) Llegaron los colores neones y yo pensaría que el Lampre-Mérida, con fucsia y azul agua marina es un color casi de Ágata Ruiz de la Prada, un color de

Baina moda ez da janzkera soilik, erlojuak, betaurrekoak,... modaren osagarri askok Tourraren ispilua jo-puntuak daukate. Adibidez, ehungarren edizioa zela-eta, Oakley kirol-markak betaurreko-edizio mugatu bi atera zituen, bata Frantziako Tourra izeneko bilduma, betaurreko profesionalak (goikoak eta behekoak) eta bestea Radarlock Signature Series izeneko Mark Cavendish esprinterrarengan inspirazio-iturri zuena, lenteak azkarrago aldatzea ahalbidetzen baitzuen (Federopticos.com, 2013).

Ildo beretik, Frantziako Tourrak aztarna utzi zuen ere 2014ko Pariseko Modaren asteen. Alexander Wang-ek bere bilduma aurkeztu zuen bertan eta horrela zioen kazetariak: “Kirola eta moda unibertso desberdinak direla esaten duenak unibertso paraleloan bizi da. Eta ez Anna Wintourek, Vogue USAren zuzendariak, tenisekiko duen harremana. Bart, Alexander Wang-ek hedabideei azaldu zien Balenciagarako 2015eko udaberri-udako bildumaren inspirazio-zati handi bat Frantziako Tourretik zetorkiola.”¹⁴⁸

Diseinatzaileak janzkera estuak erabili ditu txirrindularien maillotaren estiloa erabiliz (leggings, jantziak) eta silueta garbia ukitu atletikoarekin (Ureña, 2014).

8.12.4 Tourraz eta Frantziaren kirol-ahultasunaz

Ibilbide poliedriko hau amaitzeko, esan bezala, Tourra frantziar nazioaren nolabaiteko zutabea den heinean, Frantzian bertan antolatzen diren beste kirol-ikuskizunekin batera, bertokoentzat irabazi beharreko dema bihurtu da. Ildo horretan, ezintasun horrek etsipen-sentimendua sortu du iritzi publikoan.

Carlos Zúmer-ek Frantziaren ezintasun horretaz jardun du: “Frantzia buru-belarri dabil duela hiru hamarkadatik hona nazioaren kirol-lehiaketa handienetariko bitan garaipen ezinezkoa lortu nahian, herrialdearentzat instituzio bi dira -Roland Garros tenis-lehiaketaz eta Tourraz ari da-. Tarte luze horren azalpena emateko orduan

los que utilizan los diseñadores, colores llamativos que sirven de branding de las marcas que invierten fortunas (...) La moda es una cronista de lo que pasa en el mundo.”

¹⁴⁸“El que diga que el deporte y la moda son dos universos distintos, vive en un universo paralelo. Y no lo decimos por el amor que le tiene Anna Wintour, directora de Vogue USA, al tenis (es una asidua al U.S. Open, además de practicar dicho deporte). Anoche, el mismo Alexander Wang explicó a la prensa que su colección para Balenciaga de primavera verano 2015 estaba inspirada en parte en el Tour de Francia.”

zoriarekin zerikusia duten faktore askoren eragina aipa daiteke, ez da talentu, bilakaera eta inbertsio ezaren kontua, baizik eta berariazko ikuspuntuaren faltarekin eta txapelkun handiak sortzeak dakarren lan nekezarekin”¹⁴⁹ (Zúmer, 2014).

Idazle berak dio: “Frantziako Tourra, munduko txirrindularitza-lasterketarik onena, Pierre Giffard-en (*Vèlo* egunkariaren zuzendaria) eta Henri Desgrange-ren (*L’Auto*-ren zuzendaria) arteko guda komertzialaren ondorioz jaio zen. Orri horiz inprimaturiko azken argitalpen honen erredaktore batek herrialdean zeharkako aste batzuetako bira egitea otu zitzaion bere egunkariaren salmenta gehitzearren. Kirol-proba erresistentzia jasanezinaren odisea izan zen, nazioa liluraturik utzi zuena eta *L’Auto*-ren salmentak biderkatu zituen. Jakina denez, Tourra, denboraren poderioz txirrindularitza-zaleen Vatikanoa bihurtuko zen.”¹⁵⁰

“Mende bat baino gehiago pasa eta gero, lehiaketa biek ospe handia daukate. Ez dago lasterketa hobeagorik txirrindularitzan. (...) Lehendabiziko irakurketa erraza da oso: Frantziak txapelketarik onenak eraiki zituen eta munduko kirolaririk onenak txapelketa horiek irabaztera etorri ziren”¹⁵¹ (Zúmer, 2014).

Javier Cepedano-k, marketin digitalaren kontsultari eta Cobbles & Hills txirrindularitza-webaren sortzailearen aburuz, “frantziarrentzat Roland Garros-ek eta Tourrak arazo berbera daukate: lehiaketa handiak eta globalizatuak dira eta uneko onenek irabazten dituzte, jaioterriak ez dauka garrantzirik. Zentzu honetan, banako

¹⁴⁹“Francia persigue desde hace tres décadas una victoria imposible en dos de las grandes competiciones atléticas de la nación, dos auténticas instituciones para el país -Roland Garros y Tour- Un paréntesis tan prolongado solo se explica por un cóctel complejo de factores un tanto azarosos, que poco tienen que ver con déficit alguno de talento, desarrollo e inversiones sino más bien con falta de enfoque específico y con la esquiva tarea de concebir grandes campeones.”

¹⁵⁰“El Tour de Francia, la mejor carrera ciclista del mundo, nació de la guerra comercial entre Pierre Giffard (director del diario *Vèlo*) y Henri Desgrange (director de *L’Auto*). Fue un redactor de esta última publicación —impresa en páginas amarillas— quien tuvo la ocurrencia de impulsar una vuelta de varias semanas por todo el país para empujar las ventas de su cabecera. La prueba fue una sucia odisea de resistencia inhumana que impresionó a la nación y catapultó a *L’Auto* en los kioscos. Como es sabido, el Tour se convertiría con el tiempo en el Vaticano de la cristiandad ciclista.”

¹⁵¹“Más de cien años después, ambas competiciones gozan de aclamada reputación. No hay mayor carrera en el deporte de la bicicleta (...) La primera lectura es sencilla: Francia construyó los mejores torneos y vinieron los mejores deportistas del mundo a conquistarlos.”

lidergorik ez dutenez, ez txirrindularitzan, ezta tenisean ere, ez dute azken hiru hamarkadetan irabazten”¹⁵² (JotDown.es, 2014).

Guillermo Ortiz idazlearen ustez, “1947tik 1982ra bitartean inolako frantziarrik ez du Roland Garros irabazi, baina hamar txirrindulari ezberdinen artean Tourrean hogeitaldiz baino gehiago nagusitu dira. Estatistika izugarria da, bat datorrela, kontrastea dela- eta, gaur egungo txirrindularitzarekin. Bernard Hinault-ek bere bosgarren Tourra 1985ean irabazi zuenetik, aberkiderik ez da Campos Eliseosen kokatzen den podiumeko tokirik altuenean. Bakarrik Richard Virenque (1996 eta 1997) gutxienez podiumera igo da azken hogeita hamar urte hauetan”¹⁵³ (Ortiz, 2014).

Bestalde, Juanfran de la Cruz, ‘20 minutos’ espainiar egunkariko txirrindularitzan adituak, zenbakiak erlatibizatzen saiatzen da: “Laurent Fignon-i 1989an podiuma segundo gutxi batzuegatik ihes egin ziola uste badugu, denbora-zuloa txikituko zen. Eta aseptikoki Miguel Indurainek (5) eta Lance Armstrong-ek (7) menderatu zituzten Tourrak kentzen baditugu, epea askoz txikiagoa izango zen”¹⁵⁴ (JotDown.es, 2014).

Halaber, haren iritziz, estatistikak depresio aztarnak uzten ditu. Azken hogeita bost urteotan soilik Virenque-k (2) eta Fignon-ek (1) Pariseko podiumean egon dira. Kazetariaren aburuz, herrialde homologagarri bi erabiliz, Espainiak aldi berean bederatzi garaipen lortu zituen (lau txapeldun desberdinekin) eta 19 podium eta Italiak bat (Marco Pantani 1998) eta hamaika podium ezberdin.

Zenbaki horien arabera, esan al daiteke frantziar txirrindularitza gainbeheran dagoenik?. “Frantziak World Tour talde gehien duen europar herrialdea da, eta oinarri

¹⁵²“Roland Garros y el Tour tienen el mismo problema para los franceses: son competiciones enormes y globalizadas y sencillamente las ganan los mejores del momento, no importa su nacionalidad. ese sentido, como no tienen el liderazgo individual, ni en ciclismo, ni en tenis, en las tres últimas décadas, no ganan.”

¹⁵³“De 1947 a 1982 ningún francés ganó Roland Garros, pero entre diez corredores distintos conquistaron el Tour más de veinte veces. Es una estadística demoledora que se ensambla por contraste con el gran paréntesis del ciclismo actual. Tras la victoria de Bernard Hinault en 1985 — quinto amarillo para «el Caimán»—, ningún otro compatriota ha vuelto a subir a lo más alto de los Campos Elíseos hasta la fecha. Solo Richard Virenque (1996 y 1997) ha alcanzado al menos el podio en estos casi treinta años.”

zein profesional egutegirik osoena dauka”, adierazten du Adrián García Roca-k, Eurosporteko kazetariak, “baina ez dirudi nahikoa itzuli-irabazle bat sortzeko. Tourreko irabazle bat ez da egiten, jaio egiten da horretarako, osteko lan guztiarekin jakina.”¹⁵⁵

Gainera Garcia Roca-k beste ikuspegi bat gehitzen du: “Frantziar taldeek aurrekontu gutxiago daukate US Postal, Telekom eta ondorengo taldeekin lehiatzeko. Cofidis taldearen urrezko urteetan soldatarik handienak klasikak korritzen zituzten txirrindularientzat ziren.”¹⁵⁶

«Jota» Muruzabal Espainiako Valladolideko sendagileak analisi bide berria irekitzen du ere: “(frantziarren) prozesu hau guztia psikologia-doluaren arabera deskribatuko bagenu, Moreau-rekin ezezkoaren fasean zeuden. Ez zuten bere benetako maila eurenganetzen eta Armstrong-en alternatiba izan zitekeela uste zuten. 2001az geroztik onarpen aldian geundeke. Benetako maila duten txirrindularien eza agerian dago eta atzerapausoa dago prestakuntza medikoan. Azken urteotan zertxobait egiten duen txirrindulariari etiketa ipintzen zaio, Rolland-i edo Pinot-i kasu.”¹⁵⁷

Muruzabalen iritziz, lehortearen jatorriak honako hauek dira: “Fignon-en desagerpenarekin lehen depresioa sufritzen dute; 1991 eta 1994 artean, Indurain indartsuarekin, Virenque, Jalabert, Brochard eta ibilera luzeagoko txirrindulariak agertzen dira, Leblanc kasu. Hauekin, 1996 eta 1998 artean, Frantzia Tourra irabazteko

¹⁵⁴“Si pensamos que a Laurent Fignon se le escapó uno en 1989 por unos pocos segundos, ya estaríamos reduciendo algo la brecha de tiempo. Y si asépticamente omitimos los doce Tours tan dominados por Miguel Indurain (5) y Lance Armstrong (7), el período sería bastante menor.”

¹⁵⁵“Francia puede presumir de ser el país europeo con más equipos World Tour y tener el calendario de base y profesional más completo. (...)Pero parece no ser suficiente para construir un vueltómano. Un corredor capaz de ganar el Tour no se hace, nace; evidentemente añadiendo todo el trabajo posterior.”

¹⁵⁶“Los equipos franceses han invertido menos presupuesto para competir con US Postal, el Telekom y sus escuadras sucesoras. Incluso en los años dorados de Cofidis, centraban su apuesta en grandes salarios para corredores de clásicas.”

¹⁵⁷“No asumían su verdadero nivel y creían que podría ser alternativa a Armstrong. Desde 2001 hasta ahora entraríamos en el período de la aceptación. Existe falta de corredores de nivel verdadero y un paso atrás en la preparación médica. En los últimos años, de cierta psicosis, a cada corredor que destaca mínimamente se le pone la etiqueta, como con Rolland o Pinot.”

gertu dago. Klasedun txirrindulariak ziren, baina irregularrak eta ahulak buruz, taktikoki zaharkituak gainera.”¹⁵⁸

Zumer-en iritziz, munduko potentzia litzateke Frantzia, baina gauza asko egiteke edukiko zuen: “Frantziar txirrindularitza eta tenisaren gabeziak, pitzadura deigarria egitura oparoaren baitan, ez du lausotu behar herrialde lehiakor baten ikuspegia. Joko Olinpikoak termometro gisa hartuta, Frantzia etengabe mantendu da gutxienez munduko lehen onenen artean Seul 1988tik, ia kasu guztietan alderatu daitezkeen alboko herrialdeen gainetik amaituz, hau da Italia, Britainia Handia edota Espainiaren gainetik (ez aldiz Alemaniaren aldean). Gainera, azken hogeita hamar urteotan futbolean eta eskubaloian Europa eta Munduko txapelduna izan da, europar txapelduna saskibaloian eta errugbiko Sei Herrialdeak behin baino gehiagotan irabazi du. Halaber erreferentzia izan da igeriketan, eta lehiakorra neguko kiroletan. Adibide asko dago eta gabezia eramangarriagoa da arrautza asko eta saski batzuk baldin badaude”¹⁵⁹ (Zúmer, 2014).

Galdu ala irabazi, frantziarrek..., espainiarrek, euskaldunek eta edonondarrek bezala, Tourreko historia egiten segitzen dute. Eta asko dago oraindik ikertzeko eta idazteko.

¹⁵⁸“Tras el ocaso definitivo de Fignon sufren su primera depresión. En la “zona gris” entre 1991 y 1994, época de dominio de Indurain, aparecen los Virenque, Jalabert, Brochard, o corredores con más recorrido con Leblanc. Con ellos, entre 1996 y 1998, es la época donde Francia está más cerca de poder ganar un Tour. Eran corredores con carisma y con clase a raudales, pero irregulares y débiles mentalmente, anquilosados tácticamente en la guerra de guerrillas.”

¹⁵⁹“La falla parcial del ciclismo y del tenis francés, una llamativa grieta en medio de una estructura opulenta, no debe empañar la perspectiva de un país muy competitivo. Si recurrimos a los Juegos Olímpicos como termómetro, Francia se ha mantenido ininterrumpidamente como al menos la décima potencia mundial desde Seúl 1988, quedando por encima, en casi todos los casos, de países vecinos más o menos comparables como Italia, Gran Bretaña o España (no así con Alemania). Además, en los últimos treinta años el país galo ha sido campeón de Europa y del mundo en fútbol y balonmano, continental en baloncesto y ganador del Seis Naciones de rugby varias veces, amén de ser una referencia en natación y un país competitivo en deportes de invierno. Los ejemplos son numerosos. La escasez, en definitiva, es más llevadera si hay muchos huevos y varias cestas.”

8.13 Emakumeak eta Tourraren arteko harremanak

Tourra gizonezkoena izan da, gizonek gizonentzako eraikitako lasterketa eta horren inguruko topikoak daude lekuko gisa.

Emakumezkoen lasterketak 1955ean egin zuen debuta, baina abenturak urtebete baino ez zuen iraun. Geroago, 1984tik 2009ra arte, izendapen desberdinekin aritu zen. Ostean, 2014tik aurrera, La Course izeneko egun bateko lasterketa antolatzen da gizonezkoen Tourreko azken etapa baino lehen, gizonezkoen Tourrak berak antolaturik (La Course by Le Tour de France, 2014). Honaino, laburbilduta, egin diren lasterketen zertzelada-pare bat, baina atzetik ibilbide luzea legoke azpimarratzeko.

Hasteko, txirrindula-salmenta negozio moduan eta Tourra bera gizonezkoek sortuak baziren ere, egia da hasiera-hasieratik Frantziako publizitate-kartelek erakusten zutela bizikleta-ekoizleek argi eta garbi identifikatzen zituztela emakumeak bezero potentzial gisa.

Aldi berean, ezagutzen diren lehen emakumezkoen txirrindularitza-lasterketak 1868an egin ziren Bordelen eta Parisko Bois de Boulognen, baina lehiakideek laster aurkitu zuten erresistentzia. Parte hartzeko aukera ematen zitzaienean, emakumeek gizonen aurka lehiatzen jarraitzen zuten, eta horrek iradokitzen du antolatzaile eta ikusle batzuek, gutxienez, beren parte-hartzea berrikuntza kitzikagarri gisa ikusten zutela.

Baina, zaharrak berri, 1909an, *L'Auto*-k, emakumezkoen Frantziako Tour bat sortzeko irakurle baten proposamena ezetsi zuen, horretarako, ibilbideko mendiak suntsitu beharko zirela argudiatuz. Are okerrago, emakumeak agertzekotan, gaitzaren iturria izango balira bezala agertu ziren, non eta *L'Auto*-n bertan, nola? Henri Desgrange Tourreko zuzendariaren beraren idazlumatik, izan zen korrikalari gazteak beren jarraitzaile femeninoei amore ematearen "arriskuez" ohartarazi zituen lehen idazleetako bat. Laburbilduz: emakume promiskuoak (klase altukoak) kaosarekin eta porrotarekin lotzen ziren, eta emakume leialak (klase baxukoak) egonkortasun sozialarekin eta zoriontasun indibidualarekin.

Gerren arteko urteetan txirrindulariak orokorrean onartuak ziren arren, emakumezkoen lasterketen aurkako aurreiritziak jarraitzen zuen, sarri *L'Auto*-k berak emandako anekdotikako frogak izan arren, emakume batzuek distantzia luzeko

probetarako beharrezkoak ziren gaitasun fisiko eta moralak frogatzen zituztela. Gerra ostean, emakumezkoen Tourraren aldeko jarrera berpiztu zen. Esaterako, "emakumeek erre eta bozkatu egiten dutenez", esan zuen Pariseko emakume batek 1947ko Tourraren bezperan, "ez dago arrazoirik Tourrean korritu ezin izateko" (L'Equipe, 1947).

Eta 1955ean, azkenean, "*Tour féminin cycliste*" antolatu zuten Frantziako Txirrindularitza Federazioak eta FSGT izenekoak (*Fédération Sportive et Gymnique du Travail*). Bost egunez luzatu zen, 372 kilometro zeharkatu zituen lasterketak eta liderrak maillot zuria eraman zuen. Berrogeita zortzi emakumek parte hartu zuten, eta haietatik hogeita hamazazpi heldu ziren helmugara. Onenak egunean bi ordu egon ziren bizikleta gainean (Laget, 1982, or. 303).

Ekimenak ez zuen jarraipenik izan, baina emakumezkoen Tourrak mantendu zuen iritzi publikoaren aldeotasuna, kopuruak kopuru, *L'Equipe*-ren galdeketek erakusten zituzten modura: 1977an inkestazaileen galderei erantzun zuen, %95 emakumezkoen lasterketen alde zegoen eta urte batzuk beranduago %88 (Laget, 1982, or. 306).

Frantziako emakumezkoen txirrindularitzak aurrerapauso garrantzitsu bat erdietsi zuen 1983an, Tourraren antolatzaileetako batek, *Le Parisien Libéré* egunkariko Félix Lévitán-ek, Frantziako lehen Tour ofiziala hurrengo udan antolatuko zela iragarri zuenean.

Emakumezkoen gaitasunen etengabeko errebalorizazioaren isla bezala, 1984ko Los Angeleseko Olinpiar Jokoetan bi proba berri izan ziren: emakumezkoen maratoia eta errepideko txirrindularitza-lasterketa emakumeentzat. Bitartean, esan bezala, uda horretan izan zen aro modernoko emakumezkoen lehen Tourra. 1.080 kilometroko ibilbidea egin zen hemezortzi etapatan (horietako bat ere ez zen 80 kilometro baino gehiagokoa), gizonezkoen Tourraren egun eta ibilbide berdinetan egin zen, funtsezko bereizketa batekin: emakumezko parte-hartzaileak, batez beste, eguneko helmugatik 60 kilometro ingurura irteten ziren, publizitate-karabana baino lehenago eta gizonezko txirrindulariak baino ordu eta erdi lehenago (Augendre, 1991).

Hogeita hamasei emakumek abiatu ziren. Sei taldetan banatu ziren: Frantziako bi talde eta Amerikako Estatu Batuetako, Kanadako, Britainia Handiko eta Holandako

talde bana. Eztabaida, nola ez, pil-pilean mantentzen zen eta era gordinean azaleratu zen hedabideen orrialdeetan.

Emakumeak protagonistak bihurtu ziren eta ez beti onerako. Albo batetik eraikitako gizarte-egitura eta topikoak jasaten segitu zituzten. Esaterako, M. Vivaldi kirol-editoreak *'Mérional'* egunkarian, eskutitza bidali zuen *'La Provence Cycliste'*-ra, bertan honako hauek adieraziz: "(...) ikusten al dituzu Alpe d'Huez-era erabat leher eginda iristen, denak hautsez gris edo lokatzez beltz?(...) Emakumezkoen idealak [*'eternel féminin'*] sekulako kolpea har zezakeen". Finean, ideia hau nahiko hedaturik zegoen: emakumeek erakargarriak izan behar dute, eta betebeharrak hori betetzea eragozten dieten jarduerak saihestu behar dituzte edo, beste era batera esanda: korrikalariak feminitate konbentzionalaren arauetara egokitzea espero da.

Emakumezkoen Tourraren bigarren etapa hasi zenean, 1984an, iritzi gehienak ez zetozen bat Vivaldi-k esandakoarekin. Kazetari eta komentaria asko bat etorri ziren lasterketa ekimen historiko bat zela esatean, bere iraupena eta zailtasunak azpimarratuz. *L'Equipe*-k parte hartzaileak "aitzindariak (...) txirrindularitzaren mundu misoginoan" bezala deskribatu zituenean, emakumeak jada kirol garrantzitsu askotan lehiatzen ari ziren. *Le Monde*-k ezetsi egin zituen emakumeek tenisean eta patinaje artistikoan zentratu behar zutela uste zuten eszeptikoen eragozpen estetiko eta kirolezkoak. Bere batez besteko erritmo altuagatik harrিতuta, iruzkingileek, korrikalariak, emakumezkoen txirrindularitza-lasterketen aurkako antzinako aurreiritziak gezurtatzen ari zirela ikusi zuten. "Onartu beharra dago", ondorioztatu zuen *Le Figaro*-k, "sexu ahuleko ordezkari horiek guztiek gaitasun fisiko eta moral bikainak erakutsi zituztela Tourra amaitzeko" (*Le Figaro*, 1984). Prentsan ere agertu zen "emakumezkoa eta 'korrikalaria' izan daiteke aldi berean", eta Holandako bi lehiakideren argazki bat argitaratu zuen, etapa bat amaitu aurretik makillatzen.

Ildo beretik, Béatrice Labarthe 20 urte azpiko frantziar selekzioaren partaidea, bat zetorren positibotasun-izpirituarekin: "Emakumezkoen Tourrak jendea gazteak serio hartzera bultzatuko luke. Jendearentzat lasterketa ez da ezer, ez da emakumeen lekua, eta sukaldean edo lisatzen egon beharko lukete. Ahalik eta gehien erakutsiz gero, gure kirola emakumeen beste edozein kirol bezala onartzea lortuko dugu. Lasterketetan,

ikusleen hitzak entzuten ditut: ‘Baina ez dute izter handirik, ez dira munstroak’” (L'Equipe, 1984).

Esperientzia hori 2014an amaitu zen, eta 2022ko uztailaren 22n, igandean, emakumezkoen Tourra abiatuko da. Antolatzailea ASO (Amaury Sport Organisation) izango da. Lasterketak gizonetzkoenak dituen kode, balio eta sinbolo berberak bereganatuko ditu. UCI Women's World zirkuituaren baitan egingo da eta lehendabiziko etapa Parisen izango du amaiera gizonetzkoen Tourraren amaierako etaparen egunean bertan.

Bitartean emakume batzuek gizonetzkoen Tourraren ibilbidea egiteari ekin zioten 2015ean 'Donnons des elles au velo J-1' goiburua duen proiektuaren eskutik, *Courcouronnesko Cyclisme Féminin Clubek* (COCCF) sortua. Proiektuaren xede nagusia emakumezkoen txirrindularitza sustatzea eta estaldura mediatiko duina lortzea zen. Egitasmoaren protagonisten hitzetan “Frantziako Tourrak, Giroak ez bezala, ez du emakumezkoen probarik. Erronka horrekin, munduari ikusarazi nahi diogu emakumeok ere egin dezakegula gizonak egiten ari diren ibilbide bera, eta lasterketa hau osatu” (Marca, 2018).

Emakumezkoak oraindik Tourraren historia (berr)idazteko zain daude.

9 Emaizak 2: kazetaritza

9.1 Eduki mota eta kokapena egunkarietan

Azpiatal honetan aztertuko da ikertutako informazio eta iritzi edukiak non kokatzen diren egunkarien orrialdeetan eta, halaber, testuen eta irudien presentzia zenbatekoa den.

9.1.1 Egunkariaren sekzio edo atala

Euskal Herriko eta Espainiako prentsak ia eredu berdina erabiltzen dute Frantziako Tourrari buruzko informazioa egunkarietan kokatzen. Izan ere, bi sekziotan jartzen dute eduki ia guztia: kirola eta azala edo lehen orrialdea. Zehazkiago, **Kirolak** izeneko sekzioan, Euskal Herriko prentsak informazioaren %89,3 eta Espainiakoak %85,3 jartzen dute. **Azalean**, berriz, %10,5 eta %13,0 paratzen dute hurrenez hurren. Beste kategoria guztietan, portzentajeak minimoak dira, %1 azpitik gehienetan.

Frantziako prentsaren kasuan, beste eredu desberdin bat agertu da eta **Kirolaren** sekzioan %15,6 jartzen dute soilik; **azalean** edo lehen orrialdean, %39; eta “**Beste**” deitutako kategorian, %45,4. Eredu honen inguruan hainbat argibide emanaz, deigarria da “Beste” sekzioak daukan portzentaje handia, kontutan izanik beste bi herrialdeetan %1 baino gutxiagokoa dela. Hau argitze aldera, gogoan izan behar da “beste” kategoria honetan sartu direla paperezko egunkari baten sekzio arruntetan ez daudenak (gehigarriak, adibidez) eta, egunkarien Interneteko euskarrietako atalak (blogak eta web orriak).

Aipagarria da, halaber, Frantziako prentsan, **lehen orrialdean** agertze-portzentajea handiagoa izatea beste bi herrialdeetan baino. Horren arrazoia Tourraren jaiotzean topa daiteke. Lasterketa L’Auto egunkariaren eskutik sortu zen eta, Il Mundu Gerraren ostean L’Equipe egunkariaren eskuetara pasa zen. Biek ala biek berebiziko ahalegina egin dute, logikoa denez, lasterketaren edukiak euren egunkarien azaletan presentzia izan zitzaten. Halaber, L’Autoren monopolioarekin azpimarratzekoa da edukien presentzia azaletan (%86,0) eta ostean ere, nahiz eta L’Equipek Le Monderekin bereziki merkatua partekatu behar.

Azkenik, hiru herrialdeetako egunkarietan, **Iritzi, Gizarte, Politika, Nazioarte eta Kultura** sekzioetan dagoen edukia oso txikia da eta %1etik gora inoiz ez da heltzen.

Taula 3: egunkarien sekzioen portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Kirola	Azala	Iritzia	Gizarte	Politika	Nazioarte	Kultura	Beste	Guztia
EHko prentsa	89,3	10,5	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,1	100,0
1978-2013	89,3	10,5	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,1	100,0
Espainiako prentsa	85,3	13,0	0,7	0,1	0,1	0,0	0,0	0,7	100,0
1903-1914	92,7	5,5	0,0	0,0	0,0	1,8	0,0	0,0	100,0
1930-1970	73,4	26,1	0,0	0,1	0,0	0,1	0,0	0,4	100,0
1978-2013	89,6	8,4	1,0	0,1	0,1	0,0	0,0	0,8	100,0
Frantziako prentsa	15,6	39,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	45,4	100,0
1903-1914	14,0	86,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
1930-1970	4,8	62,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	32,8	100,0
1978-2013	20,9	19,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	59,6	100,0
Guztia	69,0	18,9	0,4	0,1	0,1	0,0	0,0	11,5	100,0

N = 6.766 item (6.383 informazio gehi 433 iritzi). Iturria: autorea.

Urtealdien alderaketa herrialdeka

Espainiako prentsan, urtealdi desberdinena 1930-1970ekoa da, non **Azal** edo Lehen orriaren sekzioak gorakada nabarmena izan zuen, %26,1era helduz, eta Kirol sekzioak beheraka proportzionala. Beste bi urtealdietan, Azalaren sekzioak balio txikiagoak izan zituen.

Frantziako prentsan, bere kokapen-ereduarekin alderatuz, bi urtealdi agertzen dira nahiko desberdin: 1903-1914 eta 1930-1970. Horietan, Azalaren sekzioak portzentaje handia dauka (%86,0 eta %62,4 hurrenez hurren). Hirugarren urtealdian (1978-2013), aldiz, portzentajea asko jaisten da (%19,5). Azkenik, **Beste** izeneko sekzioetan (blog eta web orria) edukien kokapena Frantziako prentsaren hirugarren urtealdian (1978-2013, %59,6) nabarmentzen da batez ere, logikoa denez.

Emitza orokorrak

Lagin osoaren balio guztiak batera hartuz, **Kirola** sekzio nagusia (%69,0), Azala (%18,9) ondoren, eta “Beste” hirugarren (%11,5). Lehenago aurreratu den modura, **Beste** izeneko sekzioaren inguruan aipatu behar da Interneten agerpenak edukiak iraultzeko edukiontzia bikoiztu dituela, euskarriei dagokienez behinik behin, eta

horrek isla izan du ikerketan, eduki batzuk ohiko formaturik gabeko euskarrietan aztertu direlako, batez ere Le Monde frantziar egunkarian.

Edukiak **lehen orrialdean** egoteak ez du garrantzirik galdu digitalizazioaren etorrerarekin, edozein ekitaldi historikoa betikotzeko ahalmena mantendu baita denboran zehar, Interneteko edukien iragankortasuna eta indar ikoniko txikiagoa kontuan hartuta. Gainera, ezaguna da egunkariak irakurtzeko era zeharo ezberdinak egon badaudela eta horien guztien artean azala da gehien irakurtzen den sekzioa, hor biltzen diren albisteak garrantzitsuenak direlako. Izan ere, gero eta zabalagoa da publizitatea lehen orrialdetan kokatzeko joera, eta baita horren truke tarifarik garestiena eskatzeko ere.

Irudi 18: Azala edo lehen orrialdearen adibide bat.



Iturria: L'Équipe, 1998-07-25.

9.1.2 Irudien eta testuaren presentzia

Hemen aztertuko da ea informazioa zer portzentajea dagoen osaturik: **testuaz soilik, irudiaz soilik, edo testuaz gehi irudiaz**. Testuaz ari garenean albisteak daukan testua aztertuko da. Irudiak aipatzen direnean albistean irudi edota grafiko bat egotea eta baita irudiak euren izenburu eta/edo irudi-oinekin ere aztertuko dira.

Irudi 19: azala. Irudirik gabeko edukiaren adibidea.



Iturria: L'Auto, 1903-07-03.

9.1.2.1 Irudi/testu portzentajea herrialdeka/urtealdika

Ondoko taulan ikus daitekeenez, **Irudia** kontuan hartuta, Euskal Herriko egunkarietan agertzen da irudien kopuru gehien (%30,5), baina guztiz logikoa da XX. mendearen amaiera irudiaren presentziak izan zuen gorakada kontuan hartuta. Joera bera ikusten da Espainiako egunkarietan, azkenean portzentajea erdibidean

kokatzeraino (%17,4). Aldiz, Frantziakoetan kopururik txikiena aurki daiteke (%7,6) hasierako garaietan baliabide grafikoak ugaritu baziren ere, L'Autok Tourra asmatu zuenean, alegia.

Testuari begira balantza kontrako aldera doa eta Frantziako egunkarietan testuen kopurua handiena da (%92,4). Guztira, testuaren portzentajea da nagusi (%82,9) eta irudien ehunekoak, jakina, txikiagoa (17,1). Testuetan zein irudietan Espainiako egunkariak batez besteko zifrekin bat datoz.

Herrialdeen urtealdiei begirako azterketa

Euskal Herriari begiratu, irudi kopurua handia den arren, testua da nagusi tarte haundiz (%30,5 vs %69,5).

Espainiari begiratu, hasierako urteetan, 1903-14, irudien kopurua oso txikia da (%3,6) eta, aldi berean, testuena oso handia (%96,4), baina irudia azken urtealdian %20aren ingurura heldu da.

Frantziaren kasuan, hasierako urtealdiak (1903-1914) dauka irudi kopururik handiena, baina gero txikiagotu da eta testuen portzentajeak igo dira proportzio berean. Hor ere garrantzitsuak dira arestian aipatutako euskarri motak (papera Vs Internet).

Chi Karratuaren froga aplikatu, Yates-en zuzenketa faktorea barne hartzen delarik, emaitzek adierazten dute bi aldagaien artean erlazioa dagoela eta, beraz, herrialdeetako prentsan agertzen diren diferentziak estatistikoki nabarmenak direla $p < .01$ esanahi mailan: Yates-en $X^2(2, N = 300) = 16.121, p < 0.00031577$.

Taula 4: irudi/testuaren portzentajea herrialdeka eta urtealdika

(%)	Irudi	Testu	Guztia
EHko prentsa	30,5	69,5	100,0
1978-2013	30,5	69,5	100,0
Espainiako prentsa	17,4	82,6	100,0
1903-1914	3,6	96,4	100,0
1930-1970	12,8	87,2	100,0
1978-2013	19,3	80,7	100,0
Frantziako prentsa	7,6	92,4	100,0
1903-1914	22,6	77,4	100,0
1930-1970	3,7	96,3	100,0
1978-2013	6,6	93,4	100,0
Guztia	17,1	82,9	100,0

N = 6.766 item (6.383 informazio gehi 433 iritzi). Iturria: autorea. Yates' X2 (2, N = 300)

= 16.121, p < .01.

Emaizta orokorrak

Testua nagusi den arren (%82,9) Euskal Herriko egunkarikoetan irudiaren pisua nabariagoa da. Bestalde, Interneten agerpenak irudi asko tokiz kanpo utzi ditu, hasieran behintzat paperezko egunkarien sekzioetan tarte “finkoa” zutenak, hain zuzen ere.

9.1.2.2 Irudi/testu portzentajea egunkarika eta egunkari motaka

Egunkarika

Ondoko taulan ikus daitekeenez, **irudien** portzentajeari dagokionez, egunkari guztiak, hiru multzotan sailka daitezke:

- **Irudien portzentajea %35 inguruan:** bi egunkari euskaldun, Euskaldunon Egunkaria (%36,1) eta Berria (%35,9), daude multzo honetan eta beraiek dira portzentaje handiena dutenak.
- **Irudien portzentajea %20-30 tartean:** lau egunkari daude multzo honetan (El Pais, Egin, Gara, Marca).
- **Irudien portzentajea %10-15 tartean:** hiru egunkari daude hemen (ABC, L'Auto eta Mundo Deportivo).

Azken tokian Le Monde dago, beste egunkariekiko desberdintasun handia erakutsiz, irudien portzentajea soilik %1,5koa da eta.

Testuaren kasuan eta logikari jarraituz, taulak kontrako norabide darama, hau da, testu gehien duena Le Monde da (%98,5) eta testu gutxien dituztenak Berria (%64,1) eta Euskaldunon Egunkaria dira (%63,9) dira. Batez bestekoa altuarekin beste lau egunkari ditugu: Mundo Deportivok (%89,5) L'Equipe-k (%89,2) ABC-k (%87,6) L'Auto-k (%84,3) eta Marca-k (%80,0) eta hortik behera %63,9 eta % 75,2 tartean, hurrenez hurren, El País, Egin eta Gara daude.

Taula 5: irudiaren eta testuaren portzentajea egunkarika eta egunkari motaka

(%)	Irudi	Testu	Guztia
Generalistak	19,3	80,7	100,0
ABC	12,4	87,6	100,0
Berria	35,9	64,1	100,0
Egin	28,3	71,7	100,0
El País	28,9	71,1	100,0
Eusk. Egunkaria	36,1	63,9	100,0
Gara	24,8	75,2	100,0
Le Monde	1,5	98,5	100,0
Kirolekoak	14,7	85,3	100,0
L'Auto	15,7	84,3	100,0
L'Equipe	10,8	89,2	100,0
Marca	20,0	80,0	100,0
Mundo Deportivo	10,5	89,5	100,0
Guztia	17,1	82,9	100,0

N = 6.766 item (6.383 informazio gehi 433 iritzi). Iturria: autorea.

Egunkari motaren arabera

Egunkari generalistetan irudien presentzia %19,3ra heltzen da eta kirolekoetan %14,7ra, hau da, %4,6ko alde oso txikia. Chi Karratuaren froga estatistikoak adierazten du ez dagoela desberdintasun esanguratsurik bi egunkari mota horietan, estatistikoaren zenbakiak hauek izanik Yates-en korrekzio faktorea sartuta: $\chi^2(1, N = 200) = 0.319, p 0.57220923$; beraz, emaitzak ez dira esanguratsuak $p < .01$ significazio mailan.

Emaitza orokorrak

Ondoko taulan ikus daitekeenez, **Guztia** balioari begiratuta, testua da nagusi (%82,9) eta portzentaje horretara heltzeko Le Mondekin traktore lana egiten du,

egunkari horren kasuan Interneteko edukiak nagusi direlako. Euskal egunkariet testuen portzentajerik txikiena daukate. Aldiz, espainiar eta frantziar egunkariak nahiko parekatuta daude arlo horretan.

Irudi 20: azala. Irudi+Testuaren adibide bat.

MARCA
 Director: LUIS INFANTE BRAVO
 Jueves 20 JULIO 1989 65 pesetas

LA ETAPA DE HOY UNA NUEVA OCASION

ALPE D'HUEZ: 1.º, THEUNISSE; 2.º, DELGADO, A 1:09; 3.º, FIGNON, A 1:09; 5.º, LEMOND, A 2:27

Perico: "Esto no se ha acabado"

Sensacional etapa de Rondón (4.º) y Lejarreta (5.º)
Mottet se hundió y perdió 5:08
En el pasado Tour, Perico, que ya es tercero, a menos de dos minutos, consiguió una espectacular victoria en Villard de Lans

La etapa de ayer, con su llegada a la mitica cumbre de Alpe d'Huez, resultó menos espectacular de lo que se esperaba a priori. El terreno marcado por Franco Delgado, 1:27 a Greg Lemond, no parece suficiente para empujar las próximas etapas con intensidad. Pero lo cierto es que el ritmo que el colombiano de Reynolds, Alexander Hoenes, impuso durante todo el tramo final de la etapa puede pasar factura a Lemond que ya empezó a sufrir ayer, y a Fignon, que hoy se adelantó final.

Sin embargo, hoy tenemos otra etapa de montaña en Villard de Lans, en la que el se gobierno puede dar algún respiro. Ya no se necesitan recuperarse entre minutos, el maltrato sufrido está a medio día.

(Página 22 a 32)

AYER SIGUIÓ
CON LA REBAJA
 A LEMOND, 1:18
 A MOTTET, 3:59

LA GENERAL
 1 FIGNON
 2 LEMOND, a 26"
 3 DELGADO, a 1:55
 4 THEUNISSE, a 5:12

Con las tijeras de recortar

Hoy, según se esperaba, se esperó que un minuto a Lemond le costara cuatro a cinco. El hecho que no pueda nunca es el segundo. Ya está a menos de una hora de haber y a menos de cinco horas que Alpe d'Huez era el último oportunidad. Si el hecho que son desde mañana y si no solo no ha guardado los ritmos de ayer, sino que al final, ¿el triunfo? Hoy a decir una buena hora Perico Delgado.

MENDOZA
 Volvió por la mañana
Ayer, Junta directiva
 Mendoza interrumpió sus vacaciones y presidió el Junta directiva que ayer sesionó el Real Madrid. Este más, aprovechó para reconocer el título de Aguirre por su hijo, y que Perico no se puede ir. (Página 2-3)

CLEMENTE
 No aconseja su traspaso
Quiere tener a Baltazar
 Javier Clemente sabe de los ofertas que el Atlético sigue recibiendo por Baltazar pero no quiere prescindir de los servicios del pichicho, y está dispuesto a darle permiso para que siga en Getafe. (Página 4)

BORONAT
 Real Sociedad 89-90
Ya les puso a trabajar
 La Real Sociedad abrió ayer el telón de la Liga 89-90. Con esto despidió jugadores, todos ellos de la calidad, pero con la expectativa de que llegará algún extranjero, cuando se abra la ventana. (Página 6-8)

BALLESTEROS
 Hoy, el Open Británico
A revalidar su título
 Hoy comienza el Open Británico con la participación de Severiano Ballesteros, que está dispuesto a revalidar su título y parte como gran favorito para la victoria final. (Página 10-12)

LOLO SAINZ
 Regresó de ver a Petrovic
"Nos ampara la razón"
 Lolo Sainz regresó de Zagreb, donde se entrevistó con Petrovic. Para el manager general del Madrid este viaje le ha servido para conocer el punto de vista del jugador y darle más. (Página 13)

Iturria: Marca, 1989-07-20.


9.1.2.3 Irudi/testu portzentajea urtealdika

Irudiari dagokionez, hasierako eta amaierako urtealdiak parekatuak daude, %18,3 1903-1914an, Lehen Mundu Gerra aurreko urteetan, eta %19,2 portzentajea 1978-2013an. Erdiko urtealdian, 1930-70 bitartekoan, emaitzak txikiak dira (%10,1).

Testuari begira, hiru urtealdietan oso antzeko portzentajeak daude, %80-90 tartean. Zifrak parekatuak diren arren, azken urteetako joerak, astiro bada ere,

presentzia handiagoa eskaini dio irudiari, kontuan hartuta hainbatetan Interneten ez dela islatzen paperan dagoen irudi- kopurua.

Grafiko 1: irudi/testu portzentajea urtealdika



N = 6.766 item (6.383 informazio gehi 433 iritzi). Iturria: autorea.

9.2 Kazetaritza-generoak

Azpiatal honetan, metodologia-atalean definitu den modura, kazetaritza-generoak aztertuko dira, bi mailatan hartuta. Lehen mailan, informazioa edo iritzia den zehaztea izango da. Bigarren maila batean, informazioaren eta iritziaren genero espezifikoak aztertuko dira, kontuan izanik, tesi honetan, ikertu diren 6.766 edukietatik, 6.383 kazetaritzako informazioa direla eta 433 iritzi lanak.

9.2.1 Kazetaritza-generoa 1: informazioa eta iritzia

9.2.1.1 Informazio/iritzi portzentajea herrialdeka eta urtealdika

Ondoko taulan ikus daitekeenez, **informazioaren** generoa da nagusi herrialde eta urtealdi guztietan. Frantzian nagusitasun hori ia erabatekoa (%93,7) eta Euskal Herrian ematen da portzentajerik “txikiena”: %81,3. Batez bestekoa %93,7 da eta horren bueltan dabil Espainiako media (%94,7).

Iritziari dagokionez, Frantziako egunkarietan ez dago ia iritzirako tarterik, era esplizituan behinik behin: %0,5, informazioan bezala; erdibidean dago espainiar egunkarien jarduna (%5,3) eta Euskal Herriko prentsan iritzia %18,7raino heltzen da.

“Herrialdeen prentsa” aldagaian dauden balioei begiratzuz, egiaztatzen da hiruren artean desberdintasunak estatistikoki adierazgarriak direla, Chi Karratuaren froga

erabiliz: Yates-en $X^2(2, N = 300) = 20.695, p < 0.00003207$; beraz, emaitzak adierazgarriak dira $p < .01$ esanguratasun mailan.

Taula 6: informazio/iritzien portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Informazioa	Iritzia	Guztia
EHko prentsa	81,3	18,7	100,0
1978-2013	81,3	18,7	100,0
Espainiako prentsa	94,7	5,3	100,0
1903-1914	100,0	0,0	100,0
1930-1970	96,5	3,5	100,0
1978-2013	93,9	6,1	100,0
Frantziako prentsa	99,5	0,5	100,0
1903-1914	100,0	0,0	100,0
1930-1970	99,1	0,9	100,0
1978-2013	99,6	0,4	100,0
Guztia	93,7	6,3	100,0

$N = 6.766$ item (6.340 informazio gehi 426 iritzi). Iturria: autorea. Yates-en $X^2(2, N = 300) = 20.695, p < 0.00003207$.

Informazioaren eta iritziaren analisia aztertutako lurraldeetan

Euskal Herriari begiraturaz, informazioari dagokionez, portzentajea %81,3 da eta iritzia %18,7. Emaitza hauek ulergarriak dira kazetaritzaren ikuspuntutik, informazio gehiago egoten baita iritzia baino. Dena den, beste bi herrialdeetan iritzi kopurua franko txikiagoa da eta, euskal egunkarietan altuena da, alde aldiz gainera.

Espainiari begiraturaz, hasierako urteetan informazioa baino ez da jasotzen. Beraz iritziarik ez da agertzen, edo ez behintzat horrela esplizitaturik. Bigarren urtealdian informazioa behera doa eta iritzia gora, eta hirugarrenean informazioak du kopururik "txikiena" (%93,9) eta iritziak tarterik zabalena (%6,1).

Frantziari begiraturaz, espainiar kasuan bezala, 1903-1914 urtealdian informazioa baino ez dago. Eta joera ia mantentzen da hurrengo bi urtealdietan: bigarrean %99,1 vs %0,9 eta hirugarrenean %99,6 vs %0,4.

Emaitza orokorrak

Informazioaren nagusitasuna ia erabatekoa da espainiar eta frantziar prentsan eta oso handia euskal prentsan. Beraz, iritziaren presentzia hedatuagoa dago euskal

kazetetan. Espainiar eta Frantziako hedabideetan iritzia era esplizituan agertzea ez da horren ohikoa edo banaketa formala ez hain esplizitua.

9.2.1.2 Informazio/iritzi portzentajea egunkarika

Informazioaren kazetaritza-generoa nagusi da egunkari guztietan, aurreko tauletan bezala. Erabatekoa da Tourra-ren hasierako babeslean, L'Auto-n (%100,0) eta portzentajerik baxuena Berrian aurki daiteke (%72,5). Gainerako egunkari guztiek %80tik gorako portzentajeak dituzte. Egin (%82,1) eta Le Monde eta L'Equipe, %99,5aren inguruan, muturrak dira.

Iritziaren atalean Berriak du burua, laurden baten inguruko iritzi-kopuruarekin (%27,5) eta L'Auto kontrako aldean dago, iritzirik ez du eta. Gara, Euskaldunon Egunkaria eta Egin %15aren inguruan daude.

Egunkari motaren arabera

Taula 7: informazio/iritzien portzentajea egunkarika

(%)	Informazioa	Iritzia	Guztia
Generalistak	90,5	9,5	100,0
ABC	94,2	5,8	100,0
Berria	72,5	27,5	100,0
Egin	82,1	17,9	100,0
El País	90,5	9,5	100,0
Eusk. Egunkaria	82,5	17,5	100,0
Gara	83,7	16,3	100,0
Le Monde	99,5	0,5	100,0
Kirolekoak	97,2	2,8	100,0
L'Auto	100,0	0,0	100,0
L'Equipe	99,3	0,7	100,0
Marca	96,7	3,3	100,0
Mundo Deportivo	95,9	4,1	100,0
Guztia	93,7	6,3	100,0

N = 6.766 item (6.383 informazio gehi 433 iritzi). Iturria: autorea. Yates-en χ^2 (1, N = 200)
= 2.216, $p < 0.13658653$.

Egunkari generalistetan informazioaren generoa %90,5era iristen da eta kirol egunkarietan %97,2ra, ez oso diferentzia handia. Iritziaren generoari begiratu, egunkari generalistetan iritziaren presentzia %9,5ekoa da eta kirol egunkarietan, aldiz,

%2,8koa soilik, hau da, minus %6,7. Diferentzia estatistikoa ez da adierazgarria eta honek esan nahi du bi aldagaiak, kazetaritza generoa eta egunkari mota, ez daudela erlazionatuta. Chi karratuaren balioak hauek dira: Yates-m X^2 (1, N = 200) = 2.216, $p < 0.13658653$; beraz, emaitzak ez dira esanguratsuak $p < .01$ eta $p < .05$ signifkazio mailetan.

Emaitza orokorrak


Taula orokorraren datuak are ageriago daude egunkarien herrialdeei so eginez gero, iritzi-kopururik altuenak dituztenak euskaldunak direlako: Berria, Gara, Euskaldunon Egunkaria eta Egin. Ostean El Pais, ABC, Mundo Deportivo eta Marca datoz %9,5etik %3,3ra doan tartean. Oro har, logikari jarraituz, informazioa da nagusi egunkari guztietan.

9.2.1.3 Informazio/iritzi portzentajea urtealdika

Informazioak betetzen du 1903-14 urtealdia (%100). Tourra-ren hastapenak dira eta L'Auto-ren joerak agintzen du, gainerako hedabideen maiztasuna bestelakoa dela kontuan hartuta ere. Bigarren eta hirugarren urtealdietan, 1930-70 eta 1978-2013, hain zuzen ere, informazio generoaren nagusitasuna mantentzen da %92tik gorako portzentajearekin.

Iritzia ez da ia agertzen 1978-2013 urtealdira arte eta ez da iristen %10era. Dena den joera da gero eta iritzi esplizituagoa agertzea egunkarietan.

Grafiko 2: informazio/iritzien portzentajeak urtealdika



N = 6766 item (6.383 informazio gehi 433 iritzi). Iturria: autorea.

9.2.2 Kazetaritza-generoa 2: informazio/iritziaren azpigeneroak

Atal honetan informazio- edo iritzi-generoen baitan agertzen diren azpikategoriak aztertuko dira: albistea, kronika, argazki-albistea, erreportajea, elkarrizketa, eta beste.

9.2.2.1 Informazio motak herrialdeka eta urtealdika

Ikertutako laginean, 6.383 eduki informazio generokoak dira, eta azpikategoria hauei dagozkie: albistea, kronika, argazki-albistea, erreportajea eta elkarrizketa. Halaber "Beste" izeneko multzoan aurrekoetan sartzen ez direnak aurki daitezke.

- **Albistea:** herrialdeka Frantziako prentsak du albiste gehien (%79,7) eta Euskal Herrikoak gutxien (%13,0). Urtealdika, frantses egunkarietan 1930-70 tartean handiena aurki daiteke (%81,6) eta txikiena espainiar egunkarietan 1903-14 urtealdian (%5,5). Euskal Herriko prentsa erdibidean dago (%13,0). Albistea da pisu gehien duen informazio-azpikategoria (%37,5).
- **Kronika:** genero honek edukiaren %31,8 lortzen du. Daturik eskasena pasa den mendeko hasieran aurki daiteke frantziar egunkarietan, L'Auton hain zuzen ere, eta altuena urte haietako espainiar egunkarietan (%90,9). Herrialdeka Espainia da nagusi (%44,6); Frantziak bere aldetik du kopururik txikiena (%2,7) eta Euskal Herriko egunkarien media %30,8koa da.
- **Argazki-albistea:** Daturik txikiena frantses egunkarietan dago (%6,2) eta altuena euskal egunkarietan (%34,9). Urtealdiei begira, Frantziak du kopururik txikiena

1930-70ean (%3,3), eta Euskal Herrikoek handiena, arestian aipaturikoa hain justu ere. Oro har hartuta, argazki-albisten pisua %18,3koa da.

- **Erreportajea:** guztira %8,3 da. Herrialdeka Euskal Herria da nagusi (%17,5) eta Espainiak du kopururik txikiena (%6,2). Daturik eskasena, 1903-14 tartean espainiar egunkarietan dago (%0,0) eta handiena euskal egunkarietan (%17,5).
- **Elkarrizketa:** presentzia urria du, %3,0 guztira, eta hiru herrialdeetan azken urtealdian, 1978-2013an, ugaldu da gehien.

Taula 8: informazio moten portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Albistea	Kronika	Arg-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	Beste	Guztia
EHko prentsa	13,0	30,8	34,9	17,5	3,8	0,0	100
1978-2013	13,0	30,8	34,9	17,5	3,8	0,0	100
Espainiako prentsa	25,0	44,6	19,7	6,2	3,0	1,6	100
1903-1914	5,5	90,9	3,6	0,0	0,0	0,0	100
1930-1970	18,6	54,9	17,3	3,5	3,1	2,6	100
1978-2013	27,8	39,7	20,9	7,3	3,1	1,2	100
Frantziako prentsa	79,7	2,7	6,2	8,2	2,6	0,6	100
1903-1914	75,8	0,0	16,1	1,6	1,6	4,8	100
1930-1970	81,6	9,4	3,3	4,8	0,9	0,0	100
1978-2013	79,6	0,1	5,7	11,0	3,5	0,1	100
Guztia	37,5	31,8	18,3	8,3	3,0	1,1	100

N = 6.383 informazio item (iritzia sartu gabe). Iturria: autorea.

Emitza orokorrak

Joerak zeharo ezberdinak dira informazio mota guztietan. Oro har albistea beherantz joan da Euskal Herriko egunkarietan eta gorantza espainiarretan, frantses egunkarietan egonkorra mantendu den bitartean. Kronika aldiz, gorantz euskal medioetan eta beherantz espainiarretan. Frantziar laginena baldintzaturik agertzen da euskarria zein den kontuan hartuta eta baita azalen pisuagatik: antolatzaile izanagatik eduki garrantzitsu gehiago azalera doaz eta hor kronika mota ia ezinezkoa da aurkitzea.

9.2.2.2 Informazio motak egunkarika

Azpikategoria hauen presentzia aztertuko da ikertutako egunkari bakoitzean: albistea, kronika, argazki-albistea, erreportajea eta elkarrizketa. Halaber “Beste” izeneko multzoan aurrekoetan sartzen ez direnak aurki daitezke.

- **Albistea:** Frantziako prentsak, batera hartuta, du albiste gehien (%79,7) eta frantses egunkariak puntan daude banan-banan hartuta: Le Monde (%85,1) L’Auto (%80,8) eta L’Equipe (%71,9) Behetik hasita, El Pais (%1,3) eta Berria (%2,9) daude.
- **Kronika:** ABC espainiar egunkariak portzentajerik altuena dauka eta Tourrari buruzko informazioa eskaintzeko orduan % 79,8 kronika formatuaren bitartez egin du. Gutxien erabili dutenak Le Monde (%0,0 ohiko formatuan) eta L’Auto (%2,4)

Portzentaje dezente batekin daude Mundo Deportivo (%56,4) El Pais (%50,8) Euskaldunon Egunkaria (% 43,3) eta Berria (%39,8) daude.

- **Argazki-albistea:** Berria de gehien erabiltzen duena (%49,5) eta, kronikaren azterketan gertatu den moduan, gutxien erabili duena Le Monde da (%0,0 ohiko formatuan). Euskaldunon Egunkariak, Berriaren aitzindariak, pareko portzentajerik erakutsi zituen bere orrialdeetan (%41,3). Bestalde, %30aren bueltan Egin (%29,2) Gara (%29,6) eta El Pais (%29,9) daude.
- **Erreportajea:** Euskal Herriko Gara da nagusi atal honetan, (%36,1) eta Espainiako ABC-k oso gutxi erabili du (%1,1) Aldea nabarmena da lehena eta gainerakoen artean, Egin-eko %20,1etik behera inork ez baitu El Pais-en %13,5 edota Le Monderen %11,7 gainditu. Gainerakoak %10tik behetik daude.
- **Elkarrizketa:** Mundo Deportivo du presentzia gehien elkarrizketak (%6,5) eta ABC-n gutxien (%0,3). Hortik gora daude gainerakoak, Euskaldunon Egunkariaren %4,6ra arte.

Irudi 21: kronika baten adibidea.



Iturria: Egin, 1992-07-05.

Egunkari motaren arabera

Egunkari generalisten eta kiroleko egunkarien artean desberdintasun estatistikoki adierazgarriak daude, batez ere albiste, kronika eta erreportajeen azpikategorietan. Egunkari generalistetan kronika (%41,4) eta erreportaje (%10,8) gehiago daude kirolekoetan baino. Aldiz, kiroleko egunkarietan ugariagoak dira albisteak (%50,1), egunkari generalistetan (%25,3) baino bi aldiz gehiago baitaude. Chi karratuaren balioak hauek dira: $X^2(5, N = 6340) = 547.799, p < .01$; beraz, emaitzak esanguratsuak dira $p < .01$ signifikazio mailan.

Taula 9: informazio moten portzentajea egunkarika eta egunkari motaka


(%)	Albiste	Kronika	Arg-albiste	Erreportajea	Elkarrizketa	Beste	Guztia
Generalistak	25,3	41,4	19,5	10,8	2,6	0,3	100,0
ABC	6,5	79,8	12,1	1,1	0,3	0,1	100,0
Berria	2,9	39,8	49,5	5,8	1,9	0,0	100,0

EMAITZAK 2: KAZETARITZA

Egin	23,6	23,6	29,2	20,1	3,5	0,0	100,0
El País	1,3	50,8	29,9	13,5	3,1	1,4	100,0
Eusk. Egunkaria	8,8	43,3	41,3	2,1	4,6	0,0	100,0
Gara	6,0	24,1	29,6	36,1	4,2	0,0	100,0
Le Monde	85,1	0,0	0,0	11,7	3,2	0,0	100,0
Kirolekoak	50,1	21,8	17,1	5,7	3,5	1,9	100,0
L'Auto	80,8	2,4	11,5	1,8	0,9	2,7	100,0
L'Equipe	71,9	6,4	11,3	7,5	2,7	0,2	100,0
Marca	69,9	4,1	18,3	3,9	2,0	1,9	100,0
Mundo Deportivo	6,0	56,4	20,7	7,9	6,5	2,5	100,0
Guztia	37,5	31,8	18,3	8,3	3,0	1,1	100,0

N = 6.383 informazio eduki (iritzia sartu gabe). Iturria: autorea. $X^2(5, N = 6340) = 547.799, p < .01$.

Grafiko 3: informazio motak egunkarika



N = 6.383 informazio edukia (iritzia sartu gabe). Iturria: autorea.

Generoen azterketa egunkarietan

- **Albiste:** Nagusi da kirol egunkarietan, generalisten kopurua bikoiztuta. Kirol egunkarietan multzo bi daude. Lehenik Marca, L'Equipe eta L'Auto (%70-80) eta


Mundo Deportivo bestetik kopuru oso txikiarekin. Generalistetan hiru multzo leudeke: Le Monde (%85,1) Egin erdian (%23,6) eta gainerakoak %9tik behera.

- **Kronika:** albistea eta kronika bera informazioaren protagonista nagusiak direnez gero, logikoa da oso, kirol egunkarietan Mundo Deportivok portzentajerik handiena izatea (%56,4) eta gainerakoek oso txikia. Generalistetan hiru multzo daude. Lehena Gara eta Berria egunkariak osatzen dutena (%24), bigarrena %40-%50 sardean (Euskaldunon Egunkaria, Berria eta El Pais) eta ABC bakarrik (%80).
- **Argazki-albistea:** antzeko portzentaje orokorrak dituzte generalistek eta kirolekoek. Azken horietan oreka dago (%11-20 bitartean) eta generalistetan L'Autok ez dauka argazki-albisterik eta ABC-k gutxi. Gainerakoak %30-50 sardean daude.
- **Erreportajea:** toki gutxi betetzen du kirol egunkarietan (%5,7) eta horren baitan proportzioak %2tik-%8ra. Egunkari generalistetan hiru taldetan multzokatu daitezke: baxuena %1etik-%6ra (ABC, Euskaldun Egunkaria, Berria), erdian El Pais, Le Monde eta Egin (%11-20 sardean) eta goitik Gara (%36,1).
- **Elkarrizketa eta beste:** oso portzentaje txikia kronika (%43,3) eta argazki-albistea (%41,3) parez-pare daude eta erreportajea da gutxien erabili dutena (%2,1).

Emaiza orokorrak

Informazio-generoen presentzia anitza da. Frantziako egunkarietan albistea da nagusi. Espainiako egunkarietan, aldiz, kronika, Marca egunkaria kenduta eta euskal prentsan bestelako joerak topa baitaitezke: erreportajea Garan; argazki-albistek Berrian eta Eginen, eta kronika Euskaldunon Egunkarian. Frantziar prentsan alderik handienak daude, albisteen atzetik bigarren azpikategoriaino berebiziko distantzia dago eta. Egunkari generalistek kronika eta erreportajea erabiltzen dute kirol egunkarietako baino maizago eta, aldiz, kirol egunkarietako albistearen aldeko apustua egiten dute.

Grafiko 4: informazio motak urtealdika



N = 6.383 informazioa (iritzia sartu gabe). Iturria: autorea.

Aurreko taula eta irudia aztertuz, emaitza hauek nabarmentzen dira:

- **1903-14:** albistea da nagusi (%59,8). Kronika soilik iristen da %20ra. Erreportajea eta elkarrizketa testigantza dira. Argazki-albistea hirugarren tokian dago.
- **1930-70:** albistea eta kronika parez-pare daude, %39,2 eta %39,8 hurrenez hurren. Argazki-albistek bere pisua mantentzen du (%12,6).
- **1978-2013:** proportzioak mailakaturik daude, erregulartasun gehiagorekin bada ere eta ordena horretan: albistea %36,2; kronika %29,4; argazki-albistea %20,3; erreportajea %10,1 eta elkarrizketa %3,3.

Emaitza orokorrak

Datu guztiak kontuan hartuta, albisteen presentzia egonkortu da aro “modernoetan” eta gorantz doaz argazki-albistea, erreportajea eta elkarrizketa, bakoitza bere mailan eta abiadurarekin. Kronikak, gertakizunak kontatzeko modu bezala bere indarra mantentzen du.

9.2.3.1 Iritzi motak herrialdeka eta urtealdika

Iritzi-azpikategoria hauen presentzia aztertuko da ikertutako herrialde eta urtealdi bakoitzean: zutabea, artikulua, editoriala, bineta, eskutitza eta bloga. Halaber, “Beste” izeneko multzoan aurrekoetan sartzen ez diren azpikategoriak aurki daitezke.

Taula 11: iritzi moten portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Zutabe	Artikulu	Editorial	Bineta	Eskutitz	Blog	Beste	Guztia
EHko prentsa	96,1	3,4	0,0	0,5	0,0	0,0	0,0	100,0
1978-2013	96,1	3,4	0,0	0,5	0,0	0,0	0,0	100,0
Espainiako prentsa	66,0	18,4	7,1	2,8	2,8	0,0	2,8	100,0
1903-1914	Ez dago iritzi edukirik							
1930-1970	45,9	21,6	0,0	16,2	8,1	0,0	8,1	100,0
1978-2013	70,3	17,7	8,6	0,0	1,7	0,0	1,7	100,0
Frantziako prentsa	0,0	62,5	12,5	0,0	12,5	12,5	0,0	100,0
1903-1914	Ez dago iritzi edukirik							
1930-1970	0,0	75,0	0,0	0,0	25,0	0,0	0,0	100,0
1978-2013	0,0	50,0	25,0	0,0	0,0	25,0	0,0	100,0
Guztia	79,3	12,0	1,6	3,8	1,6	0,2	1,4	100,0

N = 426 iritzi (informazioa sartu gabe). Iturria: autorea.

Analisi bertikala herrialdeka

- **Zutabea:** asko erabilitakoa da Euskal Herriko egunkarietan (%96,1), aski Espainiako egunkarietan (%66,0) eta deus ez Frantziakoetan.
- **Artikulua:** Frantziako prentsan du presentzia gehien (%62,5) eta zutabearen kasuan legez, bigarren tokian dago espainiarren portzentajea (%18,4). Artikuluen presentzia Euskal Herriko egunkarietan oso pisu gutxi du (%3,4).
- **Editoriala:** Frantses egunkarietan kopururik altuena dago (%12,5) eta espainiar prentsan ere badu presentzia nahikorik (%7,1).
- **Bineta:** Espainiako egunkarietan du presentzia gehien (%16,2) eta euskal zein frantses egunkarietan ez du garrantzirik edo zuzenean ez dauka presentziarik.
- **Eskutitzak:** %12,5era heldu da frantziar egunkarietan, %2,8ra soilik espainiarretan eta ez dago Euskal Herriko egunkarien orrialdeotan.

Analisi horizontala herrialdeka

- **1903-1914 urtealdia:** ez dago iritzi-artikurik era berezitan argitaratua.
- **1930-1970 urtealdia:** Espainiako prentsan zutabea gailentzen da eta ostean parekaturik daude artikulu (%21,6) eta bineta (%16,2), eskutitzak %8,1 garrantzia duelarik. Frantziar zuzendariari eskutitzak (%25,0) eta artikuluak (%75,0) baino ez dira kodetu denbora urtealdi horretan.

- **1978-2013 urtealdia:** albisten proportzioa adierazgarria da Euskal Herriko prentsan urtealdi honetan (%96,1). Horretaz aparte, artikulua baino ezin dira aipatu (%3,4). Espainian handia da ere diferentzia albistek (%70,3) eta artikuluen artean (%17,7), horiek eskutitzak (%8,6) bikoizten dituztelarik. Frantzia iritzi-espazioa artikulua (%50,0), editorial (%25,0) eta Interneteko blogen artean (%25,0) banatzen da.

Emitza orokorrak

Guztien artean desoreka asko daude, gehienak frantses egunkarietan, alde batetik iritziaren presentzia ohikoa delako albisten lerro artean, batik bat L'Auto eta L'Equipe egunkari-antolatzaileak izan direlako, horrek duen esanahi guztiarekin. Bestetik euskarri digitalen agerpenak baldintzatzen du ohiko ikuspegia, formatuak aldakorrak bihurtzen direlako.

9.2.3.2 Iritzi motak egunkarika

Iritzi motei dagokienez, ezberdintasunak nabarmenak dira egunkari generalista eta kirol egunkarien artean. Bietan zutabe nagusi bada ere, generalistetan bere presentzia ia erabatekoa da (%86,1) eta kirolekoetan 30 puntu azpitik dago. Bestalde artikulua oso gutxi dira generalistetan eta lau aldiz gehiago kirolekoetan. Bineten eta eskutitzen presentzia ohikoagoa da kirol egunkarietan eta generalistetan editorialena.

Taula 12: iritzi moten portzentajeak egunkarika

(%)	Zutabe	Artikulu	Bineta	Editorial	Eskutitz	Blog	Beste	Guztia
Generalistak	86,1	7,1	0,3	4,4	1,2	0,3	0,6	100,0
ABC	55,6	13,0	0,0	24,1	3,7	0,0	3,7	100,0
Berria	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Egin	95,9	4,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
El País	85,1	12,2	0,0	1,4	1,4	0,0	0,0	100,0
Eusk. Egunkaria	90,2	7,8	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Gara	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Le Monde	0,0	25,0	0,0	25,0	25,0	25,0	0,0	100,0
Kirolekoak	53,4	30,7	6,8	1,1	3,4	0,0	4,5	100,0
L'Equipe	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Marca	32,5	52,5	2,5	0,0	2,5	0,0	10,0	100,0
Mundo Deportivo	77,3	4,5	11,4	2,3	4,5	0,0	0,0	100,0

Guztia	79,3	12,0	1,6	3,8	1,6	0,2	1,4	100,0
---------------	-------------	-------------	------------	------------	------------	------------	------------	--------------

N = 433 iritzi (informazioa sartu gabe). Iturria: autorea.

Iritzi motak eta beren presentzia egunkarietan

- **Zutabea:** Berria eta Garan %100 da, hau da iritzi-artikulu guztiak formatu horretan agertzen dira. Aitzitik, L'Equipe zein Le Monde-ko laginetan ez dago zutaberik. Aparte interpretatu behar da Le Monde-rena, Interneteko formatuan ez baita zutaberik antzematen. Gainerakoek portzentaje altuak dituzte, bi multzotan banaturik, Marca-ko %32,5etik ABC-ren %55,6ra eta Mundo Deportivotik (%77,3) gora El Pais (%85,1) Euskaldunon Egunkaria (%90,2) eta Egin (%95,9) daude. Zutabea da, oro har, gehien erabiltzen den iritzi edukiak zabaltzeko formatua, %79,3 portzentajearekin.
- **Artikulua:** iritzi genero honi dagokionez, L'Equipe-ren iritzi guztiak artikulu formatuan biltzen dira (%100,0). Gainerakoak bi multzotan bana daitezke. Lehen multzoan Marca espainiar egunkariak portzentaje altua du (%52,5). Bigarren multzoan Le Monde-tik behera (%25) koka daitezke gainerako guztiak. Aipatzekoa da Euskal Herriko Berria eta Gara egunkarien kasua, %0ko portzentajearekin.
- **Editoriala:** Mundo Deportivo-k (%11,4) Marck eta Euskaldunon Egunkariak, %2ren inguruan, editorialak erabiltzen dituzte.
- **Bineta:** Le Monde-n eta ABC-en daude bineta gehien, %25aren bueltan eta hortik behera ia ezer aipagarri ez.
- **Eskutitzak:** Frantziako Le Monde-k dauka portzentajerik handiena (%25,0) eta beste batzuk urrun daude, %5etik behetik. Eskutitz gabekoak euskal egunkariak dira.
- **Bloga:** Frantziako Le Monde-k dauka portzentajerik handiena eta bakarra (%25,0), gainerakoetan ez baitago blog aipamenik, papera baitute euskarri nagusizat edo bakarra.

Analisi horizontala egunkarika

- **ABCri begiratu,** zutabea da gehien erabiltzen duen formatua (%55,6) eta eskutitza gutxien (%3,7). Editorialik ez du erabiltzen.
- **Berriari begiratu,** zutabea soilik erabiltzen du egunkari horrek (%100).

- **Egini begiratzuz**, zutabea ia eskusiboki erabiltzen du (%95,9). Horretaz aparte bakarrik artikulua (%4,1).
- **El Paisi begiratzuz**, bineta ez ezik, gainerako formatu guztiak erabiltzen ditu. Zutabea da gehien (%85,1).
- **Euskaldunon Egunkariari begiratzuz**, editoriala eta eskutitza kenduta, gainerako guztiak erabiltzen ditu. Zutabea da gehien erabilia (%90,2).
- **Garari begiratzuz**, zutabea soilik erabiltzen du (%100).
- **Le Monderi begiratzuz**, laurden bana dedikatzen die artikulua, editorial, blog eta eskutitzei (%25,0).
- **Marcari begiratzuz**, editorialaz aparte, gainerako formatuek dute presentzia. Gehien erabiltzen duena artikulua da (%52,5).
- **Mundo Deportivori begiratzuz**, formatu guztiak agertzen dira, zutabetik hasita (%77,3) editorialeraino (%2,3).

Irudi 23: Iritzi artikulua baten adibidea.



Iturria: Egin, 1992-07-01.

Emitza orokorrak

Egunkari guztiek iritzi-formatuak erabiltzen dituzte. **Zutabeari** dagokionez, Le Monden eta L'Equipen ez ezik, zutabea da iritzia azaltzeko egunkari ia guztietan erabiltzen den formatua eta portzentajerik altuenetan.

Artikulua Gara eta Berria kenduta, gainerakoak erabiltzen dute, baina portzentaje ia guztiak, Marca-rena ez ezik (%52,5), %25etik behera daude.

Eskutitzaren kasuan aztertutako hamar egunkarietatik erdiak erabiltzen du, Le Monde eta gainerakoek artean aldea nabarmena izanik: %25,0tik Mundo Deportivo %4,5era, eta gainerakoek (ABC, Marca eta El Pais-ek) are gutxiago erabiltzen dute.

Editorialari eta binetari dagokienez, aztertutako hamar egunkarietatik lauk baino ez dute erabiltzen. Bakarrik Mundo Deportivo-k erabiltzen ditu biak. Le Monde-k editoriala; Marck eta Euskaldunon Egunkariak bineta, eta ABC-k eta El Paisek editoriala.

9.3 Edukien egilearen inguruan

Sekzio honetan berriaren egilearen ezaugarriak/motak aztertuko dira: kazetaria, agentzia, erredakzioa bezala sinatuta alde batetik eta, bestetik, egilearen generoa eta egilearen inplikazioa berria idaztean.

9.3.1 Egile mota

Egile mota hauek aztertuko dira, metodologiaren atalean esan den modura: kazetaria, informazioan kazetariaren izen-abizenak autore modura agertzen direnean; agentzia, informazioa prentsa-agentzia batena denean eta agentziaren izenarekin sinatzen denean; erredakzioa, informazioa erredakzioan idatzi denean, baina egilearen edota agentziaren izenak aipatu barik (normalean egunkariaren izenarekin sinatzen da); argazkilaria; ez sinadurarik; eta, azkenik, beste edozein era berria egiteko.

9.3.1.1 Egile mota herrialdeka eta urtealdika

Kazetari baten sinadura darama kazetaritza-lanaren produktuaren ia erdiak (%47,1). Media horren inguruan Espainiako (%50,4) eta Euskal Herriko (%45,8) egunkariak daude eta apur bat behetik frantses egunkariak (%39,9). Portzentajerik

handiena eta txikiena Espainian eman dira. Handiena 1978-2013 urtealdian (%51,5) eta txikiena 1903-1914 urtealdian (%7,3).

Sinadurarik gabeko albisteen portzentajea bigarren multzoa da (%22,3). Sinadura barik agertu diren berrien kopurua oso handia izan zen Espainiako prentsan 1903-1914 urtealdian eta txikiena Espainiakoan ere 1930-1970 urtealdian eta Frantziakoan 1978-2013 tartean, biak portzentaje berberarekin. Gainerako guztietan kopurua ez da inoiz %50era heldu. Herrialdeka, Euskal Herria batez bestekotik behera egon da (%17,8) eta Frantzia (%24,1) zein Espainia (%22,9) mediaren inguruan ibili dira.

Agentziek berrien %17,0 sinatzen dute. Batez ere Euskal Herriko (%21,1) eta Espainiako (%19,8) egunkarietan. Frantziarrenetan, aldiz, %7,3 da.

Erredakzioa izenpean sinatutako berriak azpimarratzeko azkenak dira. Sinatuta daude baina izen-abizenik gabe. Erredakzioa edo egunkariaren izena dira erabilitako hitzak.

Lau egile mota horien desberdintasuna, herrialdeka, estatistikoki desberdina da, hau da, portzentaje diferentzia horiek adierazgarriki desberdinak dira, Chi Karratuaren test-aren arabera, $p < .01$ mailan: $X^2(6, N = 275) = 25.82, p 0.0002405$.

Taula 13: egile moten portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Kazetari	Ez-sinad.	Agentzia	Erredakzio	Argazkilari	Beste	Guztia
EHko prentsa	45,8	17,8	21,1	6,3	0,0	9,1	100,0
1978-2013	45,8	17,8	21,1	6,3	0,0	9,1	100,0
Espainiako prentsa	50,4	22,9	19,8	1,0	0,6	5,2	100,0
1903-1914	7,3	89,1	0,0	0,0	0,0	3,6	100,0
1930-1970	49,8	16,7	26,6	1,6	0,0	5,3	100,0
1978-2013	51,5	23,9	17,7	0,9	0,9	5,2	100,0
Frantziako prentsa	39,9	24,1	7,3	18,8	0,0	9,9	100,0
1903-1914	32,3	47,3	0,0	0,0	0,0	20,4	100,0
1930-1970	42,4	30,7	1,1	10,9	0,0	15,0	100,0
1978-2013	40,1	16,7	11,5	26,0	0,0	5,7	100,0
Guztia	47,1	22,3	17,0	6,2	0,4	7,0	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autore.

Analisi horizontala herrialdeka

Euskal Herriari begiraturaz, kazetariak sinatzen dute informazioen ia erdia (%45,8), ostean agentziek sinatuta (%21,1) eta sinadurarik gabeko edukiak (%17,8). Erredakzioak izenpetuta, aldiz, %6,3 soilik.

Espainiari begiraturaz, kazetariak erdia baino zertxobait gehiago sinatzen dituzte albisteek (%50,4) sinatu gabe %22,9 dago eta agentziek %19,8.

Frantziari begiraturaz, kasu honetan ere kazetariak sinatzen dute albiste gehien, baina kopurua baxuagoa da (%39,9). Sinadurarik gabeko berriak %24,1 dira, herrialdeen arteko kopururik altuena, eta 1903-14 urtealdian ia erdiraino izatera heldu ziren (%47,3). Frantsesen kasuan erredakzioa askotan agertzen da sinadura moduan (%18,8).

9.3.1.2 Egile mota egunkarika

Egunkari motaren arabera

Atal honetan ikus daiteke egunkari generalistek eta kirolekoek portaera desberdinak dituztela. Generalistek %90 inguru dute sinadura identifikatuarekin (kazetari, agentzia, erredakzioa) eta kirol egunkariak, aldiz, %35 dute sinatu barik. Zentzu horretan, kazetarien sinadura kopurua antzekoa bada ere, agentzien eta erredakzioaren pisua nabarmenki handiagoa da generalistetan.

Egunkari generalista eta kirolekoen artean desberdintasun estatistikoa adierazgarria dago, Chi Karratuaren test-aren arabera, Yates-en zuzenketa sartuz, $p < .01$ mailan: $X^2(3, N = 185) = 25.82, p .000035$.

Autore motaren arabera

Kazetari kategoriaren zutabeetan, Euskaldunon Egunkaria, ABC eta Mundo Deportivo dira kazetarien sinadura portzentajerik altuena dutenak, %50-57 bitartean. Beheko partetik L'Auto (%20,1) Berria (%35,9) eta L'Equipe (%38,5) daude. Erdibidean eta beti %50aren azpitik, multzo handi bat aurki daiteke %41,2tik (Egin) %49,8raino (Euskaldunon Egunkaria).

Sinadurarik gabeko albisteen portzentajeari dagokionez, L'Auto da gehien erabiltzen duena, ia erdia (%47,0) L'Equiperen parean (%42,3). Le Monde (%0,0) Gara

(%1,9) Berria (%5,6) eta El Pais (%5,9) azpiko partetik daude eta gainerako guztiak %16etik (ABC) %33ra (Marca) doaz.

Agentziek berrien %31,0 sinatzen dute El Pais-en, %29,6 Berrian, %26,0 Garan eta %25,5 ABCn. Bestalde, L'Auto-k (%0,0) eta L'Equipe-k (%1,1) ia ez dute agentziarik erabiltzen.

Erredakzioa izenpean sinatutako berriek erregistrorik altuena Le Monden daukate (%33,4); baxuena, aldiz, Mundo Deportivo da (%0,4), baina ez da muturreko kasua, ABC, Marca, Berria, L'Auto eta El Pais-en orrialdeetan %2aren azpitik dago eta. Egunkari guztiek inoiz erabili dute formula hori.

Taula 14: egile motak egunkarika

(%)	Kazetari	Ez-sinad.	Agentzia	Erredakzio	Argazkilaria	Beste	Guztia
Generalistak	50,0	11,0	23,2	9,6	0,0	6,1	100,0
ABC	56,2	16,2	25,5	1,1	0,0	1,1	100,0
Berria	35,9	5,6	29,6	1,4	0,0	27,5	100,0
Egin	41,2	27,8	21,1	6,1	0,0	3,9	100,0
El País	48,9	5,9	31,0	1,8	0,0	12,4	100,0
Eusk. Egunkaria	56,7	23,4	12,7	5,8	0,0	1,4	100,0
Gara	46,5	1,9	26,0	9,7	0,0	15,9	100,0
Le Monde	49,8	0,0	15,2	33,4	0,0	1,6	100,0
Kirolekoak	43,8	34,9	10,1	2,5	0,8	7,9	100,0
L'Auto	20,1	47,0	0,0	1,5	0,0	31,4	100,0
L'Equipe	38,5	42,3	1,1	9,9	0,0	8,2	100,0
Marca	45,7	33,0	13,6	1,2	2,1	4,4	100,0
Mundo Deportivo	51,9	29,5	13,9	0,4	0,0	4,3	100,0
Guztia	47,1	22,3	17,0	6,2	0,4	7,0	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia).

Egunkarien arabera

- **ABC:** kazetarien sinadurak dira nagusi (%56,2), eta erredakzio atalean ia ezer ez da agertzen (%1,1).
- **Berria:** kazetari (%35,9) eta agentzia (%29,6) azpikategoriak oso parekaturik daude. Oso gutxi dago Erredakzio gisa sinaturik. (%1,4).
- **Egin:** kazetariak ia erdia sinatzen dute (%41,2), ez-sinadurak eta agentzia atalak %20tik goitik daude eta erredakzioa txukun (%6,1).
- **El País:** egunkari honetan kazetari (%48,9) eta agentzia (%31) dira azpikategoriarik handienak. Erredakzioak %1,8 baino ez du.
- **Euskaldunon Egunkaria:** kazetariak erdia baino gehiago dauka (%56,7), sinatu gabekoak (%23,4) etortzen dira atzetik eta erredakzioak sinatuta oso kopuru txikia dauka (%5,8).
- **Gara:** kazetari azpikategoria hemen ere lehena da (%46,5), gero agentzia aurki daiteke (%26) eta amaieran erredakzioa dago (%9,7).
- **L'Auto:** sinadurarik gabeko artikulua dira nagusi (%47) eta Beste izeneko atalekoak -azterketan aipatzen ez direnen batuketa- %31,4ra heltzen dira.

- **L'Equipe:** sinadurarik gabekoak lehenak dira (%42,3) eta oso gertu daude kazetariak (%38,5). Erredakzio %10aren bueltan dago.
- **Le Monde:** kazetariak sinatutakoa ia erdia da (%49,8) eta erredakzioak tarte handi samar dauka (%33,4).
- **Marca:** kazetarien lepora %45,7 agertzen da, sinatu-gabekoak %33,0 dira eta erredakzioaren partean soilik %1,1 dago.
- **Mundo Deportivo:** kazetariak sinatutako erdia baino zertxobait gehiago dauka egunkari honek (%51,9), sinatu gabe %29,5 eta erredakzioak sinatuta %0,4.

Irudi 24: gizon batek sinaturiko artikulua adibidea.



Iturria: Mundo Deportivo, 1967-07-02. Berton Irudi-testua; egilearen inplikazioa; nazio-identitate leinuak...

Emitza orokorrak

Guztira hamaika egunkaririk bederatzik daramate egile motarik nagusienak sinatutako edukiak. Beste biek, Le Mondek eta L'Equipek baten bat ez dute erabili. Agentziak ez ditu erabili L'Auto-k.

9.3.2 Egilearen generoa

Atal honetan Tourraz idatzi dutenak zer diren edo zer kontsideratzen diren jakiteko, hau da, egileen sexuaz edo generoaz hitz egin ahal izateko honako parametroak aztertuko dira: gizona; emakumea; besterik (emakume/gizon dikotomian sartzen ez den oro).

9.3.2.1 Egilearen generoa herrialdeka eta urtealdika

Egilearen generoa identifikatuta duten informazio eta iritzietan **gizonek** sinaturikoak dira eduki ia guztiak (%98,7). Media horretatik are gorago daude espainiar zein frantziar egunkarietako kopuruak (%99,5-etik gora) eta beherago Euskal Herriko egunkarietan sinatzen dutenak (%95,0).

Emakumeen datuak, arestian aipaturikoa kontuan hartuta, kontrakoak dira eta %1,3-ak baino ez du emakume baten sinadurarik eramaten. Euskal Herrian dago portzentajerik handiena (%5,0), eta Espainian (%0,3) zein Frantzian (%0,5), diferentzia esanguratsurekin, txikiena.

Taula 15: egilearen generoaren portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Gizon	Emakume	Guztia
Euskal Herriko prentsa	95,0	5,0	100,0
1978-2013	95,0	5,0	100,0
Espainiako prentsa	99,7	0,3	100,0
1903-1914	100,0	0,0	100,0
1930-1970	100,0	0,0	100,0
1978-2013	99,6	0,4	100,0
Frantziako prentsa	99,5	0,5	100,0
1903-1914	100,0	0,0	100,0
1930-1970	100,0	0,0	100,0
1978-2013	99,1	0,9	100,0
Guztia	98,7	1,3	100,0

N = 3.509 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea.

Emitza orokorrak

Datu guztiak kontuan hartuta ez da bitarra ez den beste identitaterik identifikatu aztertutako kazetaritza-edukietan. Gizonak sinatzen dute albiste gehien eta emakumeen sinaduren presentzia urria da oso. Sinatzekotan, emakumeak sinatu egiten du 1978-2013 urtealdian soilik, Euskal Herriko egunkarien eta gainerakoen arteko aldea nabaria izanik, %5aren inguruan.

Sinatzaileen artean gizon eta emakumeen arteko desoreka nabarmen hori azaltzeko esplikazio, edo justifikazio, teoriko batzuk komunikazioaren esparrutik bertatik etor daitezke. Esaterako Maria Paz Diaz-ek eskaintzen zituenak: “Hasieratik, komunikazioa gizonen lana izan da. Hala ere, egoera aldatu egin da, eta egun ikus dezakegu komunikabideetan modu profesionalean lan egiten duten emakumeen kopurua gero eta handiagoa dela. Arlo horretan aurrerapen handia egin den arren, gure herrialdean emakume izanik kazetari gisa aritzea nahiko zaila da oraindik, bai nazio mailan, bai probintzia mailan”¹⁶⁰ (Díaz Domínguez, 2013).

Halaber, Diaz-ek aipatzen duen eboluzioa irudikatze aldera, Madrileko Prentsaren Elkarteak 2019an kaleratutako inkestaren arabera kazetaritzan ari direnen artean %58 gizonak dira eta %42 emakumeak. Beraz, atal honetan behinik behin Tourra-ren unibertsoak ibilbide luzea du parekidetasunera heldu arte.

Goragotxo aipatu denaz gain, azken ideia honek arrazoi gehigarria eskainiko luke gizartean urteen poderioz erroturik, eta oraindik gainditzeke, dauden desoreka estrukturalak: “Egun oraindik emakumeek kirolez 'ulertzen ez' dutela dioen ideia orokor bat dago”¹⁶¹ (Pedraza Bucio, 2012).

¹⁶⁰ “Desde los inicios la comunicación ha sido concebida como un trabajo de hombres. Sin embargo, la situación ha cambiado y en la actualidad podemos comprobar como el número de mujeres que trabajan de forma profesional en los medios de comunicación cada vez es mayor. A pesar de que se ha producido un gran avance en este campo ejercer como periodista en nuestro país siendo mujer sigue resultando bastante complicado, tanto en el ámbito nacional, como en el provincial” (46. orria).

¹⁶¹ Todavía a día de hoy “existe una idea generalizada de que las mujeres 'no entienden' de deportes” (57. orria).

Irudi 25: artikulu honetan denetik topa daiteke.

ABC, SABADO 27 DE JUNIO DE 1970. EDICION DE LA MASANA, PAG. 82.

VUELTA CICLISTA A FRANCIA

MERCKX, PRIMER JERSEY AMARILLO AL GANAR LA «MINIETAPA» PRELIMINAR

El caso belga sacó trece segundos de ventaja a Luis Ocaña, encuadrado en un equipo galo

DEL EQUIPO ESPAÑOL, EL MEJOR GONZALEZ LINARES, OCTAVO EN LA GENERAL

Limoos 26. (Crónica de nuestro redactor, enviado especial, transmitida por "Televisión"). Decíamos en crónica anterior, aunque aquí en la comparación que la cronología impone sea posterior que en la zona puesta hoy en juego, la ventaja era forzosamente exigua. Y así ha sido: Merckx



Entre los españoles, exceptuado Ocaña, de quien acabamos de hablar por comparación con el hermano Merckx—y olá! hablamos de él muchos días en esta medida—, ha sido el primero nuestro flamante campeón González Linares, que ocupa el octavo puesto en la "minietaapa". Intervalado entre los mejores, Merckx será decir de él, sin merma en el elogio, que ha caído en la trampa de administrar mal sus fuerzas en el campo de hacedor toda, puesto que en la media del recorrido se anotó el segundo mejor tiempo, detrás del tiempo de Merckx. Su pérdida, respecto a Merckx, ha sido, en la media de veinte segundos; respecto a Ocaña, de cuatro segundos. No ha podido ser mejor su comienzo.

Y mañana volveremos a escribir desde La Rochelle.—MONTONIZ-CHEACON.

CLASIFICACION

Eddie Merckx cubrió los siete kilómetros cuatrocientos metros del circuito en nueve minutos cincuenta y siete segundos treinta y seis centésimas, con una media de cuarenta y cuatro kilómetros sesicientos metros por hora.

A continuación se clasificaron:

3. Charly Geronzi, 10-01-58; 4. Jan Jansen (holandés), 10-08-52; 5. Roger Piel (francés), 10-11-58; 6. Luis Ocaña (español), 10-12-51; 7. Thomas Peterson (sueco), 10-16-78; 8. E. Antonio González-Linares (español), 10-17-47; 9. Joppe Zoetemelk (holandés), 10-17-83; 10. Gusta Peterson (sueco), 10-27-52.—(A.J.L.)

LA ORGANIZACION DEL «TOUR» HA TRATADO DE HACER FRENTE A LA «SUPERSTICION MERCKX».

Los dos grandes rivales—sobre el papel—, el belga y el español Ocaña, coinciden en que en los Pirineos se decidirá la prueba

Limoos 26. (Crónica de nuestro redactor, enviado especial, transmitida por "Televisión"). El tiempo no se comienza; los segundos se han dado; los minutos se han dado; los segundos se han dado; los minutos se han dado; los segundos se han dado...



Entre tanto, se habla, se dice, se comenta, se especula; siempre, naturalmente, con argumentos procedentes de las memorias, insertos en la sintonía de la competición con tintes de la mejor coquetería.

Ya dijimos ayer que sólo un equipo español va a tomar la salida. Como por otros lados, arropados en distintos colores, quedan dos compatriotas más—Ocaña, como figura representativo del Bic, el equipo puntero de Francia, y Domingo Perurena, como único representante establecido en el hipopótamo-Francia Favor-Mercier, que presenta siete corredores franceses, un belga (Pashman) y un alemán (Wolff) y lo 11—, quienes dicen que el ciclismo español está representado aquí como fuerza homogénea por el Kca y con las fuerzas dispersas de Ocaña y Perurena. Total, doce corredores, May poco, en una nómina de ciento cincuenta... de cuyo cuantía queda algo que decir.

EL PROBLEMA MERCKX

Intentábamos ayer el problema puesto que Merckx constituye en cualquier prueba en que participa no sólo para los corredores, sino también para las organizaciones.

Vemos cómo la organización del "Tour" ha tratado de hacer frente a ese problema. Acudimos a una buenísima fuente. Nada menos que a la fuente llamada Jacques Goddet, por otro nombre, "director de la carrera", Goddet, que acaba de inventar



Eddy Merckx

Iturria: ABC, 1970-06-27. Erredaktoreak sinatuta, grafiko bat, gizonezko batek idatzitakoa, inplikazioa antzeman daiteke —"decíamos en crónica anterior"- eta nazio-identitatea non-nahi.

9.3.3 Egilea eta inplikazioa

Egilearen inplikazioa aztertuko da atal honetan. Hemengo ikerketari dagokionez, idazten duenak protagonismoa bereganatzen du edo bereganatu gura du, hau da, eskaintzen duen informazioaren parte bat dela nabarmen adierazi nahi du eta kuantitatiboa edo kualitatiboa izan daiteke. Adibidez, kazetariaren inplikazioaren aztarnak egon daitezke, aditzaren lehen pertsona singularra edo plurala erabiliz edo egilearen presentziak informazioaren toki edota zeregin garrantzitsua betetzen duenean (zuzenean edo atxikimenduaren bitartez)

9.3.3.1 Egilea eta inplikazioa herrialdeka eta urtealdika

Ondoko taulan ikus daitekeenez, ez dago inplikazioaren azterna nabaririk albistean erdian (%55,4). **Baietzaren** atalean kazetariaren inplikazioaren zantzuak daude, kuantitatiboak edo kualitatiboak (%43,4) eta urtealdi guztietan ematen dira. Ez

dagokio atalean idazkiaren egituragatik edo edukiagatik beragatik ez dago inplikazioa neurtzeko tarterik. Oso portzentaje txikia da, baina nabaria Frantziako egunkarien hasierako edukietan, L'Auto-ren eraginez.

Taula 16: egilearen inplikazioaren portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Bai	Ez	Ez dagokio	Guztia
EHko prentsa	62,8	37,2	0,0	100,0
1978-2013	62,8	37,2	0,0	100,0
Espainiako prentsa	39,5	60,3	0,2	100,0
1903-1914	9,1	83,6	7,3	100,0
1930-1970	28,0	71,9	0,1	100,0
1978-2013	44,3	55,6	0,1	100,0
Frantziako prentsa	39,6	55,6	4,8	100,0
1903-1914	58,6	20,4	21,0	100,0
1930-1970	48,0	43,0	8,9	100,0
1978-2013	32,2	67,8	0,0	100,0
Guztia	43,3	55,4	1,3	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). $X^2(2, N = 6766) = 194.048, p < .01$; beraz, emaitzak esanguratsuak dira $p < .01$ signifikazio mailan.

Euskal Herriari begiratzuz, inplikazio mailarik altuena da herrialde guztien artean (%62,8).

Espainiari begiratzuz, inplikazioa oso txikia da hasierako urteetan (%9,1), inoizko txikiena, baina urteak aurrera joan ahala handitzen joan da ia kopuru erdira heltzeraino (%44,3).

Frantziari begiratzuz, gero eta inplikazio gutxiago antzematen da. Hasieran oso altua zen (%58,6) baina azken urtealdian ia erdiraino jaitsi da.

Herrialde horien arteko diferentziak, "bai" eta "ez" kategorietan, estatistikoki adierazgarriak ote diren egiaztatzeko, Chi Karratuaren froga erabili da eta emaitzak esanguratsuak dira Yates-en zuzenketa sartuta ere: $X^2(2, N = 195) = 12.316, p < 0.002116$.

Emaitza orokorrak

Inplikazioa presente egon da urtealdi guztietako testuetan. Desorekarik behinena lehendabiziko urtealdian ematen da (Frantziako eta Espainiako egunkarietan), Frantzian inplikazioagatik eta Espainiako egunkarietan inplikazio ezagatik.

9.3.3.2 Egilea eta inplikazioa egunkarika

Ondoko taulan ikus daitekeenez, **Ez** aukeraren kasuan egilearen inplikazioaren aztarna nabaririk ez dago albisteen erdian gutxi gorabehera (%55,0). Zentzu horretan, mailarik altuenak Mundo Deportivo egunkarian aurki daitezke (%90,7).

Bai. Atal honetan kazetariaren inplikazioaren aztarnak daude, kuantitatiboak edo kualitatiboak (%43,4) eta urtealdi guztietan ematen dira. Eginen kasua nabarmentzen da (%71,4) eta Excelsior, Gara, L'Auto eta Marca egunkariek maila altuak dauzkate (%60aren inguruan). Aitzitik, Mundo Deportivok inplikazio gutxi erakutsi du bere ibilbidean (%9,3).

Ez dagokio atalean bai idazkiaren egituragatik edo baita edukiagatik beragatik ere, ez dago inplikazioa neurtzeko tarterik. Oso portzentaje txikia da, baina nabaria Excelsiorren eta L'Auton batik bat.

Hona hemen inplikazioaren adibide bat. Horrela ekin zion kronikari Marca egunkariak (1953-07-15):

“¡Viva España! Así hay que empezar la crónica de esta primera etapa montañosa de los Pirineos. ¿Cómo vas? Le preguntamos los españoles...”

Taula 17: egunkarien inplikazioaren portzentajeak

(%)	Bai	Ez	Ez dagokio	Guztia
Generalistak	47,4	52,4	0,2	100,0
ABC	42,3	57,0	0,6	100,0
Berria	53,5	46,5	0,0	100,0
Egin	71,4	28,6	0,0	100,0
El País	45,5	54,3	0,3	100,0
Eusk. Egunkaria	54,0	46,0	0,0	100,0
Gara	64,0	36,0	0,0	100,0
Le Monde	32,8	67,2	0,0	100,0
Kirolekoak	38,8	58,7	2,5	100,0
L'Auto	60,1	16,3	23,7	100,0
L'Equipe	36,2	63,8	0,0	100,0
Marca	60,1	39,9	0,0	100,0
M. Deportivo	9,3	90,7	0,0	100,0
Guztia	43,3	55,4	1,3	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea. $\chi^2(2, N = 6766) = 40.034, p < .01$.

Egunkari motaren arabera

Egunkari generalisten artean inplikazioa %47,4koa da eta kirol egunkarietan ia hamar puntu baxuagoa (%38,8). Dena den, diferentzia hori ez da estatistikoki adierazgarria, Chi Karratuaren frogaren arabera, Yates-en zuzenketa faktorea sarturik: Yates-en $X^2(1, N = 197) = 0.889$, $p < 0.345748$; beraz, emaitzak ez esanguratsuak dira $p < .01$ significazio mailan.

Generalisten artean, Euskal Herriko egunkariak (Berria, Euskaldunon Egunkaria, Gara eta Egin) dira inplikazio handiagoa erakusten dutenak, %54-71 tartean egonik. Aldiz, Le Monde, ABC eta El Pais ez dira iristen %50era.

Kirol egunkarien baitan, aldeak handiagoak dira. Marca eta L'Auto, berdintsu daude, %60ko portzentajearekin. Mundo Deportivok soilik %9,3ko inplikazioa agertzen du eta L'Equipe-k %36,2koa.

Emaitza orokorrak

Gehiago dira inplikazioa nagusitzat duten egunkariak, sei, ez dutenak baino, bost. Azken horien artean ez dago euskal egunkaririk. Berriak Euskaldunon Egunkariaren portzentajeak ia kalkatzen ditu eta Garak ez horrenbeste Eginekoak, baina oso hurbil dago. L'Autok eta L'Equipek, bi egunkari antolatzaileek, aldea dute inplikazioari begira: L'Auton handia da eta erdira jaitsi da L'Equiperen kasuan. Generalistek inplikazio maila altuagoa dute kirolekoekin alderatuz.

9.4 Edukia

Azpiatal honetan, Tourrari buruzko edukietako gaiak aztertuko dira. Metodologia atalean adierazi den modura, edukien azpikategorien sailkapena hurrengoa litzakete:

- Kirola: kirol-jarduerari buruz prezeski informatzen duen edukia.
- Dopina: gaia hau aipatu edo lantzen duen edukia.
- Ekonomia: ekonomiarekin loturiko prozesuei buruzko kazetaritza-edukia eta prozesu horiek eragiten dituzten gizarte harremanei buruzko informazioa edo iritzia.

- **Teknologia:** teknologiarekin erlazionatutako albisteak; adibidez, lasterketaren antolamenduan edo txirrindularien jardueran erabili diren aurrerapen teknologikoak edo emankizunetan erabilitakoak.
- **Gatazka:** kazetaritza-eduki batek gatazkak islatzen dituenen. Era askotakoak izan daitezke; adibidez, kirolarien artekoak, antolatzaileekin, hedabideen arteko liskarrak, kazetari eta txirrindularien artekoak, etab.
- **Gertakariak:** Tourrean gertatzen direnak eta informazioek islatzen dituztenak. Esaterako istripuak, lasterketaren geldioneak, bide-mozketak, grebak etab.
- **Beste.**

Irudi 26: Tourrak Donostian izan zuen irteera 1992an.



Iturria: El País, 1992-07-04. Gatazkarekin batera (ordena publikoa) denetik du adibide honek: propio aldekotasuna (“edición atractiva para el pelotón español”) distortsioa (kirola eta ordena publikoa nahastuta, leherketa manifestazio batekin lotuta) edota “beste aurka” Frantziako txirrindularitzaren porrotaz.

9.4.1 Eduki motak herrialdeka eta urtealdika

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, ekitaldiaren sustraiei so eginez, **kirolak** betetzen du edukien kopururik handiena eta bere presentzia orekaturik dago herrialde eta denbora urtealdi guztietan.

Frantziako, Euskal Herriko eta Espainiako egunkariak ia portzentaje berbera daukate, %90ren inguruan. Daturik garrantzitsuenak azpimarratzeko orduan, hasiera batean kirolaren presentzia erabatekoa zela Frantziako prentsan esan daiteke eta, aldiz, azken urtealdian portzentajerik txikiena duela (%85,6) oso altua bada ere. Euskal Herrikoetan ia ehuneko bera dauka frantsesen zenbakiekin alderatuz eta espainiar egunkarietan kirol edukiek presentzia orekatua eta nabaria mantentzen dute: (%81,8tik %86era).

Dopina bigarren multzoa da (%5,1) eta inguruko ia berri guztiak 1978-2013 urtealdian kontzentratzen dira: %12,7 Frantziako egunkarietan; %5,7 Espainiakoetan eta %3,1 Euskal Herrikoetan. Portzentaje orokorrek esaten digute Frantziako egunkarietan dopinak %8,1eko presentzia izan duela, erdia espainiarretan (%4,4) eta horren erdia baino apur bat gehiago (%2,9) Euskal Herrikoetan.

Asko dira dopinari buruzko berriak. Hona hemen Le Monde egunkariak Chris Froomearen inguruko susmoei buruz adierazitakoa (2013-07-17):

“Évidemment, sur le Tour de France, tout cela n'intéressait hier aucun journaliste. Sur les dix questions posées à Chris Froome et à son manager Dave Brailsford lors de l'habituelle conférence de presse de la journée de repos, six concernaient le sujet qui fâche. Qui fâche même les Sky, jusque-là si placides, désormais agacés. 'Il est assez triste que l'on soit assis ici, au lendemain de la plus belle victoire de ma vie, à parler de dopage, a grommelé l'échalas britannique'.”

Gertakariak eta gatazka, biak %5,0tik behetik daude eta biek espainiar eta euskal medioetan dute presentzia, frantsesetan ez baita aipatzeko modukoa.

Teknologiaren eta ekonomiaren kasuetan presentzia oso eskasa da eta bakarrik aipa daiteke 1903-14 urtealdian isla apur bat izan zuela espainiar egunkarietan.

Irudi 27: Kirol-edukiak nagusi dira Tourrari buruzko orrialdeetan.



Iturria: Euskaldunon Egunkaria, 1994-07-02.

Taula 18: eduki moten portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Kirola	Dopina	Gertakariak	Gatazka	Teknologia	Ekonomia	Beste	Guztia
EHko prentsa	89,0	3,1	4,6	2,4	0,6	0,3	0,0	100,0
1978-2013	89,0	3,1	4,6	2,4	0,6	0,3	0,0	100,0
Espainiako prentsa	86,5	4,4	5,1	2,5	0,7	0,7	0,1	100,0
1903-1914	81,8	0,0	10,9	0,0	1,8	5,5	0,0	100,0
1930-1970	88,1	1,1	7,4	2,0	0,3	1,0	0,1	100,0
1978-2013	86,0	5,7	4,2	2,8	0,8	0,4	0,1	100,0
Frantziako prentsa	90,5	8,1	0,0	0,4	0,4	0,6	0,0	100,0
1903-1914	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
1930-1970	97,6	1,1	0,0	0,0	0,9	0,4	0,0	100,0
1978-2013	85,6	12,7	0,0	0,7	0,2	0,8	0,0	100,0
Guztia	87,9	5,1	3,8	2,0	0,6	0,6	0,0	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea.

Herrialdeetako prentsari begiraturaz, bai Euskal Herriko eta bai Espainiako prentsan **kirola** da nagusi (%89,0 eta %86,5 hurrenez hurren) eta ikerlan honetan agertzen den bigarren kategoria **gertakariena** da (%4,6 eta %5,1 hurrenez hurren). Frantziako prentsan ere kirola da andre eta jabe (%90,5) baina bigarrenik ez dira gertakariak agertzen, dopina baizik, %8,1ekin.

Emitza orokorrak

Kirol ekitaldi batean kirol-informazioa oinarrizkoena izango zela abiapuntutzat hartuta, kirola da nagusi eta dopina espero gabeko protagonismoa irabazten joan da urteen poderioz. Gainerako gaiak ez dute berebiziko presentziarik.

9.4.2 Eduki-kategoria nagusiak egunkarika

Kirolari begira L'Autok kirolaz baino ez du jarduten aztertu diren eduki nagusienetan. Gainerako egunkariak %81,84tik %95,7ra bitartean mugitzen dira.

Dopinaren inguruko gaien presentzia nabarmentzekoa da Le Monden, %15,4, handiena hain zuzen ere. Hurrengo multzo batean Euskaldunon Egunkaria, El País eta ABC daude, %7aren inguruan.

Gertakarien eta gatazkaren kasuetan ABC-k (%8,7) eta Mundo Deportivok (%7,8) islatzen dute gertakarien inguruko informazio gehien eta Euskaldunon Egunkariak (%5,5) gatazkari buruzkoan.

Teknologian eta ekonomian azpimarratzekoa da soilik El Paisek teknologiarik eskaintzen dion tarteak (%2,3).

Taula 19: eduki moten portzentajeak egunkarika

(%)	Kirola	Dopina	Gertakariak	Gatazka	Teknologia	Ekonomia	Beste	Guztia
Generalistak	84,8	6,9	4,7	2,0	1,0	0,6	0,0	100
ABC	81,9	5,4	8,7	2,6	0,6	0,8	0,1	100
Berria	90,1	0,7	5,6	2,1	1,4	0,0	0,0	100
Egin	92,0	1,0	4,1	1,7	0,7	0,5	0,0	100
El País	84,4	6,1	4,7	2,3	2,3	0,1	0,0	100
Eusk. Egunkaria	81,4	7,2	5,8	5,5	0,0	0,0	0,0	100
Gara	92,2	3,1	3,5	0,0	0,8	0,4	0,0	100
Le Monde	82,4	15,4	0,0	0,4	0,7	1,2	0,0	100
Kirolekoak	91,4	3,0	2,7	2,0	0,2	0,6	0,1	100
L'Auto	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100
L'Equipe	95,7	3,2	0,0	0,7	0,2	0,2	0,0	100
Marca	93,6	3,7	0,2	2,3	0,0	0,1	0,1	100
Mundo Deportivo	84,1	3,1	7,8	3,0	0,4	1,7	0,1	100
Guztia	87,9	5,1	3,8	2,0	0,6	0,6	0,0	100

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea.

Emitza orokorrak

Guztira ABC-k, Eginek eta Mundo Deportivok sei gai nagusiak jorratu dituzte inoiz. L'Auto-k kirola baino ez du aipatu. Gainerako guztiek dopina inoiz tratatu dute, baina kirolatik at %10ren langa gainditzen duen bakarra Le Monde da dopinari buruz informatzean.

9.4.3 Eduki-kategoria nagusiak urtealdika

Ondoko lerrotan urtealdien egoera orokorra aztertzen da, hau da, edukien kategoria nagusiak urteetan zehar izan duten presentzia zein herrialdetan gertatzen den kontuan hartu gabe.

Taula 20: eduki-kategoria nagusiak urtealdika

(%)	Kirola	Dopina	Gertakaria	Gatazka	Teknologia	Ekonomia	Beste	Guztia
1903-1914	95,9	0,0	2,5	0,0	0,4	1,2	0,0	100,0
1930-1970	91,0	1,1	5,2	1,4	0,5	0,9	0,1	100,0
1978-2013	86,6	6,5	3,4	2,3	0,7	0,5	0,0	100,0
Guztia	87,9	5,1	3,8	2,0	0,6	0,6	0,0	100,0

N = 6.766 item. Iturria: autoreak.

Edukien moten presentziaren azterketa urtealdika

Kirolari begira, presentziarik handiena lehen urtealdian dauka kategoria honek. Hala ere, hiru urtealdietan presentzia orekatua bezain handia da. **Dopina** ez da existitzen lehen urtealdian, bigarrenean oso gutxi eta hirugarrenean %6,5eko presentzia dauka. **Gertakariak** urtealdi guztietan “gertatzen” dira eta portzentajeak oso antzekoak dira, %2,5etik %5era bitartean. **Gatazkaren** kasuak ez daude lehen urtealdian eta oso gutxi dira bigarrenean eta hirugarrenean. **Teknologiak eta ekonomiak** portzentaje berberak dituzte, baina oso txikiak.

Emitza orokorrak

Guztia kontuan hartuta, kirolaren nagusitasuna nabaria da eta gainerako eduki-kategoria nagusiek ez dute %5eko langa gainditzen. Urtealdi guztiak nahiko orekatuak dira eta argi dago gai “korapilatsuak” ez zirela hain korapilatsuak 1903-14 tartean.

9.4.4 Eduki nagusien azpikategoriak

Azpiatal honetan, arestian aztertu diren kategoria nagusien barruan (kirola, dopina, politika, ekonomia, teknologia eta gatazka) dauden azpikategoriak aztertuko dira. Horien baitan jarraian zehazten direnak aurki daitezke:

- Kirola: lasterketa, txirrindulari, antolaketa, historia, beste.
- Dopina: dopin-harrapaketa, analisia, zigorra, beste.
- Ekonomia: kontratuak, babesleak, etekinak, beste.
- Teknologia: materiala, eboluzioa, beste.
- Gatazka: politikoa, ordena publikoa, instituzionala, greba, beste.
- Gertakariak: istripuak, beste.

Rudi 28: Txirrindularitza, euskara eta teknologia, batera.



Iturria: Berria, 2013-06-27.

9.4.4.1 Eduki nagusien azpikategoriak herrialdeka eta urtealdika

Edukien azpikategorien azterketa

- **Lasterketa:** kirolaren azpikategoria da eta kirol-ekitaldi hori da gehien islatzen dena (%69,7). Frantziar egunkarietan duen portzentajea %86,7 da eta, kontrako muturrean, Euskal Herrian editaturiko egunkarietan, %53,3.

- **Txirrindularia:** kirolaren azpikategoria honek bigarren multzoa da portzentaje aldetik (%9,1) eta frantsesen artean protagonismo zuzen oso eskasa duen arren (%0,4), bestelakoa da Euskal Herriko prentsan (%15,8) eta Espainiakoan (%10,9).
- **Historia:** kirolaren azpikategoria honek protagonismo osoa lortu du Euskal Herriko prentsan (%6,3). Gainerakoetan ia ez du inolako presentziarik.
- **Istripuak:** gertakarien azpikategoriak antzeko protagonismoa du espainiar egunkarietan (%2,6) eta euskal kazetetan (%2,2). Frantzia aldean ez dago.
- **Dopin-harrapaketa:** dopinaren azpikategorien artean gehien erabilitakoa. Frantses egunkarietan du presentzia gehien (%2,5).

Le Monden ikusgai dago harrapaketa baten albistea (1978-07-18):

“Le maillot jaune, Michel Pollentier, est exclu de l'épreuve pour tentative de fraude lors d'un contrôle médical.”

- **Antolaketa:** kirolaren azpikategoria da eta harrapaketaren moduan frantses egunkarietan du presentzia gehien eta antzekoa (%2,4).
- **Zigorra:** dopinaren zigorrak %1 baino gutxiago du hiru herrialdeetako prentsan.
- **Beste:** aurreko lerroetan adierazitakoak oinarrizkoak diren arren, aipatu ez direnek %13,9 osatzen dute. Azpikategoria hau nagusi da Euskal Herriko prentsan (%21,5). Honetan ekonomia, gatazka eta teknologiarekin loturiko edukiak aurki daitezke.

Taula 21: eduki azpikategorien portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Lasterketa	Txirrind.	Histor.	Istripu	Harrapak.	Antolak.	Zigor	Beste	Guztia
EHko prentsa	53,2	15,8	6,3	2,2	0,4	0,1	0,6	21,5	100
1978-2013	53,2	15,8	6,3	2,2	0,4	0,1	0,6	21,5	100
Espainiako prentsa	67,3	10,9	1,7	2,6	0,9	0,7	0,9	14,8	100
1903-1914	81,8	0,0	0,0	5,5	0,0	0,0	0,0	12,7	100
1930-1970	77,3	6,5	1,3	2,6	0,0	2,0	0,1	10,2	100
1978-2013	63,3	12,8	1,9	2,5	1,3	0,3	1,3	16,5	100
Frantziako prentsa	86,7	0,4	1,2	0,0	2,5	2,4	0,2	6,6	100
1903-1914	85,5	2,2	0,0	0,0	0,0	12,4	0,0	0,0	100
1930-1970	97,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,4	0,4	2,0	100
1978-2013	82,3	0,1	2,0	0,0	4,1	1,4	0,2	10,0	100
Guztia	69,7	9,1	2,4	1,9	1,2	1,0	0,7	13,9	100

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea. Oharrak: txirrind.: txirrindularia; histor.: historia; harrapak.: harrapaketa; antolak.: antolaketa.

Eduki-azpikategorien portzentajeak herrialdeei begira

Euskal Herriari begiraturaz, azpikategoria nagusi guztiak presente daude eta, lasterketatik at, txirrindulariak eta historiak lehentasunezko tokia daukate.

Espainiari begiraturaz, azpikategoria nagusi guztiak presente daude eta, lasterketatik at, istripuak gehien islatzen dutenak dira, batez ere 1903-14 urtealdian.

Frantziari begiraturaz, lasterketa da azpikategoria nagusi baino nagusiagoa, eta horrek uzten ditu beste batzuk “zenbaki gorritan”, txirrindulari, historia eta istripuak kasu.

Emaiza orokorrak

Zenbakiak diote kirolaren aterpean lasterketa eta lasterketaren protagonista nagusiak, txirrindulariak, ia %80ra iristen direla. Dena den bakarrik lasterketa-azpikategorian oreka mantentzen da. Gainerako gehienetan ezberdintasun nabariak daude, txirrindulari-azpikategoriatik bertatik hasita. Frantziar prentsak, Tourreko antolakuntzarekin harreman zuzena izateagatik edo Tourra bertakoa izateagatik, arreta gehiago jartzen du lasterketan, protagonista zuzenetan baino.

9.5 Protagonista

Frantziako Tourrari buruzko informazio eta iritzietan protagonista izan diren pertsonak eta bestelakoak aztertu dira hemen, kazetaritzaren ikuspuntutik definiturik.

9.5.1 Protagonista motak

Protagonisten artean gutxienez honako hauek aztertu dira: txirrindulariak, zaleak, taldeetako laguntzaileak, antolatzaileak eta antolakuntzaren laguntzaileak edota agintari instituzionalak. Halaber aurrekoetan agertzen ez den edozein protagonista ere kontuan hartu da. Aldi berean, zenbait kasutan berriak ez da inolako protagonista espliziturik agertu.

9.5.1.1 Protagonista motak herrialdeka/urtealdika

Protagonista moten azterketa herrialdeka zein urtealdika eginez, ikusten da **txirrindularia** dela protagonistarik izendatuena, logikoa denez. Frantses egunkarietan nagusi (%91,6). Portzentaje deigarri hori 1930-70 urtealdian %98,7ra heldu zen. Halaz

ere ez da frantses hedabideen fenomeno eskusiboa, Espainiako zein Euskal Herriko egunkarien portzentajeak ez baitaude oso urrun (%85-87 sardean).

Portzentajeari erreparatuz, **antolatzaileak** izeneko kategoria dago bigarren tokian, baina bere pisua oso txikia da, gainerako protagonisten kategorien antzera. Kopururik altuena Frantziako prentsan aurki daiteke (%3,2) eta bertan %9,7ra heldu zen 1903-14 etapan.

Beste izeneko multzoaren protagonistak, alegia, aurrekoetan agertzen ez diren protagonistak, %8,5era heltzen dira.

Beraz, herrialde orotan txirrindulariek eurenganutzen dute arreta eta espazio ia guztia. Hortik aparte, bakar-bakarrik hiru salbuespen ekar daitezke lerro hauetara, alegia, %2tik gorako erreferentziak dituztenak. Lehenik, antolatzaileei dagokien azpikategoria, batez ere frantses eta espainiar egunkarietan, %10aren inguruan ibili da. Bigarrenik zalegoari dagokion azpikategoria, Euskal Herriko prentsan %2tik gorako isla izan duena eta, hirugarrenik, “Beste” izeneko azpikategoria non aipamenik izan ez duten guztiak sartzen diren.

Taula 22: protagonista moten portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Txirrind.	Antolat.	Zalea	Agintari inst.	Laguntzaile	Beste	Ez dago	Guztia
EHko prentsa	85,1	0,0	2,4	0,2	0,1	12,1	0,1	100,0
1978-2013	85,1	0,0	2,4	0,2	0,1	12,1	0,1	100,0
Espainiako prentsa	87,1	1,2	1,0	1,1	0,2	9,3	0,1	100,0
1903-1914	89,1	7,3	0,0	0,0	0,0	3,6	0,0	100,0
1930-1970	90,1	1,5	0,6	0,7	0,2	6,7	0,3	100,0
1978-2013	85,9	1,0	1,1	1,3	0,3	10,3	0,0	100,0
Frantziako prentsa	91,6	3,2	0,5	0,4	0,2	4,0	0,0	100,0
1903-1914	84,9	9,7	0,0	0,0	0,0	5,4	0,0	100,0
1930-1970	98,7	0,2	0,0	0,2	0,0	0,9	0,0	100,0
1978-2013	89,6	3,4	0,8	0,6	0,4	5,2	0,0	100,0
Guztia	87,9	1,5	1,1	0,8	0,2	8,5	0,1	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea. Oharrak: txirrind: txirrindularia; antolak.: antolaketa; agintari inst.: agintari instituzionala.

9.5.1.2 Protagonistak egunkarika eta egunkari motaka

Logikoa denez, protagonisten ordena eta portzentajeak berberak dira azterketa herrialdeka eta urtealdika egin denarekin alderatuz. Hala ere, ezberdintasunak egon badaude egunkari generalistetan eta kirol egunkarietan protagonisten presentzia

aztertzeko orduan. Generalistetan eta kirolekoetan txirrindularia da protagonista nagusia, baina bigarren multzoan askoz portzentaje handiarekin.

Aldi berean, ondoko taularen analisi bertikala eginez, hau da, zutabeak goitik behera begiratzuz, hurrengo emaitzak nabarmen daitezke azpikategoriak analizatzean:

- **Txirrindularia:** L'Equipe-k dauka portzentajerik handiena (%93,8) eta El País, Gara eta Euskaldunon Egunkariak "txikiena" daukate, %82ren bueltan. Guztiak adierazgarriak dira.
- **Antolatzailea:** L'Auto-k %5,3ra heltzen da lasterketaren antolatzaileei protagonismo nagusia emateko orduan. Aitzitik, Berria, Egin, El País, Euskaldunon Egunkaria eta Gararen kasuetan ez da aipamenik egiten.
- **Zalea:** Garak %4,3an zaleak aipatzen ditu protagonista nagusizat. Gainerakoek portzentaje nimiñoak dituzte.
- **Agintari instituzionalak:** Marca eta ABC egunkariak dira salbuespena agintariak aipatzeko orduan, baina ehunekoak ez dira adierazgarriak.
- **Beste:** Kategoria honetan El Paisek, Euskaldunon Egunkariak, Garak, ABC-k eta Berriak %10etik gorako protagonismoa eman diete zerrendaturik ez dauden pertsona zein kolektiboek.

Taula 23: protagonista moten portzentajeak egunkari motaren arabera

(%)	Txirring.	Antolatzaile	Zalea	Agintari inst.	Laguntz.	Beste	Ez dago	Guztira
Generalistak	85,1	1,2	1,2	0,6	0,2	11,6	0,1	100,0
ABC	83,4	1,8	0,4	1,2	0,3	12,6	0,3	100,0
Berria	86,6	0,0	1,4	0,0	0,0	12,0	0,0	100,0
Egin	87,9	0,0	2,2	0,0	0,0	9,9	0,0	100,0
El País	82,2	0,0	1,0	0,5	0,0	16,2	0,0	100,0
Eusk.								
Egunkaria	82,8	0,0	1,4	0,7	0,3	14,4	0,3	100,0
Gara	82,6	0,0	4,3	0,0	0,0	13,2	0,0	100,0
Le Monde	90,0	3,5	0,5	0,8	0,4	4,8	0,0	100,0
Kirolekoak	91,0	1,9	1,0	0,9	0,3	4,9	0,0	100,0
L'Auto	91,7	5,3	0,0	0,0	0,0	3,0	0,0	100,0
L'Equipe	93,8	1,6	0,7	0,2	0,2	3,6	0,0	100,0
Marca	88,1	2,0	1,8	1,6	0,1	6,4	0,1	100,0
Mundo								
Deportivo	92,6	0,8	0,5	0,9	0,6	4,6	0,0	100,0
Guztira	87,9	1,5	1,1	0,8	0,2	8,5	0,1	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea. Oharrak: txirrind: txirrindularia; histor.: historia; harrapak.: harrapaketa; antolak.: antolaketa.

Emitza orokorrak egunkari motaka

Bestalde, azterketa berbera egitean egunkari moten arabera, kiroleko egunkariak presentzia gehiago eskaintzen diete kategorian ia guztiei generalistekin alderatuz, zaleen kasuan izan ezik, eta hor diferentzia txikia da oso.

Atal honetan, arrakalarik handiena kategorian nagusian dago, hau da, "Txirrindularia" izenekoan, %6 handiagoa kirol egunkarietan, adierazgarria izanik (%85,1 vs %91,0). Kategorian horretan portzentajerik handiena egunkari frantses banak dauka, Le Monde-k generalistetan (%90,0) eta L'Equipe-k kirol egunkarietan (%93,8). Kirol egunkari guztiak batez bestekotik goitik daude txirrindulariak aipatzean.

Adibide bat, Luxenburgo nazio independente gisa eratu zeneko 50. urteurrenean antolatzaileek lasterketaren hasiera hortik egiteko hartu zuten erabakiaren berria Le Monde egunkarian (1989-07-04):

"L'événement avait été annoncé le 20 octobre 1988: le Tour de France cycliste 1989 partirait de Luxembourg. L'événement s'est accompli samedi 1er et dimanche 2 juillet: le Tour de France cycliste 1989 est bien parti de Luxembourg. Le grand-duché n'aura pas à le regretter: même si ce cadeau qu'il s'est offert en cette année, qui est celle de son cent cinquantième de nation indépendante, lui à coûté entre 6 et 7 millions de francs, il y trouvera son compte. D'ailleurs, le Luxembourg sait parfaitement compter. Rien qu'à parcourir les rues et les avenues de sa capitale on le pressent plus fourmi que cigale."

Irudi 29: txirrindulariak, protagonista nagusiak aztertutako kazetaritza-edukietan.



Iturria: Berria, 2010-07-04.

9.5.2 Protagonistaren leinua

Eduki periodistikoetan agertzen diren protagonisten leinuak zehazki eta esplizituki adierazita dauden aztertu da, metodologian adierazi den bezala.

9.5.2.1 Protagonistak herrialdeka/urtealdika

Ondoko taulan ikus daitekeenez, protagonistaren leinua esplizituki azaltzen da edukien ia erdian (%49) eta herrialdeen arteko diferentziak esanguratsuak dira. Esaterako, Euskal Herriko prentsak du horretan portzentajerik baxuena (%21,3) eta, aldiz, espainiar prentsan (%51,2) eta batez ere frantses prentsan (%68,3) protagonisten leinu esplizituaren presentzia handia da.

Euskal Herriko egunkariei begiratu, euskal leinua da gehien aipatzen dena (%8,6) Ondoren, frantses eta italiar leinuak dira aipatuenak, baina hondakinezko portzentajeak dira.

Espainiako egunkariei begiratu, espainiar leinua da gehien agertzen dena (%17,4) eta bigarren tokian frantsesa (%10,5). Gainerakoak ez dira %5era iristen.

Frantziako egunkariei begiratzuz, frantziar leinua da gehien islatzen dena (%19,7) eta euren orrialdeetan belgiarrek (%8,1) espainiarrek (%7,5) eta italiarrek (%6,6) dute presentziarik handiena.

Batzuk (belgiar, italiar, estatubatuar eta britainiar): aztertutako edukietan esplizituki protagonisten leinua belgiarra, italiarra, estatubatuarra edota britainiarra aipatzen dira neurri nabarmen batean. Guztiak Frantziako egunkarietan dute presentzia gehien, baina beti %5etik behera.

Beste: beste edozein nazioaren leinua esplizituki adierazitakoaren portzentajea %12,3 da. Gutxi gorabehera euskalduna, belgiar, italiar, estatubatuar eta italiar aipamen esplizituen batuketa osatzen duen berbera.

Azkenik, hiru herrialdeetako prentsaren artean desberdintasun estatistiko adierazgarriak ote dauden jakiteko, Chi Karratuaren frogatik aplikatu zaie bost kategoria nagusiei (ez dago, espainiar, frantses, euskaldun, belgiar, italiar) eta emaitzek adierazi dute diferentzia estatistiko esanguratsua dagoela: Chi Karratua $p < .01$ mailan: $X^2(8, N = 244) = 61.466, p < .00001$.

Urtealdiak abiapuntutzat hartuta eta arestian aipaturiko joerak aztertzean, protagonisten leinu esplizituaren kopururik nagusia topa daiteke espainiar prentsan, batik bat 1930-1970 urtealdian (%57,1), eta frantsesean 1978-2013 urtealdian (%81,7).

Taula 24: protagonisten leinuaren portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

Ez dago (%)	Leinua bai									Azpig.	Guztia
	Espainiar	Frantses	Euskal	Belgiar	Italiar	Estatub.	Britainiar	Beste			
EHko prentsa	78,7	0,2	1,9	8,6	0,6	1,6	0,6	1,0	6,9	21,3	100
1978-2013	78,7	0,2	1,9	8,6	0,6	1,6	0,6	1,0	6,9	21,3	100
Espainiako prentsa	48,8	17,4	10,5	2,8	3,9	2,9	1,5	1,1	11,1	51,2	100
1903-1914	90,9	1,8	5,5	0,0	0,0	1,8	0,0	0,0	0,0	9,1	100
1930-1970	42,9	21,3	15,7	0,5	7,7	5,6	0,0	0,8	5,5	57,1	100
1978-2013	50,2	16,2	8,7	3,8	2,6	1,9	2,1	1,2	13,4	49,8	100
Frantziako prentsa	31,7	7,5	19,7	0,9	8,1	6,6	3,1	2,2	20,3	68,3	100
1903-1914	93,6	0,6	1,3	0,0	1,3	1,9	0,0	0,0	1,3	6,4	100
1930-1970	29,6	5,6	24,6	0,0	16,7	10,6	0,0	1,5	11,4	70,4	100
1978-2013	18,3	10,1	21,4	1,5	5,3	5,6	5,4	3,2	29,3	81,7	100
Guztia	51,0	12,3	10,7	3,5	4,1	3,3	1,6	1,3	12,1	49,0	100

N= 5.984 albiste (leinuak indibidualki kodetuta kontatuz; "batzuk" kategoria sartu gabe) Iturria: autorea.

Chi Karratua $p < .01$ mailan: $X^2(8, N = 244) = 61.466, p < .00001$.

9.5.2.2 *Leinuen ausentzia multzoka*

Egunkari gehienetan, “**Ez dago**” kategoria (protagonisten leinurik ez aipatzea informazioan edo iritzian) nagusi da zazpi egunkaritan. Beraz, erreferentzia modura leinurik “ez dago” kategoria hartuz, egunkariak lau multzotan saila litezke:

- **Edukien %80-90 artean**, protagonistak leinu aipamenik gabe: multzo honetan daude Euskal Herriko Berria, Egin eta Euskaldunon Egunkaria, hau da, aro garaikideko egunkariak.
- **Edukien %60-70 artean**, protagonistak leinu aipamenik gabe: sail honetan daude Euskal Herriko Gara; Espainiako El Pais eta Mundo Deportivo; eta Frantziako L’Auto.
- **Edukien %30-50 artean**, protagonistak leinu aipamenik gabe: hemen kokatzen dira Espainiako ABC eta Frantziako L’Equipe.
- **Edukien %10-20 artean**, protagonistak leinu aipamenik gabe: Frantziako Le Monde eta Espainiako Marca egunkariak kokatzen dira multzo honetan.

9.5.2.3 *Protagonistaren leinua egunkarika*

Egunkari motaren arabera

Protagonisten leinua gehiago agertzen da egunkari generalistetan (%59,2) kirol egunkarietan baino (%41,4). Leinuen balioei begiratuz, ondoko taulan ikusten da ia guztiek oso portzentaje berdintsuak dituztela, salbuespena espainiar leinua izanik, zeinak %6,6 lortzen du egunkari generalistetan eta %19,0 kirolekoetan.

Ondorioz, Chi Karratuaren aplikatuz, egiaztatu da egunkari generalista eta kirolekoen artean ez dagoela desberdintasun estatistikorik bost kategoria ugarienen kasuan (ez dago, espainiar, frantses, euskaldun, belgiar, italiar). Chi Karratua $p < .05$ mailan: $X^2(5, N = 171) = 9.307, p = .097428$.

Taula 25: protagonisten leinuak egunkarika

(%)	Ez dago	Espainiar	Frantses	Euskal.	Belgiar	Italiar	Estatub.	Britainiar	Beste	Guztia
Generalistak	59,2	6,6	9,6	3,9	3,7	2,9	1,7	1,3	11,2	100
ABC	47,1	13,8	14,6	0,8	6,0	4,0	1,9	1,0	10,8	100
Berria	82,1	0,7	0,7	4,3	0,0	1,4	0,0	0,7	10,0	100
Egin	83,5	0,0	1,7	8,9	1,0	1,0	0,2	0,0	3,7	100
El País	69,6	6,3	6,6	2,6	2,1	0,8	1,4	1,0	9,6	100
Eusk. Egunkaria	82,5	0,0	3,4	2,4	0,3	2,4	0,0	2,1	6,9	100
Gara	64,8	0,4	1,2	17,8	0,4	1,6	2,0	1,6	10,3	100
Le Monde	16,9	7,8	24,0	0,9	9,6	7,5	4,6	3,0	25,8	100
Kirolekoak	41,4	19,0	11,9	3,1	4,6	3,9	1,6	1,4	13,1	100
L'Auto	69,9	2,0	8,4	0,0	8,0	6,4	0,0	0,0	5,2	100
L'Equipe	25,4	10,1	21,6	1,3	6,8	5,7	3,4	2,7	23,0	100
Marca	15,1	37,9	13,3	6,8	2,7	3,5	2,7	1,1	16,9	100
Mundo Deportivo	66,4	9,4	7,1	1,2	4,7	2,9	0,1	1,2	7,0	100
Guztia	51,0	12,3	10,7	3,5	4,1	3,3	1,6	1,3	12,1	100

N = 5.984 albiste (leinuak indibidualki kodetuta kontatuz; "batzuk" kategoria sartu gabe) Iturria: autorea.

Chi Karratuaren test-a $p < .05$ mailan: $X^2(5, N = 171) = 9.307, p = .097428$.

Leinuak egunkarika

- **Ez dago:** Eginek (%83,5) Euskaldunon Egunkariak (%82,5) eta Berriak (%82,1) protagonisten leinuari buruz aipamenik ez dute nabarmenki. Aldiz, kategoria berberan Le Monde (%16,9) eta Marcak (%15,1) dituzten portzentajeekin argi eta garbi islatzen dute haiek direla euren orrialdeetan protagonisten leinua esplizituki gehien jasotzen dutenak.
- **Espainiarra:** Marca egunkaria da bere orrialdeetan espainiar leinuaren aipamen gehien egiten dituen (%37,9). Kontrako aldean Berria, Egin, Euskaldunon Egunkaria eta Gara daude, %0,0 inguruan.
- **Frantsesa:** aztertutako berrietan Le Monde (%24,0) eta L'Equipe (%21,6) esplizituki protagonistaren leinua frantziar leinua dela islatzen dute portzentajerik handiengan. Berria, Gara, Egin eta Euskaldunon Egunkaria %3,5 azpitik behera daude. Frantses eta italiar leinuak dira bakarrak egunkari guztietan presentzia izaten.

- **Euskalduna:** aztertutako berrietan esplizituki protagonistaren leinua euskal leinua dela adierazten dutenen artean Garak du kopururik altuena (%17,8). Honetan gainerako leinuekiko aldea nabarmena da, erdian baitago Eginen portzentajea (%8,6) eta hortik behera guztiak. Le Monde, Mundo Deportivo, ABC eta L'Equipe %1en bueltan daude euskal leinua aipatzean eta L'Autok ez du.
- **Belgiarra:** aztertutako berrian esplizituki protagonisten leinua belgiarra dela argitaratu dutenen artean Le Monde (%9,6) L'Auto (%8,0) L'Equipe (%6,8) eta ABC (%6,0) azpimarratzekoak dira. Berrian, Euskaldunon Egunkarian eta Garan ia aipamenik ez dago.
- **Italiarra:** aztertutako berrian esplizituki protagonisten leinua italiarra dela adierazi dutenen artean Le Monde (%7,5) L'Auto (6,4) eta L'Equipe (%5,7) dira nagusi.
- **Beste:** estatubatuar eta britainiar agerpenen portzentajeak oso txikiak dira, %2tik behera eta bestelako nazioen leinua esplizituki adierazten den kasuetan, Le Monde (%25,8) eta L'Equipe (%23,0) toki dezente dedikatzen dute.

Irudi 30: Toureko sailkapenak leinu desberdinen isla izan dira.

PALMARES DE LA VUELTA		
	Vencedor	Lider
Primera etapa: Angers (circuito), 5,775 kms.	ERRANDONEA (España).	ERRANDONEA (España).
Angers-Saint Malo, 185,5 kms.	Godefroot (Diablos Rojos).	ERRANDONEA (España).
Segunda etapa: Saint Malo-Caen, 180 kms. ...	Van Neste (Bélgica).	Van Neste (Bélgica).
Tercera etapa: Caen-Amiens, 248 kms. ...	Basso (Primavera).	Polidori (Primavera).
Cuarta etapa: Amiens-Roubaix, 191 kms. ...	Reybroeck (Diablos Rojos).	Spruyt (Bélgica).
Quinta etapa: Roubaix-Jambes, 172 kms. ...	Pigeon (Francia).	Pigeon (Francia).
Sexta etapa: Jambes-Metz, 238 kms. ...	Van Springel (Bélgica).	Pigeon (Francia).
Séptima etapa: Metz-Estrasburgo, 205,5 kms.	Wright (Gran Bretaña).	Riotte (Francia).
Octava etapa: Estrasburgo-Belfort, 215 kms.	Almar (Francia).	Pigeon (Francia).
Novena etapa: Belfort-Divonne, 238,5 kms. ...	Reybroeck (Bélgica).	Pigeon (Francia).

Iturria: Marca, 1967-07-09.

Leinu zehatzak agertzeari dagokionez, egunkari bakoitzak gehien aipatzen dituzten protagonisten leinuak hurrengoak dira:

- **ABC:** protagonista espainiar eta frantsesak dira presentzia handiena dituztenak, %14 inguruan biak.
- **Berria:** protagonista euskaldunak (%4,3) dira ugariak, baina aipatu egin behar da "beste" kategoria (%10,0), horrek esan nahi baitu leinu ugari aipatzen dituela egunkariak protagonisten artean.
- **Egin:** protagonista euskaldunak dira hemen ere ugariak (%8,9).

- **El Pais:** frantsesa (%6,6) eta espainiarra (%6,3) dira nagusi protagonisten leinuen artean.

Hemen, esaterako, frantses leinuaren presentzia El Pais-en (1978-07-13):

“Hinault, la gran esperanza francesa en el Tour, entró en la meta andando, seguido de Kuiper, como cabecilla de la protesta contra las etapas divididas en sectores.”

- **Euskaldunon Egunkaria:** protagonisten leinu barietatea dago egunkari honetan, frantsesa, euskalduna eta italiarra aipagarri izanez. “Beste” kategoriak %7,9 dauka.
- **Gara:** guztiek presentzia dute. Aipatuena euskalduna da (%17,8).
- **L’Auto:** euskaldunak, britainiarrak eta estatubatuarrak ez dira agertzen. Gehien irakur daitezkeenak frantsesak (%8,4) belgiarrak (%8,0) eta italiarrak (%6,4) dira.
- **L’Equipe:** leinu guztiek presentzia dute. Buruan dagoena frantsesa da (%21,6) eta hurrengo espainiarra da (%10,1). “Beste” kategoria aipatzekoa da, %23,0ko balioa baitauka. Honek esan nahi du leinu asko aipatzen dituela egunkari honek bere informazioetan.
- **Le Monde:** protagonista frantsesak dira nagusi (%24,0). Belgiarrak (%9,6) eta italiarrak (%7,5) ere aipatuak dira. Azpimarratzekoa da “Beste” leinuan duen %25,8.
- **Marca:** protagonista espainiarren leinua da presentzia handiena daukana (%37,9) eta ondoren dago frantsesa (%13,3). Horretaz aparte “Beste” kategorian %16,9 du.
- **Mundo Deportivo:** agertzen diren protagonisten artean espainiarra da nagusi (%9,3) eta bigarren frantsesa (%7,1).

Irudi 31: Lehen Mundu Gerra aurreko ale bat.



Iturria: L'Auto, 1913-07-10. Protagonisten leinuei dagokienez, egunkari honetan frantsesak, belgiarrak eta italiarrak dira gehien. Zergatien adibide bat ikusgai.

9.5.3 Protagonistaren generoa

Gizonezkoak dira protagonistarik nagusiak kazetaritza-dukietan. Ez dago alde nabarmenik herrialdeen artean ezta urtealdien artean ere. Protagonisten generoa identifikaturik dagoen artean kopurua adierazgarria da oso (%99,7). Aitzitik, **emakumezkoen** protagonismoa emakumearen ausentzian datza, herrialdeen artean eta urtealdien artean ere (berrien %0,3an baino ez da esplizituki agertzen).

Taula 26: protagonisten generoaren portzentajeak

(%)	Gizon	Emakume	Guztia
EHko prentsa	99,7%	0,3%	100,0
1978-2013	99,7%	0,3%	100,0
Espainiako prentsa	99,8%	0,2%	100,0
1903-1914	100,0%	0,0%	100,0
1930-1970	99,9%	0,1%	100,0
1978-2013	99,8%	0,2%	100,0
Frantziako prentsa	99,5%	0,5%	100,0
1903-1914	100,0%	0,0%	100,0
1930-1970	100,0%	0,0%	100,0
1978-2013	99,2%	0,8%	100,0
Guztia	99,7%	0,3%	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea

Oro har txirrindularitza gizonezkoen kirola da nagusiki eta Tourra ez da salbuespena izan. Gizonek gizonentzat pentsatutako kirol-lehia izan da eta da, nahiz eta Emakumezkoen Tourra, bere izendapen guztiekin, egonkortzeko ahaleginak egin diren, antzuak ikerketa hau amaitzeko orduan. Emakumeak ez dira agertzen protagonisten artean eta, aldi berean, "Besterik" atala ez da islatzen inondik inora, Tourra-ren protagonistei buruzko berrietan gizon/emakume dikotomiatik at ezer ez delako argitaratu.

Emakumeen ausentziaren arrazoiak bilatzean, argi dago estrukturalak direla, lehenik, arestian aipatu den moduan, Tourra hasiera-hasieratik gizartearen balio patriarkaletan oinarritutako gizonentzako lasterketa izan delako; bigarrenik Tourreko egitura nagusietan gizonak daudelako eta, hirugarrenik, hedabideek propio dituzten jarduerak horren isla direlako. Horren harira, Mertxe Aizpuruak, garai hartan 'Gara' egunkariaren zuzendariak, azaldu zuena "Relaciones de género en los medios de comunicación, una mirada desde dentro" izenpean egin zen mahai inguruan: "Gizonezkoen agerpenak emakumezkoenak baino ugariagoak dira, tradizionalki 'garrantzitsutzat' jotzen diren informazio-esparruetan, hau da, politikaren, ekonomiaren eta kirolaren esparruei erreferentzia egiten dietenetan. Aldiz, emakumeen ordezkartza txikia da"¹⁶² (Abril N., 2004).

Emakumeen inguruan jorratutako gaiei begira, eta arrazoi estrukturalekin loturik, adibide esanguratsu batzuk jar daitezke. Lehenik, 'Le Monde' egunkarian agertzen diren emakumezkoen protagonismoari loturiko berrien erdiak dopinarekin du harremana, kargu instituzionala emakumea delako edo frantziar txirrindulari baten garaipenak emakumezkoen proban goratzeko. Ondoren, emakumezkoen jarduna gizonezkoen erreferentziei lotuta agertzen da eta hona hemen arestian aipaturiko egunkari bereko berria 2013ko uztailaren 13an:

*"A part ça, la cycliste néerlandaise Marianne Vos -
surnommée "Lady Merckx" pour sa propension à gagner tout le*

¹⁶² Las apariciones de los hombres son mayoritarias frente a una escasa representación de mujeres en aquellos ámbitos informativos considerados tradicionalmente como "importantes" y que hacen referencia a las esferas del mundo político, el económico y el deportivo (161. orria).

temps -, et quelques-unes de ses consœurs réclament le droit de participer au Tour de France dès 2014. Pas au milieu des garçons, mais le même jour, donc soit avant, soit après, ce n'est pas encore très clair. Samedi matin, leur pétition avait recueilli près de 6.000 signatures."¹⁶³

Eta amaitzeko, gizonetako kazetarien aldetik emakumeekiko jarrera desagokoa, arrotza bailitzan, aipatu behar da. Kasu honetan adibidea 'Marca' espainiar egunkarian 1978ko uztailaren 23an dago: "Entre los colegas, había tres mujeres, una de ellas catalana, llamada Victoria Llanson (...) como se metió a fondo con el Tour, la organización le puso la proa y ya hace días que regresó a París."¹⁶⁴


9.5.3.1 Protagonistaren generoa herrialdeka

Ondoko grafikoan, hiru kategoria sartu dira (gizon, emakume, ez dagokio - protagonisten generoa identifikatu ezin denean-) Atal honetan ere emaitzak lauak bezain argiak dira. Gizonen protagonismoa erabatekoa da herrialde guztietan, %90etik gora. Emakumea, berriz, %0,5 azpitik dago.

¹⁶³ "Gainera, Marianne Vos txirrindulari holandarrak –"lady Merckx"ezizena jarri diote, den-dena irabazteko duen joeratik- eta bere adiskide batzuek 2014tik aurrera Frantziako Tourrean lehiatzeko eskubidea aldarrikatu dute. Ez mutilen erdian, egun berean baizik, edo lehenago edo geroago, oraindik ez dago oso argi. Larunbat goizera arte, bere eskaerak ia 6.000 sinadura bildu zituen" (www.lemonde.fr, 2013-07-13).

¹⁶⁴ "Lankideen artean, hiru emakume zeuden, horietako bat katalana, Victoria Llanson izenekoa, Tourraren auka jardun zuenez, antolakuntzak branka jarri zion eta egunak dira Parisera itzuli zela" (Marca, 1978-07-23).

Grafiko 5: protagonistaren generoa herrialdeka



N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea.

9.5.4 Protagonistaren kolektibitatea

Atal honetan protagonistaren kolektibitatearen inguruko azterketa egingo da eta horretarako honako aldagai hauek erabili dira: indibiduala, edukiaren protagonista indibiduala denean edo bere indibidualtasuna azpimarratzen denean; multzoa, edukiaren protagonista kolektiboa denean; eta ez dagokio, protagonistaren inguruan ez direnean aipatzen indibidualtasuna edo kolektibitatea.

9.5.4.1 Protagonistaren kolektibitatea herrialdeka eta urtealdika

Indibidualtasuna da nagusi. Protagonista gehienak indibidualki izendatuak izan dira edo indibidualtasuna azpimarratuta izan da (%86,6). Portzentajeak oso antzekoak dira herrialdeka (%82,9tik-%88,6ra bitartean) eta denboran oreka gehien mantentzen dutenak espainiar egunkariak dira.

Multzoei dagokienez, hamar berrietatik batean azpimarratzen da kolektibitatea (%11,1) Frantziako prentsak, batez ere 1903-14 urtealdian, multzoari ematen dio protagonismo gehien (%30,1) eta antzekoak dira euskal eta espainiar egunkarien proportzioak.

Ez dagokio atalean oso portzentaje txikia da kolektibitateei buruzko aipamenik gabekoa (%2,3) eta pilatzen da batez ere espainiar zein frantziar egunkarien lehen urtealdian (1903-14).

Taula 27: protagonistaren kolektibitatearen portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Indibiduala	Multzo	Ez dagokio	Guztia
EHko prentsa	88,6	8,2	3,2	100,0
1978-2013	88,6	8,2	3,2	100,0
Espainiako prentsa	87,6	10,6	1,8	100,0
1903-1914	90,9	0,0	9,1	100,0
1930-1970	83,5	15,2	1,3	100,0
1978-2013	89,1	9,1	1,8	100,0
Frantziako prentsa	82,9	14,1	3,0	100,0
1903-1914	60,2	30,1	9,7	100,0
1930-1970	75,2	23,9	0,9	100,0
1978-2013	90,6	6,6	2,8	100,0
Guztia	86,6	11,1	2,3	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea.

Emitza orokorreari begiratu, aipamen indibidualak nagusi dira, nahiz eta lasterketa taldeka egin eta talde/multzo izaeraren inguruan eztabaida franko egon. Beharbada horregatik frantses egunkariak dira aipamen kolektiboa gehien egin dituztenak.

9.5.4.2 Protagonistaren kolektibotasuna egunkarika

Indibidualtasunarekin lotzen dituzte euren idatzi gehien Mundo Deportivo (%91,0) eta L'Equipe dira (%90,1), hedabide ia guztien joera baieztatuz.

Multzotasunari begira L'Auto kenduta (%35,8) gainerako egunkariak oso portzentaje txikia, %10aren inguruan gehienez, eskaini diote multzo-aipuari.

Ez dagokio atalean oso portzentaje txikia da kolektibitateei buruzko aipamenik gabekoa eta L'Auto-k soilik (%5,3) gainditzen du ehuneko bostaren langa.

Emitza orokorrak aztertuz, protagonista indibidualak dira nagusi hamaika egunkarietan. Ez da herrialdeen arteko desorekarik antzematen. Protagonista kolektiboen portzentajea oso txikia da (%11,1).

Taula 28: protagonistaren kolektibitatearen portzentajeak egunkarika

(%)	Indibiduala	Multzo	Ez dagokio	Guztia
ABC	86,7	11,6	1,7	100,0
Berria	88,0	9,2	2,8	100,0
Egin	89,6	6,5	3,9	100,0
El Pais	85,6	10,0	4,5	100,0
E. Egunkaria	88,3	8,9	2,7	100,0
Gara	87,6	9,7	2,7	100,0
L'Auto	58,9	35,8	5,3	100,0
L'Equipe	90,1	8,5	1,4	100,0
Le Monde	88,4	8,4	3,2	100,0
Marca	86,6	13,0	0,4	100,0
Mundo Deportivo	91,0	7,6	1,4	100,0
Guztia	86,6	11,1	2,3	100,0

N = 6.766 item (informazioa gehi iritzia). Iturria: autorea.

Irudi 32: Euskal Herriko prentsan %2tik gorako isla izan dute zaleek, portzentajerik handiena ikerketaren gainerako bi nazio-identitate nagusiekin alderatuz.



Iturria: autorea.

10 Emaizak 3: naziotasunaren identitatea eta bere osagaiak

10.1 Naziotasunaren nabarmendura eta esplizitutasuna edukietan

10.1.1 Naziotasunaren nabarmendura

Naziotasunaren presentzia edo nabarmendura zenbaterainokoa den hiru herrialdeetako prentsak argitaratutako edukietan aztertzean (ikus ondoko taula), portzentajeak nahiko antzekoak dira: Euskal Herriko prentsan, edukien %82,7an aurkitzen da nazio-identitatearen presentzia; Espainiako prentsan, %75an; eta Frantziako prentsan, %80,5an. Beraz, hiru herrialdeetako prentsaren arteko diferentzia, nazio-identitatearen presentzia izateari dagokionez, %7,7 baino txikiagoa da, portzentaje handien eta txikienaren kenketa eginez. Jakina, kategoria sistema binarioa denez (bai, ez), kontsekuenteki, nazio-identitatearen presentziarik ez dago Espainiako prentsako edukien %25n; Frantziako %19,5an; eta Euskal Herriko %17,3an.

Estatistikoki, Chi Karratuaren test-a¹⁶⁵ aplikatuz, egiaztatzen da bi aldagaien artean ez dagoela erlazorik eta, beraz, hiru herrialdeetako egunkarien artean ez dagoela diferentzia adierazgarririk $p < .01$ esanahi mailan: Yates-en X^2 (2, N = 300) = 1.51, p 0.470011.

Emitza orokorreki begiratzuz, hau da, hiru herrialdeak batera hartuz, argitaratutako edukien guztien %77,6an dago naziotasunaren presentzia eta %22,4an ez dago.

Herrialde bakoitzean naziotasunaren presentzia **urtealdika** nola izan den aztertzen badugu, ikusten da Espainiako eta Frantziako prentsan nazio-identitatearen presentzia 1903-1914 urtealdian izan zela txikiena (%9,1 eta %26,3 hurrenez hurren). Beste bi urtealdietan portzentajeak oso altuak dira, %70etik gora Espainian eta %79.8tik Frantzian. Euskal Herriaren kasuan, 1978-2013 urtealdia soilik dagoenez, ezin da alderaketarik egin.

¹⁶⁵ Chi karratuaren datuak eta estatistikak ematean zenbakien dezimala edo hamarrenekoa adierazteko puntua erabili da, koma orde, nazioarteko ohitura jarraituz.

Taula 29: naziotasunaren presentzia eta esplizitutasuna herrialdeka eta urtealdika

(%)	Naziotasunaren presentzia bai			Naziotasun presentziarik ez	Guztia
	Nazio-identitate esplizitua	Nazio-identitate implizitua	Azpiguztia		
EHko prentsa	26,5	56,2	82,7	17,3	100,0
1978-2013	26,5	56,2	82,7	17,3	100,0
Espainiako prentsa	57,1	17,9	75,0	25,0	100,0
1903-1914	9,1	0,0	9,1	90,9	100,0
1930-1970	61,8	9,2	70,9	29,1	100,0
1978-2013	56,3	21,5	77,8	22,2	100,0
Frantziako prentsa	78,7	1,8	80,5	19,5	100,0
1903-1914	26,3	0,0	26,3	73,7	100,0
1930-1970	78,5	1,3	79,8	20,2	100,0
1978-2013	88,5	2,3	90,8	9,2	100,0
Guztia	57,4	20,2	77,6	22,4	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Chi Karratuaren froga: naziotasunaren presentzian Yates-en χ^2 (2, N = 300) = 1.51, p 0.470011; naziotasunaren esplizitutasunean, χ^2 (2, N = 239) = 79.616, p < .00001. Iturria: autorea.

10.1.2 Naziotasunaren esplizitutasuna

Bigarren urrats batera pasatuz, hiru herrialde horietako prentsak argitaratutako edukietan dagoen naziotasunaren esplizitutasun kantitatea aztertu da. Ondoko taulan agertzen denez, emaitza orokorreki begiraturik (hiru herrialdeak batuta), nazio-identitatearen presentzia esplizitua da edukien %57,4an eta implizitua %20,2an.

Herrialdeka, **nazio-identitate esplizituaren** portzentajerik handiena Frantziako egunkarietan dago (%78,7); ondoren Espainiako prentsan (%57,1); eta askoz atzerago Euskal Herriko prentsan (%26,5). Jakina, binarioa izanik kategorizazioa, alderantzizkoa gertatzen da **nazio-identitate implizituan**, zeinetan Euskal Herriko prentsa den nagusi %56,2rekin; bigarren, Espainiako prentsa, %17,9rekin; eta hirugarren Frantziakoa, %1,8rekin.

Chi Karratuaren froga aplikaturik, desberdintasuna esanguratsua da estatistikoki ere, p < .01 mailan: Yates-en χ^2 (2, N = 239) = 79.616, p < .00001. Beraz, ondorioztatzen da hiru herrialdeetako egunkariek diferentzia adierazgarriak dituztela naziotasunaren esplizitutasunaren inguruan.

Herrialde bakoitzean naziotasunaren esplizitutasuna **urtealdika** analizatuz, bai Espainiako eta bai Frantziako prentsan, 1903-2014 urtealdian kokatzen da nazio-identitate esplizituaren portzentaje txikiena (%9,1 eta %26,3 hurrenez hurren). Beste bi urtealdietan, 1930-1970 eta 1978-2013, hurrengo nabarmendurak egin daitezke: Frantziako prentsak oso portzentaje handiak dauzka bietan (%78,5 eta %88,5 hurrenez hurren), baina Espainiako prentsari dagokionez, portzentajeak baxuagoak dira (%61,8 eta %56,3). Beraz, Frantziako egunkarietan nazio-identitate esplizitua oso handia da eta Espainiako ez horrenbeste, batez ere 1978-2013an, zeinetan identitate implizituak gora egin duen.

10.1.3 Nazio-identitate esplizitu eta implizituaren azpikategoriak

Nazio-identitatearen esplizitutasun kontzeptua hainbat azpikategoriatan banatu da (ikurra, leinua, gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna.) eta, ondorioz, informazio edo iritzi bat kodetzeko unean, modu bakunean¹⁶⁶ edo modu konbinatuan¹⁶⁷ kodetu ahal izan da; alegia, albiste baten naziotasun-implizitutasuna irizpide batean bakarrik kodetua izan daiteke (leinu, ikur, gatazka, etab.) edo irizpide bat baino gehiagotan (ikurra-bai eta aurkakotasuna-bai, adibidez).

Azpikategoria esplizitu bakunetan (leinua, ikurra), “leinuaren” adierazlea da nagusiena, %54,0ko portzentajea hartuz orokorrean (% 19,8 Euskal Herriko prentsan, %53,8 Espainiako prentsan eta %77,2 Frantziako prentsan). “Ikurraren” adierazleak, modu bakunean hartuta, %1,6 soilik lortzen du orokorrean, eta hiru herrialdeetako prentsan ere portzentajeak antzekoak dira (%4,1 Euskal Herrian eta %1 baino gutxiago Espainian eta Frantzian).


Azpikategoria implizitu bakunetan (gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna) emaitza orokorrei begiratuta, hau da, hiru herrialdeak batuta, positibotasuna da irizpide ugariena, %19,4rekin orokorrean. Beste bi azpikategoriak (gatazkatasuna eta aurkakotasuna) %0,5 azpitik daude hiru herrialdeetan.

¹⁶⁶ Azpikategoria bakunak (bai-leinua, bai-ikurra, bai-gatazka, bai-aurkakotasuna, bai-positibotasuna) esan nahi du albiste bat irizpide horietako batean soilik kodetu dela.

Azpikategoria konbinatuetan, bai esplizitu eta bai implizitueta, portzentajeak minimoak dira, %2 azpitik.

Beraz, analisi honekin esan nahi da, nagusiki, identitate esplizitua leinuaren bitartez adierazten dela Tourreko edukietan, eta identitate implizitua positibotasunaren bidez.

Irudi 33: Nazio leinuaren presentzia esplizitua.



Iturria: Le Monde, 1947-07-12.

10.2 Nazio-ikurrak

Sekzio honetan, Frantziako Tourrean nazio-identitatearen kontzeptua adierazteko erabiltzen diren nazio-ikurren analisia egin eta informazio eta iritzi edukietan zernolako pisua duten aztertzen da, hainbat interpretazio-markoren bidetik, esplizituak zein implizituak izan enkoadre hauek (leinua, gatazka, aurkakotasuna, positibotasuna).

Metodoaren atalean esan denez, nazio baten izaera islatzen duten ikurrak (bandera, armarrria, maillota, hizkuntza ereserkiak, besteak beste) sartzen dira azpialan honetan.

10.2.1 Nazio-ikurrak herrialdeka eta urtealdika

Ikurraren presentzia, orokorrean, %2,9ra mugatzen da eta horren baitan portzentajerik handiena Euskal Herriko egunkarietan topa daiteke (%5,8). Espainiakoetan erdia baino gutxiago da (%2,6) eta Frantziakoetan laurden bat (%1,6).

¹⁶⁷ Azpikategorien konbinazioak ("bai-ikur/leinu" batetik, eta "bai-gatazka/aurkakotasun/positibotasun" irizpideen konbinazio posibleak bestetik) esan nahi du albiste bat irizpide konbinatu horietako batean kodetu dela.

Kontrako aldean, **ikurra ez da agertzen** eduki guztien %97,1ean. Herrialdeka, aldeak txikiak dira Frantzia (%98,4), Espainia (%97,4) eta Euskal Herriko prentsan (%94,2).

Chi Karratuaren frogaren arabera, ez dago desberdintasun estatistikoki esanguratsurik bi aldagaien artean, $p < .01$ mailan: Yates-en $X^2 (2, N = 300) = 1.345$, $p < .00001$. Beraz, nazio ikurren presentziari dagokionez, hiru herrialdeetako egunkarien artean ez dago diferentzia nabarmenik.

Taula 30: nazio-ikurren presentzia herrialdeka eta urtealdika

(%)	Ikurra bai	Ikurra ez	Guztia
EHko prentsa	5,8	94,2	100,0
1978-2013	5,8	94,2	100,0
Espainiako prentsa	2,6	97,4	100,0
1903-1914	0,0	100,0	100,0
1930-1970	0,7	99,3	100,0
1978-2013	3,4	96,6	100,0
Frantziako prentsa	1,6	98,4	100,0
1903-1914	0,5	99,5	100,0
1930-1970	0,7	99,3	100,0
1978-2013	2,3	97,7	100,0
Guztia	2,9	97,1	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea. Yates-en $X^2 (2, N = 300) = 1.345$, $p < .00001$.

Urtealdien alderaketaren azterketa

- **1903-14:** lehen fase honetan ikurrik ez dago espainiar egunkarietan (%100,0) eta frantses egunkarietan hondarra da (%99,5).
- **1930-70:** ia ikur barik daude Espainiako zein Frantziako egunkariak.
- **1978-2013:** azken urtealdi honetan alderaketa egin daiteke ikerketaren hiru leinu nagusien artean: gorantz doa ikurren kopurua. Aurretik euskal hedabideak daude, (%5,8) daude, atzetik espainiarrak (%3,4) eta amaieran frantsesak (%2,3).

Emaitza orokorrak

Ondorio gisa, Frantziako egunkarietan ikur-portzentajerik txikiena dago, behar bada Tourra frantziar ikur erraldoia denez, frantziar egunkariak ez dutelako ikurrak

nabarmentzeko beharrik. Azken etapan gero eta ikur gehiago topa daitezke herrialde guztietako egunkarietan.

10.2.1.1 Nazioaren ikur motak herrialdeka eta urtealdika

Maillota ikur nagusia da alde handiarekin banderarekin eta hizkuntzarekin alderatuz. Espainiako prentsan dago portzentajerik handiena (67,9), atzetik Euskal Herriko egunkariak (%45,3) eta azkenik Frantziakoak (%37,0). **Bandera**, aldiz, nagusi da Frantziar egunkarietan (%40,7) eta oso parekoak dira espainiar zein euskal portzentajeak, %18ren inguruan. **Hizkuntzari** dagokionez, Euskal Herriko egunkarietan baino ez du islarik (%35,9).

Herrialde bakoitzeko prentsaren azterketa

Euskal Herriari begiraturaz, estatistikoki maillota (%45,3), hizkuntza (%35,9) eta bandera (%18,8) doaz, ordena horretan. Ia kopuru bera dauka Beste atalak. Ikur guztiak, logikoa denez, 1978-2013 urtealdian zenbatzen dira.

Espainiari begiraturaz, maillota da nagusi (%67,9), banderak %17,9 dauka eta bestek %12,3. Hizkuntzak ikur moduan pisurik ez dauka.

Frantziari begiraturaz, ikurrak aipatzean banderekin egiten da topo nagusiki (%40,7), eta maillot-kopurua oso gertu dago (%37,0), 'Beste'ren presentzia handia da (%22,2).

Taula 31: nazio ikur moten portzentajeak herrialdeka eta urtealdika

(%)	Maillot	Bandera	Hizkuntz	Beste	Guztia	Maillot (N)	Bandera (N)	Hizkuntza (N)	Beste (N)	Guztia (N)
EHko prentsa	45,3	18,8	35,9	0,0	100	29	12	23		64
1978-2013	45,3	18,8	35,9	0,0	100	29	12	23		64
Espainiako prentsa	67,9	17,9	1,9	12,3	100	72	19	2	13	106
1903-1914						Ez dago				
1930-1970	62,5	12,5	12,5	12,5	100	5	1	1	1	8
1978-2013	68,4	18,4	1,0	12,2	100	67	18	1	12	98
Frantziako prentsa	37,0	40,7	0,0	22,2	100	10	11		6	27
1903-1914	100,0	0,0	0,0	0,0	100	1				1
1930-1970	66,7	0,0	0,0	33,3	100	2			1	3
1978-2013	30,4	47,8	0,0	21,7	100	7	11		5	23
Guztia	56,3	21,3	12,7	9,6	100	111	42	25	19	197

N = 197 eduki (informazio eta iritzi) ikur esplizitua dutenak. Oharra: portzentajeak eta balioak jarri dira, portzentajeak soilik distortsio garriak izan daitezkeelako, kopuru txikiak izatean zutabe batzuetan. Iturria: autoreoa.

Emitza orokorrak

Ondorio gisa, maillotak nabarmentzen dira eta urtealdi guztietan dute aipamenik. Ikur motan presentzia desorekatua da, eta Espainiako prentsan soilik denetik dago (Beste kategoria barne) aztertutako epeetan.

10.2.2 Nazio-ikurrak egunkarika eta egunkari motaka

10.2.2.1 Egunkari motaren arabera

Herrialdeetako prentsa motari dagokionez, diferentziak oso txikiak dira egunkari generalisten eta kiroleko egunkarien artean (%3,0 vs %2,9) eta, kategoria sistema binarioenez gero, ikurra ezaren portzentajeak ere berdintsuak dira (%97 vs %97,2). Beraz, Chi karratuaren frogak adierazten du hiru herrialdeetako prentsan ez dagoela alderik ikurtasunaren presentzian. Chi karratuaren balioak, Yates-en zuzenketa faktorea sartuta, hauek dira: $X^2(1, N = 201) = 0.162$, $p = .687322$; beraz, emaitzak ez dira esanguratsuak $p < .01$ significazio mailan.

Taula 32: nazio-ikurren portzentajeak egunkarika

(%)	Ikurra bai	Ikurra ez	Guztia
Generalistak	3,0	97,0	100,0
ABC	1,3	98,7	100,0
Berria	3,5	96,5	100,0
Egin	1,7	98,3	100,0
El País	2,8	97,2	100,0
Eusk. Egunkaria	15,8	84,2	100,0
Gara	2,3	97,7	100,0
Le Monde	1,1	98,9	100,0
Kirolekoak	2,8	97,2	100,0
L'Auto	0,3	99,7	100,0
L'Equipe	3,2	96,8	100,0
Marca	3,1	96,9	100,0
Mundo Deportivo	3,1	96,9	100,0
Guztia	2,9	97,1	100,0

N = 6.766 item eduki (informazio eta iritzi batera). Iturria: autoreoa. Chi karratua, $< .01$ mailan: Yates-en

$$X^2(2, N = 201) = 0.162, p = .687322.$$

Egunkarien arabera

Egunkarien konparaketa honetan **ikurraren** presentzia orokorra txikia izanagatik ere (%2,9, arestian aipatu den moduan) azpimarratzekoa da Euskaldunon Egunkariaren proportzioa (%15,8). Gainerakoetan %4aren azpitik dago.

Ikurraren eza kontrako norabidetik doa, logikoa denez, eta Euskaldunon Egunkaria (%84,2) aparte utzita, gainerako egunkari guztiak %96tik gora daude.

Emaitzek diote ikurren presentzia, oro har, oso txikia dela aztertutako edukietan. Dena den, Euskal Herrian argitaratutako egunkariak dira ikurren presentziarik handiena dutenak.

10.2.2.2 *Ikur motak egunkarika*

Maillota da ikurrik nagusiena, baina ikurren presentzia orokorra txikia denez, portzentajeak distorsionatzaileak izan daitezke, atal honetan L'Autorena esaterako. Beraz, testuinguruan hobeto kokatzeko asmoz balioak ere erantsi dira. Mailloten kasuan, presentzia daukate ia egunkari guztietan (11tik 9n) eta Mundo Deportivon (%94,1), ABC-n (%83,3,) El País-en (%81,8) eta Berrian (%80,0) dira nagusi.

Bandera portzentaje berean agertzen da, (11tik 9an) baina kantitate txikiagorekin, Le Monde (%100,0) izanik bandera portzentaje handiena erakusten duena, beste ikurrik ez duelako. Kuantitatiboki Marca egunkaria da bandera kopururik altuena erakusten duena aztertutako edizioetan (14 aldiz).

Hizkuntzak ez dauka pisu larregirik. Hiru egunkaritan soilik hizkuntza agertzen da eta (Euskaldunon Egunkaria, Gara eta ABC).

Emaitza orokorrei erreparatuz, egunkari guztien artean Euskaldunon Egunkaria da ikur mota nagusi guztiek bere orrietan presentzia duten egunkari bakarra eta baita hizkuntzaren kasuan aipu gehien dituen ere. Espainiarrak dira maillotak azpimarratzen dituzten egunkariak eta euskaldunak hizkuntza-orrialdeetara ekartzen dituztenak.

Taula 33: nazioaren ikur motak egunkarika (% eta N)

(%)	Maillot	Bandera	Hizkuntz	Beste	Guztia	Maillot (N)	Bandera (N)	Hizkuntz (N)	Beste (N)	Guztia (N)
Generalistak	53,8	21,7	23,6	0,9	100,0	57	23	25	1	106
ABC	83,3	0,0	16,7	0,0	100,0	10		2		12
Berria	80,0	20,0	0,0	0,0	100,0	4	1			5
Egin	42,9	57,1	0,0	0,0	100,0	3	4			7
El País	81,8	13,6	0,0	4,5	100,0	18	3		1	22
E. Egunkaria	47,8	4,3	47,8	0,0	100,0	22	2	22		46
Gara	0,0	83,3	16,7	0,0	100,0		5	1		6
Le Monde	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0		8			8
Kirolekoak	59,3	20,9	0,0	19,8	100,0	54	19		18	91
L'Auto	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0	1				1
L'Equipe	50,0	16,7	0,0	33,3	100,0	9	3		6	18
Marca	31,6	36,8	0,0	31,6	100,0	12	14		12	38
M. Deportivo	94,1	5,9	0,0	0,0	100,0	32	2			34
Guztia	56,3	21,3	12,7	9,6	100,0	111	42	25	19	197

N = 197 eduki (informazio eta iritzi batera). Oharra: portzentajeak eta balioak jarri dira, portzentajeak soilik distortsionatzaileak izan daitezkeelako, kopuru txikiak izatean zutabe batzuetan. Iturria: autorea.

10.2.3 Nazio-ikurrak eta ikur motak urtealdika

Taula 34: nazio-ikurren presentziaren portzentajea urtealdika

(%)	Ikurra bai	Ikurra ez	Guztia
1903-1914	0,4	99,6	100,0
1930-1970	0,7	99,3	100,0
1978-2013	3,7	96,3	100,0
Guztia	2,9	97,1	100,0

N = 6.766 eduki (informazio eta iritzi batera). Iturria: autorea.

10.2.3.1 Ikurrak urtealdika

- **1903-1914:** Lehen Mundu Gerraren aurretik ikurrik ez. Nazio-sentimendua bakarrazen, frantsesa, eta Tourreko antolatzaileek ez zuten nazio aurkakotasunik euren mugetatik at, batez ere kanpoko egunkarien maiztasun mugatua izateagatik.
- **1930-1970:** portzentajea gora doa, baina oso motel.
- **1978-2013:** azken txanpan ikurren presentzia gorantz doa, baina presentzia esplizitua ez da oso handia.

10.2.3.2 *Ikur motak urtealdika*

- **1903-1914:** lehendabiziko etapan maillota dugu nazio-ikur bakarra.
- **1930-1970:** urtealdi honetatik aurrera dagoeneko oinarrizko ikur guztiak agertzen dira eta baita Beste multzokoak ere -kopuruz lehena-. Bakarka identifikatuen artean maillotak nagusi izaten segitzen du. Banderak eta hizkuntzak garrantzi berbera daukate.
- **1978-2013:** “aro modernoan” banderaren eta hizkuntzaren presentzia handitu da, baina mailloten tankerara hurbildu barik.

Taula 35: ikurren motak urtealdika

(%)	Maillot	Bandera	Hizkuntza	Beste	Guztia
1903-1914	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
1930-1970	63,6	9,1	9,1	18,2	100,0
1978-2013	55,7	22,2	13,0	9,2	100,0
Guztia	56,3	21,3	12,7	9,6	100,0

N = 197 eduki (informazio eta iritzi batera). Iturria: autorea.

Guztia: maillota da ikur nagusia (%56,3) eta atzetik Bandera (%21,3) eta Hizkuntza (%12,7) agertzen dira, ordena horretan. Merkataritza-markak agertu arren, maillotaren arbela ezinbestekoa da nazio ikurrak ikusarazteko.

10.3 Nazio-identitatea eta leinuak

Azpiatal honetan emaitzak aurkeztu aurretik, argibide metodologiko bat egin nahi da, leinuen kodetzean hainbat posibilitate eta konbinazio egon daitezkeelako¹⁶⁸.

¹⁶⁸ Albiste edo iritzi-artikulu batean leinu bat soilik agertzen bada, kategoria bakun batekin (espainiarra, euskalduna, frantsesa, etab.) kodetzen da. “Beste” kategorian kokatu dira leinu ez horren ugariak (txekiarra, letoniarra, mexikarra, etab.) Baina eduki-item batean bi leinu edo gehiago badaude, orduan “batzuk” modura kodetu da, eta beste zutabe batean (51.Leinu-2) zehaztu dira zein diren leinu horiek. Ondorioz, ikertutako laginean kodetu den leinu-kopurua ez da soilik 6.766 kasukoa izan, baizik eta zenbaki hori gehi “batzuk” kategoriaren baitan agertu diren 1.876 kasu gehiago; 8.642 guztira. Emaitza guztiak ateratzeko prozedura berdina mantentzeko, erabaki da “Beste” eta “Batzuk” kategoriak multzotzea eta, beraz, lagin osoa 6.766 edukiz osatua mantentzea. Horrela ateratako emaitzak konparatu dira 8.642 itemeko laginarekin lortutakoekin eta egiaztatu da bien portzentajeak oso berdintsuak direla, aldea %5a baino txikiagoa izanik. Beraz, ziurtatu da 6.766 edukiko laginaren bitartez lortutako emaitzak baliagarriak eta fidagarriak direla.

10.3.1 Nazio-identitatearen leinuak herrialdeka eta urtealdika

Nazio-identitatearen ezaugarri nagusietako bat leinuaren kontzeptua da. Beraz, informazioan agertzen diren parte-hartzaileen leinua zehazki adierazita badago, hainbat kategoriaren¹⁶⁹ arabera kodetu eta aztertu da, azterketarako betiere kontuan hartuta metodologia atalean esandakoak.

Herrialdeetako prentsaren arabera

Euskal Herriko prentsari begiratuz, lehenago esan dugun moduan, identitatea ez da aipatzen albisteen ia hiru laurdenetan (%74,2). Aipatzen diren leinuetan, portzentajeak ez dira oso desberdinak orokorrean, zeren zazpi leinutan nazio-identitatea %4aren azpitik da. Logikoa denez, euskaldunen leinua da aipu gehien dituen, baina hau ere portzentaje nahiko txikian (%10,0). Horren presentzia erdia baino zertxobait gehiago betetzen du “Beste + Batzuk” atalak (%6,8).

Frantziako prentsari begiratuz, identitatea ez da agertzen berrien %21,3an. Portzentaje txikiagoa dauka frantses identitateak bertako prentsan: %13,9. Multzoak eginez, hiru maila bereiz daitezke: frantziar leinua lehen mailan; bigarrean, espainiar, belgiar eta italiar identitateak, %6 inguruko portzentajearekin; eta hirugarren mailan beste herrialdeak (Alemania, Britainia Handia, AEB eta Euskal Herria), %2 azpitik. “Beste+Batzuk” kategoriak %42,5eko portzentajea dauka eta hemen sartzen dira leinu desberdin ugari, mundu guztikoak, portzentaje oso txikiekin. Dena den, hamar leinu mota ezberdinetatik zazpitan aipamen-portzentajerik handiena frantziar egunkarietan topa daiteke.

Espainiako prentsari begiratuz, honetan espainiar (%16,7) eta frantziar (%10,0) identitateen alderaketa dago batez ere. Beste herrialde guztietako identitatearen presentzia oso txikia da, %4aren azpitik gehienak, belgiar identitatetik hasita jarraian italiarra, euskalduna, alemaniarra, AEBtarra eta britainiarra datoz.

Azkenik, hiru herrialdeetako prentsaren artean diferentzia estatistiko adierazgarriak ote dauden jakiteko, Chi Karratuaren test-a egin zaie bost kategorია ugarienei (ez dago, espainiar, frantses, euskaldun, belgiar, italiar), hau da, %3 baino

gehiagoko presentzia dutenei, eta emaitzek adierazi dute diferentzia estatistiko esanguratsua dagoela $p < 0.01$ esanahi mailan: $X^2(10, N = 222) = 61.654, p < .00001$.

Taula 36: Nazio-identitatea eta leinua herrialdeka eta urtealdika

(%)	Ez	Espai.	Fran.	Belg.	Eusk.	Ital.	Alem.	Britain.	AEB	Beste+ Batzuk	Guztia
EHko prentsa	74,2	1,4	2,1	0,5	10,0	1,8	1,4	1,3	0,5	6,8	100
1978-2013	74,2	1,4	2,1	0,5	10,0	1,8	1,4	1,3	0,5	6,8	100
Espainiako prentsa	43,4	16,7	10,0	3,8	2,7	2,9	1,6	1,3	1,4	16,2	100
1903-1914	90,9	1,8	5,5	0,0	0,0	1,8	0,0	0,0	0,0	0,0	100
1930-1970	37,9	20,3	14,7	7,4	0,4	5,2	1,2	0,8	0,0	12,1	100
1978-2013	44,5	15,7	8,3	2,5	3,7	2,1	1,8	1,5	1,9	18,0	100
Frantziako prentsa	21,3	5,5	13,9	5,9	0,6	5,0	1,6	1,7	1,9	42,5	100
1903-1914	73,7	0,5	4,3	1,6	0,0	2,7	0,5	0,0	0,0	16,7	100
1930-1970	21,5	4,1	17,6	13,7	0,0	9,1	1,3	1,1	0,0	31,5	100
1978-2013	11,5	7,0	14,0	3,2	1,0	3,5	2,0	2,3	3,2	52,4	100
Guztia	43,0	11,5	9,7	3,8	3,4	3,2	1,6	1,4	1,4	21,1	100

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Izenburuen laburdurak: Ez dag. (ez dago leinurik); espai. (espainiarra); frant. (frantziarra); belg. (belgiarra); ital. (italiarra); euskal (euskalduna); alem. (alemaniarra); brit. (britaniarra); AEB (estatubatuarra); Oharra: (1) "beste+batzuk" zutabeen bi

kategoriak batu egin dira eta egiaztatu da emaitzak baliagarri eta fidagarriak direla. "Batzuk" kategoriak esan nahi du leinu bat baino gehiago dagoela albiste batean. Iturria: autorearen. Chi karratua, $p < 0.01$ -ean:

$$X^2(8, N = 212) = 57.751, p < .00001.$$

Leinu motaren arabera

Epigrafe honetan aztertzen da Tourraren inguruko eduki guztietan agertzen diren eta ez diren leinu esplizituen deitura eta kopuru osoa, kontuan hartu gabe non edo zein roletan agertzen diren.

- **Frantziar identitatea:** frantziar prentsan %13,9 da; Espainiakoan apur bat gutxiago (%10,0) eta EHko prentsan %2,1 soilik.
- **Espainiar identitatea:** Espainiako prentsan portzentaje altua dauka (%16,7); baina Euskal Herrikoan oso txikia (%1,4) eta Frantziakoan apur bat gehiago (%5,5).
- **Euskal identitatea:** EHko prentsan %10,0; baina Espainiakoan gutxi (%2,7) eta Frantziakoan are gutxiago (%0,6).

¹⁶⁹ Espainiarra, euskalduna, frantsesa, italiarra, belgiarra, alemaniarra, britaniarra, estatubatuarra,

- **Belgiar identitatea:** Frantziako prentsan nahiko aipamen dago (%5,9); EHko prentsan %0,5 soilik; eta Espainiakoan erdibidean (%3,8).
- **Italiar, alemaniar, britainiar eta AEBtarren identitatea:** lau herrialde hauen identitateen presentzia mugatuagoa da oraindik. Italiar leinuak %5 aipagarria lortzen du Frantziako prentsan baina askoz gutxiago Euskal Herriko eta Espainiakoan. Beste hiru leinuek (alemaniar, britainiar eta estatubatuarra) portzentajeak %1ean daude.
- **“Beste” gehi “batzuk” kategoria:** Frantziako prentsan agertzen da gehien kategoria hau, %42,5arekin. Izan ere, Frantziako Tourra hedabide frantsesek zuzenean edo zeharka antolatu dutenez, ondoriozta daiteke interes berezia jartzen dutela nazionalitate gehiago aipatzen, karreraren nazioartekotasuna adierazteko. Ondorioz, frantziar egunkarietan agertzen diren leinuak asko izaten dira (kolonbiarra, mexikarra, eslovakiarra, eta abar luzea); beste bi herrialdeetako prentsan baino askoz gehiago.

Irudi 34: Espainiar eta frantziar identitateen ondoren, belgiarra da gehien aipatzen den identitatea (%3,8) eduki guztiak kontuan hartuta.



Iturria: Le Monde, 1962-06-30.

batzuk, beste, eta ez dagokio.

Emitza orokorrak

Identitatearen aipamena. Argi dago identitaterik ez badago berrien %43,0ean, egon badagoela gainerako %57,0ean. Beraz, leinuen presentzia handiagoa dela, sakabanaturik dagoen arren. EHko prentsak identitatearen aipamen gutxi egiten du beste herrialdeekin alderatuta. Beste era batera esanda: frantziar egunkarietan lau berritatik hiruk identitatea aipatzen dute eta Espainiako egunkarietan ia erdiak jarraitzen du bide bera.

Identitatearen pluraltasuna. EHko prentsak dauka pluraltasunean balio berdintsuenak aipu gehien dituzten herrialde desberdinen artean, guztiek %2 inguruko portzentajea baitute, Euskal Herrikoak soilik apur bat gehiago, aipaturiko %10,0. Frantziak identitatea hiru mailatan dauka: %13,9 berea; %6 multzo bat; eta %2 azpitik besteak. Bestetik, espainiar prentsak identitatea fokatzen du frantziar eta espainiarren arteko alderaketan edo lehian, gainerako guztiak %4aren azpitik utziz. Identitatearen pluraltasun honen baitan azpimarratzekoa da Beste + Batzuk atalaren garrantzia guztiz desberdina dela herrialdea zein den: Euskal Herriko prentsan portzentajea %6,8koa da, Espainiako prentsak bikoiztu egiten du aise (%16,2) eta Frantziako egunkarietan ia erdiraino heltzen da (%42,5), primeran islatuz Tourrak duen eta Tourrari eman nahi zaion nazioarte-izaera.

10.3.2 Nazio-leinuak egunkarika eta egunkari motaka

10.3.2.1 Leinutasunaren presentzia

Egunkari motaren arabera, egunkari generalistetan leinuaren presentzia %48,6an agertzen da esplizituki eta kirol egunkarietan %66,3an. Beraz, azken hauek nabarmenago aipatzen dute naziotasunaren osagai funtsezko hau, %17,7ko diferentziarekin. Baina, aldea estatistikoki adierazgarria al da? Chi Karratuaren frogatik aplikatuz, egiaztatu da, $p < .05$ esanahi maila kontsideratuz eta Yates-en korrekzio faktorea sartuta (askatasun gradua 1 delako), egunkari generalista eta kirolekoen arteko diferentzia hori esanguratsua dela: Yates-en $X^2(1, N = 200) = 5.238$, $p = .022099$.

Taula 31: nazio-identitatearen presentzia egunkarika

(%)	Leinua ez	Leinua bai	Guztia
Generalistak	51,4	48,6	100,0
ABC	44,1	55,9	100,0
Berria	81,0	19,0	100,0
Egin	80,9	19,1	100,0
El País	67,8	32,2	100,0
Eusk. Egunkaria	71,1	28,9	100,0
Gara	63,2	36,8	100,0
Le Monde	9,6	90,4	100,0
Kirolekoak	33,7	66,3	100,0
L'Auto	48,2	51,8	100,0
L'Equipe	20,6	79,4	100,0
Marca	11,3	88,7	100,0
Mundo Deportivo	61,2	38,8	100,0
Guztia	43,0	57,0	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea. Chi Karratua $p < .05$ ean: Yates-en

$X^2 (1, N = 200) = 5.238, p .022099$.

10.3.2.2 Leinu desberdinak

Nazio-leinu desberdinek egunkari mota bietan dituzten balioak aztertu da hemen. Laburbilduz, ondoko taulan ikus daitekeen modura, bost kategoria nagusien artean (ez dago, espainiar, frantses, euskaldun, belgiar, italiar) portzentaje diferentziak ez dira estatistikoki adierazgarriak. Chi Karratuaren froga erabiliz egiaztatu da, bi aldagaien artean (egunkari mota eta leinuak) ez dagoela erlazio nabarmenik, $p < .05$ esanahi maila kontsideratuz: $X^2 (4, N = 143) = 7.887, p .095806$.

Hiru mailako eskala

Egunkariak dituzten portzentajeak aztertuz, nazio-leinuaren presentzia hiru mailatan jar daiteke.

- **Naziotasun-identitatearen presentzia txikia (<%39):** sei egunkari kokatzen dira sail honetan, euskal egunkari guztiak (Berria, Egin, Euskaldunon Egunkaria eta Gara) eta Espainiako El País zein Mundo Deportivo. Nazio-identitate esplizitua agertzen da %19-38 bitartean.

- **Naziotasun-identitatearen presentzia ertaina (%40-69):** bi egunkari daude tarte honetan, ABC espainiarra eta L'Auto frantziarra %50aren inguruan biak.
- **Naziotasun-identitatearen presentzia handia (>%70):** azkenik, beste hiru egunkariak, L'Equipek (%79,4) Marcak (%88,7) eta Le Mondek (%90,4), behetik gora, nazio-identitatearen ñabardura argia daukate euren orrietan.

Taula 38: identitatearen eta leinuen portzentajea egunkarika

(%)	Ez dago	Espai.	Fran.	Belg.	Euskal.	Ital.	Aleman.	Britain.	AEB	Beste+	Guztia
										Batzuk	
Generalistak	51,4	6,7	8,9	3,3	3,9	2,7	1,5	1,3	1,5	18,8	100,0
ABC	44,1	14,4	14,7	5,9	0,5	3,9	1,8	1,1	1,8	11,7	100,0
Berria	81,0	0,7	0,7	0,0	4,2	1,4	2,1	0,7	0,0	9,2	100,0
Egin	80,9	0,5	1,7	1,0	9,0	1,0	0,2	0,0	0,2	5,6	100,0
El País	67,8	6,9	6,8	2,3	2,6	1,0	1,4	1,0	1,4	8,8	100,0
Eusk.	71,1	3,8	4,1	0,3	7,6	3,1	2,1	3,1	0,0	4,8	100,0
Egunkaria											
Gara	63,2	0,4	1,2	0,4	17,4	1,9	2,3	1,6	1,9	9,7	100,0
Le Monde	9,6	4,7	13,8	5,2	0,5	4,1	1,3	2,0	2,8	55,9	100,0
Kirolekoak	33,7	16,8	10,6	4,3	2,8	3,8	1,7	1,4	1,2	23,6	100,0
L'Auto	48,2	1,5	7,4	7,4	0,0	7,1	1,5	0,0	0,0	26,9	100,0
L'Equipe	20,6	8,9	18,1	6,0	1,1	4,8	2,1	2,3	2,0	34,1	100,0
Marca	11,3	30,6	10,9	2,2	5,6	3,0	2,0	1,6	2,0	30,9	100,0
Mundo	61,2	10,3	7,2	4,7	1,6	3,3	1,2	1,3	0,3	8,9	100,0
Deportivo											
Guztia	43,0	11,5	9,7	3,8	3,4	3,2	1,6	1,4	1,4	21,1	100,0

N = 6.766 eduki (informazio eta iritzia sartuta). Izenburuen laburdurak: Ez dag. (ez dago leinurik); espai. (espainiarra); frant. (frantziarra); belg. (belgiarra); ital. (italiarra); euskal (euskalduna); alem. (alemaniarra); brit. (britainiarra); AEB (estatubatuarra); Oharra: (1) "beste+batzuk" zutabeen bi kategoriak batu egin dira eta egiaztatu da emaitzak baliagarri eta fidagarriak direla. "Batzuk" kategoriak esan nahi du leinu bat baino gehiago dagoela albiste batean. Iturria: autorea. Chi karratua, $p < .05$ -ean:

$$\chi^2(4, N = 143) = 7.887, p = .095806.$$

Leinu identitate desberdinetan arreta jarriz, emaitzak hauek dira:

- **Frantziar identitatea:** L'Equipe, ABC, Le Monde eta Marca egunkarietan islatzen da gehien, %13-18 tartean. Berria, Egin eta Gara ez dira iristen %2ra. Erdian, %4-8 artean, Euskaldunon Egunkaria, El País, Mundo Deportivo eta L'Auto daude.
- **Espainiar identitatea:** gutxien islatu dutenak Egin, Gara, Berria eta L'Auto izan dira, %1aren inguruan. Erdibidean L'Equipe, El País, Mundo Deportivo, L'Equipe eta ABC daude, %4-14 bitartean eta nabarmen aparte Marca %30arekin.

Ondoko lerroetan, espainiar leinuaren adibide bat. Mundo Deportivo, 1910-06-23. Kasu honetan protagonista Vicente Blanco bilbotarra izan zen, Tourrean parte hartu zuen lehen euskalduna, alegia. Garai hartan ez zegoen euskal egunkaririk:

“Un español inscrito en la “Tour de France” / Al enterarnos de que uno de nuestros compatriotas, el esforzado campeón Vicente Blanco, de Bilbao, se había inscrito en la gran carrera “Tour de France” que con tanto éxito viene organizando nuestro querido colega L’Auto, sentimos una satisfacción inmensa.”

- **Euskal identitatea:** Gara goian dago (%17,4), ondoren Euskaldunon Egunkaria eta Egin (%7-9ra) eta gero, %5aren bueltan, Marca eta Berria. Gainerakoek ez dute ia islarik. Guztira euskal leinuak presentziaren %3,4 dauka aztertutako egunkarietan. L’Auto da euskal islarik ez duen egunkari bakarra.
- **Belgiar identitatea:** laugarren leinua dugu belgiarrena, baliteke frankofoniarengatik eta Tourreko historian zehar izan duen garrantziaren lekuko, ostean ikusiko dugun italiar leinuarekin batera. L’Auton, L’Equipen, Le Monden, ABC-n eta Mundo Deportivon %5-7,5erako presentzia dauka. Gainerakoetan oso txikia da. Berria da belgiar aipamenik ez duen egunkari bakarra. Belgiarren batez bestekoa da %3,8, euskaldunena baino apurtxo bat gehiago. Beste batzuetan flandriar eta valoniar nazio-identitateen arteko liskarretatik ere heldu da belgikar leinua orrialdeetara.
- **Italiar identitatea:** L’Auto nabarmentzen da italiar leinua aipatzean (%7,1) beste egunkarietan presentzia ez da %5era heltzen, baina egunkari guztietan agertzen da italiar leinurik %3,2ko presentzia osatu arte. Gainerako leinuak (britainiarra, alemaniarra, AEBtarra) ez dira %2ra iristen.
- **“Beste” + “Batzuk” herrialde-kategoria** ere presente dago egunkari guztietan, baina bakarrik L’Auton gainditzen du erdiko marra (%55,9).

10.3.3 Nazio-identitatearen leinuak urtealdika

- **Nazio-identitatea ez agertzea:** Lehen epean (1903-1914) du kopururik altuena (%77,6) eta ostean erdiaren inguruan mantentzen da.

- **Frantziar identitatea:** Bigarren epealdian (1930-1970) nagusi da (%15,1) eta gero erdira jaitsi da. Hasieran frantziar leinuak ezagutu du portzentajerik txikiena.
- **Espainiar identitatea:** Joera frantziarraren modukoa da, erdiko epealdian nagusi, hasieran oso gutxi eta hirugarrenean ehuneko %11ren inguruan.
- **Euskal identitatea:** Lehen epealdian ez da agertzen eta ia gauza bera gertatzen da bigarrean. Hirugarrenean ez da %5era iristen.
- **Belgiar identitatea:** 1930-1970 epealdian %9 dauka eta oso gutxi gainerako bi epealdietan.
- **Italiar, alemaniar, britainiar eta AEBtarren identitatea** oso txikia da epealdi guztietan eta hiru kasuetan ez da inoiz %2ra heldu.
- **“Beste” + “Batzuk” herrialde kategoria** presente dago epealdi guztietan, eta epealdiak pasa ahala gero eta altuagoa da (%12,9-%18,0-%22,4).

Taula 39: identitatea eta leinua urtealdika

(%)	Ez	Espai.	Fran.	Belg.	Euskal.	Ital.	Aleman.	Britain.	AEB	Beste+ Batzuk	Guztia
1903-1914	77,6	0,8	4,6	1,2	0,0	2,5	0,4	0,0	0,0	12,9	100,0
1930-1970	32,9	15,5	15,6	9,3	0,3	6,4	1,2	0,0	0,9	17,9	100,0
1978-2013	44,4	10,8	8,1	2,2	4,5	2,3	1,8	1,9	1,6	22,4	100,0
Guztia	43,0	11,5	9,7	3,8	3,4	3,2	1,6	1,4	1,4	21,1	100,0

N = 6.766 eduki (informazio eta iritzia sartuta). Izenburuen laburdurak: Ez dag. (ez dago leinurik); espai. (espainiarra); frant. (frantziarra); belg. (belgiarra); ital. (italiarra); euskal (euskalduna); alem. (alemaniarra); brit. (britainiarra); AEB (estatubatuarra); Oharra: (1) “beste+batzuk” zutabeen bi kategoriak batu egin dira eta egiaztatu da emaitzak baliagarri eta fidagarriak direla. “Batzuk” kategoriak esan nahi du leinu bat baino gehiago dagoela albiste batean. Iturria: autorea.

Urtealdi bakoitzeko konparaketa

- **1903-1914:** Frantsesaren atzetik italiar leinuak soilik gainditzen du %2aren langa. Identitate ezari dagokion ehunekoa da nagusi (%77,6).
- **1930-1970:** Epealdian identitate eza bakarka nagusi bada ere (%32,6) identitatearen presentzia handiagoa da. Espainiar, frantziar, belgiar eta italiar leinuek euren portzentajerik handienak lortzen dituzte.
- **1978-2013:** Identitatea ere nagusi da, eza %44,4koa izanik. Euskal, alemaniar, britainiar eta estatubatuar leinuek euren kuotarik handiena daukate.

10.4 Nazio-identitatea eta gatazkatasuna

Nazio-identitateari begirako gatazkatasuna informazio edo iritzi edukietan ematen denean, haren modua eta tonua **erasokorra** izan daiteke beste identitate batekiko edo batzuekiko, hau da, nazio-identitate bat goratzeko bestea gutxietsiz edo erasotuz. Halaber, jarrera **adiskidetsua** izan daiteke beste identitate batekiko edo batzuekiko, horien identitatea goratzen eta adiskidetsuki deskribatzen denean. Albisteen testuan edo irudietan gatazkatasuna adierazten duten terminoak, irudiak edo sinboloak bilatu eta kodetu dira.

Irudi 35: gatazkaren adibidea.

Vars y el Allós. A su rueda se llevó a Camusso y a Vervaecke, dos hombres espabilados. Y esto es precisamente lo que contraría a los "hinchas" franceses: que Vietto, con su "tirón", haya dado lugar a que Italia y Bélgica se afiancen en sus posiciones.

De otra parte hay que considerar que como los nacionales de este país esperan y desean la recuperación de Georges Speicher, actual líder francés, es manifiesta. De día en día se nota mejorar su forma. Se aguarda que al llegar al Mediodía su clasificación sea altamente honorable, y siendo así hay que reconocer que la "faenita" de Vietto no ha de resultarles agradable.

Iturria: ABC, 1935-07-14.

10.4.1 Identitatea eta gatazkatasuna herrialdeka eta urtealdika

Gatazkatasuna ez agertzea da ohikoena (%91,8 emaitza orokorra) batez ere Euskal Herriko egunkarietan (%97,4), eta %90koa ere beste bi herrialdeetan. Alderantzizko begirada hartu eta gatazkatasunaren bi kategorien (adiskidetsu gehi erasokor) batuketa eginez, gatazkatasunaren presentzia %9 ingurukoa da espainiar eta frantziar prentsan, eta %2,6koa euskal prentsan. Beraz, argi geratzen da hiru herrialdeetako prentsan ez dagoela diferentzia estatistiko adierazgarririk: $p < .01$ esanahi mailan: $X^2(2, N = 300) = 4.218, p 0.12135927$.

Halaber, gatazkatasunaren bi kategoriek, erasokor zein adiskidetsu, antzeko portzentajeak lortzen dituzte herrialde bakoitzaren baitan eta, emaitza orokorrari begiraturaz, %4,0 dira eduki adiskidetsuak eta %4,2 erasokorrak.

Taula 40: identitatea eta gatazkatasuna herrialdeka eta urtealdika

(%)	Gatazkatasuna ez	Gatazkatasuna			Guztia
		Adiskidetsu	Erasokor	Azpiguztia	
Euskal Herriko prentsa	97,4	1,0	1,6	2,6	100,0
1978-2013	97,4	1,0	1,6	2,6	100,0
Espainiako prentsa	90,9	4,2	4,9	9,1	100,0
1903-1914	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
1930-1970	93,4	2,5	4,0	6,6	100,0
1978-2013	89,8	4,9	5,4	10,2	100,0
Frantziako prentsa	90,4	5,7	3,9	9,6	100,0
1903-1914	98,9	0,5	0,5	1,1	100,0
1930-1970	92,0	6,1	2,0	8,0	100,0
1978-2013	88,0	6,5	5,5	12,0	100,0
Guztia	91,8	4,0	4,2	8,2	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea. Gatazkatasuna bai/ez aldagaian, Chi karratua, $p < .01$ mailan: $X^2 (2, N = 300) = 4.218$, $p 0.12135927$.

Epealdi bakoitzeko konparaketa

- **1903-1914:** Gatazkatasunaren markarik ez dago.
- **1930-1970:** Espainiako prentsan erasokorrak dira edukien %4,0 eta adiskidetsuak %2,4. Frantzian, aldiz, kontrako joera dago: erasokorrak %2,0 eta adiskidetsuak %6,1.
- **1978-2013:** urtealdirik parekatuena da hiru herrialdeetako egunkarietan. Euskal Herrian %1,6 erasokor eta %1,0 adiskidetsu; Espainiako egunkarietan %5,4 erasokor eta %4,9an adiskidetsu, eta frantses egunkarietan %5,5 erasokor eta %6,5 adiskidetsu.

10.4.2 Identitatea eta gatazkatasuna egunkarika

Egunkari motaren arabera, gatazkatasuna kontzeptua ez da aurkitu egunkari generalistetako edukien %93,8an eta kirol egunkarietako %89,6an, hau da, oso portzentaje berdintsuak. Beraz, beste identitateekiko jarrera erasokor edo adiskidetsuek oso portzentaje txikiak dituzte, eduki guztien %2-6 tartean soilik, inolako adierazgarritasun estatistikorik gabe. Egunkarien emaitzei begiraturaz, egoera hau da:

- **Erasokor besteekiko:** Egunkarien artean diferentziak daude. Batetik erasokortasun gutxi erakusten dutenak, %0-4 sardean (L'Auto, Berria, Egin, Euskaldunon

Egunkaria, Gara, L'Equipe, Mundo Deportivo eta El País) eta portzentaje altuagoak dituztenak, %4tik-%8ra bitartean (ABC, Le Monde eta Marca).

- **Adiskidetsu besteekiko:** atal honetan multzoak bestelakoak dira. Batetik nabarmen adiskidetsuak direnak (L'Equipe eta Marca) %7tik-%11 bitartean eta, bestetik, adiskidetasun gutxi o txikiagoa behintzat erakusten dituenak (Egin, Gara, Mundo Deportivo, Berria, El País, Euskaldunon Egunkaria, ABC, L'Auto eta Le Monde).
- **Erasokortasuna vs adiskidetasuna:** Sei egunkaritan erasokortasuna nagusitzen da (ABC, Egin, El País, Gara, Le Monde eta Mundo Deportivo) Euskaldunon Egunkarian portzentajea berdina da eta gainerako lauetan adiskidetasuna da nagusi.

Taula 32: identitatea eta gatazkatasuna egunkarika

(%)	Ez dagokio	Erasokor	Adiskidetsu	Guztia
Generalistak	93,8	4,0	2,2	100,0
ABC	93,0	4,9	2,0	100,0
Berria	97,9	0,7	1,4	100,0
Egin	98,1	1,5	0,5	100,0
El País	95,1	3,6	1,3	100,0
Eusk. Egunkaria	96,6	1,7	1,7	100,0
Gara	96,9	2,3	0,8	100,0
Le Monde	88,3	6,5	5,2	100,0
Kirolekoak	89,6	4,4	6,1	100,0
L'Auto	95,9	0,6	3,6	100,0
L'Equipe	89,9	2,5	7,6	100,0
Marca	81,7	7,8	10,5	100,0
Mundo Deportivo	96,3	2,7	1,0	100,0
Guztia	91,8	4,2	4,0	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea.

10.4.3 Identitatea eta gatazkatasuna urtealdika

- **1903-1914:** Gatazkatasuna ia ez da agertzen lehen epean (1903-1914) eta Erasokor- eta Adiskidetsu- atalek kopuru berbera daukate (%0,4).
- **1930-1970:** Erasokor- eta Adiskidetsu- atalek presentzia handiagoa daukate, baina oreka mantentzen da (%3,4 vs %3,6).
- **1978-2013:** Ez da joera-aldaketarik ematen eta parametroak ia kalkatuak dira: Erasokor (%4,6) eta Adiskidetsu (%4,3).

Taula 33: identitatea eta gatazkatasuna urtealdika

(%)	Ez dagokio	Erasokor besteekiko	Adiskidetsu besteekiko	Guztia
1903-1914	99,2	0,4	0,4	100,0
1930-1970	93,0	3,4	3,6	100,0
1978-2013	91,1	4,6	4,3	100,0
Guztia	91,8	4,2	4,0	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea.

10.5 Nazio-identitatea eta aurkakotasuna

Nazio-identitateaz ari denean, aurkakotasuna ezinbestekotzat jo daiteke hainbatetan, norberaren edo besteena goraiatzeko edo gaitzesteko orduan. Nazio-identitatearekiko jarrera lau aldagai hauen arabera¹⁷⁰ aztertuko da:

- **Propioaren alde/aurka:** egunkari batek norberaren nazio-identitatearen alde/aurka jotzen duenean aztertutako edukian.
- **Bestearen alde/aurka:** egunkari batek beste identitatearen edo identitateen alde/aurka jotzen duenean aztertutako edukian.

10.5.1 Identitatea eta aurkakotasuna herrialdeka eta urtealdika

Herrialdeen portzentajeetan konparaketa egitean, desberdintasun estatistiko adierazgarriak daudela antzeman daiteke. Chi karratuaren frogak adierazten du bi aldagaien artean (herrialdeak eta aurkakotasunaren presentzia bai/ez) badagoela erlazorik eta, beraz, hiru herrialdeetako egunkarien artean diferentziak esanguratsuak direla, $p < .01$ esanahi mailan: Yates-en X^2 (2, N = 300) = 13.398, p 0.001232.

Euskal Herriari begiratuz, ez da ia aurkakotasunik ematen (%94,6), eta ematen denean identitate propioaren aldeko jarrera da nagusi (%2,8). Beste hirurek ez dute ia eraginik.

Espainiari begiratuz, identitate propio aldeko atalak %10aren langa gaitzen du. Identitate propioaren aurkako kategoriak pisu gutxi dauka eta apur bat gehiago "Beste alde" eta "Beste aurka" azpikategoriek.

¹⁷⁰ Beste kasuetan, kontzeptu honen aztarnarik ikusten ez denean, aurkakotasun eza modura kodetuko dira edukiak.

Frantziari begiratu, “Propio alde” kategoria %10aren inguruan dabil; gutxi da, baita ere, “Propio aurka”; eta %6aren inguruan aurki daitezke “Beste alde” eta “Beste Aurka” azpikategoriak.

Taula 34: identitatea eta aurkakotasuna herrialdeka eta urtealdika

(%)	Ez	Aurkakotasuna bai (1)					Guztia
		Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Azpiguz.	
EH	94,6	2,8	0,1	1,1	1,5	5,4	100,0
1978-2013	94,6	2,8	0,1	1,1	1,5	5,4	100,0
Espainia	79,4	11,0	2,0	4,1	3,6	20,6	100,0
1903-1914	96,4	1,8	0,0	1,8	0,0	3,6	100,0
1930-1970	79,6	11,7	2,3	3,1	3,4	20,4	100,0
1978-2013	79,0	10,9	1,9	4,5	3,7	21,0	100,0
Frantzia	75,5	10,6	2,7	5,3	5,9	24,5	100,0
1903-1914	97,3	2,2	0,0	0,0	0,5	2,7	100,0
1930-1970	78,2	14,0	1,3	4,6	2,0	21,8	100,0
1978-2013	70,2	10,7	3,8	6,5	8,8	29,8	100,0
Guztia	80,9	9,5	1,8	3,9	3,8	19,1	100,0

N = 6773 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Oharra: (1) kategoria bakunak soilik hartu dira kontuan eta ez kategoria konposatuak (propio/beste eta alde/aurka konbinazioak), oso kopuru txikia delako (33 item). Iturria: autorea. Herrialdeetako aurkakotasuna bai/ez kategorietan Yates-en X^2 (2, N = 300) = 13.398, p 0.001232; halaber, lau kategoria nagusietan ere

Aurkakotasunaren presentzia daukaten edukietan, azpikategoriaren balioak aztertuko ditugu jarraian.

Propio alde joera edukien %9,5ean islatzen da eta, ezaren kasuan bezala, antzekoa da frantses eta espainiar laginetan (%10,6 eta %11,0 hurrenez hurren) eta bestelakoa euskal laginetan (%2,8). **Propio aurka** laginei begira, kopurua oso txikia da: %1,8. Berrero ere Frantzia eta Espainiako zenbakiek kointziditzen dute (%2,7 eta %2,0) eta Euskal Herriko egunkarietan ia ez da ematen.

Beste alde atalak %3,9 osatzen du eta bertan Frantziako egunkariak (%5,3) eta Espainiakoak (%4,1) parez-pare daude, eta euskal egunkariak %1,1ean soilik islatzen dute. **Beste aurka** atalean portzentaje osoa kalko bat da: %3,8, baina honetan nolabaiteko desoreka soma daiteke: Frantziako egunkariak (%5,9) puntan daude, Espainiakoak ondoren (%3,6) eta Euskal Herrikoak azkenak (%1,5).

Lau kategoria nagusi hauen artean diferentzia estatistikorik ote dagoen ikertu da eta, Chi karratuaren froga egiteko laginean dituzten kopuruak erabiliz, egiaztatu da desberdintasun esanguratsuak daudela hiru herrialdeetako prentsan “propio alde”, “propio aurka”, “beste alde” eta “beste aurka” kategorietan. Estatistikoak hauek dira: $p < .01$ esanahi mailan, $\chi^2 (6, N = 1284) = 17.99$, $p 0.006257$.

Urtealdi bakoitzeko konparaketa

- **1903-1914:** kopuruak oso eskasak dira Frantziako eta Espainiako prentsan.
- **1930-1970:** portzentajerik altuena “Beste alde” azpikategorian dute frantses egunkariak %4,6arekin.
- **1978-2013:** urtealdian, aldiz, Euskal Herriko prentsaren zifrak eskasak dira ez baitu %3a gainditzen inongo kategoriatan. “Propio alde” kategorian kopuru paretsuak dituzte espainiar zein frantses egunkariak %11ren inguruan eta gainerako hiru azpikategorietan frantsesek kopururik altuenak dituzte.

10.5.2 Identitatea eta aurkakotasuna egunkarika

Egunkari motaren arabera, aurkakotasuna kontzeptua ez dago presente egunkari generalistetako edukien %89,2an eta kirol egunkarietako %71,7an, bien arteko aldea %17,5 izanik, nahiko handia.

Egunkari motaren aldagaiaren eta aurkakotasunaren bai/ez kategorietan erlaziorik dagoen edo ez ezagutzeko, berriz ere Chi karratuaren froga erabili da eta emaitzak argi utzi du egunkari generalisten eta kirolekoen artean diferentziak esanguratsuak direla, $p < .01$ esanahi mailan: Yates-en $\chi^2 (1, N = 200) = 8.154$, $p 0.004297$.

Aurkakotasunaren kategoriei dagokienez, soilik “propio alde” kategorian ikusten da diferentzia aipagarria egunkari generalisten (%4,3) eta kirolekoen (%15,4) artean. Beste lau kategorietan portzentajeak oso berdintsuak eta oso txikiak dira.

Taula 35: identitatea eta aurkakotasuna egunkarika

(%)	Ez	Aurkakotasuna bai					Guztia
		Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Azpiguz.	
Generalistak	89,2	4,3	1,3	2,0	3,2	10,8	100
ABC	91,9	3,7	0,6	2,1	1,7	8,1	100
Berria	96,5	2,1	0,0	0,7	0,7	3,5	100
Egin	91,8	5,3	0,0	1,5	1,5	8,2	100
El País	94,2	1,8	1,0	1,0	1,9	5,8	100
Eusk. Egunkaria	95,5	1,4	0,3	1,4	1,4	4,5	100
Gara	96,9	0,8	0,0	0,4	1,9	3,1	100
Le Monde	72,6	9,8	4,2	4,2	9,2	27,4	100
Kirolekoak	71,7	15,4	2,4	6,0	4,4	28,3	100
L'Auto	94,4	3,9	0,6	0,6	0,6	5,6	100
L'Equipe	68,0	15,8	2,0	9,4	4,8	32,0	100
Marca	52,6	27,7	4,6	7,5	7,6	47,4	100
Mundo Deportivo	87,9	5,1	0,9	4,2	1,9	12,1	100
Guztia	80,9	9,5	1,8	3,9	3,8	19,1	100

N = 6.733 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Oharra: (1) kategoria bakunak soilik hartu dira kontuan eta ez konposatuak (propio/beste eta alde/aurka konbinazioak), oso kopuru txikia (33 item) delako.

Aurkakotasuna bai/ez kategorietan Chi karratua, $p < .01$ esanahi mailan: Yates-en X^2 (1, N = 200)

= 8.154, $p = 0.004297$. Lau kategoria nagusien arteko Chi karratuan, $p < .01$ mailan, X^2 (6, N = 1284)

= 17.99, $p = 0.006257$.

Egunkariei begiraturaz, aurkakotasun eza gehien jasotzen duena Marca da, %53aren inguruan eta gutxien daukatenak ABC, Egin, El País, L'Auto, Euskaldunon Egunkaria, Berria eta Gara direla, horiek guztiak %90etik gorako portzentajerekin. Erdibidean Le Monde, L'Equipe eta Mundo Deportivo daude.

Propio alde kategorian Marca (% 27,7) ere nabarmentzen da. Bigarren multzo batean Le Monde eta L'Equipe daude (% 10-% 16) eta, azkenean, gainerako guztiak, %5etik behera. Kontrako aldean, **propio aurka** azpikategorian, Marca eta Le Monde %4aren inguruan daude eta gainerako hedabide guztiak ez dira horren erdira heltzen.

Beste alde kategorian ere hiru multzo daude: goian L'Equipe (%9,4) eta Marca (%7,5); erdian Mundo Deportivo eta Le Monde (% 4,2) eta, amaieran, gainerako guztiak %2tik behera. Azkenik, **beste aurka** multzoan, Marca eta Le Monde dira nagusi (%7tik %9ra) eta besteek, L'Equipe egunkaritik hasita, %5etik beherako portzentajea daukate.

Irudi 36: , ABCK “Propio Alde” kategorian du eduki gehien. Hemen adibide bat.



Iturria: ABC, 1953-07-14.

10.5.3 Identitatea eta aurkakotasuna urtealdika

Atal honetan identitatearekin loturiko aurkakotasuna analizatuko da urtealdiei begira. Emaitzak oso orekatuak dira.

- **1903-1914:** tarte honetan aurkakotasun ezarik nabarmenena aurki daiteke (% 97,1) eta Propio alde kenduta ez dago ia mugimendurik.
- **1930-1970:** aurkakotasun-mailarik altuena ematen da sasoi tarte honetan. Batik bat Propio alde azpikategorian (% 12,4).
- **1978-2013:** ez da joera-aldaketarik ematen, baina Propio alde azpikategoriaren portzentajea ez da %10era heltzen.

Taula 36: identitatea eta aurkakotasuna urtealdika

(%)	Ez	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Guztia
1903-1914	97,1	2,1	0,4	0,4	0,0	100,0
1930-1970	79,2	12,4	3,6	3,0	2,0	100,0
1978-2013	80,7	9,1	4,1	4,2	1,9	100,0
Guztia	80,9	9,5	3,9	3,8	1,8	100,0

N = 6.733 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Oharra: (1) kategoria bakunak soilik hartu dira kontuan eta ez konposatuak (propio/beste eta alde/aurka konbinazioak), oso kopuru txikia delako. Iturria:

autorea.

10.6 Nazio-identitatearen irudi-positibotasuna

Nazio-identitatea era positiboan edo negatiboan uler edo azal daiteke, eta jarraian agertzen diren irizpideen arabera azterketa egin da atal honetan:

- **Positiboa:** nazio-identitatea modu positiboan agertzen delako, hitz edo esaldi positiboak daudelako naziotasunaren inguruan edo albistearen esanahia positiboa delako nazio-identitatearentzat.
- **Negatiboa:** nazio-identitatea negatibotzat jotzen da zentzu hori adierazten duen esaldi edo hitz bat edukian dagoenean, eta beste aukeran, albistea bera da negatiboa nazio-identitatearentzat eta ez da derrigorrez eskatzen negatibotasuna adierazten duen adjektibo edo hitz negatibo bat agertzea.
- **Ez dago:** ez da ezer agertzen honen inguruan.

10.6.1 Identitatea eta irudi-positibotasuna herrialdeka eta urtealdika

Hiru herrialdeetako prentsaren artean, positibotasuna “bai/ez” kategorietan, diferentziak txikiak dira, %10,5 baino txikiagoak eta Chi karratuaren froga aplikatuz egiaztatu da ez dagoela desberdintasun estatistikorik, $p < .01$ esanahi mailan eta Yates-en korrekzio faktorearen arabera: $\chi^2 (2, N = 300) = 2.984, p 0.22492236$.

Euskal Herriari begiratuz, ez da ezer agertzen positibotasun/negatibotasunaren inguruan edukien %79,2an. Ematen denean nagusiki positiboa da (%18,8) eta bakarrik %2,0an negatiboa.

Espainiako prentsari begiratuz, ez da ezer agertzen positibotasun eta negatibotasunaren inguruan edukien %73,0an. Eduki positiboaren portzentajea %20,1koa da, euskal prentsaren antzekoa, eta eduki negatiboa %6,9koa.

Frantziari begiratuz, ez da ezer agertzen positibotasun/negatibotasunaren inguruan edukien %83,5ean, tasarik altuena. Kasu honetan alde positiboa (%9,0) eta negatiboa (%7,5) parekoak dira.

Taula 37: identitate/irudiaren positibotasuna herrialdeka eta urtealdika

(%)	Ez dago	Positibotasuna bai		Azpigutzia	Guztia
		Positiboa	Negatiboa		
EH	79,2	18,8	2,0	20,8	100,0
1978-2013	79,2	18,8	2,0	20,8	100,0
Espainia	73,0	20,1	6,9	27,0	100,0
1903-1914	96,4	3,6	0,0	3,6	100,0
1930-1970	63,4	28,6	8,0	36,6	100,0
1978-2013	76,1	17,3	6,6	23,9	100,0
Frantzia	83,5	9,0	7,5	16,5	100,0
1903-1914	96,2	2,7	1,1	3,8	100,0
1930-1970	88,3	8,9	2,8	11,7	100,0
1978-2013	79,0	10,2	10,9	21,0	100,0
Guztia	76,6	17,2	6,2	23,4	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea. Chi karratua, $p < .01$ esanahi mailan:

Yates-en X^2 (1, N = 200) = 8.154, $p = 0.004297$.

Urtealdi bakoitzeko konparaketa

- **1903-1914:** positibotasun/negatibotasun-kopuruak ez dira adierazgarriak, oso eskasak baitira Frantziako eta Espainiako prentsan. Euskal Herriko egunkaririk ez dago.
- **1930-1970:** positibotasun-kopururik handienak topa ditzakegu urtealdi honetan Espainiako egunkarietan (%28,6) Aldiz, askoz baxuagoak ditugu Frantziako prentsan.
- **1978-2013:** urtealdian Euskal Herriko zein Espainiako prentsak positibotasun-tasa handia mantentzen dute (%20 inguru), eta Frantziakoa %10aren bueltan dago. Negatibotasunari dagokionez, Frantzia da buru (%10,9).

Emaitza orokorrak

Positibotasuna azaltzeko orduan Euskal Herriko eta Espainiako egunkariak dira nagusi. **Negatibotasunean**, aldiz, Espainiakoak eta Frantziakoak. Kasu bietan portzentajeak oso antzekoak dira. Positibotasunerako %20aren inguruan eta negatibotasunerako %7aren inguruan.

10.6.2 Identitatea eta irudi-positibotasuna egunkarika

Egunkari motaren arabera, nazio-leinuen irudi-positibotasuna ez da ikusi eta kodetu egunkari generalisten %76,7an eta kirol egunkarien %76,5an, beraz, ia balio berdinak dituzte eta ez da froga estatistikorik behar hori egiaztatzeko. Halaber, egunkarien artean ez dago diferentzia nabarmenik irudi positiboan eta negatiboan ere, bakoitza independenteki hartuta.

Egunkariak aztertuz, bistan da ez dagoela **positibotasun/negatibotasun**-aztarnarik edukien hiru laurdenetan, baina egunkariak portzentaje desberdinak dituzte mota bietan, generalistetan eta kirol egunkarietan. Gauzak horrela, bi kopuru mota antzeman daitezke

ABCK eta Mundo Deportivo eta Garak %65-72 sardean. Hortik gora gainerako guztiak, L'Autoren aipamenarekin, Tourraren sortzailea izan zen egunkariak eduki positibo/negatiborik ez baitu argitaratutako %94,1ean.

Eduki positiboa antzekoa da generalisten eta kirolekoen artean. Hemen hiru multzo nabari daitezke: positibotasun gehin dituztenak Gara, ABC eta Mundo Deportivo (%26-28). Aitzitik, L'Auto (%3,8) eta Le Monde (%8,9) egunkariak portzentajerik txikienak dituzte eta erdian gainerako guztiak %12-17 sardean.

Kontrako norabidetik, **Negatiboa** azpikategorian, bi multzo daude: Le Monden eta Marcaren edukiek %10 gainditzen dute, gutxigatik bada ere, eta gainerakoak %6tik behera daude.

Taula 38: identitate/irudiaren positibotasuna egunkarika

(%)	Ez dago	Positiboa	Negatiboa	Guztia
Generalistak	76,7	17,7	5,6	100,0
ABC	65,8	27,8	6,3	100,0
Berria	82,4	16,2	1,4	100,0
Egin	80,4	17,9	1,7	100,0
El País	82,9	12,5	4,6	100,0
Eusk. Egunkaria	82,1	14,8	3,1	100,0
Gara	72,1	26,4	1,6	100,0
Le Monde	80,1	8,9	10,9	100,0
Kirolekoak	76,5	16,6	6,9	100,0
L'Auto	94,1	3,8	2,1	100,0
L'Equipe	81,7	12,1	6,2	100,0
Marca	77,6	11,9	10,5	100,0
Mundo Deportivo	67,0	28,2	4,8	100,0
Guztia	76,6	17,2	6,2	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea.

Emaitza orokorrak

Emaitzei erreparatuz, Le Monde kenduta, egunkari guztiek eduki/irudi positibo gehiago daukate negatiboak baino. Oro har proportzioa hauxe da: negatibo bakoitzetik hiru positibo daude. Euskal egunkariak bi muturretan daude, negatibotasun gutxien dutenak dira. Positibotasun gutxien islatzen dutenak Frantziako egunkari bi dira.

10.6.3 Identitatea eta irudi-positibotasuna urtealdika

Taula 39: identitate/irudiaren positibotasuna urtealdika

(%)	Ez dago	Positiboa	Negatiboa	Guztia
1903-1914	96,3	2,9	0,8	100,0
1930-1970	70,9	22,7	6,4	100,0
1978-2013	77,4	16,2	6,4	100,0
Guztia	76,6	17,2	6,2	100,0

N = 6.766 eduki (informazioa eta iritzia sartuta). Iturria: autorea.

Identitatearekin loturiko positibotasuna edo ausentzia aztertuko da urtealdiei begira ondoko lerroetan. **1903-1914**: urtealdian positibotasun eza nabaria da (%96,3)

eta geratzen den tarte txikian irudi positiboa nagusi da. **1930-1970:** positibotasunarekin loturiko identitatea agertzen da ia edukien %30ean.

Horren baitan positiboa lau aldiz presenteagoa dago, negatiboarekin alderatuz. **1978-2013:** positibotasun-maila jaisten da baina ia hirukoizten du negatibotasunak duena.

11 Emaizak 4: nazio-identitatearen enkoadrea eta interpretazio-markoak

11.1 Naziotasunaren interpretazio-marko orokorra

Azpiatal honetan naziotasunaren interpretazio-marko orokorra, kualitatiboa, lau kontzeptu eta enkoadre sinboliko garrantzitsuak konbinatuz lantzen da: ikurtasuna, gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna¹⁷¹. Horiek elkarrekin konbinatuz, soslai orokor bat, meta-enkoadre bat eraiki da hiru herrialdeetako prentsan, elkarrekin alderaketak egiteko.

Interpretazio-marko orokor honetarako, 6.766 unitateko lagin osoa hartu da kontuan eta leinuen artean ez da iragazkirik erabili, alegia, **leinu esplizitu guztiak izan dira kontuan**, ez soilik hiru garrantzitsuenak (euskal, espainiar, frantsesa).

Taulan ikusten denez, ikurtasun, gatazkatasun eta aurkakotasun kontzeptuen zutabe edo kategorietan portzentaje guztiak %11en azpitik daude. Horrek esan nahi du, naziotasuna modu diskurtsibo eta sinbolikoan zedarrizten duten parametro horiek ez direla oso ugari agertzen Tourrari buruzko edukietan. Adibidez, ikurtasunaren eta gatazkatasunaren portzentaje-tartea %1-6koa da herrialde bakoitzean; eta aurkakotasuna %1-11 artean dago.

Desberdintasun aipagarria positibotasunaren kontzeptuan aurkitzen da. Izan ere, honen presentzia edukietan (positibo edo negatiboa izan hori) ugariagoa baita, % 16,5-27 sardean kokatua, handienaren eta txikienaren arteko diferentzia soilik %10,5ekoa izanik¹⁷².

¹⁷¹ Metodo-atalean esan denez, gatazkatasunaren markoan bi kategoria ezarri dira: erasokorra eta adiskidetsua beste identitateekiko. Aurkakotasunean, lau azpikategoria nagusi daude: identitate propioaren alde/aurka eta beste identitateen alde/aurka. Positibotasunaren kontzeptuan, edukiak nazio-identitatearentzako positibo edo negatibo izatea ebaluatzen da, eta ez informazio bat bere gaiaren aldetik positibo edo negatiboa den.

¹⁷² Datuak, modu bakanduan eta taula desberdinetan, aurreko atalean ere ikus daitezke. Halaber, ondoren, beste azpiatal batean, tesi honetan garrantzitsuen diren hiru leinu edo nazio-identitateen azterketa berezia egingo da: euskal, espainiar eta frantziar leinuena.

Dena den, lau naziotasun-kontzeptu horietan hiru herrialdeetako prentsaren artean desberdintasun estatistiko adierazgarriak ote dauden egiaztatzeko, Chi Karratuaren froga¹⁷³ egin da eta , $p < .01$ esanahi-mailan, aurkakotasunaren parametroan bakarrik izan da erantzuna baiezkoa eta, aldiz, ezezkoa beste hiruetan (ikurtasun, gatazkatasun eta positibotasuna).

Interpretazio kualitatiboa eginez, estatistikatik harago, nabarmen daitezkeen emaitzak hauek dira:

- **Ikurtasunaren presentzia:** Euskal Herriko prentsa da nagusi alor honetan (%5,8), eta espainiar eta frantziar prentsak soilik %2,6 eta %1,6 lortzen dute, hurrenez hurren. Hiru herrialdeetako prentsaren artean **ez dago desberdintasun estatistiko adierazgarririk** ikurtasunaren presentzian, bai/ez kategoriak alderatuz.
- **Gatazkatasuna:** Frantziako eta Espainiako prentsan argitaratzen dira gatazkatasunaren kontzeptuarekin zerikusia duten eduki gehiago. Izan ere, eduki adiskidetsu eta erasokor kategoriak batuta, espainiar eta frantziar prentsan %9,1 eta %9,6ko portzentajea lortzen baitute hurrenez hurren, hau da, ia kopuru berdina. Aldiz, euskal prentsan %2,6 bakarrik dago. Beste alde batetik aztertuz, bi kategoriak indibidualki hartuta eta elkarrekin alderatuta, portzentaje-oreka handia mantentzen dute, alegia, eduki adiskidetsu eta erasokorrek antzeko balioak dituztela herrialde bakoitzaren baitan (espainiar prentsan, adibidez, %4,2 eta %4,9). Hiru herrialdeetako prentsaren artean **ez dago desberdintasun estatistiko adierazgarririk** gatazkatasunaren presentzian, bai/ez kategorien arabera, ez eta hiru kategorien arteko alderaketa egitean ere (ez, adiskidetsu, erasokor).
- **Aurkakotasuna:** identitatearen parametro honen azpigutzia –lau kategorია nagusien batuketa– oso antzekoa da espainiar eta frantziar prentsan, %20,6 eta %24,5 hurrenez hurren. Aldiz, euskal prentsan %5,4ra bakarrik heltzen da. Kategoriei banaka begiratuz, eta espero zitekeen modura, identitate “propio alde” kategorian dago portzentajerik handiena hiru herrialdeetan, espainiar eta frantziar prentsan %10 ingurura iritsiz. Alderantziz, identitate “propioaren aurkako” edukiek

¹⁷³ Chi karratuaren datuak eta estatistikoak idaztean, zenbakien dezimala edo hamarrenekoa adierazteko puntua erabili da, koma orde, nazioarteko ohiturari jarraituz.

daukate portzentajerik baxuena hiru herrialdeetako prentsan. Beste bi kategorietan balioak txikiak eta berdintsuak dira. Ondorioz, estatistikoki begiratuta, hiru herrialdeetako prentsaren artean **desberdintasun adierazgarria dago** gatazkatasunaren presentzian, bai/ez kategorietan¹⁷⁴. Halaber, diferentzia ere estatistikoki adierazgarria da hiru herrialdeen artean, lau kategoria nagusien arteko alderaketan (propio/beste, alde/aurka)¹⁷⁵

- **Positibotasuna:** kontzeptu honetan, bi kategoriak batuta (positibo eta negatiboa), nazio-identitatearentzako positiboak diren edukiek Euskal Herriko eta Espainiako prentsan dute portzentajerik handiena (%20-27 tartean) eta Frantziako egunkariak atzerago geratzen dira (%16,5). Bi kategoriak banaka aztertuz, eduki positiboak dira nagusi euskal eta espainiar prentsan, antzeko portzentajearekin, hau da, %20 inguruan, eta, alderantziz, eduki negatiboek oso portzentaje txikia dute. Frantziar prentsan, berriz, eduki positiboek eta negatiboek balio berdintsua dute %7-9 artekoa. Beraz, hiru herrialdeetako prentsaren artean **ez dago desberdintasun estatistiko adierazgarririk** positibotasunaren presentzian, bai/ez kategorien arabera¹⁷⁶.

Taula 40: Herrialdeetako prentsak eraikitako nazio-identitate guztien framing orokor bateratua

(1) (%)	(2)	Ikurtasuna Identitate gatazkatasuna				Identitate aurkakotasuna				Identitate positibotasuna			
		Ikurra bai	Adisk.	Erasok.	Azpig.	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Azpig.	Positibo	Negatibo	Azpig.
	EHko Prentsa	5,8	1,0	1,6	2,6	2,8	0,1	1,1	1,5	5,4	18,8	2,0	20,8
	Espainiako prentsa	2,6	4,2	4,9	9,1	11,0	2,0	4,1	3,6	20,6	20,1	6,9	27,0
	Frantziako prentsa	1,6	5,7	3,9	9,6	10,6	2,7	5,3	5,9	24,5	9,0	7,5	16,5
	Batuketa (N)	197	273	281	554	643	124	261	256	1284	1163	421	1584


N = 3.619 item, batuketa pilatua modura hartuta; baina albiste bera egon liteke ikurtasun eta gatazkatasun zutabetan, adibidez. Oharrak: (1) gelaxka bakoitzeko portzentajeak, bertikalki, independente dira elkarrekiko eta ez dute 100 eman behar. Iturria: autorea.

¹⁷⁴ $p < .01$ esanahi-mailan, Yates-en X^2 (1, N = 200) = 8.154, p 0.004297.

¹⁷⁵ $p < .01$ mailan, X^2 (6, N = 1284) = 17.99, p 0.006257.

¹⁷⁶ $p < .01$ esanahi-mailan eta Yates-en korrekzio-faktorearen arabera: X^2 (2, N = 300) = 2.984, p 0.22492236.

Grafiko 6: nazio-identitate guztien interpretazio-marko konbinatua



N = 3.619 item. Iturria: autorea.

11.2 1978-2013 urtealdiko naziotasunaren interpretazio-marko konbinatua

Tesi honetan ehun urteko denbora-esparrua izan da erreferentzia, baina euskal prentsaren kasuan soilik hirugarren urtealdia (1978-2013) hartu denez kontuan – Franko hil ondoren sortutako euskal prentsa berria, alegia– komenigarri ikusi da hiru herrialdeetako prentsaren analisi sinkroniko bat egitea, 1978-2013 urtealdikoa hain zuzen, gaur egungo kazetaritza modernoaren jardueran hiru herrialdeetako egunkari horiek egin dute naziotasunaren enkoadrea eta interpretazioa konparatzeko. Beraz, analisi honetan, 4.998 unitateko lagina, 1978-2013 epealdiari dagokiona, hartu da kontuan; leinu guztiak aztertu dira eta ez da iragazkirik erabili.

Sintesi modura esan liteke hiru herrialdeetako prentsak, 1978-2013 urtealdian, naziotasunaren interpretazio-markoa nahiko baliokidea egin dutela naziotasunaren parametro gehienetan, salbu leinutasunean eta aurkakotasunean. Dena den, parametro bi hauek oso garrantzitsuak dira.

Naziotasuna analizatzeko erabili diren lau enkoadreen edo kontzeptuen emaitza kualitatibo nagusiak honako hauek dira:

Naziotasunaren presentzia: edukiak aztertzean (ikus ondoko taula), portzentajeak nahiko antzekoak dira: Euskal Herriko prentsan, edukien %82,7an dago nazio-identitatearen presentzia; Espainiako prentsan, %77,8an; eta, azkenik, Frantziako prentsan, %90,8an. Gauzak horrela, hiru herrialdeetako prentsaren arteko diferentzia, %13 da. Kategoria-sistema binarioa dela kontuan hartuta (bai, ez), nazio-identitatearen presentziarik ez dago Espainiako prentsako edukien %22,2an; Frantziako %9,2an; eta Euskal Herriko %17,3an.

Nazio-identitatearen presentziaren baitan, **naziotasun esplizituari** dagokionez, ez dago orekarik: oso txikia da Euskal Herriko prentsan (%26,5), erdialdean kokatzen diren Espainiako egunkarietan (%56,3) eta oso handiak dira Frantziako egunkarien edukietan (%88,5). Datuk hauek harreman zuzena daukate leinutasunarekin.

Leinutasuna: naziotasun esplizituak leinuaren presentzia dakar eta, aldi berean, horren falta. Horretan alde nabarmenak daude herrialdeetako prentsaren artean, leinua ez baita agertzen euskal edukien %74,2an. Portzentajea behera doa espainiar prentsaren kasuan (%44,5), eta proportzio berean beherantzago frantsesarena (%11,5). Horrek adierazten du leinuaren presentzia askoz ere ugariagoa dela Frantziako prentsan.

Ikurtasunaren presentzia: Euskal Herriko prentsak du kopururik handiena atal honetan (%5,8), Espainiar eta frantziar prentsak behetik daude (%3,4 eta %2,3) hurrenez hurren. Datuak kontuan hartuta, hiru herrialdeetako prentsaren artean ez dago desberdintasun estatistiko adierazgarririk ikurtasunaren presentzian.

Gatazkatasuna: azterketa orokorrean gertatzen den legez, Frantziako eta Espainiako prentsan gatazkatasunaren kontzeptuarekin zerikusia duten eduki gehiago argitaratzen dira. Izan ere, eduki adiskidetsu eta erasokor kategoriak batuta, espainiar eta frantziar prentsan %10,3 eta %12ko portzentajea biltzen baitute hurrenez hurren; hau da, oso kopuru antzekoak. Aldiz, euskal prentsan %2,6 bakarrik dago. Beste alde batetik aztertuz, bi kategoriak indibidualki hartuta eta elkarrekin alderatuta, portzentaje-oreka handia mantentzen dute, alegia, eduki adiskidetsuek eta erasokorrek antzeko balioak dituztela herrialde bakoitzaren baitan (espainiar prentsan, adibidez, %4,9 eta %5,4 eta %6,5 eta %5,5 frantsesean). Hiru herrialdeetako

prentsaren artean ez dago desberdintasun adierazgarririk gatazkatasunaren presentzian, ezta adiskidetsu edo erasokor kategorien arteko alderaketa egitean ere.

Aurkakotasuna: arlo honetan identitate “Propio alde” eta “Beste aurka” kategoriak alderatu dira, balorerik nabarmenak dituzte-eta. Bien arteko alderaketa kontuan hartuta, “Propio alde”-n dago portzentajerik handiena hiru herrialdeetan, espainiar eta frantziar prentsan %10a gaindituz. Kontrako aldean, “Beste aurka”-n alegia, baloreak baxuagoak dira batez ere espainiar eta euskal hedabideetan. Frantziar egunkarietan kopurua handiagoa da (%8,8). Alde honetan desberdintasun estatistikoak daude.


Positibotasuna: kontzeptu honetan, nazio-identitatearentzako positiboak diren edukietan Euskal Herriko eta Espainiako prentsan dute portzentajerik handiena, ia berdina (%17-19tarteetan), eta Frantziakoa erdiaren inguruan dabil. “Negatibo” poloan, aldiz, euskal prentsaren balorea oso txikia da (%2,0), hiru aldiz handiagoa espainiarrean eta bost aldiz (%10,9) frantses kazetetan. Azkenik, bi kategoriak batuta (positibo eta negatiboa), hiru herrialdeetako prentsak antzeko baloreak erakusten ditu (%20-23 sardean).

Taula 41: 1978-2013 urtealdiko emaitza nagusiak herrialdeka naziotasunaren parametroetan

%	Naziotasuna		Ikurtasuna		Leinutasuna			Gatazkatasuna		Aurkakotasuna		Positibotasuna	
	Naziot. oro: espliz.+inpliz.	Naziot. Esplizitua	Ikurra bai	Leinu ez	Espainiar	Frantses	Euskaldun	Adiskide	Erasokor	Propio alde	Beste aurka	Positibo	Negatibo
EH	82,7	26,5	5,8	74,2	1,4	2,1	10,0	1,0	1,6	2,8	1,5	18,8	2,0
Espainia	77,8	56,3	3,4	44,5	15,7	8,3	3,7	4,9	5,4	10,9	3,7	17,3	6,6
Frantzia	90,8	88,5	2,3	11,5	7,0	14,0	1,0	6,5	5,5	10,7	8,8	10,2	10,9
Batez bestea (%)	83,8	57,1	3,8	43,4	8,0	8,2	4,9	4,1	4,2	8,1	4,6	15,4	6,5
Desbideratze estand. (s)	6,59	31,01	1,79	31,38	7,23	5,98	4,60	2,82	2,19	4,60	3,74	4,63	4,43
z balioa													
EH	-0,16	-0,99	1,10	0,98	-0,92	-1,01	1,11	-1,11	-1,15	-1,15	-0,85	0,74	-1,01
Espainia	-0,91	-0,03	-0,24	0,04	1,06	0,03	-0,26	0,27	0,55	0,60	-0,25	0,40	0,02
Frantzia	1,07	1,01	-0,86	-1,02	-0,14	0,98	-0,84	0,84	0,60	0,55	1,10	-1,14	0,99

N = 4.998 item. Iturria: autorea. Oharra: "z" balio gehienak desbideratze estandar baten barrenean ($s \leq 1$) daude; hortik kanpo daudenak ere $s \leq 1,2$ azpitik daude.

Grafiko 7: 1978-2013 urtealdiko emaitza nagusiak herrialdeka kazetaritzaren parametroetan



Iturria: autorea.

Desbideratze estandarra eta z-balioa

1978-2013 urtealdiari dagokionez, ikertu da ea hiru herrialdeetako prentsaren portzentajeetan desberdintasun handiak edo antzeko balioak ote dituzten. Horretarako hiru elementu estatistiko erabili dira: batez bestekoa, desbideratze estandarra eta, batez ere, z-balioa.

Probabilitate teorian eta estatistikan, desbideratze estandarra, edo desbideratze tipikoa, aldagai kuantitatibo bati buruzko datu-multzoen eta probabilitate-banakuntzen sakabanatze neurri absolutu bat da. Datu-multzo baterako, datu bakoitza batezbesteko aritmetiko sinpletik batez beste zenbat desbideratzen den adierazten du.

Z-puntuazioaren balioak adierazten du batez bestekoaren baliotik zenbat desbideratze estandarretara dagoen datu gordin bat, hau da, eta kasu honetan, herrialde bateko kategoria jakin baten portzentajea. Beraz, z puntuaketa batek lortutako balio individual bat batez bestekotik zein norabidetan (positibo edo negatibo) urruntzen den adierazten digu, desbideratze estandarreko unitateen eskala batean.

Atal honetako taulan ikus daitekeenez, naziotasunaren kategoria guztietan, balio gehienak desbideratze estandar baten barrenean ($s = \leq 1$) daude; hortik kanpo daudenak ere $s = \leq 1,2$ azpitik daude. Beraz, ondorioztatzen da taulako portzentajeen artean ez dagoela diferentzia eta desbideratze handirik, normaltasunaren kurbaren teoriatik abiatuz.

11.3 Hiru nazio-identitate nagusien naziotasun-marko konbinatua

Ikerketa honetan frantziar eta espainiar Estatuetan eta Hego Euskal Herrian argitaratu diren edo egun argitaratzen diren egunkariak ikertzen direnez gero, beharrezkoa eta garrantzitsua ikusi da aztertzea, hiru errealitate politiko-kultural horietako prentsa bakoitzak nola soslaitzen edo enkoadratzen dituen hiru nazionalitateak (euskal, espainiar eta frantsesa). Beraz, aurreko azpiatalean leinu edo nazionalitate guztiak bazeuden sartuta, orain hiru soilik hartzen dira kontuan eta hiru

leinu edo identitate hauek herrialde bakoitzeko prentsan duten pisua kalkulatu da naziotasun-parametro edo kontzeptu bakoitzean (ikurtasuna, gatazkatasuna, aurkakotasuna, positibotasuna). Horregatik, emaitzak aurkezteko eraz, hurrengo argibideak eskaintzea egoki ikusten da.

Lehenik zedarrituko da herrialde bakoitzeko prentsak hiru leinu horien naziotasun-marko bateratu eta orokorra nola soslaitzen duen. Bigarren, prozesu berdina egingo da egunkarika. Hirugarren, egunkariak sektoreka (generalistak eta kirolekoak) bereiziko dira. Azkenik, herrialde prentsa bakoitzean identitate nagusi bakoitza aztertuko da.

11.3.1 Herrialdeka

Guztira, hiru leinu nagusien naziotasuna (esplizitua eta inplizitua) markatuta/kodetuta duten 1.893 item analizatu dira nazio-identitatearen diskurtsoaren framing edo profil orokorra ezagutzeko¹⁷⁷. Halaber, kontuan izan behar da, taulan dauden portzentajeak, bertikalki hartuta, independenteak direla elkarrekiko eta, beraz, ez dutela %100 osatu behar zutabearen amaieran¹⁷⁸.

Hiru leinuen enkoadre edo framing orokorra


Ondoko grafikoan, herrialde bakoitzeko prentsaren soslaia erakusten da. Itxuraz, lau kontzeptuetako hainbat parametrotan desberdintasun agerikoak antzematen dira (ikurra bai, propio alde, propio aurka, positiboa). Beste batzuetan, antzekotasun handia daukate (adiskidetsu, erasokor, beste alde eta aurka) hiru herrialdeetako egunkariak.

Bisualki ikusten denetik haruntzago joanez eta Chi karratuaren frogatik aplikatuz, emaitzak nahiko argi agertzen dira: hiru interpretazio-markotan (ikurtasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna) hiru herrialdeetako prentsaren artean desberdintasun estatistikoa adierazgarriak agertzen dira, $p < .01$ esanahi mailan, baina hori ez da gertatzen gatazkatasunaren kontzeptuan.

¹⁷⁷ Dena den, argitu behar da, logikoa denez, 1.893 eduki horiek guztiak ez direla derrigorrez item desberdinak, zeren albiste bat kodetu ahal izan baita ikurraren zutabearen (euskal ikur bat dagoelako, adibidez) eta baita beste zutabe batean edo batzuetan ere.

¹⁷⁸ Horregatik, hain zuzen ere, ez dago "Guztia" lerroa zutabearen behean.

Grafiko 8: hiru nazio-identitateen enkadre orokor konbinatua



N = 1.893 item. Iturria: autorea.

Taula 42: Herrialdeetako prentsak eraikitako hiru nazio-identitate nagusien framing orokor bateratua

Ikurtasuna (%)	Identitate gatazkatasuna			Identitate aurkakotasuna				Identitate positibotasuna				
	Ikur. bai	Adisk.	Erasokor	Azpig.	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Azpig.	Positibo	Negatibo	Azpig.
EHko Prentsa	33,8	4,7	3,4	8,1	19,0	0,7	2,7	2,0	24,5	52,0	5,4	57,4
Espainiako prentsa	5,8	4,4	9,2	13,6	30,6	5,4	5,4	6,4	47,8	31,8	12,4	44,2
Frantziako prentsa	5,2	4,5	7,9	12,4	44,6	10,5	10,2	6,5	71,7	21,5	13,3	34,8
Batuketa (N)	136	74	140	214	534	99	101	99	820	524	199	723

N = 1.893 item, hiru identitate nagusiei dagozkienak. Iturria: autorea. Oharra: Gelaxka bakoitzeko portzentajeak, bertikalki, independente dira elkarrekiko eta ez dute 100 eman behar. Gelaxka bakoitzeko portzentajea hiru nazio-identitate nagusien balio batuari dagokio. Yates-en Chi karratua, $p < .01$ balioan: ikurtasuna, $X^2(2, N = 300) = 39.588, p = < .00001$; gatazkatasuna, $X^2(2, N = 300) = 1.269, p = 0.53020052$; aurkakotasuna, $X^2(2, N = 300) = 44.261, p = .00001$; positibotasuna, $X^2(2, N = 300) = 9.873, p = 00718$.

Naziotasuna eta ikurtasuna

Hiru nazio-identitate nagusiei buruzko edukietan, Euskal Herriko prentsak argitaratzen ditu nazio-ikur gehien (%33,8), eta beste bi herrialdeetako prentsan portzentaje ia berdina dute (Frantziatik %5,8 eta Espainiatik %5,2). Chi karratuaren testa erabiliz, ondorioztatu da hiru prentsa-mota horien artean **desberdintasun estatistiko**

esanguratsuak daudela ikurtasunaren presentzian; Yates-en Chi karratua, $p < .01$ balioan: ikurtasuna, $X^2(2, N = 300) = 39.588$, $p = < .00001$.

Naziotasuna eta gatatzatasuna

Gatatzatasunaren interpretazio-markoan, hiru nazio-identitate nagusiei dagozkien edukietan, hiru herrialdeetako prentsan antzeko emaitzak ikusten dira eduki adiskidetsuen kategorian (% 4-5 artean), diferentzia txiki batzuk erasokorrean (% 3-9 artean) eta bi kategorien azpiguztitan edo batuketan (% 8,1-13,6 tartean) ere antzekotasun handia. Chi karratuaren froga aplikatuz, egiaztatu da **ez dagoela diferentzia estatistiko adierazgarririk** hiru prentsa-mota horien artean, ez gatatzatasuna bai/ez kategorien alderaketan ez eta hiru kategorien artean (ez, adiskidetsu, erasokor); Yates-en Chi karratua bai/ez kategorietan, $p < .01$ balioan, $X^2(2, N = 300) = 1.269$, $p = 0.53020052$.

Naziotasuna eta aurkakotasuna

Hiru identitate nagusiei dagozkien edukietan, aurkakotasunaren presentzia (bai/ez) **estatistikoki desberdina da hiru herrialdeetako prentsan**: aurkakotasuna presente dago euskal prentsako edukien % 24an, espainiar estatuko prentsaren % 48an eta Frantziakoaren % 72an, hau da, % 48ko aldea handienaren eta txikienaren artean. Chi karratuaren test-aren arabera, datuak hauek dira $p < .01$ esanahi-mailan: Yates-en $X^2(2, N = 300) = 44.261$, $p = .00001$.

Dena den, aurreko emaitza hori mantenduz, aurkakotasunaren lau kategoria nagusien arteko proportzioetan sartzen bagara (propio alde, propio aurka, beste alde eta beste aurka) eta horien azterketa egin, ikusten da “propio alde” kategorian kontzentratzen dela portzentaje gehiena hiru herrialdeetako prentsan: % 19,0 euskal egunkarietan, % 30,6 espainiarretan eta % 44,6 frantziarretan. Beste hiru kategorietan portzentaje guztiak % 10etik behera daude, franko behera gehienetan, eta nahiko antzekoak gainera. Beraz, Chi karratuaren froga erabiliz¹⁷⁹ ondoriozta daiteke ez dagoela diferentzia adierazgarririk lau kategoriak orokorrean hartuta, nahiz eta identitate propioaren aldeko edukietan desberdintasunak aipagarriak izan.

Naziotasuna eta positibotasuna

Epigrafe honetan, edukien positibotasuna –alegia, nazio-identitatearentzako positibotasuna– aztertzen da, ez berez albistea positibo edo negatiboa ote den. Horregatik, *framing*-aren kontzeptu honetan informazio bat positibo modura kodetzen bada, esan nahi du informazio hori positiboa dela nazio-identitate nagusi horietako batentzat.

Hiru leinu nagusiei dagozkien edukietan, positibotasunaren parametroan, **emaitzak adierazgarriki desberdinak** dira hiru herrialdeetako prentsan. Positibotasun kontzeptuaren presentzia (bai edo ez) % 57ra heltzen da euskal prentsan; % 44ra espainiar prentsan; eta % 35era frantziar prentsan. Beraz, handienaren eta txikienaren arteko aldea % 22,6koa da. Chi karratuaren frogaren datuak diferentzia estatistikoa erakusten dute: $\chi^2(2, N = 300) = 9.873, p = 0.00718$.

Halaber, eduki positibo eta negatiboak elkarrekin alderatuz, berriz ere berresten da **diferentzia estatistikoa adierazgarriak daudela** hiru herrialdeetako prentsan. Izan ere, euskal prentsan eduki positiboak % 42,6 dira; espainiar prentsan, % 55,8; eta frantziar prentsan, % 65,2. Handienaren eta txikienaren arteko diferentzia % 30,5koa da. Chi karratuaren datuak hauek dira 0.01 esanahi-mailan, positibo/negatibo kategorietan: $\chi^2(2, N = 300) = 11.18, p = 0.003735$.

11.3.2 Egunkari-moten arabera eta egunkarika

Azpiatal honetan, hiru leinu nagusien interpretazio-marko orokor eta konbinatua nola eraikitzen den aztertuko da, bai egunkari motaren arabera eta bai egunkari bakoitzaren arabera.

¹⁷⁹ Chi karratuaren estatistikoak: $\chi^2(6, N = 300) = 1.504, p = 0.959228$.

Taula 43: Egunkariak: hiru nazio-identitateen interpretazio-marko orokor eta konbinatua

(%)	Ikurtasuna	Gatazkatasuna		Aurkakotasuna				Positibotasuna	
	Ikur bai	Adiski.	Erasokor	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Positibo	Negatibo
Generalistak	10,4	4,2	10,8	19,7	5,5	3,9	5,0	37,2	11,8
ABC	2,5	3,6	10,9	10,9	2,2	2,2	4,0	39,9	11,2
Berria	62,5	12,5	12,5	37,5	0,0	12,5	12,5	37,5	12,5
Egin	15,2	2,2	2,2	41,3	0,0	2,2	0,0	60,9	8,7
El País	8,7	3,9	14,2	11,0	4,7	4,7	4,7	35,4	11,8
Eusk. Egunkaria	71,1	6,7	6,7	9,1	2,3	4,5	4,5	24,4	6,7
Gara	12,2	4,1	0,0	4,1	0,0	0,0	0,0	71,4	0,0
Le Monde	2,8	4,9	15,5	45,7	18,1	8,0	10,1	18,3	19,7
Kirolekoak	6,6	4,6	6,7	41,3	6,3	7,7	6,7	27,5	12,1
L'Auto	0,0	3,3	3,3	40,0	6,7	3,3	3,3	26,7	16,7
L'Equipe	8,2	4,4	1,9	44,6	4,5	13,4	3,8	23,4	7,0
Marca	4,7	5,4	7,7	46,3	8,0	5,9	8,4	15,5	12,0
Mundo Deportivo	11,7	2,9	8,3	24,8	2,9	8,7	4,9	64,1	15,5
Batuketa (N)	136	74	140	534	99	101	99	524	199

N = 1.893 item. Iturria: autorea. Oharra: Gelaxka bakoitzeko portzentajeak, bertikalki, independente dira elkarrekiko eta ez dute % 100 eman behar.


11.3.2.1 Egunkari-motaren arabera

Aurreko taulako datuen arabera, egunkari generalistetan **ikurtasunaren** presentzia % 3,8 handiagoa da soilik kirol-egunkarietan baino (% 10,4 eta % 6,6 hurrenez hurren); beraz, esan liteke nahiko antzekoak direla bi egunkari-motak.

Gatazkatasunean ere, egunkari generalistak **erasokorrangoak** (% 10,8) dira, kirolekoak baino (% 6,7), ikurtasunaren atalean ematen den antzeko diferentziarekin. Kontrara, erlazio binomiala denez (bi kategoriako kontzeptua), kirol-egunkariak dira besteen identitateekiko **adiskidetsuagoak** generalistak baino, aldea oso txikia den arren (% 4,6 eta % 4,2 hurrenez hurren).

Aurkakotasunaren arloan, identitate **propioaren aldeko** atalean aurki daiteke desberdintasunik handiena, kirolekoetan % 41,3raino heltzen baita presentzia eta % 19,7an gelditzen da generalistetan, % 21,6ko alde nabarmenarekin. Beste hiru kategorietan (propio aurka eta beste alde/aurka), portzentajeak oso antzekoak dira. Azkenik, **positibotasunari** dagokionez, generalistak "positiboagoak" dira kirolekoak baino hamar portzentaje puntu aldearekin (% 37,2 eta % 27,5 hurrenez hurren).

Grafiko 9: hiru identitate nagusien enkoadrea egunkari generalista eta kirolekoetan



N = 1.893 item. Iturria: autorea.

Irudi 37: egunkari generalista eta kirol-egunkaria.



Iturria: ABC, 1998-07-25 (ezkerrean) / L'Équipe, 1970-07-08 (eskuinean).

11.3.2.2 Egunkari bakoitzaren arabera

Jarrian dagoen grafikoan marrazten da egunkarietako zer-nolako naziotasunen enkoadrea edo meta-framing orokorra erakitzen duten hiru nazio-identitate nagusien inguruan.

Ikurtasuna


Ikurtasunari dagokionez, bi egunkaritan (*Berria* eta *Euskaldunon Egunkarian*) aurkitzen dira gehien hiru nazio-identitate horien ikurrak; % 63-71 arteko sardean hain zuzen. Beste bost egunkari % 8-15 sardean daude (*L'Equipe*, *El País*, *Mundo Deportivo*, *Gara* eta *Egin*) eta gainerako guztiak % 5aren azpitik daude.

Gatazkatasuna

Gatazkatasunaren alorrean, beste identitateekiko jarrera “adiskidetsuaren” portzentajerik handiena *Berria* egunkariak dauka (% 12,5) eta gainerako guztiak % 2-7 sardean mugitzen dira.

“Erasokor” izeneko kategorian, lau dira (*ABC*, *Berria*, *Le Monde* eta *El País*) portzentajerik handiena biltzen duten egunkariak, % 11-16 artean. Erdian, *Mundo Deportivo*, *Marca* eta *Euskaldunon Egunkaria* daude (% 7-9 sardean) eta apur bat beherago gainerako guztiak % 0-3 tartean.

Grafiko 10: Egunkariak: hiru nazio-identitateen enkoadre orokorra



N = 1.893 item. Iturria: autorea.

Aurkakotasuna

Identitate **propioaren aldeko** kategorian hiru multzo egin daitezke: goienean, sei egunkari daude (*Berría, L'Auto, Egin, L'Equipe, Le Monde* eta *Marca*) % 38-47 sardean; bigarren, egunkari bakarra (*Mundo Deportivo*) % 24,8ko portzentajearekin; eta beheko multzoan beste lau (*Gara, Euskaldunon Egunkaria, ABC* eta *El País*), % 4-11 sardean.

Identitate **propioaren aurkako** kategorian, *Le Monde* nabarmentzen da, % 18,1 portzentajearekin. Beste egunkari guztiak % 8tik behera daude¹⁸⁰.

Beste identitatearen aldeko kategorian bi egunkari, *Berría* eta *L'Equipe*, dira portzentaje handia dutenak, % 12,5 eta % 13,4 hurrenez hurren. Beste guztiak %9tik behera daude.

Beste identitatearen aurkako alorrean, % 8-12,5 tartean, hiru egunkari daude: *Marca, Le Monde* eta *Berría*. Beste guztiak % 5etik behera daude.

Positibotasuna

Positibotasunaren alorrean, identitatearentzako positibo diren edukietan, *Gara, Mundo Deportivo* eta *Egin* egunkariak portzentajerik handienak dituzte (% 61-72 artean) eta beste guztiek baxuagoak (% 18-40).

Nazio-identitatearentzako **negatibo** diren edukietan, sei egunkarik (*ABC, El País, Marca, Berría, Mundo Deportivo* eta *L'Auto*) erakusten dute negatibotasun-mailarik altuena (% 11-20 sardean). Gainerako guztiek ez dute % 9a gainditzen.

¹⁸⁰ Bai kategoria honetan eta bai beste batzuetan, hiru euskal egunkarik (*Berría, E. Egunkaria* eta *Gara*) % 0 balioekin agertzen dira. Horrek soilik esan nahi du laginean ez zegoela item-ik, eta ez egunkari horiek, euren jarduera osoan (unibertsoan) ez zutela kategoria hauetan sar zitekeen edukirik. Laginaren tamainaren ondorioa da, kontuan izan behar baita hiru egunkari hauen historia laburra dela.

11.4 Herrialde bakoitzeko prentsak nola soslaitzen dituen hiru identitate nagusiak

11.4.1 Euskal Herriko prentsa: nazio-identitate nagusien enkoadratzea

Euskal Herriko prentsan, euskal leinuari begiratuz, ikur gehienak euskaldun izaerakoak dira (% 70,2). Beste alde batetik, informazioen % 5,5 adiskidetsu modura kodetuta dago eta edukien laurdenean (% 24,5) euskal identitatearen alde egiten dute.


Aldiz, **espainiar leinuari** buruzko edukiak erasokorrak eta negatiboak dira % 6,7an, nahiz eta kontuz hartu behar diren ondoko taulan dauden portzentajeak, laginkopurua txikia delako. Azkenik, euskal egunkariak, **frantses leinuari** dagokionez, edukien % 6,4an agertzen dira frantziar ikurrak; gatazkatasunean, eduki erasokorrak gehiago dira (% 8,7) adiskidetsuak baino (% 4,3); aurkakotasun kontzeptuan, frantses identitatearen alde dira gehiagotan (% 17,4); eta edukien positibotasunari dagokionez, edukoi positiboen portzentajea ia erdia da (% 47,8).

Taula 44: Euskal Herriko prentsak eraikitako nazio-identitatea leinu nagusietan

(%)	Ikurra bai	Adiskide.	Erasokor	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Positiboa	Negatiboa
Euskal	70,2	5,5	1,8	24,5	0,9	0,0	0,9	60,0	4,5
Espainiar	23,4	0,0	6,7	0,0	0,0	0,0	6,7	0,0	6,7
Frantses	6,4	4,3	8,7	4,3	0,0	17,4	4,3	47,8	8,7
Guztia (%) (1)	100								
Guztia (N)	47	7	5	28	1	4	3	77	8

N = 180 item. Iturria: autorea. Oharra: (1) hutsik dauden gelaxketan ez dagokio baliorik jartzea ez eta % 100 batzea, zutabe horietako portzentajeak bertikalki independente baitira elkarrekiko.

Grafiko 11: Euskal Herriko prentsak eraikitako nazio-identitatea leinu nagusietan



N = 180 item. Iturria: autorea.

Beraz, euskal prentsaren jardura hau laburbilduz, euskal eta espainiar leinuekiko, gatazkatasun-mailak antzekoak dira eta baita aurkakotasunaren barruan ere, “Beste alde” kenduta. Euskal eta frantses leinuekiko adostasunak, aldiz, “Propio aurka”, “Beste aurka” eta positibotasunean ematen dira.

Euskal Herriko egunkarien inguruan profilatutako nazio-identitateak adostasun gutxiko grafikoa eragiten du. Grafikotik islatzen diren adostasun-puntuak gatazkatasunean, “Propio aurka” eta “Beste Aurka” puntuetan eta “Negatibo” poloan daudenak hain justu ere.

11.4.2 Espainiako prentsa: nazio-identitate nagusien enkoadratzea

Espainiako prentsak, euskal leinuari begiratuz, “Ikurra_bai” atalean leinua euskalduna denean (% 11,9) joera nagusi batzuk ditu. Azpimarragarrienak “Propio alde” eta “Positiboa” atalak dira % 20 inguruan. Gatazkatasunari dagokionez, polo adiskidetsua eta erasokorra parekaturik daude eta baita “Beste alde” eta “Beste aurka” kategoriak ere. Bestalde, **espainiar leinuari begiratuz** haxe esan daiteke: “Ikurra_bai” atalean leinua espainiarra denean (% 66,1) “Propio alde” kategorია da nagusi, bere presentzia ia erdiraino helduz (% 49,1). Halaber, berrien positibotasuna bigarren kategoriarik altuena da (% 31), eta “Negatibo” poloa antzekoa da euskal leinuarenarekin alderatuz. Azkenik, **frantses leinuari begiratuz** zera hau esan daiteke:


“Ikurra_bai” atalean leinua frantsesa bada (% 22,0) edukien positibotasunaren atalak “Positibo” kopururik altuena du (% 35,9). Gainerako kategoriek ez dute % 12 gainditzen eta kopuru horren inguruan “Beste alde” eta “Beste aurka” kategoriak murgiltzen dira.

Taula 45: Espainiako prentsak eraikitako nazio-identitatea leinu nagusietan

(%)	Ikurra bai	Adiskidetsu	Erasokor	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Positibo	Negatibo
Euskal	11,9	9,1	8,2	20,0	1,8	8,2	9,1	21,8	13,6
Espainiar	66,1	3,3	8,5	49,1	8,8	1,0	3,0	31,0	14,9
Frantses	22,0	5,0	10,7	2,2	0,7	12,0	11,2	35,9	8,0
Guztia (N)	59	52	109	361	64	64	75	376	147

N = 1.307 item. Iturria: autorea.

Grafiko 12: Espainiako prentsak eraikitako nazio-identitatea leinu nagusietan



N = 1.307 item. Iturria: autorea.

Analisi orokorra

Besteekiko gatazkatasuna antzekoa da Espainiako prentsak profilatzen duen nazio-identitatean. Aurkakotasunari dagozkion kategorietan portzentajea altua da bakar- bakarrik leinua espainiarra denean. Gainerako ataletan profila antzekoa da. Berezko leinua denean, espainiar egunkariak euren bururantz fokatzen dute ia dena.


Espainiako egunkarien inguruan profilatutako nazio-identitatearen grafikoak irudi orekatua erakusten du, “Ikurra bai” eta “Propio alde” kategoriak kenduta.

Taula 46: Frantziako prentsak eraikitako nazio-identitatea leinu nagusietan

(%)	Ikurra bai	Adiskidetsu	Erasokor	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Pos.	Neg.
Euskal	15,0	30,0	0,0	0,0	10,0	40,0	20,0	20,0	20,0
Espainiar	10,0	5,6	15,6	1,1	1,1	32,2	18,9	8,9	16,7
Frantses	75,0	3,0	5,2	62,6	13,9	0,0	0,9	26,5	11,7
Guztia (N)	20	15	26	145	34	33	21	71	44

N = 409 item. Iturria: autorea.

Grafiko 13: Frantziako prentsak eraikitako nazio-identitatea leinu nagusietan



N = 409 item. Iturria: autorea.

Analisi orokor modura, esan daiteke frantziar egunkariak **“begirunea” dutela euskal eta espainiar** leinuekiko. Frantsesek **“Beste alde”** kategoria erakusten dute portzentaje esanguratsu batean eta, gainera, **“Erasokor”** kategorian, euskal leinuari ez diote eskaintzen inolako tarterik.

Bestalde, frantses egunkariak proportzio handia eskaintzen diote identitate propioaren aldeko kategoriari (**“Propio alde”**) eta askoz gutxiago **“Propio aurka”** atalari.

Frantziako egunkariak zizelatutako nazio-identitateak grafiko laua eskaintzen du, euskal eta espainiar edukiei dagokienez, bide paraleloa jorratzen baitute. Frantziar

profila gainera "Ikurra bai", "Propio alde", "Propio aurka" eta "Positiboa" ataletan, eta behetik gainerako guztietan.

11.1 Hiru nazio-identitateak naziotasun parametroen arabera

11.1.1 Ikurren presentzia herrialdeetako prentsan


Ondoko taulan eta grafikoan ikusten denez, herrialde bakoitzeko prentsak bere herrialdeko leinuari (euskal, espainiar, frantses) dagozkion ikurrak argitaratzen ditu gehien, % 65-75ko presentzia emanez prentsa bakoitzak bere nazio-identitateari.

Euskal Herriko prentsan, euskal leinuaren inguruko **ikurrak** % 70,2 hartzen du; hau da, nazio-ikur gehienak euskaldunen inguruko informazioetan agertzen direla. Aldiz, beste bi nazionalitateetan portzentajea oso baxua da, % 10-15 bitartean.

Espainiako prentsan, metodo bera erabilita, nazio-ikurren presentzia oso handia da **espainiar leinuari** dagozkion edukietan (% 66,1), eta baxua beste bi nazio-identitateetan, % 10-24 bitartean.

Azkenik, **frantses** leinua presente dago lau informaziotatik hirutan Frantziako egunkarietan (% 75,0), Euskal Herriko prentsan oso gutxi (% 6,4) eta % 20tik gora espainiar orrietan.

Grafiko 14: nazio-ikurrak leinuen arabera



N= 126 item. Iturria: autorea.

Taula 47: nazio-ikurren presentzia hiru identitate nagusien arabera

(%)	Hiru identitate nagusietan ikurrak			
	Euskalduna	Espainiarra	Frantsesa	Guztia
EHko prentsa	70,2	23,4	6,4	100,0
Espainiako prentsa	11,9	66,1	22,0	100,0
Frantziako prentsa	15,0	10,0	75,0	100,0
Guztia	34,1	41,3	24,6	100,0

N = 126 (hiru leinu nagusi hauek soilik, besteak kenduta). Iturria: autorea. Oharra: Bertikalki ez dute % 100 eman behar, herrialde bakoitzeko prentsak bere balio propioa baitu.

Analisi orokorra

Esan den bezala, leinu bakoitzaren presentzia nagusi da bere herrialdeko egunkarietan eta portzentajeak ez dira oso ezberdinak, guztiak % 66-75 tartean. Bigarren tokia banaturik dago baita ere: espainiar leinua Euskal Herriko prentsan, frantziar leinua Espainiako prentsan eta euskal leinua Frantziako hedabideetan.

Irudi 39: Ikurren presentzia ohikoa da Tourrean. Kasu honetan maillotetan.



Iturria: L'Équipe, 1992-07-4-5.

11.1.2 Identitate nagusien markoa gatazkatasunaren arabera

Hemen aztertu da identitate bakoitzaren baitan leinu nagusiek gatazkatasunaren azpikategorien arabera portaerak.

Taula 48: identitate nagusien markoa gatazkatasuna kontuan hartuta

(%)	Adiskidetsu besteekiko	Erasokor besteekiko	Guztia (%)	Guztia (N)
EHko prentsa	51,6	48,4	100,0	27
Espainiarra	75,0	25,0	100,0	8
Euskalduna	47,1	52,9	100,0	16
Frantsesa	33,3	66,7	100,0	3
Espainiako prentsa	32,3	67,7	100,0	161
Espainiarra	52,6	47,4	100,0	19
Euskalduna	27,8	72,2	100,0	79
Frantsesa	31,7	68,3	100,0	63
Frantziako prentsa	36,6	63,4	100,0	41
Espainiarra	100,0	0,0	100,0	3
Euskalduna	26,3	73,7	100,0	19
Frantsesa	36,8	63,2	100,0	19
Guztia	35,6	64,4	100,0	229

N = 229. Iturria: autorea.

Oro har, jarrerarik azpimarragarriena “Erasokor besteekiko” da (% 64,4) baina portaerak bestelakoak dira nazio-tarte bakoitzean. “Adiskidetsu besteekiko” nagusi da (% 51,6) Euskal Herriko kasuan eta ez horrenbeste, hau da, esan nahi da “Erasokorra” dela espainiar (% 67,7) eta frantses kasuetan (% 63,4).

Arestian aipaturikoak datu orokorrak dira, baina datuak leinu nagusi bakoitzaren baitan analizatu dira ere.

Euskal Herriko kasuan, espainiar leinua agertzen denean jarrera adiskidetsua da nagusi (% 75) eta leinu frantsesa agertzen denean erasokorra da besteekiko (% 66,7).

Espainiako kasuan, euskalduna edota frantsesa agertzen direnean, portaera da nagusiki erasokorra besteekiko, % 72,2 eta % 68,3 hurrenez hurren.

Frantziako kasuan, leinu espainiarra agertu denean jarrera adiskidetsua baino ez da izan. Aldiz, euskalduna agertu denean erasokorra (% 73,7).

11.1.3 Identitate nagusien markoa aurkakotasunaren arabera

Atal honetan arakatu da hiru identitate nagusiek aurkakotasunaren kategorietan sortzen duten soslaiak.

Taula 49: identitate nagusien markoa aurkakotasunaren arabera

(%)	Propio alde	Propio aurka	Beste alde	Beste aurka	Guztia (%)	Guztia (N)
EHko prentsa	70,2	5,3	10,5	14,0	100,0	53
Euskalduna	93,1	3,4	0,0	3,4	100,0	29
Espainiarra	63,2	10,5	5,3	21,1	100,0	18
Frantsesa	11,1	0,0	55,6	33,3	100,0	6
Espainiako prentsa	64,0	11,3	11,3	13,3	100,0	564
Euskalduna	51,2	4,7	20,9	23,3	100,0	43
Espainiarra	79,3	14,2	1,7	4,8	100,0	416
Frantsesa	8,6	2,9	45,7	42,9	100,0	105
Frantziako prentsa	62,2	14,6	14,2	9,0	100,0	233
Euskalduna	0,0	14,3	57,1	28,6	100,0	7
Espainiarra	2,1	2,1	60,4	35,4	100,0	48
Frantsesa	80,9	18,0	0,0	1,1	100,0	178
Guztia	63,9	11,8	12,1	12,2	100,0	850

N = 854. Iturria: autorea.

Hiru leinuetan **Propio alde** nagusitzen da (% 63,9), batik bat norberaren leinuarekin gurutzaketa ematen denean, hau da, Euskal Herriko prentsa euskaldun leinuarekin (% 93,1) Espainiako prentsa espainiar leinuarekin (% 79,3) eta Frantziako prentsa frantses leinuarekin (% 80,9). Portzentaje altuak dira, adierazgarriak.

Irudi 40: Frantziako eugunkariet “Propio alde” kopuru handia daukate.



Iturria: L'Équipe, 1947-07-02.

Aurkakotasunaren baitan **Propio aurka** kategoriak portzentaje handiagoak ditu espainiar eta frantses prentsan eta ia ezerezean dago Euskal Herrikoan. Aurrekoan legez, hau da, “Propio Alde” kategorian ikusi den moduan, kasu bi horietan joera da nabarmentzea norberaren leinuarekin gurutzaketa egitean: Frantziako prentsan (% 18,0) eta Espainiako prentsan (% 14,2).

Beste alde atalean zifrak parekaturik daude. Hiru leinu nagusietan % 10-15aren inguruan daude eta. Azpimarratzekoa da euskal eta frantses kasuetan norberaren gurutzaketaren ondorioz ez dagoela beste aldeko aipamenik. Gauza bera esan daiteke **Beste aurkaz** ari denean.

Analisi orokorra

“Propio alde” herrialdeetako prentsan nagusi da. “Propio aurka”, “beste alde” eta “beste aurka” azpikategoriek presentzia gutxiago daukate. Euskal Herriko prentsa eta Espainiako prentsa frantses leinuarekin gurutzatzen direnean “Beste alde”-ko portzentajeak oso altuak dira. Gauza bera gertatzen da Frantziako prentsak euskal leinuaz ari denean.

11.1.4 Identitate nagusien markoa positibotasunaren arabera

Atal honetan aztertu da identitate nagusiek eraikitzen duten markoa positibotasunaren azpikategorien arabera, hots, positibo eta negatibo baloreak kontuan hartuta.

Taula 50: identitate nagusien markoa positibotasunaren arabera

(%)	Positiboa	Negatiboa	Guztia (%)	Guztia (N)
EHko prentsa	86,2	13,8	100,0	105
Euskalduna	93,0	7,0	100,0	21
Espainiarra	68,2	31,8	100,0	71
Frantsesa	81,3	18,8	100,0	13
Espainiako prentsa	71,9	28,1	100,0	523
Euskalduna	61,5	38,5	100,0	308
Espainiarra	67,5	32,5	100,0	39
Frantsesa	81,8	18,2	100,0	176
Frantziako prentsa	61,7	38,3	100,0	115
Euskalduna	50,0	50,0	100,0	23
Espainiarra	34,8	65,2	100,0	4
Frantsesa	69,3	30,7	100,0	88
Guztia	72,4	27,6	100,0	743

N = 747. Iturria: autorea.

Nazio-identitatea era **positiboan** islatzen da hiru leinu nagusien prentsaren edukietan (% 72,4) Frantziako % 60ren ingurutik Euskal Herriko % 86ra.

Norberaren leinuarekin gurutzatzean portzentaje positiboak altuak dira: Euskal Herriko prentsa euskaldun leinuarekin (% 93,0) Espainiako prentsa espainiar leinuarekin (% 67,5) eta Frantziako prentsa frantses leinuarekin (% 69,3). Halaber, hiru leinu nagusiak euren artean gurutzatzen direnean proportzio positiboa nagusi da, salbuespen bakar batekin: Frantziako prentsak espainiar leinua aipatzen duenean edukien positibotasun-tasa % 34,8an gelditzen da eta euskalduna aipatzean, erdibidean (% 50,0).

Beraz, erlazio binomiala denez (bi kategoria baztertzaila), alde **negatiboa** aipatzean, Frantziako egunkarietan leinu espainiarrak agertzean dauka, logikoki nazio "lehia"-ren baitan, negatibotasun-kopururik altuena (% 65,2). Euskal Herriko prentsak negatibotasun gutxiena duena da (% 13,8), batez ere bere leinua agertzen denean (% 13,8).

7,0). Euskal Herriko prentsak berak eta Espainiakoak negatibotasun-tasa txikia daukate frantses leinua agertzean (% 18).

12 Ondorioak

Ondorioen atala, nahiko konplexua beti ikerkuntzan (Hsia, Mass Communications Research Methods: A Step by Step Approach, 1988, orr. 31-32), hainbat mailatan antola daiteke seguruenik: 1) behe-abstrakzio maila batean, ezarritako hipotesiak onetsi edo gaitzetsi egin behar dira eta ikergalderei erantzun egin behar zaie; 2) abstrakzio- maila ertain batean, ebaluatutako hipotesi eta erantzun horiek dakartzaten generalizazio eta inplikazio zuzenen inguruan gogoeta eta interpretazioa egitea komeni da; eta 3) goi-abstrakzio maila batean, egindako gogoetak eta inferentziak teoria-marko orokorrago batean jarri behar dira, aztertutako gaiaren ikuspuntutik hartuta.

Hipotesi eta ikergalderen abstrakzio-piramidea landu ondoren, komeni izaten da ikerlanaren garrantzi, indargune eta, baita ere, ahuluneak argitzea eta adieraztea.

Azkenik, egindako ikerketan oin harturik, ohikoa izaten da, halaber, etorkizunerako ikergai eta proposamen berriak iradokitzea.

12.1 Lehen ikerketa-gunea: Tourraren bilakaera historikoaren interpretazioa

12.1.1 HIST-1. Ikergaldera: analisi historikoa

Frantziako Tourraren analisi historikoa osatu ahal izateko, kontuan izan behar da kirol-ekitaldia baino harago doala. Horregatik, Tourraren bilakaeraren interpretazioari ekiteko ezinbestekotzat jotzen da lasterketaren hastapenetara joatea, hau da, Frantziako Tourra nola sortu zen, zergatik, zertarako eta jaiotze-prozesu horretan zer-nolako eragina izan zuen kazetaritzak. Aldi berean, funtsezkoa da aztertzea hasi zenez geroztik mundu-mailan erraldoi bilakatu den ikuskizunak zer-nolako eragina izan duen nazio-identitate ezberdinen ikuspegitik begiratuta.

Sorrera

Tourra kazetaritzaren mundutik sortu zen. Ez zen kirol-esparrutik bultzatutako ekimena izan, egunkariaren inguruko enpresa-interesei loturiko borroken ondorioa

baizik, eta gaia bere testuinguruan kokatu beharra dago. Harrezkero, XIX. mendeko azken urteak ziren, txirrindularitzak bere lehen urratsak emanak zituen eta, aldi berean kirol-egunkariak eta baita bizikletarekin zerikusia zutenak ere lehendabiziko pausoak ematen zebiltzan.

Le Vélo egunkariak egunero 80.000 ale banatzen zituen, baina aldi berean presio ekonomikoak eta politikak jasaten zituen iragarleen aldetik, gehienak nobleziakoak. Azken horiek Henri Desgrange idazle, publizitateko agente eta txirrindulari ohiari kirol-egunkari berri bat sortzeko enkargua eskaini zioten 1900. urtean, *L'Auto-Vélo*. Teoriaz, kirola eta politika nahasten zituen egunkari bat (*Le Vélo*) vs kirolaz soilik ariko zena (*L'Auto-Vélo*) zeuden.

L'Auto-Vélo-k, baina, hedabide berriaren jaiotzak ekimen historiko bat zekarren eskutik: "Zergatik ez Frantziako Tour bat?". Desgrange-rekin batera Victor Godet finantzatzailea izan zen eta Géo Lefèvre-ren ideia gauzatu ahal izan zuten, hau da, Frantzia zeharkatuko zuen txirrindularitza-lasterketaren proiektua.

Bitartean egunkariaren izena aldatu behar izan zuten, *Vélo* hitza goiburutik kentzeko agindua jaso ondoren, eta jatorrizko izena *L'Auto* izenarekin ordezkatu zen 1903ko urtarrilean. Aitzitik, lehen Tourrak astindu ederra eman zion merkatuari. Arrakasta ia bat-batekoa izan zen eta *L'Auto* eta bere oinordekoa Bigarren Mundu Gerraren ondoren, *L'Equipe*, Frantziako kirol- prentsan nagusi izan ziren.

Lehen Mundu Gerraren ostean Tourra berriro antolatu zen, 1919tik 1939ra *L'Autoren* gidaritzapean. Bigarren Mundu Gerraren kariatz, 1947ra arte ez zen Tourra berriz ospatu. Gerraren ondoren, Frantziako alemaniar okupazioan argitaratu ziren egunkariak legez kanpo utzi zituen Frantziako behin-behineko gobernuak. Beraz, *L'Autok*, gerra-garaian kirolaz informatzen jarraitu zuenez, atek itxi behar izan zituen, Tourrerako zituen eskubideak galduz. Frantziar gerraostean, 1946ko otsailean, Victor Godet-en semeak *L'Equipe* sortu zuen. Gauzak horrela, 1946ko maiatzean debekatutako egunkarien eskubide eta ondasunen eskuratze-prozedurak ezarri zituen lege bati jarraituz, *L'Equipek* Frantziako Tourrerako eskubideen erdia eskuratu zuen.

Eskubide horien beste erdia *Le Parisien Libérék*, Parisko egunkari batek, erosi zuen. Ia hogeitaz *L'Equipe*-k eta *Le Parisien Libéré*-k elkarrekin antolatu zuten Tourra kide berdinak eta independenteak bezala. 1964an, *Éditions Émilien Amauryk*

erosi zuen *Le Parisien Libéré*, eta bi egunkariak batera antolatu zuten lasterketa, Godet-en eta Félix Lévitán *Le Parisien Libéré*-ren editorearen zuzendaritzapean.

Finean, kazetaritzak bidea ireki zion Tourrari.

Nazio-identitatean eragina

Honaino Tourraren sorrera “teknikoa” eta lotura, zuzena eta zeharkakoa, kazetaritzarekin urteetan zehar mantendu dena. Kirol egunkari batek gidaturiko txirrindularitza-lasterketarik arrakastatsuenen zen jada, baina Tourraren bilakaeraren eragina ez zen horretara mugatu.

Frantziako Tourrak Frantziaren kontzeptua hezurramitzeko balio izan zuen. Eragin hori bikoitza izan zen, barrura begira eta kanpora begira, hots, Frantziaren irudi(on)a hexagonotik kanpo, munduan zehar, hedatzeko. Barrura begirako lehen ondorioa hasiera-hasieratik agerian geratu zen: Tourra nazio-identitatearen oinarri gisa hartu zen, horretarako lehendabiziko elementua ibilbidea izanik: lasterketa hiribururik garrantzitsuenak zeharkatzen hasi zen, hala nola Lyon, Marseilla, Tolosa, Bordele, Nantes eta Paris, baina lasterketa, esate baterako Alsace-Lorrainetik pasarazi nahi zen, lurralde horiek Frantziak 1870eko gerran galdu zituen arren. Beren apustu handinahiaren arrakasta ziurtatzeko, antolatzaileek ahalegin nekaezinak egin zituzten publikoaren buruan hura berpizkunde nazional batekin lotzeko. Gainbehera nazionalaren espektroarekin obsesionatuta, frantziar askok bat zetozen *L'Auto*-ren iritziarekin: txirrindularitzak Frantziaren berpizkundera pertsonifikatzen zuela.

Hasi bezain pronto, Frantziako jai nazionala bihurtzeaz gain, nazio-sentimendua eta izaerarekin lotura dituzten aztarnak utzi zituen han-hemenka: “Elastiko urdina, zuria eta gorriak frantziarrak harrotu eta jendarteak zoratu egiten ditu. Tourra uztaila edertzen duen jai nazionala da.”¹⁸¹ (Cazeneuve, 2010, or. 9)

“Tourrak askoz ere gehiago egin du Frantziako batasun nazionalaren alde XX. mendean egon diren gertakizunek baino (...)”¹⁸² (L'Equipe, 2014) Georges Conchon

¹⁸¹ Le maillot bleu blanc rouge sublime les Français et électrise les foules. Le Tour c’est une fête nationale que embellit juillet.

¹⁸² Le Tour a sans doute fait plus pour l’unité nationale de la France qu’aucun des grands événements dont elle a été le théâtre tout au long du XXe siècle.

idazle frantziar ospetsuaren hitzak dira, argi utziz batasun nazionalaren ikuspegitik lasterketa hartzen ari zen garrantzia.

Hala eta guztiz ere barrura begirako nazio-goraipatze horrekin, kanpora begirako mugimendu paralelo eta etengabekoa ematen da. Nazio ezberdinen txirrindularien arteko tirabirak ohikoagoak dira eta 1930ean nazio- eta erregio-taldeak sortzen dira, lehia txirrindulen marka edota pneumatikoetatik aldenduz. Formula hori mantendu zen Bigarren Mundu Gerra heldu arte eta baita gerra ostean ere.

Dena den, 1950eko hamarkadan, bizikletaren industria hiltzorian zegoen eta beste sektore batzuetako enpresek babesla eman zieten txirrindularitza-taldee. Aldi berean, Tourraren talde nazionalak ez zuten eragotzi bizikleta-ekoizleek beren produktulerroetarako erakusleho moduan erabiltzea, baina babesleek euren propaganda maillotean ikusi nahi zuten eta presio handia egin zieten Tourreko antolatzaileei... eta 1962an talde babesleak berpiztu zituzten, baina liskarrak baretu barik, 1967an eta 1968an lasterketa nazioa ere korritu zelako. Horiek aurrera, aldiz, merkataritza-taldeen presentzia finkatu zen, noizean behin talde nazionalen “mamua” antolatzaileen aldetik astintzen zen arren.

Bide horretan, Euskaltel-Euskadi taldearen presentzia, 2001etik 2013ra arte, alegia, ikerketa honen epemugara arte, merkataritzaren eta nazioaren arteko talde hibridotzat har daiteke.

12.2 Bigarren ikerketa-gunea: kazetaritza

12.2.1 Ekoizpenaren ezaugarriak

12.2.1.1 KAZ-1. Hipotesia: kokapena

Ezarritako hipotesia –Tourrari buruzko edukiaren zati garrantzitsua egunkarien lehen orrialdean edo azalean dagoela– onetsi egin da.

Kirol-ekitaldi bat den heinean, logikotzat har daiteke edukien zatirik handiena **kirola** izeneko sekzioan kokatzea¹⁸³. Aldi berean, Tourrak duen garrantzia kontuan hartuta, zentzuzkoa ere izango litzateke edukiak **lehen orrialdean** kokatzea, edozein edukiren isla eta garrantzia ziurtatzeko eta Tourraren izaera zein proiektzioa biderkatzeko.

Emaitzek egiaztatu egin dute hipotesia eta, ikerketa honetan, Toureko edukien bi heren baino zerbait gehiago (% 69,0) “Kirola” sekzioan kokatzen bada ere, ia ehuneko hogei (% 18,9) azalean edo lehen orrialdean argitara ematen da. Oso portzentaje handia, batez ere frantses egunkarietan, eta ez horrenbeste Espainiako eta Euskal Herriko egunkarietan.

Presentzia ezberdin horien arrazoia Tourraren jaiotzean topa daiteke, tesiaren lehen ikergalderan azaldutakoaren arabera. Izan ere, lasterketa *L’Auto* egunkariaren eskutik jaio zen eta II. Mundu Gerraren ostean *L’Equipe* egunkarira pasa zen. Biek ala biek berebiziko ahalegina egin zuten, logikoa denez, lasterketaren edukiek euren egunkarien azaletan presentzia izan zezaten. Halaber, ikerketa honetan frantziar egunkarietako laginaren zati garrantzitsu bat Internet bitartez eskuratu izanak gutxitu egin du lehen orrian frantses prentsak izan zezakeen tokia eta egunkarien azaletan agertze-portzentajea askoz handiagoa zatekeela ondoriozta daiteke.¹⁸⁴

¹⁸³ Atal horren adiera posible guztietan, hau da, aztertutako hiru herrialdeetako prentsaren arabera: kirola, deportes, sport edo antzekorik egongo balira.

¹⁸⁴ Metodologian azaltzen denez, edukien lagin-zatirik handienak paperean daude (%86,4). Euskal Herriko prentsaren eta Espainiako prentsaren edukiak paperetik hartuak izan dira eta Frantziako prentsan erdiak baino apur bat gehiagok Internet sareari dagokion formatua dauka, batez ere azken urtealdian, 1978-2013, Internet presentego egon da-eta (%77,2).

12.2.1.2 KAZ-2. *Ikergaldera: irudia eta testua*

Egunkari osoa kontuan hartuz, eduki guztiaren hamarretik zortzi inguru (% 82,9) testu idatzia da, eta ia bi (% 17,1) irudiz osatuta dago. Ehun urteetan zehar izandako eboluzioari begiratuz, 1903-1914 eta 1978-2013 urtealdietan portzentajeak antzekoak izan dira, hamarretik bi inguru irudiak baitira eta zortzi testuak. Ezberdintasun nabari bakarra 1930-1970 urtealdian antzeman daiteke, horretan irudiaren presentzia gutxitu eta ia erdira jaisten delako aurreko urtealdikoarekin alderatzen bada, hau da, hamarretik bederatzi (% 89,9) testua da eta zati bat baino ez irudia.

Herrialdeka, emaitzak estatistikoki desberdinak dira. Euskal Herriko prentsan hamar edukitatik hiru irudiak dira, Espainiakoan ia bi, eta Frantziakoan bat inguru. Euskal Herriko egunkarien kasuan, % 30,5eko irudi-portzentajea handia da, seguruenik ikertutako lehendabiziko urtealdian euskal egunkaririk ez zegoelako eta urte haietan irudiak ezohikoagoak zirelako.

Egunkari-motari dagokionez, egunkari generalisten eta kirolekoen artean ez dago desberdintasun estatistikorik, biak % 15 inguruan baitaude.

12.2.2 Kazetaritza-generoak

12.2.2.1 KAZ-3. *Ikergaldera: informazioa eta iritzia*

Hiru herrialdeetako prentsan, informazioaren eta iritziaren aldagaian, desberdintasun estatistiko esanguratsuak daude. **Informazioaren** nagusitasun kuantitatiboa ia erabatekoa da espainiar eta frantziar prentsan (% 95 edo gehiago), eta ia hamabost puntu gutxiago Euskal Herriko prentsan (% 81). Jakina, hemen ere kontuan izan behar da espainiar eta frantziar prentsan hiru urtealdietako edukiak ikertu direla eta Euskal Herriko prentsan soilik hirugarren urtealdikoa, 1970-2013.

Espainiar eta frantziar egunkariei begiratuz, 1903-1914 urtealdian ez daukate **iritzizko** edukirik, modu esplizituan definituta. Hurrengo bi urtealdietan, 1930-1970 eta 1978-2013, iritziaren generoa gora doa, batez ere Espainiako prentsan, % 5 ingurura helduz. Frantziaren kasuan iritzi-portzentajea baxuagoa da, % 1 ingurukoa. Izan ere, kontuan izan behar da, alde batetik, *L'Auto* eta *L'Equipe* egunkari-

antolatzaileak izan direnez gero, ez dutela iritzi-generoa esplizituki edo nabarmenki erabiltzeko behar larririk izan eta, beste aldetik, Internet formatuak ez duela ahalbidetu bere garaian paperean iritzi-artikulu edo zutabe moduan argitaratu zirenak behar legezko zehaztasunarekin topatzea.

12.2.2.2 KAZ-2. Hipotesia: informazioaren eta iritzi-generoen azpikategoriak

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan informazioaren eta iritziaren azpigeneroetan desberdintasun nabarmenak daudela–, baieztatu egin da. Desberdintasun horiek oso nabarmenak dira informazioaren lau azpigenero ugarietan (albistea, kronika, argazki-albistea eta erreportajea) eta iritziaren beste lau kategorietan (zutabea, iritzi-artikulua, editoriala, bineta).

Informazioaren alorrean, **albistearen** azpigeneroak oso portzentaje txikia du euskal prentsan (% 13), ertaina espainiar prentsan (% 25) eta oso altua frantziar prentsan (% 80). Jakina, modu osagarrian, beste azpigeneroen portzentajeak alderantziz agertzen dira hiru herrialdeetan. Adibidez, **kronika** gorantz joan da euskal medioetan eta beherantz espainiarretan. Frantziako prentsaren emaitzak, non albistegeneroa den ugariena, nolabait baldintzaturik agertzen da laginaren euskarri gehiena Internetekoa izateagatik eta baita azalaren pisuagatik ere. Izan ere, Tourraren herrialde antolatzaile izanagatik eduki garrantzitsu gehiago lehen orrialdera doa eta hor kronika azpigeneroa ia ezinezkoa da aurkitzea.

Espainiako egunkarietan kronika da nagusi (% 45), *Marca* egunkaria kenduta, eta euskal prentsan denetik dago: **erreportajea** *Gara*-n; **argazki-albisteak** *Berrian* eta *Eginen*, eta kronika *Euskaldunon Egunkarian*.

Iritzi-generoaren azpikategoriei begira, alde esanguratsuak daude kazetaritza-tradizio desberdinetan oinarriturik eta baita denboran ezagututako garapenagatik ere, genero hau informazioa baino aldakorragoa izan baita.

Herrialde guztien artean desberdintasunak badaude, gehienak frantses egunkarietan aurki daitezke, alde batetik arestian aipaturiko kazetaritza-tradizioei jarraituz, bestelakoak izan direlako herrialde bakoitzean eta, bestetik, *L'Auto* eta *L'Equipe* egunkari-antolatzaileak izan direlako; hots, iritziaren presentzia esplizitua ohikoa aurkeztu dutelako informazio- edukien lerro artean, iritzi-formatu

konbentzionala erabili behar gabe, batez ere lasterketaren antolaketaren arduradunen ekarpenak testu arruntetan islatu direlako.

Desberdintasun horien arrazoiak amaitze aldera, zera hau gehi daiteke: euskarri digitalen agerpenak ere baldintzatu du ohiko ikuspegia. Horra hor, adibidez, frantses egunkarietan zutabe moduan adibide garbirik ez aurkitzeko arrazoa, orrialderik garrantzitsuenetan behinik-behin.

Zutabeari dagokionez, askotan agertzen da Euskal Herriko egunkarietan (% 96). eta franko gutxiago Espainiako egunkarietan (% 66). Aldiz, **iritzi-artikuluak** Frantziako prentsan du presentzia gehien (% 63). **Editorialaren** azpigeneroak, azkenik, presentzia txikia dauka orokorrean (% 2 eskas), nahiz eta handiena frantziar prentsan izan (% 13).

Bestalde, urtealdiei begirako analisiak esaten digu 1903-1914 urtealdian ez dagoela iritzi-artikularik era berezitan argitaratuta. Hurrengoan, 1930-1970 urtealdian, Espainiakoan zutabea de nagusi eta Frantziar, aldiz, zuzendariari eskutitzak eta artikuluak baino ez dira kodetu urtealdi horretan. 1978-2013 urtealdian zutabeen aldeko proportzioa adierazgarria da Euskal Herriko prentsan (% 96,1).

12.2.3 Egile/autorearen inguruan

12.2.3.1 KAZ-3. Hipotesia: egile-mota

Ezarritako hipotesia –edukien egileek antzeko portzentajeak dituztela hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan–, ez da bete eta, alderantziz, onetsi behar da hiru herrialdeetako prentsaren artean desberdintasun estatistiko adierazgarriak daudela lau kategoria nagusietan (kazetari, ez-sinadura, agentzia eta erredakzioa). Dena den, egiaztatzen da “**kazetari**” kategoriak, % 40-50 arteko presentziarekin, eta “**ez-sinadura**” kategoriak, % 20 inguruko balioarekin, nahiko portzentaje antzekoak dituztela hiru herrialdeetako prentsan, horien arteko diferentziak % 10 eta % 5 azpitik daudela, hurrenez hurren. **Agentziei** dagokienez datu aipagarri bat dago: hiru herrialdeetan aztertutako lehendabiziko urtealdian ez da agentziarik, ezta **erredakziorik** ere, sinaduretan agertzen, agentzien garrantzia II. Mundu Gerraren ostean indartu zelako, nahiz eta euren sorrera XIX. mendearen erdian kokatu, telegrafoaren jaiotzaren eskutik. Frantziar medioetako bi (*L’Auto* eta *L’Equipe*) Tourra-

ren sortzaileak eta babesleak izateagatik, agentzien sinadura espainiar zein euskal medioetan agertzea ulergarriagoa da.

Urtealdiei begiraturaz, kazetarien presentzia oso nabarmena da 1930etik aurrera hiru herrialdeetan, eta sinadura barik agertu diren berrien kopurua (% 89) oso handia izan zen Espainiako prentsan 1903-1914 urtealdian.

12.2.3.2 KAZ-4. Hipotesia: egilearen generoa

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako egunkarietan, eta edozein urtealditan eta egunkaritan, generoaren arrakala dagoela–, egiaztatu egiten da. **Gizonek** sinatzen dute albiste gehien aztertutako hiru herrialdeetako egunkarietan eta baita urtealdi guztietan ere. Aldiz, emakumeen presentzia ia ikusezina da eta kasu guztietan, sinatzekotan, 1978-2013 urtealdian sinatzen du emakumeak, Euskal Herriko egunkarien eta besteen arteko aldea esanguratsua izanik.

Aztertutako hiru herrialdeei begira, sinadura duten edukietan fokua jarriz, espainiar eta frantziar egunkarietan gizonek sinatzen dituzte ia kazetaritza-eduki guztiak, % 99,7 Espainiako egunkarietan eta % 99,5 frantziar egunkarietan. Beraz, emakumeen sinaduren kopurua ia salbuespentzat har daiteke.

Euskal Herriko egunkarietan, aldiz, kopuru hori % 95ean dago, hau da, **emakumeek** sinatzen dute informazioen % 5, portzentaje adierazgarria beste bi errealitateekin alderatuz.

Tamalez, arrazoi asko egon badaude emakumeen presentzia eza azaltzeko. Tourraren kasuan, arrazoi nagusia ez litzateke soilik izango emakumeek lan-merkatuan sartzeko izan zuten eta duten oztopo eta desoreka orokorra. Horri gehitu behar zaio kazetaritzan eta, bereziki, kirol-kazetaritzan pairatu dituzten zailtasun, traba eta berandutze izugarriak, gizonek eta gizonen ikuspegitik sortutako jarduera baita kirol-kazetaritza.

Genero ez-bitarrari dagokionez, analizatu diren lagin eta eduki guztietan ez da aurkitu pertsona ez-bitarren presentziarik ez daturik.

12.2.3.3 KAZ-4. Ikergaldera: egilearen inplikazioa

Informazioaren eta iritzien egilearen inplikazio zuzen eta begi-bistakoa portzentualki nagusi da sei egunkaritan (*Berria, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Egin,*

L'Auto eta Marca) eta ez beste bostetan (*Mundo Deportivo, Le Monde, L'Equipe, ABC, El Pais*). Inplikazioa nagusi dutenen artean euskal egunkari guztiak daude. Bestetik, inplikazioa urtealdi guztietan egon da presente.

Herrialdeka begiraturaz, egilearen inplikazioa nagusi izan da euskal prentsan (% 62,8), kodetu den urtealdi bakarrean, 1978-2013an. Espainiako prentsan oso txikia da hasierako urtealdian (% 9,1), inongo txikiena, beharbada komunikazio-arazoak eta espainiar parte-hartzaile gutxi zeudelako. Baina urteak aurrera joan ahala inplikazio-maila handitzen joan da eta 1978-2013an % 44ra heldu zen. Frantziako prentsan, berriz, alderantzizko prozesua eman da. Hasieran, 1903-2014an, oso altua zen (% 58) egilearen inplikazioa, hurrengo 1930-1970 urtealdian hamar puntu jaitsi zen, eta azken urtealdian eduki guztien % 32an aurkitu da inplikazioa. *L'Auto*-k eta *L'Equipe*-k, bi egunkari antolatzaileek, aldea dute inplikazioari begira: *L'Auto*-n handia zen eta erdira jaitsi zen *L'Equipe*-ren kasuan. Kasu honetan azalpena antolatzaile izatearen eskutik etor daiteke, azken urtealdian *L'Equipe*-k abandonatu duelako rol hori.

12.2.4 Edukia

12.2.4.1 KAZ-5. Ikergaldera: eduki-kategoria nagusiak

Kontuan izanik Tourra kirol-ekitaldia dela (nahiz eta bere egiazko izaera askoz konplexuagoa izan) eta egunkariak argitaratutako edukiak sei kategoria nagusitan banatu direla (kirola, dopina, gertakariak, gatazka, teknologia eta ekonomia), guztiz logikoa da emaitzetan **kirolaren** kategoriak, orokorrean, % 87,9ko portzentajea lortzea, eta hiru herrialdetako egunkarietan ia balio berdintsua izatea. Bigarren, dopina dator % 5,1eko portzentajearekin, eta hirugarren gertakarien kategoria % 3,8rekin. Beste hiruren presentzia ez da aipagarria.

Dopinak, informazio eta iritzi gai modura, 1978-2013 epealdian hartu zuen protagonismoa, batez ere Frantziako prentsan (% 8,1). Egunkarien artean *Le Monde* (% 15,4) nabarmen daiteke, besteek baino askoz informazio gehiago, ia bi halako, eskaini diolako gai honi. Kazetaritzaren ikuspuntutik interesgarria den beste ondorio bat ere agertu da, hau da, egunkari generalistek (% 6,9) dopinaren inguruko informazio eta iritzi doble argitaratu dutela kirol egunkariak (% 3,0) baino. Gainera, egunkari generalista guztietan agertu da dopinaren inguruko kazetaritza-edukia.

Puntu hau argitzeko, bi faktore aipa daitezke: batetik, dopinaren gaiak hedabideetan garrantzi nabarmena hartu zuelako 1978tik aurrera, "Pollentier" aferaren ondorioz¹⁸⁵; eta, bestetik, Frantziako egunkarien artean lehia komertziala zegoelako.

Lehenengo faktorearen interpretazioa egitean, kontuan izan behar da kirol-dopinaren inguruko informazioa eta iritzia maiztasunez agertu dela prentsa generalistan, gai honek, drogatzearen auziarekin erlazionatuta dagoelako eta gizarte zabalean kezka sortzen duelako. Halaber, segur aski ere, nazio eta nazio-identitate desberdinen izen eta ospe onean ere eraginean izan dezakeelako.

Bigarrenari dagokionez, *Le Monde* egunkari generalistak, Frantzian egunkari garrantzitsuenetakoak, dopinaren gaia erabili du Tourraren ospea higatzeko, kirol-lorpenak behin baino gehiagotan ezbaian jarriz. Izan ere, kontuan izan behar da urte luzez *L'Equipe* egunkari-antolatzailea lehiakide komertziala izan dela.

12.2.5 Protagonistak

12.2.5.1 KAZ-5. Hipotesia: protagonista-mota

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan protagonista-moten inguruan ez dagoela desberdintasun esanguratsurik–, onetsi egin da. Hedabide, herrialde eta urtealdi guztietan, **txirrindularia** da protagonista nagusia, % 85etik gorako portzentajea eskuratuz. Beste protagonista-kategoriak (antolatzaileak, zaleak, taldeetako laguntzaileak eta agintari instituzionalak) % 3,5 baino gutxiago lortzen dute irizpide guztietan.

¹⁸⁵ Pollentier afera: 1978ko Tourrean Michel Pollentier Alpe d'Huez-en etapa irabazi ondoren, Tourraren lidergoan jarri zen. Irabazleek bukatu eta ordubetera egin behar izan zuten drogen analisia -dopinaren aurkako kontrola-. Pollentier-ek berak jakin bazekien substantzia debekatuagatik positibo emango zuela eta beste baten gernuz betetako gomazko balbula lotu zuen besapean, hodi baten bitartez zakilaren beheko alderaino zihoala. Belgiarrak kontrolean gernua "garbi" emateko asmoa zuen, besoa saihestaren kontra estutuz eta txiza tututik jaistera behartuz. Mediku-ikuskatzaileak hodia aurkitu eta Pollentier-en iruzurra salatu zuen. UCIn araudiak eskatzen zuen bezala eta Frantziako zuzenbidearekin bat etorritik, lasterkaria Tourretik kanporatu zuten, bost mila liberako isuna jarri zioten eta baita bi hilabetez lehiaketatik kanpo utzi ere.

Agian aipa daiteke frantses eta espainiar egunkariak, 1903-1914 epealdian, **antolatzaileak** nabarmendu zituztela protagonista modura, % 7-10 arteko portzentajea lortu baitzuten. Honen inguruan esan behar da frantses egunkarien eta Tourraren antolaketaren arteko lotura zuzena eta estua zela eta antolatzaileek beraiek idazten zituztela iritzi-edukiak eta baita lasterketaren inguruko informazioak ere. Bestalde, espainiar hedabideen kasuan, agerian geratu ziren Tourreko antolakuntzarekin izandako tirabirak, behin baino gehiagotan nazio-identitatearekin loturik.

12.2.5.2 KAZ-6. Hipotesia: protagonistaren leinua

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta egunkari-motaren aldagaien protagonisten nazio-identitateak esanguratsuki desberdinak direla–, onetsi egin da.

Herrialde bakoitzeko prentsak bere leinuko protagonistak lehenesten ditu, baina hiru herrialdeen artean desberdintasun batzuk daude eta bloke bi agertzen dira: batetik Euskal Herriko egunkariak daude, zeintzuetan euskal leinuko protagonistek %8,6ko portzentajea lortzen dute; eta bestetik, portzentaje horren doblearekin gutxi gorabehera, frantses eta espainiar egunkariak daude, euren leinuko protagonistek %17-20 presentzia eskuratzen baitute. Herrialde bakoitzeko prentsan aipatzen den bigarren leinuko protagonistei dagokienez, Euskal Herriko prentsan, frantses eta italiar leinuak dira aipatuena; Espainiako prentsan, frantsesa da bigarren leinua; eta Frantziako prentsan, belgiarrek, espainiarrek eta italiarrek dute presentziarik handiena.

Egunkari-motaren aldagaien diferentziak aipagarriak daude egunkari generalista eta kirol-egunkarien artean. Egunkari generalistetan protagonisten leinua ez dago islatuta edukien ia bi herenetan (% 59,2). Aldiz, kirol-egunkarietan, protagonistaren leinua agertzen da ia bi herenetan (% 58,6). Beraz, bi joera kontrajarri adierazten dituzte.

Beste diferentzia esanguratsua ere nabarmen daiteke, alegia, espainiar leinua asko agertzen dela kirol-egunkarietan (% 19) eta gutxiago generalistetan (% 6,6). Aldiz, gainerako leinuen presentzia paretsua da generalista zein kirolekoetan. Alde honen zergatia azaltzeko orduan, espainiar kirol-egunkarietan, batez ere 1978-2013 urtealdian, kirol-lorpenak nazio-identitatearekin lotu dela izan daiteke, adibidez “Marca España” izeneko kanpainaren ardatza izateraino: espainiar kirolarien emaitza

onek esfortzu zein herrialdearekiko engaiamendurekin lotzen zituzten kirol-egunkariak bereziki.

Urtealdiei begira, frantziar eta espainiar prentsan euren leinuko protagonistak batez ere bigarren eta hirugarren epealdietan nabarmentzen dira, hau da, 1930-1970 eta 1978-2013an. Protagonista euskaldunek ez dute inongo islarik espainiar eta frantses egunkarietan 1978-2013 urtealdira arte.

Azkenik, protagonisten leinuaren presentzialtasunari dagokionez, bi bloke argi antzeman daitezke: batetik, Euskal Herriko prentsaarena, non protagonisten leinua oso gutxitan agertzen den, hau da, hamar edukitatik bitan gutxi gorabehera (% 21,3); eta bestetik, Espainiako eta Frantziako prentsaarena, zeintzuetan protagonisten leinua askotan argitaratzen den, zehazkiago esanda, edukien erdietan baino gehiagotan (% 51-68 sardean).

12.2.5.3 KAZ-7. Hipotesia: protagonistaren generoa

Hipotesiaren arabera, tamalez kirol-munduan ohikoa denez eta, zoritxarrez, pentsa litekeen modura, **gizonen** presentzia erabatekoa izan daiteke, eta ez dago ezberdintasun estatistikorik, edozein egunkari edo herrialde abiapuntutzat hartuta.

Egilearen atalean aipatu den modura, txirringularitza gizonezkoen kirola izan da nagusiki eta Tourra ez da salbuespena izan. Gainera, Tourra gizon indartsuen mitoaren inguruan eraiki da: *“les forçats de la route”*. Gizonek gizonentzat pentsatutako kirol-lehia izan zen hasieratik, nahiz eta emakumezkoen Tourra egonkortzeko ahaleginak egin diren; antzuak, ikerketa hau amaitzeko orduan. Halaber, “Besterik” atala ez da islatzen inondik inora, Tourraren berrien artean protagonisten sexuari buruzko aipamenetan gizon/emakume dikotomiatik at estatistikoki garrantzia duen ezer ez delako argitaratu.

Datuen arabera gizonezkoak dira protagonistak ia eksklusiboak eta kopurua adierazgarria da (% 99,7). Ez dago alde nabarmenik herrialdeen artean ezta urtealdien artean ere. **Emakumezkoen** protagonismoa emakumearen ausentzian datza, herrialdeen artean eta urtealdien artean ere (berrien % 0,3an baino ez da esplizituki agertzen).

Herrialdeka, emaitzak lauak bezain argiak dira. Gizonen protagonismoa antzekoa da herrialde guztietan, % 90etik gora. Emakumeen protagonisten kopurua ere, % 0,2tik % 0,5era.

12.2.5.4 KAZ-8. Hipotesia: protagonistaren kolektibotasuna

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan protagonisten kolektibotasunaren inguruan desberdintasun esanguratsuak daudela–, ez da baietsi.

Aipamen **indibidualek** antzeko portzentajeak dituzte hiru herrialdeetan, % 82-88 artean. Taldeek (markadunak edo nazionalak izan), berebiziko protagonismoa izan dute Tourraren historian zehar, baina, esan bezala, nahiz eta lasterketa taldeka egin eta talde/multzo izaeraren inguruan eztabaida franko egon, albisteetan eta iritzietan protagonista indibidualak dira ugariak, gehienak indibidualki izendatuak edo indibidualtasunean azpimarratuak. Portzentajeak oso antzekoak dira herrialdeka, eta aztertutako epealdietan oreka gehien mantentzen dutenak espainiar egunkariak dira.

Multzoaren kategoriari begira, hamar berritatik batean azpimarratzen da kolektibitatearen protagonismoa. Atal honetan, Frantziako prentsak, batez ere 1903-14 eta 1930-1970 urtealdietan, multzoari ematen dio protagonismo gehien. Arestian aipatu diren taldeen inguruko eztabaidetan bilatu beharko litzateke frantses egunkariak aipamen kolektibo gehien egiteko arrazoia.

12.2.6 Kazetaritzaren sintesia eta generalizazioa

Kontuan izanik kazetaritzaren teoria eta praktika (Armentia & Caminos, 2003), aztertutako hamaika egunkariak egindako jarduera profesional eta ekoizpena honela sintetiza eta interpreta litezke erabilitako bost parametroen arabera (kokapena, irudi/testu erlazioa, informazio/iritzi erlazioa, protagonista, eta egilea):

- Tourrari buruzko edukiak presentzia handia dauka egunkarien lehen orrialdean, batez ere Frantziako prentsan, lasterketak kirolaren esparrua gainditzen duen seinale nabarmena. Izan ere, egunkarien jardunbide profesionalak eta irizpide akademikoak dioenez, gertakari batek garrantzi berezia hartzen du lehen orrialdean edo azalean jarria izatean.

12.3 Hirugarren ikerketa-gunea: naziotasuna eta interpretazio-marko orokorrak

12.3.1 Naziotasunaren parametroak

12.3.1.1 NAZIO-1. *Ikergaldera: nazio-identitatearen presentzia*

Hiru herrialdeetako prentsan nazio-identitatea (bai, ez), bere osotasunean hartuta -ikurrak eta leinuak-, esplizitu eta inplizitua barne, berdintsua da eta presente dago hamar edukitatik zortzitan (% 75-82 tartea) hau da, zortzi/bi ratioan.

Baina nazio-identitatearen esplizitutasunari begiratzen badiogu (esplizitu eta inplizitu kategoriak erabiliz), diferentzia nabarmenak aurkitzen dira, estatistikoki esanguratsuak. Frantziako egunkarietan identitate esplizitua edukien hiru laurdenetan dago (% 78,7); Espainiakoetan, bi laurdenetan (% 57,1); eta Euskal Herrikoan soilik laurden batean. Identitate esplizituaren kategoria ugariena leinuarena da hiru herrialdeetan.

12.3.1.2 NAZIO -2. *Ikergaldera: nazio-ikurren presentzia*

Itxuraz pentsa litekeen kontra, nazio-ikurren presentzia oso txikia da Tourrari buruzko edukietan, % 2,9 soilik orokorrean hartuta. Hiru herrialdeetako prentsaren artean diferentziak ez dira estatistikoki esanguratsuak, ezta egunkari-motaren aldagaien ere. Dena den, euskal egunkarietan dago portzentajerik handiena (% 5,8), Espainiakoetan horren erdia baino gutxiago eta Frantziakoetan are txikiagoa, laurden bat.

Urtealdien alderaketaren azterketari dagokionez, 1903-14, lehen fasean ikurrik ez dago espainiar egunkarietan eta oso gutxi frantses kazetetan. Urte batzuk geroago, 1930-70 urtealdian, ia ikur barik daude Espainiako zein Frantziako egunkariak. Azkenik, 1978-2013 urtealdian gorantz doa ikurren kopurua.

12.3.1.3 NAZIO -3. *Ikergaldera: nazionalitate-leinuaren presentzia*

Herrialdeei begiratzuz, frantziar egunkarietan edukien hiru laurdenetan (% 78,7) agertzen da nazionalitatearen leinua, edozein delarik leinu-mota hori (ikurra, hitzezkoa); espainiar egunkarietan, bi laurdenetan (% 57,1); eta euskal prentsan,

laurden batean (% 26,5) soilik, hau da, oso gutxi. Kontuan izan behar da Tourra Frantziak antolatzen duela eta bertako egunkariak interesaturik daudela nazio gehiagoren aipamenak ager daitezen, batez ere karreraren nazioartekotasuna bultzatze aldera.

Egunkari-motaren aldagaien arabera, kirol-egunkarietan, eduki guztiaren bi herenetan (% 66,3) egiten da leinuaren aipamena, eta egunkari generalistetan franko gutxiago (% 48,6). Kontuan hartzekoak dira faktore bi: batetik, kirol-egunkarien artean Tourrean antolatzaile- lanak egin dituzten bi kazeta daudelako: *L'Auto* eta *L'Equipe* eta, bestetik, kirol-egunkarien artean nazio-identitatearen presentziarik handiena duen *Marca* egunkaria tartean dagoelako. Halaber, oro har, kirol-ekitaldien kontakizunaren unibertsoan lehiaketak nazioen arteko demak bihurtzea kirol-egunkarien joera da.

Leinu-motari dagokionez, egiaztatzen da herrialde bakoitzeko prentsak bere leinu propioa izendatzen duela gehien, eta besteak franko gutxiago. Honela, frantziar prentsak edukien % 13,9tan aipatzen du frantses leinua; espainiar egunkariak % 16,7tan espainiar leinua; eta euskal prentsak % 10,0ean euskal deitura. Beraz, naziotasun propioaren nabarmentasuna berdintsu azpimarratzen da hiru herrialdeetan.

12.3.1.4 NAZIO -1. Hipotesia: nazio-identitatea eta gatazkatasunaren enkoadrea

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan ez dagoela alde nabarmenik nazio-identitatea gatazkatasunaren arabera enkoadratzean– onetsi egin da.

Besteekiko gatazkatasuna oso eduki gutxitan agertzen da egunkari eta urtealdi guztietan. Zehazkiago, hiru herrialdeetako prentsan, % 2-10 artean soilik. Beraz, beste alde batetik begiratu, egunkarietako edukien % 90etan ez da agertzen gatazkatasuna besteekiko (adiskidetsu edo erasokor kategorietan banatua). Emaizak ere berdintsuak dira egunkari- motaren eta urtealdien aldagaiei dagokionez.

12.3.1.5 NAZIO -2. Hipotesia: nazio-identitatea eta aurkakotasunaren enkoadrea

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan nazio-identitatearen soslaia berdintsua dela aurkakotasunaren kontzeptuaren presentziari

dagokionez – ezetsi egin da. Izan ere, egiaztatu da euskal, espainiar eta frantziar egunkariaren artean diferentziak estatistikoki esanguratsuak direla.

Emaitzak orokorrean hartuta, aurkakotasunaren presentziarik¹⁸⁶ ez dago ikertutako edukien % 80,9an eta badago % 19,1ean, portzentaje nahiko aipagarria azken hau.

Herrialdeka begiraturaz, hiru herrialdeetako egunkarietan “Propio alde” kategoria nagusitzen da (% 9,5) eta bloke bi daude: batetik euskal prentsa (% 2,8) eta, bestetik, Espainiakoa eta Frantziakoa (% 11). Ikuspegi hori islatzen da aurkakotasunaren azpikategoria guztietan: albo batetik euskal zifrak baxuak dira oso eta, bestetik, espainiar eta frantses egunkariak, paretsuak eta altuagoak.

Urtealdien artean diferentzia adierazgarriak antzeman daitezke kategoria guztietan lehen urtealdia eta beste biak alderatuz, 1903-1914 urtealdian ia ez baitago aurkakotasun aztarnarik.

Egunkari generalista eta kirolekoen artean, azken hauetan aurkakotasunaren presentzia askoz ere handiagoa da generalistetan baino, ia 18 portzentaje-puntukoa (% 28,3 vs % 10,8); alde esanguratsua, beraz.

12.3.1.6 NAZIO -3. Hipotesia: nazio-identitatea eta positibotasunaren enkoadrea

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan eta urtealdietan ez dagoela diferentzia adierazgarririk nazio-identitatea positibotasunaren arabera enkoadratzean– onetsi egin da.

Hiru herrialdeetako prentsan, nazio-identitatearekiko positibotasunaren kontzeptuari dagokionez (positibo eta negatibo kategoriak dituen) edukien hiru laurdenetan edo zerbait gehiagotan (% 73-83,5 tarte) ez da ezer kodetu, ez modu positiboan ez negatiboan. Beraz, berriz ere, ia zortzi/bi ratioa dago.

Bi kategorietan arreta jarritz, nazio-identitatearekiko positiboak diren informazioak eta iritziak ugariagoak dira espainiar prentsan (% 27,0), ondoren euskal prentsan (% 20,8) eta azkenik frantziar prentsan (% 16,5), baina alde horiek ez dira esanguratsuak, aipatu den modura.

¹⁸⁶ Hurrengo kategoria nagusietan: propio alde, propio aurka, beste alde eta beste aurka.

Ondorio honen analisia egitean, kontuan izan behar dira arrazoi batzuk. Lehenik eta behin espainiar prentsak 1930-1978 urtealdian, Bigarren Mundu Gerraren osteko epealdiaz geroztik batez ere, nazioa (espainiar nazionalismoaren eskutik) eta positibotasuna lotzen ditu. Gauza bera antzeman daiteke Euskal Herriko prentsan 1978-2013 urtealdian, naziotasuna goratzen baita balore gisa, kasu honetan frankismo osteko erreforma politikoarekin batera euskal abertzaletasunak ezagutu zuen pizkundearrekin. Epealdi horretan positibotasunaren tasak antzekoak dira espainiar eta euskal egunkarietan. Frantziar egunkarietan, aldiz, nazio-identitatearekiko positiboak diren informazioak eta iritziak urriagoak dira 1930-1978 urtealdian Tourra nazioka korritzeko erabakiak barne hautsak harrotu zituelako, gehienetan, eta ikerketari dagokionez, *L'Equipe* egunkari antolatzailea eta *Le Monde* kazetaren ikuspegiak bat ez zetozelako.

12.3.2 Naziotasunaren marko orokor konbinatuak

12.3.2.1 NAZIO-4. Hipotesia: naziotasunaren interpretazio-marko orokorra

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan, naziotasunaren enkoadre orokor desberdina aurkezten dela lau kontzeptuen arabera¹⁸⁷– ez da onetsi, aurkakotasunean bakarrik aurkitu baitira diferentzia estatistikoak eta ez beste hiru kontzeptuetan (ikurtasun, gatazkatasun eta positibotasuna).

Ikurtasunaren presentzian, euskal prentsan dago portzentajerik handiena (% 5,8). Gatazkatasunaren kontzeptuan, Frantziako prentsak erakusten du beste identitateekiko adiskidetasunik handiena (% 5,7) eta Euskal Herriko prentsak txikiena (% 1,0). Positibotasunaren parametroan, nazio-identitatearentzako positiboak diren edukiek Euskal Herriko eta Espainiako prentsan dute portzentajerik handiena (% 18-20 tartean) eta Frantziako egunkariak nahiko atzerago geratzen dira (% 9,0). Aldiz, identitate negatiboa adierazten duten informazioak eta iritziak gehiago dira Espainiako eta Frantziako egunkarietan.

¹⁸⁷ Ikurtasuna, gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna.

12.3.2.2 NAZIO-5. Hipotesia: 1978-2013 urtealdiko naziotasunaren interpretazio-marko konbinatua

Ezarritako hipotesia –hiru herrialdeetako prentsan, 1978-2013 epealdian, naziotasunaren enkoadre orokor desberdina aurkeztu dela sei kontzeptuetan¹⁸⁸– ez da guztiz onetsi, leinutasunean eta aurkakotasunean soilik diferentzia aipagarriak daudelako.

Kontzeptuak banaka laburbilduz, **naziotasunaren** presentzia, hiru herrialdeetako prentsan, % 77-90 tartean dago; **ikurtasuna**, % 2-6 sardean; **gatazkatasuna**, % 1-6an, bai besteekeko adiskide eta erasokor kategorietan; **positibotasuna**, % 20-23 tartean, polo positibo eta negatiboa batuta. Arestian aipaturikoetan, beraz, diferentzia nabarmenik ez da ematen.

Egon badaude alde nabarmenak, aldiz, leinutasunean eta aurkakotasunean. Edukietan, **leinutasunaren** presentzia eza % 11 da, Frantziako prentsan, % 45 Espainiakoan eta % 74 Euskal Herrikoan. Beste modu batera esanda, Frantziako egunkarietan leinutasuna agertzen da edukien % 89an, oso portzentaje handia, naziotasuna esplizituki adieraziz; Espainiakoetan % 55an, alegia, erdibidean; eta Euskal Herrikoetan % 26an bakarrik.

Aurkakotasunean, “identitate propio alde” kategorian bi soslai desberdin argi ikusten dira: batetik, Euskal Herriko prentsan, % 3 inguruan dago euskal identitatearen aldeko edukien portzentajea; bestetik, bi estatuetako prentsan, bai frantziar eta bai espainiarrean, ia % 11ra heltzen da euren identitateen aldeko kopurua. Aldiz, “beste identitateen aurka” kategorian diferentziak badaude, baina ez dira horren argiak: Euskal Herriko eta Espainiako prentsan % 2-4 tartean dago eta Frantziakoan % 8an, seguruenik ez desberdintasun adierazgarririk.

12.3.2.3 NAZIO-4. Ikergaldera: hiru nazio-identitate nagusien naziotasun-marko konbinatua

Hiru herrialdeetako egunkariek, hiru nazio-identitateei dagozkien edukiak barne hartuz –eta hiruak multzo bakarrean bilduz–, naziotasun-enkoadre orokor estatistikoki

¹⁸⁸ Naziotasunaren presentzia, ikurtasuna, leinutasuna, gatazkatasuna, aurkakotasuna (propio alde eta beste aurka) eta positibotasuna.

desberdina eraikitzen dute parametro gehienetan, zehazkiago, lautatik hirutan (ikurtasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna). Gatazkatasunaren kontzeptuan (adiskidetsu, erasokor) bakarrik erakusten dute naziotasun-enkoadre berdintsua.

Ikurtasunean bi eredu ezberdin ondorioztatzen dira: batetik, euskal prentsaren eredua, hiru leinu horien inguruko ikur askorekin (% 33,8); eta bestetik, espainiar eta frantziar estatuetaiko prentsaren eredua ikur gutxiarekin (% 5 inguru bakoitzak).

Gatazkatasunean ere bi eredu baliokide profilatzen dira. Batetik, euskal prentsa, zeina adiskidetsuena agertzen den hiru identitateei dagozkien edukietan, hauek multzo bakarrean hartuta (% 58,3); eta, bestetik, espainiar eta frantziar estatuetaiko egunkariak, eduki adiskidetsu gutxiagorekin (% 35 inguruan bakoitzak). Ondorioz, alderantzizko interpretazioa eginez, bi estatuetaiko prentsan eduki erasokorrak ia bi heren dira hiru nazio-identitateei dagozkien edukietan.

Positibotasunean ere bi eredu desberdin agertzen dira, aurreko kontzeptuekiko baliokide: euskal prentsaren eredua, non hiru identitate horiei buruzko edukien % 90,6 positiboa den, eta espainiar eta frantziar egunkariena, zeintzuetan portzentajeak % 61-72 tartean dauden.

Aurkakotasunaren kontzeptuan hiru herrialdeetaiko prentsan ez dago diferentzia estatistiko nabarmenik, lau kategoria nagusien eta ugarietak kontuan hartzen baditugu (identitate propioaren alde edo aurka eta beste identitate baten alde edo aurka). Dena den, bada ondorio bat kuantitatiboki aipagarria ere: identitate propioaren aldeko edukietan euskal prentsa % 77,8ra iristen da eta, aldiz, espainiar eta frantziar egunkariak % 62-64an geratzen dira, ia hamabost portzentaje-puntu gutxiagora. Jakina, identitate propioaren aldeko edukiak dira ugarietak egunkari guztietan, eta beste hiru kategoriek (propioaren aurka, bestearen alde eta aurka) oso portzentaje txikiak dituzte.

Egunkari-motaren arabera ondorioak aztertuz, egunkari generalista eta kirolekoak oso antzeakoak dira ikurtasun, aurkakotasun eta positibotasunaren parametroetan, eta diferentzia adierazgarria soilik gatazkatasunean aurkitzen da, non identitate nagusiekiko edukiak nabarmenki erasokorrakoak (% 72,1) diren egunkari generalistetan, kirolekoetan baino (% 59,1), hamahiru puntuko aldearekin.

12.3.2.4 NAZIO-5. *Ikergaldera: herrialde bakoitzeko prentsak nola soslaitzen dituen hiru identitate nagusiak*

Hiru herrialdeetako egunkarietan, hiru nazio-identitateei dagozkien edukiak kontuan hartuz, berezko leinua da nagusi bakoitzaren eremuan, hau da, bakoitzaren leinuaren presentzia da nagusiena: euskal prentsan euskalduna (% 10,0), espainiar egunkarietan espainiarra (% 15,7), eta frantses prentsan frantziarra (% 14,0).

Prensa bakoitzaren jarduera laburbiltzeko orduan, euskal prentsaren kasuan adostasun-puntu gutxi daude: gatazkatasunean, “Propio aurka” eta “Beste Aurka” puntuetan, eta “Negatibo” poloan daude. Espainiako prentsak soslaitzen duen nazio-identitateak irudi orekatua ematen du, “Ikurra bai” eta “Propio alde” kategoriak kenduta. Frantziar egunkariak aldekatasun handia erakusten dute euskal eta espainiar leinuekiko.

Profilatutako nazio-identitateak bide paraleloa jorratzen du euskal eta espainiar edukiei dagokienez: grafikan gainera daude “Ikurra bai”, “Propio alde”, “Propio aurka” eta “Positiboa” ataletan, eta behetik gainerako guztietan.

12.3.3 Naziotasunaren sintesia eta inferentzia

Naziotasunaren teoria abiapuntutzat hartuta (Billings A. C., 2010, orr. 3-20) eta identitateak diskurtsoaren baitan eraikitzen direla azpimarratuz (Hall, 1996), irizpide teoriko eta metodologiko anitz erabiltzen dira kirol-hedabide binomioaren inguruan (Birchall, 2010). Naziotasunaren diskurtsoa hedabideen bidez eraiki eta indartzeko, hainbat osagai esplizitu eta ezagun erabiltzen dira, hala nola ikurrak eta leinuak. Baina horietaz gain, hedabideetako eduki eta diskurtsoen azterketan ere kontuan izan behar dira beste kontzeptu transbertsal edo zeharkako batzuk, gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna bezalakoak.

Abstrakzio-piramidearen goi-mailan jarrikerik, Tourrari buruzko edukietan leinuaren presentzia handia da, batez ere nazio-identitate propioari dagokiona. Aldiz, ustearen aurka, nazio-ikurren presentzia urria da orokorrean.

Naziotasunaren interpretazio-markoen inguruan ondorioztatzen da gatazkatasunaren presentzia ez dela aipagarria, baina bai aurkakotasuna. Azken parametro honetan, identitate propioaren aldeko informazioak eta iritziak dira nagusi, batez ere espainiar eta frantziar egunkarietan. Honen arrazoia egon daiteke Espainia

eta Frantziako egunkariak, azpian eta barrenean, estatu bateko prentsa izatearen identitatea barneratuta daukatela euren kazetaritz-jardunean eta informazioa lantzean.

Egunkari-motari dagokionez, egunkari generalistetan ikurtasunaren presentzia handiagoa da eta, gainera, kirolekoak baino eduki erasokorragoak argitaratzeko joera daukate. Aurkakotasunari eta positibotasunari begira, bi egunkari-motek antzeko profila dute.

Beraz, ondorio nagusi modura esan daiteke hiru herrialdeetako prentsaren artean, naziotasunaren diskurtso edo marko orokorrari dagokionez, ez dagoela desberdintasun adierazgarririk. Hala ere, hiru identitate nagusien inguruan jartzen bada fokua, orduan bi eredu franko desberdin azaleratzen dira: batetik, bi estatuetako prentsaren eredua, zeinetan naziotasun esplizituak eta identitate propioaren aldekoak oso garrantzi handia daukaten; eta bestetik, euskal prentsarena, naziotasunaren agerpenean apalago, adiskidetsuago eta positiboagoa irudikatzen dena.

12.4 Indarguneak, ahulguneak eta etorkizunera begira

Tesi hau burutzea lan oso handia izan da, denboran luzatu eta aldagai asko dituelako. Edozein ikerketatan ohikoa den legez, indarguneak eta ahulguneak izan ditu. Izan ere, zaila baita oso abiapuntutzat hartu diren hipotesiei eta ikerгалderei erantzun egokiak ematea. Indarguneen aldetik, egunkarien kopurua, laginaren tamaina handi eta sailkatua, eta egitura metodologikoa aipa daitezke.

Etorkizunari begira, batik bat balizko azterlan berrietan begirada jarrita, ikerketa honen bitartez lortutako emaitzek, barneratutako irakaspenek eta antzemandako gabeziek eremu zabal bat jorrazteko uzten dute. Zentzu horretan, balizko ikerketa-proiektu berrietarako proposamen modura, interesgarria litzateke Frantziako Tourrean dopinaren inguruan argitaratutakoari buruz azterketa sakonagoa egitea, nazio-identitatearen faktorea ere barnean sartuz. Halaber, garrantzitsua izango litzateke aztertzea txirrindulariek edo gainerako diziplinetako kirolariek dopinaren aferetan sartu, erori, nahastu edota harrapatuak izan ondoren, nola bihurtzen diren heroiak edota gizakirik txarrenak soinean daramaten maillota eta nazio-jatorria zein diren kontuan hartuta.

Are gehiago, ikertu ere ikertu liteke dopinaren kasuetan inplikaturik egoteak zer adierazten duen mediatikoki nazio-identitateari begira; hots, naziotasunaren lehietan ondoriozta daitekeenaz zerbait gehiago jakin. Ildo horrek abagune asko eskaintzen ditu, txirrindularitzara muga izan baitaiteke, edota beste kirol-diziplina edo lehiaketara zabaldu, Joko Olinpikoetara kasu, hortxe ageriago agertuko bailitzateke nazio-izaeraren eragina.

Bestetik, bigarren ate bat ere ireki da ikerlariaren aurrean eta generoaren inguruko beste ikerketa-prozesu bat irekitzea ez litzateke desegokia. Ikerlan honetan argi ikusi denez, emakumearen presentzia eza nabaria da edozein paper edo funtziotan eta, agertzen denean, bere rola apaingarria da oso, sexismoan oinarriturik edo gizonarekiko erreferentzia eta menpekotasunean.

13 Erreferentzia bibliografikoak

- 7K. (2011). El Tour, el hijo deportivo de un siglo loco. 7K, 10
- ABC. (2007). *Definición ABC Tu diccionario hecho fácil*. Berreskuratuta 2017ko ekainaren 10ean hemendik:
<https://www.definicionabc.com/comunicacion/fotonoticia.php>
- ABC. (2013-07-24). *ABC.es*. Berreskuratuta 2013ko abenduaren 2an hemendik:
<http://www.abc.es/deportes/20130724/abci-casos-dopaje-tour-201307241858.html>
- Abril, G. (1997). *Teoría general de la información: datos, relatos y ritos*. Madrid: Cátedra.
- Abril, N. (2004). Género, sexo, medios de comunicación. Realidades, estrategias, utopías. (orrialdea 161). Gasteiz: Kazetaritza Saila EHU-UPV Emakunde.
- Abt, S. (1999). *Lance Armstrong's Incredible Comeback from Cancer*. San Francisco (AEB): Van der Plas.
- Addis, L. (1999). *Of mind and Music*. Londres: Cornell University Press.
- Aguirre España, L. M. (2005). Políticas Culturales en Chile. Una mirada desde la economía política de la cultura. *Redes, número 4, II*, 321.
- Albertos, J. M. (1974). *Redacción periodística: Los estilos y los géneros en la prensa escrita*. Bartzelona: ATE.
- Aleixandre, V. (2004-11-25). *Victor Aleixandre*. Berreskuratuta 2009ko ekainean Victor Aleixandre-ren web orritik:
http://www.victoralexandre.cat/index.php?option=com_content&task=view&id=132&Itemid=62
- Alvarez Dorronsoro, I. (1993). *Diversidad cultural y conflicto nacional*. Madrid: Talasa Ediciones.
- Amin, S. (1979). Clases y naciones en el materialismo histórico. *El Viejo Topo* (22).
- Andújar, C. S. (2013). *ORÍGENES DE LA PRENSA DIARIA DEPORTIVA: EL MUNDO DEPORTIVO*. Materiales para la historia del deporte, Universidad Carlos III, Aranjuez.
- Ander-Egg, E. (1992). *“Desarrollo y Política Cultural.”*. Buenos Aires, Argentina: Ediciones CICCUS.

- Anderson, B. (2006). *Imagined Communities: Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*. London, New York: Verso.
- Anderson, J. A. (1987). *Communication research: Issues and methods*. . New York: McGraw-Hill.
- Annan, K. (2004). Prentsaurrekoa 2005eko Kirolaren eta Gorputz Hezkuntzaren Nazioarteko Urtearen helburuak aurkezteko.
- Aranguren, E. L. (1981). Regionalismo e integración nacional, aproximación teórica. *Revista española de investigaciones sociológicas*, 59-76.
- Armentia, J. I., & Caminos, J. M. (2003). *Fundamentos de periodismo impreso*. Bartzelona: Ariel.
- Arnaud, P. (1999). Sport et relations internationales. La nouvelle donne géopolitique (1919-1939). *Géopolitique*, 66, 15-24.
- Arraiza E., Apodaka E., Odriozola J. y Aranguren G. (2007). Identificación etnosocial en la C.A.V. y en la C.A.N. In E. A. Eugenio Arraiza, *Euskal Herria Ardatz. Kultura, Identitatea, Boterea*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Arratibel, I. (2001). Laguntza ergogenikoak edo dopina. *Zazpika*, 22-23.
- Arribas, C. (2011-1-29). *El País.com*. Berreskuratuta 2012ko apirilaren 7an hemendik: http://elpais.com/diario/2011/01/29/deportes/1296255602_850215.html
- Arribas, C. (2011-2-10). *El País.com*. Berreskuratuta 2012ko apirilaren 7an hemendik: http://deportes.elpais.com/deportes/2011/02/10/actualidad/1297326128_850215.html
- Arribas, C. (2011-2-15). *El País.com*. Berreskuratuta 2012ko apirilaren 7an hemendik: http://elpais.com/diario/2011/02/15/deportes/1297724402_850215.html
- Arribas, C. (2013-12-14). Lance Armstrong, el ciclista arrepentido. *El País* (orrialdeak 54-55)
- Augendre, J. (1991). *Le Tour de France*. Paris: Solar.
- Augustin, J. (1999). *Les enjeux sociaux et politiques du sport*. Neuchatel: CIES.
- Badrán, P. (2001). El Blanco Móvil: Taller de Periodismo. (orrialdeak 1-11). Bogota (Kolonbia): Nuevo Periodismo.
- Baietz Fundazioa. (2002). Kazetaritza eta kazetarien naziotasuna.

- Bairner, A. (2001). *Sport, nazionalization, and globalization: European and North American perspectives*. New York: SUNY Press.
- Bar-On, T. (2014). *The World through Soccer: The Cultural Impact of a Global Sport*. Plymouth: Rowman & Littlefield.
- Barrio, M. R. (2009). La actividad física y el deporte como herramienta para promover el interculturalismo en contextos postbélicos, en el marco de la cooperación para el desarrollo: un proyecto realizado en Guatemala. Doctoral dissertation, Ciencias.
- Barth, F. (1969). *Ethnic Groups and Boundaries. The Social Organization and Cultural Difference*. London: G. Allen and Unwin.
- Bastenier, M. Á. (2001). *El Blanco Móvil. Curso de Periodismo*. Madrid: Santillana.
- Bello, R. R. (2008-12-4). Que venga la fiera. *Juventud Rebelde - Suplemento Especial*, 2.
- Bély, L. (2005). *Louis XIV le plus grand roi du monde*. Éditions Jean-paul Gisserot ISBN 9782877477727.
- Benito, A. (1973). *Teoría general de la información*. Madrid: Biblioteca Universitaria Guadiana.
- Benito, A. (1982). *Fundamentos de Teoría General de Información*. Madrid: Pirámide.
- Benson, D. (2013-8-20). *CyclingNews.com*. Berreskuratuta 2013ko azaroaren 30ean hemendik: <http://www.cyclingnews.com/news/no-positive-doping-tests-at-2013-tour-de-france/>
- Berelson, B. (1984). *Content analysis in communication research*. New York: Hafner.
- Bergh, D. (2015). Chi-Squared Test of Fit and Sample Size-A Comparison between a Random Sample Approach and a Chi-Square Value Adjustment Method . *Journal of applied measurement* 16(2), 204-217.
- Berria. (2019-10-3). *www.berria.eus*. Berreskuratuta 2014ko abenduaren 10ean hemendik: <http://www.berria.eus/estiloliburua/eliburua/informazioa-eta-interpretazioa>
- Billig, M. (1995). *Banal nationalism*. London: SAGE editions.
- Billings, A. (2010). *La comunicación en el deporte*. Clemson: UOC.
- Billings, A. C. (2010). *Examining Identity in Sports Media*. Londres: SAGE Publications.

- Billings, A.C. y Eastman, S.T. (2002). *Nacionality, gender and ethnicity: Formation of identity in NBC's 2000 Olympics coverage*. International Review for the Sociology of Sport.
- Billings, A.C.; Angelini, J.R. y Eastman, S.T. (2008). *Wiw shock: Television commentary about playing on the PGA and LPGA tours*. The Howard Journal of Communications.
- Birchall, A. (2010-3-8). Journalism. Edge Hill University.
- Blanco, J. (2008-10-6). *Las retransmisiones deportivas como género periodístico espectacular y dramático*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Berreskuratuta 2008ko urriaren 6an, hemendik: <http://www.ehu.es/zer/zer11web/jmblanco.htm>
- Blazquez, N. (1994). *Ética y medios de comunicación*. Madril: Biblioteca de autores cristianos.
- Boniface, P. (2002). *La terre est ronde comme un ballon. Géopolitique du football*. Paris, Seul.
- Bourgat, M. (2000). *Tout savoir sur le dopage*. Paris: Favre.
- Boyd, T. (1997). *Anatomy of a murder: O.J. Simpson and the imperative of sports in cultural studies*. Indiana: Bloomington, Indiana University Press.
- Breully, J. (1990). *Nacionalismo y Estado*. Bartzelona: Ediciones Pomares-Corredor, S.A.
- Bromley, M. (1998). *Watching the Watchdogs? The role of readers' letters in calling the press to account. H. Stephenson and M. Bromley Sex, Lies and Democracy: the press and the public*. Londres: Longman.
- Burdsey, D. (2004). *One of the lads? Dual ethnicity and assimilates ethnicities in the careers of British Asian profesional footballers*. Londres: Ethnic and Racial Studies, 27, 5.
- Calmat, A. (1992). *Sport et nationalisme* (Vol. 61). Pouvoirs.
- Carámbula, M. (2009-3-23). Campaña electoral.
- Carr, R. (1985). *España, 1808-1975*. Barcelona: Ariel.
- Castaño, P. (2013-7-13). *YouTube.com*. Berreskuratuta 2014ko martxoaren 4an, hemendik: <https://www.youtube.com/watch?v=R67dhaievuo>
- Castelló, E. (2016). Anderson y los medios. La fuerza de las "comunidades imaginadas". *Debats. Revista de cultura, poder y sociedad*, 130 (1), 75-80.

- Castilla, L. G. (2004). El 'discurso eficaz' de la viñeta gráfica.
- Cazeneuve, T. (2010). *La grande histoire du Tour de France*. Bolougne-Billancourt: Éditions L'Equipe.
- Cazeneuve, T. (2010). *La grande histoire du Tour de France*. Bolougne-Billancourt: Éditions L'Equipe.
- Cervelló, J. M. (2008-7-1). Fútbol, dictadores y democracia. *El sentimiento nacional*. Espainia.
- Chany, P. (1991). *La fabuleuse histoire du Tour de France*. Paris, Frantzia: Nathan.
- Chatelet, F. y.-K. (1986). *Las concepciones políticas del siglo XX*. Madril: Espasa Calpe.
- Chillón, L. A. (1994). *La literatura de fets*. Bartzelona: Libergraf.
- Coakley, J. (1992). *The social origins of nationalism movements. The contemporary west european experience*. Londres: SAGE Publications.
- Coleman, R., McCombs, M., Shaw, D., & Weaver, D. H. (2009). *Agenda Setting*. In K. Collin, A. (1964). *Le sport et la presse*. Paris.
- Colombo, F. (1997). *Últimas noticias sobre el periodismo*. Anagrama.
- Colombres, A. (1987). *Sobre la Cultura y el Arte Popular*. Buenos Aires: Ediciones del Sol.
- Comunicólogos. (2019ko azaroa). *Comunicólogos.com*. Berreskuratuta hemendik: Modelo de Lasswell: <https://www.comunicologos.com/teorias/modelo-de-lasswell/>
- Conord, F. (2014). *Le Tour de France à l'heure nationale*. Paris: PUF.
- Corona, M., Parra, J., & Rodríguez, J. y. (2005). Diseño de un manual de redacción para la fuente deportiva de los medios impresos de Maracaibo. Universidad Rafael Beloso Chacin. Maracaibo.
- Cote, J. E., & Levine, C. (2002). *Identity Formation, Agency, and Culture*. New Jersey (AEB): Lawrence Erlbaum Associates.
- Craig, R. T., & Tracy, K. (1995). *Grounded Practical Theory: The Case of Intellectual Discussion* (Vols. Volume 5, Issue 3). Communication Theory.
- Croteau, D., & Hoynes, W. (2001). *The business of media: Corporate media and the public interest*. Pine Forge Press-Sage.

- Córdova, A. (2011). Zuzendariari idatzitako gutunak kazetari-genero gisa. *ZER*, Vol. 16 (30), 189-202.
- Davison WP, J. B. (1982). *Mass Media systems and effets*. New York: Holt, Rinehart and Wiston.
- Decine21.com*. (2005). Berreskuratuta 2007ko urtarrilaren 20an hemendik, Le Tour de France: <http://decine21.com/peliculas/Le-Tour-de-France-8103>
- Delannoi, G. (1993). La teoría de la nación y sus ambivalencias. In P. A. G. Delannoi, *Teorías del nacionalismo* (or. 9). Barcelona: Paidós.
- Delannoi, G. y. (1993). Teorías del Nacionalismo. *La teoría de la nación y sus ambivalencias*. Bartzelona: Paidós.
- Desgrange, H. (1903-7-1). La semence. *L'auto*, or. 1.
- Deutsch, W. (1971). *El nacionalismo y sus alternativas*. Buenos Aires: Paidos.
- Díaz Domínguez, M. P. (2013). *Cómo ser mujer y periodista en Huelva*. Huelva: Asociación de la prensa de Huelva.
- Diderot. (d.g.). *Bougainville-ko bidaiaren gehigarria*.
- Dodaro, C. A. (2008-11-7/8). Narrativas audiovisuales, fútbol y nación. La Plata: Universidad Nacional de La Plata, Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación.
- DRAE. (2014). *Diccionario de la lengua española*. Madrid: Espasa.
- Dragnic, O. (2004). *Diccionario de Comunicación Social*. Caracas: PANAPO.
- Dumons, P. e. (91). *Naissance de Sport moderne*. La Manufacture.
- Dunning, E. (2001). Le rôle du sport dans le processus d' «européanisation». In P. Boniface, *L'Europe et le sport, 89-94* (or. 94). Paris.
- Dunning, E. (2003). *El fenómeno deportivo: Estudios sociológicos en torno al deporte, la violencia y la civilización*. Bartzelona: Paidotribo.
- Duret, P. y. (1994). The Semiotics of Sport Heroism. *International Review for the Sociology of Sport* 29, 135-145.
- Durry, J. (1982). *L'en-cycle-opédie*. Lausanne: Édition-Denöel.
- E Lopez-Escobar, J. L. (1998). *Agenda setting and community consensus: First and second level effects*. International Journal of Public Opinion Research.

- EFdeportes*. (1997-urria). Berreskuratuta 2015eko ekainaren 23an hemendik:
 EFdeportes.com: <http://www.efdeportes.com/efd7/tamb71.htm>
- EGIN. (1993-10-3).
- EGIN. (1995).
- El País. (2013-12-19). Orr. 34-35.
- Elena González Briones (2012). *La entrevista y la crónica*. Madril: Publicaciones Mediascopio.
- Elias N., D. E. (1994). *Sport et civilisation. La violence maîtrisée*. Paris: Fayard.
- Elias, N. (1986). The Genesis of Sport as a Sociological Problem. In N. y. Elias, *Quest for Excitement: Sport and Leisure in the Civilizing Process*. Oxford: Blackwell.
- En Envor. (2013). *En Envor Revue d'histoire contemporaine en Bretagne*.
 Berreskuratuta 2013ko abenduaren 2an hemendik:
http://enenvor.fr/eo_revue/numero_2
- Enciclopedia de Características*. (2017). "Artículo de Opinión". Berreskuratuta 2018ko urtarrilaren 3an hemendik: <https://www.caracteristicas.co/articulo-de-opinion/#ixzz534kKzgfB>
- English, P. (2018-ekaina). *Oxford Research Encyclopedias*. Berreskuratuta hemendik:
 Sports Journalism:
<http://www.google.es/search?q=sports+journalism+research&ie=utf-8&oe=utf-8&aq=t&rls=org.mozilla:en-GB:official&client=firefox-a>
- Entman, Robert M. (1993). Framing: Toward clarification of a fractured paradigm. *Journal of Communication*, 43(4), orr. 51-58.
- Euskaltzaindia. (2020-2-8). *Euskaltzaindia*. Berreskuratuta hemendik:
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?&option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=1274
- Farre, S. (1991). Culture curriculum and educational policy en Nothern Ireland. *Language, culture and curriculum* 4, orr. 43-58.
- Federopticos.com*. (2013-6-27). Berreskuratuta 2014 martxoaren 4an hemendik:
<http://federopticos.com/tendencias/noticia/gafas-para-celebrar-100-anos-del-tour-de-francia>

- Fengler, S.-Rush-Moll S. (2008). Journalists and the information-attention markets. *Journalism*, 669-690.
- Fernández Parrat, S. (1998). *El reportaje en prensa: un género periodístico con futuro*. La Laguna (Kanariak): Revista Latina de Comunicación Social, 4.
- Fernandez, E. y García, A.M. (2005). Sr. Director: la importancia de las Cartas al Director (Vol. 19). Bartzelona: DOYMA.
- Fichte, J. G. (1992). *Discours à la Nation allemande*. Paris: Éd. Imprimerie Nationale.
- Fishman, J. A. (1972). *Language in Sociocultural Change*. Stanford: Stanford University Press.
- Forsthoff, E. (2013). *El estado de la sociedad industrial* (Vol. Colección: Democracia y derecho). (I. 9788461662081, Ed.) Madril: Fundación Coloquio Jurídico Europeo.
- FRA, E. U. (2010-10-28). Berreskuratuta hemendik: Racism, ethnic discrimination and exclusion of migrants and minorities in sport: the situation in the European Union: <https://fra.europa.eu/en/publication/2012/racism-ethnic-discrimination-and-exclusion-migrants-and-minorities-sport-situation>
- Frías, A. (2006). Garapen eredia. *Ezkerra Europaren aurrean* (orr. 3-7). Sokoia: Berdea, More, Gorria.
- Frunza, G. (2005). *The concept of "nation"*. Committee on Legal Affairs and Human Rights.
- GALERA, J. (2006-7-13). Identidad nacional y cultura popular en la sociedad de la información.
- Gara. (2001). *Zazpika*, Kontrazala.
- GARA. (2019-1-31). www.gara.eus. Hemendik berreskuratuta: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2019-01-31/hemeroteca_articles/cierre-ilegal-y-un-patrimonio-dejado-pudrir-por-la-administracion-judicial
- Garai, J. (1994). *Marca. Ciclismo del Norte. Fábrica de líderes*. Madril: Marca.
- Garayoa "Boliche", J. J. (n.d.). 50 años de recuerdos. *Jose Javier Garayoa "Boliche"*, 27.
- García Canclini, N. (1999). *Informe Mundial sobre Cultura, creatividad y mercados*. UNESCO.

- Garreta, M. J. (2001). *La trama cultural. Textos de Antropología y arqueología*. (M. G. Bellelli, Ed.) Buenos Aires, Argentina: Ediciones CALIGRAF.
- Geertz, C. (1963). *The integrative revolution: primordial sentiments and politics in the new states*. New-York/N.Y./AEB: The Free Press of Glencoe & London/UK.
- Gellner, E. (1983). Nations and Nationalism. In E. Gellner. Ithaca. Cornell University Press.
- Gellner, E. (1983). Nations and Nationalism . In E. Gellner. Ithaca. Cornell University Press.
- Gellner, E. (1988). *Naciones y nacionalismo*.
- Generalitat de Catalunya*. (2005). Berreskuratuta 2008ko ekainaren 6an hemendik: www.gencat.net.
- Gobierno de Navarra*. (2005). Berreskuratuta 2008ko apirilaren 12an hemendik: www.cfnavarra.es
- Gobierno Vasco*. (2005). Berreskuratuta 2008ko ekainaren 6an hemendik: www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net.
- Goffman, E. (1974). *Frame analysis: An essay on the organization of experience*. Londres: Harper and Row.
- Gontard, M. (1959). *L'Enseignement primaire en France de la Revolution á la loi Guizot (1789-1833)* . Paris: Les Belles Letres.
- González, H. D. (2010-iraila/urria). RAZÓN Y PALABRA, Primera Revista Electrónica en América Latina Especializada en Comunicación. Mexiko. Berreskuratuta 2013ko urtarrilaren 9an hemendik: www.razonypalabra.org.mx
- Gonzalez Gorosarri, M. (2008). *Euskal Herriko prentsa, XVIII. mendetik 1945era*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Greenfeld, L. (1992). *Nationalism: Five Roads to Modernity*. Cambridge: Harvard University Press.
- Grijelmo, Á. (1997). *El estilo del periodista*. Madrid : Taurus.
- Grijelmo, Á. (2002). *Álex Grijelmo (2002). La seducción de las palabras*. México: Taurus.
- Grijelmo, Á. (2002). *El estilo del periodista*. Madril: Taurus.

- Guibernau, M. (1996). *Nationalisms: the Nation-State and Nationalism in the Twenty-first Century. tionalisms: the Nation-State and Nationalism in the Twenty-first Century.*, (orr. 44-46). Cambrigde.
- Guibernau, M. (2003). Nationalism and Intellectualsin Nations without States: the Catalan Case. *The Open University, Walton Hall, Milton Keynes MK7 6AAWP* núm. 222, 3-4.
- Guibernau, M. (2004). "Anthony D. Smith on Nations and National Identity: A Critical Assessment". *Nation and Nationalism*, 125-141.
- Gutiérrez, J. (1984). *Periodismo de opinión*. Madril: Paraninfo.
- Gutierrez, S. (2006). *El periodismo interpretativo en el tercer milenio*. Maracaibo: Ediluz.
- Hall, S. (1996). *Who needs "identity"?* London: Sage.
- Hardinek, M., & Whitesidek, E. (2009). "Token responses to gendered newsrooms" Factors in the career-related decisions of female newspaper sports journalists. *Journalism*, orr. 627-646 .
- Harris J., K. L. (1981). *The complete reporter*. New York: McMillan.
- Hauck, D. (2006). *Croching tiger, hidden blacness: Tiger Woods and the disappearance of race*. New Jersey: Lawrence Erlbaum.
- Herder, J. (1772). *Über den Ursprung der Sprache*.
- Hernández, E. (d.g.). (E. Hernandez-Txile, Producer) Berreskuratuta 2008ko uztailaren 5ean.
- Hervieu-Leger, O. (1993). *La religion pour-memoire*. Paris: Le Cerf.
- Hiztegi Enziklopedikoa, H. (2017-1-8). *Harluxet Hiztegi Enziklopedikoa*. Berreskuratuta hemendik: <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Hobsbawn, E. (1991). *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Bartzelona: Edición Crítica.
- Hobsbawn, E. (1994). *The Age of Extremes: The Short Twentieth Century, 1914–1991*. Londres, UK: Penguin Books.
- Hohenberg. (1960-1983). *The profesional journalist*. New York: Holt, Rinehar and Winston.
- Holsti, O. (1969). *Content Analysis for the Social Sciences and Humanities*. Reading (Mass., AEB): Addison-Wesley.

- Hsia, H. J. (1988). *Mass Communications Research Methods: A Step by Step Approach*. Hillsdale, New Jersey (AEB): Lawrence Erlbaum Assoc.
- <http://www.dictionary.com>. (2017-1-20). <http://www.dictionary.com>. Berreskuratuta 2017ko urtarrilaren 20an hemendik:
<http://www.dictionary.com/browse/editorial?s=t>
- Hubscher, R. (1992). *L'histoire en mouvements: Le sport dans la société française, XIXe-XXe siècle*. (A. Colin, Ed.) Paris: Armand Colin.
- Hutchinson, J. (1987). *The Dynamics of Cultural Nationalism: The Gaelic Revival and the Creation of the Irish Nation State by*. Londres: Allen & Unwin.
- Iantzi, M. (2019-2-13). Maria Gonzalez Gorosarri, Euskal Herriko Prentsa XVIII mendetik 1954era. *Lehenengo prentsak gaurkoa ulertzeko balio du...*, orr. 22-24.
- Ignatieff, M. (1994). *Blood And Belonging: Journeys into the New Nationalism*. Londres: Vintage.
- Info7 Irratia. (2013-10-19). <http://www.naiz.eus/eu/mediateca/audio/astarloza-txirindulariek-eta-zaleek-euskaltel-euskadi-bezalako-eredu-bat-ez-izateak-kezkatzen-nau>. Urruña, Lapurdi, Euskal Herria.
- Isaacs, H. R. (1975). *Idols of the Tribe: Group Identity and Political Change*. Cambridge AEB: Harvard University Press.
- Itzaina, X. (1999). Erljioa eta herri-nortasuna Euskal Herrian eta Quebecen. *Uztaro*, 31, orr. 129-150.
- Iyengar, S. a. (1985). *Psychological Accounts of Agenda-Setting*. Beverly Hillss / London: Kraus, S. and Perloff, R.
- Jaffrelot, C. (2003). *For a theory of nationalism*. Centre d'etudes et de recherches internationales.
- Jean-Jacques LOZACH (2013-7-23) Commission d'enquête sur la lutte contre le dopage. *Travaux parlementaires*. Berreskuratuta 2013ko abenduaren 3an hemendik:
<http://www.senat.fr/notice-rapport/2012/r12-782-2-notice.html>
- Jean-Michel De Waele, A. H. (2008). Football et identités, éditions de l'Université de Bruxelles. *STAPS*, orr. 121-125.

- Jordá, C. (2004-12-12). *El blog de Carmelo Jordá*. Retrieved 2008ko ekainaren 7an hemendik: <http://carmelojorda.blogspot.com.es/2004/12/nacionalismo-y-deporte.html>
- Joseba Iturria, GARA. (2014-8-8). El final de una etapa inolvidable. Orr. 22-23.
- JotDown.es*. (2014-5-25). Berreskuratuta hemendik: <http://www.jotdown.es/2014/05/la-gran-sequia-francesa-treinta-anos-sin-el-tour-ni-roland-garros/>
- JotDown.es*. (2015-2-10). Retrieved 2015eko apirilaren 3an hemendik: <http://www.jotdown.es/2015/02/el-dia-que-indurain-dio-positivo/>
- Journal of Communication. (1999). *Effects, Framing as Media*. International Communication Association.
- journals.sagepub.com*. (2004). *Discursive Strategies Used by Sport Journalists to Describe the Selection Process*. Berreskuratuta 2010eko otsailaren 6an hemendik: 'We Do Not Engage in Promotional Journalism': Discursive Strategies Used by Sport Journalists to Describe the Selection Process: <https://doi.org/10.1177/1012690204040523>
- Kedourie, E. (1988). *Nacionalismo*. Madril: Centro de Estudios Constitucionales.
- Khleif, B. B. (1980). *Contributions to the Sociology of Language [CSL] Ser.: Language, Ethnicity, and Education in Wales*. Gruyter GmbH & Co. KG, Walter.
- Kim, S. H. (2002). *Think about it this way: attribute agenda-setting function of the press and the public's evaluation of a local issue*. *Journalism and Mass Communication Quarterly*, 79 (1).
- Knoppers, A. & Elling, A. (2004). 'We Do Not Engage in Promotional Journalism': Discursive Strategies Used by Sport Journalists to Describe the Selection Process. *International Review for the Sociology of Sport*, orr. 57-73.
- Kohr, L. (1957). *The breakdown of nations*. London.
- Krippendorff, K. (1980). *Content Analysis: An Introduction to its Methodology*. Beverly Hills: Sage.
- La Course by Le Tour de France*. (2014). Berreskuratuta 2015 otsailaren 23an hemendik: <http://www.letour.fr/la-course-by-le-tour-de-france/2015/us/>
- Laget, L. e. (1982). *Le grand livre du sport féminin*. Paris: FMT Editions.

- Lakoff, G. (2007). *No pienses en un elefante*. Madrid: Complutense.
- Lambert, Y. (1995, urria-abendua). *Une définition plurielle pour une réalité en mutation, exemples de définition de la religion* (Vol. 237). Cahiers français.
- Laparra, M. (2003). *Extranjeros en el purgatorio: integración social de los inmigrantes en el espacio local*. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- Laponce, J. (1985). *Protecting the French Language in Canada*. Journal of Commonwealth and Comparative Politics.
- Laponce, J. (1987). *Languages and Their Territories*. Toronto: University of Toronto Press.
- Larsen, N. (1983). The discourse of Power, Culture, Hegemony and the Authoritarian State in Latin America. In E. Schindel, *La desaparición a diario: sociedad prensa y dictadura (1975-1978)* (or. 117). Minneapolis: Institute for Study of the Ideologies and Literature.
- Laure, P. (1995). *Le dopage*. Paris: Presses Universitaires de France.
- L'Auto. (1906-7-27). "La plus grande épreuve de documentation que le sport cycliste nous ait jamais donnée". *L'Auto*.
- Le Figaro. (1984-7-23).
- Lederach, J. P. (1984). *Educar para la Paz*. Barcelona: Fontamara.
- L'Equipe. (1947-6-25).
- L'Equipe. (1984-6-25).
- L'Equipe. (2014). <http://lequipe.fr>. Obtenido de L'Equipe: http://netstorage.lequipe.fr/ASO/cyclisme/le-tour/2014/histoire/Historique-VERSION_INTEGRALE-fr.pdf
- León Gross, T., & Travesedo de Castilla, C. (2005). El 'discurso eficaz' de la viñeta gráfica. *Orr*. 59-61.
- Lippman, W. (1922). *Public opinion*. The Macmillan Co.
- LLOBERA, J. (2001). Hizkuntzaren indarra identitate nazionalan. *Soziolinguistika aldizkaria*, ISSN 1130-8435, 63-82. Berreskuratuta 2009ko urtarrilaren 13an.
- Llobera, J. (2001). La força de la llengua en la identitat nacional. L'experiencia de l'Europa occidental. In T. Moll, *Ideologia i conflicte lingüístic*. Alzira: Bromera.
- Llobera, J. (d.g.). *El dios de la modernidad*.

- Llobera, J. R. (1995). *Estado soberano e identidad nacional en la Europa actual*. Madril: E. Lamo de Espinosa, Alianza.
- Londres, A. (2009). *Los forzados de la carretera Tour de Francia 1924*. Bartzelona: Melusina.
- Lucas, J. d. (1992). *Europa: convivir con la diferencia. Racismo, nacionalismo y derechos de las minorías*. Madril: Tecnos.
- Lucas, J. d. (1993). Algunos problemas del estatuto jurídico de las minorías. Especial referencia a la situación de Europa. *Revista del Centro de Estudios Constitucionales*, nº 15, 97-128.
- Maitrot, E. (1995). *Sport et télé. Les liaisons secretés*. Paris: Flammarion.
- Mamatey, V. S. (1950). "The United States and the Dissolution of Austria-Hungary". *"The United States and the Dissolution of Austria-Hungary"* (orr. 256-70). *Journal of Central European Affairs* 10.
- MARCA. (2012-2-14). Un sueño hecho realidad. Or. 42.
- Marca. (2018-7-18). *Marca.com*. Berreskuratuta hemendik <https://www.marca.com/primera-plana/2018/07/18/5b4f172b46163f51b48b4576.html>
- Margaret Bullen, J. A. (2017-12-17). Sinboloak gure bizitzan eratzaille eta eraikitzaile. *BERRIA*.
- María Barrio Rato, J. D. (2010). El deporte en la cooperación para el desarrollo: una línea de investigación emergente. *Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, Volumen 6.
- Martínez Albertos, J. (1993). *Curso general de redacción periodística*. Madril: Paraninfo.
- Marx-Engels. (1985). *Manifiesto del Partido Comunista*. Mosku: Editorial Progreso.
- Matos Mar, J. (1999). *América Latina: un espacio cultural en el mundo globalizado*. Bogota, Colombia: Convenio Andrés Bello.
- McCombs, M. (2004). *Maxwell McCombs. Setting the Agenda: The Mass Media and Public Opinion*. Cambridge: Polity Press. 2004.
- McCombs, M. E., & Shaw, D. L. (1972). *The agenda-setting function on the mass media*. *Public Opinion Quarterly*.

- McQuail, D. (2000). *McQuail's Mass Communication Theory (4. Edizioa - Berrito inprimatuta 2002an)*. Sage.
- Mendel, G. (1984). *La descolonización del niño*. Bartzelona: Ariel.
- Mendoza, L. R. (2014-6-9). Berreskuratuta 2016ko ekainaren 2an hemendik: luisromanmendoza.blogspot.com.es
- Meynaud, J. (1972). *El deporte y la política*. Bartelona: Edit. Hispano Edit. Hispano Europea.
- Ministerio de Educación y Ciencia. (2008). <http://recursos.cnice.mec.es>. Berreskuratuta hemendik: Ministerio de Educación y Ciencia, http://recursos.cnice.mec.es/lengua/glosario/mostrar_termino.php?cod=247
- Ministerio de Educación y Ciencia (2019-12-3). *Agencia Española de Protección de la Salud del Deportista*. Berreskuratuta 2018ko otsailaren 3an hemendik: <http://www.aepsad.gob.es/aepsad/control-dopaje/que-es-el-dopaje.html>
- Mitropolitski, S. (2011). Weber's Definition of the State as an Ethnographic Tool for Understanding the Contemporary Political Science State of the Discipline. *Annual conference of the Canadian Political Science Association*, (orr. 1-14). Montreal.
- Modesto Guillermo, C. C. (2001). El origen étnico de la naciones en la obra de Antony Smith y el papel de la política. Una perspectiva diacrónica. *Revista de Estudios Políticos (114)*, 270.
- Monegal, F. (2013-9-24). *El Periodico*. Berreskuratuta hemendik: El periodismo y la distorsión: <https://www.elperiodico.com/es/opinion/20130923/el-periodismo-y-la-distorsion-2684509>
- Montoliu, A. G. (2013-6-27). *Play Ground Articulos*. Berreskuratuta 2014 ekainaren 9an hemendik: <http://www.playgroundmag.net/musica/articulos-de-musica/lista-de-exitos/musica-y-ciclismo-diez-canciones-para-celebrar-la-llegada-del-tour-de-francia>
- Moragas Spà, M. d. (2007). Comunicación y deporte en la era digital. *Centre d'Estudis Olímpics UAB*, 4-8.
- Moreno, P. (2001-uztaila). *Revista Latina de Comunicación Social*. 43. Berreskuratuta 2011ko maiatzaren 4an hemendik: "Los géneros periodísticos informativos en

- la actualidad internacional:
<http://www.ull.es/publicaciones/latina/2001/latina43julio/35moreno.htm>
- Mundo Deportivo. (1913-7-13). Or. 4.
- Mundo Deportivo. (1935-7-27). Or. 1-2.
- Mundo Deportivo. (1971-7-15). Janer consiguíó terminar la prueba... ¡el tercer año que lo intentó! Or. 10.
- Navari, C. (1987). Los orígenes del Estado Nación. In T. L., *El Estado Nación* (or. 52).
 Bartzelona: Ediciones Península.
- Nazio Batuak erakundeak. (1966). Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna.
 Hemendik: *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna*. 2200 A (XXI)
 Ebazpena.
- Nazio Eztabaidagunea*. (2005). Berreskuratuta 2008 maiatzaren 3an hemendik:
www.eztabaidagunea.org.
- Negro, D. (2003). Bosquejo de una historia de las formas del Estado. Razón Española.
- Nelson, T. E., & Clawson, R. A. (1997). *Media Framing of a Civil Liberties Conflict and Its Effect on Tolerance*. American Political Science Review, bol.91 3 zbk.
- Nikolas, Z. (2007). Nazio aniztasuna Europan. Bizikidetzarako baldintzak eta tresna demokratikoak. *Jakin*, 1-37.
- Noguero, F. L. (2002). El análisis de contenido como método de investigación. *XXI, Revista de Educación*, 167-179.
- Noiriel, G. (1997). *Sur la crise de l'histoire*. Valencia, Frantziar Estatua: Universitat de València.
- O'Donell, H. (1994). *Mapping the mythical: A geopolitics of national sporting stereotypes*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ogi, A. (2003-1-31). *Perspectivas suizas en 10 idiomas*. Berreskuratuta hemendik:
<https://www.swissinfo.ch/spa/adolf-ogi--el-deporte--una-escuela-de-vida/3141974>
- Olick, Jeffrey K. (1998). *States of Memory: Continuities, Conflicts, and Transformations in National Prospection*. Duke, AEB: Duke University Press.
- Ollivier, J.-P. (1990). *Fausto Coppi: The True Story*. London: Bromley Books.
- Opinión, L. (1977-12-1). La Argentina de postguerra. *La Opinión*, or. 1.

- Opinión, L. (1978-6-1). "Buenos Aires lavada en carrera contra el reloj". Orr. 10-11.
- Ortiz, G. (2014-5-25). *JotDown.es*. Berreskuratuta hemendik:
<http://www.jotdown.es/2014/05/la-gran-sequia-francesa-treinta-anos-sin-el-tour-ni-roland-garros/>
- Ottak, C. (2002). *Antropología Cultural*. Madrid: Mc Graw Hill.
- Otxandorena, J. (2014). *GKE eta kirol praktikak: zailtasun sozialak dituzten ingurune txiroetanematen diren proiektuen analisisa*. Gasteiz: EHU, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea .
- Pardo, I. (2013-7-24). *La Vanguardia*. Berreskuratuta 2013ko abenduaren 4an hemendik:
<http://www.lavanguardia.com/deportes/otros/20130724/54378831819/senad-o-frances-positivos-epo-tour-de-francia-1998.html>
- ParisMatch. (2013-7-24). *ParisMatch*. Berreskuratuta 2013ko abenduaren 3an hemendik: <http://www.parismatch.com/Actu/Sport/Jalabert-Pantani-Ullrich-tous-dopes-522685#>
- Pedraza Bucio, C. (2012). *Mujeres en el periodismo deportivo: reflexiones para comprender la transgresión desde la práctica discursiva de las reporteras de deportes*.
- Pedro Albite, C. S. (d.g.). *Pedro Alblite, Castillo Suarez*. Berreskuratuta 2008ko maiatzaren 5ean hemendik: <http://www.sociolingvistika.org/eu/node/3330>
- Pivato, S. (1996). *Italian Cycling and the Creation of a Catholic Hero: The Bartali Myth*. London: Frak Cass.
- Pizarro, C. (2013-7-5). *RFI Español*. Retrieved 2013 йил 4-abendua, from <http://www.espanol.rfi.fr/deportes/20130705-daryl-impey-primer-ciclista-africano-que-se-viste-de-amarillo>
- Puig, N. &. (1991). *El Deporte en la Perspectiva del año 2000*, . Barcelona: Papers de sociología, 38, INEF-Catalunya, Barcelona.
- Quitíán, D. M. (2008). Esporte na América Latina: atualidade e perspectivas. *Esporte na América Latina: atualidade e perspectivas* (pp. 1-8). Curitiba - Paraná (Brasi): Associação Latinoamericana de Estudos Culturales del Deporte.
- Ramonet, I. (1997). *Un mundo sin rumbo. Crisis de fin de siglo*. Madril: Debate.

- Recalde, J. (1982). I Coloquio Vasco-Catalán de Historia. (pp. 517-530). Sitges: Barcelona, Universitat Autònoma.
- Recalde, J. (1984). Intersección de dos procesos nacionales. -Estudio del conflicto español-vasco-. In *Estudios de Historia Social* (pp. 77-84).
- Reese, S. (2001). *Framing public life: A bridging model for media research*. Mahwah (AEB): Erlbaum.
- Renan, E. (-1. (1882, martxoak 11). Qu'est-ce qu'une nation ? Paris: La Sorbona.
- Renan, E. (1947-1961). *Qu'est-ce qu'une nation?* (Vols. Oeuvres complètes, I). Paris : Calmann-Lévy.
- Renaut, A. (1999). *Libéralisme et pluralisme culturel*. Paris: Pleins Feux.
- Renee Balibar eta Dominique Laporte. (1976). *Burguesía y lengua nacional*. Barcelona: Editorial Avance.
- Robles, L. (1987). *pistolario completo Ortega-Unamuno*. Madrid: El Arquero.
- Rocker, R. (1936). *Nationalism and Culture*. Nueva York, AEB.
- Rodríguez-Cano, R. B. (2011). *Manual de derecho civil: Derecho privado y derecho de la persona*. Bercal.
- Rokkan, S. (1975). Dimensions of State formation and nation-building: a possible paradigm for research on variations within Europe. In C. Tilly, *The formation of national-states in Western Europa* (pp. 562-600). Princeton: Princeton University.
- Rokkan, S. y Urwin, W. (1982). *The Politics in national identity. Suedies in European regionalism*. Londres: SAGE Publications.
- Rokkan, S. y. (1982). *The Politics of Territorial Identity: Studies in European Regionalism*. Londres: SAGE Publications.
- Romero, A. (1974). *Teoría general de la información y de la comunicación*. Madrid: Pirámide.
- Rougemont, D. d. (1965). Fédéralisme culturel. *Conférence donnée par Denis de ROUGEMONT à l'Aula de l'Université de Neuchâtel à l'occasion du 25^e anniversaire de l'Institut neuchâtelois sur diversités culturelles et culture européenne ("à l'image des "racines", j'oppose celle de l'implantation..."*. Neuchatel: Editions de la Baconnière.

- Rougemont, D. d. (1965). *La Suisse ou l'histoire de un peuple hereux*. Lausana: Le livre du mois.
- Rummens, J. (1993). *Personal Identity and Social Structure in Sint Maartin/Saint Martin: a Plural Identities Approach*. . York (Britainia Handia): Unpublished Thesis/Dissertation.
- Sánchez Jurado, M. (Datarik gabe). *Investigación sobre identidad*. Sevilla.
- Sánchez, S. (1 de Uztaila de 2013). *Blog del experto*. Obtenido de <http://blog.fnac.es/experto/tour-de-france-fnac-musica-ciclismo/>
- Sánchez, S. (2013 йил 1-Uztaila). *Blog del Experto*. Retrieved 2014 йил 9-Ekaina, from <http://blog.fnac.es/experto/tour-de-france-fnac-musica-ciclismo/>
- Salguero, R. T., & Gross, T. L. (2009). Las viñetas de prensa como expresión del periodismo de opinión. *Revista académica de la Federación Latinoamericana de facultades de la Comunicación Social*(78).
- Scheufele, D. (1999). *Framing as a theory of media effects*. Journal of Communication.
- Schindel, E. (2003). Transición III: "La noche se hace día para el Mundial". *Desaparición y sociedad. Una lectura de la prensa gráfica argentina (1975-1978)*, 230-240. Berlin.
- Schnapper, D. (1991). *La France de l'intégration. Sociologie de la nation en 1990*. Paris: Gallimard, "Bibliothèque des sciences humaines".
- Schnapper, D. (1993). *Le sens de l'ethnico-religieux*. Archives de Sciences Sociales des Religions.
- senalColombia.tv. (2013). Retrieved 2014 йил 10-abendua, from <http://especiales.senalcolombia.tv/encinenosvemos/content/la-leyenda-del-tour-de-francia>
- Severin, W. J., & Tankard, J. W. (1979). *Communication Theories: Origins, methods, uses*. New York: Hasting Hous.
- Shaw, D. (1985). *The Politics of 'Futbol'*. Retrieved from History Today: <https://www.historytoday.com/archive/politics-futbol>
- Shils, E. (1957). *Primordial, Personal, Sacred and Civil Ties: Some particular observation of the relationships of sociological research and teory*. London: The British Journal of Sociology.

- Simon, S. I. (1993). News coverage of the Gulf Crisis and public opinion: A study of the agenda-setting, priming and framing. *Communication Research*, 20, 365-383.
- Smith, A. (2007 -1776-). *An Inquiry into the Nature and Causes of the Wealth of Nations*. Londres: Sálvio M. Soares. MetaLibri.
- Smith, A. D. (1991). National Identity. In A. D. Smith, *National Identity* (p. 226). Nevada: University of Nevada Press.
- Smith, A. D. (2000). *Nacionalismo y Modernidad*. Madrid: ISTMO.
- Smith, A. D. (2002). *When is a nation?*
- Smith, A. D. (2002). When is a nation? *Geopolitics*, 5-32.
- Smith, A. D. (2009). *Ethno-symbolism and Nationalism: A cultural approach*. London: Routledge.
- Smith, P. (1996). À la recherche d'une identité nationale en Alsace (1870-1918) . *Vingtième siècle*, 23-35.
- Solozabal, J. (1994). *Pueblos, Naciones y Estados en la Historia*. Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.
- Sorauren, M. (2006 йил 30-Abuztua). Euskal Curriculum. *Historia eta Irakaskuntza*. Iruña.
- SOS, A. (2012). *Arrazakeria berriaren kazetaritza-gogoetabideak ikuskizun kirolean*. Donostia.
- Soy Mi Marca. (20 de Abendua de 2010). *SoyMiMarca*. Obtenido de <https://www.soymimarca.com/tag/un-ser-unico-y-diferente-de-los-demas/>
- Spicer, E. H. (1984). Persistent cultural systems. In C. Esteva, *Estado, binacionalidad y culturalismo* (p. 31). Barcelona: Península.
- Spyridou, V. D.-P. (2013). *Print and Online News*. *Journalism Studies*, 14:6.
- Subercaux, B. (1999). Reflexiones sobre la identidad nacional. *Estudios Públicos* 73.
- SummonPress. (2017 de azaroa de 13). *www.modelocarta.net*. Recuperado el 13 de Azaroa de 2017, de Modelocarta-ren web orria: <https://www.modelocarta.net/carta-al-director>
- Sykes, H. (2014). *The Iron Curtain and the Greatest Cycling Race on Earth / "La Course contre la Stasi : l'incroyable histoire de Dieter Wiedemann, du rideau de fer et de la plus grande course cycliste du monde"*. Aurum Press.

- Talavera Fernández, P. A. (1999). El valor de la identidad nacional. *Cuadernos Electrónicos de Filosofía*. (U. d. València, Ed.)
- Taylor, C. (1994, martxoa-apirila). *Les institutions dans la vie nationale*. Sprit.
- Tejedor, J. M. (2001). *Asociación Española de Científicos*. Retrieved 2007 йил 20-Martxoa, from <http://www.aecientificos.es/escaparate/paginas.cgi?idpadre=4000&idempresa=1241>
- Telleria, I. -E. (1995 йил 26-Urtarrila).
- Tesich, S. (6 de Urtarrila de 1992). A Government of Lies. *The Nation*, 254(1).
- Thompson, C. S. (2006). *The Tour de France. A cultural History*. Los Angeles: University of California Press, Ltd.
- Tivey, L. (1987). Estados, naciones y economía. In L. Tivey, *El Estado Nación* (p. 98). Barcelona: Península.
- Touchard, I. (1983). *Historia de las ideas políticas*. Tecnos.
- Turner, V. (1967). *La selva de los símbolos*. Madrid: Siglo veintiuno.
- Union des Sociétés de Préparation Militaire de France. (1913). *Annuaire 1913 : Union des Sociétés de Préparation Militaire de France*. Paris: Union des Sociétés de Préparation Militaire de France.
- Ureña, A. (2014 йил 26-Iraila). Retrieved 2014 йил 5-Azaroa, from <http://www.abc.es/estilo/moda/20140925/abci-balenciaga-semana-moda-paris-201409251348.html>
- Urwin, D. W. (1983). Territorio e identidad. *Revista de Occidente*, 9.
- Valkenburg, H. S. (2000). Framing European Politics: A Content Analysis of Press and Television News. *Journal of Communication*, 93-109.
- Van Gorp, B. (2007). *The constructionist approach to framing: Bringing culture back in*. Journal of communication.
- Van Wissen, G. (1994 йил martxoa-apirila). Estado y nación. *Communio*, 133-137.
- Vidales, K. B. (2001). "Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lanetan. *Revista de Psicodidáctica*. nº 11-12, 133-142.
- Vieuzac, B. B. (1794). Rapport du Comité de salut public sur les idiomes. Paris, Frantzia.

- Vilamor, J. (2000). *Redacción periodística para la generación digital*. Madril: Universitas.
- Vilamor, J. (2019). Cartas al director, el cauce interactivo que debe enriquecer y dar vida a la prensa.
http://www.campusred.net/forouniversitario/pdfs/comunicaciones/opinion/jose_vilamor.pdf. Madril: UCM. Vilamor, José (s.f.). Berreskuratuta hemendik:
http://www.campusred.net/forouniversitario/pdfs/comunicaciones/opinion/jose_vilamor.pdf
- Vinnai, G. (1974). *El fútbol como ideología*. Buenos Aires (Argentina): Siglo XXI.
- Virolli, M. (1997). *Por amor a la Patria*. Madrid: Acento.
- WADA-AMA. (d.g.). WADA. Berreskuratuta 2013 apirilaren 7an hemendik:
<https://www.wada-ama.org/>
- Wahl-Jorgensen, & Hanitzsch, T. (2009). *The Handbook of Journalism Studies*. Routledge.
- Wardhaugh, R. (1987). *Languages in Competition. Dominance, Diversity and Decline*. Oxford: Basic Blackwell in association with André Deutsh.
- Wenner, L. (2006). *Sports and media through the super glass mirror: Placing blame, breast-beating, and a gaze to the future*. Lawrence Erlbaum.
- Wieting, S. (2000-iraila). Twilight of the hero in the Tour de France. *International Review for the Sociology of Sport*, 35(3), orr. 348-363.
- Wikipedia. (d.g.). Berreskuratuta 2009ko azaroaren 5ean hemendik:
http://es.metapedia.org/wiki/Frente_Orden_Nacional
- Wikipedia. (2018-5-6). *Wikipedia Enziklopedia Askea*. Obte Berreskuratuta hemendik:
<https://eu.wikipedia.org/wiki/lkur>
- Wikipedia, C. (s.f.). ca.wikipedia.org/wiki/Carta_al_director. Berreskuratuta 2017ko azaroaren 14an hemendik: https://ca.wikipedia.org/wiki/Carta_al_director
- Wimmer, R. D., & Dominick, J. R. (2000). *La investigación científica de los medios de comunicación*. Bartzelona: Bosch Comunicación.
- World Anti-Doping Agency. (2021-7-17). *World Anti-Doping Agency. Play True*. Berreskuratuta hemendik: https://www.wada-ama.org/en/resources/search?f%5B0%5D=field_resource_collections%3A228

- Yanes, R. (2004). *Géneros periodísticos y géneros anexos: una propuesta metodológica para el estudio de los textos publicados en prensa*. Madril: Fragua.
- Yela, O. (2016-9-11). *Prensa libre*. Berreskuratuta 2017ko ekainaren 3an hemendik:
www.prensalibre.com/revista-d/simbolos-patrios-valores-y-emociones
- Yon, M. S. (1990). Ethnonationalism, ethnic nationalism, and mini-nationalism: a comparison Connor, Smith an Snyder. *Ethnic and racial studies*, 4, orr. 527-541.
- Yves-Person. (1973). Impérialisme linguistique et colonialisme: Girondins et Jacobins : l'idéologie de l'unité. *Les Temps modernes, Minorités nationales en France, Les Presses d'aujourd'hui (zbk 324-325-326)*, orr. 195-212.
- Zúmer, C. (2014-5-25). *Jot Down*. Berreskuratuta 2014ko ekainaren 3an hemendik:
<http://www.jotdown.es/2014/05/la-gran-sequia-francesa-treinta-anos-sin-el-tour-ni-roland-garros/>
- Zabaleta Urkiola, I. (1997). *Komunikazioaren Ikerkuntzarako Metodologia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).
- Zabaleta, I. (1997). *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia* (orr. 179-182). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).
- Zabaleta, I. (2000). *Nazioa eta Hezkuntza-sistema espainiarraren sorrer*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Zurbano, M. (1998). *Munduko ekonomia*. Udako Euskal Unibertsitatea.

14 Irudi eta taulen zerrenda

14.1 Taulen zerrenda

TAULA 1: LAGINAK URTEALDIKA EUSKARRIAREN ARABERA	156
TAULA 2: LAGINAK URTEALDIKA HIZKUNTZAREN ARABERA.....	156
TAULA 3: EGUNKARIEN SEKZIOEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	280
TAULA 4: IRUDI/TESTUAREN PORTZENTAJEA HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	284
TAULA 5: IRUDIAREN ETA TESTUAREN PORTZENTAJEA EGUNKARIKA ETA EGUNKARI MOTAKA	285
TAULA 6: INFORMAZIO/IRITZIEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	288
TAULA 7: INFORMAZIO/IRITZIEN PORTZENTAJEA EGUNKARIKA	289
TAULA 8: INFORMAZIO MOTEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	293
TAULA 9: INFORMAZIO MOTEN PORTZENTAJEA EGUNKARIKA ETA EGUNKARI MOTAKA	295
TAULA 10: INFORMAZIO MOTEN PORTZENTAJEAK URTEALDIKA	298
TAULA 11: IRITZI MOTEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	300
TAULA 12: IRITZI MOTEN PORTZENTAJEAK EGUNKARIKA	301
TAULA 13: EGILE MOTEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	305
TAULA 14: EGILE MOTAK EGUNKARIKA	308
TAULA 15: EGILEAREN GENEROAREN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA.....	310
TAULA 16: EGILEAREN INPLIKAZIOAREN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	313
TAULA 17: EGUNKARIEN INPLIKAZIOAREN PORTZENTAJEAK	314
TAULA 18: EDUKI MOTEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA.....	318
TAULA 19: EDUKI MOTEN PORTZENTAJEAK EGUNKARIKA	319
TAULA 20: EDUKI-KATEGORIA NAGUSIAK URTEALDIKA	320
TAULA 21: EDUKI AZPIKATEGORIEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA.....	322
TAULA 22: PROTAGONISTA MOTEN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA.....	324
TAULA 23: PROTAGONISTA MOTEN PORTZENTAJEAK EGUNKARI MOTAREN ARABERA	325
TAULA 24: PROTAGONISTEN LEINUAREN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	328
TAULA 25: PROTAGONISTEN LEINUAK EGUNKARIKA	330
TAULA 26: PROTAGONISTEN GENEROAREN PORTZENTAJEAK.....	333
TAULA 27: PROTAGONISTAREN KOLEKTIBITATEAREN PORTZENTAJEAK HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	337
TAULA 28: PROTAGONISTAREN KOLEKTIBITATEAREN PORTZENTAJEAK EGUNKARIKA.....	338
TAULA 29: NAZIASUNAREN PRESENTZIA ETA ESPLIZITUTASUNA HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	342
TAULA 30: NAZIO-IKURREN PRESENTZIA HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	345
TAULA 31: NAZIO-IDENTITATEAREN PRESENTZIA EGUNKARIKA	355
TAULA 32: IDENTITATEA ETA GATAZKATASUNA EGUNKARIKA	361
TAULA 33: IDENTITATEA ETA GATAZKATASUNA URTEALDIKA.....	362
TAULA 34: IDENTITATEA ETA AURKAKOTASUNA HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	363
TAULA 35: IDENTITATEA ETA AURKAKOTASUNA EGUNKARIKA	365
TAULA 36: IDENTITATEA ETA AURKAKOTASUNA URTEALDIKA	366
TAULA 37: IDENTITATE/IRUDIAREN POSITIBOTASUNA HERRIALDEKA ETA URTEALDIKA	368
TAULA 38: IDENTITATE/IRUDIAREN POSITIBOTASUNA EGUNKARIKA.....	370
TAULA 39: IDENTITATE/IRUDIAREN POSITIBOTASUNA URTEALDIKA.....	370
TAULA 40: HERRIALDEETAKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATE GUZTIEN FRAMING OROKOR BATERATUA	377
TAULA 41: 1978-2013 URTEALDIKO EMAITZA NAGUSIAK HERRIALDEKA NAZIASUNAREN PARAMETROETAN	381
TAULA 42: HERRIALDEETAKO PRENTSAK ERAIKITAKO HIRU NAZIO-IDENTITATE NAGUSIEN FRAMING OROKOR BATERATUA...	385
TAULA 43: EGUNKARIAK: HIRU NAZIO-IDENTITATEEN INTERPRETAZIO-MARKO OROKOR ETA KONBINATUA	388
TAULA 44: EUSKAL HERRIKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATEA LEINU NAGUSIETAN	392
TAULA 45: ESPAINIAKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATEA LEINU NAGUSIETAN	394
TAULA 46: FRANTZIAKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATEA LEINU NAGUSIETAN	396
TAULA 47: NAZIO-IKURREN PRESENTZIA HIRU IDENTITATE NAGUSIEN ARABERA	398
TAULA 48: IDENTITATE NAGUSIEN MARKOA GATAZKATASUNA KONTUAN HARTUTA	399
TAULA 49: IDENTITATE NAGUSIEN MARKOA AURKAKOTASUNAREN ARABERA	400
TAULA 50: IDENTITATE NAGUSIEN MARKOA POSITIBOTASUNAREN ARABERA.....	402

14.2 Irudien zerrenda

IRUDI 1: TOURREAN KAZETARI ARITZEAK LASTERKETAREN INGURUKO GRINA PIZTEA LORTU ZUEN.	13
IRUDI 2: ZALEEN ETA TXIRRINDULARIEN ARTEKO SINBIOSIA, TOURRAREN MUINETAKO BAT, MARRAZKI BATEAN LABURBILDUTA.	23
IRUDI 3: MENDEURRENAREN TOURRAREN AZKEN EGUNETAKO AZALAK, L'ÉQUIPE AZKEN EGUNKARI ANTOLATZAILEAREN ESKUTIK.	31
IRUDI 4: HEDABIDEAK FUNTSEZKOAK IZAN DIRA IRUDIKATUTAKO KOMUNITATEAK SORTZEKO ETA OSATZEKO, ETA EGUNKARIAK, ESATERAKO, NAZIO ERAIKUNTZA IKERTZEKO INFORMAZIO ITURRI BIHURTU DIRA ARLO GEHIENETAKO IKERLARIENTZAT.	121
IRUDI 5: TESI HONETAN AZTERTU DA ZENBATERAINOKO INPLIKAZIO ZUZEN ETA EBIDENTZIATUA ERAKUSTEN DUTE EDUKIAREN EGILEEK IKERTUTAKO EDUKIETAN.	131
IRUDI 6: EDUKIA FRANTSESEZ.	157
IRUDI 7: EDUKIA EUSKARAZ.	158
IRUDI 8: EDUKIA GAZTELANIAZ.	158
IRUDI 9: KIROL KATEGORIARI DAGOKION EDUKI BAT.	184
IRUDI 10: TOURRA ETA NAZIO-TALDEAK.	202
IRUDI 11: NAZIO-IDENTITATEA ETA GATAZKA ISLATZEN DUEN BERRI BATEN ADIBIDEA.	202
IRUDI 12: NAZIO-IDENTITATEA ETA AURKAKOTASUNAREN ADIBIDE BAT.	203
IRUDI 13: NAZIO-IDENTITATEAREN GORAIPAMENAREN ADIBIDE BAT. "PROPIOAREN ALDE" IZENEN KATEGORIAN JASOTZEN DENA.	204
IRUDI 14: NAZIO-IDENTITATEAREN POSITIBOTASUNA AZPIMARRATZEKO BERRI BAT.	206
IRUDI 15: TOURRA NAZIO-IKUSPEGI DESBERDINETATIK IKUSITA.	207
IRUDI 16: ANTOLATZAILEEK 2023ko TOURRA EUSKAL HERRITIK IRTENGO DELA HORRELA IRAGARRI ZUTEN WEB OFIZIALEAN.	247
IRUDI 17: POLLENTIER DOPINAREN AURKAKO KONTROLEAN IRUZURRA EGIN ZUEN EGUNEN AZALA.	249
IRUDI 18: AZALA EDO LEHEN ORRIALDEAREN ADIBIDE BAT.	281
IRUDI 19: AZALA. IRUDIRIK GABEKO EDUKIAREN ADIBIDEA.	282
IRUDI 20: AZALA. IRUDI+TESTUAREN ADIBIDE BAT.	286
IRUDI 21: KRONIKA BATEN ADIBIDEA.	295
IRUDI 22: ERREPORTAJE BATEN ADIBIDEA.	298
IRUDI 23: IRITZI ARTIKULU BATEN ADIBIDEA.	303
IRUDI 24: GIZON BATEK SINATURIKO ARTIKULUAREN ADIBIDEA.	309
IRUDI 25: ARTIKULU HONETAN DENETIK TOPA DAITEKE.	312
IRUDI 26: TOURRAK DONOSTIAN IZAN ZUEN IRTEERA 1992AN.	316
IRUDI 27: KIROL-EDUKIAK NAGUSI DIRA TOURRARI BURUZKO ORRIALDEETAN.	318
IRUDI 28: TXIRRINDULARITZA, EUSKARA ETA TEKNOLOGIA, BATERA.	321
IRUDI 29: TXIRRINDULARIAK, PROTAGONISTA NAGUSIAK AZTERTUTAKO KAZETARITZA-EDUKIETAN.	327
IRUDI 30: TOURREKO SAILKAPENAK LEINU DESBERDINEN ISLA IZAN DIRA.	331
IRUDI 31: LEHEN MUNDU GERRA AURREKO ALE BAT.	333
IRUDI 32: EUSKAL HERRIKO PRENTSAN %2TIK GORAKO ISLA IZAN DUTE ZALEEK, PORTZENTAJERIK HANDIENA IKERKETAREN GAINERAKO BI NAZIO-IDENTITATE NAGUSIEKIN ALDERATUZ.	338
IRUDI 33: NAZIO LEINUAREN PRESENTZIA ESPLIZITUA.	344
IRUDI 34: ESPAINIAR ETA FRANTZIAR IDENTITATEEN ONDOREN, BELGIARRA DA GEHIEN AIPATZEN DEN IDENTITATEA (%3,8) EDUKI GUZTIAK KONTUAN HARTUTA.	353
IRUDI 35: GATAZKAREN ADIBIDEA.	359
IRUDI 36: , ABCk "PROPIO ALDE" KATEGORIAN DU EDUKI GEHIEN. HEMEN ADIBIDE BAT.	366
IRUDI 37: EGUNKARI GENERALISTA ETA KIROL-EGUNKARIA.	389
IRUDI 38: PROPIO ALDEKOTASUNA SAILKAPENAK EMATEAN ERE.	395
IRUDI 39: IKURREN PRESENTZIA OHIKOA DA TOURREAN. KASU HONETAN MAILLOTETAN.	398
IRUDI 40: FRANTZIAKO EGUNKARIEK "PROPIO ALDE" KOPURU HANDIA DAUKATE.	401

14.3 Grafikoen zerrenda

GRAFIKO 1: IRUDI/TESTU PORTZENTAJEA URTEALDIKA	287
GRAFIKO 2: INFORMAZIO/IRITZIEN PORTZENTAJEAK URTEALDIKA.....	291
GRAFIKO 3: INFORMAZIO MOTAK EGUNKARIKA.....	296
GRAFIKO 4: INFORMAZIO MOTAK URTEALDIKA	299
GRAFIKO 5: PROTAGONISTAREN GENEROA HERRIALDEKA.....	336
GRAFIKO 6: NAZIO-IDENTITATE GUZTIEN INTERPRETAZIO-MARKO KONBINATUA.....	378
GRAFIKO 7: 1978-2013 URTEALDIKO EMAITZA NAGUSIAK HERRIALDEKA KAZETARITZAREN PARAMETROETAN	382
GRAFIKO 8: HIRU NAZIO-IDENTITATEEN ENKOADRE OROKOR KONBINATUA.....	385
GRAFIKO 9: HIRU IDENTITATE NAGUSIEN ENKOADREA EGUNKARI GENERALISTA ETA KIROLEKOETAN	389
GRAFIKO 10: EGUNKARIAK: HIRU NAZIO-IDENTITATEEN ENKOADRE OROKORRA	390
GRAFIKO 11: EUSKAL HERRIKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATEA LEINU NAGUSIETAN	393
GRAFIKO 12: ESPAINIAKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATEA LEINU NAGUSIETAN.....	394
GRAFIKO 13: FRANTZIAKO PRENTSAK ERAIKITAKO NAZIO-IDENTITATEA LEINU NAGUSIETAN	396
GRAFIKO 14: NAZIO-IKURRAK LEINUEN ARABERA	397